

**MEMORIA
PARTEKATU
BATERANTZ
ANDAIN**

*1956TIK 2018RA BITARTE IZAN
DIREN GIZA ESKUBIDEEN
URRAKETEI ETA INDARKERIA
EKINTZEN TXOSTENA*

2018KO IRAILA

ARGITUZ, giza eskubideen aldeko elkartea

Ikerketa taldea:

Esnaola Corrillero, Jokin

Gamiz Iraola, Aintzane

Ormazabal Elola, Sabino

Salinas Beiztegi, Maitena

Arau esparrua:

Astigarraga Zulaica, Juana Mari

Pego Otero, Laura

Lege gordailua: ????????????????

ISBN: ??????????

Maketazio eta inpresioa: **antza** komunikazioa grafikoa

Ez dago egia bakar bat: pertsona adina bertsio daude hari buruz.
Hirokazu Kore-Eda

Gertaerak ez dira desagertzen haiei jaramonik ez egiteagatik.
Aldous Huxley

Terrorismoa amaituta "zauriak itxi eta zubiak berreraikitze" deia da. Indarkeria sekulako akatsa izan zen. Bai ETA eta bere inguruarena, bai Estatuaren estoldetan sortutako talde parapolizialena, baita segurtasun indarrena ere.

Rosa Lluch,
ETAk 2000. urtean hil zuen Ernest Lluch ministro sozialista ohiaren alaba¹

Ez da gauza bera justifikatzea edo gertatutakoa ulertzen eta testuinguruan jartzen saiatzea.
Adriana Faranda²

Bizirik ez duela ezer balio ikasi dut, baina baita ezerk ez duela bizirik balio ere.
André Malraux³

Bakea ez da sinadura bat, pentsamoldeak aldatzeko prozesu sozial oso bat baizik.
Alejandra Gaviria

1 *El Correo* 2017/09/27.

2 Brigada Gorrietako buruzagi ohi, Fernando Buesa Fundazioak 2013ko azaroaren 21ean eta 22an Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan antolatu zuen ekitaldi batean.

3 Marie José Basurcoren liburutik: *La exiliada*, 2012.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	7
2. Argazki-laburpena	11
3. Helburuak, edukia eta irizpideak	15
Motibazio politikoa	15
Astertutako denbora-tartea.....	16
Testigantzen bilketa	17
Kasuak sailkatzeko irizpideak	21
4. Arau esparrua: “biktima” kontzeptua eta biktimaren eskubideak ...	23
<i>Biktima</i> izaeraren eta biktimaren eskubideen inguruko nazioarteko adierazpenak eta gomendioak	23
Biktimaren estatutua europar legerian	27
Estatuko legedia	28
Autonomia Erkidegoko legedia	30
5. Giza Eskubideen urraketak Andoainen	35
Bizitzeko eskubidearen urraketak.....	45
Osotasun fisiko, psikiko eta moralerako eskubidearen urraketak	48
Giza Eskubideen beste urraketa batzuk.....	66
• Pertsonen kontrako mehatxu larriak eta jazarpen-indarkeria... 66	
• Estortsio ekonomiko.....	74
• Adierazpen askatasuna.....	76
• Ondasun higiezinaren aurkako erasoak.....	79
6. Argitzeko dagoen kasua	89
7. Beste indarkeria eta sufrimendu gertaera batzuk	97
8. Zenbait testigantza: indarkeriaz, GGEEen urraketez, bizikidetzaz eta memoriaz	105
• Pertsona elkarrizketatuen bizipenak	105
• Biktimak.....	126
• Memoria	141
• Bizikidetzaz	158
9. Testuinguruan kronologia: indarkeria-gertakari batzuk	181
10. Iradokizunak	263
11. Bibliografia eta iturriak	267

1.

Sarrera

Memoriak pluralean. “Era askotako memoriak daude –idatzi zuen Reyes Matek–. Eta ez naiz ari memoria subjektiboei buruz, horiek norbanakoak bezainbeste baitira”⁴. Reyesek aipatzen du, adibidez, historiak berezko ideia duela memoriari buruz, eta Primo Levi parafraseatzen du agian gertaera, ekintza eta egia bereizi behar liratekeela dioenean. Gogora dakarkigu Levik “desberdindu egiten dituela ekintzak, ezagun izan daitezkeenak, eta ezezagun diren gertaerak baina jazo direnak”. Eta honela jarraitzen du: “Ezagutzak berezkoa du judizioa edo intentzionalitatea, subjektuak proiektatzen duen argi berberarekin ikusten baitira gauzak”⁵. Horrela jarduten dugu lerro hauek irakurtzen ari garenotako bakoitzak.

Materen hitzetan, Leviren iritziz egia “ezagutaraztea da, ezkutuan dagoena agerian jartzea. Ez da geuk agerrarazten duguna, **agerian jartzen zaiguna baizik**”⁶. Eta horixe da, zehazki, Andoainen dugun erronka.

Imanol Zuberok, bestalde, John Berger dakar gogora honela dioenean: “Memoriak berekin dakar askapen ekintza bat. Gogoratzen den hori ezerezetik salbatua izan da. Ahaztutakoa abandonatuta gelditu da”. Eta honako hau eranstean du Zuberok: “Gogoratu ditzagun biktimak. Biktima guztiak, **beren aniztasun konplexuan**”⁷.

Guri dagokigunez, txosten hau sortzeko oinarritzko esparrua Nazioarteko Zuzenbideak Giza Eskubideei begira ezarrita duen printzipio unibertsaleko batean oinarrituta dago: “Eskubide zapalketa berak egia, justizia eta erreparaziorako eskubide bera merezi du”, diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatuta.

Zer eskatu behar diogu memoria partekatuari buruzko tokiko lan bati? Oinarri–oinarrian, udalerrian izandako edo udalerriko pertsonen jasandako eskubide urraketa eta gertaera bortitz ahalik eta gehien bildu ditzala, eta herrian dauden iritzi eta ideologiaren aniztasuna behar bezala erakutsiko duten testigantzak bildu ditzala, iritzi horiek egungo udal talde politikoen artean egon ala ez. Horrez gainera, alderdi metodologikoan, lanak kasuistikak ez nahasteko moduan egon behar du antolatuta, eta zehaztasuna izan behar du helburu, baita pertsonen memoria eta duintasunarekiko begirunea ere, ikuspegi guztietan.

4 MATE, Reyes (2011). “Deber de memoria”. Escudero Alday, Rafael (koord.). *Diccionario de memoria histórica. Conceptos contra el olvido*. Madril: Los libros de la Catarata, 15. or.

5 *Ibidem*, 19. or.

6 *Ibidem*, 19. or.

7 ZUBERO, Imanol. *El País del País Vasco*, 2004/07/20.

Ezin du kanpoan utzi ez ezer, ez inor. Horrexegatik, garrantzitsua da Andoaingo Udaleko Bizikidetzaren Mahaia osatzen duten udal talde guztiek aho batez hartu izana txosten hau egiteko erabakia.

Era berean, lehen esan dugunez, ezin dira kanpoan utzi beste ahots batzuk. Honako hau adierazi du argiro Asun Guerra Alonsok, Andoainen eta Urnietan PPko zinegotzi izandakoak, une honetan udal ordezkarietatik kanpo dagoenak:

*Nire ustez, memoria kontakizun erreal bat izatea nahi badugu, garrantzitsua da liburuan nire testigantza ere jasota egotea, ez M^a Asunción Guerra gisa bakarrik, baizik eta, azken batean, alderdi bateko kide eta ordezkari izateagatik nagoelako hemen. **Kontakizuna erreal izan dadin lortu nahi badugu, guztiok agertu behar dugu. Gehiago edo gutxiago gustatuko zait beste batzuei buruz esango dena, baina kontakizunean zati bat falta bagara, memoria ez da osoa izango, noski.***

Horregatik nago hemen. Zalantzak izan nituen, baina galdetuta, esan zidaten askatasun osoa izango nuela etorri ala ez erabakitzeke, eta, tira, azkenean gogoeta egin eta horixe pentsatu nuen: gu egon ezean Andoaingo memoriaren zati oso garrantzitsu bat faltako zela. Eta hementxe gaude.

Eta aurreko horrek kasu guztietarako balio du. Esan dezakegu bai elkarrizketatu ditugun biktimiek, bai testigantzak eman dizkiguten pertsonen ere ontzat hartzen dutela, ñabardurak ñabardura, noski, memoria kolektibo, bateratzaile eta partekatuetarantz jotzea.

Tokiko lan hau, hurbileko eremuan eginga, non hobeto ezagutzen dugun gertatutakoa eta sufri-mendua handiagoa den, "egien" (pluralean) bilketa bat da, eta lagungarria izan behar du honako hauetarako:

- gertatutakoa modu kritiko eta autokritikoan aztertzeke,
- argitu gabeko gertaerak argitzeke, eta
- egin gabeko errekonozimenduak eta erreparazioak egiteke.

Horrek herriko bizikidetzaren erraztuko du, bai orain, bai etorkizunean. Badakigu prozesuak bere denborak dituela, baina ezin dira gehiegi luzatu, horrek berekin ekarriko bailuke zauriak eta irai-nak bidegabeki areagotzea. Tokiko esperientziak lagungarri izan daitezke, eta horren adibide da Erreterria, erreferentzia bat aipatzearen.

Giza eskubideen alde lan egiten duen Argituz elkarteak *Orain da garaia. Posible al da esparru lokalean biktimen oroimen bateratzailea?*⁸ txostena argitaratu zuen 2012an, Carlos Martin Beristainek koordinatuta, eta bertan memoria bateratzaile orok berez izan behar dituen bost puntu aipatu zituen:

1. Giza eskubideen urraketa desberdinak bildu behar ditu, eta oinarritzko kritika moralala egin behar die horiei.
2. Errespetatu egin behar ditu egile desberdinen biktimen mina eta duintasuna edo "beste aldekotzat" jotzen diren biktimena edo politikoki urrun sentitu diren biktimena.

⁸ MARTIN BERISTAIN, Carlos (koord.) (2012). *Orain da garaia. Posible al da esparru lokalean biktimen oroimen bateratzailea?* Vitoria-Gasteiz: Argituz Giza Eskubideen Aldeko Elkarte.

3. Aurre egin behar die memoria bateratzaile batek dakarzkien anbibalentziei, eztabaidei edo eragin negatiboari "besteen aurka" erabili gabe.
4. Izan ditzakeen mugak onartu behar ditu, baina bizikidetzaren berrezartzeko egin dezakeen ekarpena izan behar du ardatz.
5. Desberdintasun politikoetatik harago, giza eskubideekiko errespetua ezarri behar du oinarri komuntzat.

Horretarako balio behar du txosten honek, eta Udaleko Bizikidetzaren Mahaiak arduratu behar du elkarrekiko errekonozimenduarekin eta jarrera nahiz bizipen desberdinekiko enpatiarekin zerikusia duten alderdi horiek edo beste batzuk garatzeaz, "gureetakoak" ez direnei buruzko estereotipo negatiboekin amaitzeko eta aurrez aurre izandako hori berriro humanizatzeke. Baina hori ez da zeregin erraza izan, eta ez da erraza izango. Agerian geratu da elkarriketatutako pertsona baten kasuan, zeinak, bihotza irekita, kontatu zigun –bere laguna hil zuten tokiaren ondoan– ezin diela bere "gizatasuna" eskaini sufriarazi dioten horiei. Baina. Baina. Baina... horren jakitun izanda ere, ate bat ireki nahi izan die etorkizunari eta bizikidetzari bere alabaren bidez, biktima berau ere. Alabak gaiarekiko jarrera irekiagoa zuela jakitun, hura elkarriketa genezala eskatu zigun. Eta hala egin genuen. Ñabardura horiek guztiak irakur daitezke lan honetan.

Ekimen berriei bide egiteko garaia da. Txosten honek osatugabea izaten jarraituko du; memoria kolektiboa etengabe eraikiz joango da denboran zehar, eta beste lan batzuk egin beharko dira honen atzetik; akatsak eta hutsak zuzendu beharko dira, datu eta egia berriak erantsi. Baina dokumentu hau oinarri baliotsua da oraina eta etorkizuna bizikidetzan eta elkarrekiko errespetuan oinarrituta eraikitzeke, baina gertatutakoa ahaztu gabe, geroko belaunaldiek jazotakoa ezagutu eta gure hutsegitetik ikas dezaten.

Funtsean, pentsamendu soziala oroitzapen kolektiboz osatutako edukia duen memoria bat da. Hain zuzen ere, gizartean bizirik dirauten oroitzapenak dira gizarteak berak berreraiki ditzakeenak, egungo esparruak landuz⁹.

Horri dagokionez, Peio Urrutia Ochoak *Leyçaur*¹⁰ argitalpenean idatzita utzi duen ohar bat aipatu nahi dugu: "Edonola ere, nik deskribatu edo aztertu dudana ezertxo ere ez zen 'zehatz-mehatz horrela' jazo. Gauza jakina bada ere, gogoan izan **errealitateak foku anitzekoa behar duela izan, errealitate izango bada**".

9 HALBWACHS, Maurice (2004), *Los Marcos sociales de la memoria*. Barcelona: Anthropos.

10 URRUTIA OCHOA, Peio (2010). "Doce mil tres: Apuntes para el final de una década. (Andoain, 1966–1970)". *Leyçaur*, 11. zk.. Andoaingo Udala.

2.

Argazki-laburpena

Aurretik azaldutako gidalerroak aintzat hartuta, honako hau da indarkeriazko hirurogei urte horietan Andoinen izandako urraketen argazki/laburpena:

- ETAk hildako 5 pertsona eta atentatu zapuztu 1; BVEk edo Triple Ak hildako 3; eta hiru hildako modu bortizki herrian edo herrikoak;
- larri zauritutako 24 pertsona: ETAk zaurituak (3), kale borrokan zaurituak (4), komando ultra batek zaurituak (1) eta polizia indarrek zaurituak (18);
- bizirik atera eta oraindik aztarna fisiko eta psikologikoak dituztenak, zenbait senide edo adiskideren antzera;
- segurtasunerako eskolta behar izan duten 30 pertsona;
- bizitokia utzi eta kanpora alde egin behar izan zuten pertsona kopuru zehaztugabea;
- udalerrian/udalerriko 205 atxilotuen artean torturak edo tratu txarrak jasan izana salatu duten 78 pertsona;
- 8 pertsona eta famili bateko beste 4 pertsona bahituta;
- estortsio ekonomikoak jasan dituzten pertsona, enpresa eta erakunde kopuru zehaztugabea;
- etengabeko mehatxuak, era askotakoak;
- ETArek eta Komando Autonomoen 13 atentatu, kalte pertsonalik gabeak; talde parapolizialen 21 atentatu, kalte pertsonalik gabeak; 126 sabotaje edo kale borrokako eraso erakunde, ibilgailu eta hainbat eratako ondasun materialen aurka;
- familia etxebizitzan eta kotxeen aurkako erasoak;
- gutxienez 5 aldiz hustu dituzte etxebizitzak ordu txikitara, suaren eta kearen ondorioz; 6 pertsona artatuak osasun zentroetan arrazoi horrengatik;
- familia askoren beldurra etapa guztietan;
- zigorgabetasuna kasu askotan;
- euskaraz argitaratzen zen egunkari bakarraren itxiera, Auzitegi Nazionalak “prentsa askatasuneko injerentzia” gisa epaitu zuena handik urte batzuetara;
- behar bezala ebatzi eta argitu gabeko kasuak;
- era askotako sufrimendua...

ANDOAINEN MOTIBAZIO POLITIKOAREN TESTUINGURUAN IZANDAKO GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK

	1956 1975	1976 1982	1983 2018	Guztira
ETA, ETAm eta Komando Autonomoak				
Hildakoak	–	2	3	5
Huts eginiko atentatuak	–	1	–	1
Zaurituak	–	3	–	3
Xede ekonomikoengatik bahitutakoak	–	1	1	2
Autoa lapurtzeko bahitutakoak	–	3	2	5
Eskolta behar zuten pertsonak	–	–	30	30
Estortzio ekonomikoa				Zehaztugabea
Heriotza mehatxuak eta beste batzuk				Zehaztugabea
Zauriturik gabeko atentatuak	2*	6	5	13
Talde parapolizialak, BVE, AAA				
Hildakoak	–	3	–	3
Zaurituak	–	1	–	1
Galdeketa egiteko bahitutakoak	–	1	–	1
Xede ekonomikorako bahitutako familia bat	–	1	–	1
Zauriturik gabeko atentatuak	–	20	1	21
Heriotza mehatxuak eta beste batzuk				Zehaztugabea
Estatuko segurtasun indarrak				
Larri zaurituak	9	9	–	18
Tortura/tratu txarrengatik salaketak	37	15	26	78
Isunak, deportazioak, kaleratzeak, baimen edo agiriak kentzea...	Zehaztugabea			Zehaztugabea
Beste batzuk: salbuespen egoerak	7	–	–	7
Beste batzuk: Egunkariaren itxiera**			1	1

	1956 1975	1976 1982	1983 2018	Guztira
Kale borroka, sabotajeak eta indarkeriazko protestak				
Zaurituak	-	-	4	4
Erakunde, egoitza, sukurtsalen... aurkako erasoak, zauriturik gabe	-	2	125	127
Heriotza mehatxuak eta beste batzuk				Zehaztugabea
Beste sufrimendu batzuk				
Hobeto argitu beharreko heriotza kasuak			1	1
Heriotza biolentoko beste kasu batzuk	1		1	2

* Sabotajeak.

** 2010eko apirilean, Auzitegi Nazionalak *Euskaldunon Egunkaria* kasuko auzipetu guztiak absolutu zituen, eta "prentsa askatasuneko injerentziatzat" jo zuen egunkariaren itxiera.

3.

Helburua, edukia eta irizpideak

2017an, txosten hau egitea proposatu zion Andoaingo Udaleko Bizikidetza Mahaiak Argituz Giza Eskubideen Aldeko Elkarteari. Elkarreak *Memoria partekatu baterantz / Hacia una memoria compartida* izeneko txostenen ezaugarriak eta horietan erabilitako metodologia zehaztu zizkion; une hartara arte, Errenterian, Lasarte–Orian eta Elgoibarren eginak zituzten txostenak, 2015etik 2017ra bitarte, eta Arrasaten horretan ziharduten. Proposamena gustatu zitzaizen, eta lanean hasi ginen.

Lehenengo zeregina kronologia zabal bat prestatzeko datuak eta argitalpenak biltzea izan zen, eta lan hura amaitutakoan, 2018ko lehen hilabeteetan, udal talde politikoeekin biltzen hasi ginen, haietako bakoitzak egin beharreko lanari begira zer xede zeuzkan eta zer itxaropen eta zailtasun aurreikusten zituen ezagutu eta egiaztatzeko. Horrez gainera, Udaleko talde bakoitzak elkarrizketatzeko pertsona posibleak proposatu zituen, eta proposamen hori Argituzeko taldeak osatu zuten hurrengo hilabeteetan. Pertsona horiekin eta beste batzuekin egin genituen egiaztapenak.

Motibazio politikoa

Lan honek ez die heltzen gure gizartean diren indarkeria guztiei. Helburua ez da indarkeria mota guztiak nahastea, nahiz eta egunen batean irakurketa osoa ere egin daitekeen agian.

Abiapuntutzat hartuta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak 2008an argitaratu zuen *Motibazio politikoko indarkeria–egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena*¹¹ izeneko dokumentuan garatutako lehen irizpide batzuk, “euskal kasu” izendatutakoari lotuta motibazio politikoko testuinguruan gauzatu izan diren giza eskubideen urraketak eta indarkeriazko beste gertaera batzuk deskribatzera mugatuko gara. Neurri batean, kontzeptuaren izendapen murritzalea da, politikoak baitira, halaber, immigrazioarekin lotutako gertaerak, arrazakeriarekin edo xenofobiarekin lotutakoak, indarkeria matxistarekin edo genero indarkeriarekin zerikusia dutenak, gizarte bazterkeriarekin lotutakoak eta segurtasunarekin erlazionatuak, oro har.

Hori dela eta, kontzeptu honen erabilera modu deskribatzailean ulertu behar da, indarkeria mota desberdinak ez nahasteko, eta “motibazio politikoa” erabili behar da azterketarako irizpide berezi gisa. Azken batean, deskribatutako testuinguruan aipatzen diren indarkeria motak sailkatzeko

11 LANDA, Jon Mirena (2008) *Motibazio politikoko indarkeria–egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena*. Eusko Jaurlaritza, Giza Eskubideen Zuzendaritza.

tresna bat da. Indarkeria horren irudia osatzen laguntzen du, ez du inolaz ere justifikatzen, ezta eragindako kalteak gutxiesten ere, hau da, ezaugarri horren bitartez, ez da inolako baloraziorik egiten.

Testu honetan zehar, giza eskubideen urraketak eta bestelako indarkeriazko gertakari batzuk izendatzeko “politiko” adjektiboa txertatzen denean, nazioarteko zuzenbideak interpretatzen duen adiera berarekin erabili da. Hain zuzen, izaera hori duten delituak adierazi asmoz eta ondoko zehaztapenez:

- Indarkeriazko ekintza gauzatzen duenak (biktimarioa) edo hautatutako biktimak (edo biktima taldea), giza eskubideen urraketa jasango duenak, edo batak zein besteak dute izaera “politiko” hori.
- Gauzatzen diren indarkeriazko ekintzek estatus politikoa zein legeak aldatzeko xedea dute edota hori aldarrikatzen dute. Alderantziz ere izan daiteke: xede horretan ahalegintzen direnak jazarri eta zigortzen dira, terrorismoaren aurka borrokatzeko edo kalte larriagoak saihesteko dela esanda justifikatuz.
- Gizartean edo politikan inpaktua eragin nahi da, edo herritarrak geldiarazteko beldurra sorrarazi nahi da, edo eskarmentu gisa erabiltzen da. Ez da justizia laguntzen, ez da ikeritzen, zigorgabetasuna ematen da...

Aztergai dugun garaia

Txosten hau 1956an hasten da. Zergatik? 1955eko abenduan Espainia Nazio Batuen Erakundean (NBE) sartu bazen ere, hiru hilabete geroago, 1956ko otsailaren 10ean, Francoren erregimenak Espainiako Estatuko lehen salbuespen egoera ezarri zuen. Neurri hark ez zuen lotura zuzenik Gerra Zibilarekin, eta ikasle mugimendu hasiberria eta 1947ko nahiz 1951ko deialdi arrakastatsuen ondoren 1956an zehar hedatzen ari ziren langile grebak zapaltzea zuen helburu. 1936ko kolpe militarretik hogeitau urte igaroak ziren, eta belaunaldi berri batek, gerra ezagutu ez zuenak, beste parametro batzuetatik egin zion aurre diktadurari, aurrez aurre zuela gobernu frankista, ordurako NBE-n onartua.

1956a urte garrantzitsua izan zen, halaber, erbesteratutako Eusko Jaurlaritzak Munduko I. Euskal Kongresua antolatu baitzuen Parisko Palais d’Orsayn. Biltzarrak oihartzun handia izan zuen, eta kultura, diaspora, politika, sindikatu eta beste zenbait arlotako 300dik gora biltzarkide bildu zituen. Bertan berretsitako ondorio ugarien artean, ELAk, CNTk eta UGTk izenpetutako 17 proposamen onartu ziren, gerora Euzkadiko Aliantza Sindikala sortzeko balioko zutenak.

1956a erreferentziazko urtea da, halaber, urte hartatik aurrera Espainiako Alderdi Komunistak (PCE) adiskidetze estrategia bat proposatu zuelako, mugimendu antifrankistaren estrategia eragina izan zuena. Zenbaiten ustez, gainera, urte hura euskal kulturaren gerraosteko pizkundearen hasieratzat har daiteke. Iaz, *Jakin* aldizkariaren zuzendariak bereziki nabarmendu zuen 1956ko idazleen belaunaldiak egindako ekarpena: “Euskara eta euskal kultura zentralitatean jarri ditu belaunaldi horrek”¹². Urte hartan, Euskaltzaindiak bere lehen bilera orokorra egin zuen Arantzazun.

12 AGIRRE, Lorea. www.berria.eus/ 2017-11-16

29/2011 Legea, irailaren 22koa, Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babestekoa, eta hura garatzeko dekretua¹³, hurrengo atalean zabalago landuko dena, atzeraeraginez aplikatzen da, 1960ko urtarrilaren 1etik aurrera jazotako gertaera guztietarako. Urte hartako ekainean Amarako (Donostia) geltokian Begoña Urroz neskatxa ETAk hil zuela uste zelako hartu zuten erabaki hori. Ondoren frogatuta geratu da DRIL taldeak¹⁴ hil zuela, baina 1960a erreferentziatzeko urtea izan da Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren zenbait lanetarako. Era berean, txosten hau prestatzeko elkarrizketatu ditugun pertsonetako batzuek nahiago izango zuten hasiera urtea 1936a izatea, baten batek baita 1931 ere, eta beste batzuek 1977an edo 1978an kokatuko lukete hasiera.

Aipatutako data guztiek badute azalpenik. Gure ustez, gai horretan ere begirada malguagoa behar dugu, memori partekatu baterantz jo nahi badugu. 29/2011 Legea garatzeko dekretua frankismoaren bigarren etapan sartuta, 1956an hasia dela iruditzen zaigu. Are gehiago kontuan hartuta 1956tik 1960ra bitarte frankismoaren bigarren erdia aldatuko zuten zenbait gertaera jazo zirela, hala nola Opus Dei taldea Francoren Gobernuan sartzea 1957an eta ETaren sorrera 1958ko abenduan. Bestalde, ezin ditugu aitortu gabe utzi frankismoaren azken urteetako biktimak, baina hori bai, testuinguru historikoak bereizita.

Memoria historikoa udalerrri askotan ari dira lantzen, Andoinen *Oroituz Andoainen* taldeak egiten duen moduan. Udalak berak azter dezake talde horrek lantzen duen garaia buruzko argitalpen bat egin nahi ote duen. Arrasaten, adibidez, bi txosten argitaratuko dituzte, lehenengoa *memoria historikoarena* eta bigarrena, aldiz, *azken urteetako memoriarena*; etorkizunean garatzeko aukera bat izan daiteke.

Gauza guztiek hasiera eta amaiera dituztenez, txosten hau dokumentua Bizikidetzeta Mahaiari aurkeztean amaitzen da, 2018ko irailean.

Testigantzak biltzea

25 elkarrizketa egin ditugu eta, beste kasu batean, galdeketa igorri da –29 pertsonak parte hartu dute elkarrizketa horietan: 16 emakumek eta 13 gizonen eman digute beren testigantza–, eta 21 bilera–solasaldi pertsonal, datuak egiaztatzeko eta informazioa zabaltzeko. Pertsona horietako batzuk udal talde politikoek proposatu dituzte, eta gainerakoak talde honek aukeratu ditu, ikerketa garatzen zihoan heinean.

Elkarrizketetan eta egiaztapenetan parte hartu duten pertsonen artean, biktimen eta biktimen senideen nahasketa interesgarria dago, eta jasota daude udalerriko ñabardura eta sentsibiltate ideologiko ugari. Zerbaiten falta sumatzekotan, jende gaztearen partaidetzarena izan da, haien adinaren ikuspegitik gai hauei buruzko iritzia ematera eta azterketa egitera ausartuko ziren gazteena. Hutsune hori betetzea erronka dugu hurrengo lanetarako.

13 671/2013 Errege Dekretua, irailaren 6koa, 29/2011 Legearen Erregelamendua onartzekoa.

14 Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación, 1959–1964.

Hona hemen testigantza eman duten pertsonak, alfabetikoki ordenatuta:

- **ALBERRO IRIZAR, Agustín.** EH Bilduko zinegotzia eta Gobernu Batzarreko kidea Andoaingo Udalean. Eyherrren eta Orbelan Plásticos enpresetan lan egin zuen ofizial tekniko gisa, eta orain erretiratuta dago. HBko zinegotzi izan zen Zizurkilen 1979 eta 1987 artean, eta 1991tik Andoainen izan da zinegotzi, hainbat legegintzalditan.
- **AMUCHASTEGUI ARREGUI, Estanis.** PCIko (ondoren PTE) eta JGRko arduradun izan zen. CSUTko eta CCOOko afiliatua izan zen. EEko kide izan zen, eta alderdi hura PSE–PSOErekin elkartu zenean, PSE–EEko kide bihurtu zen. Alderdi horrekin alkate, alkateorde eta bozeramaile gisa aritu zen Udalean hainbat legegalditan. Berak eta bere familiak hainbat atentatu eta eraso jasan zituzten.
- **AMUCHASTEGUI DÍAZ, Nerea.** Marrazketa Teknikoko profesionala. Familiaren etxebizitzaren aurkako eraso baten biktima da (Estanisen alaba), eta gaur egun atentatu horren ondoriozko aztarnak ditu.
- **AMONDARAIN AIZPURUA, Antonio.** Andoaingo Udaleko zinegotzia izan da bi legegalditan, eta EAJ–PNVko presidentea hamabost urtean zehar.
- **ANSA ETXEBERRIA, Mari Karmen, Imanol eta Ixidro, eta CUELI ZABALA, Luisa, Joxe Ramón** Ansaren arreba, anaiak eta koinata, hurrenez hurren; Batallón Vasco Español (BVE) taldeak hil zuen, 1979an.
- **ARREGI ARANBURU, Mikel.** Ikusentzuneke arloan lan egin du. EAJ–PNVko zinegotzi bezala 1991tik 2007ra. 1999–2003 eta 2003–2007 legegaldietan EAJ–PNVko zerrenda burua izan da. Kale borrokako erasoak izan ditu.
- **ARTOLAZABAL IBARRONDO, Mari Paz.** Andoaingo Aita Larramendi Ikastolako lehen andereñoetako bat izan zen. José Luis López de Lacalleren alarguna; ETAk hil zuen 2000. urtean.
- **BARANDIARAN EZAMA, José Antonio.** Euskal Herritarrok (EH) alderdiko alkate izan zen 1999tik 2003rako legegaldian, eta HBko zinegotzia bi legegalditan: 1983–1987 eta 1987–1991. 1973an eta 2008an atxilotu egin zuten, baina azkeneko honetan aske utzi zuten, kargurik gabe.
- **CORREAS DÍAZ, Manuel.** Euskadiko Alderdi Komunistako kidea, CCOOko eta EMK–OICEko militantea izan zen, eta Ezker Batuko zinegotzi izan zen 2003tik 2007ra bitarte. Orbegozotik kale-ratuta, PCEk Andoinen zuen egoitza/taberna gobernatu zuen 32 urtez.
- **DÍAZ ARRIBA, Elías.** Erretiratua. Euskadiko Alderdi Komunistako (PCE) eta Euskadiko Ezkerrako (EE) kidea izan zen. Bruneteko Enpresa Batzordean parte hartu zuen, enpresa itxi zuten arte. Torturak jasan zituen 1971ko atxiloaldi batean.
- **ELUSTONDO ZALAKAIN, Pedro.** Arrantzako zainzailea. EKA/Alderdi Karlistako kidea izan zen 1979ra arte, eta ondoren Euskadiko Ezkerrarekin kolaboratu zuen. Gaur egun, Irabazi koalizioan dago, eta CCOOko afiliatua da.
- **GARRALDA ARIN, Mila.** Erretiratu aktiboa. Urte asko egin zituen udalerriko auzo elkartean eta zineforumean lanean. Gaur egun Cáritasen laguntzen du.
- **GUERRA ALONSO, Asun.** Medikua. PPko zinegotzia Andoinen 2007–2011 eta 2011–2015 legegaldietan, eta Urnietako zinegotzia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako kidea 1999–2003 eta 2003–2007 legegaldietan.
- **IGUARAN GARMENDIA, Bakartxo.** Andoainen jaioa eta bertako bizilaguna, liburuzaina da Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegian. Elkarriko kide izan zen.

- **IRÍGORAS ETXEBESTE, Patxi.** EAJ–PNVko alkatea 1983tik 1987ra; zinegotzia 1979tik 1983ra eta 1987tik 1991ra, eta batzarkidea 1991tik 1995era.
- **LAINEZ LAZCOZ, Mainer.** Industria Ingeniaritzan eta Industria Antolakuntzan lizentziaduna. 2011tik PSE–EEko zinegotzia Andoaingo Udaletxean eta udal taldearen bozeramailea egungo legegaldian.
- **LEKUONA BARRERAS, Xabier.** Kazetaria. *Euskaldunon Egunkaria* argitalpenean zuzendariorde lanak bete zituen, 2003an itxi zuten arte. 1991n Guardia Zibilak atxilotu zuenean torturak jasan izana salatu zuen.
- **LIZARRALDE URRETA, Ixiar.** Jon Lizarralderen arreba; Lizarralde ETako militantea zen, eta Guardia Zibilarekin izandako liskar ilun batean hil zen, Irunberriko Arroilan, 1990an.
- **MUJIKA TOLARETXIPI, Miren.** Piano, abesbatza eta ahots musikaleko irakaslea Loatzo Musika Eskolan. Herri Batasunako zinegotzi ohia Andoaingo Udalean.
- **OLAITZ ORTIGOSA, Zuriñe.** Osakidetzako langilea. ETak 1978an hil zuen Ignacio Olaitz Mitxelena alaba.
- **OTAEGI NEGREDO, Karmele.** Andoaingo Udaleko artxibozaina. Hainbat lan idatzi ditu, hala nola “La transición en Andoain desde la perspectiva de la izquierda” izenekoa, *Leyçaur 5* aldizkarian argitaratua.
- **PAGAZAURTUNDUA RUIZ, Maite.** UPyDko diputatua Europako Parlamentuan. Urnietako zinegotzi ohia (1999–2007). Terrorismoko Biktimen Fundazioaren lehendakaria (2005–2012). Joseba Pagazaurtunduaren arreba.
- **RODRÍGUEZ RANZ, Inés.** Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeko kide aktiboa izan zen. Krafft enpresako langilea.
- **ROMERO POZO, Petri.** PSE–EEko zinegotzia 2007az geroztik, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako kidea 2015az geroztik. Gazte Sozialistak taldeko kidea izan zen, eta ostalaritzaren eta turismoaren gremioan lan egiten du. Bizkartzaina izan zuen zenbait urtez.
- **VELA ARBURUA, José Luis.** PSE–EEko zinegotzia Andoaingo Udalean 1995etik 2015era bitarte. Garai batzuetan, PSE–EEko udal taldearen bozeramailea izan da. Kale borrokako erasoak jasan zituen, eta bizkartzaina izan zuen hamabi urtez.
- **ZABALA LASARTE, Ainhoa.** 4 urteko neskatxa baten ama; alabaren aita espetxean dago, ETako kide izateagatik. Gazte–gaztetatik izan da Amnistiaren Aldeko Gestorak, Askatasuna, Herrira eta beste erakunde batzuetako kide.
- Esan dugunez, aipatutako 29 pertsonen gain, txosten hau idatzi duen taldeak beste 20 pertsonaren ekarpena ere jaso du, izan udalerrikoak, izan udalerriarekin zerikusia dutenak, eta haiek emandako datu eta informazioa lagungarriak izan zaizkigu Andoaingo azken urteetako historiaren argazki ahalik eta osatuena egiteko. Pertsona hauek izan dira:
- **ANSA ZINKUNEGI, Ramón.** Francisco Javier Ansaren anaia, zeina BVE taldeak hil zuen 1981ean. EAJ–PNVko zerrenda buru izan zen 1979an, eta hauteskundeak irabazi zituen, baina EE, EMK eta PSE–PSOE alderdiek botoak batu zituzten, eta ez zuen alkatetza lortu. Zatiketaren ostean, EAn sartu zen.
- **ARBERAS EZAMA, Xabier.** Bankuko langile ohia, erretiratua. LAIAko kide ohia.

- **ARIN PAGOAGA, Antonio.** Krafft enpresako administrazio buru ohia.
- **BALTASAR ARREGI, Haizea.** Fiare Banka Etikoa Elkarteko kidea.
- **CARRERE ZABALA, Ana.** Andoaingo Udaleko egungo alkatea. Heziketa Fisikoan eta Kirolaren Zientzietan lizentziaduna. Hainbat heriotza mehatxu jaso ditu alkate izanda.
- **FERNÁNDEZ MOURINHO, Luis Jorge.** Irabazi Ganar Andoain taldearen bozeramailea.
- **GARCÍA DE LA CALLE, Daniel.** PSE–EEko zinegotzia. Analista gisa OASA Transformadores enpresan izandakoa.
- **GARCÍA GARCÍA, Xabier.** Filologoa. Gaztelaniako irakasle erretiratu.
- **GOIBURU MENDIZABAL, Juan Miguel.** “Goierri”, ETApm–ren VII. Biltzarreko burukidea. Talde hark armak utzi zituen 1982an. Mikel Gardoki andoaindarrarekin zegoen hura Ergobian hil zutenean 1975an. “Goierri” bala batek jo zuen, eta atxilotu egin zuten. Torturak salatu zituen.
- **HERNÁNDEZ MONTERO, Olga.** Ganemos Andoain Irabazi udal taldearen bozeramailea. Geografian eta Historian lizentziaduna. Frantseseko irakaslea da eta gaztelania eskolak ematen dizkie atzerritarrei.
- **HERZOG DE BUSTOS, Chema.** Andoaingo albaitari titularra izan zen 1983tik 1989ra, eta udal hiltegiako zuzendaria. Andoaingo PPko zerrendan joan zen 2003ko udal hauteskundeetan. Joseba Pagazaurtunduaren eta José Luis López de Lacalleren laguna. PPko zinegotzi ohia Erreterian.
- **IRIARTE OTERMIN, Ildfonso.** SAPAko langile ohia da, eta HOAC taldetik egungo Andoaingo LHko Eskola sustatu zuen Eugenio Arregirekin batera. Bi aldiz atxilotu zuten, 1961ean eta 1962an, eta baita torturatu ere.
- **IZAGIRRE ITURZAETA, Mari Jose.** EAJ–PNVren udal taldearen bozeramailea. Talde horretako zinegotzi 2007tik.
- **LASA BERGARA, Xabier.** Oroituz Andoainen elkarteko kidea, eta zenbait argitalpen eta libururen egilea. *Aiurri* argitalpeneko kolaboratzailea eta zutabegilea.
- **OLAZABAL IÑURRITA, Jesús M^a.** ETAko Bulego Politikoko kide ohia, ETA Berriko kide ohia, CCOO–ko kide ohia eta Euskal Herritarrok–eko zinegotzi ohia. Zinegotzi zela, erabat gaitzetsi zuen Joseba Pagazaurtunduaren hilketa. Frankismoan torturak salatu zituen, eta Ordena Publikoaren Auzitegian epaitu zuten.
- **OTAMENDI GUTIÉRREZ, Iñaki.** Eragile soziokulturala. Antimilitarista.
- **SALVADOR SARASOLA, Mikel.** Triple A taldeak 1977an hildako David Salvador taxilariaren semea.
- **TRUTXUELO GARCÍA, Marta.** Historialaria eta Andoaingo Udaleko Agiritegiako langilea. Hainbat mikroipuin lehiaketa irabazi ditu.
- **URRUTIA GALARRAGA, Ramón.** Zeladore erretiratu. EB–Aralar alderdien zerrendan joan zen 2007ko udal hauteskundeetan, Aralar taldearen ordezkari gisa.
- **VILLAFÁÑE CAMPO, Blanca.** Juvenal Villafañe García guardia zibilaren alaba; ETAk hil zuen, 1993an.
- **ZULUETA BERAESTEGI, Jon.** Gaur egun, Andoaingo Udaleko hirugarren alkateordea da, EH Bilduko kidea.

Kasuak sailkatzeko irizpideak

2005eko abenduaren 16an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak, bere 64. osoko bilkuran, 60/147 Ebazpena onetsi zuen: "Giza eskubideen gaineko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak jasan dituzten biktimek errekurtsioak jartzeko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarrizko printzipio eta arauak". Bertan, XI. printzipioa biktimen arteko bereizketarik ezari buruzkoa da, eta hau dio:

25. Oinarrizko printzipio eta arau hauen aplikazioa eta interpretazioa bat etorriko dira, salbuespenik gabe, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauekin eta nazioarteko zuzenbide humanitarioarekin, eta ez da inola ere bereizkeria onartuko, mota eta arrazoia zeinahi direla ere.

Printzipio hori ukatzeko, batzuk kasu guztiak zaku berean sartuta dena nahasi nahian dabiltzala dioen kritika erabiltzen da. Gai horri dagokionez, proposa iruditzen zaigu gogora ekartzea Argitutuz elkarteak 2015ean idatzitako artikulua bat, oraindik indar betean dagoena:

Topiko ugari baztertu behar ditugu, arinkeriaz tratatzen baitituzte giza eskubideei loturiko gaiak eta, azken batean, giza eskubideen kontra egiten dute. Azken aldirian gehien erabili den topikoetako bat da ezin direla ETArekin biktimak eta beste biktima batzuk parekatu, parekaezinak direlako. Dirudienek, beste biktima batzuk ere badaudela aitortuz gero, terrorismoari zilegitasuna ematen zaio. Hala ere, beste biktima batzuk ere aitortzea giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat itunetan ezarritako betebeharrak betetzea da, eta itun horiek diotena betetzeak inori zilegitasuna ematen badio, Zuzenbide Estatuari ematen dio zilegitasuna, ez terrorismoari¹⁵.

Dena ez da berdina, baina memoria partekatu batean ez da ezer ahaztu behar. Bizitzeko eskubidearen urraketak dira lehentasuna. Hala ere, urte hauetan pairatu den sufrimendu guztia bildu behar da, nahastu gabe, modu ordenatuan, batzuk eta besteak alderatu gabe, bizikidetza berriz ere eraiki ahal izateko. Memoria partekatu batean ezin daiteke ezer ahaztu. Giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbide-estandarren arabera sufrimendu guztia giza eskubideen urraketa baten ondorio ez denez, beharrezkoa da gertatutako guztia behar bezala sailkatzea eta ordenatzea, jarrera irekiarekin. Horrez gain, sailkapen horrek inklusiboa izan behar du, biktima guztiek memoriarako duten eskubidea bermatzeko eta euren saminarekin bizipena islatua ikus dezaten. Hori dela eta, honako bi esparru bereizi ditugu:

1. Giza eskubideen urraketak

Lan honek aztertzen dituen giza eskubide nagusiak bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta psikologikorako eskubidea dira. Horrez gain, beste era batzuetako indarkeriei buruzko datuak eta lekukotzak ere jasotzen saiatu gara: askotariko jazarpenak, pertsonen aurkako mehatxu larriak, estortsio ekonomikoa, adierazpen askatasuna ukatzea, askatasun demokratikoak ukatzea edo ondasun higiezinak egindako erasoak, bakoitza bere garrantzi-mailarekin.

15 ARGITUZ. "No habrá comparaciones si no se discrimina". *El Correo* eta *El Diario Vasco*, 2015-11-05.

Giza eskubideen nazioarteko arauen urraketak eta giza eskubideen urraketa larriak jasan dituzten biktimei, egia eta justiziaz gain, jasotako kaltearekiko proportzionala den erreparazioa ere bada-gokie. Erreparazio horrek ondoko elementu hauek hartuko ditu barne: lehengoratztea, kalte-or-dain ekonomikoak, birgaitzea, beharrak asetzea eta errepikatuko ez dela bermatzea. Eta hori era-kundeen artean egin behar da.

Horri dagokionez, Andoaingo Udalak, udalerrri-mailan, dagozkion jarduketak egiten jarraitu beharko du memoria berreskuratzeari eta udalerriko biktimak aitortzeari dagokionez, eta falta diren kasuak txertatu beharko ditu. Hauek dira, besteak beste, bere egitekoak: laguntzea, omenaldiak egitea, oroitze-ko ekitaldiak egitea, gertatutakoa hainbat bitartekoren bidez ezagutaraztea (topaketak, ikus-entzunezkoak, erakusketak, hezkuntza eta transmisiorako proiektuak...), behar bezala argitu ez diren gertakari buruzko tokiko ikerke-tak sustatzea... Horretarako, mesedegarria izango litzateke erakundeen arteko koordinazioa, sinergiak elkartzeko, informazioa eta irizpideak trukatzeko eta lan bera ez bikoizteko.

2. Beste sufrimendu batzuk

Ikuspegi juridiko batetik, aurreko atalean aztertu diren urraketa egoerez gain, badaude beste hainbat kasu nazioarteko giza eskubideen estandarren arabera zehazki giza eskubideen urrake-tatzat hartzen ez direnak.

Aipatutako egoerek bere konplexutasuna eduki arren, izaera politikoa duten gertakari bortitzak dira, baina ezin dira inolaz ere giza eskubideen urraketekin alderatu. Hala ere, ezin dira bazter utzi, gure historiaren parte direlako eta gertakari bortitz horien atzean ere sufritu duten eta sufritzen duten gizakiak daudelako. Gainera, kasu batzuk ez dira behar bezala ikertu, familia eta abokatu batzuen iritziz, eta zauriak benetan ondo osatu nahi baditugu beharrezkoa da horiek argitzea.

Horregatik, kasu hauek beste atal batean jaso dira, argi eta garbi gera dadin zer den eskubideen urraketa bat eta zer ez. Horrekin, gainera, ahal den neurrian gaizki ulertuak ere saihestu nahi dira, gertatuko diren arren. Eta hori ulergarria da hainbeste urtetan pilatu den mina eta gorrotoa kon-tuan hartuta.

Giza eskubideen urraketa larria jasan duten biktimen prozesua era egokian bi-deratu ondoren, Arrasateko Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guz-tien adostasunez, eman beharreko hurrengo urratsak zehaztu beharko lituz-kete, nazioarteko estandarren arabera giza eskubideen urraketatzat hartu ezin diren gertakari horietan bizia galdu edo larriki zauritu ziren pertsonak udale-rri-mailan nola oroitu aztertzeke.

4.

Arau-esparrua: *biktima* kontzeptua eta haren eskubideak

Orri hauen helburua da azalpen bat ematea, laburra bada ere, biktima kontzeptua zehazten eta haien eskubideak mugatzen dituzten arau nagusien –eta giza eskubideen nazioarteko sistemako beste tresna batzuen– irismena eta edukia ulertzen laguntzeko. Horretarako, nazioarteko esparrua zehaztuko dugu, gero Europako nazioz gaindikoa aipatuko dugu, eta, azkenik, estatukoa eta autonomikoa. Nolanahi ere, ez da tresna horietako bakoitzaren azterlan zorrotz bat; aldiz, biktima kontzeptua eta haien eskubideak zehazterakoan erabakigarriak izan direnak aztertuko ditugu labur-labur.

Aurretik, aipatu behar da nazioarteko nahiz barneko arau-esparruan biktimen aitortza nahiko berria dela, bai zentzurik zabalenean bai zuzenbideko subjektu gisa. Zuzenbide Penal tradizionalak delituaren arduradunean jartzen zuen arreta, biktiman jarri ordez. II. Mundu Gerran eragindako giza hondamendien ondorioz sortu ziren biktimen eskubideak defendatzeko mugimenduak eta korrontek. Testuinguru horretan, azpimarratzekoa da Jerusalemen egin zen Biktimologiaren I. Sinposioa (1973): han jaio baitzen biktimologia diziplina zientifiko gisa. Ondorengo hamarkadetan onartu zituzten nazioarteko erakundeek eta estatuak biktimen aldarrikapenak.

***BIKTIMA* IZAERAREN ETA BIKTIMAREN ESKUBIDEEN INGURUKO NAZIOARTEKO ADIERAZPENAK ETA GOMENDIOAK**

Nazioarteko adierazpenak, gomendioak eta beste dokumentu batzuk erabakigarriak izan dira biktimei egia, justizia eta erreparaziorako eskubideak bermatzeko. Egia da arau-ikuspuntu batetik estatuentzat ondorio loteslerik ez duten dokumentuak diren arren, badutela indar lotesle “moralala”. Aldaketak eragiten dituzte legerietan eta, horretarako neurri egokiak hartu direnean, bidea eman dute biktimen eskubideak neurri batean gauzatzeko.

Hasteko, Nazio Batuetan 1985ean onetsitako aitortpena aipatuko dugu. Testu horrek ematen du *biktima*–ren lehenengo definizioa, eta “delitua” edo “botere–gehiegikeria” pairatu duten pertsonen eskubideak aitortzera dago bideratuta.

1. *Biktima* kontzeptua: delituaren eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarrizko printzipioei buruzko adierazpena (1985)¹⁶

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean berariaz aitortu zuen munduan milioika pertsonak jasan zituztela "botere-abusuaren eraginpeko delituen eta beste ekintza batzuen ondoriozko kalteak", eta horien eskubideak ez zirela aitortu.

Adierazpen horretatik abiatuta, Nazio Batuen Batzar Nagusiak "Deklarazioa Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioen gainean" idatzi zuen. Horren helburua izan zen nazioarteko komunitateari eta estatuei laguntzea kaltetuei eskatzen zuten laguntza ematen.

Horretarako, adierazpenean *biktima* izendapenari ematen zaio definizioa adierazpenaren beraren ekarpen nagusietako bat dela esan daiteke. Are gehiago, 1985ean sortutako kontzeptuaren funtsezko elementuak, ondoren ikusiko ditugunak, gerora beste biktima-kategoria batzuekin arduratu diren nazioarteko hainbat tresnek bereganatu dituzte.

A. Delituen biktimak

1. *Biktima*-tzat joko dira banaka edo taldeka kalteak (lesio fisikoak edo burukoak barne), sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo oinarrizko eskubideen gutxieste nabarmena pairatu duten pertsonak, gertaera horiek Estatu Kideetan indarrean dagoen legeria penala (botere-gehiegikeria debekatzen duena barne) urratzen duten ekintzen edo hutsegiteen ondorioz gertatu badira.
2. *Biktima*-tzat jo ahalko da pertsona bat, adierazpen honekin bat etorritz, egilea identifikatu, harrapatu, epaitu edo kondenatu den gorabehera, eta egilearen eta biktimaren artean dagoen ahaidetasun-lotura gorabehera. Halaber, biktima kontzeptuak barne hartzen ditu biktimarekin zuzeneko lotura duten senide edo mendeko pertsonak, bai eta arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa saihesteko esku hartzean kaltetu diren pertsonak ere.
3. Adierazpen honetako xedapenak pertsona orori ezarri ahalko zaizkie, inolako bereizketarik gabe (arrazza, kolorea, sexua, adina, hizkuntza, erlijioa, nazionalitatea, iritzi politikoa edo bestelakoa, uste edo jarduera kulturalak, egoera ekonomikoa, jaiotza edo familia-egoera, jatorri etnikoa edo soziala edo ezintasun fisikoak).

Adierazitako definizioan, Nazio Batuek "delitu" baten *biktima* kontzeptuaz sartutako elementu definitzaileak honako hauek izango lirateke:

- Biktima da Estatu Kideetan indarrean dagoen legeria penala urratzen duten ekintza edo hutsegiteen ondorioz kalteak pairatu dituen pertsona oro.
- *Kalte*-tzat zer jo daitekeen zehaztean, adierazpenak zabal jokatzen du; izan ere, kaltetzat jasotzen ditu lesio fisikoak edo burukoak, sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo funtsezko eskubideak nabarmen gutxiestea.

¹⁶ Delituen eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarrizko printzipioei buruzko adierazpena, NBERen Batzar Nagusiak 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean hartua. Honako honetan dago eskuragarri: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/VictimsOfCrimeAndAbuseOfPower.aspx>

- Halaber jokutzen du zuzeneko biktimak aintzat hartuta, zeharkako biktimak ere aintzat hartzen dituenean. Ildo horretatik, biktimak dira biktimarekin zuzeneko lotura duten senide edo mendeko pertsonak, bai eta arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa saihesteko esku hartzean kaltetu direnak ere".
- Halaber, beste zehaztapen garrantzitsu bat egiten du, txosten honetarako garrantzitsua dena. Zehazki, hau esaten duena da: **pertsona bat biktimatzat jotzeko, ez da beharrezkoa kaltearen eragilea "identifikatua, atxilotua, jazarria edo errudun izendatua" izatea**¹⁷.
- Eskubide hauek aitortzen dira: justiziarako sarbidea eta justiziaren bidezko tratua; ordainak ematea; kalte-ordainak ordaintzea; laguntza materiala, medikuarena, psikologikoa eta soziala.

Biktimen lehenengo taldearekin ("delituena") jarraitutako bideari jarraituta, adierazpenak "botere-gehegikeria" kontzeptua definitzen du: ekintza edo hutsegiteen bidez barneko zuzenbide penalaren urraketatzat jo daitezkeenak paratzen dituztelarik, gertakari horrek urratu egiten du giza eskubideen inguruko nazioarteko araua eta, horrenbestez, kaltetutako pertsonen biktima-izaera aitortzen zaie.

B. Botere-gehegikerien biktimak

18. *Biktima-tzat joko dira: nazioko zuzenbide penalaren urraketa izatera iristen ez diren baina nazioartean giza eskubideen esparruko arauak urratzen dituzten ekintza edo hutsegiteen ondorioz, banaka edo taldean kalteak (lesio fisiko edo burukoak barne), sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo funtsezko eskubideen gutxiespen nabarmena pairatu duten pertsonak.*
19. *Estatuek aztertu egingo dute botere-gehegikeriak debekatzeko eta gehegikeria horien biktimei irtenbideak emateko arauak txertatzea legeria nazionalean. Zehazki, irtenbide horien artean daude ordainak ematea eta kalte-ordainak ordaintzea, bai eta beharrezko laguntza eta babes materiala, medikuarena, psikologikoa eta soziala ematea ere.*
20. *Estatuek aztertu egingo dute biktimen inguruko (18. paragrafoan definitu dira) nazioarteko itun multilateralak negoziatzeko aukera.*
21. *Estatuek maiztasun jakin batekin berrikusiko dituzte indarrean dauden legeria eta jardunbidea, egoera aldakorretara egokitzen direla bermatzeko. Halaber, botere politikoaren edo ekonomikoaren gehegikeria larriak eragiten dituzten egintzak debekatzeko legeak onartuko eta aplikatuko dituzte, eta beste horrenbeste egingo dute egintza horiek saihesteko neurri eta mekanismoekin. Bestalde, egintza horien biktimetarako eskubide eta baliabide egokiak ezarriko dituzte, horiek baliatzea erraztuz.*

Zenbait urteren buruan, 2005eko abenduan, Nazio Batuen Asanblada Nagusiak, delitu-biktimaren definizioa oinarri hartuta, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketen biktimen eskubideak babesteko printzipio- eta zuzentarau-sorta bat onetsi zuen, ondoren ikusiko dugunez.

17 Delituen eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarriko printzipioei buruzko adierazpena, NBEren Batzar Nagusiak 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean (2. paragrafoan) jasoa.

2. Biktimek justiziarako eta erreparaziorako dituzten eskubideak: giza eskubideen nazioarteko arauetan adierazitako urraketen biktimek eta zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekursoak jartzeko eta 2005eko erreparazioak eskuratzeko duten eskubideari buruzko oinarriak eta jarraibideak¹⁸

2005eko abenduaren 16an, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketak pairatu dituzten biktimek errekursoak aurkezteko eta erreparazioak jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarrizko printzipio eta jarraibideak onartu zituen Nazio Batuen Batzar Nagusiak. Honako hau izango da *biktima* kontzeptua:

- V *Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketen biktimak, eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimak.*
8. *Agiri honen ondoretarako, biktimatzat joko dira giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak edo nazioarteko zuzenbide humanitarioa larriki urratzen dituzten ekintza edo hutsegiteen ondorioz banaka edo taldean kalteak (lesio fisiko edo burukoak barne), sufrimendu emozionala, galera ekonomikoak edo funtsezko eskubideen gutxiespen nabarmena pairatu duten pertsonak. Hala dagokionean eta barneko zuzenbidearekin bat etorrira, biktima kontzeptuak barne hartzen ditu biktimarekin zuzeneko lotura duten senide edo mendeko pertsonak, bai eta arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa saihesteko esku hartzean kaltetu diren pertsonak ere*
9. *Pertsona bat biktimatzat joko da, urraketaren egilea identifikatu, harrapatu, epaitu edo kondenatu den gorabehera, eta egilearen eta biktimaren artean dagoen ahaidetasun-lotura gorabehera.*

Printzipio horiek giza eskubideen urraketa larrien biktimei aitortzen dizkiete aurreko biktimei aitortzen zitzaizkien eskubide orokorrak. Halere, eskubide jakin batzuk hedatu egiten dira (hala nola, asebetetzeari eta ez errepikatzeari lotutako neurriei dagozkienak). Hitzez hitz, estatuei honako betebeharrak hauek ezartzen zaizkie:

- a) lege- eta administrazio-xedapenak eta beste neurri egoki batzuk hartzea urratzeak eragozteko;
- b) urraketak eraginkortasunez, azkar, osorik eta inpartzialki ikertzea, eta, hala badagokio, neurriak hartzea ustezko arduradunen aurka, barneko eta nazioarteko zuzenbidearekin bat etorrira,
- c) beren Giza Eskubideen edo Zuzenbide Humanitarioaren urraketan biktima direla diotenei justiziarako sarbide bidezkoa eta eraginkorra ematea (aurrerago deskribatuko den moduan), urraketaren arduraduna azkenean zein den gorabehera,
- d) biktimei baliabide eraginkorrak ematea, baita erreparazioa ere, aurrerago deskribatzen den moduan¹⁹.

Zehazki, biktimek eskubide hauek dituzte: a) gizatasunez tratatuak izateko eta beren duintasuna eta giza eskubideak errespetatzeko; b) jasandako kaltearen erreparazio egokia, eraginkorra eta azkarra izateko; eta d) giza eskubideen urraketari eta erreparazio mekanismoei buruzko bidezko informazioa eskuratzeko.

18 60/1947 Ebazpena, Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartua. Hemen dago eskuragarri: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RemedyAndReparation.aspx>

19 60/1947 Ebazpena, Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartua, 3. parag.

Urraketen biktimek erreparazioa izateko eskubide hori giza eskubideei buruzko nazioarteko xedapenetan eta tratatuetan ezarrita dago²⁰.

Erreparazioak erreferentzia egiten dio Estatuak giza eskubideen urraketengatik eragindako kalteak zuzentzeko hartu behar dituen neurri multzoari. Erreparazioa jasandako urraketen larritasunarekin eta kaltearekin proportzionala izan behar da. Bidezko erreparazioa ez da hartu behar konpentsazio ekonomiko hustzat, eta, kasuen arabera, honelakoa izan daiteke: **lehengoratztea, kalte-ordaina, errehabilitazioa, asebetetzea eta berriz ez gertatzeko bermeak**.

Lehengoratztea, dagokionaren arabera, honako hauek hartzen ditu barruan: askatasuna berrezartzea, giza eskubideez gozatztea, identitate, familiako bizitza eta herritartasuna, bizitokira itzultzea, berriro lanean hastea eta ondasunak itzultzea.

Europako esparruan, biktimen eskubideak jasotzen dituen tresna nagusia hau da:

BIKTIMAREN ESTATUTUA EUROPAR BATASUNEAN

2012ko urriaren 25ean onartu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena²¹.

Zuzentzarau honek biktimari buruz ezartzen duen definizioa ez dago Nazio Batuek emandakoarengandik urrun. Hori horrela, 2. artikuluan, biktima honela definitzen da: "kalte edo galeraren bat jasan duen pertsona fisikoa, bereziki lesio fisikoak edo mentalak, kalte emozionalak edo galera ekonomikoa, arau-hauste penal batek zuzenean sortua". Era berean, zeharkako biktimaren kontzeptua jasotzen du eta, gainera, haren baldintzari eusten dio, arau hauslea identifikatu, atxilotu, akusatu edo kondenatua izan den gorabehera".

Zuzentzarau hori, ekintza legegile gisa, **Europar Batasuneko kide guztiak nahitaez bete behar dute**; hala, EBko herrialde guztiak bete beharreko helburu bat ezartzen da, baina herrialde bakoitzak banaka erabaki behar du hori nola egin. Zuzentzarau horrek biktimei aitortzen dizkien eskubideak gutxienekoak dira, hau da, **estatuak nahitaez errespetatu behar dituzte, eta Zuzentzarauak emandako babes eremua areagotu dezakete, baina inola ere ez murriztu**.

20 Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna (2. art.), Arrazagatiko Diskriminazio Modu guztiak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Ituna (6. art.), Torturaren aurkako Ituna (14. art.), eta Hauren Eskubideei buruzko Hitzarmena (39. art.). Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarriko Justizia Printzipioen Deklarazioa, legedia nazionalean tipifikatutako delituetan arreta jartzen duena, bai eta botere abusuetan ere, besteak beste, giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren nazioarteko zuzenbidearen urraketak barne hartzen dituztenak; Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutuna (7. art.); Giza Eskubideei buruzko Amerikar Ituna (25. art.); Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren erabakiak. Horiek ere aitortzen dituzte biktimen eskubideak. Azkenik, Erromako Estatuak ezartzen du Nazioarteko Gorte Penalaren eskumena "biktimei edo haien kausadunei eragindako kalte-galeren irismena eta tamaina erabakitze" eta "zuzenean kondenatuaren aurkako erabaki bat emateko, adieraziz biktimei eman beharreko erreparazio egokia, besteak beste lehengoratztea, kalte-ordaina eta errehabilitazioa" (75. art.). Ikus. "Protección Jurídica Internacional de los derechos humanos durante los conflictos armados", Nazio Batuen Goi Komisarioa, 2011, 96. eta 97. or.

21 Hemen dago eskuragarri: <http://www.boe.es/doue/2012/315/L00057-00073.pdf>

Zuzentarau horretan, biktimak eskubide askoren titularrak dira; eskubide horiek multzo hauetan bana ditzakegu: informaziorako eskubidea, prozesuan parte hartzeko eskubidea, babesteko eskubidea, laguntzarako eskubidea eta erreparaziorako eskubidea²².

ESTATUKO LEGERIA

Espainiako legedian, biktimen eskubideei buruzko araudiaren sorrera eta garapena ez da beti modu berdinean egin. Azken hogeita hamar urteotan hainbat arau onetsi dira eta, horri esker, Estatuak biktimei eskaintzen dien estaldurak nolabaiteko bilakaera izan du, kalte-ordainak jasotzeko eskubidea eta lehengoratzeko eskubidea bermatu ahal izateko.

90eko hamarkadaren erdialdean, **35/1995 Legea, Indarkeriazko Delituen eta Sexu-askatasunaren aurkako Delituen Biktimak Laguntzeko eta Sorostekoa**, onetsi zen, modu orokorrean, baita **hori garatzen zuen araudia ere**²³. Delituen biktima guztiei zuzentzen zaien araudi hori aurrerapauso handia izan zen biktimen eskubideen aitortzari dagokionez. Arauaren indarraldia gaur eguneraino luzatzen da, eta erreferentziako araua izango da delituen biktima gehienentzat.

Handik urtebetera, terrorismoaren biktimen tratamendua inoiz baino modu osatuago eta xehatuagoan arautu zen, terrorismoaren arloko delituen biktimek jaso beharreko laguntza eta ordainen araudia onetsi zenean, **uztailaren 18ko 1211/1997 Errege Dekretuaren bidez**. Araudi horrek bereizi egiten zituen terrorismoaren biktimak eta indarkeria- edo sexu-delituen biktimak. Dekretuaren helburua zen eskaintzen ziren laguntzak modu kualitatibo eta kuantitatiboan hobetzea eta terrorismoaren biktimei laguntza integral pertsonalizatua eskaintzea. Araudi horretan aipagarria da **ordaina dakarten kalteen** kontzeptua zabaldu egiten dela, eta merkataritzako nahiz industriako establezimenduek eta ibilgailuek jasandako kalteak ere bertan sartzen direla. Xede hauetarako laguntzak ere gehitzen dira: ikastekoak, gizarte- eta psikologia-laguntzakoak (senideentzako laguntza psikologikoa eta psikopedagogikoa barne), kalte materialengatiko ordaina eta terrorismoaren biktimen elkarteei diru-laguntzak ematea²⁴.

1999an bi arau garrantzitsu hauek onetsi ziren: alde batetik, abenduaren 23ko 1974/1999 Errege Dekretua, Terrorismoaren Biktimei Aitorpen Zibila egiteko Errege Aginduaren Erregelamendua onartzen duena; horrek kalte-ordainena edo laguntzarena ez beste alderdi bat garatzen du, eta xede du biktimen kolektibo hori aitortzea eta omentzea, eta ohore-dominak ematea ekintza terroristetan hildako pertsonen, zaurituen eta bahituen, euren memoria ohoratzeko. Beste alde batetik, **urriaren 8ko 32/1999 Legea, terrorismoaren biktimei elkartasuna erakustekoa**; horren xede nagusia da bermatzea kaltetuek dagokien zenbatekoa jasotzen dutela delituaren egilearengandik, kalte-ordain zibilen bitartez. Hala, zenbateko ekonomiko horiek Estatuak ordaindu

22 Saillapen hori egin dute egile hauek, besteak beste: ECHEBURUA ODRIOZOLA, Enrique / BACA BALDOMERO, Enrique / TAMARIT SUMALLA, Josep Maria edo PEREZ RIVAS, Natalia.

23 738/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 23koa, delituen biktimei laguntza emateari buruzkoa.

24 Neurri berri horiei aurrekontuetan estaldura emateko, bi arau hauek onetsi ziren: abuztuaren 1eko 13/1997 Legezko Errege Dekretua, terrorismoaren biktimen aldeko Loteria Nazionalaren zozketa bat egiteko baimena ematen duena, eta urtarrilaren 23ko 73/1998 Errege Dekretua, loteriaren zozketa bidez lorturiko irabaziak biktimentzako laguntzetan banatzeko irizpideak arautzen dituen.

beharko ditu, baita jarduketa judizialak egin ondoren kalte-ordain horiek aitortzeko epai irmorik ez dagoenean ere²⁵.

Gerra Zibilaren eta Frankismoaren biktimei dagokienez, 2007an **abenduaren 26ko 52/2007** Legea edo Memoria Historikoaren Legea onetsi zen, biktima horien eskubideak gainerakoengandik bereiz arautzeko (Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen, eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen). Lege hori hainbatek kritikatu dute, baita nazioarteko organismoek ere, ez delako guztiz gai biktima horien egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea bermatzeko²⁶.

Bukatzeko, aipatu beharra dugu **irailaren 22ko 29/2011 legea, Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babestekoa, baita hura garatzen duen dekretua ere**²⁷. Lege horrek testu bakarrean elkartzen ditu kolektibo horren eskubideak arautzen dituzten arau guztiak, eta eskubideak areagotzen ditu.

Legearen hitzaurrean, honako xede nagusi hau ezartzen da: biktimak omentzea eta aitortzea, eta errespetua eta elkartasuna adieraztea. Memoriaren, duintasunaren, justiziaren eta egiaren printzipioek indar handia hartzen dute lege horretan. Araudi horren azken helburua da biktimei erreparazio osoa ematea, eta araudia atzeraeraginez aplikatu dakieke **1960ko urtarrilaren 1etik** aurrera gertatutako egintza guztiei.

Horretarako, izaera integrala duten hainbat neurri hartu dira, xede hauekin: biktimen eta haien memoria aitortzea eta duintasuna sustatzea, babes osoa ematea, ordainak jasotzeko eskubidea bermatzea, arreta-neurriak indartzea, biktimen eskubideak aitortzea, kalte-ordainei loturiko administrazio-izapideak malgutzatzea eta koordinatzea, biktimen tratamendu prozesalean esparru zehatz bat ezartzea eta, azkenik, mehatxuak eta hertsatzea jasaten dituzten pertsonen behar duten aitortza eta laguntza ematea.

Lege horren edukiaren onuradunak hildako pertsonak eta haien senideak, kalte fisiko edo psikologikoak jasan dituztenak eta kalte materialak jasaten dituztenak izango dira. Halaber, ohorezko eran titularrak izango dira eta ohore-dolina jasoko dute hildakoen senideek, odolkidetasunezko bigarren mailara arte, eta atentatu terrorista bat jasan duten baina lesiorik pairatu ez duten pertsonak. Berritasun aipagarria da araudiaren hartzaileen artean mehatxatutako pertsonak ere sartu izana.

Azkenik, aipatzekoa da **4/2015 Legea, Delituaren Biktimaren Estatutuarena**²⁸, eta **1109/2015 Errege Dekretua**, abenduaren 11koa, Legea garatzen duena eta Delituaren Biktimen Laguntza Bulegoak zehatz arautzen dituen.

25 Horrez gain, aipatu behar dugu 2004an Terrorismoaren Biktimei Babesa Emateko Goi Komisariotza sortu zela, abenduaren 17ko 2317/2004 Errege Dekretuaren bidez. Organo hori Gobernuko Presidentetzaren mende zegoen zuzenean, eta, besteak beste, Estatuko Administrazio Orokorreko organo eskumendunen jarduketan jarraipena egiten zuen, koordinatu egiten zituen eta lankidetzan aritzen zen, terrorismoaren biktimei arreta eta laguntza emateko. Hala ere, handik bi urtera, organo hori ezabatu egin zen, irailaren 8ko 990/2006 Errege Dekretuaren bitartez.

26 Bortxazko edo Nahitaezko Desagertzeen buruzko Nazio Batuen Lantaldearen txostena. Espainiako misioa. NBERen dok.: A/HRC/27/49/Add.1, 2014ko uztailearen 2koa.

27 671/2013 Errege Dekretua, irailaren 6koa, 29/2011 Legearen Araudia onartzen duena.

28 Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/UE zuzentaraua, 2012ko urriaren 25ekoa, espainiar ordenamendura ekartzeko.

Europako araudiarekin bat etorrira, arau hori 2. artikuluan bildutako irizpideak betetzen dituztenei aplikatuko zaie:

"2. Artikulua. Esparru subjektiboa. Biktimaren kontzeptu orokorra

Lege honen xedapenak aplikatzekoak izango dira:

- a) Zuzeneko biktima gisa, bere buruaren edo ondarearen gaineko kalterik pairatu duen pertsona fisiko ororentzat, bereziki delitua egiteak zuzenean eragindako lesio fisikoak edo psikikoak, kalte emozionalak edo kalte ekonomikoak badira.
- b) Zeharkako biktima gisa, delitu batek zuzenean eragindako pertsona baten heriotza edo desagertzea dagoenean, egitateen erantzuleak badira izan ezik:
 - 1.a Legez edo izatez bananduta ez dagoen ezkontidearentzat eta hiltzeko edo desagertzeko momentuan haiekin batera bizi ziren biktimaren edo legez edo izatez banandu gabeko ezkontidearen seme-alabentzat; heriotza edo desagertzea gertatu arte biktimari afektibitatezko antzeko harremanagatik lotuta zegoen pertsonarentzat eta biktima hil edo desagertu zenean berarekin bizi ziren horren seme-alabentzat; zaintzapean zituena guraso eta ahaideentzat –lerro zuzenean edo alboko lerroz hirugarren graduaren barruan– eta haren tutoretza edo kuradoretzapean edo familia-harreraren araubidepean dauden pertsonentzat.
 - 2.a Aurrekorik izan ezean, lerro zuzeneko gainontzeko senideentzat eta anai-arrebentzat, horien artean biktimaren legezko ordezkariak duena lehenetsita.

Lege honen xedapenak ez zaizkie aplikatuko delituaren ondoriozko kalteak nozitu dituzten hirugarrenei".

AUTONOMIA-ERKIDEGOKO LEGERIA

Biktimek dituzten eskubideen errekonozimenduaren arloko jarduna terrorismoaren biktimei zuzendutako laguntzen programa batekin hasi zuen Euskal Autonomia Erkidegoak; **221/1988 Dekretuak, abuztuaren 4koak**, arautu zituen laguntza horiek. Honako laguntza hauek jasotzen zituen dekretuak: lehentasunezko laguntza psikopedagogikoa Eskolaurreko eta OHOkoko ikasleentzat; ikasketa-bekak; garraio eta jantokirako laguntzak; doako osasun-laguntza halako laguntza baten onuradun ez ziren kaltetuentzat; enpresei zuzendutako laguntzak, abal eta diru-laguntzen bidez; partikularrei zuzendutako laguntzak, beren ondasunei kalte egin zaienean.

Hainbat urtean eztabaida sakonetan sartuta ibili ondoren, esparru honetako araudia osatu egin zen 2008an azkenean, **ekainaren 19ko 4/2008 Legea, Euskadiko Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa**, onartuta. Arau horren xedea ETaren biktimei ez ezik beste talde armatu batzuen biktimei ere laguntza eta babesa ematea da, hala nola GALen, eskuin muturreko

taldeen eta beste talde parapolizial²⁹ batzuen biktimei. Lege-testuan, III. Titulua nabarmentzen da, biktimei zuzendutako laguntzei buruzkoa, non terrorismoaren biktimei laguntza integrala ematera zuzendutako neurrien multzoa jasotzen den (kalte materialak erreparatzeko laguntzak, laguntza eta tratamendu mediko eta psikologikoa, hezkuntzarako laguntzak, etxebizitza eta enplegurako laguntzak³⁰).

2010eko abenduaren 15ean, **azaroaren 9ko 290/2010 Dekretua**, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duena, argitaratu zen EHAA (239. zk.). Araudi horren bidez, 4/2008 Legeko III. Tituluan jasotzen den edukia garatu zen, eta han aurreikusitako babes-sistemaren eta laguntza integralaren aplikazioan aurrera egitea lortu zen horrela.

Aipatutako arau horretan aurreikusitako sistema integralaren barnean, hainbat neurri hartzen dira esparru hauetan: kalte materialen ordaina emateko jarduketak; kalte materialen prebentziorako jarduketak, hala nola mehatxatutako edo jazarritako pertsonen etxebizitzetan, establezimenduetan edota ibilgailuetan segurtasun-sistemak ezartzea; laguntza juridikoa; osasunaren eremua eta laguntza psikologikoaren eremua; irakaskuntzaren eremua; enplegu-politikak; funtzio publikoa (funtzio publikokoak diren biktimei hainbat eskubide emateko aukera hartzen du kontuan Legeak); etxebizitzaren eremua; eta aparteko laguntzak, Legeak babesten ez dituen premiazko egoera pertsonalei edo familiarrei erantzuteko.

Horrez gain, nabarmendu beharra dago azken urteotan esparru arau-emaile hori motibazio politikoko indarkeriaren biktimen beste kategoria batzuetara hedatzen ere hasia dela, euskal kasuan. Hala, ildo horretatik, Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 31n, **Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimendu bidegabeak jasa dituzten biktimei buruzko 61/2011 Legez Besteko Proposamena** onartu zuen; aipatutako proposamen horretan, biktimok aintzat hartzeko eta haien sufrimendua arintzeko neurriak eta ekintzak abiarazteko eskatzen zitzaion Eusko Jaurlaritzari. **Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean**, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako **giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa**, ekarri zuen horrek une hartan; diktadura frankistan Euskal Autonomia Erkidegoan bizitako indarkeria-egoerari egiten zitzaion erreferentzia horrela.

Dekretu horrek barnean hartzen zuen denbora-esparru mugatua oztopo zen 1978ko abenduaren 29az geroztik izan ziren giza eskubideen urraketen biktimei egia, justizia eta erreparaziorako zituzten eskubideak betetzeko. Beraz, eta biktima horiei laguntzeko asmoarekin, berriki **12/2016 Legea, uztailaren 28koa, onartu da, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa**³¹; 1978ko abenduaren 29tik 1999ko

29 "Parapolizial" terminoa gero eta gehiago erabiltzen da, eta, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak kalera-tutako txostenaren arabera, hauek hartzen ditu barnean izendapen horrek: "bereziki trantsizio politikoaren urteetan eta 80ko hamarkadako lehen urteetan segurtasun-indarren adostasunarekin eta zenbaitetan segurtasun-indarren zuzeneko parte-hartzearekin (ekintza klandestinoetan parte hartuz edo segurtasun-indar gisa bete beharreko zereginetatik kanpo, baina laguntza aktibo edo pasibo batekin) jardun zuten kolektibo edo taldeak". 2008ko ekaina, 307. or.

30 DE LA CUESTA, 31-32. or.

31 Txosten hau aurkezteko unean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsio bat tramitatzen ari da Konstituzio Auzitegian 12/2016 Legearen aurka.

abenduaren 31ra bitartean eta motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan izan diren giza eskubideen urraketen biktimei aitortpena egin eta ordaina eman nahi zaie horrela.

12/2016 Legeak hiru baldintza xedatzen ditu, giza eskubideen urraketa bat lege horren aplikazio-eremuan sar dadin: a) motibazio politikoko indarkeria-egoera batean gertatu izana; b) urraketa horretan funtzionario publikoek nahiz norbanakoek parte hartu izana, hala taldean jardunez nola bakarka; eta, c) giza eskubideen urraketaren ondorioz pertsonen bizitzari edo osotasun fisiko, psikiko, moral zein sexualari kalte egin izana. Gainera, Legean jasotzen diren giza eskubideen urraketak direla-eta aurkeztutako salaketak ikertu ez diren kasuetan, Legearen aplikazio-eremuan sartuko litzateke defentsa-gabezia ere.

Azkenik, nabarmendu beharra dago 12/2016 Legeak, biktimei laguntza ekonomikorako eta osasun-laguntza egokia jasotzeko eskubideak bermatzeaz gain, beste eskubide batzuk ere ematen dizkiela, errekonozimendu publikorako eskubidea edota egia jakiteko eskubidea, esate baterako. Kontuan hartuta, betiere, jasandako bidegabekeriaren errekonozimendurako lehen bide bat dela kalte-ordaina, baina ez bakarria.

Argi eta garbi ikusi ahal izan denez, bada lege-esparru oso bat, nazioarteko arauetan oinarritzen eta autonomia-erkidegoko legedian garatzen dena, biktimen eskubideak babesteko eta defendatzeko xedez. Hala ere, ñabardura bat egin nahi dugu: gai horren inguruan estatuan eta autonomia-erkidegoan dauden arauak ez dituzte kontuan hartu orain ate euskal kasuan izan diren biktima guztiak.

Ildo horretatik, ETaren indarkeriaren biktimek, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunerako Legea (1999) onartu zenetik, lege-esparru bat izan dute, eta esparru hori indartu egin da geroa Euskadiko Terrorismoaren Biktimei Aitortpena eta Erreparazioa egiteko Legearekin (2008) eta, 2011n, Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko Legearekin. Dena den, Segurtasun Indarrek -edo horien adostasunarekin-, eskuin muturreko taldeek eta talde parapolizialek eragindako indarkeriaren biktimen kasuan, esan beharra dago horietako gehienak ez direla behar bezala errekonozitu. Hala ere, ezin da ukatu giza eskubideen zapalketa larrien biktima direla, bizitzeko eskubideari edota osotasun fisiko eta psikikorako eskubideari dagokienez, esaterako, eta azken kasu horretan leudeke torturarekin lotutako kasuak. Tratu anker, gizagabe eta iraingarrik ez jasotzeko eskubidearekin lotutako urraketak nahitaez jaso beharrekoak dira, ez baitaie batera jaramonik egin horrelako salaketei: ez dira ikertu, eta salaketen ia % 100 artxibatu egin dira.

2017ko abenduan aurkeztu ziren *Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)*, Kriminologiaren Euskal Institutuak Eusko Jaurlaritzaren aginduz eginiko lana.³² Ikerketak baieztatu egin du torturen eta/edo tratu txarren 4.113 salaketa motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan. Ikerketa honek argia eman du ezkutuan iraun duen eta ukatu egin den fenomenoaren inguruan, eta gogoan hartu behar da egoera horrek berbiktimizatu egin dituela ukitutako pertsonak.

Esan beharra dago, dena den, biktimen eskubideen aitortza eta babesaren esparruko asimetria hori konpentsatu egin dela, neurri batean, azken sei urteotan. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekre-

32 Dokumentua lotura honetan eskura daiteke:
https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10774/CONCLUSIONES_-_Investigacion_tortura-malos_tratos_18-12-2017.pdf

tua, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa, onartuz lehenengo. Eta, berrikiago, beste hau onartuz: 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa. Bi arauon bidez, giza eskubideak zapaldu zaizkien biktimek –segurtasun–indarrek, eskuin muturreko taldeek eta talde parapolizialek 1960tik 1999ra bitartean egindako giza eskubideen urraketek, lege–esparru bat dute bere errekonozimendurako.

Aipatutako 107/2012 Dekretuaren babespean biktima–aitorpena erdiesteko aurkeztutako 239 eskabideetatik 187ri baiezkoa eman zitzaion (hots, aztertutako kasuen % 78,24ri). Euskadiko 12/2016 Legeari dagokionez, gobernu zentralak konstituzionalitate–errekurtsoa aurkeztu zuen, eta Epaitegi Konstituzionalak onartu egin zuen. Bere idatzian, gobernuak Konstituzioaren 161.2 artikulua aipatu zuen, eta horrek guztiak Legearen artikulua jakin batzuen indarraldia eta aplikazioa ekarri du; besteak beste, pertsona ukituen eskabideak ebatzez arduratzen den Balorazio Batzordearen funtzionamenduari lotutako batzuk. Txosten hau amaitu denean, ez da ebazpenik eman.

5.

Giza eskubideen urraketak

ANDOINGO/ANDOAINEN HILDAKO PERTSONAK

Txosten honek barne hartzen duen esparruan eta Giza Eskubideen nazioarteko zuzenbideko arau nahiz legeetan jasota dagoen biktimaren definizioaren arabera, Andoainen zortzi pertsonari urratu zaie bizitzeko eskubidea.

Biktima	Data	Adina	Hilketaren egilea
David Salvador Bernardo	1977/10/07	44	Triple A
Ignacio Olaitz Mitxelena	1978/10/29	42	ETAm
José Díaz Pérez	1979/02/03	25	ETAm
Joxe Ramón Ansa Etxeberria	1979/05/06	17	Triple A
Francisco Javier Ansa Zinkunegi	1981/03/03	35	BVE
Juvenal Villafañe García	1993/09/16	77	ETA
José Luis López de Lacalle	2000/05/07	62	ETA
Joseba Pagazaurtundua Ruiz	2003/08/02	45	ETA

ETA: Euskadi Ta Askatasuna

ETAm: ETA Militarra

BVE: Batallón Vasco Español

Triple A: Alianza Apostólica Anticomunista

Eusko Jaurlaritzaren *Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri. Andoain, 1960–2010*³³ izeneko agirian, Jon Lizarralde Urretaren heriotza dago jasota, “Behar beste argitu ez diren kasuak” atalean. Lizarralde, 34 urteko andoaindarra, ETAko kidea, Irunberriko Arroilan (Nafarroa) hil zen, 1990eko ekainaren 25ean. Txosten honetan, hobeto argitu beharreko gertaeren atalean jaso dugu kasua.

Era berean, beste bi heriotza ere “Beste indarkeria eta sufrimendu gertakari batzuk” izeneko atalean daude kokatuta. Batetik, Mikel Gardoki Azpirozen heriotza; 23 urteko andoaindarra ETApm-ko kidea zen, eta 1975eko apirilaren 24an hil zen, polizia frankistaren tiroen ondorioz. Bestetik, J.A.G.R. izeneko bizkartzainaren suizidioa; 29 urteko gaztea Andoinen bizi zen, eta 2002ko otsailaren 4an hil zen. Gaur egun esku artean dauzkagun datuak kontuan hartuta, gure ikuspuntutik ez kasu bat ez bestea ez dator bat Giza Eskubideen nazioarteko arauetan jasota dagoen biktimaren definizioarekin.

33 Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia. Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza. 2015eko ekaina, 20. or.

● Bizitzeko eskubidearen aurkako urraketa jasan zuten biktimei buruzko laburpena: nor ziren eta nola hil zituzten.



1977

David Salvador Bernardo

1977ko urriaren 7an, 07:30ak aldera, David Salvador Bernardo taxi gidaria hilda aurkitu zuten, garondoan tiro bat zuela, Andoaingo Renfeko geltokiaren inguruan. Ibilgailuaren barrutik egin zioten tiro, eta autoak ralentia martxan zuen oraindik³⁴. David Salvadorrek 44 urte zituen, eta bi seme-alaba. Bilbon jaioa zen, baina haurra zenetik bizi izan zen Tolosan. Geroago, taxi zerbitzu bat hartu zuen Hernanin, eta bertan bizitu zen hamar urtez bere familiarekin, Triple A taldeak hil zuen arte. Talde hark “Heriotzaren Triangelua” zelakoan egindako lehen hilketa izan zen. “Heriotzaren Triangelua” Andoain, Urnieta eta Astigarraga–Hernani udalerriek osatzen zuten, eta 1977tik 1981era bitarte herri horietan zortzi pertsona hil zituzten Triple A, Batallón Vasco Español edo GAE taldeek, unean uneko interesen arabera. David Salvadorren hilketa Bilboko *El Correo Español–El Pueblo Vasco* egunkarian erreibindikatu zuten. Bertan, Triple A taldeak “ETAren isil–mandatari” izatea leporatu zion taxilariari, baina ez zuen azalpen gehiago eman. Biktima ez zen ezein alderdi politikotako kidea, eta, haren lankideen hitzetan, “pertsona isila eta diskretua zen, eta ez zen inoren kontra aritzen”³⁵. Dolua eta elkartasuna adierazteko, zona hartako taxilariak zerbitzu etenaldia egin zuten hurrengo egunean. Erailketa honengatik gaur egun ez da inor auzipetua izan eta ez da eza gutzen zein izan litekeen David Salvador Bernardo eraili zuten egile material edo intelektualak.

34 Fernando Buesa Fundazioa. Datu–basea – Efemerideak. *ABC* eta *El País* 1977/10/08. “La violencia terrorista en la Transición”.

35 *El País*, 1977/10/08. Hauetan ere bai: Pedro Barruso Barés (2017). *Leyçaur* 14, 588. or. eta “El triángulo de la muerte” dokumentala, ETBk 2015eko urriaren 11n emana.



1978

Ignacio Olaitz Mitxelena

Ignacio Olaitz Mitxelenaren gorpua 1978ko urriaren 29an aurkitu zuten, bere autoaren barruan, Seat 1500 bat, Urnietako San Jose harrobian. Hamar bala zulo zeuzkan. Jaiotzez oiartzuarra, 42 urte zituen, eta hiru seme-alaba: 11 urteko alaba eta 10 eta 5 urteko bi seme. Telefonican egin zuen lan gidari gisa, baita hiri eta eskola autobusetan ere, salgaien eta pertsonen garraiolari gisa. Emaztearen negozioan lan egin zuen, Lasarten, taberna-jatetxe eta ostatu batean. Andoainen zituen bi etxebizitzetatik bat ostatu bezala erabiltzen zuen, eta janari postu bat zuen Donostian. Hainbat ekimenetan parte hartu zuen ikastolen garapena bultzatzeko, bere lokal batean euskara eskolak ematen ziren, eta Amnistiaren aldeko Batzordeetan eta Askatasunaren Aldeko Martxan parte hartu zuen eta zutabeetako bat zuzendu eta koordinatu zuen. Hori dela eta, hasieran eskuin-muturrak hil zuela uste izan zen. Baina ETA militarrek hartu zuen bere gain hilketa Herri Irratira egindako dei batean, eta Amnistiaren Aldeko Gestoretan infiltratuta egotea egotzi zion Olaitz Mitxelenari. Zalantza eta nahastea oraindik nagusi zirela, urriaren 31n ETAk komunikatu zehatzago bat bidali zuen. Familiak akusazio guztiak gezurtatu zituen, eta ETAk huts egin zuela esan zuen. 1982an, Auzitegi Nazionalak hiru pertsona zigortu zituen hilketa harengatik. Zuriñek indarkeriaren aurka zegoen abertzaletzat oroitzen du aita, eta zerbait aurkitu zuela antolakuntzan ez ziona gustatu. Horregatik hil ziotela uste du. Olaitzen "tz"-rekin eta Mitxelenaren "tx"-rekin aldarrikatzen du alabak.



1979

José Díaz Pérez

1979ko otsailaren 3an, Guardia Zibilak garai hartan Andoaingo Bazkardo auzoan zuen kuartelaren aurrean zeuden hiru guardia zibil tiroz zauritu zituen ETA militarreko komando batek; komandokideek lapurtutako Peugeot 504 batean ihes egin zuten. José Díaz Pérez larriki zaurituta eraman zuten Donostiako Poliklinikara, baina ospitaleratu eta berehala hil zen. Miguel Ángel Madariaga Lope tenientea ere, aurrekoaren ondoan zegoena, oso larri zegoen: bala zauriak zeuzkan mokor-hezurretan, sorbalda batean, hanka batean, bizkarran eta sabelaldean. Zauritutako hirugarren guardia zibilak, Antonio Piqueras Martínezek, lesio fisiko arinak izan zituen, baina arazo psikologiko larriak; Guardia Zibilean zerbitzu aktiboa utzi behar izan zuen horien ondorioz. Hildako biktima, José Díaz Pérez guardia zibila, Kordoban jaioa zen, 25 urte zituen eta ezkongabea zen. Atentatuaren biharamunean egin zuten hileta elizkizuna, Donostiako Ospitale Militarrean. Hileta gorpu aurrekoa izan zen, eta José Díaz Pérezena ez ezik, Esteban Sanz Gómez guardia zibilarena ere izan zen, zeina hil baitzen ETAk bost egun lehenago, urtarrilaren 29an, Tolosan gauzatutako atentatu batek eragin zizkion zaurien ondorioz. José Díaz Pérez Kordoban lurperatu zuten, hura baitzen bere jaioterria eta familiaren bizitoki. Bai hileta elizkizuna amaitzean, bai ehorzketan, "Viva la Guardia Civil", "Viva España" eta "Muera ETA" oihukatu zuten. Kasua ebatzi gabe dago oraindik.



1979

Joxe Ramón Ansa Etxeberria

1979ko maiatzaren 6an, Joxe Ramón Ansa Etxeberria hilda aurkitu zuten, garondoan tiro bat zuela. Azkonobieta baserriaren inguruan zegoen, bere etxetik hurbil: Upategi baserria. Epaian jasota dagoez, Ignacio Iturbide Alcain eta Ladislao Zabala Solchaga izan ziren hiltzaileak, eta Batallón Vasco Español taldearen izenean aldarrikatu zuten hilketa (beste batzuetan Triple A: Alianza Apostólica Anticomunista edo GAE: Grupos Armados Españoles taldeen izenean ere jarduten zuten). Joxe Ramón Ansa Etxeberria goizaldean bahitu zuten, Santakruz jaietan ibili ostean etxera oinez zihoala. Erasotzaileek auzo bide batera eraman zuten; bertan, udalerriko zenbait bizilaguni buruz galdekatu zuten, eta ETAko kide zen baten bat ezagutzen ote zuen galdetu zioten. Ondoren, Ignacio Iturbidek tiro egin zion garondoan. Joxe Ramón Ansak 17 urte zituen, eta ez zuen afiliazio politikorik. Haren anai-arrebek oroitzen dutenez, pertsona ona zen. Herriko jaiak bertan behera geratu ziren, eta milaka lagun bildu ziren hiletan eta ehorzketan. Hainbat manifestazio eta protesta ere deitu zituzten. Udalak mozio bat onartu zuen, Andoaingo Guardia Zibileko zenbait kide Euskaditik kanpora eraman zitzatela eta Ordena Publiko Indarrak alkatearen agindupean egon zitezela eskatzeko; horrek polemika bizia piztu zuen gobernadore zibilarekin, eta 25 udal korporaziok elkartasuna adierazi zioten Andoaini. Maiatzaren 9an borrokarako eguna deitu zuten, eta orduan ere Poliziak eta Guardia Zibilak isilarazi zituzten protestak.



1981

Francisco Javier Ansa Zinkunegi

Francisco Javier Ansa Zinkunegiren hilketa, Krafft enpresaren inguruan gauzatua, Urnieta eta Andoain lotzen dituen errepidean, 1977tik (David Salvador Bernardo) 1981era arte muturreko talde batek "Heriotzaren Triangelua" izenekoan egindako zortzigarrena izan zen. Hilketa hura, zehazki, Batallón Vasco Español (BVE) taldeak aldarrikatu zuen. 1981eko martxoaren 2tik 3rako gauean, Francisco Javier Ansa, 36 urte zituen, autobus geltokiaren ondoan zegoen, bere etxetik hurbil, Antxizu baserria, Leizotz auzoan. Bi txanodun hurbildu zitzaizkion auto batean, eta haietako batek tiro egin zion ondo-ondotik. Lanera zihoan, Sorabilla auzoan kokatuta zegoen Construcciones Metálicas Fierro enpresara. Lantegian berria jakin zutenean, lankideek bilera egin, eta protesta eta dolua adierazteko enpresa gelditzea erabaki zuten. Martxoaren 4an, Andoinen eta ondoko udalerrietan lanuzte orokorra deitu zuen inguruko enpresa ordezkarien biltzarrak. Hileta elizkizunak San Martin elizan egin ziren. Komando hark, zenbait sigla erabili zituenak (BVE, AAA edo GAE), hogeitatu baino gehiago aldarrikatu zituen udalerrian (hasieran siglarik erabiltzen ez bazuen ere), eta egun berean atxilotu zuten. Kide nagusiak Ignacio Iturbide Alcain "Piti" andoainarra eta Ladislao Zabala Solchaga donostiarra ziren, baina ingurunean laguntza, estaldura eta zigorgabetasuna zituzten, atxilotu zuten hirugarren batek, Rogelio González Medranok, berretsi zuenez. Azken hori "damutu" egin zen.



1993

Juvenal Villafañe García

Juvenal Villafañe García "El Sargento" ezizenez zen ezaguna, eta ETAk 1993ko irailaren 16an hil zuen, Andoaingo Eskolak kalean; 77 urte eta hiru alaba zituen, eta kale hartan bizi zen. Guardia Zibileko tenienteorde erretiratua zen, eta postuko komandante izan zen Andoainen; bertan bizi zen 1962az geroztik. Kargu hura utzi ostean, Gipuzkoako Aldundian lan egin zuen hamar urtez, eta ehiza eta arrantzako baimenak, pasaporteak eta bestelako dokumentuak izapidetu zituen udalerrian. 1993ko irailaren 16an, 17:00ak aldera, gidariaren eserlekuaren behealdean itsatsitako bonba batek eztanda egin zuen haren etxearen ondoan, ibilgailua martxan jarri zuenean. Ez zen une hartan hil, eta atentatu bat izan zela konturatu zen, baina bonbak eragin zizkion lesioak hain ziren larriak, ezen hilotzik iritsi baitzen ospitalera, Gurutze Gorritik Donostiako Erresidentziara eraman ostean. Zorionez, bonbaren deflagrazioak ez zuen beste biktimarik eragin, baina handik hurbil kokatuta zegoen harategiak kalteak izan zituen, eta inguruko etxebizitzetako kristalak apurtu ziren; aldameneko ibilgailuek ere hainbat kalte jasan zituzten. Bi urte lehenago mehatxu bat jaso zuen, eta kezkatuta geratu zen, haren alaba Blancak adierazi duenez. Atentatuaren biharamunean, elkarretaratze isila egin zen, Bakearen Aldeko Koordinakundeak antolatuta. Hileta elizkizuna San Martin elizan egin zen, eta jendetza izan zen bertan. Familiak "aitagurea" euskaraz abesteko eskatu zuen. Islaresen (Cantabria) lurperatu zuten, bere alarguna jaio zen herrian. Argitu gabeko kasua da hau ere.



2000

José Luis López de Lacalle Arnal

Kafe bat hartu zuen plazako Elizondo tabernan, eta besapean zeramatzan goizero erosten zituen egunkariak; une hartan, ETAko kide batek tiro egin zion José Luis López de Lacalle Arnali. 2000. urteko maiatzaren 7a zen. Tiroetako lauk garondoan, lokian, toraxean eta sabalaldean jo zioten, eta hil egin zen. 62 urte zituen; Mari Paz Artolazabalekin ezkontuta zegoen, eta alaba eta semea zeuzkan. José Luis López de Lacallek hiru urte zeramatzan erretiratuta; administrazioko buru izana zen Tolosako Fabricación Maquinaria Ugarola SL enpresan. PCEko kidea izan zen gaztetatik, eta 1964an alderdiaren Batzorde Zentraleko kide izatera heldu zen, baita Euskadiko PCE-EPK-ko zuzendaritzako kide izatera ere. Laurogeiko hamarkadaren hasieran utzi zuen alderdia. 1966an, atxilotu egin zuten Zumarragan, Gipuzkoako Behin-behineko Langile Batzordea antolatzen ari zela. Atxiloaldian, torturak jaso zituen Melitón Manzanasen eskutik, eta bost urte igaro zituen espetxean. Ezker Batuaren sorreran parte hartu zuen, baina erakunde hori utzi, eta PSE-EE alderdira hurbildu zen: Senaturako zerrendan joan zen, independente gisa, 1989an. Era berean, bat egin zuen, beste sektore batzuekin batera, PSE-EEren zerrendak babesteko sortutako Plataforma Razones foroarekin, eta Ermuko Foroaren sortzaileetako bat izan zen. Iritzi artikulua idatzi zituen *El Diario Vasco* eta *El Mundo* egunkarietan. Hilketaren baina bi hilabete lehenago, otsailaren 28an, lau txanodunek koktelak jaurti zituzten haren etxebizitzaren aurka. Auzitegi Nazionalak ETAko bi militante zigortu zituen krimenagatik, 2002an bata eta 2009an bestea.



2003

Joseba Pagazaurtundua Ruiz

2003ko otsailaren 8an, 9:55ean, ETAko militante batek hiru tiro eman zizkion Joseba Pagazaurtundua Ruizi, Agustin Leitza kaleko Daytona tabernan kafe bat hartzen ari zenean; sarri joaten zen taberna horretara. Larriki zaurituta, Donostia Ospitaleko ZIUra eraman zuten, baina bederatzi orduren buruan hil egin zen. Udaltzaingoaren sarjentu buruak 45 urte zituen, eta bi seme-alaba zeuzkan. Gaztetan, ETAko (politiko-militarra), Euskadiko Iraultzaile Alderdiko (EIA) eta Euskadiko Ezkerrako (EE) kidea izan zen, eta EEk Euskadiko Alderdi Sozialistarekin bat egin zuenean, PSE-EEren tokiko taldean eta UGT sindikatuan parte hartu zuen. Aski da! plataformako kide aktiboa ere izan zen. Udalak hilketari gaitzetsi zuen udalbatza korapilatsu batean, non izan ziren EH alderdiko zinegotzien aurkako irainak, oihuak eta erantzukiak. Familiak, era berean, beilatokitik kanpo utzi zituen Eusko Jaurlaritzako kideak eta Lizarrako Itunaren sinatzaileak, Jose Antonio Ardanza lehendakariaren salbuespenarekin. Udalerriko udaltzainek 24 orduko itxialdia egin zuten udaletxean, atentatua salatzeke. Haren oroimen eta omenezko ekitaldien artean, Agustin Ibarrolaren eskultura bat ipini zen, eta Udalak Andoaingo merezimendu domina eman zion. Bestalde, herriko PSE-EE taldeak "Joseba Pagaza Askatasunezko Espazioa" izena jarri zion alderdiaren egoitzari. ETAK hilabete geroago aldarrikatu zuen hilketari, eta "Guardia Zibilaren kolaboratzaile" izatea leporatu zion biktimari. Hilketaren hamabigarren urteurrenean, familiak adierazi zuen ez duela dolua amaitutzat emango egirik eta erreparaziorik gabe. Auzitegi Nazionalak Joseba Pagazaurtunduaren hilketaren egiletzat zituenak 2011n eta 2015an epaitu zituen.

© AUA, 7057.

BIZITZEKO ESKUBIDEAREN AURKAKO URRAKETAK ZENBAKITAN**HAMARKADAKA**

	70eko hamarkada	80ko hamarkada	90eko hamarkada	2000ko hamarkada	2010eko hamarkada
ETAk hildakoak	2	–	1	2	–
BVE eta Triple A taldeek hildakoak	2	1	–	–	–
Segurtasun indarrek hildakoak	–	–	–	–	–
Kale borroak hildakoak	–	–	–	–	–
GUZTIRA	4	1	1	2	0

Huts eginiko atentatuak (arma trabatzeagatik)

ETArenak	1	–	–	–	–
----------	---	---	---	---	---

- Txosten honek aztergai duen testuinguruan eta garaian, bizitza eskubidearen aurkako urraketen 8 kasu izan ziren, eta biktima guztiak gizonezkoak izan ziren. Beste heriotza bat behar bezala argitu gabeko kasuen artean kokatuta dago, eta kasu horretan ere biktima gizona da.
- Andoainen hildako bat eragin zuen lehenengo atentatua David Salvador Bernardorena izan zen, 1977ko urriaren 7an. Azkena, berriz, Joseba Pagazaurtundua Ruizena, 2003ko otsailaren 8an.
- Azken hamabost urteetan Andoainen ez da beste heriotzarik izan motibazio politikoko testuinguruan.
- Hiltzaileen arabera taldekatuta, ETA militarrek eta ETAk 5 pertsona hil dituzte, eta BVE eta Triple A taldeek, 3.
- Aipatutako 8 kasuetatik, 7 hilketa arma automatikoekin gauzatu zituzten; horietako 6 arma laburrekin, distantzia txikira tiro eginda, eta bestea urruti samarretik metrailatuta. Kasu batean ibilgailuan itsatsitako bomba erabili zuten.
- 3 biktima bahitu eta bahiketa tokitik urrun eraman zituzten hil aurretik.
- Hildako gehienak 1977tik 1979ra bitarte izan ziren, lau kasu, taulan jasota ageri denez. 2004tik aurrera ez dago hildakorik.

ADINAREN ETA SEME-ALABA KOPURUAREN ARABERA

	40 urtetik beherako biktimak	40 urtetik gorako biktimak	Aitarik gabeko alabak	Aitarik gabeko semeak
ETA militarrek eta ETAk hildakoak	1	4	5	5
BVE, AAA taldeek hildakoak	2	1	-	2
Segurtasun indarrek hildakoak	-	-	-	-
Kale borrokak hildakoak	-	-	-	-
GUZTIRA	3	5	5	7
			12	

- Hildako biktima gazteena Joxe Ramón Ansa Etxeberria da: 17 urte zituen hil zutenean. Zaharrena, berriz, Juvenal Villafaña García da: 77 urte zituen.
- 5 alabak eta 7 semeak galdu zuten aita ETArekin, AAArekin edo BVEren hilketen ondorioz. Hamabik, guztira.

GERTAEREN LEKUAREN ARABERA

	Andoainen gauzatutako atentatuak edo hilketak	Andoaindik kanpo gauzatutako atentatu hilgarriak
ETA militarrek eta ETAk	4	1
BVE eta AAA taldeek	3	-
GUZTIRA	7	1

- Hildakoak eragin zituzten 8 atentatuetatik 7 udalerrian bertan gauzatu zituzten, eta 1 Andoaindik kanpo.
- Andoainen gauzatutako hilketak toki hauetan izan ziren: 1 Renfeko geltokitik hurbil, 1 Guardia Zibilaren kuartelaren ondoan (Baztardo), 1 biktimaren baserritik hurbil (Buruntza auzoa), 1 Leizotz auzoko autobus geltokiaren ondoan, 2 biktimaren etxe ondoan (Bastero, Ondarreta kalean) eta 1 Daytona tabernan.
- Andoaindik kanpo gauzatutako hilketa bakarra Urnietako San Jose harrobian gauzatu zuten; Ignacio Olaitz Mitxelenaren hilketa izan zen.
- 3 kasutan biktimak beren ibilgailuen barnean zeuden.

JAIOTERRIAREN ARABERA

	Andoainen jaiotakoak	Andoaindik kanpo jaiotakoak
ETA militarrek eta ETAk hildakoak	–	5
BVE, AAA... taldeek hildakoak	2	1
GUZTIRA	2	6

- Taulan ageri denez, hildako gehienak ez ziren Andoainen jaio, baina horietako 4 udalerrian errotuta zeuden.
- Jaiotzez andoaindarrak ez zirenen jaioterrak Bilbo (Hernanin bizi bazen ere), Oiartzun, Tolosa, Hernani, Kordoba eta Mansilla de las Mulas (León) ziren.

KONDIZIOAREN ARABERA

	Zibila	Guardia zibila	Udaltzaina
ETA militarrek eta ETAk hildakoak	3*	1	1
BVE, Triple A taldeek hildakoak	3	–	–
GUZTIRA			

* Horietako bat guardia zibil ohia zen.

- 6 zibil, guardia zibil bat eta udaltzain sarjentu bat dira Andoainen hildako biktimak.
- Zibilen artean, bat taxilaria zen, beste batek postu bat zuen azokan, beste batek lantegi batean eta baserrian egiten zuen lan, beste bat metalaren sektoreko langilea zen eta beste biak erretiratuta zeuden (haietako bat guardia zibila izan zen, gero Aldundian aritu zen eta ehiza nahiz arrantzako baimenak izapidetzen laguntzen zuen; besteak egunkarietan idazten zuen, eta Ermuko Foroko kidea zen).

Buruntzaldea eskualdeko egoera

HILDAKOAK

	ETA, komando autonomoak	BVE, AAA, GAE, GAL	Polizia edo Guardia Zibila	Egiletza iluna edo beste batzuk	Gehiago ikertu behar da
Astigarraga	–	3	1	–	–
Andoain	5	3	–	–	1
Hernani	7*	7**	–	1	1
Lasarte–Oria	6	–	1	2	–
Urnietan	4***	3****	–	–	1
Usurbil	3	1	–	–	–
GUZTIZKO ERREALA	25	17	2	3	3
	23	14	2	3	3

*Joseba Pagazaurtundua Ruiz Hernanin jaio zen, baina kopuru osoan Andoainen bakarrik zenbatu dugu.

David Salvador Bernardo Hernanin bizi zen, eta bertan egiten zuen lan, baina taula honetan Andoainen bakarrik zenbatu dugu. *Ignacio Olaitz Mitxelena Urnietan hil zen, baina Andoainen zenbatu dugu. ****Joxe Ramón Ansa Etxeberria eta Francisco Javier Ansa Zinkunegi Andoainen bakarrik zenbatu ditugu.

OSOTASUN FISIKOAREN, PSIKIKOAREN ETA MORALAREN URRAKETAK

Hildako pertsonak ez bezala, ez dago zauritutako biktimei inguruko zerrenda ofizial publikorik, datuen babes-politikaren ondorioz eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaorde Nagusiak ebatzi gabeko demanda eta auziak dituelako. Erakunde batzuek sarbidea izan dute datu globaletara, baina ez da izenik eta udalerririk ezagutarazi.

Gure landa lanean hainbat artxibo, hemeroteka eta argitalpenetan ikertu dugu, eta Andoainen bildutako 50 testigantzekin eta egindako elkarrizketekin egiaztatu dugu informazioa. Landa lan horretatik egoera hau ondorioztatu dugu:

ETA-REN ATENTATUETAN ZAURITU EDO BAHITUTAKO PERTSONAK

- Atal honetan huts egin zuen atentatu bat, zauritutako hiru guardia zibil, estortsioa egiteko bahitutako bi pertsona eta euren autoak atentatuetan erabiltzeko bahitu eta toki bakartuetan lotutako beste bost pertsona zenbatu ditugu.

HUTS EGINIKO ATENTATUA

Data	Biktima	Ondorioak	Egilea
1976/09/18	Pedro Gallo Boada, Andoingo alkatea	Erasotzaileari arma trabatu zitzaion, eta horrek bizia salbatu zion; hala ere, herritik alde egin zuen	ETA militarra

**ZAURITUAK
1975–1982**

Data	Biktimak	Ondorioak	Egilea
1979/02/03	Miguel Ángel Madariaga Lope, guardia zibila	Bala zauriak aldakan, bizkarrean eta sabelaldean. Noduluak bireketan eta eskuineko besoa elbarritua	ETA militarra
1979/02/03	Antonio Piqueras Martínez, guardia zibila	Lesio fisiko arinak, baina arazo psikologiko larriak	ETA militarra
1979/09/28	Manuel Ruiz, guardia zibila	Guardia Zibilaren Land Rover bat metrailatu zutenean zauritua	ETA-pm

BAHITUAK

Data	Biktima	Ondorioak	Egilea
1978/12/26	Luis Monfort Palacios bahitzen saiatu ziren, Andoingo Leizaran paper fabrikakoa, baina haren seme Luis Monfort Halle eraman zuten.	Egun berean utzi zuten aske bahitzaileek.	ETA
1986/03/10	José María Egaña Loidi	Krafft enpresako Administrazio Kontseiluko burua	ETA

- Luis Monfort Halle bere aitaren ordezkari gisa bahitu zuten, eta zer kopuru eta nola ordaindu adostu zuten, ETAk egun hartan bertan utzi zuen aske. José María Egaña (61 urte eta sei seme-alaba) 20 eguneko edukitua izan zen; 1986ko martxoaren 29an utzi zuten aske, Lezon.

AUTOAK ATENTATUETAN, LEKUALDAKETETAN EDO IHESALDIETAN ERABILTZEKO PISTOLAZ MEHATXATUTA BAHITUTAKO PERTSONAK

Data	Biktimak	Ondorioak	Egilea
1978/06/21	José Luis Siaga Lorenzo	Haren autoa hartu zuten, Seat 131 bat, eta lotuta eta bozatura utzi zuten mendian	Ezezaguna
1979/03/17	A.M.M.	Autoa lapurtu zioten, Citroën bat, Guardia Zibilaren kuartela metrailatzeko	Ezezaguna
1980/05/16	Pepsico etxeko furgoneta baten gidaria	DKW furgoneta hartu zuten, eta gidaria Orian abandonatu zuten	Pertsona armatuak
1995/08/17	Autokarabana baten jabea; Otazun lapurtu zioten (Araba).	Pistolaz mehatxatuta bahitu zuten, eta zenbait orduz eduki zuten atxikita Andoaineraino	ETA
2002/03/21	Peugeot 306 gris metalizatu baten gidaria	Pistola eskuetan hurbildu zitzaizkion Urnietan, eta zuhaitz bati lotuta utzi zuten Andoaindik hurbil dagoen mendi batean	ETA

TALDE PARAPOLIZIALEN ATENTATUETAN ZAURITU EDO BAHITUTAKO PERTSONAK

- Bi kasu ditugu atal honetan. Lehenengoa 1977tik 1980ra bitarte Andoainen eta inguruko herrietan jardun zuen talde berberak gauzatu zuen, seguru asko; hasieran, ez zituzten erasoak aldarrikatzen, eta ondoren hainbat sigla erabili zituzten, komeni zitzaienaren arabera: BVE, Triple A edo GAE.
- Bigarren kasua bahiketa bat da. Prozedura hori hainbat erakundek erabili zuten. Banketxe bateko zuzendariren bat kikiltzen zuten, familia osoa bahituta. Gaua etxean igarotzen zuten, eta biharamunean komandoaren zati bat sukurtsalera joaten zen arduradunarekin, kutxa gotorrera sartzeko, eta gainerako erasotzaileak etxebizitzan gelditzen ziren familiarekin, lapurreta amaitu arte kikiltzeko. Kasu honen berezitasuna zera da, Triple A taldeko kideak zirela.

BALAZ ZAURITUTAKO PERTSONA

1975–1982

Data	Biktimak	Ondorioak	Egilea
1979/03/30	Juan Alberto Uranga	Balaz zauritu zuten, Ontza elkartearen barrura tiro egin zutenean leihotik	Komando ultra

- Antzeko beste eraso bat 1980ko irailaren 11n egin zuten, Ontza elkartearen aurka hura ere. Hontakoan, tiroak bota baino lehenago bertan zeudenek beren burua lurrera botatzeko astia izan zuten, eta bizirik atera ziren. BVEk aldarrikatu zuen eraso.

TALDE PARAPOLIZIALEK EGINDAKO BAHIKETAK

Data	Biktimak	Ondorioak	Egilea
1979/09/01	José Mari Arruti	Hiru pertsona armatuk bahitu, heriotzarekin mehatxatu eta kolpatu egin zuten, nahasi egin zirela eta beste pertsona baten bila zebiltzala konturatu ziren arte	Triple A
1980ko ekaina	Andoaingo banku sukurtsal bateko arduraduna eta haren familia; nahiago dute izenik ez eman*	Gaua etxean igaro ostean, bi pertsona armatuk sukurtsalera eraman zuten erakundeko arduraduna, eta beste bik familia atxiki zuten. Lapurreta ez zen ongi atera, arazo teknikoak tarteko	Triple A

* Txosten hau idatzi duen taldeak 2018ko maiatzean Antonio Amondarain Aizpuruari egindako elkarrizketa batean jasotako testigantza zuzena.

SABOTAJEETAN EDO KALE EKINTZETAN ZAURITU EDO KOLPATUTAKO PERTSONAK

- 9 dira kale borrokako erasoetan edo motibazio politikoko testuinguruetako bestelako erasoetan zauritutako pertsonak: horietako 2 ertzainak dira eta beste bat Udaltzaingoko sarjentua; zaurituetako 5ek beren etxebizitzan aurkako kale borrokako erasoetan jaso zituzten zauriak eta beste bat etxe azpiko establezimendu bati molotov koktelekin eraso egitean etxebizitza utzi behar izatean zauritu zen.

ERASOETAN ZAURITUTAKO PERTSONAK

Data	Biktimak	Ondorioak	Egilea
1995/07/01	Bi ertzain	Haien ibilgailua harriatu eta kristalak apurtzean zaurituak	Manifestariak
2002/08/28	Joseba Pagazaurtundua, Udaltzaingoko sarjentua	Erratz baten makilaz kolpe bat jaso zuen ezkerreko sorbaldan	PSE-EEren egoitza paperezatu nahi zuten manifestariak

KALE BORROKAKO EKINTZETAN BEREN ETXEBIZITZEN AURKAKO ERASOEN ERAGINDAKO KALTEEN ONDORIOZ MEDIKU ZENTRO BATEAN ARTATUTAKO PERTSONAK

Data	Biktimak	Ezaugarriak	Egilea
1997/08/06	Juan Bautista Erro kalean bizi zen emakume bat	Koktelekin gauzatutako eraso batengatik etxea utzi behar izan ostean nerbiotakoa izan zuelako artatu zuten	Kale borroka
2000/11/01	Adineko senar-emazte batzuk, haien semea eta bizilagun bat	Emakumeak 2. mailako erredurak izan zituen hanketan, eta senarrak, berriz, 1. mailakoak besoetan. Leihotik salto egiteko zorian egon zen. Semeak ebaki bat izan zuen. Bizilagun bat keagatik intoxikazioagatik artatu zuten	Etxean prestatutako lehergailu bat jaurti zuen txanodun talde bat (etxebizitza okerrari egin zioten eraso)
2003/11/18	Nerea Amuchastegui Díaz*	Kea inhalatu zuen etxebizitzaren aurkako eraso batean. Arrastoak geratu zitzaizkion	Kale borroka

* Amuchastegui-Díaz familiak alokairuzko etxebizitza batean bizi behar izan zuen, eta bi urte igaro arte ez zen bere etxera itzuli, segurtasun arrazoiengatik.

- Kale borrokako eraso horietako batzuen ondorioz, etxebizitza asko samar hustu behar izan zituzten goizeko ordu txikitan, eta adin guztietako kidez osatutako familiei eragin zieten kaltea. Kalte materialak eragiteaz gain, lehergailuen sugarrek arriskuan jarri zituzten haien biziak, kasuren batean sua gas naturalaren hornidurara heldu baitzen; zorionez, ez zen kalte larriagorik izan. Era berean, sugarren kearen ondorioz bizilagunek kalean gelditu behar izan zuten, ordu txikitan, kasu batzuetan baita lau orduz ere; horrek tirabirak eta nerbio krisialdiak eragin zituen.

BIZILAGUNEI BEREN ETXEBIZITZAK UTZARAZTEA ETXEEN, ESTABLEZIMENDUEN... KONTRAKO ERASOEN ONDORIOZ

Data	Biktimak	Ezaugarriak	Egilea
1997/04/09	Eskolak kaleko BBV sukurtsalaren gaineko lau solairuetako bizilagunak	Sukurtsalari eraso egin zioten molotov koktelekin 00:40ak aldera, eta kearen ondorioz bizilagunak irtenarazi behar izan zituzten. Ertzaintzak eta suhiltzaileek egoera kontrolpean izan arte ezin izan ziren etxera itzuli	Kale borroka

Data	Biktimak	Ezaugarriak	Egilea
1997/08/06	Juan Bautista Erro kaleko 9. zenbakiko hamabi familia; bertan zegoen Euskadiko Kutxa	Sugarrak lehenengo solairuraino iritsi ziren, eta gas naturalaren hornidurari kalte egin zioten. Udaltzainek eta suhiltzaileek egoera kontrolatzea lortu zuten, eta bizilagunek beren etxeetara itzuli ahal izan zuten, lau ordu kanpoan igaro ostean	Kale borroka
2001/11/01	Ondarreta kaleko 7. zenbakiko hamaika solairuetako bizilagunak	Etxebizitza bati eraso egin, eta sua zabaldu egin zen; ordu erdi kanpoan igaro ostean, goizaldeko 02:00etan bizilagunak beren etxeetara itzuli ahal izan ziren	Kale borroka
2003/11/18	Zuberoa kaleko atari bateko bizilagunak; bertan bizi zen Amuchastegui-Díaz familia.	Suziri leherkor baten kearen eta sugarren ondorioz kaleratu zituzten	Kale borroka
2012/04/07	Berria kaleko 50. zenbakiko etxebizitza bloke bateko bizilagunak	Goizaldeko 05:00etan lau edukiontzi erre zituzten. Suhiltzaileek sugarrak itzali zituztenean, bizilagunak beren etxebizitzetara itzuli ahal izan ziren	Ezezagunak. Greba ekonomiko baten bezperan

ESTATUKO SEGURTASUN INDARREK LARRIKI ZAURITUTAKO PERTSONAK

Hernani eta Errenteriarekin batera, Andoainen oldartu da gehien Polizia. Behin batean etxe bateko sotoan sartu ginen eta Poliziak atea hautsi zuen. Erabat jipoitu nahi gintuzten. Manuel Correas Díaz

Silen entpresako langileen manifestazioak guardia zibilak askotan erreprimitu zituzten. Zehazki, niri sekulakoak eman zizkidaten haurdun zegoen emakume bat babesten saiatu nintzenean. Hainbat guardia zibil joka ari zitzaizkion, armen kulataz, Elizondo tabernaren izkinan³⁶. Elías Díaz Arriba

- 10 kasu nabarmen daude hurrengo koadroan non indarra neurritz kanpo erabili zuten manifestazio eta protesta politikoak zapaltzeko eta identifikatutako pertsonak zauritu zituzten. Beste kasu batzuetan, zaurituak ez ziren mediku zentroetara joan, errepresalien beldur, edo beste herri batzuetan joan ziren. Deialdi jakin batzuetan, hala nola Silenek 1976an egindako greban, pertsona ugari zauritu eta kolpatu zituzten indarkeriaz langileen grebari elkertasuna adierazteko protestetan; horrelako kasuak zenbatu gabe daude, ez dagoelako identifikaziorik.
- Hemen nabarmenduta ageri diren kasu guztiak Guardia Zibilaren esku hartzeak dira, eta ordena publikoa bermatzeko betebeharra gainditzen dute. Bi pertsona balaz zauritu zituzten, beste hiru gomazko pilotaz edo balaz, eta gainerakoak ohiko armen ipurdiaz kolpeak emanaz.

36 Elías Díaz Arribaren lekukotasuna, txosten honetarako elkarrizketatua.

- Bederatzi kasuk zerikusia dute zapal dutako deialdi, mobilizazio eta protesta politikoekin, eta hamargarrena, berriz, poliziaren zaintzapean zegoen pertsona baten aurkako botere gehiegikeria da.
- Hortaz, ez daude jasota polizia taldeek greba, manifestazio eta protestetan egindako kargen ondorioz arinkiago zauritu, kolpatu eta makatutako pertsonen beste kasu batzuk.
- Irizpide horiek ezartzeko, oinarritzat hartu dugu Nazio Batuen Erakundeak Legea Betearazteko Ardura duten Funtzionarioentzat ezarritako Jokabide Kodea, baita Legea Betearazteko Ardura duten Funtzionarioek Indarra eta Suzko Armak nola erabili behar dituzten zehazten duten oinarritzko printzipioak ere³⁷.

ESTATUKO SEGURTASUN INDARREK ZAURITUTAKO PERTSONAK

1960–1975	Biktima	Egilea	Ondorioak
1966/04/10	Xabier Amiano Apalategi	Guardia Zibila	Bala zauria sorbaldan
1975/11/11	Juan Ignacio Irulegi Garmendia	Guardia Zibila	Bala zauria ezkerreko belaunean

1976–1982	Biktimak	Ondorioak	Egilea
1976/02/25	Elías Díaz Arriba, kulataz kolpatzen ari ziren emakume haurdun bat babesten saiatzen ari zela	Biek jaso zuten jipoi ederra. Kontusioak zituen gorputz osoan eta buruan	Guardia Zibila
1976/02/25	Kopuru zehaztugabea. Silen SL enpresaren grebaren aldeko elkartasun manifestazioan	Hainbat pertsona artatu zituzten osasun zentroetan, eta batzuk ospitaleratu ere egin zituzten.	Guardia Zibila
1976/09/27	Margarita Lizarazu Balerdi	Arantzazu Erresidentzian artatu zuten: hausturak, kontusioak eta urradura ugari zituen	Guardia Zibila
1976/09/27	Itziar Martiarena Lizarazu	Arantzazu Erresidentzian artatu zuten: hausturak, kontusioak eta urradura ugari zituen	Guardia Zibila
1976/09/27	José Ramón Goikoetxea	Gomazko pilotaren inpaktua hurbiletik ezkerreko giltzurrunean	Guardia Zibila
1979/03/18	José Antonio Pérez Gabarain	Gomazko pilotak eragindako garun traumatismoa	Guardia Zibila
1979/03/18	FG	Pilotakada buruan; 10 eguneko baja immobilizatuta	Guardia Zibila
1979/03/18	Elías Girol	Kulata kolpeak buruan. 15 egun bajaran	Guardia Zibila

37 OSSE, Anneke (2007). *Entender la labor policial. Recursos para activistas de derechos humanos*. Madril. Amnistia Internazionala (EDAI) eta Amnesty International Nederland. Zehazki, 5. atala: "El uso de la fuerza por parte de la Policía", 125.–144. or.

- Horrelako gertaeren kasuan justizia lortzeko izan ohi diren gorabeheren adibide garbia da Juan Ignacio Irulegi Garmendiaren kasuan irekitako sumarioa; Manuel Sánchez Vallés guardia zibilak balaz jo zuen belaunean, 1975eko azaroaren 11n, biktimak inolako erresistentziarik jarri ez zuela. Gazte zaurituak aurkeztutako eskea bertan behera gelditu zen 1977ko amnistiaren ondorioz. Magistraturak behin eta berriz galdetu zion Guardia Zibileko Zuzendaritza Orokorrari demanda jaso zuen guardia zibilaren norako berria, baina Estatuko erakunde horrek ez zion erantzun. Aurrekaririk gabeko epai batean, bost urte geroago, 1982ko ekainaren 24an, Joaquín Navarro Esteban Donostiako lehen instantziako epaile magistratuak Estatua eta tiro egin zuen guardia zibila zigortu zituen, oinarritzat harturik deklaratzera deitutako guardia zibila non zegoen jakinarazi nahi ez zuten Estatuko erakundeen «ausarkeria eta fede gaiztoa», horrek “eragotzi egin baitzuen, arlo judizialek behin eta berriz eskatu arren, Manuel Sánchez Vallés guardia zibilaren, hau da, tiro egin zuenaren aitortza judizialeko frogaren praktika”³⁸.
- Elkarrizketatu ditugun pertsona adinekoagoek 1976an herritar zibilen aurka eginiko hiru eraso azpimarratu dituzte. Hiru kasuetan mobilizazioak modu antolatatu eta baketsuan egiten ari ziren, eta ordurako hila zen Franco diktadorea. Lehenengoa, 1976ko urtarrilaren 9an herrian mediku gehiago eskatuz egin zen manifestazioaren aurka. Zumea Kalea eta Kale Berria batzen diren horretan (Banco Guipuzcoano parean), kulatazoka eta kolpeka guardia zibilak disolbatu egin zuena. Bigarrena, otsailaren 25ean izan zen, Silenen grebaren garaian; eta hirugarrena, urte bereko irailaren 27an. Kronologian horri buruzko informazio gehiago dago, baina hiruretan hainbat pertsona ospitaleratu behar izan zituztela ageri da, Guardia Zibilak beren jeepekin manifestazioan parte hartzen ari ziren pertsonen aurka egin ostean. Agentek nortasun agiriak kendu zizkieten manifestariei edo manifestari izatearen “susmagarri” zirenei, eta gero kuartelera joan behar zuten haien bila.
- Udal erakundetik hainbat adierazpen egin zituzten horrelako esku hartzeen aurrean. Hala bada, 1979ko martxoaren 18an, korporazioak ezohiko udalbatza batean salatu zituen herrian 1977tik 1980ra bitarte izandako atentatu parapolizialen aurkako manifestazio baketsu batean Guardia Zibilak gauzatutako erasoak. 1979ko maiatzaren 7an egin zuen beste adierazpen bat, udal korporazioa osatzen zuten alderdi politiko guztiek izenpetua. Besteak beste, adierazpenean jasota zegoen “udalerrian finkatutako Guardia Zibilaren jokabide tradizional antidemokratiko eta bereziki errepresiboak herritarrengan sortzen zuen ezinegona». Hori zela eta, gobernuko agintariei eskatu zieten « beren jokabide errepresiboengatik berehala erantzukizunak eskatzeko Guardia Zibilaren Andoaingo postuko arduradunei”, eta gogora zekarten “aipatutako indarrak [1979ko martxoaren 18ko] manifestazio baketsuaren aurrean izandako jokabide irrazional eta basatia». Hortaz, zegokien agintariei eskatu zieten “erregimen frankistan bereziki nabarmendu ziren Andoaingo Guardia Zibileko kideak Euskaditik kanpo eramateko, beren jokabide errepresiboengatik, eta, horrez gainera, beharrezko erantzukizunak eskatzeko eta haiek kidegotik kanporatzeko”. Era berean, Ordena Publikoko Indarrak alkatearen agindupean egotea eta euskal polizia abian jartzea ere eskatu zuten.

Gobernadore zibilak zenbait zitazio bideratu zituen, eta udal indar politiko guztiek uko egin zioten haietara joateari; gertaera hura ikusirik, hurrengo egunetan beste 25 udaletan Andoinen hartutako erabaki berberak hartu zituzten, elkartasuna adierazteko.

38 *El País* 1982/06/25.

TORTURAK, TRATU TXARRAK EDO ZIGOR ANKER, GIZAGABE EDO UMILIAGARRIAK SALATU DITUZTEN PERTSONAK

- Beheko taulan aipatuta dauden salaketekin, ofizialki ikertu ez direlako arrazoizko erantzun bat ere jaso ez duten alegazioen zerrenda bat osatu nahi izan dugu. Ikerketa ofizialen gabezia Europako bederatzi epailetan berretsi dute.
- Gure zenbaketaren arabera³⁹, Andoainen (herrian atxilotuak eta atxilotutako andoaindarrak) 205 pertsona atxilotu zituzten guztira –26 emakume eta 179 gizon–, eta horietatik 78k (6 emakume eta 72 gizon) salatu zuten atxiloaldian torturak, tratu txarrak edo zigor anker, gizagabe edo umiliagarriak jasan izana.
- Taulan ageri diren kasuak publikoki edo judizialki salatu dituzte, eta gutxienez hiru iturri desberdinetan egiaztatu ditugu. Udalerriko lehen eskuko iturriez gain, UPV/EHUko IVAC–KREIk egindako *Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960–2014)* txostena erabili dugu erreferentziazko oinarri gisa. Txosten hori 2017ko abenduan aurkeztu zuten, eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eskatuta presatu zuten, Paco Etxeberriaren, Laura Pegoren eta Carlos Martin Beristainen zuzendaritzapean.
- Badakigu beste salaketa batzuk ere badirela, baina ez ditugu txosten honetan jaso, izan biktimak jada hilda daudelako, izan datuen babesagatik, edo biktimak aurkitu ez ditugulako, edo ezin izan ditugulako datuak behar bezala egiaztatu. Lan hori egiteke dago.

Adibide bat. Estanis Amuchastegui Arreguiaren testigantzak Guardia Zibilak 1975ean Andoainen bideratutako PTEren zelularen atxiloketa azaltzen du, eta «bortizki» torturatu zituztela dio, eta «garai hartan jipoitu egiten zituztela kuartelean»... Atxilotuetako bat hizpide hartuta, Julian Mendez, «ia garbitu zutela» esaten du. Julian Mendez ez ezik (Errenteriarra zen baina Andoaingo zelulan ari zen), Iñaki Zabala Zabala, Jesus Gonzalo Zabaleta «Txori», Carlos Sanz Díez de Ure (alkate izango zen gero) eta Pablo Narciso Tejada atxilotu zituzten. Jasotako testigantzari esker badugu salaketa horren berri, baina ez dugu torturei eta tratu txarrei buruzko IVAC/KREIren eta Eusko Jaurlaritzaren Txostenarekin egin beharreko kontrastearen emaitzarik.

Beste kasu batzuetan datuak kontrastatzeko ez dugu aukera izan: Joxe Etxeberria Lasarte (Urnietakoa, “Gora Euskadi Askatuta” oihukatu zuena Andoaingo SantaKruzetan), Cándido Uranga Ormaetxea eta Jesús Pérez Markotegi (Labordeko empresa batzordeko kideak), Carmen Otegi (zendu da)... edo Toribio Eraso eta Julio Miron Gonzálezen kasuan 1970/12/04an atxilotuak eta guardia zibilak golpatu eta ilea moztu zieten kuartela barruan.

- Taulan jasota dauden salaketek Guardia Zibila aipatzen dute 45 kasutan, Polizia 32 kasutan eta Ertzaintza kasu batean.
- Taulan ikusten denez, torturak salatu zituzten 78 pertsonetatik 18 aske geratu ziren kargurik gabe (horietako batzuk epailearen aurrera ere ez zituzten eraman), beste 5 aske geratu ziren karguekin, nahiz eta batzuen kausak epaiketan artxibatu, eta beste 5 espetxean denboraldi labur bat igaro ostean geratu ziren aske, eta absolbitu egin zituzten epaiketan edo epaiketarik gabe.
- Kasu hauetako batzuk azalduta daude María Servini epaileak frankismoko kargudun eta poliziakide batzuen aurka Argentinan irekita duen kereilan.

39 Pertsona gehiago ere izan dira atxilotuak, gutxienez 29 gehiago, baina haien izenak ez daude jasota aztertu ditugun bigarren mailako iturrietan; eta horiei beste kasu batzuk ere gehitu behar zaizkie, modu orokorrean jasota daudenak: “atxiloketak izan ziren”. Atxilotutako pertsonetatik gutxienez hamazazpi udalerritik kanpo atxiki zituzten, Frantziako Estatuan, nagusiki.

Hurrenkera kronologikoan, hauek dira salatutako kasuak:

1960–1978

Data	Biktima	Egilea	Ondorioak
1961/07/29	Ildefonso Iriarte Otermin	Polizia	Espetxea
1962/08/20	Ildefonso Iriarte Otermin	Polizia	Espetxea
1964/04/15	Juan Martin Gogorza Alcoz	Polizia	Espetxea
1964/04/15	Javier Zubillaga Agirrezabala	Polizia	Espetxea
1964/04/15	Jesús M ^a Olazabal Iñurrita	Polizia	Espetxea
1964/04/15	Juan Pedro Arregi Goikoetxea	Polizia	Espetxea
1966/08/07	José Luis López de Lacalle	Polizia	Espetxea
1966/04/30	Juan Martin Gogorza Alcoz	Polizia	Espetxea
1966/08/30	Jesús María Olazabal Iñurrita	Polizia	Espetxea
68/08/5–12	Francisco Roldán Agirresarobe	Guardia Zibila	Espetxea
68/08/5–12	Joserra Goikoetxea Sorondo	Guardia Zibila	Espetxea
68/08/5–12	Joseba Arregi Aranburu	Guardia Zibila	Espetxea
68/08/5–12	Kontxi García Amiano	Guardia Zibila	Espetxea
68/08/5–12	Ignacio Arín Arrieta	Guardia Zibila	Espetxea
68/08/5–12	Iñaki Sueskun Jauregi	Guardia Zibila	Espetxea
1970/10/13	Elías Díaz Arriba	Guardia Zibila	Aske kargurik gabe
1970/12/05	Gerbasio Agirre Arin	Guardia Zibila	Espetxea
1970/12/05	Jesús Gómez Álvarez	Guardia Zibila	Aske kargurik gabe
1971/03/07	Joserra Goikoetxea Sorondo	Polizia	Espetxea
1972/08/12	Josu Urrutia Galarraga	Polizia	Aske kargurik gabe
1972/08/12	José Ramón Sevillano García	Polizia	Aske kargurik gabe
1973/00/00	Arantxa Lizarribar Lasa	Polizia	Aske karguekin
1974/07/15	Ramón Irazu Garmendia	Polizia	Espetxea
1974/07/15	Iñaki Irazu Garmendia	Polizia	Espetxea
1974/07/15	César Lazkano Ajamil	Polizia	Espetxea
1974/09/16	José Luis Urbistondo Ibarbia	Guardia Zibila	Espetxea
1975/02/11	Bixente Isasi Aramburu	Polizia	Espetxea
1975/02/11	Ramón Jauregi Elizondo	Polizia	Espetxea
1975/02/11	Miguel Julián Arregi Roldán	Polizia	Espetxea
1975/02/11	Jesús Ramón Gómez Uranga	Polizia	Espetxea
1975/08/28	Patxi Gorrotxategi Begiristain	Guardia Zibila	Espetxea
1975/09/01	José Ruiz Fajardo	Guardia Zibila	Aske karguekin
1975/09/01	Ramón Azpeitia Ormazabal	Guardia Zibila	Aske karguekin
1975/09/01	Antonio Miron González	Guardia Zibila	Aske karguekin
1975/09/01	Joxe Joakin Esnal Escudero	Guardia Zibila	Espetxea
1975/09/15	Arantza Lizarribar Lasa	Guardia Zibila	Espetxea
1975/09/21	Ixiar Irulegi Garmendia	Polizia	Aske kargurik gabe
1976/10/11	Xabier Arberas Ezama	Guardia Zibila	Aske kargurik gabe
1976/10/11	Antonio Miron González	Guardia Zibila	Aske kargurik gabe
1976/10/11	Juan Inazio Irulegi Garmendia	Guardia Zibila	Aske kargurik gabe

1979–1982

Data	Biktima	Egilea	Ondorioak
1980/10/24	María Mercedes Zabala Huici	Guardia Zibila	Aske epailearen aurretik igaro gabe
1980/11/30	J. Ander Armendariz Barrenetxea	Guardia Zibila	Espetxea
1980/11/30	Jesús María Iraola Alkorta	Guardia Zibila	Espetxea
1980/11/30	Francisco Arruti Arruti	Guardia Zibila	Espetxea
1980/11/30	José Antonio Arruti Arruti	Guardia Zibila	Espetxea
1980/11/30	Vicente Aizpurua Gorrotxategi	Guardia Zibila	Espetxea
1980/11/30	Ignacio Olazabal Ezeiza	Guardia Zibila	Espetxea
1980/12/03	Pedro Jauregi Arribillaga	Guardia Zibila	Aske kargurik gabe
1982/01/13	Bittor Lizarralde Urreta	Polizia	Espetxea
1982/01/13	Fermín Lagala Urkia	Polizia	Espetxea
1982/01/13	Josetxo B. Urdanpilleta Goenaga	Polizia	Aske kargurik gabe
1982/01/13	Imanol Olazabal Ezeiza	Polizia	10 hilabete espetxean

1983–2016

Data	Biktima	Egilea	Ondorioak
1984/07/18	Fermín Lagala Urkia	Polizia	Espetxea
1986/11/07	Pedro Loran Iturbide	Polizia	Aske epailearen aurretik igaro gabe
1987/05/21	Kontxi Labaien Intxausti	Polizia	Aske kargurik gabe
1987/09/18	Inaxio Otaño Labaka	Polizia	Espetxea
1988/06/20	Xabier Jauregi Arribillaga	Guardia Zibila	Espetxea
1988/07/12	Patxi Irastorza Goitia	Polizia	Aske
1991/01/14	Xabier Lekuona Barreras	Guardia Zibila	Espetxea
1991/01/14	Mikel Armendariz Sierra	Guardia Zibila	Epaileak aske utzi zuen 19an
1991/01/14	Joxi Kortajarena Izagirre	Guardia Zibila	Aske, 19an epailearen aurretik igaro ostean
1991/01/14	Andoitz San Sebastián Aizpurua	Guardia Zibila	Espetxea
1991/01/14	Axier Oiartzabal Txapartegi	Guardia Zibila	Espetxea
1991/01/14	Juan José Petrikorena Leunda	Guardia Zibila	Espetxea

Data	Biktima	Egilea	Ondorioak
1991/01/14	Aritz Arnaiz Laskurain	Guardia Zibila	Espetxea
1994/11/19	Koldo Mancisidor Aldasoro	Guardia Zibila	Espetxea
1994/11/19	Lucas Sarasola Araneta	Guardia Zibila	Aske, epailearen aurretik igaro gabe
1994/12/18	Aritz Arnaiz Laskurain	Guardia Zibila	Espetxea
1994/12/20	Iker Arnaiz Laskurain	Guardia Zibila	Aske kargurik gabe
1998/06/25	Pello Zelarain Oiarzabal	Polizia	Espetxea
2000/04/27	Iñaki Miner Canflanca	Ertzaintza	Espetxea
2002/09/13	Arkaitz Lavega Tárrega	Guardia Zibila	Espetxea
2003/02/20	Martxelo Otamendi Egiguren ⁴¹ eta Iñaki Uria Manterola ⁴² , eta <i>Euskaldunon Egunkariaren</i> beste kargudunak ⁴³ , hemen kontatu ez ditugunak eguneroko lanpostua ez zegoelako Andoinen.	Guardia Zibila	Aske kargurik gabe, Iñaki Uria (18 hilabete) eta Peio Zubiria (hilabete bat) izan ezik; 2010ean guztiak absolbitu zituzten.
2009/11/24	Euken Villasante Sarasibar	Polizia	Espetxea
2012/02/21	Iñaki Igerategi Lizarribar	Guardia Zibila	Espetxea
2012/02/21	Juan Ignacio Otaño Labaka	Guardia Zibila	Espetxea
2013/06/11	Rubén Gelbentzu González	Guardia Zibila	Espetxea eta epaiketan absolbitua

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak kondenatu egin zuen Espainiako Estatuak Martxelo Otamendiren tortura salaketak ez ikertzeagatik.

Sekuentzia:

- Juan del Olmo epaileak *Euskaldunon Egunkaria* ixteko agindu zuen, “ETAren tresna” bat zela argudiatuta, eta Guardia Zibilak egunkariko zuzendaritzako hamar kide atxilotu zituen 2003ko otsailaren 20an. Egunkaria zigilatu zuten Andoaingo Martin Ugalde Parkean, eta euskal kulturarekin zerikusia zuten hainbat erakunderen egoitzak erregistratu zituzten (Ikastolen Federazioa...).

40 *Euskaldunon Egunkaria* egunkariko zuzendaria

41 *Euskaldunon Egunkaria* egunkariko Administrazio Kontseiluko kontseilari delegatua.

42 Joan Mari Torrealde, *Euskaldunon Egunkariako* Administrazio Kontseiluko burua eta *Jakin* aldizkariko zuzendaria; Xabier Oleaga, *Euskaldunon Egunkariako* zuzendariondokoa eta Ikastolen Federazioko komunikazio arduraduna; Txema Auzmendi, *Euskaldunon Egunkariako* Administrazio Kontseilukoko idazkaria eta Herri Irratiko zuzendariordea, eta Xabier Alegria, 18/98 Sumarioan auzipetua. Luis Goiak, Inma Gomilak, Fermín Lazkanok eta Peio Zubiriak ere tratu txarrak kontatu zituzten, baina ez zuten salaketarik jarri, aurrekoek ez bezala.

- Terrorismoaren aurkako legedia aplikatuz, atxilotuak bost egunez eduki zituzten atzemanda eta inkomunikatuta Guardia Zibilaren dependentzietan. Bosgarren egunean eraman zituzten epailearen aurrera.
- 23an, Peio Zubiria, atxilotuetako bat, gaixo kronikoa, ospitalera eraman zuten, krisi bat eduki zuelako. Bertsio ofizialaren arabera, bere buruaz beste egiten saiatu zen, baina beste hedabide batzuek poliziaren dependentzietan jasotzen ari zen tratuari egotzi zioten egoera hura.
- 25ean, epailearen aurrean deklaratu ostean, atxilotuetako bostek poliziaren zaintzapean torturak eta tratu txarrak jasan izana salatu zuten, honako hauek, zehazki: Martxelo Otamendik, Iñaki Uriak, Xabier Oleagak, Txema Auzmendik eta Xabier Alegriak. Beste batek ere gauza bera salatu zuen handik denbora batera: Joan Mari Torrealdaik.
- Del Olmo epailearen eta komunikabideen kameraren aurrean, Martxelo Otamendik kontatu zuen “arratoinen pare” tratatu zutela, irain eta umiliazio krudelak jaso zituela, biluzik eta hainbat posturatan egotera behartu zutela, kolpeak eman zizkiotela barrabiletan, isekak eta heriotza mehatxuak jaso zituela, ia ito zutela buruan poltsa bat jarrita, exekutatuak zuten itxurak egin zituztela eta lo egitea eragotzi ziotela. Instrukzioko epaileak uko egin zion ikertzeari.
- 27an, Bakearen Aldeko Koordinakundeak adierazi zuen “oso kezkatuta” zegoela Egunkaria kasuan atxilotutako pertsonen aurkeztutako tortura salaketengatik, eta martxoaren 28an, atxilotutako pertsonen inkomunikazio aldia arau zedila eskatu zuen, eta Estatuak torturak eta tratu txarrak ahalbidetzen dituzten “zigorgabetasun espazioak” ezabatu behar zituela adierazi zuen.
- Madrilgo 5 zenbakidun Instrukzioko Epaitegiak hartu zuen kasua, baina forentsearen adierazpena entzun ostean, auzia artxibatu zuen, 2004an.
- Era berean, 2003ko martxoan, Barne Ministerioak auzitara eraman zituen torturak salatu zituztenak, salaketak “faltsuak”, “kalumniazkoak” eta “iraingarriak” zirela iritzita eta ETaren “ohiko” estrategia zirela argudiatuta. Kereila onartu egin zuten, baina Auzitegi Nazionalak artxibatu egin zuen urte hartako abenduan, Barne Ministerioak ezin izan zuelako frogatu ez zela torturarik izan.
- Tortura salaketak ere artxibatuz joan ziren auzitegietan, baina Martxelo Otamendik, Auzitegi Konstituzionalaren aurreko errekurtsioa agortuta, 2008an beste salaketa bat aurkeztu zuen Europako Giza Eskubideen Auzitegian (EGEA).
- 2010eko apirilean, Auzitegi Nazionalak inputatu guztiak absolbitu zituen, “akusatzailerek ez dutelako frogatu prozesatuek ETarekin inongo harremanik dutenik”, eta “prentsa askatasuneko injerentziatzat” jo zuen egunkariaren itxiera.
- 2012ko urrian, EGEAk zigorra ezarri zion Espainiako Estatuari, eta Martxelo Otamendiri kalte–ordainak ematera behartu zuen: 24.000 euro, ez zuelako eraginkortasunez ikertu tortura salaketa; 20.000 euro, kalte moralengatik ordain gisa, eta 4.000 euro, gastu judizialengatik. Europako epaiaren arabera, Auzitegi Nazionalak “pasibotasunez” jokatu zuen tortura salaketaren aurrean, eta Madrilgo 5 zenbakidun instrukzioko epaitegiaren ikerketak “ez ziren izan behar bezain sakonak eta eraginkorrak”.

Zaila da tortura eta tratu txarren delitua frogatzea; izan ere, aztertuta dago praktika deliktiboa nola gauzatu hura frogatzeko inolako aztarnarik utzi gabe. Horregatik darabilte inkomunikazioa. Txosten hau idazteaz arduratu den taldeari ez dagokio kasu hauetan sakontzea, baina idatzirik utzi nahi dugu Andoinen jaso dugun pertzepzio soziala ez datorrela bat pertzepzio judizialarekin, eta gero eta ugariagoak direla delitu hori hedatuta dagoela aipatzen duten era askotariko ahotsak.

*Nire ustez, zenbait kasutan Estatua erratu egin da. Iruditzen zait torturen gaia, hamaika aldiz ukatu duten arren, hortxe dagoela eta izan direla halakoak. Bai. Eta nire ustez ez dauka inolako justifikaziorik. Ulertzen dut norbaitek justifika dezakeela esanez informazioa nonbaitetik atera behar dela. Baina guztiok dakigu informazioa beste modu batera atera behar dela. Beste garai batzuk ziren. Dena dela, hori ez da aitzakia, ezin dira gauzak edozer modutara lortu. Hori onartzen dut, eta badakit izan direla halako kasuak. Hori ere onartu beharra dago. Bakoitzari dagokiona, eta gaizki egina dagoena, gaizki egina dago. Baina goazen guztiok onartzera. **Petri Romero Pozo***

Leyçaur aldizkariaren azken zenbakian, 14.ean, 2017koa, Pedro Barruso Barés historialariak aipatu zuen torturak “behin eta berriz”⁴³ erabili izan direla eta “indarkeriaren ondorioak ez direla hilketak bakarrik”. 2018ko uztailaren 1ean, TV3k⁴⁴ Manuel Pastrana Millán guardia zibilari egindako elkarrizketa bat botu zuen ETBk. Bertan, kazetariak galdetzen dio ea torturak gauzatu izan diren eta ea ohikoa izan den atxilotuak kolpatzea, eta guardia zibilak honela erantzuten dio: “Euskaldunak, oro har, txapelak dira; ukitu besterik egin ez, eta hitz egiten hasten dira”, “Espainian zigortu da, bai, baina ez beste herrialde batzuetan bezainbeste”...

- Ohikoa zen atxilotuak jotzea? –galdetzen dio kazetariak.
- “Tira, atxilotu bat ez dugu kafe bat hartzera gonbidatuko; **(informazioa) atera egin behar zaio, ahal den moduan**, bai Poliziak, bai Guardia Zibilak, eta beste zerbitzu guztiek”.
- Torturak dira? Torturez hitz egin daiteke? –galdetzen dio berriro.
- **“Jakina. Jakina”**.

Errenteriako PPko zinegotzi ohi eta José Luis López de Lacalleren eta Joseba Pagazaurtunduaren lagun Chema Herzog de Bustosi dagokionez, honako hau irakur daiteke *eldiario.es* argitalpenean:

*Ez du inoiz ezkutatu Euskadin nagusiki eta zalantzarik gabe ETA hiltzaile nagusia izan bada ere poliziak torturak eta gehiegikeriak gauzatu dituela. “Hemen ‘bainuontziarena, ‘poltsa’, astinaldia... erabili dituzte. Ni guardia izango banintz, ezingo nioke ‘bainuontziarena’ egin preso bati. Zertarako zara guardia? Hori egitera behartzen bazaituzte, utz ezazu”.*⁴⁵

43 BARRUSO BARÉS, Pedro (2017). *Gerra Zibila eta Frankismoa Andoainen (1936–1975) – Guerra Civil y Franquismo en Andoain (1936–1975)*. Leyçaur, 14. zk., 596. or.

44 ETBkTV3 katearen elkarrizketa bat eman zuen 2018ko uztailaren 1ean: “El guardia civil Manuel Pastrana reconoce la práctica de la tortura”. <https://www.eitb.eus/es/noticias/politica/videos/detalle/5703100/video-el-guardia-civil-manuel-pastrana-reconoce-practica-tortura-/>

45 2016ko urriaren 20an, *eldiario.es* egunkariak Chema Herzogek Errenteriako PPko zinegotzi zela Jordi Évoleren *Salvados* saioan esandako hitzak jaso zituen. La Sexta kateko saio horretan elkarrizketatu zuen Évolek, 2014ko martxoan.

Era berean, Deustuko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak 2017an egindako *Unibertsitateko gazteek Euskadin bizi izan den terrorismoari eta giza eskubideen urraketei buruz dakitena eta duten diskurtsoa* azterlanean jasotzen denez, "tortura, giza eskubideen urraketa larria, oso presente egon da eta dago bake eta bizikidetzako gaien inguruko eztabaidetan. Gazteei galdetu zaienean poliziek tortura erabili izan duten, gehienek uste dute urraketa hori oso sarritan gertatu dela. Erantzunen %70ek eman du iritzi hori. Beste %15 batek uste du "kasu gutxitan" erabili izan dela. Eta soilik %1ek uste du inoiz ez dela tortura erabili. "Ez daki, ez du erantzun" aukera hautatu dute gazteen %14k"⁴⁶.

Noiz edo noiz, hala nola 26–68 prozesu sumarisimoan, VI. Eskualde Militarreko Donostiako Kapitaintza Nagusiko auditoreak jasota utzi zituen atxilotuek adierazitako tortura eta tratu txarren salaketak⁴⁷. Aldi hartan, 1970eko otsailaren 5ean, auditoreak honela adierazi zuen aurretiko prozeduraren amaieran: "Esku hartu ostean, **ezin da ziurtatu salatzaileen adierazpenak gezurtiak direnik, baina egia direnik ere ezin da berretsi, ez dagoelako horiek babestuko duen bestelako kanpo frogarik**; hortaz, Justizia Militarreko Kodearen 521. artikularen arabera, EGOKIA DA VEK amaitutzat ematea aurretiko prozedura hau **erantzukizun deklaraziorik gabe**". Hau da, salaketan sinesgarritasuna horiek frogatzeko ezintasunarekin lotzen zuen.

Auditoreak orduan jaso zituen testigantzen artean idatzita zegoen –nahiz eta "epaile militarren aurreko zinik gabeko aitortpenetan ere hitzez hertsatu zituzten" (Arinen adierazpena)– Ignacio Arin Arrieta tratu txarrak salatzeraz ausartu zela: "Tratu txarrak, fisikoak, bost ordutako gimnasia egitea borraz jotzen zuten bitartean, lo egiteko baldintza penagarriak, etengabeko mehatxuak eta beti tentsioan edukitzea"; José Ramón Goikoetxea Sorondo eta Iñaki Sueskun Jauregi: "Hertsapen fisiko eta moralak galdeketa, beste lagun batzuk aurrean zeudela..."; Joseba Arregi Aranburu: "Torturak eta kolpe fisikoak jaso zituen borraz, buruan, hanketan eta gorputzeko gainerako ataletan; mehatxuak"; Francisco Roldán Agirresarobe: "Hertsapen moral eta fisikoak, baita kolpeak eta torturak ere"⁴⁸...

Bildutako testigantzak eta informazioa aztertuta, tortura eta tratu txarren salaketak ez dituzte aurkeztu ETArekin lotuta atxilotutako pertsonen bakarrik. Alderdi demokratikoetako militanteek, manifestariak, sindikalistek... ere salatu dituzte horrelakoak. 1966ko abuztuaren 7an, adibidez, José Luis López de Lacalle –ETAk hil zuen 2000. urtean– atxilotu egin zuten, Zumarragan Gipuzkoako Behin-behineko Langile Batzordea eratzen ari zirenean, eta "bortizki torturatu zuen Melitón Manzanasek, frankismoko polizia politikoak Donostian zuen buruak"⁴⁹. Sarekada berean torturatu zuten, halaber, Comisiones Obrerareko kide zen Jesús Mari Olazabal Iñurrita andoaindarra⁵⁰.

1975eko irailean, Langile Batzordeetako hiru kidek, José Ruiz Fajardok, Ramón Azpeitia Ormazabalak eta Antonio Miron Gonzálezek, torturak jaso izana salatu zuten; egun batzuk geroago egin zuen salaketa Arantxa Lizarribar Lasak, Langileen Elkarte Iraultzaileko kide zenak, baita IASEko

46 Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deusto (2017). *Unibertsitateko gazteek Euskadin bizi izan den terrorismoari eta giza eskubideen urraketei buruz dakitena eta duten diskurtsoa*. Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eskatuta, 23. or.

47 18–69 zenbakidun Aurretiko Eginbideak, Ordena Publikoko Auzitegiak 908–68 zenbakidun Premiazko Sumariotik ondorioztatutako testigantzen ondorioz izapidetuak.

48 *Ibidem*.

49 *El País* 2000/05/08.

50 Zenbait urte geroago, 2003an, ETAk Joseba Pagazaurtundua hil zuenean, Jesús M^a Olazabal Iñurritak bere desadostasuna adierazi zuen; EHko zinegotzia zen Andoaingo Udalean.

kide ziren zenbait ikaslek ere, Ixiar Irulegi Garmendiak eta Ignacio eta Ramón Irazu Garmendiak, besteak beste. Oroituz Andoainen elkarteak 1975eko abuztuan eta irailean, Txiki eta Otaegiren heriotza zigorrerengatik protestetan, atxiloturiko hainbat bizilagunen testigantzak ditu gordeta. Pertsona horietako gehienek aitortu dutenez tortura psikologikoa edo fisikoa jasan zuten kuartelean. Ixiar Irulegiri dagokionez, instrukzioko epaileak ikusi zuenean zer baldintzatan eraman zuten polizia etxetik, "Neskato hau etxera"⁵¹ oihu egin zuen, baina ez zuen eginbiderik ireki tortura eta tratu txarren delitu posible bat zigortzeko:

*Oraindik ere ubeldurak nituen aurpegian, eta ezin nintzen ibili; saihetsak puskatuta neuzkan. Hori ikusita, etxera bidali ninduen, baina ez zuen inongo denuntziarik egin; ez dut gogoan nik denuntziatu nuen ere. Nahiko lan neukan handik ateratzen*⁵². **Ixiar Irulegi Garmendia**

Era berean, poliziaren zaintzapean gauzatutako hertsapen eta tratu umiliagarriari buruzko beste-lako salaketa batzuk ere bildu ditugu. 1979ko martxoaren 18an, adibidez, adineko bost emakume atxilotu zituzten "Heriotzaren Triangelua" zelakoan izandako atentatu parapolizialen aurkako manifestazio baketsu batean. Salvadora Roldán, Maritxu Suescun, Angelita Gallego, María Teresa Isasi eta Miren Arregui ziren. Guardia Zibilaren kuarteletik irtetean, irainak, mehatxuak eta isekak salatu zituzten. Horrelako egoerak ez dira gutxietsi behar.

Beste adibide bat, balioesten zaila testigantza zuzenean jaso ezean, 1984ko irailaren 6an egindako salaketa bat da. Data horretan, José Jauregialzo Oyarzabalek adierazi zuen Guardia Zibilaren eskutik "tortura psikologikoa" jasan zuela atxilotuta egon zenean. Egun hartan bertan aske utzi zuten, epailearen aurrera agertu ere egin gabe.

1991ko urtarrilaren 14 eta 19 artean udalerriko zazpi gazte atxilotu zituen Guardia Zibilak. Ondoren, Leitzarango Autobidea eraikitzeke makinetan eginiko sabotajeekin lotu zituzten. Zazpiek salatu zuten torturak jaso zituztela Donostiako Antiguako komandantzian, epailearekin bildu ostean horietako bi aske utzi bazituzten ere. Hona hemen Xabier Lekuona Barrerasen testigantza:

51 SARAVIA, Mauro (2017). *Emeek emana*. Intxorta 1937 Kultur Elkartea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, 64. or.

52 *Berría* 2018/06/17. Elkarrizketa Ixiar Irulegi Garmendiari. 2004an, Ixiar Irulegik bere torturak kontatu zituen *Arnasa Hartzen* ipuinean.

Testimonio de Xabier Lekuona Barreras:

Larogeita hamaika urtarrilaren hamabostean atxilotu egiten gaituzte eta eramaten gaituzte Antiguoko koartelera. Gau txarra bakarra izan zan Donostin. Gero Madrilera eramán eta bostgarren egunean deklaratu genun Garzonen aurrean. Baino Donostiako gaua, oso txarra. Iritsi bezin pronto, haseran joka eta txistua botatzen eta humillatzen. Kalabozo batzutan sartu gintuzten eta itxoin zuten forentseak pasa arte. Forentseak pasa baino lehen, gu ginan los monos de feria, azaltzen zian guardia zibilak kolore guztitakoak, euskeraz hitzeiten, kale eskale jantzita, beste batzuk trajeekin, zan inpresionante. Forentsea pasa baino lehen ez zeuden enkaputxatuta, a cara descubierta, no hay ningún problema...

Zeuden sei bat guardia zibil eta lehenbiziko gauza koltxoneta bat lurrean jarri zuten eta plastiko bat jarri zidaten buruan, baino puskatuta zegoen, ez zan itozteko eta ezerre. Zan soinua sartzeko. Jarri buruan eta rra, rra, rra, soinua eta lurrera bota, eta bueltak eman eta bueltak eman, eta soinua, soinua, soinua eta builak. AEKko kartel bat jarri zuten ere bai. Batek euskeraz eiten zun. Tokiz mugitzeko, eta mugitzeko... Eta kriston tentsioa eta kriston builak. Konturatu nitzan ze tentsio naukan forentsea etorri zanean galdetu zialako aer zer moduz eta esan non: holako kasutan normal. –Ze izena naukan, nun bizi nintzen eta galdetu zidan. Esan nion Alcores kalean. –Eta numeroa? Eta ez nitzan goatzen. Ostia kontuatu nintzan ni ze gaizki nagon ez detela gogoratzen numeroa, estresa zan baino terrible. Tentsioa ikaragarria. Nola lortzen duten lurrera botata ilunpetan, bueltak eman, bestea builakin. (...) Forentsea jun zanian dena aldatu zan okerrera. Esan zuten ea tontoa nintzen bai ala ez. Eta ezetz... Bueno, orduan hitzegin behar nula eta nahi zuten jakin ze komandokoa nintzela. Haiiek uste zuten gu ETakoak ginela eta ordun komandoaren izena jakin nahi zuten. Besterik ez zuten galdetzen: ¿Cómo os llamáis? ¿Cuál es el nombre del comando?... ¿Estás loco tío? ¿De qué comando estás hablando?, nik nere barrurako.

Bueno, ba bukatu zan 'broma'. Eskailerak gora, berriz jiratzen zan, lehenbiziko pisuan, Komandantzian bai, Antiguon bertan, eskailerak zeuden, de cemento, bueno de piedra. Igo, jaitsi, igo eta igo, eta behala ezkerretara gela bat zegoen. Gela bat bi ohekin. Gela normal bat, bi ohe, lehioa eta zeukan komuna, bainera haundi bat... Eta esan zidan: 'eres tonto, estás demostrando que eres tonto y cuando bajas, me vas a decir que eres tonto'. Baineran jarri zuten goma espuma haundi bat, minik ez hartzeko, eta ordun gerritik bera kantzontzilotan jarri eta ez zuten ia galdetzen ezerre. Burua sartu eta sartu, sartu eta sartu, igual zazpi aldiz edo. Eta lehertu eiten zea, ia zaude... ez dezu... ez dakizu non zauden. Gainez tipoak esan zidan: 'vas a hablar cuando digas ay ama, todos los vascos cuando empezáis ay ama, ay ama, ya estáis preparados'. Nik ez dakit zenbat aldiz baino ni hiltzorin nengoen. Eta nik esan non: 'que me muero'. (...) Eta ba hori, lehertuta esan nien nahi zuten guztia ez, pixkat gorde genun, eta esan zidaten: '¿Ves?, desde que has dicho ay ama, no hay ningún problema. ¿Ves qué tonto eres?'. Eskailera jeisten ari ginela toaila bat eman zidaten lehortzeko. Hori bai, kriston hotza egiten zun. Elurra. Goatzen naiz kantzontziloak kendu egin nitula, busti bustita nitulako eta txamarran sartu nitun, eta gero pela botatzen egon nitzan, ba ur pila bat nakan.

Intxaurrondora eramán gintuzten eta Intxaurrondotik autobus zahar hoitako batean Madrila. Burgo bidean elurra egiten zun. Ia kontuatu zian ez ginela ETakoak, ordun no merecía ni coche ni ostias, Madriledo Guardia Zibilaren komisaldegira. (...) Han eninduten berdina egin baina bi orduro etortzen ziren, bultzatzen zintuzten, zan umillazioa. Hau da, ni zure gainetik nago, ordun nahi detena egin dezaket zurekin. Goatzen naiz gau batean etorri zan guardia zibil bat mozkor mozkor eginda, altxa, ate kontra bota, txistua bota y la ostia, ia zan gestionar el miedo. Eta forentsea etorri zan, eta nik forentseari komentatu nion zer egiten zidaten. Zerbait apuntatu zun eta jun zanian edo txibatu ein zan

edo dena entzun zuten. 'O sea ¿que te hemos hecho esto y esto y esto, no? Ven aquí, ven aquí'. Berriz kalabozoan sartu, kriston ostik eman, baino bueno, zan tratu txarra esango genuke. Han Madrilen ez genitun aurpegik ikusten, baina Donostin ez zuten inolako problemarik. Zeuden lau bost guardia zibil, eta zeuden beste sei o zazpi pareta kontra ikusten. Bai, bai, no dicen nada, solo mirar, ikasten. (...) Ba tratua oso umillagarria. Etorri zen el que hacía de tonto, txiki txiki bat. Te echa un lapo, te pega una torta, no sé qué, ba mehatxuak, neskarena... neska atxilotu eingo zutela, atxilotuta zutela, hola-koak bota zizkidaten. (...) Denbora guztin tentsio puntu bat igotzen dute, beti mehatxuka, egunero egunero interrogatorioak eiten zituzten eta da... la ostia... ez nun ulertzen eta ez dut ulertu inoiz. Guk gauza batzuk egin genitun eta nik kontatu nizkien, beste batzuk gorde egin genitun, baino obligatzen zidaten asmatzera atentatuak. Neri esan zidaten: 'habéis quemado un bar en Loiola, y traficaban con droga, ¿cómo lo hicisteis? ¿Dime cómo lo hicisteis, cuándo, quiénes?'. Esan nion 'que nunca se ha quemado ese bar, ni he quemado a nadie, que me querían endosar eso'. Autobiako kontuak ziren guriak, denak autobiako kontuak ziren, baino hauen problema zan esan nahi zuen ETako komando bat harrapatu zutela (...) eta konturatu zirenean que no hay ni comando ni ostias, erlajatu ziren. (...) Abokatua baino ofiziozkoa, koartelera etorri zanean berekin hitz egin genuen eta jun zanian ba berriz ere, recibimiento ezta? Hombre, con que tú no has hecho nada y te quieres ir a los calabozos, no? Pues ahora estás en los calabozos. Ez zen tortura, izan zan tratu txarra, jo, bultza, marioneta bat izan ezta? Baino bai entzun nula bainera pizten, (...) portazo, ez ziren etorri nire bila, baina akonjona terriblea (...) Bai zukin jolastera, azaldu eta aer bere buruaz beste egin duzun, kontrol hori. Irikitzen dute aer nola zauden eta altxatzen zeanean jarri zutik pareta kontra, ez begiratu neri aurpegira, 'te he dicho que no me mires', pum, ostia bat ezta? Hori etengabekoa zan. Nik pultsazioak izango nitun aste hortan como Indurain cuando sube el Tourmalet, pero atacando. (...) Eta hurrengo eunean berriz forentse berbera etorri zan: '¿Sabes que día es hoy? ¿El trato?'. -Perfecto, correcto, correcto... Ez zaukan zentzurik ezer esatea forentseari berriro.

Eta hurrengo goizean eraman gintuzten Auzitegi Nazionalera. Egun osoa han pasa eta gero gauean deklaratu genuen Baltasar Garzonekin. (...) Nire barruan: mándame a la cárcel cuanto antes y que se acabe todo, tentsioa terriblea ze nazionalekin ginan Auzitegi Nazionalean eta haiiek etortzen zian: '¿qué, llamamos a la Guardia Civil?', deskojonatzen ibiltzen zian. Goizeko bederatzitan eraman gintuzten Auzitegi Nazionalera eta deklaratu nuen gaueko bederatzitan edo. (...) Iritsi ginenean Carabanchelera eman ziguten maindireak eta hori dena, eta esan zidaten: '¿qué, ya os han calentado?'. Eta esan nien: 'no lo suficiente, no lo suficiente'. Eta arrazoi batengatik. Hau da, nik uste det jendeak ez dula torturaz eta hitzegiten neurri batean garaitua izan delako. Hau da, norbait salatu dezu, zure lankidea, edo zerbait egin dezunaren (edo ez) aitoriza egin dezu. Eta hortaz ez da gustokoa hitzegitea, ze hortaz hitzegiten dezunean esaten dezu: zure izena eman det, zurea, zurea, zurea... Horregatik nik esan non: 'no lo suficiente', irrifar txikiakin, porque nik gorde nitun gauzak eta banekien zeintzuk libratu izan ziren horregatik ezta? Eta nik garaipen txiki bat baneukan. Zentzu hortan esan nuen "no lo suficiente"..

GIZA ESKUBIDEEN BESTELAKO URRAKETA BATZUK

PERTSONEN AURKAKO MEHATXU LARRIAK ETA JAZARTZE INDARKERIA

Epigrafe honen pean bildu ditugu egoera edo mehatxu larrien ondorioz beren bizitzak edo osotasun fisiko/psikikoa arriskuan izan dituzten pertsonak, beren ideiak, lana, erantzukizunak edo jarrera politikoak, lanbidea edo gizarte jardura zirela eta, edo aurreko ezaugarriak zituzten pertsonen senideak izateagatik, jazarri, beldurrarazi eta eraso egin dituzten pertsonak.

Bertsio guztiak eta testuinguru zehatza ezagutzen ez badira ere, kuantifikatzen eta zenbaitetan bereizten zailak diren kasu batzuekin hasiko gara, bereziki urte jakin batzuetako jai guneeetako, jendaurreko ekitaldietako, taberna barruko eta jendea biltzeko lekuetako testuinguruekin.

*Koadrillen arteko harremanak oso zailak garai batean. Zailak edo segun ze koadrilla tartean, bata besteari mutur joka eta dena... tabernetan eta festetan. Esan dizuet, nire semeak nola izan zuen Hernanin... atzetik segika: "Zuek PNVkoak zerate ez dakit zer", eta festatik bota baino gehiago berekin sartu. Eta jendea ba, pasando... **Antonio Amondarain Aizpurua.***

*Ni 18 eta 20 urte artean hasi nintzen arazoekin. Herritik ibiltzen nintzen, lagunekin, beste edozein bezala, eta hori izan zen nire nerabegaroko garairik okerrera, atentatua alde batera utzita. Adin horrekin irainak jasotzea oso gogorra da... hor bai sentitzen zarela bakarrik, jende asko ez baitzen nirekin egotera ausartzen. Herriko jaietan, adibidez: putakume deitzen zidaten, edo kalimotxo bat botatzen zidaten, edo bultza. Bai, putakume... Eta nirekin zeudenei beti esaten nien: ez zaitezte sartu, ez sartu. Eta orain, kaletik noanean, pertsona horiek agurtu nahi izaten naute. Nik Andoainen egin dut nire bizitza beti, eta ez nengoen etxean geratzeko prest. Zenbait lekutara ez nintzen joaten. Donostiako Herrikoan ere sartu izan naiz, herritik kanpo ez baininduen inork ezagutzen. **Nerea Amuchastegui Díaz***

*Udaletxetik Santa Kruz elizaraino egiten den herri prozesioan ia beti izaten ziren istiluak... noski gu gobernatzen ari ginenean... Udal zinegotzien aurrean joan behar duzu, txistularien atzetik, eta alde batetik zein bestetik iristen zitzaizkizun oihuak, espainolak, hiltzaileak... Ez entzunarena egiten zenuen. Iltzatuta gelditzen zitzaizkizun buruan. Horixe da guk nozitu genuen garairik latzena, edozein momentutan zenuen urrutitik iraintzen zintuen norbait. Nik saihestu egiten nituen, ez nintzen "Euskadira" jaisten. Fabrikari batek esaten zuen "errepide nazionala" goiko hau zela, eta "Euskadi" behean zegoela. Ni kale Nagusira eta Basterora bizkartzainekin jaisten banintzen banekien istiluak izango zirela. Nik saihestu egiten nituen istilu horiek, eta lanak behartuta ez bazen ez ginen jaisten. **Estanis Amuchastegui Arregui.***

Jaien testuinguruan, Santakruzak zirela eta, EAJ-PNVko kide batek 2015eko maiatzaren 3an, kale Nagusian kokatzen den Txindoki tabernaren kanpoaldean, hitzezko eraso bat izan zuen, eta frogatutako autoretzarik gabeko eraso fisiko bat jaso ere. Komisaldegian salaketa jarri zuen eta Amara Berriko Anbulategian atenditu zuten. Sendagileak egindako informean haxe aipatzen da: "urradura eta hematoma anitzak nabarmentzen dira kopetako eta sudurreko aldetan", "bide

publikoan ezezagun batzuk egindako erasoen⁵³ ondorioz. Gertatutakoa “eragite politikoa”⁵⁴ izan zelaren inguruan polemika sortu zen. Sententzian⁵⁵ frogatutako gertaeretan aipatzen da bi salatuak “hijos de puta, peneuvistas de mierda, os vamos a matar” esanez iraindu zutela. Honengatik bi gazte 15 egunetako isunera, 5 eurotako eguneko kuotarekin kondenatuak izan ziren “mehatxu hutsegite arin baten arduradun” bezela.

Bizkartzaina izan duten pertsonak

- Andoainen 30 behar izan dute eskolta beren burua babesteko eta beren segurtasunerako, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren Idazkaritza Nagusiaren Buruzagitzak, Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko Segurtasun arloko Estatu Idazkaritzaren Buruzagitzak eta haien konturako enpresa pribatuek emandako datuen arabera.
- Zehazki, iturri horien arabera, 23 kargu politiko, 2 enpresaburu, polizia 1 eta zehaztu gabeko 4 pertsona (epailetza...).

ANDOAINEN BIZKARTZAINAK BEHAR IZAN DITUZTEN PERTSONAK

	Kargu politikoak	Enpresaburuak	Polizia	Epaileak eta bestelakoak
Ertzaintzaren eta Eusko Jaurlaritzaren kargupeko segurtasun enpresen aldetik	19	2	1	4
Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen aldetik eta haren kargupeko enpresen aldetik	4	–	–	–
GUZTIRA	23	2	1	4
	30			

53 Amara Berriko Kanpoko Kontsultak, 2015/05/03an.

54 EAJ-PNVk maiatzaren 5ean gaitzetsi zuen “alderdikide batek eraso politikoa jasan zuela” Santa Krutz jaietan, “gazte talde batek EAJ-PNVko kidea iraundu, mehatxatu eta jo zuen”. Hurrengo egunean EH Bilduk zalantzan jarri zuen bertsio hura esanez “jaiak ondo pasatzeko egunak dira, eta ez zentzugabeko borroka eta liskarretan aritzeko”, baina “jaietan ematen diren tankera honetako liskarrak etekin politikoa ateratzeko erabiltzea” kritikatu zuten. Elkarbizi elkartearen balorazioan, egun hartan bertan, gertakari honek “argi asko erakusten digu gure eskualdean ez dela bortxakeria amaitu”. Hilaren 8an, Andoaingo Ernaik, publiko egin zuen ohar bat, bertan elkartasuna adierazten zuen erasotutako pertsonarekiko eta bere gertukoekiko. Baina emandako “arreta interesatu eta mediatikoa” kritikatzeko zuten. Ezinezkoa izan zen udal mailan EH Bildurekin deklarazio bat adostea, eta EAJ-PNV, PSE-EE eta PPK eraso “motibazio politikoa” izan zela berretsi zuten eta “ideologia eta militantzia politikoetatik at pertsona guztiekiko errespetua eta askatasuna” aldarrikatu zuten.

55 Sentencia 90/2015 de la UPAD de 1ª Instancia e Instrucción nº 1 de Tolosa, 28/10/2015. Aipatutako ahozko mehatxuen-gatik kondenatu ondoren, “se procede declarar la inocencia de los denunciados por el delito leve de lesiones que se le imputa”. Eta sententziak erantsi zuen: “Respecto de las presuntas agresiones físicas de las que el perjudicado fue objeto, destacar que no existe testigo alguno que pueda corroborar que fueron los denunciados los autores de las mismas. El propio perjudicado declaró en sede judicial no recordar que ninguno de los inculpados le hubiera agredido”.

- Herrian ez dago eroldarik aditzera ematen duena zenbat pertsona joan diren Andoaindik presioek, xantaiak edo beldurrak bultzatuta. Izan ere, askotan, joandakoek ez zuten argi eta garbi adierazi zergatik joan ziren, edo inor konturatu gabe joan ziren. Pertsona batzuk aldi batez joan ziren herritik, itogarri zitzairen errealitatearekin deskonektatzeko beharra zutelako, eta beste batzuk euskal lurraldetik kanpora joan ziren bizitzera (Santanderrera, Errioxara...), lantokitik oso urrun ez zeuden herrietara. (Andoainen ertzainen ibilgailu partikularren aurkako 8 eraso zenbatu dira, 3 haien etxean aurka eta dei mehatxagarriak haietako baten etxera; horrez gain, babespeko lekuko baten aurkako hainbat eraso ere bai).

Kargu politikoen, egoitzen eta bestelakoen aurkako erasoak

EGOITZEN, KARGU PUBLIKOEN EDO ALDERDI POLITIKOETAKO EDO SINDIKATUETAKO KIDEEN AURKAKO ERASOAK ANDOAINEN	
Bizitzeko eskubidearen aurkako erasoak	
José Luis López de Lacalle Arnal, PCEko kide ohia, PTE-UCko kide ohia, CCOOren eta IUren sortzaile Gipuzkoan, hautagai independentea PSE-EEren Senaturako zerrendan eta Ermuko Foroko kide	
Joseba Pagazaurtundua Ruiz, EIAko eta EEko kide ohia, PSE-EEko kide 1993ko bategitearen ondoren, Andoaingo Talde Sozialistako kide, eta UGTko eta ¡Basta ya! ekimeneko kide	
Huts eginiko atentatua arma trabatzearen ondorioz	
Pedro Gallo Boda, hauteskunde demokratikoen aurreko alkatea	
Osotasun fisikoaren eta psikikoaren aurkako erasoak	
PSE-EEko kideak edo PSE-EEko kargudunen senideak	2
EAJko kidea	1
Etxebizitzen aurkako erasoak	
Estanis Amuchastegui (PSE-EEko zinegotzia) eta familia	4
José Luis Vela (PSE-EEko zinegotzia) eta familia	1
M ^a Ángeles González (PSE-EEko zinegotzia) eta familia	1
Antonia Landa Ayerbe (PSE-EEko zinegotzia) eta familia	1
José Luis López de Lacalle eta familia	1
Joseba Pagazaurtundua eta familia	1
Familia abertzaleak edo preso diren edo preso izandako senideak dituztenak	9

Egoitzen aurkako erasoak	
Herriko Etxea / PSE-EEren egoitza	5
EAJren Batzokia	9
Herriko Taberna – HBren gizarte egoitza	1
Militanteen ibilgailuen edo establezimenduen aurkako erasoak	
EAJko kideak	7
PSE-EEko kideak, kideen senideak edo bizilagunak	12
EMK-ko kideak	2
EEko kideak	2
Familia abertzaleak edo preso diren edo preso izandako senideak dituztenak	11

Seguruenik, eraso kopurua aurreko laukian azaltzen dena baino handiagoa izango da. Hala balitz, barkamena eskatzen dugu alde zurretik, ezin izaten baita beti gertatutako guztia erabat bildu. Memoria osatzen jarraituko dugu eta beti egongo da aukera egin dugun txosten hau zabaltzeko.

*Batzokiari buruz hitzegun behar genuen ba botatzen zizkiguten pinturak, harriak... Garai ezberdinetan koktelak, pintura poteak... Zer ez zuten bota! Batzokia zen han behean, eta manifestazioa pasatzen zen bakoitzean zapla! Pintatuta geratzen zen gutxieneko, koktelik edo harririk ez baldin bazioten botatzen. Eta hori astean behin edo bitan. Hango pinturak honenbestearainoko kapa edukiko du harek... Eta Casa del Pueblon ere bai, eta sartzen ziren askotan. **Antonio Amondarain Aizpurua***

*Niri gertatu zait kaleren batetik ezin pasa izatea, eta osoko bilkura batera Ertzaintzak babestuta joan behar izatea. Hori nik bizi izan dut, eta 2011. urteaz ari naiz, ustez askoz ere hobeto geunden garai batez. 2011 ondoren, bi urte geroago, oraindik ere manifestaldia izaten genuen arratsaldero ate ondoan, egoitzan, zehazkiago, duela gutxi ongietorri ekitaldia egin dietenak atxilotu zituztenean. Bi edo hiru astez egunero izaten ziren. Dena dela, hemen, zorionez, ez dugu eraso handirik jasan egoitzan, bonbarik edo petardorik ez digute jarri, gehiago izan dira pintadak eta halakoak. Ez da Erretereraren kasua, adibidez. Urte gutxi batzuetan segurtasun zerbitzua izan genuen egoitzan. **Maidier Lainez Lazcoz***

Arazo horrekin loturiko beste bi elementu daude. Lehenengoa da denbora-tarte batez, eta modu sistematikoan, etengabe jaso zirela bonba mehatxuak hainbat egoitza politikotan, bereziki Andoaingo PSE-EEren Herriko Etxean. Abisuak etengabe errepikatzen zirenez, eta beti dei faltsuak izan baziren ere, Ertzaintzaren presentziak ondorioak izan zituen bezeroen bertaratzean; izan ere, lokala hustu behar izaten zuten txakurrak sartu eta objektu susmagarririk ote zegoen egiaztatzeko, eta horrek eten egiten zituen karta partidak eta bestelako jarduerak. “Deiak beti izan dira faltsuak, baina bat edo bat egiazkoa izateko aukera beti dago hor”, zioen Gipuzkoako Sozialisten Elkarteko idazkari Miguel Ángel Moralesek 2001ean *El País*⁵⁶ egunkariarentzat eginiko adierazpen batzuetan.

56 *El País* 2001/04/24





Bigarren elementua da 2002ko irailean ETak publikoki adierazi zuela PPren eta PSOEn egoitzak "helburu militarrek" zirela. Zenbait egun lehenago, abuztuaren 26an, auto judizial baten bitartez, Batasuna alderdiaren jarduera guztien erabateko etetea ezarri zen, eta haren egoitzak, lokalak eta webguneak itxi zituzten, "Alderdien Legea" edo ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoa oinarri hartuta (154. zenbakidun BOE), eta neurri horren erantzun gisa interpretatu zen aurreko paragrafoan esandakoa.


Aldi berean, zenbait udal karguk beste herri batzuetara joan behar izan zuten bizitzera azken urteetan jasotzen ari ziren mehatxuen eta erasoen ondorioz. PSE-EEko zinegotzi José Luis Vela hiru urte bizi izan zen Andoaindik kanpo, 2002an hiltzen saiatu zirela esan baitzioten. Bi urte lehenago, ETak José Luis López de Lacalle hil zuen, eta 2003an Joseba Pagazaurtundua. PSE-EEko zinegotzi Estanis Amuchastegui, bestalde, jakin zuen ETako bost komandori aurkitu zizkietela gutxienez bere aurka, baita bere bizkartzainen aurka ere, atentatua egiteko datu oso landuak. 2003ko azaroaren 11n Amuchastegui eta bere familia bizi ziren etxebizitzaren aurka eginiko atentatuak arrastoak utzi zizkion haren alaba Nereari, eta familiak herritik joatea erabaki zuen. Bi urtez izan ziren alokairuan bizitzen beren etxera itzuli arte.

Ez dakit aitak kontatu dizuen. Frantzia norbait hiltzera zetozen etakide batzuk harrapatu zituztenean, nire aitari deitu zioten esanez komandoari paper batzuk aurkitu zizkietela, eta haien arabera es-tolda batean bomba bat jartzea zutela aurreikusia, ez dakit zer egunetan, bere autoa igarotzerakoan leherrarazteko. Egun horretan aitarekin joatekoa nintzen ni, lanera eraman behar baininduen. Autorik ez nuenean aitarekin joaten nintzen beti, eta bizkartzainekin. Eta egun horretan bertan izango zen. Argi geratzea nahi dudana da gauza asko pasa direla eta horrek arrastoa uzten duela, eta jendea oraindik gaizki dagoela horregatik. Ez daukagu zertan indartsu, ausart eta abar garenaren itxurarik egin behar, niri ez baitit inolako lotsarik ematen hori onartzeak. Egia da. Jendeak jakin behar du zen-baterainoko eragina izan dezakeen hemen bizi behar izan dugun guztiak. Nik argi geratzea nahi dut, seguruena ebakuntza egin behar didate, denetarik ateratzen zait, eta agian besikula kendu behar didate. Nerea Amuchastegui Díaz

Ordezkarri politikoen aurkako zenbait mehatxu eta seinatze 2000. urtetik aurrera

Data	Biktima	Gertakaria	Egilea
2000/05/08	EAJko kargu politikoak: Xabier Arzalluz, Joseba Egibar eta Iñigo Anasagasti	Paskinak Andoainen: "ETAk tiro egiten du Arzalluzek iraindu eta Egibarrek eta Anasagastik jomugan jartzen dituztenen aurka"	López de Lacalleren hilketaren aurkako protestan
2001/11/14	José Luis Vela eta Miguel Buen, PSE-EEko karguak	Dianak eta mehatxuak zituzten paskinak: "Zapaltzaile, Euskal Herritik kanpo nahi zaitugu"	Sinadurarik gabe
2002/03/04	PPko eta PSE-EEko zazpi udal kargu	Kartelak: "Hilda zaudete"	Sinadurarik gabe
25/04/2002	José Luis Vela Arburua, PSE-EEko zinegotzia	"Gora ETA. Boom! Gure esku dagoena egingo dugu zu hiltzeko" bere etxebizitzaren atariko giltzaren ondoan	Sinadurarik gabe
2002/06/26	José Luis Velaren etxeko lanpasean, atariko giltzaren beste kopia batekin	Idatzia: "Hurrengoan zuzenean burua lehertzera joango gatzazkizu"	Sinadurarik gabe
2002/10/31	Juan Fernando Narciso Perianes eta José Antonio Pérez Gabarain, PSE-EE	Pintada: Haien izenak dianen barruan	Sinadurarik gabe
2007/05/19	EAJko, PSE-EEko, PPko eta EBko bederatzita hautagaien izenak eta telefono zenbakiak	Pintadak eta kartelak: "Lotsagabeak, herri honen eskubideak zapaldu edo haiez azprobatzen direnak. Deitu iezaiezu eta erakutsi zure haserrea"	Sinadurarik gabe
2008/01/12	PSE-EEko zinegotziak	Pintadak haien izenekin, torturazaitzaileak eta hiltzaileak zirela esanez	Sinadurarik gabe
2011/08/05	Bilduko alkate Ana Carrere Zabala, eta EHko alkate ohi Joxean Barandiaran Ezama	Lau mehatxu hiru hilabetetan: "Gorrotok beteriko basapiztiak zarete eta horregatik zuek garbitzea onena", "Desagerrarazi egingo zaituztegu", "Espainiar izaten hilko zarete"... Ez ziren azken mehatxuak izan	Sinadurarik gabe





Badira zenbait ekintza adierazpen askatasunaren eskubidea gainditzen dutenak eta aldi berean, krudelkeria eta balio etiko falta adierazten dutenak. Jose Luis Lopez de Lacalle eraili zutenean adibidez, 2000. urteko maiatzaren 7an eta krudelkeria adierazten zuten pintadak agertu ziren hildakoaren etxetik gertu. Bere gertukoek ezabatu zituzten.

Hainbat motatako mehatxuak

Aurrez aipaturiko mehatxuez gain, mehatxuz lagundutako bestelako gertakari batzuk ere izan ziren Andoainen, bereziki 70eko hamarkadan eta 80ko hamarkadaren hasieran. Urte horietan, ekintza horiek BVE, Triple A edo GAE gisa errebindikatzeko zuten ultra talde batek jarraipenak eta telefono dei mehatxagarriak egin zituen, atentatu gehiago egongo zirela esanez. Batzuetan generikoak izaten ziren mehatxuak, eta beste batzuetan familia zehatzen aurkakoak (tartean iheslariren bat, presoren bat edo preso ohi bat zutenak).

Batzuetan, ezin izaten zen bereizi nor zegoen mehatxuen atzean eta nork ematen zien estaldura eta inpunitatea. Kasu horietako batzuk *Deadar!*⁵⁷ txostenean jaso ziren. Dokumentu horrek udalerriko alderdi politiko guztien babesak izan zuten, eta polemika handia sortu zuen gobernadore zibilarrekin. Txosten hartan hainbat datu jaso ziren; esaterako, hiru guardia zibilek 1979ko maiatzaren 26an Inmaculada Lasarteri eginiko galdeketa irregularra. Seme-alabak zituen eta esne banatzaile gisa lan egiten zuen emakumea ez zen inongo alderditako kide, baina galdeketa amaitzerakoan honako mehatxu hau botatu zioten: "Orain zuen txanda da"⁵⁸. Triple A taldeak Joxe Ramón Ansa Etxeberria hil eta hogeita egunera gertatu zen hori. Udaleko idazkari Eustaquio Iruña Zabalak ere mehatxuak jaso zituen bere lanpostua utzi zezan.

*...ta beste bi hemen auzokoeri seitu kamino baztarrean Baxilio Zipitriari. Baxilio hortxe taberna hortan bertan, ordun taberna hortan Guardia Zibil asko ibiltzen zan hor. Eso era un puticlub. Baxilioi in ziyen, atea zan tabernatikan, pixe itea atea zala esan zun... kotxea edo ez dakit zer zijon, han zeuden bi tipo pistola jarri burun ta mehatxatu: "Te vamos a llevar"... esan ziela: "Ven, monta al coche que te vamos a hacer lo mismo que a Ansa". Ondoren izan zan, hoi oaindio bizi da, bizilagune da. Hola zeola beste kotxe bat parkinea sartzen, ba han despistatu in zian ta korrika barrura sartu ta. **Ansatarrak.***

Jasotako hainbat lekukotzatzen aipatu izan digute zenbait pertsonak –bereziki, gazteek eta espetxeratutako pertsonen edo hilketa parapolizialen biktimen familiak– pasa zuten beldurra errepideko kontroletan gelditzen zituztenean eta agenteek denbora luzez izaten zituztenean geldirik, galderak eta, zenbaitetan, mehatxuak eginez.

57 *Deadar!* Ikerketa Batzordearen txostena; harekin bat egin zuten Udalak eta adierazitako alderdi politiko, sindikatu eta erakunde guztiek. Hemen: *Leyçaur*, 5.zk., Andoaingo Udala, 1998, 13. or.

58 *Ibidem.*

Hiru urte geroago kontrol batean gelditu ninduten, eta mehatxu eta irainen artean erronka bota zidan agente batek: “Potroak badituk, goazemak mendira”, eta pistola bertan uzteko keinua egiten zuen. Azkenik berriz ere amaitu nuen kuartelean. Ondorioak dauzkat. Dagoeneko ez zara inorekin fio. **Elías Díaz Arriba**

Netzako urte txarrak ondorengoak izan zien, zeati geo kontroletan... Beste lehengusu bat bagendun Lasa Etxeberria beste aldean ta hua ere etorri zan. Galderak, mehatxuak... ni eon naiz Jaizkibelen ia bi ordu. –Nos tenían visto de hacía tiempo, honi atera zioten pelikuletan bezela, ostikoka... (emaztea). –Nei galdetzen ziaten lehengusugatikan, ordun etorri berri zeon Jexux Mari, reinsertau... Kausalidadez apellido berdina genun, ama zuen Etxeberria, ta esan zian anaiaगतिकान: “el otro, el otro hermano, Jesús Mari”. –Ese no es hermano, es primo. –“A mí me vas a decir, me estás mintiendo”. Y el otro apuntando. (...) Askotan pasa zaigu. Bi ordukoa behin, bestetan ordubete bai... “Pipa” jarri ta: “¿Sabes lo que es esto? Te va a pasar como a tu hermano”, ta holako mehatxuak... ordun kaka inda. Hau Joxe Ramonen hilketata bederatzi urte beranduago. Edozein kontroletan, Ansa Etxeberria ikusi, ta gelditzen zigutenean: “¿Y por qué han matado a tu hermano? Por algo sería. Por algo lo matarían”. “¿Tienes miedo?”, garraxika. Y piensas: pues sí, si digo no... si digo sí será mejor... “Pues sí”. Ordutik ez ginen bakarrik ibili askotan, lanea aittakin, gauean beste pareja batekin. Bildurra, bildurra bai ibiltzen ginan baina bildurra kontrolen asuntukin. Guardia Zibilak kontrolak hemen noiznahi, egunez, gauez... egunekoak ez zuten hainbeste bildur ematen. Eta kontrolik gabe gelditu ere askotan, igual gehienetan. Gu igual bi kotxetan ginan kuadrilla ta Ansa ta Etxeberria ikusi ta beste utzi ta gu gelditzen ginan, gehiago puteatzeगतिकान edo, baino geatu denai. **Ansatarrak.**

Era berean, edozein kale agerralditan edo herrian manifestazioa egiteko deialdietan, guardia zibilek “ausaz” kentzen zituzten nortasun agiriak, eta jendea behartzen zuten agirien bila kuartelera joatera. Han mehatxuak ohikoak zirela esaten digute, eta “pozik gehiagorik gertatzen ez bazen”⁵⁹. 1970ko abenduan guardia zibilak bi gazte atxilotu zituzten Burgosko Epaiaketaren aurkako greba ondoren: Toribio Eraso eta Julio Miron González. Libre utzi zituztenean kolpeak eta ilea moztu zietela adierazi zuten.

ESTORTSIO EKONOMIKOA

Urte hauetan guztira bi enpresaburuk behar izan zituzten bizkartzainak Andoainen, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Idazkaritzako buruak eta Espainiako Gobernuako Barne Arazoetako Ministeriooko Estatu Idazkaritzak adierazi dutenez. Hori adierazle bat baino ez da, ez baitakigu ETaren adar desberdinek udalerrian gauzaturiko estortsio ekonomikoaren benetako tamaina eta eragina.

Halaxe da: ez dakigu zenbat pertsonak jasan zuten estortsio ekonomikoa Andoainen eta gainerrako udalerrietan. Arlo horretan gertaturikoa honela islatu zuten *Misivas del terror* lanean Xabier Etxeberria Mauleon eta Galo Bilbao Alberdi irakasleek: Une honetan, oraindik, “egia jakiteko eskubidea, gertatutakoa hobeto eta ahalik eta zehatzen ezagutzekoa ez da behar bezala bete, inolaz ere bete ez dela ez esateगतिकान”⁶⁰. Denbora luzea beharko dugu egiazko tamaina eta irismena ezagutzeko.

59 Hau dioen pertsona oraindik uzkur da kontatzeko, ez baitio “bidea eman” nahi beste mehatxu batzuk justifikatzeko aukerari.

60 ETXEBERRIA MAULEÓN, Xabier eta BILBAO ALBERDI, Galo (2017). “Perspectiva ética: victimarios, mediadores y circunstancias”, in SÁEZ DE LA FUENTE, Izaskun (arg.): *Misivas del Terror. Análisis ético-político de la extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial*. Deustuko Unibertsitatea: Etika Aplikatuko Zentroa, 275. or.

*Nire lagun batek ETaren mehatxuak jaso zituen. Bost milioi pezeta eskatu zizkioten iraultza zerga gisa. Erantzunik jaso ez zuten, bigarren eskutitza bidali zioten esanez bere seme-alabak arriskuan zirela eta bazekitela zer eskolatan ikasten zuten, eta abar. Lagunak ez zien jaramonik egin, baina bai berak, bai emazteak, beldur handia pasa zuten. Gaur egun, denbora luzea igaro den arren, kideetako batek ezin izan du oraindik bizitako egoera hori bereganatu edo ahaztu; beti dabil okerreanean pentsatzen, zer gertatu ahal izan zitzaien pentsatzen. **Patxi Irígoras Etxebeste***

Badakiguna da 70eko hamarkadan zenbait lapurreta gauzatu zirela ETaren hainbat adarrentzat dirua biltzeko helburuz. Zehazkiago, 1978ko ekainaren 21ean burua estalita zuten hiru lagun armatu Gipuzkoako Aurrezki Kutxan sartu ziren eta 340.000 pezeta lapurtu zituzten. Egileek ez zuten lapurreta horiek aldarrikatzeko ohiturarik. Bestalde, 1980ko ekainean Andoaingo banku sukursal batean ere izan zen lapurreta saiakera bat Triple A taldearen aldetik; saiakera baino lehen, familia bat bahitu zuten.

*Familiarekin batera etxean bahitutako banku bateko zuzendaria (...). Haietako batek, pistoladunak, honela esan zion zuzendariari goizeko zapietan: prestatu zaitez, zeure autoan jaitsiko gara sukurtsalera. Hartu giltzak eta ez egin tontakeriarik, zure familia hauekin geldituko da. Sukurtsalera joan ziren. Antza pentsatzeko eta estrategia bat prestatzeko denbora izan zuen zuzendariak gau osoan zehar, eta badirudi horren arabera jokatu zuela eta gauzak ongi atera zitzaizkiola. Lapurretarik gabeko bahiketa izan zen. Porrota izan zen operazioa eurentzat. Bulegoa bederatzia eta hogeian utzi zuten eta zuzendariaren autoa eraman zuten Galarretako aparkalekuan uzteko, Hernanin. Familiari ez zitzaion deus gertatu, beldurra eta susto handia baizik ez. Informazio ofizialak bankuari jakinarazi zion Triple A taldeko komando bat izan zitekeela, eta atxilo hartu zituztela. **Antonio Amondarain Aizpurua***

Udalerrian kokaturiko enprekin lotuta, beste bi bahiketa izan ziren. Lehena 1978ko abenduaren 26an. Egun horretan ETak Luis Fernando Monfort Halle bahitu zuen Hernanin. Aurretik, haren aita eta Andoaingo Leizaran papertegiko zuzendari zen Luis Monfort Palacios eramaten saiatu ziren. Monfort semea egun berean utzi zuten aske bahitzaileek, helburua estortsio ekonomikoa edo "iraultza zerga" zen.

Zenbait urte geroago, 1986ko martxoaren 10ean, ETak José María Egaña Loidi bahitu zuen Donostian. Artean 61 urte zituen Egañak, eta sei seme-alaba, eta Andoaingo industrialdean kokaturiko eta ibilgailuen osagarriak eta produktu kimikoak egiten zituen Krafft enpresaren administrazio kontseiluko sortzaile eta buru zen. Egaña 19 egun egon zen bahituta. Martxoaren 25ean, ETak bahituta zegoen bitartean eginiko haren bi argazki zabaldu zituen, eta 29an askatu egin zuten, Lezon, harengatik 300 milioi pezeta ingurukoa izan zela uste den erreskate bat jaso ostean. *Interviú* aldizkariak argitaratu zuen 300 milioiko zenbateko hori bat zetorrela Krafft SA enpresak laster egitea aurreikusia zuen inbertsio batekin. Horri buruz zera adierazi zuen Egaña familiaren bozeramaile Antonio Elósegui: "Zenbait datu ezin eman ahalko dizkiogu prentsari, Espainiako legediak debekatu egiten baitu bahituak askatzeko erreskateak ordaintzea, nahiz eta mundu guztiak urratu arau hori"⁶¹.

61 *El País* 1986/03/30.



Krafft (1965), AUA, 4790
© Paisajes Españoles.



Inquitex (1961), AUA, 4786
© Paisajes Españoles.

Eskaturiko estortsioa ez ordaintzearen ondorioz ETAK bi atentatu egin zituen enpresaburuen aurka; bata 1996. urtean, eta bestea, 2000. urtean.

Horietan lehena 1996ko azaroaren 25ean izan zen. Errepideko Laguntza Elkartek (DYA) 10:15ean Inquitex enpresan bomba bat jarri zutela zioen ETAREN dei bat jaso ostean, Ertzaintzako agenteek hura aurkitu, jendea bertatik atera eta desaktibatzea lortu zuten. Lehergarri bat jarri eta gero, bomba leherrarazi zuten, inolako kalterik eragin gabe. Guztira 500 edo 1.000 gramo amosal inguru zituen, eta plastikozko ontzi batean zegoen ezkutatuta, fabrikaren atzealdean. Enpresak adierazi zuenez ez zuen inolako mehatxurik jaso aurretik, baina eginiko aldarrikapenean ETAK Enrique Quiralte Crespori leporatu zion "Euskal Herriari lapurtutako dirua itzultzeari uko egin"⁶² izana.

Bigarren atentatua 2000. urteko abuztuaren 24an gertatu zen, eta kasu horretan ETA nahastu egin zen eta bomba Lazkaoko Pingon Sociedad Cooperativa enpresan jarri zuen, erakundearen *Zuzen* argitalpenaren arabera, helburua Andoaingo Tyldo SA enpresaren aurka egitea bazen ere. Informazio horren arabera, Andrés Tellería Zumarragak ez zuen nahi izan ETAK⁶³ eskatzen zion iraultza zerga ordaindu.

Zailagoa izango da oihartzunik izan ez zuten eta maila txikiagoan egin ziren beste estortsio batzuk ezagutzea. Baina, azkenik, gorabehera askoren ostean, 2011ko apirilaren 28an ETAK jakinarazi zien enpresaburuen elkarteei ez zuela estortsio ekonomiko gehiago egingo ez "iraultza zergarik" ezarriko.

ADIERAZPEN ASKATASUNA

• Informazio, iritzi eta prentsa askatasunaren aurkako erasoak

2003ko otsailaren 20an, Auzitegi Nazionaleko epaile Juan del Olmoren aginduz, Poliziak itxi egin zuen zegoen euskarazko egunkari bakarra: *Euskaldunon Egunkaria*. Egunkari hori 1990eko abenduaren 6an atera zen lehen aldiz kalera eta Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean zuen egoitza. Epaileak egunkaria ixteko eta enbargatzeko emandako arrazoietako bat izan zen "ETAREN tresna bat" zela. Eragiketa horretan, egunkariaren zuzendaritzako eta administrazio kontseiluko hamar

62 ETAREN 79. *Zuzen*, 2004ko otsaila. *VascoPress* agentziaren "Crónica de documentación y actualidad" atalean erreproduzitua, 49. orriari, 2004/08/30ean.

63 *Ibidem*, *VascoPress* "Crónica" atalean. Op. Cit. 49. or.

kide atxilotu zituen Guardia Zibilak: Martxelo Otamendi, Peio Zubiria, Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uribe, Luis Goia, Xabier Oleaga, Fermín Lazkano, Txema Auzmendi, Inma Gomila eta Xabier Alegria.

Zazpi urte iraun zuen epaiketa prozesu baten ostean, 2010eko apirilaren 12an Auzitegi Nazionalak absolbitu egin zituen inputatu guztiak salatzaileek ez baitzuten frogatu prozesatuek "inolako harremanik zutenik ETArekin", ezta "kapital sozialaren edo beste baliabide batzuen zatirik txikiena ere legez kontrako iturrietatik" zetorrenik ere. Epaiak dio ez zegoela egunkaria ixteko arrazoirik, ez baita inon ageri "ETA talde terroristaren postulatuak babestu zituenik, haren agindurik jaso zuenik, ezta haren zuzendariek, bereziki prozesaturikoeak, adierazitako taldeak izendatu, hari lotuta egon, harekin lankidetzan aritu edo haren agindurik betetzen zituztenik ere", ez eta "artikulu bat bera ere argitaratu zutenik terrorismoaren edo terroristen alde, edo editorialak joera politiko zehatzik zuenik ere, aintzat hartuta, gainera, azken alderdi hori ez dela delitua"⁶⁴.

Egunkaria itxi egin zuten eta haren jarduera bertan behera utzi; ondorioz, ondarea eta Egunkaria SA eta Egunkaria SL sozietateak likidatu behar izan zituzten. Langileetako asko langabezia gertatu ziren (ez ziren denak *Berría* egunkariaren plantillan sartu), eta itxierak prozesuarekin inolako loturarik ez zuten hirugarren pertsoneri eragin zien. Epaiak dio egunero argitaratzen den idatzizko hedabide baten aldi baterako itxierak, kautela neurri gisa, leku gutxi duela gure antolamendu juridikoan. Horretaz gain dio "aldi baterako eteteak ez duela zuzeneko estaldurarik Konstituzioan", eta "egiazko informazioa emateko eta jasotzeko eskubidea –haren paradigma prentsa izanik– eskubide bikoitza dela, eta hortaz, informazioa igortzeko ahalmen askatasunean esku hartzeak, edo hura mugatzeak, eragina izango duela informazio hori jasotzeko guztion eskubidean". Bestetik, erantsen du "euskarazko egunkari bakarra zen *Euskaldunon Egunkariaren* behin-behineko edo kautelazko itxierak ez zuela zuzeneko habilitaziorik Konstituzioan, ez eta hura baliatzeko lege arau berezirik ere"⁶⁵.



© Foku. Juan Carlos Ruiz.

• Iritzi askatasunaren eta erabakitze askatasunaren aurkako erasoak udaleko osoko bilkuretan

Urte hauetan zehar hainbat gertakari izan dira udaleko osoko bilkuretan. Lekukoek José Luis López de Lacalleren eta Joseba Pagazaurtunduaren hilketen harira deituriko ezohiko osoko bilkurak gogoratzen dituzte bereziki, nahiz eta badagoen liskarren hasiera 1995eko ekainaren 17an kokatzen duenik:

Espetxean zen HBko zinegotzi bat, Ariz Arnaiz, Ertzaintzak lagunduta etorri zen aktaren bila. Hor agertu zen amorrua, jendez gainezka zegoen osoko bilkura batean. Denetarik jasan behar izan genuen, irainak, mehatxuak, bai, bai... eraso fisikoak ez, baina irainak bai, pankartak... Horrela igaro

64 Paragrafo honetako aipu guztiak Auzitegi Nazionaleko Zigor Arloko Salako Lehen Sekzioko 27/2010 epaioak dira. Madril, 2010/05/12.

65 *Ibidem*.

*genituen pare bat urte, guztion ahaleginei eta Udaltzaingoa sarrerak erregistratzen hasi izanari esker, jokabide horiek moztu ziren arte. 1997 edo 1998rako baretua zen osoko bilkuren gaia, liskarrekin hasten baziren, bilkurak bertan behera utzi eta moztioekin jarraitzeko udalkideok bakarrik gora igozko erabakia hartu baikenuen. **Luis Vela Arburua***

*Bere garaian, laurogeita hamabost legealdi hortan, guk pleno bat baino gehiago suspenditu genun. Ordu tripartittoa zan eta sartzen ziren pankartakin: "PSOE, PNV, PP, españoles", eta 95-96 legealdi hortan. Plenoa suspenditu, goiko gelara igo eta han jarraitu plenoa ezinezkoa zalako. Enkargoa eman, exijitu, orduan Gabarain zan alkate: "dile a la Policía Municipal que registre a todos, que no entren con pancartas". Eta ezinezkoa zan, ez zan posible... gertatu egiten zan. Giro hortan ba bizi behar izan zen hau. Agresioak bertan ez, berbalak bai, eta pankartak. **Mikel Arregi Aranburu***

*Osoko bilkuretan, noizbait, egia da beldur pixka bat izan dudala. Baina aitortu behar dut Urnietan Udaltzain Burua beti ere egon dela nire ondoan bilkura areto nagusian. Lan egin dudan bi udaletako bi buruak portaera bikaina izan dute nirekin. Izan ere, ba al dakizu zer gertatzen den? Andoaingo lehenengo legegintzaldian bi lagun ginen PP alderditik, Juan Carlos [Cano] eta biok, eta hurrengo legegintzaldian, jada Bildu gobernuan zegoela, neu bakarrik. 4 edo 5 ziren PSOekoak, babestuago zeuden. Bakarrik zaudelarik betiere izango zara erasotzen errazagoa. Egia da PSOEk ere babesten ninduela. Denetarik esan didate. Imajinatu dezakezun guztia. Osoko bilkuretan hiltzaile esan didate, denetarik esan didate, baina uste dut eurek ere ez zutela gogoko esaten niena. **Asun Guerra Alonso***

José Luis López Lacalleren hilketa zela eta 2000. urteko maiatzaren 7an eginiko osoko bilkuran krispazio uneak, irainak eta ahozko liskarrak izan ziren, eta hainbat aldiz eten behar izan zen bilkura. Zinegotziek irainak jaso zituzten bitan banaturiko publikoaren aldetik, zeinak "hiltzaile" deitzen zieten batak edo besteak hartzen zuten jarreraren arabera. Gauza bera gertatu zen 2003ko otsailaren 8an Joseba Pagazaurtunduaren hilketarekin. Garrasiak eta irainak antzekoak izan ziren: "hiltzaileak", "salatariak", "faxistak", batik bat ezker abertzalearen aurka zuzenduak.

*Goatzen naiz askotan etxera laguntzen zidatela ni bakarrik ez joateko, adibidez Pagazarena gertatu zanian, porque klaro hemen etorri zian, hemen manifa zeon, ta beraien malaostiakin, ulergarria dala... hemen egon ginan, Udaletxean egon ginan, ze hor zinegotzi batzuk zeuden eta hor egon behar zan ere, e? Eta ez dira momentu xamurrak... ta mehatxuak, ez hor bakarrik (...) ematen du hori ligereza haundiarekin zeatzen da, ezta? (...) Pintadak eta azaldu zian ezker abertzalearen kontra, Barandiren kontra izan zan "un machaque impresionante". **Ainhoa Zabala Lasarte.***

Hurrengo hilabeteetan, martxoan, Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna ilegalizatu egin zituzten. Beraien kandidatura desberdinak inpugnatuak edo ukatuak izan ziren elkarren segidan, salbuespen gutxi batzuk kenduta. Testuinguru horretan, 2003ko ekainaren 14an, bertan behera utzitako ezker abertzalearen hautagaitzaren jarraitzaileek "lapurra" eta "faxista" irainak eta garrasiak zuzendu zizkieten PSE-EEren eta PPren botoak batzeari esker alkate izendatu berriari, José Antonio Pérez Gabaraini.

Adierazitako guztiak, bere osotasunean, adierazpen askatasunaren aurkako erasoak dira, mbaita pertsonen intimitatearen eta ohorearen aurkakoak ere, herriak aukeratutako pertsonak izateak larriago egiten dituelarik.

HIGIEZINEI, IBILGAILUEI ETA BESTELAKOEI ZUZENDUTAKO ERASOAK

ETAREN ETA CCAAREN ATENTATUAK HIGIEZINEN, EGOITZEN, KUARTELAREN, BANKUEN, MONUMENTU FRANKISTEN, IBILGAILUEN ETA ABARREN AURKA

1975–1982

Data	Atentatuaren helburua	Ondorioak	Egilea
1979/02/0350	Andoaingo Guardia Zibilaren kuartelatik arma lapurreta saiakera	Huts eginiko ekimena. Kristal apurketa eta militanteetako bat istripuz balaz zauritua	ETAko militanteak
1980/04/01	Guardia Zibilaren kuartela	Fatxada metrailatuta, zauriturik ez	ETA
1981/11/10	Iberdueroren azpiestazioa	Mekanismoak ez zuen funtzionatu eta GZren lehergailu teknikariek desaktibatu egin zuten	ETAm
1981/12/15	Tejas y Ladrillos del Oria	Bonbak erabiltezin utzi zuen uhal garraiatzailea	CCAA
1982/06/13	Leizotzko dorre elektrikoa, Asu baseritik gertu	Bonbak ebaki egin zuen dorre elektrikoaren oinarria	ETAm
1982/11/10	Banco Hispano Americanoren sukurtsala	Kalte handi samarrak entitatean eta alboko etxebizitzetako kristaletan	ETAm
1982/11/26	Banco de Vizcayaren sukurtsala	Hainbat kalte desaktibazio ekipamenduetan eta etxebizitzetako kristaletan	ETAm

1983–2016

Data	Atentatuaren helburua	Ondorioak	Egilea
1983/11/05	Banco Hispano Americanoren sukurtsala	Kalteak barnealdean eta inguruko kristalak hautsita	ETAm
1983/11/05	Banco de Vizcayaren sukurtsala	Atean eta kristal hautsiak inguruan	ETAm
1984/05/30	Peugeot Talbot kontzesionarioa	Kalteak bonbaren ondorioz	ETA
1996/11/25	Inquitex enpresa	Ertzaintzak desaktibatutako bonba	ETA
2000/08/24	Bonba jarri nahi zuten Andoaingo Tyldo SA enpresan eta Lazkaoko Pingon Sociedad Cooperativa delakoan jarri	Hainbat kalte	ETA

ESTABLEZIMENDUEN, ENPRESEN, IBILGAILUEN, HIRI ALTZARIEN ETA ABARREN AURKAKO ATENTATU PARAPOLIZIALAK

1975–1982

Data	Atentatuaren helburua	Ondorioak	Egilea
1977/05/18	Elzaburu familiaren ardoak eta likoreak banatzeko furgoneta	Furgoneta erre egin zuten	Ultra komando bat
1978/04/11	Elzaburu familiaren etxebizitzako eskailera burua	Artefaktu su eragilea Bizilagunek itzali zuten sua	Ultra komando bat
1978/07/23	Kale Txikiko okindegia, banatzeko ibilgailua eta etxebizitzako pertsianak	Metrailatzea. Hainbat kalte material	Ultra komando bat
1978/08/01	Gómez Uranga familiaren Kale Txikiko okindegia	Molotov koktelak eragindako kalte materialak	Sigla zehatzik gabekoa
1978/09/30	Elzaburu familiaren etxebizitza	Posta tiroek pertsiana zulatu zuten, kristala hautsi eta horma baten aurka jo	Ultra komando bat
1978/11/02	Anastegi (Leizotz) baserria	Su eman zieten lau metari	Ultra komando bat
1979/02/27	Zubiarre etxea	Sutea. Molotov koktelak	Ultra komando bat
1979/03/09	Jose Agustín eta José M ^a Zubillaga anaien autoak, baita biltegiko atea ere	Kotxeak kiskalita eta atearen zati bat kaltetuta	Ultra komando bat
1979/03/10	Elzaburu familiaren etxebizitza	Etxebizitza metrailatu eta hiltzeko mehatxuak egin	Ultra komando bat
1979/03/16	Arregi Roldán familiaren etxebizitza	Molotov koktel batek sutea eragin zuen etxebizitzaren atarian eta mehatxuak	Ultra komando bat
1979/03/18	Anastegi baserria	Beldurtzeko tiroak. Bala batek kristala hautsi eta geletako batean sartu zen	Ultra komando bat
1979/03/30	Ontza elkarte	Tiroak elkartearen barnealdera leihotik	Komando ultra
1979/06/09	Maria eta Francisco Arinen etxebizitza	Hiru bala geletako baten sabaira iritsi ziren pertsiana eta kristala zeharkatuta	Ultra komando bat
1979/08/04	Gómez Uranga familiaren bi ibilgailuren eta okindegiaren aurka	Hiru pistola tiro Seat 600 eta jeep baten aurka. Metraileta tiro jasa bat okindegiaren aurka	Ultra komando bat

Data	Atentatuaren helburua	Ondorioak	Egilea
1979/09/23	Hainbat pertsonaren ibilgailuak, besteak beste honako hauenak: José Antonio Pérez Gabarain, Luis M ^a Arnaiz Velasco, Modesto Baltasar...	Gurpilak zulatu, hainbat kalte eragin eta svastikak margotu zizkieten	Ultra komando bat
1979/12/11	José Antonio Irulegiren autoa eta beste batzuk	Erreak eta kaltetuak	Ultra komando bat
1980/03/17	Miren Arregi Roldánen ibilgailua	Su eman zioten autoari	Ultra komando bat
1980/09/11	Ontza elkartea, bigarren aldiz	Tiroak barnealdeara. Pertsonak lurrera bota ziren eta ez zen zauriturik izan	Batallón Vasco Español

1983–2016

Data	Atentatuaren helburua	Ondorioak	Egilea
1986/09/02	Iñaki Kanposen autoa	Ibilgailua kiskalita	"Inkontrolatuak"
2003/02/09	Herriko Taberna eta HBren gizarte egoitza	"Hiltzaileak, ordainduko duzue", "Naziak", "ETA zarete"... pintadak	Ezezagunak

SABOTAJEAK ETA KALE BORROKAREN BAITAKO ERASOAK EGOITZEN, ENPRESEN, BANKUEN, IBILGAILUEN, ETXEBIZITZEN, HIRI ALTZARIEN ETA ABARREN AURKA

1975–1982

Data	Atentatuaren helburua	Ondorioak	Egilea
1978/03/22	Iberdueroren bulegoak	Sua molotov koktelak jaurtitzearen ondorioz	Ezezagunak
1979/05/09	Euskadiko Kutxa	Kristalak hautsi	Manifestariak

- 1981 eta 1982 artean beste eraso batzuk izan ziren enpresa elektrikoaren bulegoen aurka; kalte materialak eragin zituzten, baina zauriturik ez, eta horietako batzuen egilea ETA izan zen.
- Halako erasoak biderkatu egin ziren Irunberriko Arroilako gertakariengatik protesten ostean. 1990eko ekainaren 25eko gertakarien ondorioz hildako hiru pertsonen artean (guardia zibil bat eta ETako bi kide) herriko bizilagun bat zegoen: Jon Lizarralde Urreta. Gertakarien biharamunean, manifestariak autobus bat gurutzatu zuten eta kristalak apurtu zituzten harrikadaka; horretaz gain, zenbait bankutan pintadak egin zituzten.

1989–1991

	Atentatuaren/erasoaren helburua	Ondorioak	Egilea
1990/06/26	Tolosa–Donostia lineako autobusa	Kristalak hautsita harriekin	Manifestariak
1990/06/26	Banku erakundeak	Pintadak	Manifestariak
1990/12/24	Excavaciones Añua enpresaren bi hondeamakina eta kamioi bat Bazkardon	Bidoiek ez zuten ibilgailuei su ematea lortu Ertzaintzak kendu egin baitzituen	Ezezagunak

- 1989 eta 1991 artean hainbat eraso izan ziren Leitzarango autobidearekin loturiko ibilgailuen aurka, baina gehienbat udalerriko mugetatik kanpo egin zituzten. 1992tik aurrera, eraso kopurua areagotu egin zen, baita haien bortizkeria ere, eta haien espekto politikoa eta erasotako helburuak ere zabaldu egin ziren, senideen etxebizitzetara edo ibilgailuetara eta establezimenduetara iritsita. Zenbait kasutan familiako kideak etxe barruan ziren, seme–alabekin, haien aurka sua eragiteko gailuak jaurti zituztenean. Beste batzuetan, emazteak izan ziren balkoitik erasotzaileei aurre egin zietenak. ETAren su etenean zehar, Lizarra–Garaziko Hitzarmena sinatu ostean, kale borrokak jarraitu egin zuen, eta su etena hautsi zenean iritsi ziren José Luis López de Lacalle eta Joseba Pagazaurtunduaren hilketak, aurrez haien etxebizitzetan eta ibilgailuen aurka hainbat eraso egin eta gero.

1992–2016

Data	Atentatuaren/erasoaren helburua	Ondorioak	Egilea
1992/02/16	BHAren sukurtsala	Camping gas bombonaren leherketa	Ezezaguna
1992/05/16	EiTBren errepikagailua	Ertzaintzak desaktibatu egin zuen etxean eginiko artefaktua	Ezezaguna
1992/05/27	Hiru telefono kabina	Hainbat kalte	Manifestariak
1993/08/09	BCHren sukurtsala	Beiratea hautsita	Kale borroka
1993/08/09	Apeaderoko bulegoa	Sua. Molotov koktelak	Kale borroka
1993/08/09	Aldundiaren Land Roverra	Aurrealdea erreta	Kale borroka
1993/09/12	Ertzain baten autoa eta aldamenean zegoen Seat Toledo bat	Sua beste ibilgailu batera ere iritsi zen	Kale borroka
1993/09/26	Lineako autobusa	Gurutzatu eta su eman zioten	Manifestariak
1993/09/26	BHAren sukurtsala	Beiratea hautsita	Manifestariak
1994/03/29	Renfeko geltokia	Sua. Molotov koktela	Kale borroka
1994/11/19	Hainbat banku sukursal eta ertzain baten autoa	Hainbat suntsiketa	Manifestariak
1994/12/19	Banco Guipuzcoanoren sukurtsala	Kalteak beiratean	Manifestariak
1994/12/19	Banco Santanderren sukurtsala	Kalteak beiratean	Manifestariak

Data	Atentatuaren/erasoaren helburua	Ondorioak	Egilea
1994/12/19	Aldundiaren ibilgailu bat	Su hartu zuen	Kale borroka
1995/02/00	Juan Fernando Narciso Perianesen autoa, PSE-EE	Su eman zioten	Kale borroka
1995/02/25	Udaltzaingoko sarjentu Joseba Pagazaurtunduaren autoa	Su eman zioten eta inguruan aparkatuta zeuden beste zazpi auto erre ziren	Kale borroka
1995/05/03	Andoaingo bizilagun bat	Autoari su eman zioten	Ezezaguna
1995/06/17	Ertzaintzaren ibilgailuak	Kristalak hautsita	Manifestariak
1995/11/28	Herriko Etxea PSE-EEren egoitza	Hiru beira blindatu hautsi zituzten, baita baxera, TB, beirazko mostradoreak, botilak eta abar ere	Burua estalita zuten manifestariak
1995/12/30	Ertzain baten ibilgailua	Kiskalita geratu zen	Kale borroka
1996/03/27	EAJren batzokia	Harrikatzea	Burua estalita zuten pertsonak
1996/03/28	EAJren batzokia	Harrikatzea	Ezezaguna
1996/04/02	Tolosa-Donostia autobusa	Kiskalita geratu zen	Kale borroka
1996/04/12	Ertzain baten autoa, Renault Clio markakoa	Artefaktu su eragileak ez zuen kalte larrikeria eragin	Kale borroka
1996/06/18	EAJren batzokia	Erasoa, pintura jaurti	Ezezaguna
1996/09/21	BBVren sukurtsaleko kutxazain automatikoa	Su eman zioten	Kale borroka
1996/09/21	Kutxaren sukurtsaleko kutxazaina	Su eman zioten	Kale borroka
1996/09/21	EiTBren errepikagailua	Su eman zioten	Kale borroka
1996/10/11	Joseba Pagazaurtunduaren autoa, berriz	Su eman zioten eta aldamenean aparkaturiko beste bik ere su hartu zuten	Kale borroka
1996/11/21	Eskolak eta Nagusia kaleetako Kutxaren bi kutxazain	Su eman zieten	Kale borroka
1996/11/30	Kutxaren kutxazainak eta bi telefono kabina	Hainbat kalte	Kale borroka
1997/01/18	Renferen geltokia	Hainbat kalte. Sugarrak eraikineko etxebizitza batera iritsi ziren	Kale borroka
1997/02/01	Kutxaren bulegoak (Nagusia)	Molotov koktelak	Kale borroka
1997/02/01	BBVren sukurtsala (Eskolak)	Su eman zioten	Kale borroka

Data	Atentatuaren/erasoaren helburua	Ondorioak	Egilea
1997/02/07	Hiru kutxazain automatiko	Su eman zieten	Kale borroka
1997/02/09	Eugenio Ariztimuñoren autoa	Erre egin zen	Kale borroka
1997/02/10	Trenaren apeaderoa	Su eman zioten	Kale borroka
1997/02/21	Udaltzaingoaren patruila auto bat	Opel Frontera autoa kiskalita geratu zen	Kale borroka
1997/03/07	EAJko zinegotzi zen Maxen Zinkunegiren liburudenda	Pintura gorri eta horia bota zioten liburu dendari	Kale borroka
1997/03/27	Ertzain baten autoa	Su eman zioten	Kale borroka
1997/04/09	Eskolak kaleko BBVren sukurtsala	Molotov koktekek eragindako sua zela eta lokalaren goiko lau solairuak hustu behar izan zituzten	Kale borroka
1997/04/25	Hainbat telefono kabina	Suntsituta	Manifestariak
1997/04/26	Kutxaren sukurtsala	Molotov koktelak	Manifestariak
1997/05/03	Telefono kabina bat	Suntsituta	Ezezaguna
1997/07/03	Kutxaren kutxazaina (Eskolak)	Su eman zioten	Kale borroka
1997/07/24	Estanis Amuchásteguiaren bizilagun batena zen Renault 21 auto bat. Nahastu egin ziren autoz	Su eman zioten	Kale borroka
1997/08/06	Laboral Kutxaren kutxazain bat	Sugarrak lehenengo solairura iritsi ziren eta gas hornidurari eragin zioten. Hamabi familia beren etxeetatik kanpo 4 orduz. Kalte material larriak	Kale borroka
1997/09/28	Kutxaren sukurtsala	Su eman zioten kristalak apurtu ondoren	Kale borroka
1997/11/17	EAJren furgoneta	Su eman zioten	Kale borroka
1997/11/17	Joseba Egibarren (EAJ) autoa	Su eman zioten	Kale borroka
1997/12/31	EAJko kide den ertzain baten gurasoen etxebizitza eta autoa	Molotov koktelak etxebizitzaren aurka eta kotxea erre	Kale borroka
1998/01/01	Ertzain baten etxebizitza	Kalte material txikiak koktelen ondorioz	Kale borroka
1998/01/11	Mikel Arregiren (EAJ) autoa	Kiskalita	Kale borroka
1998/04/28	EAJren batzokia	Molotov koktelak	Kale borroka
1998/06/29	Furgoneta bat Kale Txikin	Sugarrek beste ibilgailu bati eta eraikinaren fatxadari eragin zioten	Ezezaguna

Data	Atentatuaren/erasoaren helburua	Ondorioak	Egilea
1999/02/13	Bake Epaitegia	Kalte txikiak	Kale borroka
1999/03/28	Estanis Amuchasteguiaren (PSE-EE) eta bere familiaren etxebizitza eta autoa	Lau molotov koktel etxebizitzaren aurka eta beste bi autoaren aurka	Kale borroka
1999/06/12	PSE-EEko zinegotzi José Luis Velaren autoa	Lau gurpilak zulatu zituzten	Kale borroka
2000/01/04	PSE-EEko zinegotzi María Ángeles Gonzálezaren eta bere familiaren etxebizitza	Sua eragiteko artefaktu bat sartu zen geletako batean	Burua estalita zuten hiru pertsona
2000/01/22	Estanis Amuchasteguiaren eta bere familiaren etxebizitza	Jaietako petardoak eta harriak jaurti zituzten	Manifestariak
2000/01/27	Renfeko katenaria	Kaltetuta	Manifestariak
2000/02/28	José Luis López de Lacalleren eta familiaren etxebizitza	Lau molotov koktel. Bat beheko etxebizitzaren solairuan erori zen	Kale borroka
2000/05/02	Hainbat edukiontzi	Su eman zieten	Ezezaguna
2000/07/01	Militar baten autoa	Su eman zioten	Kale borroka
2000/09/03	Isabel eta Estanisen alaba Aitziber Amuchasteguiaren autoa	Kalteak karrozerian	Kale borroka
2000/11/12	BSCHren sukurtsaleko kutxazaina	Su eman zioten	Kale borroka
2000/12/23	Ertzain baten autoa	Hainbat kalte sua eragiteko mekanismo baten ondorioz	Kale borroka
2000/12/30	Babestutako lekuko baten autoa	Sua eragiteko artefaktuak	Kale borroka
2001/02/23	Renferen geltokia	Kalte materialak	Kale borroka
2001/03/11	Joseba Pagazaurtunduaren eta familiaren etxebizitza	Likido sukoi batek berogailu bat, garbigailua eta beste objektu batzuk kaltetu zituen; baita bizilagun baten atea ere.	Kale borroka
2001/03/17	BSCHren sukurtsala	Sutea eta kristalak	Kale borroka
2001/04/28	EAJren batzokia	Kalte materialak	Ezezaguna
2001/08/11	Juan Fernando Narciso Perianesen (PSE-EE) bizkartzain zebilen Prosegurreko segurtasun zaindari baten ibilgailua	Suntsituta eta kalteak beste bi autotan	Kale borroka
2001/09/11	Joseba Pagazaurtunduaren autoa	Suntsituta. Sugarrek zazpi kotxeri eragin zieten, horietako hiru kiskalita	Kale borroka

Data	Atentatuaren/erasoaren helburua	Ondorioak	Egilea
2001/09/27	Andoain-Villabona trenbidea	Kontrapisuak moztu zituzten	Kale borroka
2001/11/01	Erretiratu bikote baten etxebizitza. José Luis Vela zinegotziaren etxebizitza eraso nahi zuten	Etxean egindako lehergailu batek su eman zion etxearen zati bati. Hamaika solairuko etxebizitza hustu behar izan zuten	Kale borroka
2001/11/01	Bazkardo industrialdeko Citroën kontzesionarioa	Kalte materialak	Kale borroka
2002/03/02	Huts egindako eraso Renferen apeaderoaren aurka	Huts egin zuen	Kale borroka
2002/04/22	Ertzain baten etxebizitza	Bi koktelek 12 urteko semearen leihoan jo zuten	Kale borroka
2002/04/25	PSE-EEko zinegotzi José Luis Velaren emaztearen autoa	Suntsituta eta beste auto batzuek sugarren eraginak jasan zituzten	Kale borroka
2002/07/13	José Luis López de Lacalleren monolitoa	Pintura gorri eta horia bota zioten	Ezezaguna
2002/07/25	Herriko Etxea, PSE-EE	Pertsiana zertxobait sabelduta	Kale borroka
2002/08/30	EAJren batzokia	–	Ezezaguna
2002/09/10	Joseba Pagazaurtunduaren auto partikularra	Su eman zioten	Kale borroka
2002/09/19	EAJren batzokia	Kalteak	Ezezaguna
2002/09/28	Ertzaintzaren furgoneta	Hainbat koktel jaurti zituzten	Burua estalita zuten hainbat pertsona
2002/10/15	Andoaingo Laboral Kutxako zuzendariaren ibilgailua	Suntsituta	Ezezaguna. Akats bat izan zela diote
2002/10/26	Babestutako lekuko baten autoa	Su eman zioten	Kale borroka
2002/10/30	EAJko zinegotzi Mikel Arregiren autoa	Kalte txikiak ezker aldean. Bere etxe azpian 24 orduko zaintza jarri zioten	Kale borroka
2002/12/31	Estanis Amuchasteguiaren bizkartzainen autoa	Erabat suntsituta	Kale borroka
2003/07/25	PSE-EEko zinegotzi Antonia Landa Ayerberen etxebizitza	Sute txikia etxearen balkoian	Kale borroka
2003/07/25	Herriko Etxea, PSE-EE	Desaktibatuta. Kalte txiki bat pertsianan	Kale borroka

Data	Atentatuaren/erasoaren helburua	Ondorioak	Egilea
2003/08/06	Laboral Kutxa	Lehergailu simulatua	Ezezaguna
2003/09/08	Udaletxearen fatxada	Pintura gorri eta horia	Ezezaguna
2003/09/26	Ertzainen bi auto	Kalteak motorrean eta aurrealdean	Kale borroka
2003/11/18	Amuchastegui-Díaz familiaren etxebizitza	Sua errezeletatik zabaldu zen eta kalte handiak eragin zituen. Bizilagunak etxetik atera behar izan zituzten	Kale borroka
2004/12/11	Herriko Etxea, PSE-EE	Pintura gorri eta horia pertsianetan	Ezezaguna
2005/06/04	EAJren batzokia	–	–
2005/06/21	EAJren batzokia	–	–
2006/09/16	Edukiontzia	Barrikada egin zuten haiekin eta sua eman	Manifestariak
2005/05/24	EAJko Iñaki Egibar Larrañagaren autoa	Pintura gorri eta horia bota zioten	Ezezaguna
2007/04/01	Correoseko bulegoa	Kalteak pertsianan eta sabaia belztuta	Ezezaguna
2007/06/18	EAJren batzokia	Pintadak	Manifestariak
2007/07/05	Trenbideko katenaria	Trenak bi orduz geldirik utzi zituen sabotajea	Kale borroka
2007/07/05	Udaltzaingoaren hainbat ibilgailu	Ibilgailu baten atzealdeari eragin zion. Mehatxuak agente bati	Kale borroka
2007/09/07	Trenbideko katenaria	Trenbidearen bi aldeetako kontrapisuak moztuta. Suntsiketak linea elektrikoan. Etendurak zazpi orduz.	Kale borroka
2007/09/14	Ertzain baten autoa	Lehergailua garaiz aurkitu eta ez zuen eztanda egin	Kale borroka
2007/10/16	José Antonio Pérez Gabarain alkatearen alabaren autoa	Sugarrek atzealdea, gurpila eta eserlekuak kaltetu zituzten	Kale borroka
2008/04/14	Excavaciones Peru SLren hondeamakina	Kabina suntsituta	Ezezaguna
2008/07/02	Banku baten kutxazaina	Sutea	Kale borroka
2008/09/13	Herriko Etxea. PSE-EEren egoitza	Hiru pertsianak margotu zituzten	Ezezaguna
2009/08/16	AHTaren bi kamioi	Kabinak kiskalita	Ezezaguna

6.

BEHAR BESTE ARGITU EZ DEN KASUA

Jon Lizarralde Urretaren kasua: gai eztabaidatua

Atal honetan jaso dugun kasua, familientzat eta hurbileko jendearentzat ez ezik herriko biztanleriaren zati handi batentzat ere behar bezala itxita ez dagoen gertakaria da. Bertsio ofiziala dauka kasua, baina, aldi berean, bertsio hori zalantzan jartzeko moduko elementuak daude. Adibidez, Auzitegi Nazionalak 1995ko sententzia batean esaten du pluralean: “No se ha acreditado ni constatado cómo se produjeron las heridas causantes de la muerte de dichas personas” eta “ni que hubiera acuerdo entre ellos para suicidarse”⁶⁶ ezta ere. Epaitegian aitopena hartu ez zitzaien zuzeneko lekukoak badira eta kontraesanak antzematen dira informe toxikologikoen baloraketetan. Bere garaian, bai lehendakariak, bai giza eskubideen elkarte zibilek, Amnistía Internacional kasu, kritikoak izan ziren honen inguruan.

Irunberriko Arroilan gertatutakoa ez da argitu

Badira txostenak, argitalpenak, bideoak... kasu polemiko honen inguruan. Desiragarri izango litzateke ere Barne Ministeritzaren artxiboak eskuragarri egotea udaletxeentzat. Orokorrean, argitu gabeko horrelako kasuak polemikoak dira, ez ezeztazinak. *Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak, herriz herri. Andoain, 1960–2010* izeneko agirian, Eusko Jaurlaritzak egina 2016an, Jon Lizarralde “Behar beste argitu ez diren kasuak” atalean dago jasota.

Udalerriko udal taldeen artean desadostasunak daude Jon Lizarralderen kasua nola tratatu. Gaurdaino lortutako aztarnekin edo egindako probekin, aztertu ahal izan ditugun espediente judizialeetan bilduta dagoen dokumentazioaren eta jasotako testigantzen arabera, ezin da ziurtasunez ondorioztatu Jon Lizarraldek eta Susana Arregik beren buruaz beste egitea erabaki zutenik inguratuta zeudelako, baina, halaber, ezin da ondorioztatu atxiki, torturatu eta estrajudizialki exekutatu zituztenik ere.

Gehiago ikertu behar da. Familiak batzorde bat eskatzen du, ustez kasua argitzen lagunduko duten hainbat artxibotan ikertzeko aukera izango duen batzorde bat. Egokia litzateke hori. Gertaerak argitu gabe, ezin dira zalantzak argitu, eta ezin da, besteak beste, Jon Lizarralderen biktima egoera balioztatu giza eskubideen nazioarteko araudiak ezarrita dituen irizpideen arabera; egoera horren ondorioz, ezin zaizkio eskaini beste biktima batzuei dagozkien errekonozimendua eta erreparazioa. Frogatutzat jotzen da Lizarraldek armak zeramatzala, hiltzeko erabili zituela eta Guardia Zibilaren aurkako beste atentatu bat prestatzen ari zirela, Germán Rubenachek adierazi zuenez.

66 17/95 zenbakidun epaia. Auzitegi Nazionala, 1995.

12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomi Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa, Xedapen orokorren lehendabiziko kapituluan, 2–7 artikuluetan zehazten du: *Berariaz, lege honen aplikaziotik kanpo gelditzen dira indarkeriazko ekintza bat egite aldera armak edo lehergailuak erabiltzean hil edo zauritutako pertsonak, baita segurtasun–indar eta –kidegoen zilegizko jarduerari erantzuteko edo jarduerak saihesteko asmoz gertatu zenean ere.*

Haren arreba Itziarrek ere ez du eskatzen Jon Lizarralde herriko gainerako biktimekin batera omendu dezatela. Bestelako trataera bat eskatzen du, borrokan hildako gudari gisa tratatzea eta haren militantzia oroitzeko plaka bat jartzea:

Egia esaten badizut, ez zait axola Jonentzat zehazki leku bat ez izatea. Bai gustatuko litzaidakeela gudariari eskainitako monolito bat, garai batean izan zenaren modukoa. Gudari Egunean loreak ipintzen ziren han, besterik ez. Beheko plazan Jon Lizarralderen eta Gardokiren omenezko zerbait jartzen zen, ETAko kideak bi–biak, baita Batallón Vasco Español taldeak hildako beste batzuen omenezkoa ere. Kasu ugari dago, baina Jon Lizarralderen eta Mikel Gardokiren kasuan, nik uste egokia litzatekeela gudariari eskainitako monolito bat, ez zehazki pertsona horiei eskainia. Ondo legoke haiek beren ideal eta sinesmenengatik gauzatu zuten borrokaren eta izan zuten amaieraren errekonozimendu gisa. Mikel Gardoki ere tiroketa batean hil zuten. Bueno, laburbilduz, haren borrokaren errekonozimendua, besterik ez.

Aurreko planteamendua talde honek txosten hau prestatzeko erabili dituen irizpide eta oinarrietatik at dago. Biktimen politika publikoak eta herrian gertatutako Giza Eskubideen urraketan sinestarazte kritiko eta autokritikoan aurrera egiten den neurrian, beste errealitate batzuk ekiteko aukera izango da lasaitasun eta erruki handiagoarekin. Dena den, gertaera horien egia zehatza jakiteko eta zalantza posible guztiak argitzeko asmoz, guztiz zentzuzkoa izango litzateke, egiaren eskubidea familiari bermatzea, heriotza honen/horiek inguratu zituzten egoerak argitzeko beharrezkoak diren artxiboetara sarbidea erraztuz.

Zer dakigu?

1990eko ekainaren 25ean enfrentamendua izan zen Guardia Zibileko kide batzuen eta ETAko komando baten artean Irunberriko Arroilan.

Lehenengo tiroketan José Luis Hervás Guardia Zibileko sarjentua hil zen, eta balaz zaurituta geratu ziren José Domínguez Piris sarjentua (aldakan) eta Germán Rubenach ETAkidea (belaunean).

José Luis Hervás Mañasek 34 urte zituen; 12 urteko alaba eta 10 urteko semea zeuzkan, eta Irunberriko kuartel etxean destinatuta zegoen. Hiru hilabete eskas zeramatzan Nafarroan, eta hurrengo hilabetean Castellóra destinatuko zuten, postu bat esleituta baitzuen han.

Gero jazotakoak ez dira ez argitu, ez egiaztatu, ez frogatu, aurreraxeago epai judizialean ikusiko dugunez, eta gertaera horien ondorioz bi ETAkide hil ziren: Jon Lizarralde Urreta eta Susana Arregi Maiztegi. Halaber, Germán Rubenach Roigek zauri larriak izan zituen. Bi bertsio daude gertaerei buruz: batzuek diotenez, beren buruaz beste egin zuten, inguratuta zeudela konturatzean, eta beste batzuen ustez, berriz, hil egin zituzten, galdekatu ostean.

Lehenengo tiroak hasi aurretik leku hartan zeuden pertsona batzuek Guardia Zibileko kideen abisua jaso zuten, handik alde egin zezaten tiroketa bat izan zitekeelako⁶⁷. Hori adierazi zuten Jesús

67 ZABALZA, Joseba (2017). *Gogoan hartzeko izenak*. Andoain: Euskal Memoria Fundazioa, 115. or.

Vicentek, arrantzatzeraz joan ohi zen bizilagunak, eta José Luis Olletak, makaldi bat garbitzen ari zenak. Era berean, bertan zegoen Holandako bikote bat, Margaretha Antonia Maria Husken eta Rob Van Der Knapp, zeinak ari ziren inguruko putre kolonia bat aztertzen eta argazkiak ateratzen. *Relatos de Plomo* lanean jasota dagoenez, bikoteak "gertatutako ia guztia ikusi eta entzun zuen, baina ez zekiten nola interpretatu"⁶⁸.

Susana Arregik bi bala zulo zituen buruan, eta Jon Lizarralde ura zuen erraietan. Uztailaren 3an, Toxikologiako Institutu Nazionalako Kriminalistika Atalak txosten bat aurkeztu zuen, Agoizko Epaitegiak Jon Lizarralde uretan murgilduta ito ote zen ikertzeko helarazi zizkion laginei buruzkoa. Txosten horrek adierazi zuen "egindako azterketak bateragarriak zirela murgilketarekin, zirkulazio handiko organoetan diatomeoak zeudela egiaztatu baitzuten". Polemika eta eztabaida handia izan zen, eta toxikologiako beste txosten batek berretsi egin zuen bizirik zegoenean murgilketa bat izan zela.

Jon Lizarralde andoaindarra zen; 34 urte zeuzkan, eta lehenengo SACEM eta ondoren SAPA enpre-setan lan egin zuen, bere bi anai-arrebekin. 1984az geroztik zebilen ihes eginda. Susana Arregi oñatiarra zen; 25 urte zeuzkan, eta 1987an alde egin behar izan zuen etxetik, ETako militantea zelako.

ETak Nafarroa komandoko kideak zirela aldarrikatu zuen; bertsio ofiziala gezurtatu zuen, eta Estatuko Segurtasun Indarrei "azken tiroa eman izana" leporatu zien⁶⁹.

ETako suizidioak eta Auzitegi Nazionalaren epaia

Urte luze hauetan, hogeitaz bat ETakidek egin dute beren buruaz beste hainbat egoeratan, bereziki espetxe barruan. Baina ez zen hori izan Josu Mujika Aiestaranen kasua Poliziarengandik ihesi zihoanean 1975eko uztailaren 30ean. Aldi hartan, Madrilgo Gobernu Zibilak hiru bertsio desberdin ere eman zituen heriotzaren gainean. Lehenengo, bihotzekoak eman ziola adierazi zuen; ondoren, bere buruaz beste egin zuela esan zuen, eta hurrengo egunean, hedabideetan gertatutakoari buruzko xehetasun batzuk argitaratu ostean, aitortu zuen "terrorista tiroketa batean hil zela"⁷⁰. Irunberriko Arroilako kasuan ere zalantzan jarri zen suizidio kolektiboaren bertsioa.

Gertaerak ez dira judizialki argitu. Germán Rubenachi leporatu zioten berak egin ziola tiro Susana Arregiri, hura ez zelako ausartzen. Eta 1995ean epaitu zuten gertaera horrengatik. Baina Auzitegi Nazionalako 17/95 zenbakidun epaiak zalantzan jarri zuen Barne Ministerioaren bertsioa, eta frogatutako gertaerei buruzko iritzia irmoki azaldu zuen, honela:

"Ez da ez egiaztatu ez frogatu nola gertatu ziren pertsona horiei heriotza eragin zieten zauriak, ezta Rubenach prozesatuak izan zituen lesio larriak ere, aztarna handiak utzi dizkiotena; halaber, ez da ez egiaztatu ez frogatu haien artean ados jarri zirenik beren buruaz beste egiteko Indar Publikoak inguratzen bazituen"⁷¹.

68 MARRODÁN, Javier. ARALUCE, Gonzalo. GARCÍA DE LEÁNIZ eta María JIMÉNEZ (2014). *Historia del terrorismo en Navarra 1987–2011*. Nafarroako Gobernua, 130. or.

69 EGAÑA, Iñaki (2017). *Breve historia de ETA*. Tafalla: Txalaparta, 149. or.

70 NUÑEZ, Luis (koord., 1993). "Milis y polimilis". *Euskadi eta askatasuna. Euskal Herria y la libertad*, 4. liburukia. Tafalla: Txalaparta, 57. or.

71 II. puntua. 17/95 zenbakidun Epaiaren Gertaera Frogatuak. 68/91. biribilkia. Auzitegi Nazionalako 4. Epaitegi Zentrala, 1995.

2010ean, *Vidas Rotas* argitalpenak, zeina hedatu zuten AVT elkarteak, Ermuko Foroak eta DENAES fundazioak, informazio hori jaso zuen, honako hau adierazita: **“Ondoz–ondoko epai judizialean ez dute lortu gertaerak argitzea. Adibide gisa, Auzitegi Nazionalak 1995eko martxoan emandako epai baten arabera, ez zegoen froga sendorik baieztatzeko hura suizidio kolektibo bat izan zela edo hiru ETAkideek beren buruaz beste egiteko adostutako ‘hilketa baimendu’ bat”**⁷².

Baliteke Jon Lizarralderen eta Susana Arregiren senideek eta abokatuek ez edukitzea behar adina froga ETAkideak atxiki, torturatu eta estrajudizialki exekutatu zituztela baieztatzeko, baina Guardia Zibilak eta Barne Ministerioak ere ezin izan zuten beren bertsioa frogatu auzitegienetan. Aurretik aipatutako epaiaren III. ataleko (Legezko oinarriak) 2. puntuan, Germán Rubenachen kontraesanezko adierazpenak egiaztatu ostean, Auzitegiak honela dio:

2. *Adierazitako guztia kontuan hartuta, zantzuak, susmoak eta usteak baino ez dira ondorioztatzen eta antzematen, eta inondik ere ez froga zuzenak; instrukzio epaileari nahikoak iruditu zitzaizkion auzipetuaren aurkako akusazioa aurkezteko, baina Auzitegian zalantza handi eta sendoak sortu dituzte auzipetuak komandokidea hil zuela ondorioztatzeko.*
3. *Auzitegiaren ondorioa absoluzio epaia da, auzian aurkeztutako frogen sendotasun, bateratasun eta segurtasun gabeziagatik (...)*⁷³.

Amnistia Internazionale

Barne ministroa bi aldiz ere agertu zen Legebiltzarraren aurrera, suizidioaren bertsio ofiziala azaltzeko eta oposizioko zenbait alderditatik egin zizkioten galderei erantzuteko. José Antonio Ardantza lehendakariak berak ere zalantzak agertu zituen hasieran: “Bertsio ofiziala sinetsi nahi dut, baina harritu egiten nau, ez baitut uste ETako bi kidek beren buruaz beste egingo zutenik”⁷⁴. Planteamendu bertsua egin zuen Juan Mari Artola andoaindarrak ere, zeina baitzen Gipuzkoako Batzar Nagusietako kidea EAJ–PNVren izenean⁷⁵.

Eskainitako bertsioari begira “kezka” agertu zuten ahotsetako bat Amnistia Internazionale (AI) izan zen. Jendaurreko lehen agerraldi batean, AIk kontsultatu ahal izan zituen txostenak aipatu zituen, eta horiek gorpuen azterketen eta suizidioaren bertsioaren arteko kontraesan posible bat aipatzen zuten. José Luis Corcuera Barne ministroari zuzendu zitzaion, eta honako hauek azpimarratu zituen txosten forentse eta toxikologikoetatik: “Susana Arregik bi bala zulo zeuzkan aurpegiaren ezker aldean, eta Juan María Lizarraldek ur kantitate handia zuen gorputz barruan”.

Jendaurreko bigarren agerraldi batean, nazioarteko erakundeak ikerketa judizialean izandako ustezko irregulartasun batzuen berri eman zuen, hainbat puntu nabarmenduta. Lehenengoa, “denbora luzea igaro zela tartean ziren guardia zibilek Epaitegian deklaratu aurretik”, gertaerak jazo eta bi aste geroago egin baitzituzten adierazpenak. Bigarrena, epaileari trabak jarri zizkiote-

72 ALONSO, Rogelio, DOMÍNGUEZ, Florencio eta Marcos GARCÍA REY (2010). *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*. Madril: Espasa, 747. or.

73 III. puntua. Legezko oinarriak. 17/95 zenbakidun epaia. Op. Cit.

74 *Ibidem*.

75 Juan Mari Artola. *Argia* 1990/p7/08.

la Germán Rubenach lekukoarekin hitz egiteko ospitalean zegoenean. Horrez gainera, Amnistia Internazionalak jakin zuen Rubenachek azkenean deklaratu ahal izan zuenean guardia zibil bat komunean ezkutatu zela deklarazioa entzun eta grabatzen saiatzeko. Alren iritziz, gertaera horiek egia izanez gero, ikerketaren inpartzialtasuna arriskuan egongo litzateke. Ondoren, epailea kasutik kanpo utzi zuten.

Zer dio familiak?

Jon Lizarralderen arreba Itziarri galdetu diogu ea hainbeste urteren ondoren badagoen aukeraren bat Irunberriko Arroilan gertatu zena argitzeko, eta honako hau erantzun digu:

- *Ez. Ez. Nire anaiaren kasuan sumariarik ere ez dago. Sumario ireki bat egongo balitz, frogak edo lekukoan adierazpenak izanez gero, irekitzeko aukera izango litzateke. Baina ez dagoenez sumariarik, judizialki ezin da ezer egin. Bertsio ofizialak dio suzko arma batek hil zuela, ondo–ondotik tiro eginda, eta horixe dago jasota bere garaian hango epaileak, gero kendu zutenak, egindako heriotza ziurtagirian. Ez daukat ezer gehiago. Bueno, bai, toxikologiako emaitza. Judizialki, kasua itxita dago. Ez da existitzen.*
- *Toxikologiako emaitza?*
- *Hor egiaztatu zuten Irati ibaiko ura zuela errai guztietan eta heriotza murgilketaren ondoriozkoa izan zela. Ezinezkoa.*
- *Lekukoak aipatu dituzu...*
- *Ezer ez zetorren bat, ez zetorren bat. Lehenengo tiroketaren ostean haiek ihesi atera omen ziren, komandoko hiru kideak. Baina Germán Rubenachek zauria zuen belaunean, eta ezin zion beste bien erritmoari jarraitu. Ez dator bat bertsioarekin tunelaren irteeran bala zorro bat egotea. Ornitologia azterketa bat egiten ari ziren bi atzerritarrei ibilgailu bat eskatu zieten, ihesaldi posible baterako. Baina bi pertsona haiei buruz, lekuko izan zitezkeen bi pertsona haiei buruz, ez genuen ezer gehiago jakin, zuzenean Madrilera eraman baitzituzten, eta etxera bidali. Ez dakigu ezer gehiago. Ez da ulertzekoa arratsalde osoan urezko motoak, Patrol ugari, helikoptero bat... bilaketa lanak egiten aritu ostean hurrengo egunean, ekainaren 25ean, San Joan eguna, bilaketa bertan behera uztea argi eskasiagatik. Argi eskasiagatik? Eta hurrengo goizean aurkitu zituzten, beren buruaz beste eginda, teoriarik. Germánek eztarrian zuen tiro bat, eta begitik irten zitzaion; gure anaiak lokian tiro bat zuen, eta gorpua zertxobait makurtua uretarantz, baina ez uretan. Tiro bat zegoen zuhaitz batean, eta hori bixi samarra da ondo–ondotik tiro egin bazion bere buruari. Eta Susanak bi tiro zeuzkan buruan. Nola egin diezaioke norbaitek tiro birritan bere buruari? Hori leporatu zioten Germán Rubenachi, berak tiro egin izana. Hori izan zen egindako epaiketa bakarra, baina Germán absolbitu egin zuten. Gainera, epaiaren arabera ez zegoen frogarik suizidio kolektibo bat izan zela defendatzeko.*

Bere garaian, Germánek hitz egin nuen, Herreran, kartzelan zegoela, eta zerbait gehiago esan ahal ziezadakeen galdetu nion. Nik ez nuen ezagutzen. Esan zidan oroitzen zuen gauza bakarra zera zela, goian zegoela, bidean, eta poliziakide batek zapaltzen zuela, eta ez zekiela ezer bere kideei buruz. Gogoan izan behar dugu Germánek tiro bat zuela eztarrian, begitik irten zitzaiona, eta beste bat belaunean. Ospitalerako ibilbidea ordu erdikoa bazen ere, uste dut bi ordu eta erdi inguru behar izan zituztela iristeko. Arriskutsua zen haientzat, lekuko posible bat baitzen. Bidean odolustu zedin saiatu ziren, eta gero odisea bat jasan zuen ospitalean; ikaragarria izan zen. Ondoren Madrila eraman zuten hegazkin militar batean. Hura izugarria izan zen. Ez dakit zeren beldur ziren, nik uste baitut Germán ez zela inongo unetan egon Jon eta Susanarekin lehenengo tiroketaren ostean.

Irratian izenak esan zituztenean, ez zuten Susanaren izena aipatu, beste neska batena baizik [Mirentxu Uzkudun⁷⁶]. Beste familia hura gorpua aztertzerako joan zenean, aurpegia ezagutezin egonda ere, esan zuen: "Hau ez da guria, hau ez da guria". Eta arrazoi zuten, ez zen hura, Susana Arregi baizik. Familiarekin ikaragarria izan zen, gure amak irratian entzun behar izan baitzuen, eta berak deitu baitzigun fabrikara; etxera iritsi ginenean, ezkutuko polizia auto bat genuen azpian, baina ez ziguten ezer esan. Anaia joan zen abokatuarekin gorpua aztertzerako; zakur baten pare botata zegoen, urratua eta kolpatua. Haiek ihesaldiari egotzi zioten egoera hura, baina tratu txarrak izan ziren. Hamar urteren buruan hondarrak lurpetik atera ahal izan genituen, eta garezurra txikituta zuen. Hori ez dute zuhaixka batzuek egiten.

Atxiloketak

Jon Lizarralderen lagun eta senideek uste dute alde zurretatik atzeman zituztela eta torturapean hitz eginarazi zirela, eta iritzi hori babesteko darabilten arrastoetako bat Irunberriko Arroilan gertatutakoaren ondoren atxiloketa ugari izan zirela da. Ez dute frogarik, baina Amnistia Internazionalak aipatutako kontraesanei erantzen dizkiete atxiloketa horiek, hurrengo egunetan gauzatu zituztenak. Hau da *Sangre, sudor y paz. La Guardia Civil contra ETA* izeneko lanean jasota dagoen zerbaketa:

Ondorengo ikerketen ondorioz, institutu armatuak Germán, Ribera eta Larraun komandokideak atxilotu zituen, baita Iruñeko, Antsoingo, Aresoko eta Madozko babes azpiegituraren zati handi bat ere. Operatibo hartan, armak, lehergailuak eta dokumentazioa konfiskatu zituzten; era berean, terroristek Adolfo Villoslada industrialaria 85 eguneha bahituta eduki zuten zuloa ere aurkitu zuten⁷⁷.

Iparralden ere izan ziren atxiloketak.

Memoriarako guneak. Nola gogoratu Jon Lizarralde?

Hainbat iritzi dago horren gainean jasotako testimonioetan:

- *Irabazi taldean ez dugu iritzi komun bat Jon Lizarralderen biktima izaerari buruz. Hona hemen taldeak gaiaren gainean dituen hiru jarrerak: biktima dela uste dutenen iritziak, suizidioaren bertsio ofiziala ez da sinesgarria eta Guardia Zibilak prestatu zuen dena. Biktimatzat ez dutenek ETAkideak zirela hartzen dute oinarritzat, eta aipatzen dute Guardia Zibilarekin aurrez aurre aritu zirela eta sarjentu bat ere hil zela liskarrean. Azken jarrera "ez daki/ez du erantzun" izango litzateke.*
- *Konfliktoaren biktima bat kontsideratu nuke, nik bai, konfliktoaren biktima bat. Nik ez nituzke bereiztuko. ETAREN biktimak dia bestek baino gehio. Nik egingo nuke biktimen memoria bat jaso eta gero zehazten da: hau ETAREN biktima izan zan, honek torturak jaso zitun ta Jon Lizarralde tartean egon zan operazio polizial batean.*
- *Ez da biktima bidegabe bat. Biktima bat da, bai, baina ez haren kontra gauzatutako indarkeria bidegabe baten biktima, berak erabaki baitzuen indarkeria erabiltzea. Bakearen Koordinakundeak*

76 ZABALZA, Joseba. Op. cit, 116. or.

77 SILVA, Lorenzo. SÁNCHEZ, Manuel. ARALUCE, Gonzalo (2017). *Sangre, sudor y paz. La Guardia Civil contra ETA*. Bartzelona: Península, 190. or.

elkarretaratzea egin zuen. Gure ustez heriotza hura alferrikakoa zen, eta atsekabetu egin gintuen. Eta, gainera, uko egiten genion hildakoak alde batekotzat edo bestekotzat jotzeari; gure ustez heriotza guztiak alferrikako heriotzak ziren. Eta familiari elkartasuna agertzen diot. Heriotza oren aurka nago. (...). Atsekabetu egiten gintuzten heriotza haiek. Ezker abertzaleak aurre egiten zigun beste inork baino gehiago, ez baitzuen onartzen eurentakotzat zuten norbaiten aldeko elkarretaratzeak ere egitea. Horregatik, dena berdintzen ari ginela esaten zigutenean, ez zen egia, alferrikako heriotza berdintzen ari ginen. Ez beste ezer. Koordinakundeak kritika ugari jaso du horregatik. Ulertzen dut minak berdindu egiten gaituela, eta berdindu egin gaitzake zuk asko sufritu izanak semea edo anaia galtzeagatik, baina horraino iristen da kontua. Kalte bidegabekoa ez da gauza bera, ez da gauza bera. Hortaz, ez dut uste multzo horretan sartu behar denik.

- Nire ustez, ezin dira jendaurrean oroitu; pribatuan oroitu behar dira, baina ez publikoki. Harreren parekoa da, liskar batean hildako pertsona bat oroituko baita, edo agian Estatuko segurtasun indarren gehiegikeriazko ekintza batean hildakoa. Baina liskar batean hil zen. Zer gogoratu behar dut? Berak norbait hiltzea erabaki zuela eta liskar horretan hil ezin zela? (...) Nik orain onartzen dut, liskar hartan hil egin zutelako, edo hil egin zen; hil egin zutela esango dugu.
- Kontuz ibili behar dugu, egoera normalizatzeko; bestela, gorrotoz beteta biziko gara betiko. Dena den, esan nahi badidazu ETAkide bat Irunberriko Arroilan hil dela eta biktimatzat onartu behar dudala... Bere akatsaren biktima da, ezta? Komando batean dabil, eta biktima da Guardia Zibilearekin tiroka aritu delako? Bere akatsaren biktima da. Ez dira joan hari buruan tiro egitera. Nola gogoratuko dut? Bada, liskar batean zorte txarra izan duen aktibista gisa, edo ipintzen ari zen bonbak leher egin dion aktibista gisa... Zorte txarra, ezta? Ez duzu ba heroi bat izango balitz bezala oroituko? Nik ez dut heroi baten moduan oroituko, argi daukat. Hil egin nahi izan banau, ez diot omenaldirik egingo. Nola sailka daiteke?
- Ezin hobeto oroitzen dut historia osoa eta zer nolako gorabeherak izan ziren. Nik pertsonalki ez nuen ezagutzen. Egia da Baketikoko mahaian inoiz eztabaida egin dugula pertsona honen kasuari buruz. Ni saiatu naiz urteen joanean gertatu zenari buruz ahalik eta gehien irakurtzen, eta inon ez da argitu jazotako ezertxo ere ez.
- Zenek inbestigatu du Jon nola hil zuten? Ze esaten du horren aurrean beste aldeak? Ze omenaldi egiten zaio Andoainen? Konfliktua jartzen badegu mahaian gainean biak jarri beharko ditugu. Esan nahi det: Jon ez dauka ez kale bat ez plaza bat, eta zer zan? Ba, gure laguna zan. Nik 13 urtekin ezagutu nun tipo jator bat, eta oso tipo irekia. Mundu guztiakin hitzegiten zuna eta hoixe, esan nahi det neri ere mina ematen ditela ikustea nola beraiek jartzen dutela gauza bat, omenaldi bat, bestea. Nerezako izan zan hasiera bat nere militantzian edo, zerbaitek markatu badu, Jonen heriotza izan zan, oso gertutik bizi nuelako eta bertsio ofiziala ez nun onartu. Ezagututa esaten genun: ez da posible suizidatzea. Hauek gezurretan ari dira. Gero jakiten dezu ba bezperatik ere Irunberri osoa nola hartuta zakaten Guardia Zibilek eta abar. Bere bila joan zian eta garbitu ein zuten.

7.

Indarkeriazko eta sufrimenduzko beste gertaera batzuk

“Bestelako sufrimenduak” atalean bi kasu jaso dira eta lan honen izenburuaren bigarren zatian dagozkie: “Andoainen 1956tik 2018ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta **indarkeria ekintzei** buruzko txostena”; izan ere, epaile baten bizkartzainak bere buruaz beste egin zuen 2002an, eta 1975ean ETAko kide bat hil zen poliziak hura tirokatu ostean.

Ez kasu bata ez besteak ez diote erantzuten giza eskubideen nazioarteko araudian garatzen den “biktima” kontzeptuari. Giza eskubideekin lotutako nazioarteko estandarren arabera, gertaera hauek ezin dira konparatu txosten honetan orain arte esplizitu egin diren giza eskubideen urraketeekin, errekonozimenduaren eta ordainaren ikuspegitik. Baina ez dira ezkutatu behar horregatik; gertatuaren zati dira, gertatutakoaren memoriaren zati, eta, beraz, ez da horietaz hitz egitea saihestu behar. Horietako gertaera bakoitza nola gogoratu nahi den adostu beharko da, horiek guztiak ez baitira berdinak elkarrekiko; baina ezin dira bazter utzi.

Helburu nagusia bizikidetzeta eta adiskidetzeta dira, elkarren aitortza egitea eta elkar errespetatzea, gertatuaz autokritika egitea, eta ez indarkeriazko liskarretarako zio berriak sortzea. Ez da ahaztu behar sozialki sendatu beharra dagoela, eta sortutako zaurien jariora gelditu beharra dagoela. Gauza guztiak ez dira berdinak, baina guztiak jaso behar dira. Euskadiko Bakearen Aldeko Koordinakundeak, zantzu politikoko indarkeriazko heriotza bat gertatu eta ondorengo egunean, hamabost minutuko kontzentrazio isila egin ohi zuen, hildako pertsona nor zen alde batera utzita. Eta une mingarri eta gordinenetan egiten zuen. “Gizaki ororen bizitzeko eskubidearen aldarria zen nagusi, baita bestearen bizitza akabatu nahi zuenarena ere”⁷⁸.

Beste bereizgarri batzuen artean, “BAK–Gestok gauzaturiko mobilizazioa definitzen duten bi bereizgarri daude: isiltasuna eta hilketa guztien aurkakoa”⁷⁹. Argi eta garbi esaten zuten: “Ekintza biolentoei erantzen zaien gaitzespena ETAren atentatuetatik haratago doa, izan ere, datorrenetik datorrela indarkeria gaitzetsi egiten dute”⁸⁰.

78 Gesto por la Paz. Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak. ‘Gestoak’, “Gizarte Mobilizazioa” atalean. www.gesto.org Erakundea desagertu arren, webguneari eusten dio, gertatuaren historiari bere ekarpena egiteko.

79 “Gestoa’ bera da mezua”, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundearen webgunean, “Zer izan ote zen BAK?” puntuan. www.gesto.org

80 *Ibidem*. ‘Gestoak’.

*Bake Hitzak*⁸¹ aldizkariaren zuzendariak, Ana Rosa Gomez Moralek, BAK–Gestoren ibilbidearen amaieran eta koordinakundea desegin zen garaian idatzi zuen liburuan⁸², “datorrenetik datorrela” jarrera hartzeak zekartzan zailtasunak planteatu zituen, eta kasurik polemikoenak azaldu zituen: “segurtasun–indarrekin tiroketa batean nahasi zirelako, edo manipulatzan ari ziren lehergailua lehertu egin zelako ustekabearen, edota xede zuen tokira eramaten ari zirenean”. Arrazoi hauek eman zituen:

Pertsona horiek desagertzean mina eta gaitzespena erakustea izan zen gizartearen onespeneraren ikuspegitik printzipiorik konplikatuenetako bat, konplikatuen izan ez bazen. (...) Eta, hala ere, BAKeko taldeek ez zioten inoiz utzi halakoak egiteari; izan ere, beste ezerekin gainetik, ezerekin truke galduak ziren bizitzak zirelako, eta guk geuk ere gure burua immunizatu egin behar genuelako beste baten heriotzagatik pozteko tentazioaren aurka.

Honako hauek dira Andoainekin lotuta jasotako bi kasuak:

• INDARKERIAREN ERABILERAN

Data	Hildakoa	Ezaugarriak	Egilea
1975/04/24	Mikel Gardoki Azpiroz	ETApm–ko kidea	BPS

Mikel Gardoki Azpiroz tiroz bota zuten Polizia frankistako kideek Ergobian, 1975eko apirilaren 24an. Agente kopuru handi samar batek inguratu zutenean ETApm–ko beste kide batekin zegoen, Juan Miguel Goiburu Mendizabal “Goierrri”rekin, elkartearen propaganda garraiatzen. Lasterka ihes egiten saiatu ziren, eta armak ateratzen, baina poliziek lehenago egin zuten tiro. Bala batek besoan zauritu zuen Juan Miguel Goiburu, eta atxilotu egin zuten; Mikel Gardokik hainbat tiro jaso zituen eta berehala hil zen.

Mikel Gardokik 23 urte zituen, eta seme bat, eta ETApm–ko kide izan baino lehen (probaldian zegoen oraindik) EGI, ETA VI eta Barnuruntzetik igarota zen, Miguel Goiburu Mendizabalek erredakzio talde honi esandakoaren arabera. Mikel Gardoki andoaindarra zen sortzez, baina gurasoekin eta arrebarekin Donostiako Ategorrieta auzora joan zen bizitzera. Donostiako Udalak bere izena jarri zion 1979an auzo horretako pasealeku bati. Erabaki hori Eusko Kontseilu Nagusiari jakinarazi zitzaion.

Antzekoak gertatzen direnean jazotzen den bezala, gertatutakoaren nondik norakoak ez ziren argi geratu. Donostiako Udalak “baldintza ilunetan” idatzi zuen. Egia da ETAko bi militanteek pistolak zeramatzatela, baina baita ere haietatik bizirik irten zen bakarrak, Juan Miguel Goiburuk, esan zuela ezin izan zituztela erabili, nahiz eta bera saiatu. “Korrika irten ginen eta metrailatu egin gintuzten”⁸³. Zauritutako poliziarri buruz ez da ezer gehiago jakin, baina Goiburuk dioenez, ez zuen

81 Gesto por la Paz, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundearen argitalpena. 87 zenbaki kaleratu ziren 1992tik 2013ra.

82 GOMEZ MORAL, Ana Rosa (2013). *Un gesto que hizo sonar el silencio*. Bilbo: Euskal Herria Bakearen Aldeko Koordinakundea. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren lankidetzarekin argitaratua, 74–76. or.

83 Erredakzio talde honekin elkarrizketa Donostian. Juan Miguel Goiburu Mendizabal ETApm VII. Asanbladako zuzendarietako bat izan zen eta 1982an desegiteko erabakia hartu zutela jakinarazteko prentsaurrekoan parte hartu zuen.

ETApm-k zauritu. Horretaz gain, ez dago horri buruzko aipamenik Estatuaren abokatuak 2009an Mikel Gardokiren izena kale bati jartzeko Donostiako Udalaren erabakiaren aurka aurkeztu zituen bi ofizioetan. Idazkaritza Nagusiak Barne Ministerioko Poliziaren eta Guardia Zibilaren Zuzendaritza Orokorrek eginiko bi ofizioetako lehenengoan adierazi zuenez, Mikel Gardokik "Frantziara ihes egin zuen ETAko kide izateagatik, eta Ergobian Poliziaren Kidego Orokorreko funtzionarioekin izandako liskar batean hil zen"⁸⁴; bigarrenak honako hau dio, zehatz-mehatz: "Donostiako Poliziaren Goi Kidegoaren aurkako liskar batean hila, ETAko beste kide bat ere, Goiburu Mendizabal, zaurituta geratu delarik"⁸⁵. "Liskarrean" polizia bat zauritu zuten frogarik ez zen aurkeztu, ezta aipatu ere, ez ofizio batean, ez bestean.

Gertakarien biharamuneko *El Diario Vasco* egunkariko lehenengo orrialdean azaldu zen, honako goiburu honekin: "La sorpresa de unos tiros" (Tiro batzuen ustekabea):

Ergobia tabernaren jabeak honako hau kontatu digu.

- *Lasai-lasai nengoen ni, lanean, tiro izugarri batzuk entzun nituenean.*
- *Zenbat?*
- *Asko, filmetan bezala.*
- *Nola izan zen gertakaria?*
- *Nik jakin dudanez, bi gazteak Hernaniko errepidetik zetozen oinez Ergobiarantz, eta, antza denez, estankoko dendan sartu ziren. Auzotik zebilen poliziak ustekabean harrapatu zituen eta gelditzeko agindu zien, eta gazteak errepidean behera joan ziren korrika, 80 bat metro.*
- *Armarik zeramaten?*
- *Ez dakit. Batek egunkaria zuen eskuan. Huraxe zen hil zena. Bestea errenditu egin zen, agian zaurituta.*

Egunkari berean, honako hau ere irakur daiteke: "...Gobernuko Poliziak gelditzeko agindu zienean ihes egiten saiatu ziren bi gazteak. Ez ziren gelditu, eta orduan hasi zen tiroketa, errepidea geldiarazita"⁸⁶.

Ángel Amigo zinemagileak *Pertur. ETA 71-76*⁸⁷ liburua argitaratu zuen Hordago etxearekin 1978an, eta bertan ETApm-ko liberatu Juan Miguel Goiburu "Goierri"k gertatutakoari buruz elkartearen zuzendaritzari helarazitakoa jaso zuen. Honela idatzi zuen Amigok:

Goierri hurrengo egunean iritsi zen Ergobiara, Mark-ekin hitz egiteko; hitzordua zuen harekin eta horixe izan zen bidaiaren arrazoi nagusia. Kontrabandista batek barnealdera pasa zuen propagandaren zati bat entregatu zion, eta gainerakoarekin geratu zen, inguruko baserri batean gordetzeko.

84 Erregistro zenbakia: 37651. Gasteiz 2008/04/07. Enrique Pamiés Medina goi buruzagiak EAEko Gobernuaren ordezkariari zuzenduriko ofizioa, Estatuaren Abokatuak 2009/02/06an Donostiako administrazioarekiko auzien 1. epaitegiari igorritako demanda idazkian erantsia.

85 2008/04/09ko ofizioa, José M^a Petisco Fernández jeneral buruak sinaturikoa eta EAEko Gobernuaren ordezkariari zuzendua, Estatuaren Abokatuak 2009/02/06an Donostiako administrazioarekiko auzien 1. epaitegiari zuzenduriko demanda idazkian erantsia.

86 *El Diario Vasco* 1975/04/25.

87 AMIGO, Ángel (1978). *Pertur. ETA 71-76*. Donostia: Hordago SA, Lur argitaletxea, 98-100. or.

Goiherri hurbil dagoen postontzira zuzentzen denean propagandaren furgonetarekin, ziztu bizian eta poliziaz beteta zihoan auto batekin gurutzatu zen, baino ez zion garrantzirik eman eta lasai jarraitu zuen Gardokirekin. Gero Ergobiara itzuli ziren berriz, eta han bazkaldu zuten.

Tabernatik irtetean, metro gutxira zeuden eta Marietta bana zeramaten bi gizonak gelditzeko esan zieten. Kontrako alderantz korri egiteari ekin aurretik, Poliziak lekua inguratu zuela ikusi ahal izan zuten. Goiherri jakaren patrikan zeraman 7,65eko pistola ateratzen saiatu zen, baina ezinezko izan zitzaion, propaganda deskargatzerakoan kremlera itxita utzi baitzuen hura ez erortzeko. Tiro sortetako batek bete-betean eman zien, eta erortzen ari zela, Goiherrik arma ateratzea lortu zuen. Lurrean zela, laguna min keinuak egiten eta berehala hiltzen ikusi zuen. Goiherrik bere buruari tiro egitea pentsatu zuen. Ondoren hildakoarena egitea eta hurbiltzen ari ziren poliziak ezustekoan harrapatzea pentsatu zuen. Orduan Garratz eta Oxobiren erorketaz oroitu zen, Bilbon, eta errenditza erabaki zuen, zaurituta zegoenez, galdeketarik egingo ez ziotela pentsatuta. Ezin izan zuen aukera gehiago aztertzen jarraitu, bota batek aurpegia zapaldu baitzion eta beste bik zabaldua zituen eskuak. Hantxe bertan arakatu zuten eta 9ko luzerako beste pistola kendu zioten. Segundo gutxitan gertatu zen guztia.

1975eko apirilaren 25eko ABC egunkariak Europa Press-ek eta Cifra-k banaturiko oharrak argitaratu zituen:

Albiste estraofizialen arabera (Donostian ezarritako prentsa korrespontsalei ez diete polizia etxera hurbiltzen utzi), adierazitako bi gizonak, ETA V. Asanbladako liberatuak, Beizama tabernan zeuden goizeko bederatzietatik.

*Poliziak bazekien horren berri, eta hala, Kidegoko hamabi kide lekura hurbildu eta establezimendua-
ren inguruetan kokatu ziren, bi aktibistak handik atera zain. Goizeko hamar eta erdiak aldera, Gardo-
qui Azpiroz eta Goiburu Mendizábal tabernatik irten ziren; funtzionarioetako batek dokumentazioa
eskatu zion lehenengoari. Berehala, tiroketa bat piztu zen, eta haren ondorioz, adierazitako etakidea
hil zen. Inguruko hormek eta eraikinek 50 bala inpaktu inguru jaso zituzten.*

*Tiroketaren ondorioz, polizietako bat zauritu zen eta Goiburu Mendizáballi beso batean eman zioten.
Goiburu berehala errenditu zen. Guztira hiru pistola eta munizio ugari harrapatu zieten.*

Donostiako Udalarekiko auzia

Adierazi bezala, Donostiako Udalak, 1979ko uztailaren 9an eginiko osoko bilkura batean, Ategorrieta auzoko kale bati Mikel Gardoki izena jartzea onartu zuen. Plaka bat ere jarri zuten lekuan. Hogeita hamar urte beranduago, 2008 eta 2010 artean, Udalak, artean PSE-EE eta Alternatiba, eta Aralar zituenak buru, liskar bat izan zuen Euskadiko Gobernuaren Ordezkaritzarekin. Udalak ez zituen izena eta plaka kendu nahi, frogak falta zirela eta errugabetasun presuntzioa errespetatu behar zela esanez (hala, ezin zen esan hildakoa etakidea zenik auzitegiek ez bazuten hala izendatu lehenagotik)⁸⁸. Horretaz gain, babesten zuen 4/2008 Legea, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa Egitekoa, 1979ko erabaki bati ezartzea atzeraeraginezko aplikazio bat izango litzatekeela, eta arau horrek ez zuela halako eraginik Donostiako Udalaren aburuz.

88 303/08 Errekurtsoa, Donostiako Administrazioarekiko Auzitarako 1. Epaitegiari zuzendua. II. Auziaren muina; 6 eta 7. or.<0

Donostiako 1. epaitegiko Borja Llona García epaileak adierazi zuen 2009ko bere epaiaren zuzenbideko oinarrietan Donostiako Udalak ziola izendapen hori ustezko etakide bat goratzeko inolako asmorik gabe egin zela, kide zela ez baita inon frogatu, eta aldiz, polizia frankistak **egoera ilu-netan** eta askatasun falta izugarriko garai batean hildako pertsona bat gogoan izateko gauzatu zela, eta dena dela, Gardoki jauna ETako kide izatea hipotesi bat baino ez zela eta amnistia jasoko zukeela eraginak hildakoetara luzatzen zituen urriaren 15eko 46/1997 Amnistia Legearen bidez⁸⁹.

Alabaina epaileak ulertu zuen kalearen izenari eusteak kalte egiten ziela ETaren biktimen sentimenduei, eta horregatik Estatuako Administrazio Orokorrek ezarritako administrazioarekiko auzi errekurtsuaren alde egin zuen bere epaian, ondorioz 30 urte lehenago kale bati Mikel Gardokiren izena jartzea onartu zuen erabakia bertan behera utzi behar izan zelarik. Nolanahi ere, Estatuaren Abokatuak "Gardoki jaunaren biktima" gisa izendatzen duen talderik dagoenik jasota ez dagoela ere erantsi zuen epaileak, azpimarratuz Gardoki jaunari ezagutzen zaion delitu bakarria ETako kide izatea edo harekin lotuta egotea zela, nahiz eta hori bera ere "ez den gutxi"⁹⁰.

Donostiako Udalak errekurtsua aurkeztu zuen Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusian, baina Auzitegi horrek epaiaren aurkako apelazio errekurtsua ezetsi zuen 2011ko ekainaren 20an. Ondoren, urte bereko azaroaren 9an, Donostiako Udalak kalearen izena aldatzea erabaki zuen, eta egun duena jarri zion: Bordatxipi kalea.

Pasadizo horrek gertakariak eta Mikel Gardoki andoaindarraren heriotza dagokion testuinguruan kokatzeko balio dezala. Borja Llona García epailearen esanetan, kaleari Gardokiren izena jartzeko erabakia gehiago izan zen ordain bat haren heriotza erregimen antidemokratiko baten zerbitzura zegoen polizia batek eragin zuelako, ETako militante izateari eta delituak egin izanari ordain bat baino⁹¹.

• SUIZIDIOA

Data	Hildakoa	Ezaugarriak	Egilea
2002/03/04	J.A.G.R.	Epaile baten bizkartzaina	Suizidioa

2002ko martxoaren 4an, Barne Ministerioak Gipuzkoan destinatario epaile bat babesteko kontratatutako J.A.G.R. bizkartzain pribatuak tiro egin zion bere buruari bere armarekin, Andoingo Nafarroa Plazaren 4an kokaturiko bere etxebizitzan, eta ondorioz, berehala hil zen. J.A.G.R. Irunen jaioa zen eta une horretan Ombuds segurtasun enpresan egiten zuen lan. Arteen 29 urte zituen eta hiru hilabete eta erdiko haurtxo bat. Asociación Española de Escoltas (ASES)⁹² elkarteak salatu zuen Euskal Herrian destinatario bizkartzain asko muturreko egoera batean bizi zirela presioa eta lan baldintza kaskarrak zirela eta⁹³.

⁸⁹ Donostiako Administrazioarekiko Auzitarako 1. Epaitegia. Borja Llona García magistratuak 2009/12/03an emandako 270/2009 epaia, 5. or.

⁹⁰ *Ibidem*, 10. or.

⁹¹ *Ibidem*, 11. or.

⁹² www.escoltas.global

⁹³ ABC 2002/03/06.

J.A.G.R.-ren zerbitzua Barne Ministerioak kontratatu eta koordinatzen zuen, eta ASESen bozemaile David Crevillénen arabera, epailea berak bakarrik babesten zuen, eta horrek "arrisku handiagoa dakar berekin"⁹⁴. Horrekin lotuta kritikatu egin zuen bizkartzain horien egoera, eta bi pertsonako babes zerbitzuak eskatu zituen.

ABC egunkariak biharamunean jakinarazi zuen UGT eta CCOO sindikatuek eta Euskal Herriko Bizkartzainen Elkartek eginiko bileraren berri, zeinetan bizkartzain pribatuen "babesgabeziak" hitz egin zuten, lan mota bera egiten duten Ertzaintzako edo Estatuko Segurtasun Indarretako kideen egoerarekin alderatuta.

Heriotza horrekin bat eginez, egun berean PSE-EEko eta PPko zazpi udal karguren (baita Gemma Zabaleta zinegotzi eta parlamentariaren aurkakoak ere) aurkako pintadak agertu ziren Andoainen, haien izen-abizenekin eta honako eslogan honekin: "Hilda zaudete!".

Hilabete geroago, apirilaren 2an, Prosegur enpresako eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak zaintza zerbitzuetarako kontraturiko Joseba Andoni Urdaniz bizkartzaina hil zen Gipuzkoako hiriburuko Altza auzoan, gaizkile arrunten aurkako beste operatibo batean parte hartzen ari ziren hiru guardia zibilekin izandako tiroketa baten ondorioz. Bizkartzaina Lezon PSE-EEko zinegotzi zen Ainhoa Villanúa babesten ari zen, eta Guardia Zibileko agenteak zinegotzia eraso nahi zuten talde terroristaren bateko kideak zirela pentsatu zuen. Guardia Zibileko agenteetako batek zauria jasan zuen hantetako batean, baina bizirik atera zen bi balak balen aurkako txalekoan jo baitzuten. Joseba Andoni Urdaniz Berakoa zen eta 32 urte zituen.

Adierazitako gertakariak berriz piztu zuten Euskal Herriko segurtasun indarren koordinazio ga-beziari eta bizkartzainek jasan behar zuten presioari buruzko polemika, eta Barne Ministerioari bizkartzainaren heriotzari buruzko datuak ezkutatu izana leporatu zioten⁹⁵.

Euskadiko Gaixo Psikikoen Elkarteko presidente Antonio Valcárcelen arabera, bost bizkartzainek baino gehiagok egin zuten beren buruaz beste 2007an. Datu hori mahai gainean jarri zuen, hain zuzen, 33 urteko Aitor Ellacuria Ayo bizkartzainak bere buruaz beste egin zuenean, 2007 abenduaren 30ean, Areetan. Minaren erdian, armen kontrol faltari buruzko eztabaida piztu zen; izan ere, hildako bizkartzainak arauzko bere armarekin egin zion tiro bere buruari, eta, antza denez, "B" baimena ez duten bizkartzainek, edo egoera berezian direnek, arma entregatu egin behar dute eta enpresaren kontrolpean jarri beren lanaldia amaitu denean.

Bere buruaz beste egin duten bizkartzainen eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoko kideen kopurua nahiko handia da. Hala salatu izan dute dagozkion sindikatuek. Hainbat arrazoi egon daitezke egoera horien atzean, baina Antonio Valcárcelek honako hau idatzi zuen Aitor Ellacuria hil zenean:

Nik ez nioke suizidio deituko, baizik eta laneko istripu, edo bestela, terrorismoaren biktima izan dela esango nuke. Izan ere, pertsona horren lanbidearen oinarri diren zutabe psikologikoetan aukera dago, berez, suizidioa ekar dezaketen mekanismoak sortzeko. Zenbaiti ez zaio interesatzen publikoki esatea Euskal Herrian destinatutako bizkartzain pribatuak hiltzeko edo ekintza autolitikoak jasateko aukera dutela, eta segurtasun enpresak haien laneko eskubideak urratzen ari direla, eta ez hobetzen.

94 *Ibidem*.

95 *El País* 2002/04/04.

Badira bizkartzainak sexu inpotentzia, insomnia, depresioa, antsietatea, bigorexia, anorexia, eta abar jasaten dituztenak, eta bala bat dutenak errekamaran gordeta, segurtagailua jarri gabe, kargadorea hutsik, inhibitzaileak hondatuta, balen aurkako txalekorik gabe, eta ibilgailuaren behealdea egiaztatzeko ispilurik gabe... Ilusiorik eta motibaziorik gabe ikusi ditut, eta ETAREN ekintza terrorista bakoitzean, biktimen begirada ikusi diet begietan⁹⁶.

J.A.G.R.-ren kasua indarkeriaren historian eta Andoainen oroimenean sartuta geratu da, nahiz eta ez ezagutu galera hori eragin zuten arrazoiei buruzko hainbat elementu garrantzitsu, gertakarien balioespen fidagarriagoa egiteko.

96 <http://antoniovalcarcel.blogspot.com/2007/12/un-escolta-privado-se-ha-suicidio.html>

8.

Indarkeriari, memoriari, bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko testigantzak

- *Ezer baino lehen, esan nahi dizuet hunkitu egin naizela irakurtzean, oso ongi dago. Lan ona. Eskerrik asko... bizi izandakoa gogora ekartzen... Lerro hauek idazten ari naiz nire emozioak menderatzeko ahalegina eginez, tarteka. Gaur, adibidez, negar egin dut eta irudi eta sentipen gogorrak etorri zaizkidanez, idazteari utzi diot une batez. Ondoren, lasai egon naiz, aita nire ondoan eserita balego bezala, soinez soin. Beste egun batean, berriaz, beteta sentitu nintzen, gure esperientzia idatziz jaso eta ezagutzera ematea erabaki duelako behingoz norbaitek. Apal batean geldituko da hautsez beteta? Ala beste xede batzuk izango ditu? Auskalo.*
- *Nire ustez garrantzitsuena gauzak gertatu diren bezala kontatzea da, horregatik zen garrantzitsua eta beharrezkoa guretzat txosten hau, Andoainen benetan gertatutakoa jakin dadin, ahalik eta ikuspegi gehienetatik gainera. Batzuek eta besteek izan ditugun sufrimenduak hemen islatzea nahi genuen, etorkizuneko belaunaldiek ezagut ditzaten.*
- *...horregatik nahi nuen zuekin hitz egin, batik bat azpimarratzeko jendeak gaizki pasa duela, eta horrek ondorioak dituela.*
- *Niri ondo iruditzen zait, izan ere, badago jendea esateko asko eduki arren, ez badiezu hitz egiteko aukera ematen, ezer esaten ez duena. Horrekin lotuta, nire ustez azkenean gauza hitz egitea da; pertsonok gehiago hitz egin beharko genuke, eta ez dugu hitz egiten*

PERTSONA ELKARRIZKETATUEN BIZIPENAK

Pertsona elkarrizketatuei beren bizipenei eta erreferentziei buruzko galderak egin dizkiegu, bai eta indarkeriak haiengan izan duen eraginari eta haien bizitzetan inpaktu handia izan duten gertaerei buruzkoak ere. Jarraian, erantzunak.

Erantzunen ordena desberdina da atal bakoitzean, ez dio jarraitzen hasieran finkatutako ordenari. Lehenik izena eta abizenak daude idatzita, baina gehien interesatzen zaiguna da ZER eta NOLA esaten duten, NORK esaten duen baino gehiago. Kasu honetan garrantzitsuagoa da mezua, egileak baldintzatu ez gaitzan. Hemen jaso diren iritzien askotarikotasuna, ñabardurak eta posizionamendu antagonikoak Andoaingo herritarren parte handi batek pentsatzen duenaren isla direla uste dugu. "Aitzakia" bat ateratzekotan, esan dezakegu politikagintzako pertsonen ordezkari gizarte zibilekoena baino zabalagoa dela.

Lehen pertsonan

Mari Karmen, Imanol e Ixidro Ansa Etxeberria, eta Luisa Cueli Zabala. *Gure anaia Joxe Ramon lasaie zan, hau zaharragoa [arriba, urtebete zaharragoa]; 17 urte baino ordun heldue zan hua. Gu ttiki-goak ginen 14 urte edo. Gutzako zan anai zaharrena, gutzako zan "el no va más". Lau gea, bost ginan. Bere omenez aurrena jarri zan gurutze bat, goatzen naiz, burnizko bat lauburu batekin, hua puskatu in zuten, bi aldiz puskatu zuten, e? Bi behintzat bai, harri bat masak in jarrita ta hua puskatu in zuten. Bi seguru, ta bat uste det Zapa hil zuten egunean, nola hil zuen gau hartan, ta hoi zan urtebetea. (...). Beste behin spraykin jarri bat "hijo puta" ta holako batzuk, puskatu ez baino... ondorengo urtetan. Igual 81ean edo 82n harriya puskatu zuen, ordun momentu hartan zen bertan. Hoi gertatu baino lehen, ez dakit udara bat zen edo, gu terreno batzuk ginun meta belarrakin ta haiek erre egin zittuen.*

Gertutik ezautu ez, aittu bai pasatzen zianak, baino gutzako kolpea ordun bai, galanta izan zan. Ordurako bildurra bagendun, bildurra bai, ordurako festatan bildurrakin ibiltzen ginan gabian etortzeko. Gu ez genitun ezautzen Piti ta jende hoi baino zahartxegoak bai eta komentatu iten zan. Gau hartan ere gu gazteak ginen baino Santa Krutz guztik oinez etorri ginan, 13-14 urtekin, gu goizago ta geo bea atzetik beranduago etorri zan. Ordubatak edo ordubata t'erdia... gu ordun umeak ginan, auzokoak izango ginen lau o bost, gu lehentxeo ta bea ba... de trango esaten zun, ez? De trango esan zuen Mari Carmenek goizeko hirutan ikusi zula Kraft-en. Kotxen ez zien ibiltzen bi ta hiru, dena beteta. Zazpi, hiru-lau kotxen, ta batek goazen Joxe Ramón ta ia ia etxea iritsi ta. Ta ordun Kraft-ik honea bitartian hartu zuten ta... Kraft-etik honea daude beste 500-600 metro, eta etxetikan pasa eta kilometroik ez dago hil zuen tokin. Kilometro bat? Hoixe.

José Antonio Barandiaran Ezama. *Alkate izan nintzen Euskal Herritarroekin (EH) 1999-2003 legegintzaldian, eta HBko zinegotzi bi legegintzalditan. 1983tik 1987ra eta 1987tik 1991ra. Berrogeita zazpi urteko militantzia batean gauza asko gertatzen dira, eta arrastoa uzten dute. Ziur naiz horietako batzuek eragina izan dutela nire nortasunean eta bilakaera politikoan.*

Mari Paz Artolazabal Ibarrodo. *Gure etxean beti abertzaletasuna eta euskaltasuna bizi izan dugu txiki-txikitatik. Gure etxean euskaraz hitz egiten genuen eta, noski, gero hemen kalean debekatua zegoen gerra ondoren. Frankismo gogor-gogorra bizi izan genuen. Eta, etxean adituta, ni gogoratzen naiz amak nola esaten zigun Gernika bonbardatu zutela... Ni Andoainen jaioa naiz. Noski, guk kalean erdaraz aritzen ginen. Gero gu beti mundu horretan, eliz inguruan... Don Eugenio genuen buru orduan. Ni alfabetatu ninduen Ricardo zenak. Doña Juanita, nik justu-justu ezagutu nuen, maistra bat zen, oso abertzalea izan behar zen. Etxe bat zeukan eta etxe hori bera hil zenean utzi zion Elizari. Orduan ez zegoen beste modurik dotrina euskaraz erakusteko, eta gu hor hasi ginen, hirugarren pisuan, ikastola ireki genuen. Eta behean zegoen lokal bat, eta han Ricardo zenarekin, han biltzen ginen. Gu Acción Católicako kide ginen. Nik ez nuen Magisteritza orduan egin eta ikastola irekitzeko ba pertsona tituludun bat behar zen, eta oso zaila zen garai hartan, inork ez zuen ikastolan sartu nahi. Nafarroaraino ere joan izan ginen, andereñoen bila eta ez. Inoiz ez genuen pentsatu ikastola gaur egunera iritsiko zela eta hor dauzkat nire urterik onenetarikoak. Ilegalak zirela, etortzen zenean inspektorea. Hori dena gainditu genuen.*

Asun Guerra Alonso. *Urnietan lehenengo legealdia gogorra izan zen, oraindik ere HB zegoelako, benetako HB. Haurdun nengoen alaba gazteenaz eta, osoko bilkura batetik ateratzean, ni eskaileretan behera botatzen saiatu ziren pare bat aldiz. Estropezu egin nuen pare bat aldiz, bultzatzen badizute estropezu egiten duzulako. Eta Urnietako Udaltzaingoaren buruak eutsi zidan, eror ez nedin. (...) Eskoltarekin iritsi nintzen Andoainera, eta halaxe joan nintzen, eskoltarekin. Andoainen egon nintzen zortzi urteetan eskoltarekin egon nintzen. Azkeneko lau urteetan, Bildu Udalean sartu zenean, eskol-*

tei ez zieten uzten Udaletxera sartzen eta liskar handi samarrak izan genituen. (...) Gauzak aurpegira esaten dituzunean, Polizia Nazionalak etarra bat edo ETaren kolaboratzaile bat atxilotu izana txalotzen dutunean, azkenean hiltzaile deitzen dizute, denetik esaten dizute. Urnietan pankarta bat jarri zidaten Udaletxearen aurrean, alderik alde, nire izen-abizenekin, niri hiltzaile deituz. Udaltzaingotik eta Ertzaintzatik deitu zidaten, eta deklaratzera joan behar izan nuen. Andoainen diana bat jarri zuten nire izenarekin, eta deklaratzera joan eta salaketa egin behar izan nuen...

Bigarren alaba jaio zenean eskolta bat zegoen erditze gelako atean, ospitaleko gelan ere eskoltarekin egon nintzen, eta baita zainketa intentsiboen unitatean ere 24 orduz... 18 urtez bizi izan naiz eskoltarekin, eta nire alabek ez dute jakin zer den ama libre bat izatea. Suposatzen dut ez barkatzeko eskubidea dudala, ez ahaztekoa, baina erne, ez barkatu eta ez ahaztu arren, nire bizitza etorkizuna da. Gertatutakoa iragana da. (...) Azken bozketetan ez naiz hautatua izan, bestela Andoainen jarraituko nuke. Andoainen PP ez dutela nahi erabaki zuten, eta errespetatzen dut, uste dudalako herritarrek direla politikan agintzen dutenak; horregatik, ni alde batera kendu naiz, eta sendagile lanetara itzuli naiz, lasaiago neurri batean, baina guztiz aldatuta.

Ainhoa Zabala Lasarte. Nire esperientzia ezker abertzaleko militante bezala beti egon da lotua presoekin. 17 urterekin hasi nintzen militantzian. Nire barruan, politikan interesatu baino lehenago, beti presoekin gaia interesatu zait, sentsibilitate berezi bat eduki dut gaztetatik. Adineko senideak ikusten nituen bidaia luzeak eta gogorak egin behar izaten zituztela, ikusten nuen Andoaingo herritar asko espetxean zeudela, ikusten nuen beraien egoerak ez zirela egoera errazak. Beti esaten dut, buruarekin baino gehiago, nik presoekin sentimendu kontuarekin hasi nintzela, hau da, hor baneukala zerbait sentsibilizatzen ninduen. Sufrimendu egoerak iruditzen zitzaizkidan, eta orduan hasi nintzen militantzian Gestoretan, hor egon nintzen 2002 urtera arte, Gestora ilegalizatu zuten arte. Gero nire ibilbidea jarraitu nuen Askatasunan eta gero Herriran. Geroago nire bizitzaren beste zati bat senide bezala izan da, motxiladun ume baten ama naiz. Lau urteko neska baten ama naiz. Nire bikotekidea Frantzian dago espetxeratua, 17 urte daramatza espetxean, ekainetik aurrera Lan-nemezaren.

Estanis Amuchastegui Arregui. Gaztelaniaz idatzia, ez ditut abizenak aldatu. Andoaingoa naizela bistan gelditu dadin nahi dut, niretzat Andoain da munduan dagoen herririk handiena. Andoaindarrak naiz, eta gurasoak eta aitona-amonak ere hala ziren. 17 urterekin hasi nintzen politikan, Partido Comunista de España Internacional-en (PC(i)). Gero, alderdi bihurtu ginen Espainia osorako. Eta ondoren Partido del Trabajo de España (PTE) sortu genuen; Eladio García Castro idazkari nagusia zen, Ramón Lobato zen bere ezizena, eta Andoainen egon zen, hemen egin genuen konbergentzia. 17 urterekin Joven Guardia Roja-ko arduradun izan nintzen, militantea ez nintzen arren. Organización Revolucionaria de Trabajadores-ekin (ORT) bateratu ginen, eta Partido de los Trabajadores (PT) sortu zen. Askotan irakurri izan dut Marx-en El Capital. Eta baita Leninen lanak ere. 20 urterekin, Torrejón de Ardozen egon nintzen, etxe batean ezkutatuta. Ikastaroak egiten genituen klandestinitatean. Eta hortik Euskadiko Ezkerra-ra (EE) zuzenean, PT desegin genuenean uste genuelako ezin genuela gizarteak aldatu eremu horietatik, gizarteak ez zegoen proletarioen diktaduraren alde. EE ezkerrekoa eta abertzalea zen, baina ni ez naiz izan inoiz abertzalea. Nire aita bai. Gero, Joseba Pagazaurtundua eta nik Alderdi Sozialistarekin bateratzeko prozesuan parte hartu genuen, eta Iñaki Pagaza zen gure kontaktua, Josebaren anaia, udaltzaina hura ere. Gemma Zabaleta ere alderdikoa zen, Andoainen.

Andoainen 1998an hasi ziren niri irain egiten. Nire kontrako gorrotoa Alderdi Sozialistara joan nintzenean piztu zen, ez Euskadiko Ezkerrara joan nintzenean. Espainol, traidore... esaten zidaten. Denetik. 1998an bizi izan nuen nire lehenengo istilu larria, bigarren solairuko bizilagunari autoa erre ziotenean; R21 bat zen, nirea bezalaxe. Nahasi egin ziren. Biharamunean nire kotxearen matrikula agertu

zen idatzita herri osoan. Hau zioten: "Ez gera ahaztuko matrikulaz". Aitak aurre egin zien, eta sesioan ibili ginen. Ordutik aurrera izan zen. Ni zinegotzia ere ez nintzen arren. Burrunba batean hasi ziren etxe aurrean, niri denetik esaten, eta emaztea atera zen balkoira, Isabel, goizeko 3etan, erantzuteko. Ehiztari izana nintzen, eta eskopeta neukan oraindik ere, postaz kargatuta. Jaiki eta besaulkian eseri nintzen. Telebista piztu, eta zer gertatzen ari zen pentsatu nuen. Ez, ez nuen ezer egin, baina egin nezakeen, ezagutzen dudan jendea, tragedia bat. Biharamunean anaiari eman nion eskopeta, eta esan nuen: etxean armarik ez, sarraskia eragin izan nezakeen. 1999ko ekainaz geroztik, lau eraso. 20 salaketa egin nituen. José Luis López de Lacalle hil zutenean, eta komando baten paperetan nire ize-na agertu zenean, alderdiak eskolta jarri zidan. Oraindik ez nintzen zinegotzia. Herri mailako idazkari nagusia nintzen, eta probintziako exekutibakoa eta batzorde nazionalakoa. 2003an ia erre zuten nire alaba txikia, Nerea. Hori izan zen okerrena. Etxea txikituta gelditu zen. Ez ziguten ezer utzi. Hozkailua eta telebista akordeoi bat bezala gelditu ziren. Oxigenoa jarri behar izan zioten Nereari, eta baita Charli katuari ere. Donostiara joan behar izan genuen bizitzera. Lau aldiz egon izan naiz alokairuan Donostian. Segurtasunagatik. Beste komando batek ni hiltzeko asmoa zuen.

Bakartxo Iguaran Garmendia. Guk etxean sekula ez dugu bizi izan politikaren gaia, etxean sekula. Gure gurasoak ez ziren posizionatzen ez batera ez bestera. 80. hamarkadan, grisak-eta ibiltzen zirenean, juxtu nire gurasoak bizi ziren Andoainen errepidea pasatzen den kale berrian, ez? Garai batean autobiderik ez zegoenean, errepidea pasatzen zen horretan, orduan hor biltzen ziren grisak, eta guk pertsianak jaitzita parkean ikusten genituen, baina gero gure etxean horretaz ez zen hitz egiten sekula. Eta orain ere ez. Konpartitzen ez den gai bat, ez da hitz egiten horretaz, horrela da, gure errealitatea horrelakoa izan da.

Inés Rodríguez Ranz. Andoainen jaio nintzen eta bertan bizi izan naiz ia bizitza osoan. Gaur egun ez naiz Andoainen bizi, baina bertan jarraitzen dut lanean. Gesto por la Paz-Bakearen Aldeko Koordinakundeko kide izan naiz urte askoan, ETAk bere jarduera etetea erabaki zuenean desagertu zen arte. Une jakin batean konpromiso hori hartu nuen, uste dut egindako hausnarketaren eta nire inguruan ikusten nuenaren eta gertatzen zenaren emaitza gisa. Argi ikusi nuen ezin nuela isilik gelditu; isilik egoteak beti ez du esan nahi ados zaudela, ala ez, baina nire kasuan, ondorioztatu nuen nire inguruan zenbait gauza ezin zirela esan, eta nolabait adierazi beharra neukan ez nengoela ados gertatzen ari zenarekin. Gesto nire bizitza izan zen, eta Geston egon arte, Alditrans-eko langileak. Baina Gestorekin egon nintzen pankarten atzean. Jendaurrean azaltzea erabakitzen duzunean, jada ez dago atzera bueltarik. Kito. Ez dakit nola azaldu, horrela da. Andoainen ez zegoen Gesto por la Paz, ni Donostiako taldeko kide nintzen. Andoainen ekitaldi bakar bat egin zuen Gestok. 2001ean.

Mikel Arregi Aranburu. Niri bi aldiz kotxea txiki-txiki egin zidaten. Niretzako hori baino gauza grabegoak izan dira, eta ez dira hor egongo; topatzea kalean tamaina naturaleko siluetak, pertsona baten silueta nire aurpegiarekin poste batean lotuta, eta testua Jarrairena, ez eskerrak emanez eta gozatzen, ezta? Ez. Uste dut 2001n edo 2002an izan zela. Nik komentatu nien, kasu horren gauzarik gogorrena da, uste dut izan zirela sei edo zazpi silueta. Bata ertzain batek, laguna, familiakoa eta oso lagun ona den batek erretiratu zuen. Beste bat Herrikoa dagoen inguru horretan dendari batek jaso zuen, eta eman egin zidan. Beste lauak edo bostak emazteak, alabak eta nik kendu genituen. Joan, puskatu eta jaso. Nik askotan esan izan dut familiari esker aguantatu dudala aguantatu dudan guztia, ze baita ere esan izan dut eta esaten dut oraindik ere, une latz horietan batek sentitzen duela alderdi mailan bakardadea. Bai, bakarrik uzten zaituzte.

Itziar Lizarralde Urreta. Jon Lizarralderen arreba naiz, Jon nire anaia nagusia zen. Egun berean jaio ginen. Ama gazterik gelditu zen alargun, eta anaia-arrebok aitarik gabe gelditu ginen. Jonek SAPAn lan egiten zuen, nik lan egiten dudana enpresa berean. Etxetik alde egin behar izan zuen lehen aldian

Guardia Zibila bere bila zebilen, batzar batean hitz egin izanagatik. Organización de Izquierda Comunista-ko (OIC) kide zen. Uste dut nire iritzia pertsonalak, gatazkak nigan izan duen eraginak, ez dutela inolako garrantzirik. Nire egitekoa Jon Lizarralderen arreba izatea da. Besterik gabe. Gai politikoa nire kasuan. Anaiak egin zuena onartu beharra daukat, baina zer gertatu zitzaion ere jakin beharra daukat. Nire anaiak bide bat hartu zuen bere bizitzan, erabaki bat, eta ni ez nengoen ados berekin; niri bera axola zitzaidan, eta beldur handia ematen zuela esaten nion, baina oso kontzientziatua zegoen. Horren aurrean, ezin nuen ezer egin; bera zaindu eta ezer ez gertatzeko eskatu baino ez. Ezin ditut berak egin zituen gauzen ondorioak nire gain hartu, bera oso seguru zegoen egiten ari zenaz. Ni ez naiz inor bera kritikatzeko, egin nezakeen bakarra bera babestea zen, edo... errezatu ez, ez naizelako fededuna, baina beti beldurrez egoten nintzen. Eta gertatu zena gertatu zenean, ia familia osoak onartuta zeukan egunen batean horrelako zerbait gertatuko zela. Baina onartezina da oraindik ez jakitea zer gertatu zen. Gure etxe atarian Guardia Zibilaren auto kamuflatu bat egoten zen, eta ezin da onartu hori horrela izanda amak irratian entzun behar izatea zer gertatu zitzaion anaiari. Onartezina da han [Irunberriko arroila] pertsona bat erail eta suizidioa bailitzan mozarrotu izatea. Hori gezurra da. Susanak bi tiro jaso zituen, eta anaiak ibaiko ura zeukan errai guztietan. Horrek kezkatzen nau.

Antonio Amondarain Aizpurua. Urte batzuetan ulertzen nituen “acción-represión” dinamika horretan ibiltzen zirenak. Esango dizuet normala iruditzen zitzaidala hori gertatzea, zeren eta hemen zegoen errepresioarekin ez zeneukan ezer egiterik. Protesta batera ateratzen zinen eta egurtu egiten zintuzten. Noiz arte? 1973. urte aldera familia izan eta gero ba... atera egin nintzen hortik. Familiarekin nahikoa nuen. Ikastolan umeak hasi ziren, baserritarren kooperatiban... hango lehendakari izan nintzen lau bat urte-edo. Gero “Cooperativa del Campo”-n lau urte. Hortik aparte, ikastolan ez dakit zenbat urte pasako nituen Juntan. Gure garaian egin zen ikastola berria. Azpiazuk eta Letek makina bat buelta eman zituzten Gasteizera ikastola berria egiteko. Gero, 1983an, zinegotzi bezala, bi legislatura jarraian. Aurreneko lau urteetan Patxi [Irigoras] izan zen alkate... gero eszisia etorri zen, bai, alkatetza galdu zen eta orduan zinegotzi. Momentu hartan, gaurtik begiratuta, ETA oraindik ez nuen ikusten problema bezala. Mentalitatea, niretzako, aldatzen hasi zen 90eko hamarkadatik aurrera. Bai. Miguel Angel Blanco aipatzen dute, baina aurretik jendea mugitzen hasita zegoen, nik behintzat ez nituen gauzak ikusten ordura arte bezala. Gutxieneko atentzioa deitzen zidan eta aurka jartzen nintzen, etorkizunik ez zuen gauza bat... baina ordura arte... Ez, ez. Miguel Angel Blancorena baino dezente lehenago.

José Luis Vela Arburua. Tolosan jaioa naiz eta PSEko zinegotzi izan naiz Andoainen hogeitaz, 1995etik 2015era bitarte. Hiru urte nituela Martuteneko espetxera joaten nintzen aita bisitatzerako, han baitzegoen lan grebetan parte hartu izanagatik. Garai hartan kartzelara eramaten zintuzten gauza handirik egin gabe. Gainera, kaleratu egin zuten. 16 urterekin Pasaban-en hasi nintzen lanean eta han egon naiz 2003ra arte. Garai hartan, EIA eta Euskadiko Ezkerran geunden guztiok ETA politiko-militarretik gendozen edo inguru horretako kolaboratzaile izanak ginen. (...) José Luis López de Lacalle hil zutenean eskolta jarri nahi izan zidaten, baina ez nuen nahi, uko egin nion eskolta izateari. Hori maiatzean izan zen, baina irailean Guardia Zibila agertu zen nire etxean eta derrigor eskoltarekin ibili beharko nuela esan zidaten, bai ala bai. Sekulako errietak egin zizkidaten lehenago ez hasi izanagatik eskoltarekin. Nire etxearen kontra atentatua egin aurretik izan zen hori. Beste batean, sei bat pertsona, maskarak eta buzo zuriak jantzita zituztela, etxe azpian jarri ziren pankarta batekin; amaginarreba eta seme gazteena bakarrik zeuden etxean, eta susto galanta hartu zuten. 1999an autoko lau gorpilak zulatu zizkidaten. Osoko bilkura batera joaten zinenean putaseme, estatu-terrorista, hiltzaile... esaten zizuten, eta ez nuen ezer ulertzen. Urte gogorak izan ziren. Kargu publikoei erasotzen hasi ziren urteak. José Luis hil aurretik hasiak ziren kartelak jartzen, pintadak egiten... Hainbat komandori aurkitutako paperetan niri buruzko informazioa agertu zen 2001etik 2007ra bitarte.

Zuriñe Olaitz Ortigosa. *Iñaki Olaitz Mitxelena abertzale mugimenduko partaidea izan zen eta euskararen eta presoen aldeko ekimen asko bultzatu zituen. Hainbatetan laguntza ekonomikoa ere eman zuen, familiako diruarekin, jarduera independentistak ahal zuen neurrian bultzatzeko. Iñakik harremana izan zuen ingurune horretako pertsona garrantzitsuekin, eta batzuek bere etxean bazkaldu ere egin zuten: Monzón, Castells, Esnaola, Idigoras... Inguruko batzuek inbidia zioten, bizitzan beste askotan gertatzen den bezalaxe. Aitak esaten zuen inbidia eta gorrotoak balek baino hildako gehiago eragiten dituztela. Eta badirudi hala izan zela. Iñakiren ahotsa entzuna zen eta zenbait gauza garrantzitsuekin ados ez zegoela esaten hasi zenean, asko gogaitu zuen anaia hilko zela erabaki zezakeen norbait. Jarraitu beharreko bideei buruzko zenbait erabaki hartu ziren, eta Iñaki ez zegoen ados. Bere ahotsa itzaltzea eta gainerakoak isilaraziko zituen zigor eredugarria jartzea erabaki zuten, baita egin ere. Gertuko kideek eta beste buruzagi batzuek ez zuten sinetsi ETArekin komunikatuan esaten zena, Iñaki infiltratua zela; inork ez zuen sinetsi. Ez zen egia. ETAk ez zuen inoiz frogatzen zioena egia zenik, ezta traba egiten zion norbait hiltzen zuenean ere. Koldarrek, bizirik irautearren, nahiago izan zuten ETArekin komunikatuak eta ekintzak zalantzan ez jartzea hainbat urtez. Baina hori aldatu egin zen denborarekin. Hasieran ez zuten hitz egiten ez familian, ez lagunekin, ez lanean, ausartzen ez zirelako, baina pixkanaka gauzak aldatu egin ziren. Gizartea ETA zalantzan jartzen hasi zen, guztia sinetsi izan ondoren. Iñaki abertzalea zen, difamatu egin zuten, eta bere kideek esan ziguten moduan, ETAk dagoeneko desagerraraziak zituen beste pertsona batzuk, beste bide batzuk proposatzeagatik; urte ilun eta nahasi haietan, hilketa edozein arrazoigatik justifikatzen zen urte haietan, ziotena egia ala gezurra izan; ETAk bere burua epaile eta partetzat hartu eta isiltasuna, askatasun falta eta izua inposatzen zituen urte haietan.*

Karmele Otaegi Negro. *Artxibozain eta andoaindar gisa ikerketa batzuk egin ditut. Historia Garaikidean lizentziatua naiz, eta orduan beti interes handiagoa izan dut gaur egungo edo azken urteetako historian, aurrekoan baino. Franco hil zenean 14 urte neuzkan, eta orduan hemen politika oso pil-pilean bizi genuen, eta nik uste dut horregatik hasi zitzaizkidalda gauza horiek interesatzen. Eta gauza horiek... zer gertatzen zen ulertzeko, nik horregatik ikasi nuen historia, jakiteko nondik gertatzen eta zergatik gertatzen ari zen gertatzen ari zen guztia.*

Maidor Lainez Lazcoz. *Alderdi Sozialistako zinegotzia naiz Andoainen 2011z geroztik. Deitu eta zerrendetan sartzeko proposatu zidatenean, ETArekin presentzia nabarmena zen oraindik ere. Onartzen banuen, automatikoki eskoltarekin ibili beharko nuela esan zidaten. Orduan haur txiki bat neukan, 2009an jaioa. Logikoki, erabakia ezin nuen neuk bakarrik hartu, familian hartu behar genuen baizik, etxean, senarrarekin, nire bizia ez ezik, berea ere aldatuko baitzen. Eta gurasoekin batera ere bai, gertuko familiarekin, erabaki horrek guztiongan zuelako eragina. Baietz esatea erabaki genuen, prest geundela, eta gero, lehenengo aldiz zinegotzi hautatua izan nintzenean, karguaren zina egitera joan ginenean, Estanisek esan zidan nolabaiteko aldaketa ari zela antzematen, eta eskoltarekin ibili ala ez aukeratu nezakeela. Berriz ere etxean hartu genuen erabakia: eskoltarik gabe ibiltzea.*

Familiari dagokionez, nire aita 1936an jaio zen, eta beraz, gerrak bete-betean harrapatu zuen. Ama Donostian jaio zen, 1940an, gerraondoan beraz. Aita Errioxako herri txiki batekoa zen, eta batez ere bere etxean bizi izan zen bi bandoen gaia, biziki. Aitonak jipoi asko jaso zituen eta, ondorioz, aldaka oso ukituta zeukan.

Agustín Alberro Irizar. *36ko gerrako giroa indarrean zegoen eta etxeetan beldurra sumatzen zen. Nire kasuan, etxean, gure aurrean, gerrako gaiari buruz gurasoek ez zuten hitz egiten. Amaren aldetik familiaren ospakizunak izaten zirenean, aita zena bere koinatuekin elkartzen zen eta gerrako kontuei buruz hitz egiten entzuten nien. Aitak izugarrizko tripako mina zuen, gerra garaian anai zaharrena "gorriekin" joan baitzen eta berak ere joan nahi zuen, baina 18 urte zituenez, aitona ez zion utzi.*

Dena dela, oso denbora gutxira, Francoren aldeko bandokoek eraman zuten, bere anaia eta kideen aurka borrokatzera. Segituan, zauritua izan zen, Loiolara ekarri zuten eta ez zuen armarik hartu, eta pelukeria lanetan jarri zuten.

1970. urtean, Andoaingo Orbelan lantegian hasi nintzen lanean, eta urte hartan Burgosko Prozesuaren inguruan izan ziren mobilizazioak ikaragarriak izan ziren, Andoainen ere bai: grebak enpresetan, kalean mobilizazioak... Pasadizo oso inportantea izan zen, lehen aldia zen horrelako mobilizazioak bizi nituela. Erregimen frankistaren aurkako sentimenduak kaleratzea eta epaituen aldeko babesazaltzea.

Mila Garralda Arin. *Betelun jaio nintzen, baina txikia nintzela Andoainera etorri ginen. Oroitzapen nahiko biziak ditut nire sorterriaz, une oso larriak izan baitziren, gerra garaia zen. Errepublikarra izateagatik atzetik zebilzkion osaba bat nuen, eta harrapatu ezin izan zuten, beste anaia baten bila joan ziren, Carmelo; hura ez zegoen ezertan sartuta. Alde egiteko aukera izan zuen, baina ez zen joan ez zegoelako ezertan sartuta. Bila etorri zitzaizkion eta ez genuen hari buruz ezer gehiago jakin. Asko mugitu behar izan nuen, baina azkenean, duela hamabost edo hogeitun urte, hura akabatu zuten lekua aurkitu genuen. Herriko postaria zen. Nire amonak esan ohi zuen nahiago zuela hori bere seme bati egitea semeak beste norbaiti egitea baino. Horrek markatu egin nau, sekulako eskuzabaltasun ekin-tza iruditu baitzitzaidan. Nire amak eta anaia-arrebek ez zuten hain erraz barkatu. Hura zen etxea aurrera atera zezakeen bakarra, baina ondoren... ez zen aurrera atera. Amagan eta izebengan gorrotoa ikusten nuen; izan ere, geroago jakin genuen nork egin zion hori, eta tartean apaiz bat ere bazegoen, herriko maisua... Dagoeneko hemen ginela, Andoainen, nire amonaren konfessore zen batek, aitortzako isilpean, diruz beteriko kartazal bat eman zion, hilketaren arduradunetako baten partetik, nolabait egindakoaren pisua arintzeko.*

Ni 1942an jaio nintzen, eta istorioak sutondoan kontatzen zireneko oroitzapenak ditut. Nire etxean hitz egiten genuen, bai. Aitak ez. Errebeldia bat zegoen diktadurarekiko, hori bai. Batez ere nire amaren aldetik. Aita baino askoz ere politikoagoa zen. Aita Lekunberrikoa zen, ama, Betelukoa. Eskolara joaten hasi ginenean, nazionaletan, Cara al Sol kantatzera behartzen gintuzten. Amak atera egin gintuen handik, eta moja batzuegana eraman gintuen, azkar asko. Nik errebeldia hori heredatu nuen, eta hala izan naiz bizitza osoan, hala izaten jarraitzen dut. Ondoren, errebeldia hori ahal dudana jarraia guztietan parte hartzeko ohitura bihurtu da. Badakizu, halako bileretan, mendian egiten ziren haietan... eta ikurriña ateratzearen aldekoetan, euskararen aldekoetan eta halakoetan. Baina gero mutil laguna topatu nuen oso gazte, eta horrekin amak atsedean hartu zuen, ikusten baitzuen gauza okertu egin zitekeela, eta ni oso errebeldea nintzen, beste gauza batzuetan sar nintekeen, eta hori beste kontu bat zen. Orain 75 urte ditut. Ez naiz inongo alderdi politikotan ibili, gehiago jo dut kulturaren aldetik. Andoaingo Zineforumean eta Bizilagunen Elkarteetan, halakoetan. Cáritasen ere ibilia naiz, baina hori azken orduko gauza bat da. Baditut nire sinpatiak, baina botoa gero eta aldakorragoa da, ez da finkoa.

Miren Mujika Tolaretxipi. *Ikastolan ikasi nuen eta nire lehenengo kontaktua euskararen mundutik etorri zen: Euskal Herrian Euskaraz-en ibili nintzen hainbat urtez. Eta hortik... garai hartako ezker abertzalearen egituraren inguruan, KASen inguruan hasi nintzen mugitzen, eta Egizan erakundean sartu nintzen, mugimendu feministan. Orduantxe sortu zen, Aizan-en esperientziatik, eta hor aterratu nuen, Egizan-en. Eta hortik, Herri Batasuneko zinegotzi udalean. Hori izan zen pixka bat nire ibilbidea. 91tik 98ra, bi legealdi. Egia esan, herrigintza beti gustatu zait eta niretzako oso esperientzia ona izan da udalarena. Pertsonalki, uste dut hor erroka oso inportanteak izan genituela, nahiz eta batzuk ez konturatu edo ikusi ere ez.*

Ikastola sortzean, aita antzerkian ibiltzen zen eta ama ere musikaria zen. Eta antzerkia egiten zuen ere Mari Pazek. Nik ere bai. Ni udalean nengoela izan zen justu ikastolen eztabaida: publiko eta pribatua-rena. Egin genituen bilera batzuk Leizaranekin eta Ondarretarekin, eta oso markatuta zegoen hemen B eredua. Orduan ikastolan bakarrik zegoen D eredua, bi urtetik hamasei urtera bitarteko hezkuntza, hemezortzi... Orduan hautua egin genuen, eta Mari Pazek deitu zidan etxera, amaren etxera, orduan han bizi nintzen, eskerrak emateko ikastolaren alde izan nuen jarreragatik, ikastolaren aldekoa. Bai, bagenuen gertutasun hori, nahiz eta berak beste ideologia bat izan, beretzat ikastola beti oso inportantea izan da. Horren inguruan mugitzen zen, eta nik uste berak ez zuela siglarik ikusten.

Nerea Amuchastegui Díaz. *Lau lehergailuk jo zuten, bik balkoian eta beste bi barrura sartu ziren. Ez dakit bat sofaren aurka joan ote zen, lehenengo sofak hartu baitzuen su, gero errezelek eta guztiak. Arratsaldeko zazpiak inguru ziren, leihoa irekita nuen erre egiten dudalako, eta etxean nengoenean leihoa irekitzeko ohitura nuen, kea ez barrura sartzeko. Ama Pagazaren alargunarekin, Titirekin, joana zen. Ni marrazki bat egiten ari nintzen; haiek ziren nire etxeko lanak. Orduan 24 urte nituen eta eskuz koilara bat margotzen ari nintzen, Marrazketa Teknikorako. Bat batean zarata bat entzun nuen, oso ozena, ssszzz antzeko bat, bengala bat bezala edo. Eta bat batean leherketa. Lehenengo gure katu Charliren bila joan nintzen. Bai, beste sofa baten azpian sartu zen eta errezelak su hartzen hasi ziren. Harengana joaten saiatu nintzen. Ikusi nuen ezin nuela. Berriz irten nintzen. Pareko bizilaguna etorri zen, baina ezin izan zuen atea ireki, nik ireki behar izan nion. Biak igo ginen eta katua bilatzen saiatu ginen, baina horrenbeste kerekin ezin zuen. Bizilagunak jaitsi egin ninduen. Honela esan zidan: Nerea, jaitsi, jaitsi, jaitsi. Kanpoan geratu ginen, ezkaratzean, hau da, kalean, ni botata eta bizilaguna niri heltzen. Eta ni ba, zera... nahiko urduri. Negarrez, gaizki. Bizilagun hark asko lagundu zidan, egia esan. Gogoan dut anbulantzia iritsi zela eta barrura sartu nindutela, eta han, lasaigarri batzuk eman zizkidaten. Ez dakit zer zen, Orfidal edo zer, baina lelotu samar utzi ninduten. Nire aitak jakin zuen lehenengo. Kanpoan zen, laneko bidaia batean, eta EFE agentziak deitu zion etxean bonba bat jarri zutela esanez. Amari deitu zion, eta nire ama Alderdi Sozialistaren egoitzan zegoen. José Luis Vela etorri zen, eta nire ama. Hantxe egon ginen, zain. Urez beteta zegoen guztia. Katua balkoira irten zen, eta nik harengana joaten uzteko eskatu nien suhiltzaileei. Sartzen utzi zidaten eta blai eginda bukatu nuen, baina ezin izan nuen katua jaitsi. Ezin nion katuarengan pentsatzeari utzi. Guztia amaitu zenean, katua balkoiko erlaitzera irten zen; beltz–beltza zegoen, eta kea botatzen zuen ahotik. Nire lehenengo erreakzioa albaitarirengana eramatea izan zen, baina gurasoen lagun batzuek hartu eta eramanean zuten. Oxigenoa jarri zioten. Beren autoa ireki zidaten beste bizilagun batzuekin egon nintzen. Barruan sartu ninduten eta berogailua jarri zuten. Azaroa zen, ez dakit zer egun, baina hotz egiten zuen. Gero aitona–amonen etxera igo ninduten, ondoren aitaren lagun batzuen etxera, Miguelen etxera, horiek ere alderdikoak dira. Han hilabete edo egin genuen. Gero Donostiara. Ni lur jota nengoan, erdi drogatuta. Tira, erdi ez, erabat drogatuta. Eta aitari itxaroten geratu nintzen, itzuli baitzen bidaiatik. Amak esaten zidan: sar zaitez ohera, eta halakoak... Ezetz, ezetz, nik aitari itxaron behar diot, ikus nazan. Aitak ez zekien ni nola nengoan, ezta katua ere, ezta ezer ere.*

Zenbait bizilagun, bizi osoan lagun izandakoak, pareko bizilaguna eta alabak, guztiek dituzte gureen oso bestelako ideia politikoak, baina laguntzera jaitsi ziren... Ez dakizu zer bizilagun dauzkagun... Hori ere ez zen nire alderdikoa, eta laguntzera etorri zitzaidan, eta zera zeukan... Ahaztu egin zait: pareko beste batzuk ere, betikoak, oraintxe zinegotziak direnak. Horiek ere bai. Esan nahi dudana da pertsonak, azken finean, pertsonak garela.

Patxi Irígoras Etxebeste. *Aurrena izan nintzan zinegotzi, gero alkate, gero zinegotzi berriro eta juntero, 79tik 95taraino, hamasei urte al pie del cañón. (...) Alkate bezala ez nuen kobratzen eta libre neukan nahi nuena egiteko lantokian. Txapela batekin bi buru tapatzen nituen eta lana egiten nuen de siete a siete, ta egia da, jendiak badaki zenbat ordu geiten nituen nik lan. Nik ireki nuen Andoaingo*

Caja Laboral eta egondu nintzan bakarrik lanian, egiten nuen de todo, hasieran bai. (...) Esaten denak elkarren arteko harremanak hobetzeko balio badu, bakea bilatzeko, badirudi hortik doala lan hau eta sufritzen jarraitzen dutenen onerako den guztia, hau lehenbailehen amaitzeko... Indarkeria handiko urteak bizi izan ditugu: hilketak, bahiketak, estortsioa, dendei eta erakundeei erasoak, telefono kabina publikoei, autoak erreta, kolore gorri eta horiko pintura, kartelak, mehatxuak, irainak... Alderdian hogeitau baina gehiago izan zirela badakigu.

Petri Romero Pozo *PSE-EE zinegotzia naiz Andoainen 2007tik, eta batzarkidea 2015etik. Bi seme ditut, 13 eta 5 urtekoak. Ostalaritza eta Turismoa ikasi nuen, eta asko lan egin dut sektore horretan. Alderdian ez dut inoiz izan kargu organikorik, eskaini zidaten arren; dena den, alderdiko nominan nago, zinegotzi gisa liberatuta, eta alderdiarentzat bulegoetan ere egin dut lan, azkenean, alde batetik bestera nabil, gero zortzi mila bilera jartzen dizkizute... Gazterietan hasi nintzen idealek erakartzen nindutelako, gauza interesgarriak egiten ziren. Gero Josean Pérez Gabarain alkatearen idazkari aritu nintzen, eta zertxobait Estanis Amuchasteguirekin. Inoiz ez naute iraindu ezta garrasirik egin ere, agian barrutik denetarik esango zidaten, baina ez dut halako zorte txarririk izan, ez dira inoiz zuzenean nirekin sartu, lau urtez bi bizkartzainekin ibili behar izana kenduta. Hautatu eta gutxira, dei bat jaso nuen alderditik: halako egunetan hona etorri behar duzu. Hara joan eta pertsona bat aurkezten dizute, eta hura da zurekin egongo dena kalera irteten zaren bakoitzean. Eta ni bi urte eta erdiko ume batekin. Umearen aulkitxo bizkartzainaren kotxean eraman behar izaten nuen. Ezin nuen nire autoa erabili hura eskolara eramateko. Gainera, bizkartzaina jarri zidatenean banandu egin nintzen. Eta familiaz hitz egiten badut: nire ahizpa bi bizkartzainekin eta nire koinatua laurekin. Ez dakit zer ematen genuen...*

Xabier Lekuona Barreras. *1964an jaio nintzen, 54 urte ditut. Bizi nintzen Guardia Zibilaren kuartelaren pare parean. Hor behean Bastero dago, gure etxea eta kuartela zeuden, nire balkoitik hamar metrora. Kuartelaren aurrean bizi ginen eta oso harreman ona genuen guardia zibilekin. Hau da, gure auzokoak ziren, txakurra zuten, jatekoa ematen genien eta abar. Dena dela, 1976 inguruan—edo, greba potente bat izan zen Andoainen, Sileneko langileena. Oso indartsua izan zen eta herri osoa hankaz gora jarri zuen. Izugarritzko elkertasuna egon zen eta mobilizazio oso—oso potenteak. Etxe aurretik manifik pasatzen ziren, eta iritsi zen momentu bat non guardia zibilak, gure ondoan bizi ziren guardia zibilak, egurra jotzen hasi ziren “a culatazo limpio”, cetme handiekin, garai hartan ez zuten “peloterorik”. Jendea lurrean, odoletan, eta horrek inpaktatu ninduen, baina gehiago inpaktatu ninduen jendea atxilotuta ikusteak. Guk ikusten genituen leihotik, ikusten genuen nola ateratzen ziren, balantzaka, zurbil, “hecho polvo” ateratzen ziren, ostiaka... Eta ikusten genituen betiko guardia zibilak, auzoko langileekin, barrioko jendearekin, eta nolako tratua izan zuten eta orduan izan zen shock bat auzoan, dena moztu zuen shock bat. Ia harreman guztiak moztu ziren. Etxe ondo azpian Bar Deportivo zegoen, guardia zibilak hara joaten ziren. Ba dena moztu zen. Izugarritzko aldaketa izan zen eta handik gutxira gertatu zen ere Joxe Ramon Ansarena, 1978an.*

Maite Pagazaurtundua Ruiz. *Joxeba Pagazaurtunduaren arreba naiz. Andoainen krudeltasun handia pairatu behar izan dugu bertako herritarren parte batek, gu hiltzea eskatzen zuten ehunka herritarren babes inplizituarekin, eta gizarte taldeen eta alderdi politiko baten babes esplizituarekin, alderdi horrek bere helburu politikoei traba egiten zieten herritarrek seinalatu, jazarri, estortsioa egin eta erailtzeko estrategia bultzatzen baitzuen boteretik. Ehunka pertsonak justifikatu izan dituzte ETAko hiltzaileak eta kolaboratzaileak. Hainbat hamarkadaz. Eta jasandako jazarpen hori guztia ezin da ezabatu eufemismoekin. Andoaingo kale borrokaren inguruan egindako txostena⁹⁷ estratatega politikoei bilatu eta onartutako infernu baten irudia da.*

97 Pagazaurtundua—Garmendia sendia (2018). *Joxeba Pagaza: un grito de libertad. Andoain 15 años.* Autoedizioa.

Gaizkia. Hori ez da Andoainen egon den gaizkia osoa, hemen gertatu den txar guztia. Baina sistematikoa izan da, proiektu komunitario moduan. Andoainek BVEren eskuin muturreko terrorismoa ere jasan zuen, baina ez zen egon gaizkiaren zirkulurik.

Zein dira gehien hunkitu zaituzten esperientziak eta gertaera biolentoak?

Andoaindik kanpo

Pedro Elustondo Zalakain: *1976an, eskuin muturreko taldeek, Sixto Borboikoaren jarraitzaile zirenek, era guztietako armekin eraso ziguten Montejurran urteroko festa karlistan parte hartzen ari ginenoi. Ricardo García eta Aniano Jiménez hil zituzten, eta pertsona asko zauritu zituzten, inpunitate osoz. Gogoan dut han zegoen Guardia Zibilaren Land Rover-era joan nintzela beste batzuekin batera, eta esaten geniola: "Gu hiltzen ari dira!"... baina haiek ez zuten ezer egiten. Horrek guztiak gehiago erradikalizatu gintuen. Aurretik, hirurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran, Beasainen propaganda karlista banatzen ari ginela atxilotu ninduten eta Guardia Zibilaren koartelera eramán gintuzten. Ondoren, Tribunal de Orden Público-k epaitu gintuen, guk torturak salatu izan ondoren.*

Ainhoa Zabala Lasarte. *Nire buruan daukadan irudia eta oso gertutik bizi izan dudana da Gurutze lantziren kasua. Nire amaren familia Urnietakoa da eta Gurutze lantzirekin batera nire osaba atxilotu zuten. Hor hartu zuten Urnietako jendea espetxean egon zen urte mordoa. Eta nik oso markatuta daukat bizipen hori. Komisarian egon ziren bost egun inkomunikatuta eta inkomunikazio horretan enteratu ginen Gurutze lantzi torturak jasan eta gero hil egin zela, bueno hil... Familian oso momentu gogorra bizi izan genuen, gure etxeko bat atxilotuta zegoelako harekin batera. Bost egun horiek izan ziren nire bizitzan luzeenetarikoak.*

Gurutze lantzi herritarri azken agurra egin zioten Urnietan. Bere familia babestu, herritarrok eta ingurukook bere familiari eman nahi genizkion maitasuna eta babesa, eta hor egon ziren enfrentamenduak Ertzaintzarekin. Niri gelditu zitzaidan irudi hori, zergatik ezin genion azken agurra eman herriko pertsona bati? Horrelako egoera tamalgari batean hil zen pertsona bati zergatik ezin genion azken agurra eman, eta familiarekin egon... merezi zuen bezala, duintasunez. Orduan horrek niri asko eragin zidan. Hor konbikzio handia hartu nuen nire militantzian, esan nuen, ostras, hemen egon behar duzu ze gertakari batzuk oso ofizialak dira, komunikabide guztietan ateratzen dira, ematen zaie oso garrantzi handia, baina beste batzuk, Euskal Herrian gertatu diren gertakari asko, bigarren edo hirugarren planoan edo planorik gabe gelditu dira. Herrian kargak egin zituzten, Ertzaintzaren kristoren furgoi pila eta "a pelota-zo limpio" hasi ziren. Herrian antolatuta zegoena ezin izan zen egin... baina gu familiari, bere amari... Ni bere amaz gogoratzen naiz, bere alabaren azken irudia da nola atxilotzen duten, nola eramaten duten, eta gero hilkutxa batean... Ostras, hori niri oso mingarria iruditu zitzaidan.

Elías Díaz Arriba: *Eskuin muturrekoek Atocha-ko (Madril) bulego laboristako bost abokatuak erail eta PCEk erantzun eta salaketa soziala diziplina handiz kontrolatu zituenean, ni asko ukitu ninduten gertaera haiek. Hura danbateko handia izan zen, eta alderdia legeztatzeko bidea ireki zuen. Gure historiaren parte da.*

José Luis Vela Arburua. *Hainbeste kide hil izana.*

Nerea Amuchastegui Díaz. *Isaías Carrascoren alaba Sandrak aita Arrasaten hil ziotenean esan zuenak izugarri hunkitu ninduen. Uste dut izugarritzko amorrua zuela barruan, baina une horretan, nire ustez, hitz egin behar zuen bezala hitz egin zuen. Ikusi nuenean eduki nuen sentsazioa izan zen, begira, niri gertatuko balitzait, gauza bera egingo nuke; asko gustatu zitzaidan nola hitz egin zuen, zer indarrarekin.*

Manuel Correas Díaz: *Martxoaren 3an poliziak tirokatuta Gasteizen hil ziren bost langileak. Tragedia handia izan zen. Orbegozon lan egiten nuen orduan eta greba egitea erabaki genuen. Hernani hartuta zegoen eta Santa Barbarara igo behar izan genuen, baina helikoptero batetik pintura botatzen ziguten, herrira jaisten ginenean nor atxilotu behar zuten jakin zezaten.*

Maite Pagazaurtundua Ruiz. *Lagunak banaka banaka persegitzen zituzten eta batzu hiltzen. Birtartean ehudaka pertsonak gure jaioterrietan egunero ETArri eskatzen zioten gure hilketa burutzea. Orandik gogoratzen ditut oihu eta karraxiak Hernanitik ihes egin baino lehenago. Ihes egin baikenuen bizitza salbatu ahal izateko. ETAk eta bera ingurune politikoak eraturako persekuzioa eta erasoak ez ziren bakarrik Joxebaren aurka izan eta ez ziren bakarrik Andoainen gertatu.*

José Antonio Barandiaran Ezama. *Juan Antonio Aranguren Mugika ezagutu nuenean, guretzat "Iharra", 19 urte baino ez nituen. 1972an muga igarotzen ari zela hil zuten, Urdazubin; bertsio ofizialaren arabera, Guardia Zibilarekin izandako liskar batean. Horrek eragin handia izan zuen nigan, emaitza konpromiso pertsonal eta politiko handiago bat izan zelarik. Santi Brouarden eta Josu Muguruzaren aurkako atentatuek ere arrastoa utzi zidaten. Santi Bilbon ezagutu nuen, eta militantzia eta erantzukizunak partekatu genituen; Josu Iparralden ezagutu nuen. Niretzat aparteko bi figura izan ziren euskal politikan. Irunberriko Arroilan gertaturiko Jon Lizarralden heriotzak ere asko ukitu ninduen. Bertsio ofizialaren arabera, Susanak eta Jonen beren buruaz beste egin zuten. Agian bertsio ofizialak eragin zidan Jon eta Susanaren heriotzak berak baino zirrara gehiago, ez baitut bertsio hori sinesten. Era berean, Joseba Arregi eta Gurutze Yanciren heriotzek ere, torturaren ondorioz, eragin handia izan zuten nigan. Eta oraindik zirrara sorrarazten didana halakorik gertatu dela ukatzen jarraitzen duten politikarien adierazpen publikoak dira, jakinda sistematikoki eginiko gauzak izan direla eta askok sufritu behar izan ditugula, modu batera ala bestera.*

Mari Karmen, Imanol e Ixidro Ansa Etxeberria. *Miguel Ángel Blanco–na oso sonatua izan zan... ta azkenean hemendik oso gertu topau zuen ta... goatzen naiz ordun, e... ba geatzen zeala horrekin... rekuerduak... pentsatzen zenula, ez due hilko, ez due hilko... baino azkenean hil in zuen.*

Luisa Cueli Zabala. *Guardia zibila bat hil zuen Erreterian, atea nintzen balkoia ta ikusi nun ta sartu nintzen berriz ere barrura. Ta beste kotxe bonba bat etxetik 200 metrotara edo ta jeiki nitzan de un bote, ta beste bat en la Casa del Pueblo... nere ahizpa han ondoan bizi zan, ta hasi ginan jeisten... ta gogoratzen naiz eskilaratan esan nion ahizpari, Marijo, berriz igoko naiz komunea, ta hai nintzan eskuak garbitzen ta orduan leherketa, ta ikusi nun nere aurpegia ispiluan ta pentsatu genun, si la pesada no hubiera ido al váter... ta hola hiru atentaduak bizi izan nun nik.*

Maidier Lainez Lazcoz. *Miguel Ángel Blancoren heriotzak asko markatu ninduen. Hilketa askok egon ziren zoritxarrez baina, kasu honetan, hilketak bera baino gehiago, moduak hunkitu ninduen. Nola bahitu zuten, nola eman zuten epe bat, eta nola bizi izan ziren bi egun horiek intentsitate handiz herri guztietan. Lasarten bizi nintzen orduan. Uste dut inoiz mobilizatu izan ez zen jendea ere atera zela kalera, Miguel Ángel hil ez zezaten eskatzeko; lehenengotariko kasua izan zela uste dut. Eta gainera, kasualitatez, Miguel Ángel Blanco Lasarten agertu zen hilda. Ederki gogoratzen dut egun hura. Bartzelonarantz nindoan eta, autopistan, auto guztiak gelditu egin zirela gogoratzen dut; auto ilara modukoak egon ziren, autoak gelditu egiten zirelako; inork ezin zuen sinetsi azkenean Migel Ángel hil egin zutela.*

Eta maila pertsonalean, Froilán Elesperen hilketak ere asko markatu ninduen. Froilán zinegotzia zen Lasarte–Orian. Oso lotua zegoen herriari, eta, gainera, uko egin zion eskoltarekin ibiltzeari, auzo guztietan egon behar zela uste zuelako; alde guztietako jendearekin egoten zen, baita ezker abertzalekoekin ere, eta, horregatik, uste zuen inoiz ez ziotela ezer egingo, denekin hitz egiten zuelako.

Pentsatzen jartzen banaiz, atentatu pila bat datozkit burura, eta baita bahiketak ere, asko markatu gintuztenak; eta lazo urdina. Mugarri asko daude: Yoyesen kasua edo Hipercor, adibidez. Hipercorrekoa basakeria ikaragarria izan zen, baina ni oso txikia nintzen orduan, eta egia esan, ez dut gogoratzen. Telebistako oroitzapenak ditut, nik 5 edo 6 urte nituelako; batez ere Irene Villa-ren kasuarenak, neska gazte bat zelako. Bi hankak galdu zituen, eta amak hanka bat eta beso bat. Horrek ere markatu ninduen.

Asun Guerra Alonso. *Agian unerik gogorrena Miguel Ángel Blancoren heriotza izan zen. Oso gogorra izan zen. Bilbora joan ginen, manifestaziora. Orduan Ricardo Hueso zen Gipuzkoako PPko presidente; nire familiakoa da, eta elkarrekin joan ginen autoan. Bilbon gelditu ginen bazkaltzen, berrien zain, eta deitu egin ziguten, esanez bi tiro eman zizkiotela Blancori, aurkitu zutela jada. Eta ni lur jota gelditu nintzen, denok bagenuelako itxaropen apur bat, halako manifestazio baten ondoren. Larunbat hartan Bilbon egindako manifestazioa ikaragarria izan zen, itxaropenari eusten genion... Baina lur jota gelditu nintzen, negar egiten nuen, kontsolatzen saiatzen ziren, eta gogoratzen dut lehengusuak esaten zidala: "lasaitu zaitez, eskualdeko egoitzara joango gara eta ikusiko duzu zer topatuko dugun han; zu eta ni sendagileak gara, han aurkitzen ditugun guztiei lagunduko diegu". Eta hala izan zen. Egoitzara iritsi... eta antsietate atakeak, jendea oso gaizki... Eta orduan, zeuri gertatzen ari zaizunaz ahaztu eta sendagile izan behar duzu, jendea kontsolatu, tratatu, orfidala aurkitu jendeari emateko... Ikaragarria izan zen... uste dut inoiz bizi izan dudan gauzarik gogorrena izan zela. Ospitalean lur jota nengoen, baina gero, taldeko lagun guztiak ere lur jota ikusi nituenean, negarrez, antsietate atakeekin... Egoera horretan nire egoera ahaztu behar izan nuen eta, sendagile naizen aldetik, lagundu behar izan nien. Uste dut hori izan dela gogorrena... Horrez gain... [Manuel] Zamarreño-ren heriotza ere bizi izan nuen. Bezperan berekin telefonoz hitz egiten egona nintzen gainera, eta esan zidan, "ados, ongi da, etzi deituko dizut", egun horretan ezin zuelako; "deituko dizut eta hitz egingo dugu" esan zidan. Kontu bati buruz hitz egin behar genuen, baina gero, bat-batean...*

ETak su etena bukatu eta jarduera armatura bueltatzen zela iragarri zuenean ere gaizki pasa nuen, 1999ko abenduan. Gogoratzen dut igandea zela, alaba txikienaz haurdun nengoen, eta ETak su etenari amaiera ematen ziola iragarri zuten, abenduaren 3tik aurrera (ostirala) guztiok ETaren helburu izango ginela berriro. Eta gogoratzen dut neure burua, egongelan, haurdun, negar zotinka, esanez "Jainko maitea, zer egingo dut?". Berriz ere lehengo egoera berean geunden... eta ni, haurdun eta 3 urteko alaba batekin, ez nekien zer gertatuko zen. Eta noski, Ertzaintzak deitu zigun, komisariara joateko esanez; eskolta jarri behar ziguten. Hura ere momentu gogorra izan zen, gogorrenetako bat. Uste dut une gogorrak izan zirela guztiontzat. Baina nik bereziki gogoratzen ditut Miguel Ángel-en heriotza, eta su-etenaren amaiera, ni haurdun nengoela.

Antonio Amondarain Aizpurua. *Burgosko Prozesuaren zera hori... ez zegoen entzuterik irratian eta Radio Pirenaica edo bestela BBC entzuten genuen. 1975ean, Txiki eta Otaegi hil zituzten hartan... Burgoskoan ezagunak nituen, Lasartekoak. Horietako bat besomotz gelditu zen: Manuel Isasa, Michelinen aritu zen lanean. Eta José María Yarza eta beste horiek ere bai. Eta lagun baten iloba dut, hori gerroztikakoa da, Otegi, orain dela gutxi libre utzi dutena, atxilotuta eduki zuten... Bestalde, Miguel Angel Blancorenak, propagandagatik edo ez dakit zergatik, kristoren inpaktua izan zuen, baina ez hemen bakarrik, edozein tokitan, alde guztietan.*

Petri Romero Pozo *Isaías Carrascoren hilketa buruan sartuta geratu zitzaidan denbora luzez; gure familiaren laguna zen. Hil zuten egunean ni Eskoriatzan nintzen, ahizparekin; ezagutuko duzue, Rafaela Romero, artean kanpaina egiten ari zena Arrasaten. Eta bazkaldu gabe geratu nintzen. Deitu egin zidaten: "Halakoa gertatu da", eta korrika joan nintzen ospitalera. Buruan dudan irudia da Larrialdietara sartu nintzela eta han aurkitu nuela Sandra, Isaías-en alaba, horma batean bermatuta*

eta odola zuela alde guztietatik, aitaren odola, orduantxe bertan gertatu baitzen. Hori ez da inoiz ahanzten. Niretzat Isaíasena mugarri bat izan zen, gainera laguna, eta barrutik bizi behar izatea. Hil dituzten kide guztiez gain, hurbiletik bizi izan dugun horrez gain, zerrenda nahiko luzea baita. Baina uste dut Isaíasenak jo ninduela gogorren.

Arrasaten bizi ginenean ere... ez zen giro... nire anaia txikienari ere tokatu zitzaion. Biak geundenez langabezian, Herriko Etxeko tabernaz arduratzen hasi ginen. Taberna lehen Arrasateko alde zahar- rrean zegoen. Txandak egiten genituen. Etxean nengoen arratsalde batean, anaiak negarrez deitu zidan. Burua estalita zuten hainbat pertsona beisboleko bateekin sartu ziren eta taberna txikitzen aritu ziren. Anaia bakarrik zegoen eta 17 urte besterik ez zituen. Batea buruan jarri zioten, eta esan zioten geldirik egoten bazen askoz ere hobeto joango zitzaiola, edo halako zerbait. Herriko Etxea oso-osorik txikitu zuten. Berehala abiatu nintzen harantz, eta iristerako, Ertzaintza bertan zen. Anaia zurbil-zurbil zegoen, imajinatu zer nolsko sustoa hartu zuen. Han, Arrasaten, halaxe zen, egun bat joan eta beste- tea etorri. Herriko Etxeak beti zituen pintadak.

Bakartxo Iguaran Garmendia. *Hipercorrekoarekin gogoratzen naiz, eta Guardia Zibilaren Zarago- zako kuartelaren aurkako atentatuaz. Garai haiek oso gogorak izan ziren. Zatiketa nabarmena ze- goan. (...) Eta gero niretzat argi izpi bat izan zen Elkarri sortu zenean.*

Estanis Amuchastegui Arregui. *Txarrerako ala onerako? Garrantzitsuena diktadorearen heriotza izan zen. Garrantzitsuena. Inoiz hartu dudan pozik handiena, Francoren heriotza. Eta negatiboan, asko hunkitu ninduen Ermuakoak, Miguel Ángel Blancoren heriotzak. Bagenekien arren zer gertatuko zen, ikaragarria izan zen. Eskatu zutena eskatu zuten. Askok esaten zuten: "Lasai, askatuko dute"... baina nik ezetz esaten nuen, hil egingo zutela. Blancoren heriotzaren ondoren, jende askok ikusi zuen uste genuena baino okerrago geundela, arrasto handia utzi zuen hark.*

Inés Rodríguez Ranz. *Atentatu guztiek hunkitzen zaituzte, baina egia da Miguel Ángel Blancorenak eragin berezia izan zuela, bi egunez egon ginelako zain, zer gertatuko, eta gainera, pentsatuz salba- tzea lor zitekeela ziurrenik. Edo gutxienez ez kontrakoa pentsatuz. Erabat kalean egon ginen bi egun haietan, Andoainen, Ermuan eta Bilbon, baita gauez ere... Horrek eragin handia du, denbora asko izan zelako jarraian eta oso gertukoa zelako.*

Karmele Otaegi Negrodo. *Txiki eta Otaegi, nola hil zituzten. Txiki zen guretzat, ez dakit... oso gertu- ko pertsona bat bezala ikusten genuen eta ezagutzen genuen bere irudia... Hori agian gehiago. Nola jaiki nintzen goizean eta izebak esan zidan: "hil egin dituzte". Hori bai.*

Eta gero Miguel Angel Blanco hil zutenean, zinegotzi bat hiltzea, gustatu edo ez gustatu, PPkoa izan ala ez... ordezkari politikoa bat zen eta hortik hasi behar da, ordezkari bat zen, eta gauza horiek onar- tzen ez ditugun bitartean gaizki gabiltza. Hori adibidez, hori ere ikaragarria izan zen.

Zuriñe Olaitz Ortigosa. *Yoyes eta Pertur gogoratzen ditut.*

Xabier Lekuona Barreras. *Zizurkilgo Arregiren hilketak, torturaz hil zena Carabanchelen. Hori 81ean gertatu zen. Mobida guztietan ginen. 80ko hamarkadan, ezin da esan gauza bakar batek markatu gintuela: Joxe Arregiren hilketak, noski, baina Joxe Arregi baino pixka bat lehenago ETAk José María Ryan akabatu zuen, Lemoizko zentral nuklearraren zuzendaria; gero otsailaren 23koa gertatu zen. Mobida handi-handi bat bizi izan genuen. Eta ez bakarrik biolentzia aldetik, atxiloketa piloa izan zen, herri mugimendu oso potentea zegoen, "todo dios" ateratzen ginen balkoietara kazeroladetan, itza- laldi izugarriak egiten ziren, herri osoa itzalita, etxe guztiak... Hori dena bizi izan dugu. Ez da gauza bakar bat... mugarriak izan daitezke.*

Miren Mujika Tolaretxipi. Txomin Iturbe hil zenean, Arrasatera joan nintzen nire anaiarekin, gogoratzen naiz, eta anaia nola ikusi nuen negarrez... Hala ere, eragin handiagoa izan zuen nigan, oso gogorra izan zelako, Gurutze lantziren kasuak, Urnietako sarraski hura. Gurutzeren ahizpa, Izaskun, nire kidea zen ikastolan. Garai batean Urnietatik etortzen ziren ikastolara eta Izaskun ezagutu nuen, eta oso harreman estua daukagu. Gogoratzen naiz nola joan nintzen atxilotu zituztenean Urnietara, eta bere amarekin egon nintzen, Izaskunekin, eta esan nion: tira zu lasai, ikusiko duzu, biharko etxera... Denak ziren hemen Andoainen ikasitako ikastolako jendea. Horrek, Gurutzenak, zehatuta utzi ninduen, ostras gogorra izan zen.

Mikel Arregi Aranburu. Uste dut Hiperkorreko leherketak eta horiek denek pisu handia eduki zutela, baina kanpoko baten bat aipatzekotan, nigan eragin handia izan zuen Isaias Carrascoren erailketak. Miguel Angel Blancorenak eta beste batzuek ere bai, baina... Nik uste dut pentsatzen hasiak ginela gauzak bukatzen ari zirela, eta Isaias Carrascorenak asko ukitu ninduen pertsonalki.

Mila Garralda Arin. Gogoan dut Burgosko Prozesua, orduko manifestazio izugarri haiek. Horrek izugarrizko eragina izan zuen nigan. 1970ean izan zen. Orain "Tupa"ren lagun mina naiz; 1975ean tiro bat eman zioten buruan. Gorpil aulkian dago eta ia guztia egin behar zaio. Guztia egin behar zaio, zera... Bada hori, hura indultatu egin zuten eta bere ordeztu Otaegi eta Txiki hil zituzten. Maiz gogoratzen naiz horretaz guztiaz. Tupak ez du gustuko horri buruz hitz egitea; berez, ez du memoriaren asunto honetan parte hartu nahi. Gainera, izan duen konbertsioak ia-ia erlijiozale izatera eramanez du, niri bezala. Niri ere hala gertatu zitzaidan. Ni "Gora ETA" garrasi egiten zuen horietakoa nintzen orduan, baina Joxean Artzek kontsumismoa eta gure bizimodua zalantzan jarri zuen ekitaldi baten ondorioz gogoeta egiten hasi nintzen, eta guztia birplanteatzen. Lehenengo zinegotzia hil zutenean izugarria iruditu zitzaidan. Nik, garai hartan, halako begikotasuna nien ETAkoei, ulertzen baintuen euskararen alde, gure historiaren alde borrokatzeko arrazoiak... Ikusten nion balioa, baina lehenengo zinegotzia hil zutenean, zera pentsatu nuen: hau ez da posible, pertsona hau herriak aukeratu baitu. Niretzat zartako ederra izan zen, gauza asko jarri nituen zalantzan eta konpromiso erlijiosoago baten aldeko prozesu batean murgildu nintzen.

Patxi Irígoras Etxebeste. 1978 eta 2004 arteko urteak biziki suntsitzaileak izan ziren; batik bat zentzurik gabeko hilketengatik; guztiak, kartzela, presoan urruntzea –oraindik bere horretan jarraitzen duena–, atxilotetak, eskutitz anonimoak, iraultza zerga mundu guztiari...

Mari Paz Artolazabal Ibarrodo. Bergarako Aberri Eguna iritsi eta Zumarragatik Bergarara oinez joan ginen. A ze sasoia genuen orduan! Hogeita gutxi urte... Orain pentsatzen hasten naiz eta benetan, auzartak ginen. Bergara poliziaz josita zegoen. Lagunei esan nien niri ez zidatela karneta kenduko, bota azpian gordeta nuelako, eta "ya me lo han quitado" esango niela poliziei. Begoña eta biok kale batetik gindoazen eta "Carné" entzun genuen. Eta nik: "Ya me lo han quitado". Begoña eramanez zuten. Ez zidaten utzi berarekin joaten. Eta hantxe nembilela, hara non ikusi nituen mutil talde batzuk eta ezagun bakarra: ez nuen sekula berarekin hitz egin, baina inoiz estankotan ikusia nengoan: Jose Luis. Hain beldurtuta nengoan, zeren eta benetan beldurtzeko modukoa zen, joan nintzen eta esan nien: barkatu, ez zaituztet ezagutzen, hauxe bakarrik bistaz ezagutzen dut Andoainen ikusita, eta hau eta hau gertatu zait eta beldurtuta nago. –Bai bai, gelditu, gelditu gurekin. Hortik aurrera, eguerdiko 12:30ean ikastolatik ateratzen ginenean, hantxe egoten zen eta... 66an ezkondu ginen. Jose Luis komunista zen eta nire etxean egunero arrosarioa errezatzen zen. Zeinek esan behar zuen! Baina balore batzuk zeuzkan. Ez genuen berdin pentsatzen, baina errespetua zeukan pertsona bat zen, baina benetan izugarria. Berak esaten zuen: besteek ni errespetatzea nahi badut, nik besteak errespetatu behar ditut. 66an, Jose Luis atxilotu zuten eta sei urteko kondena ezarri. Bost urte eta erdi igaro zituen kartzelan. Euskadiko Comisiones Obrerareko kidea izan zen. Gero partiduan baja eman zuen. Ez zen inongo partidutan ibili, berak bere ideiak zituen baina bere kasa ibiltzen zen.

Agustín Alberro Irizar. *Gogora etorri zait Carrero Blancoren episodioa. Francoren diktaduraren gobernuakide inportanteenetarikoa zen eta 1973. urtean hil zutenean, frankismoa amaitzeko izugarritzko aurrerapen bezala bizi izan genuen, kalean poz giroa zegoen, kantuak.... Gerrako garaipen modura bizi izan genuen. Zortzi urte geroago, Joxe Arregirenak sekulako inpaktua eragin zidan. Joxek Andoingo garraio enpresa batean lan egiten zuen eta Kale Txikiko taberna berean bazkaltzen genuen. 1975. urtean Zizurkilera joan nintzen bizitzera, eta harremanak mantendu genituen. 1981ean, torturaz hil zutenean, Zizurkilgo udaleko zinegotzia nintzen, eta egun haietan bizitutakoak asko inpaktatu ninduen, oso gogorra izan zen. Herrian oso ezaguna eta maitatua zen, eta bere heriotzak samin handia eragin zuen. Bestalde, Santi Brouard lagunaren hilketa. Harreman handia nuen berarekin, HBko Mahai Nazionalean elkarrekin ibili ginelako, eta hil zutenean, herritar gehiengoarentzat gertatu zen moduan, niretzat ere oso mingarria izan zen, oso gogorra.*

Andoainen

Zuriñe Olaitz Ortigosa. *Ulertuko den moduan, gogorrena nire aita Iñaki Olaitzen hilketa izan zen niretzat eta familiarentzat. Batzuek dirua desbideratzen zuten aita bezalako jendeak eta beste iturri batzuetatik jasotzen zutena, eta Iñaki (aita) jabetzen ari zen desbideratzeekin zerikusirik ez zuten helburuetarako. Nahi gabe informazioa eskuratu zuen, lehenago edo beranduago arazoak ekarriko zizkiola zekien informazioa, are gehiago ez zuelako horretan parte hartu nahi, ez zuelako konplize izan nahi. Uste dugu ez zutela horregatik bakarrik hil, berak edo beste batzuek "ekintza" oso larriak egin nahi ez zituztelako hil zutela pentsatzen dugu. Engainatua, manipulatua, behartua eta babesgabe sentitu zen. Gehiegi zekien, eta arriskutsu bihurtu zen batzuentzat. Gainera, traizioa egin ziotela sentitu zuen eta bere eta beste batzuen eskuzabaltasunaz aprobeztatzen ari zirela ikusi zuen. Amak esaten du satorrik baldin bazegoen, ez zela aita. Izan ere, aitaren heriotzaren berri ematera etorri zirenean, atxilotzera zetozela pentsatzen genuen. Ez genuen ezer ulertzen. Ni adin nagusikoa izan banintz, zenbait pertsona salatu egin izango nituen eta kartzelara joan izango ziren.*

Eskerrak eman nahi dizkiegu partikularrei zein gero Andoingo alkate izango zenari, hasieratik esan zigutelako bazegoela elkarte bat mugitzen hasia zena arreta eskatzeko. Eskerrik asko ere kalera irten eta nire aitaren hilketaren kontra manifestatu ziren irakasle, bizilagun eta andoaindarrei, dolumina adierazi zigiten lagunei, bizi osoan zehar adorea eman digutelako eta miresmena adierazi digutelako, eta gure bidea partekatu nahi izan duten eta nahi duten pertsona guztiei. Ez du merezi idealengatik odolusteak.

Bakartxo Iguaran Garmendia. *Andoainen tentsioa asko areagotu zen José Luis López de Lacalle eta Joseba Pagazaurtundua hil zituztenean. Eta gogoratzen naiz Xabier Ansa hil zutenean. Oso familia ezagunekoa zen, ikastolako ikasle izana. Oroitzapen berezia daukat... zer dela eta? Ulergaitza egin zitzaidalako.*

Mila Garralda Arin. *Izugarri hunkitu ninduen Ansaren hilketak, Heriotzaren Triangeluan. Santakruzeko jaiak ziren, eta etxera bidean zihoan. Gainera oso mutiko lasaia zen, ez zen ezertan sartzen. Latza izan zen. Gainera, denborarekin jakin genuen hilketa hartan parte hartu zuenetako bat nire etxera asko etortzen zen mutil bat izan zela, "Piti", nire anaiaren laguna. Izua sartu zitzaigun, etxean asko hitz egiten baikenuen politikaz, eta nor zen jakin genuenean... Gauetan nire ama eta irratiarekin etortzen zen bizilagun bat, Dolores, hortxe egoten ziren... Pirenaica entzuten. Orduan beldur handia sartu zitzaigun, mutil hark gauza asko baitzekizkien gure etxeaz. Horrek asko eragin zidan. Ondoren, José Luis de Lacalle eta Pagazarena. Ez dago inor hiltzeko eskubiderik, nahiz eta Pagazak eztabaida asko eragin zituen eta jende askok ez zuen begi txarrez ikusi gertatutakoa. Askok markatu ninduen José Luisenak, Mari Pazzen nahiko laguna bainaiz. Ez duzu zertan laguna izan halako zerbait ondo edo gaizki dagoela pentsatzeko, baina bai da gertuagokoa. Bi heriotza horien ondorioz, garai bateko begikotasunak alde batera utzi nituen. Erljiioak baino gehiago pentsarazi zidaten heriotza horiek.*

Inés Rodríguez Ranz. *José Luis—en kasuan [López de Lacalle], gogoratzen dut kultur etxea ez zegoela eginda oraindik, eta ni balkoira atera nintzen, goizeko bederatziak zirelako, eta logelako leihoa zabaldu nuen. Eta balkoitik, zerbait gertatzen ari zela ikusi nuen, eta pijama jantzita nengoenez, gaitetik txandala jantzi eta kalera atera nintzen. Mari Paz baino lehen iritsi nintzen. Bezperan, gaueko hamarretan, lagun batzuekin afaltzen ari nintzen etxean, botila batzuk edukiontzira botatzea jaitsi nintzen, eta Mari Pazekin egin nuen topo nire etxeko portalean. Esan zidan anaiaren edo bere familieren etxera zihoala lotara, bi portale aurrerago, eta hitz egiten egon ginen. Elkartasuna adierazi nion bi hilabete lehenago koktelak bota zizkietelako, eta biharamunean hil egin zuten... Eta ondoren gertatu zen guztia... Joseba Pagazaren kasua desberdina da, baina baita antzekoa ere. Ez zuten unean bertan hil. Osoko bilkuran geundela, oraindik ez genekien hilda zegoen ala ez. Tentsio handiko egunak izan ziren.*

Manuel Correas Díaz: *López de Lacalleren aurkako atentatuak asko markatu ninduan, pertsona ona zen. Mari Pazen anaia Eloy Artolazabalekin batera, gaur egun daukagun PCEn lokalaren fundatzaileetako bat izan zen. Josebaren [Pagazaurtundua] hilketak izan zen herrian inpaktu sozial handiena izan zuena, pertsona ona zen hura ere. Jende askorekin moldatzen zen ongi, mesedeak egiten zituen, hainbat lokaletan ibiltzen zen, gurean adibidez... Juvenal Villafañe ere gogoan dut, guardia zibil ohi bat, herrian ehiza eta arrantzarako baimenak tramitatzen zituen. Eskuzabala zen. Baina hil egin zuten. Beste alde batetik, poliziak egur asko eman izan du Andoainen, Hernanin eta Erreterian bezalaxe. Behin, portal batean sartu ginen eta poliziak atea hautsi zuen. Txikitu egin nahi gintuzten.*

Estanis Amuchastegui Arregui. *Hemen inpaktu handiko bi une egon dira. Batetik, Triple A taldearen hilketak. Hiltzaileetako bat Iñaki Iturbe izan zen, "Piti". Inpaktu handia izan zuen, oso gogorra. Une jakin batean basakeriak egin izan dira Giza Eskubideen ikuspuntutik. Nik ezin du ezetz esan. Baina uste dut ez zirela arduradun nagusiak. (...) "Piti" diruarekin maneiatu zuten guztiz, ez dakit. Lesmes delako batek atzeman zuen, Francoren Guardiko buruak... eta horren bidez... Eta bestetik, José Luis López de Lacalleren eta Joseba Pagazaurtunduaren hilketak. Gertaera horiek inpaktu handia izan zuten salatari asko zegoela ikusi zelako, informazio pasatzen ez balute ezinezkoa izango zelako horrelako zerbait gertatzea. Bazegoen informazio asko pasatzen zuen jendea, jende arrunta itxuraz, baina guri buruzko informazioa pasatzen zuena: Joseba, José Luis, ni... Guardia Zibilak deitu zidan esanez konfiskatu zituzten paper batzuetan guri buruzko informazioa zegoela: Egur—en José Luisekin biltzen girela, Joseba 09:00etan etortzen zela hona, José Luisek egunkariak hartzen zituela... José Luisi jarraipena egiten zioten; izan ere, hil zuten egunean ez zituen egunkariak jaso ohi bezala, Elizondo—ra joan zen baizik; hori ez zen ohikoa, gehienetan beheraino jaisten zen, egun horretan atzeratu egin zen. Barnekoak. Ez satorrak, barnekoak baizik. Ezagutzen gintuen jendea... Ea ongi ulertzen zaidan... ez zen... José Luisen hilketak jauzi handia izan zen Andoainen, ez genuen espero, hilketak ideologikoa izan zen argi eta garbi... Jendea suminduta zegoen... edozer gauza gertatu izan zitekeen. Une hartan handik azaldu izan balira, sekulakoak gertatu izango ziren... manifestazioa Herriko Tabernatik igarotzean eraso egiteko asmoa zegoen, gelditu egin behar izan genuen, jendea sutan zegoen, batzuk oso asaldatuta zeuden...*

Miren Mujika Tolaretxipi. *Inpaktatu ninduten Jon Lizarralderenak eta Joxe Ramon Ansarenak. Zinegotzi nintzela, Estanis Amutxastegiren kontrako atentatua egokitu zitzaidan. Oso gogorra izan zen. Gainera, auzo berean bizi ginen. Molotov koktela bota ziotenean, ertzainak etorri ziren eta pertsona batzuk nire gurasoen leihora begira "asesinos" oihuka hasi ziren. Bestalde, kultura arloa ere tokatu zitzaidan hartzea udalean, eta Santakruzetan beti zebiltzan Euskadiko Ezkerrakoak txosnak kendu nahian. Bai txosnak eta bai Gestoren pankartak. Santakruzak ezker abertzalearekin lotzen zituzten beti, herri mugimendua zegoelako tartean, eta txosnak eta beren fantasma horiek guztiak... Orduan Gemma Zabaleta PSOEko zinegotzia zen, eta egia esan nik Gemmarekin oso harreman pertsonal ma-*

joa egin nuen. Gai horiek hizketan eta kafea hartuz konpondu genituen. Txosnak jarri ziren. PSOEK baiezkoa eman zuen, eta esan nahi dut egon direla ere asko hurbildu gaituzten puntuak. Esan nahi dut ere udalean horrelako gauzak izan ditugula, eta nik positibotzat hartu ditut beti.

Xabier Lekuona Barreras. *Silen, Joxe Ramon Ansa... garai jakin bat bizi izan genuen, garai oso-oso bizia. Nik baino bi urte gehiago-edo izango zituen, ikastolako ikaskidea, gurekin futboleak jokatzen zuena. Andoaingo festetan, Santakruzetan, gogoratzen naiz lehenbiziko krossa egin zela. Hemeretzi kilometro korrika egin genituen, eta bukatzean esan ziguten Joxe Ramon hilda agertu zela tiroz, eta gero ikusi genuenean nola izan zen eta zer egin zuten... izugarria izan zen. Konturatu ginen edozein pertsona jo zezaketela. Eta ekintza askoz gehiago izan ziren, eta iritsi zen momentu bat non boluntarioak jarri behar izan ziren, gurasoak eta munipak, festetan eta Sanjuanetan jendea etxera eramateko. Gurasoen auto ilara luze bat udaletxe ondoan... joaten zinen eta: nora zoaz? Halako tokitara. Denak ezagunak ziren eta eramaten zintuzten. Hau da, psikosi ikaragarri batean bizi ginen.*

Mari Paz Artolazabal Ibarrodo. *Bi lagunek -Karlos eta Arantxa- atea jo zuten eta... "Venimos a decirte... le han matado a José Luis... no, no está muerto pero ha tenido un atentado". Horixe hilda zegoela. Garrasika hasi nintzen. Aita gaixoa garrasika ere bai: baina ze gertatzen da baina...! Ahizpa, gurpil-aulkian zegoena, ohetik bere burua bota nahian. Aitari takikardia bat eman zion. Ni garrasika, oraindik pijama eta batarekin nengoen. Ez nekien zer egin. Jantzi nintzen, ez dakit nola, eta nire etxerantz abiatu nintzen. Eta non ikusi nuen pertsona bat balkoi batean harro, pozik... begira nola ikusi nuen. Gelditu nintzen eta bi aldiz deitu nion "asesino". Aurrera jo nuen eta ia ez naiz gogoratzen, muxu bat eman nahi nion, gauza piloa esan nahi nizkion, baina ez zidaten utzi hurreratzen. Nire seme gaixoa, 20 urterekin, Santakruzak pasa ondoren ohean zegoen, parranda egingo zuen, eta entzun omen zituen petardoak balira bezala, eta gero jendea, leihoa ireki eta aita ikusi zuen lurrean, bihotzetik odola zeriola. Semea gelditu zen erabat blokeatuta. Eta hurrengo goizean herri guztian pintadak: Jódete López de Lacalle asesino.*

Gauza bat ere esan beharra daukat: Jose Luisek, Foro de Ermuak hartu zuen giroa ikusita, bizi izan baltz ia ez zuen hor jarraituko. Hori ere argitu nahi dut.

Pedro Elustondo Zalakain: *Ansa familiako anaietako baten hilotza ikusteak hunkitu ninduen [José Ramón Ansa Echeverría, 1979ko maiatzaren 6an eraila]; lurrean zegoen, 17 urte zituen eta ez zen inongo kide, BVEkoek hil zuten. Biak familiakoak ziren. Silen-eko greban langileen aurka egindako karga basatiak ere gogoratzen ditut. Enpresa horretako greban elizan sartu ginen eta kanpaiak jo genituen. Baina kolperik handiena José Luis López De Lacalleren eta Joseba Pagazaren hilketek eragin zidaten; lehenengoa ez nuen espero, eta bigarrena laguna nuen. Ezin nuen sinetsi. Haien etxeak eraso zituzten behin baino gehiagotan, baina hiltzea...*

Ainhoa Zabala Lasarte. *Jon Lizarralderen kasua, Tripaxen kasua... gogorra. Nik dauzkaten argazkiak oroitzapenak dira, herria beteta, plaza beteta... herriaren, jendearen (...) Egin zen azken agurra, eta niri horiek asko inpaktatu naute, baina gehienbat ere beren traiektoria militantearengatik, uste dut Euskal Herriarengatik asko egin duen pertsona bat dela, nahiz eta beste batzuek ez ikusi horrela, eta niri inpaktatu egin naute kasu horiek, bai, eta konbikzioa momentu horretan indartu egin zidaten. Hori da torturen gaia bezala, ezta? Azkenean zeinek ez du pentsatzen tortura existitzen dela? Denok dakigu tortura existitzen dela, baina azkenean erabilpen politiko bat ematen zaio, "se niega la mayor", begiratzen dugu beste aldera, ze azkenean zuretzako etekin politiko konkretu bat dauka. Baina denok dakigu zer gertatu den herri honetan, denok dakigu alde batean eta bestean zer gertatu den, nik badakit nire inguruan zer gertatu den eta badakit ere beste aldean zer gertatu den.*

Petri Romero Pozo. Alderdi Sozialistaren zinegotzi izateagatik bizkartzainak eduki behar izan ditut, guztiak baikeunden mehatxupean, baina ez nuen erasorik jasan. Andoaingo Udalean sartu nintzeanean denbora gutxi zen Joseba [Pagazaurtundua] hil zutela. Ez nuen ezagutu, baina giro horretan sartzea... Nik ez nuen inoiz Udalean lan egin, eta pertsona bat hil berri dutenean sartzea... Ez dakit nolakoa den Andoainen bizitzea, ez bainaiz inoiz han bizi.

Patxi Irígoras Etxebeste. Gogoratzen naiz Inazio Olaitz Mitxelenaren hilketaz, 78an. Ez zegoen argi nork hil zuen: infiltratu bat zela, eskuin muturrekoa zela, kamioi batekin ibiltzen zela eta ez dakit zer gauza arraro egiten zituela... Denbora bat igarota, alargunarengana joan nintzen, hitz egitera, ez dakit ondo zerk bultzatuta, partiduan hitz egin genuen zerbaitegatik edo orduan Caritasen nengoe-lako. Esan zidan inor ez zitzaizola hurbildu, eta saiatu nintzen laguntzen, harremanetan jar zedin Gipuzkoako gobernadore zibilarekin. Berak estimatu zuen, hartu zuen nota eta zera, egingo zuela. Ez dakit zertan gelditu zen gaia, uste dut alarguna eta seme-alabak Andoain utzi zutela. Gero gertatu zen Jose Diaz Perez guardia zibilarena eta bi ansatarrena, Iturbide eta Zabalaren komandoak hilak. Geroago, ETak Juvenal Villafañe Garcia hil zuen, lehergailu bat ipinita haren auto azpian. Jendeak estimutan zuen, batez ere ehiztariek eta arrantzaleek, baimenak tramitatzen laguntzen zielako. Urte asko zeramatzan Andoainen bizitzen, Eskola kalean. José Luis López de Lacalle oso laguna nuen nik. Nire andregaia, gaur nire emaztea dena, orain dela 55 urte atari berean bizi zen Tolosan, eta lanetik bueltan beti elkarrekin etxera oinez. Eta Joseba Pagazaurtundua...

Mari Karmen, Imanol e Ixidro Ansa Etxeberria, eta Luisa Cueli Zabala. Izandu zian tiroketak: Xabier Irulegiri tirokatu zioten eta Ontza soziedadean tiroketak, ta beste bi hemen auzokoeri seittu kamino baztarrean Baxilio Zipitriai. Zubillaga, haren etxian, bi anaiek bi kotxek erre zizkiyen. Eta baserritarren kooperatibako kamioa reparturako erre zuten. Pitik eta hil zuten azkeneko hilketa, beste Ansatar bati, Kraft-en lantokian ta ordun claro, jende askok ikusi zuen kotxea. Han bi hiru egunea harrapatu zuten Piti ta...

Javier Ansaren aita ta Joxe Ramonen/gure aitona lehengusuk ziren. Gu izango ginake laugarren generazioa.

Pagaza ezagutzen gendun ere. De hecho, Gabarain alkateak, bi hiru urtetan, festetan municipalak atea zitun gautan inguruko baserritako jendia [laguntzeko] udaletxea jun ta eskatu: "etxea jun behar det" ta gu etorri izandu gea Pagazarekin, behin o bitan. Pagaza ezagutu genun udaltzaina bezela, ez ginun espero horrelako gauzik, gertakizunak ematen zien baino no sabíamos de dónde venía todo eso. Ahaztu gabe ezagunak, Hernanin, Urnietan atxilotzen zituztenean. Ordun ba... tortura seguru, ta pentsatzen eoten zinan ba... guri noiz tokatuko zaigu. Ze eaman kriston pila eamaten zittuen ta bueltan etortzen zian baino kriston hostiak hartuta.

Elías Díaz Arriba: Ansa anaien hilketak gogoratzen ditut, "Heriotzaren Triangelua" esaten zitzaionean [Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Andoain artean kokatua, Triple A-k eta BVEk 70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran egindako atentatuak zirela eta deitzen zioten horrela].

1970eko abenduan Donostiako Askatasunaren hiribidean atxilotu ninduten, Telefónican sartu gineanean poliziaren kargetatik babesteko. Antiguoko komandantzian torturatu egin ninduten. Jende asko zegoen. Biluztu gintuzten. "Bainera" egin zidaten, zigarroekin oinetako hatzak erre zizkidaten, ziriak sartzen zizkidaten azazkaletan... Megafonia bidez psikologikoki torturatzen gintuzten, ohikoa zen... Jipoietako batean, ostikoz jo ninduten ezkerreko begiaren ondoan [gelditu zaion orbaina erakusten du]... Gehiago jasan ezin nuenean, hiltzeko eskatzen nien... Arrastoak gelditu zaizkit.

Mikel Arregi Aranburu. *Jose Luis Lopez de Lacalleren eta Joseba Pagazaren erailketak. Oso momentu gogorak izan ziran, oso. Gogoratzen naiz Jose Luis Lopez de Lacalle erail zutenean Joseba Egibar eta denak etorri zirela, baina batzuekin egon ziren, ez ziren gerturatu. Niri joan arazi egin zidaten, baina bost minutu pasa nituen batzuekin eta berriz bueltatu nintzen. Eta hurrengo egunean aritu nintzen deialdi guztiak prentsari egiten, eta PSEk hartu zuen ardura pankarta egitekoa eta beste ezer ez. Beste ardura guztia, prentsa abisatu, deialdiak egin, organizatu eta horiek denak nire gain joan ziren. Ez hori bakarrik, nik konbentzitu nituen zerraldoa plazatik elizara guk sartzeko. Udalkideok sartu genuen eta ibili nintzen baita ere “un poco haciendo de protocolo”: etortzen zen jendea non kokatu eta zinegotziak, udalkideak eta elizan sartu ginenak... Horientzat ere nik prestatu nuen lekua han. Bestela batere lekurik gabe geldituko ginen zerraldoa sartutakoan. Eta oso momentu gogorak izan ziren. Geroztik harremana, zentsura mozioa eta... egin genituen bilera batzuk, beraiek azkenean ulertu zuten eta ondorioz elkarren artean aurrekontuak atera genituen, baina momentuak oso gogorak izan ziren. Eta Pagazarekin ere bai. Pagazaren hilketan, niri alderdikide batek deitu zidan, segituan igo nintzen, igo nintzenean oraindik gorpua tabernan zegoen, uste dut izan nintzela lehenengo udalkidea azaldu zena. Eraman zutenean nire kabuz okurritu zitzaidan Ospitalera azaltzea. Sartu eta José Luis Velaren bila ibili nintzen, ez nituen topatu. Jainkoari eskerrak ez ninduen ezagutzen han zegoen jende askok eta kristorenak entzun nituen. Baina hura pasa zen, eta gero antolatu behar izan nuen baita ere Jaurlaritzaz etortzekoa zela ba nora, manifestaziora eta non jaso, non egon, non Bildu. Dena nire gain joan zen eta gogorra izan zen. Tristura handiak pasa ditut nik, ez bakarrik egiten ziren kontzentrazioetan. Baten bat akabatu, erailtzen zutenean, orduan egiten ziren ordu laurdeneko kontzentrazioak eta, tristura handia. Ze jende gutxi ezta? Ze jende gutxi ibiltzen zen herrian, ezta? Tristura handia zeren ikusi gainera bilkura egiten ari zela, zure alderdiko pertsona bat, kotxean etorri, aparkatu, albotik pasa eta udaletxera joan. Horrek izugarritzko tristura ematen zidan.*

Maidier Lainez Lazcoz. *Logikoki, nik ez nituen ezagutu ez Joseba ez José Luis, haiek hil ostean etorri bainintzen Andoainera. Horregatik, nik ez dut hitz egingo bi atentatu horiei buruz, gertatu zirenean ez nintzelako bizi Andoainen. Beste atentatu batzuei dagokienez, badakit Joxe Ramón Ansaren hilketak hunkitu zuela Daniel, 17 urte zituen.*

José Antonio Barandiaran Ezama. *Heriotzaren Triangelu izenez bataiatu eremutik gertu bizi nintzen. Andoainen Joxe Ramón eta Javier Ansa hil zituzten, baita Hernaniko taxista bat ere, David Salvador (bide batez aipatu nahi nuke oso jende gutxi gogoratzen dela azken honetaz). Pertsona horiek ez zuten inolako konpromiso politiko nabarmenik, herriarengan mina eta gorrotoa sortzeko bakarrik hil zituzten. Ulertezina da nola ibiltzen ziren lasai asko kaletik hura egin zutenak, estamentu ofizialen babespean.*

José Luis López de Lacalle ezagutu nuen eta banuen nolabaiteko harreman pertsonala harekin. Batzuetan egunkaria erosten elkartzen ginen eta hitz batzuk zuzentzen genizkion elkarri, beti errespetuz. Gogoan dut egun batean zera esan zidala: “Zu eta ni banantzen gaituen bakarra indarkeria da”; eta nire ustez ahalik eta modurik egokienean erantzun nion: “Indarkeriaz dugun pertzepzioa”. Horrek banantzen gintuen, eta beste hamaika gauzak. Bera El Mundo egunkariko zutabegilea zen, eta Basta Ya-ko kidea. Aurretik Alderdi Komunistako militante izana zen, eta kartzelan egon zen horregatik. Haren aurkako atentatuak zirrara handia eragin zidan, gogoan dut ohar bat idatzi nuela, zintzotasun osoz, haren heriotza deitoratuz, baina ez zuten ondo hartu bere ingurunean.

Joseba Pagazaurtundua. Gogoan dut Udalean sartu ginenean bera Guardian zegoela destinatuta, eta Lizarra-Garaziko Hitzarmena eta ETAre su etena tarteko, Andoaineko Udalera itzuli zela, zegoen lanpostura. Udaltzaingoaren buru zen. Ni alkate nintzela harreman profesional handia izan genuen; denboraldi luzeak ematen zituen laneko bajaran. Banekien ETAk mehatxatu zuela, berak kontatu

*zidalako, Alkatetzako bulegoan. Jose Luis Lopez de Lacalleren laguna zen, eta aipatu dudan oharra atera nuenean, nire bulegora etorri zen berak idatzitako eskutitz bat ematera, oharrari buruzko bere iritzia azaltzeko. Literalki, besteak beste, honako hau zioen: “Ez dut uste José Luisen hilketaren hari-
ra argitaratu zenuen idazkia nahikoa denik ez bere familiarentzat, ez lagunetako batzuentzat. Niri zintzoa iruditu zitzaidan, ezagutzen zaitut eta badakit pertsona ona zarela, ulertzen ez dudana da nola milita dezakezun halako jendailarekin, zu bezalakoez aprobetxatu besterik ez dira egiten”. Haren balorazio pertsonala zen eta nik nire iritzia azaldu nion; alegia, ez nengoela ados. Gogoan dut deitu genuen aparteko osoko bilkura eta zer nolako irainak egin zizkiguten beren senetik aterata zeuden hainbat pertsonak; horietako batzuk oso ezagunak. Biziaz ordaindu zuen atentatuak ere pertsonalki eragin zidan, baina aldi hartan ez nuen idazkirik atera.*

Nerea Amuchastegui Díaz. *Gehien kolpatu ninduen, José Luisena. Nahikoa ezagutzen nuen. Ni txikia nintzen igandetan aitarekin, José Luisekin eta aitonarekin hamaiketako egitera joaten nintzenean. Aitak beti eramaten ninduen berarekin, baina ez zidan inolako kasurik egiten hitz eta pitz aritzen zirelako. Nik “aita lapurtzaile” deitzen nion José Luisi. José Luisena gertatu zenean, kolpe handia izan zen; gainera, ez zen denbora luzea aitari bizkartzaina jarri ziotela. Etxean hitz egin zuten eta honako hau esan zion José Luisek aitari: Estanis, erne ibili, gauzak ez daude ondo eta. Eta begira, azkenean José Luis hil zuten. Nire atentatuari dagokionez, asko kostatzen zitzaidan egunerokora itzultzea. Ondorio psikologikoez gaur arte iraun didate. Ikasten ari nintzen orduan, eta asko kostatzen zitzaidan itzultzea. Hilabete eta erdi egon nintzen inora joateko gogorik gabe, eta eskolako lagunak deitzen ninduten, behin eta berriz, eta azkenean itzuli nintzen. Ikastetxeak ere lagundu zidan berriz erritmoari heltzen, eta azkenean lortu nuen goi-mailako titulua ateratzea, baina ederki kostatzen zitzaidan. Burbuila baten barruan nengoan, ez nuen gauzak asimilatzen astirik. Eta orduan ikusten duzu nola dagoen aita, baita ama ere, eta orduan ezin diozu zeure buruari une horretan gaizki egoten utzi. Bizitzarekin aurrera jarraitzen duzu, nola edo hala, eta duzun tentsio maila normala iruditzen zaizu, ohitu egiten zara. Iruditzen zait bizitzen hasi nintzela gaur egun nire senarra denarekin bizitzera joan nintzenean. Ibarrara joan nintzen, berari alokairu sozialko etxebizitza bat egokitu baitzitzaien. Niretzat mugarririk izan zen.*

Karmele Otaegi Negredo. *Lehenengo irudia daukatena da Guardia Zibila korrika herrian Burgosko Prozesuaren garaian, nik orduan 9 urte neuzkan, 10 urte egiteko. Baina guardia zibilak korrika jendearen atzetik, gu monjetan han begiratzen, eta gogoratzen naiz nire aita etorri zela nire bila, nire aita inoiz ez zen etorri nire bila eskolara, gauza horiek ez ziren ematen. Eta barriak. Hemen zerbait gogorra gertatzen ari da. Honi buruz gurekin ez zuten hitz egiten, baina nik entzuten nuen, beti egoten nintzen “con la antena”, eta gogoratzen naiz nire ama bizilagunarekin, bizilagunak zeuzkan semeak koxkorak, 18 urte ingurukoak, eta kezkatuta zegoen, ze hortik ibiltzen ziren, eta esaten zuten nire amak “hau oso gogorra izan behar du, nire senarraren tailerra oso txikia da eta atera dira, hau oso fuertea izan behar du”.*

Gero greba bat egon zen, Silenekoa, oso indartsua izan zen. Denbora asko egon ziren eta noski, Andoainen bakarrik zen, ba errepresio guztia... ez zen beste kasuetan bezala, Burgosekoan eta, Guardia Zibila banatu egin behar zuten Gipuzkoa osoan, baina kasu honetan Andoainen bakarrik izan zen, etorri ziren “a saco”, pila bat eta ikustea herria hartuta guztiz. (...) Nik uste dut garaiak zirela, ze edozer gauza momentu horretan bihurtzen zen erregimenaren aurkako zerbait, nik uste dut izan zela 76. urte hasieran edo hórrela, eta orduan dena zen protesta, protesta bat erregimenaren aurka.

Heriotzaren Triangeluko hilketaren salaketaren aurrean, orduko gobernadoreak EEko alkate zenari, Perez Gabaraini, esan zizkion las de dios, mehatxatu egin zuen, kartzelan sartuko zuela. “Voy a ir a por vosotros”... orduan ez zen txantxa gauza horiek esatea, eta denek bat egin zuten, bai udalean zeuden alderdiek bai udalean ez zeudenek. Inork ez zekien non bizi ziren, baina haiek zirela, susmoa... ez

zuten ikusten egiten baina susmoa zen Piti zela, hori argi eta garbi. Nik badakit Martutenen izan zutela horrelako zerbait, ze sartu zuten Piti infiltratu bezala, eta Andoaingo presoak zeuden eta orduan noski, haiek segituan esan zuten: "este tío..."; eta segituan atera zuten. Eraman zuten hara ea zerbait ateratzen zuen, baina Kaletxikiko jendea zegoen preso eta orduan...

Gero azkeneko bi hilketak, López de Lacalle eta Joseba Pagazaurtunduarena, izugarriak. Horiek uzten zaituzte xehatuta. Nor da gai hiltzeko kartzelan egondako gizon bat que tenía un pedigrí que pa qué, un intelectual, ez dakit, una persona educada. Ni haurdun nengoen José Luis hil zutenean eta ez genuen hitz egiten eta horrela, baina lagunak genituen elkarrekin eta egun batean koinziditu egin genuen eta elkar agurtu. Eta gogoratzen naiz ni haurdun nengoela, "¿qué tal va eso?". (...) Baina herrian, merezi zuela, que se estaba pasando, egiten zituen kronikak eta... gogoratzen naiz haurtzaindegiko paretan "López de Lacalle, jódete" idatzi zutela, hurrengo egunean. Hori oso fuertea iruditu zitzaidan. Eta Josebarena ere bai. Josebarena... ni atera nintzen etxetik eta ikusi nuen zerbait arraroa gertatzen zela. Topatu nintzen lehengo garbitzailea zenarekin eta esan zidan: "uste dut Joseba..." Eta orduan zetozen Josebaren koinatuak andrearen aldetik, Estibalizen anaia eta bere koinatua, eta noski, ni ondoan bizi naiz eta... "Ze?". Eta neska negar batean: "Atentado contra Joseba" esan zidan. (...) Gauza bat da beraiekin ados ez egotea, baina noski, beste gauza bat da sentitzea. Oso gaizki iruditu zitzaidan gero muntatu zuten parafernalia guzti hori. (...) Josebaren hilketak gertatu zenean oraindik hor zegoela, egon zen ordu batzuk hiltzorian, eta gogoratzen naiz manifestaziora joan nintzela eta jende bat zegoela, ez dakit nondik etorritakoak: "¿Qué, ya se ha muerto?". Hauek ze ari dira hemen? Hauek ze protesta egiten ari dira?, "se ha muerto", como quien se toma un zurito, hori ez zen jendea etortzen zela protestatzera, zeozer gaizki... horiek ez zuten sentitzen, gu sentitzen ari ginen. Andoaindarrok, nahiz eta berarekin ados ez egon, gu sentitzen ari ginen hilketak hori eta nik uste dut hori nahiko generala izan zela. Ordurako jada, nik uste dut treguaren ondoren, nik uste dut hori nahiko generala izan zela.

Maite Pagazurtundua Ruiz. *Andoaingo kale borrokaren gertakari asko bildu genituen eta Andoainen aurkeztu otsailean eta Andoaingo infernu hori agertzea iruditzen zait dela garrantzitsua. ETAk Joxeba hil eta geroko omenalditxo batean ama zegoen Andoainen eta ertzainek esan ziguten iristen ari zela ETAk hilketak egitera deitzen zuen manifestaldia. Gorrotoa entzuten genuen eta garraxiak erahilketak eskatuz. Ama atera genuen oso azkar bertatik. Ez zen sekula bueltatu Andoainera.*

Antonio Amondarain Aizpurua. *Gogoan daukat Andoainen manifestazio batean 68an, hor gutxi, zenbat izango ginen han... berrogei, berrogeita hamar lagun, horietatik hamabost-edo kuartelillora eramane zituztela. Ez dakit zer egin zieten, zeren sartzen zen guztia egurtuta ateratzen zen orduan eta ni gogoratzen naiz nola kanpoan egon ginen. Hara eramane zituzten eta ez dakit non sartuko zituzten hainbeste, baina sartu zituzten.*

Bestalde, Pagazaren hilketaren ondoren harreman guztiak puskatu ziren herrian. Batzuek libre zuten nahi zuten guztia esateko: traidorea, kobardea, asesinoak... deitzen zuten. Lehendakariari tratamendu itxuragabea eman zitzaion. [Juan Jose] Ibarretxe lehendakaria etorri zen, eta plazatik jendeak, batzuek behintzat, bidali egin zuten. Guk ere handik alde egin behar izan genuen. Deitu ziguten nahi izan zuten guztia eta gehiago. Batez ere politikoen artean. Esatea gero "Andoain es un pueblo sin ley" publikoki! Telecincon!... Lopez de la Callerekin bai, beste modu batean kudeatu zituzten gauzak. Manifestazioak egin ziren modu normalizatuan, besteak bezain inportanteak eta onak. Jendea etorri zen, baina errespetuarekin. Jendeak errespetatu egin zituen han zeuden guztiak; bai alde batekoak eta bai besteakoak.

José Luis Vela Arburua. *Bi bonbonarekin egindako atentatu batek hunkitu ninduen, eskerrak bietaiko bat ez zela lehertu. Bikote baten etxearen aurka egin zuten atentatua, Ondarreta kalean, nire etxea zela pentsatuz. Bizilagunaren abizena Vilela zen, eta nahasi egin ziren. Goizaldeko ordu-bietan izan zen. Senarra besoetan zauritu zuten eta emaztea zangoetan; semeak ebaki bat zuen eskuan, eta bizila-*

gun bat ospitaleratu behar izan zuten kea arnasteagatik. Vilela jauna bere burua hamargarren pisutik botatzekotan egon zen, nerbio atake bat izan zuelako. Kezka bakarra zuen: jakin nahi zuen “gaiztoek” ba ote zekiten berak PPri bozkatu ziola. Lasai egoteko esan nion, lehergailu hura niretzat zela, nahasi egin zirela antzeko abizenak genituelako. Eraikin osoa hustu zuten ordu erdiz. Bizilagunaren etxea erre zutenean, logikoki, adierazpenak egin nituen prentsan eta, noski, arduradunak atxilotzeko eskatu nuen. Batzuei ez zitzaizkien gustatu nire hitzak eta, zenbait egunen buruan, kartel batzuetan agertu nintzen, bekokian diana bat nuela; Euskal Herritik alde egiteko esaten zidaten. Eta hamar egunetara emaztearen autoa lehertu zuten, Andoaingo bake epaitegiaren parean zegoela, eta paretan gutun–azal bat utzi zuten, hau idatzita: “Gora ETA. Boom. Gure esku dagoen guztia egingo dugu zu hiltzeko”. Eta gutun–azalaren barruan etxeko portaleko giltza zegoen; ederki irekitzen zuen atea.

Agustín Alberro Irizar. *Eskuindarrek eragindako hainbat hilketak. Horien artean Andoaingo Ansatarrak, Jose Ramon eta Xabier ezagunak ziren. Tomas Alba ezagutzen nuen Hernaniko futbol taldeko entrenatzailea izan nuelako.*

Silen. Beste gertaera oso inportantea izan zen, Silen lantegiko langileek 1976an egin zuten greba. Andoainen izugarritzko eragina izan zuen, enpresa gehienek babesa jaso zuten, baita mobilizazioetan parte hartu ere. Herrian elkartasun giro handia izan zen. Guardia Zibilaren errepresioa ikaragarria izan zen. Anekdotak moduan kontatzeko: Sileneko langileek Elizan asanblada bat egin zuten egun batean, beste enpresetako langileak babesa ematera joan ginen. Goiko Plazan geundela, guardia zibil bat etorri zitzaidan galdezka: “¿Tú qué andas aquí?”; eta bere armarekin bularrean jo ninduen eta eragindako ubeldua denbora luzez eduki nuen.

Asun Guerra Alonso. *Zorionez, nolabait esatearren, ia amaiera bizi izan nuen Andoainen, eta ondoren urteroko omenaldiak, oso gogorak izan direnak; gogorra da urtero guztia gogora ekartzea. Zortea dut ez dudalako inoren hilketarik bizi izan; zorte handia dudala uste dut, noski. Irakurri dudanagatik, biztanle kopurua kontuan hartuta, Andoain da heriotza gehien jasan dituzten lekuetako bat. Andoainen izan zela uste nuen, baina esaten didazu Urnietan [Xoxokako piknik gunetik gertu] agertu zela hilik [Ricardo] Carasa doktorea. Traumatologiako irakaslea nuen eta bi egun ziren eskolarik ematen ez zuela. Praktikak egiten ari zara han, ezagutzen duzu, ikusten duzu, eta bat–batean, ETAk bahitu duela eta tiro bat eman diotela esaten dizute. Beharbada gehien hunkitu nauten gertakarietako bat izan da.*

BIKTIMAK

Ahalegina eta mina gertaerak berriro gogoratzeagatik

*Berriro gogoratzea eta deskribatzea tormentu bat da, berriro sentitzen duzulako eta emozio saltsa guztiari eutsi behar diozulako; horrek ahitu egiten nau. Parte batean tortura bat da, baina beste batean askatu ere egiten zaitu. Duela berrogei urte gertatu zena, baina zure arimaren parte izaten jarraitzen duena, onerako zein txarrerako. Parte hartu nahi dut, baina batzuetan gustura esango nuke: “txanda pasa, beste gauzetan nabil”. Eskertzen dut zuen pazientzia, ez dakizu zenbat. Eta imajinatzen dut ulertzen duzuela eskuzabalak izaten ari garela honetan parte hartzean, honek zauriak berritzen dituelako... eta pentsatzen dut badakizuela gure eta denon onerako egiten dugula, zuek bezalaxe; nik behintzat bai. **Zuriñe Olaitz Ortigosa***

Zer biktimari buruz ari gara hitz egiten? galdetzen du PPko Asun Guerra Alonsok. Eta egia esan, hori kontuan hartzeko eta adierazteko modu asko daude. Jarrera oso kontrajarriak batzuetan. Biktima batzuk ez direlako izan aintzat hartuak, biktima guztiak ez direlako berdinak... Hona hemen erantzunak:

- *Ea, biktimei buruz ari gara hitz egiten... baina, zer biktimari buruz? Hori da eta arazoa. Jakina, nor dira biktimak? Nik oso argi dut biktimak terrorismoaren biktimok garena, ETaren biktimak, jihadismoaren biktimak orain, martxoaren 11ko biktimak... hori guztia terrorismoa dela esango nuke nik. Baina nik ez ditut biktimatzat hartzen. GALEk egindakoa estatu terrorismotzat har nezake, nolabait talde armatu bat izan zelako, bai, baina nik uste dut ez dagoela biktima gehiagorik. Gainerakoak, guztiak hiltzaileak direla uste dut. Nik uste dut ez direla biktimak, biktimak sufritu dugunok bakarrik gara... Terrorismoaren biktimak esan nahi dut. Noski, ETaren bonbak jartzeagatik atxilotu dituzten guztiak biktimatzat hartzen baditugu... hori esan nahi dut, terrorismoaren biktimak. Ea, nire ustetan, intenzionalitatea uniformean dago? Lanbidean? Zergatik ematen diogu pisu handiagoa guardia zibil edo polizia nazional baten hilketari, lantegi bateko langile batenari baino? Zer eratako Memoriaz ari gara hitz egiten? Berrienaz. Memoria Historikoa aipatzen dudanean, terrorismoarekin bizi izan dugunaz ari naiz, ez zentzu zabalean. (...) GALEkoek, argi zegoen guztiz legez kanpo hilko zutela.*

Nik nolabaiteko banaketa egiten dut, eta uste dut demokraziatik aurrera ETak jadanik ez zuela zentzurik. Uste dut hiltzeak ez duela zentzurik inoiz. Baina tira, kontuan hartu behar dugu frankismo garaian diktadurapean bizi ginela eta bakoitzak ahal zuen moduan borrokatzen zuela, argi eta garbi. Batek aginte makila zeukan, eta gainerakoak babestu egiten ziren. Eta ETA nolabait, ez dut justifikatuko, jarraitzen dut pentsatzen hiltzeak ez duela justifikaziorik, baina... Eta gero, amnistia eman zutenean, ongi deritzot... badago zenbait jende... gainera, nik ezagutu izan dut baten bat, zoragarria gainera, ETAn zegoena, eta Franco hil eta aukera eman zitzaientean utzi egin zuena. Ongi iruditzen zait. Hortik aurrera hitz egiten dut apur bat. Noski, ez ditut ahaztu nahi hil zirenak, [José Antonio] Pardines, Francoren garaian ETaren eskutan hil zirenak, biktimak izaten jarraitzen dutelako, baina biolentzia oso zehatz bati buruz ari naiz hitz egiten beharbada. Horri eusten diot nik, zeren eta indarkeria kasu honetan, indarkeriara irekitzea. Ez dut horrela ikusten, ñabardura asko egin beharko lirateke, eta zehazki horri buruzko daturik ez daukat, apur bat lekuz kanpo harrapatzen nauzu...

- *Garrantzitsuena beste biktima onartzea da; izan ere, nik onartzen badut badirela biktimak ez direnak, denbora guztian beste aldekoak esaten ari gara, baina tira, ez dutenak nik bezala pentsatzen, badirela biktimak alde guztietan, nik oso argi daukat, eta ez diet inoiz esango hori ez denik egia edo ez denik gertatu. Nik bai baitakit egia dela. Egin ezin dudana da askotan ezker abertzalea dela, alderdi sozialistarekin... pentsakera mailan ez baikara hain ezberdinak, ezkertiarak gara. Beste oztopo zahar hori dugu, batzuek independentzia nahi dutela eta besteek ez. Niri amorrua ematen dit gertatu den guztiagatik borroka hau egotea gure artean; ez dauka zentzurik, ze, azken finean, guztiok gara pertsonak, guztiok sufritu dugu eta guztiok bizi gara ahal dugun bezala; gainditu dugu oztopoa eta ez dut uste hain desberdinak garenik.*
- *Biktimen arloan, nik barrutik sentitzen dudana: nik denak kontsideratuko nituzke biktimak, konfliktoan egon direnak... eta nik ez nuke bereizketarik egingo: hauek lehenengo mailakoak, hauek bigarren mailakoak... bereizketarik ez. Denak dira biktimak niretzako. ETaren atentatuak, izan torturak, izan talde parapolizialen indarkeria... nik denak kontsideratuko nituzke biktimak. Niri poz handia ematen dit, azaroaren 10ean egiten den Memoriaren Egunean, ateratzen direnean Legebiltzarrean, Diputazioan elkartzen direnean... poza ematen dit horrek.*

- *Deliturik egin gabe Estatuaren indarkeria jasan badute, bai, biktimak dira. Baina ulertzen zaila da, oso zaila, gainerako biktimak eragin dituztenen senitartekoak edo ingurukoak aintzat hartu behar izatea, terrorismoaren biktimen ingurunea oraindik aintzat hartu gabe dagoela gainera. Niri oso zaila egiten zait ulertzea. Orain, azaroaren 10ean, ekitaldi bat egiten da beti hemen, eta Batallón Vasco-Español-en biktimak ere etortzen dira. Eta ingurunea... Guk proposatu genuen, eta Mikel Arregik eraman zuen gaia. Ansa joaten da, baita Villafañe guardia zibilaren alaba ere. Baina gai zaila da.*
- *Lopez de Lacalle eta Pagazaurtunduarena beste garai batean gertatu dira, beste giro batean, gurea diferentea zen. Beste modu batean bizi izan dugu. Jende askok ez du entenditu ere egin. Biktimen mina baloratzea zaila da, norbera bakarrik ere, eta azalduko du modu batean edo bestean. Baina biktimei ez bazaie aditzen, aditu biktima batek esaten duena... badago jendea oraindik... ez baldin baduzu bizi... bizi izan du beste zeozer eta hura kontatu dizu, eta biktima bakoitzak berea dauka. Mina hor dago, baina mina eta zauriak diferenteak izaten dira eta psikologikoki nola eta ze momentutan harrapatzen duen, asko esan nahi du. (...) Eta bakarrik sufritu duena, hori barrenean gelditzen da. Zenbat jende egongo da dena kontaktzen ez duena.*
- *Nik azpimarratzen dut Jonena [Lizarralde] eta Gurutzerena [lantzi], oso gertutik bizi izandako gauzak direlako eta niri azkenean nire erabaki, iritzi politikoarekin bat datozelako, hori da, baina horrek ez du esan nahi zintzotasunez nik ez ditudala ikusten beste egoera batzuk, niri igual ez didate bere garaian hainbeste inpaktatu baina iruditzen zait oso absurdoa esatea, beste errealitatea hor dago eta horiek dira azkenean konfliktu eta gatazkaren ondorioak, alde batetik eta bestetik, baina bai iruditzen zaidala, hostia!, garrantzi askoz gehiago ematen zaiela kasu batzuei eta askoz gutxiago beste batzuei, eta ulertzen dut hor atzean faktore asko dardela, baina bueno, nik onartzen dut eta ikusten dut lo obvio. Andoainen, herrian, ostras!, sufrimendu asko egon da eta biktima mota asko, talde guztietatik, herritar mota askorekin eta ideologia ezberdin askotan... hori errealitate bat da. Ez da tratamendu berdina eman. Ez da izan berdina, momentuz ez da berdina eta asko falta da berdina izateko.*
- *Lehenengo jendea eta isilik egoten ziren haiek... haiek sufritu zuten asko. Guk adina gutxienez, gehiago ez baldin bada... Baina geroztik ETaren biktimak dira, hori argi dago, baina presoek pasa dituzten... egurra eman diete, beste biktima batzuk dira. Dispertsioak beste biktimak ditu eta horiek bakarrik ez, presoen familiarterakoak gaizki ikusita daude toki askotan. Niretzat horiek denak azkenean errekonozitu egin beharko liriateke. Zuk egitea badaukazu, edozer gauza, baina zure familiarterakoak ez dauka zergatik sufritu behar hori.*
- *Biktimak nik bezala pentsatzen dutenak bakarrik direla esateak ez du balio. Eta gaizki ez gelditzeko, esan daiteke Estatuko talde antolatuen terrorismoaren beste biktima batzuk ere biktimak direla, baina kalte-ordainik eman gabe, gertaturikoa ikertu gabe, eta, horrela, delitu horiek egin dituztenak zigorgabe geldituta. Adibidez, nola jarraitu daiteke torturaren biktimei ez ikusiarena egiten? Milaka pertsonak jasan dute tortura, baita Andoainen ere. Eusko Jaurlaritzaren txosten batek hala erakutsi berri du. Non daude justizia eta aitortpena? Eta barkamena? Memoriaren lekuak?*
- *Begira, niretzat erantzun zailena hauxe da. Lanketa oso handia egin behar dela, eta hor dagoela gakoa, pixka bat denen, orokortasunean, denen... onartpena, ez? Ze guk sufritu arazi egin dugu, guk ere sufritu izan dugu, denok sufritu dugu, eta nola goazen aurrera. Ze azkenean biktimen inguruan nire buruarekin zera handiak dauzkatzat, e? Ostras... zeinek erabaki-*

tzen du nor den biktima bat, zer da biktima bat, nik badakit biktimak direla norbait galdu duten pertsonak, familiak... beren inguruan bizi izan duten hori, ume horiek daude eta hori berreskuratu ezina da, eta horrekin bizi behar dute norbait galdu duten guztiek. Baina ni ere, adibidez, mendeku politiko baten biktima sentitzen naiz, eta zergatik dago norbait esaten duena ni ez naizela biktima bat edo banaizela, zergatik erabakitzen dute nire izenean edo beste batzuen izenean, orduan hori oso konplexua da nik erantzuteko.

- *Badirudi biktima guztiei buruz hitz egiten dugunean dena multzo berean sartu nahi dugula nolabait, garrantzitsua da hori esatea, baina uste dut askoz egokiagoa litzatekeela biktimak desberdintzea. Biktima batzuk eta besteak eragin zituen indarkeria desberdina delako, askotan baita intentsitatea ere. Desberdina da jaso izandako babes soziala, denbora luzean mantendu dena. Dena da desberdina. Eta horrekin ez dut esan nahi bereizketak egin behar direnik, baina uste dut batzuetan biktima “guztiak” ez direla batera hartu behar, guztia berdintzen dugula ematen baitu. Zehaztapenak egin behar dira, nire ustez, gauzak nola diren jakiteko, eta aurrera egin nahi badugu, oso argi daukat biktimek, batez ere ETArenek, sentitu behar dutela gizarteak ez duela arrazoirik ikusten gertatutakoa gertatu izateko. Bestela, espedientea betetzen baino ez direla ari sentituko baitute, munduko arrazoi guztiarekin.*
- *Torturaren biktimak aintzat hartu behar dira. Eusko Jaurlaritzak urrats asko egin ditu arlo horretan. Tortura Giza Eskubideen urraketa nabarmen bat da. Aintzat hartu behar da, baina “eta zuk gehiago” horretan jausi gabe...*
- *Ezin dut pentsatu Jon biktima bat denik. Nire anaiak bide bat hartu zuen egun batean, familiar atsekabe handia eraginez, batez ere amari. Ama oso gaizki egon zen Jonek erbeste-ratzea erabaki zuenean. Eta joan egin zen. Oso gaizki pasa zuen. Baina familietan, nork bere bidea hartzen du... Zer egin nezakeen nik, sufritzeaz eta izututa egoteaz gain? Ezin nuen ezer egin, berak hartu zuen bere erabakia. Berak oso argi zuen borrokalari bat zela, gudari bat. Arriskuak onartzen zituen, eta beti saiatzen zen gu lasaitzen, gugatik sufritzen zuelako... baina erabakia hartua zuen, oso argi gainera.*
- *Badakigu biktimak izan garela: Francoren erregimenaren, gerra karlisten eta ETaren biktimak, senitarteko hilekin. Baina hori atzean gelditu da, gainditu dugu galerak gorabehera, eta garaitzailatzat daukagu gure burua, arrakasta izan dugu, beste gauza batzuen artean gure burua hobetu dugulako eta duintasunez gainera, eta aitak nobleziaz egin zuelako dena, ongi zegoena hori zela uste zuelako.*
- *Ez dakit biktima naizen. Torturatua izan naiz. Funtzionario publiko batzuk, zergapean eta legea bete behar duen jende batek horrelako gauzak egiten baditu, nik ez dakit biktima naizen ala ez. Badakit beraiek zer diren. Eta badakit hori ezin dela egin. Karnizero profesional batzuk izan ziren, oso profesionalak, agindupean, eta oso ondo zekiten zein zan bere lana, non eta politikoen agindupean dauden, eta ikusten zan kate oso bat zela, ze, kaputxa jazten ez dutenean ere, ze errez hitzegiten zuten, nola hitzegiten zuten, nola egiten zituzten gauzak. Ostia da, berdin zitzaien Nahi dutena egiten dute zurekin. Eta esaten dizute “tiro bat joko dizut”. Ez dago problemarik. “Si Paterra habló, cómo no vas a hablar tú, ¡eh! Tonto del culo. Hola. Biktima? Bai seguru aski biktima banaiz, jende horren biktima banaiz.*

Arrastoak

- *Egoera oso estresagarria zen, ez da bakarrik atentatu bat jasateko arriskua. Begira zer gertatu zen behin etxean, zer tentsio maila bizi genuen uler dezazuen pixka bat. Ahizpa eta ni geunden etxean, bakarrik, eta parean barruan bi tipo zituen kotxe zuri bat. Eta guk errezelaren bestaldetik begiratzen genion eta esaten genuen, zer arraroa. Zer egiten dute hor? Zer da hori? Aitari deitu genion eta aitak Ertzaintzari, badaezpada, denbora luzea baitzeramaten hor eserita. Azkenean, goiko pisura, hirugarrenera zihoazen bi margotzaile ziren. Adibidez horrek, etengabeko larritasun egoera horrek, arrastoak utzi dizkit. 2003tik daramat. 2004an psikiatra batekin hasi nintzen, eta gaur arte. Medikatuta nago. Badirudi ausarta izan behar duzula, eta ez duzula aitortu behar benetan nola zauden; badirudi “oso ondo nago, ez da ezer gertatzen” esan dezazun espero dutela zugandik. Ba ez da egia. Nik nahi dut mundu guztiak jakitea egia zein den, hauxe da egia.*

Trauma osteko estres kronikoa dut nik; petardo bat entzuten badut –eta hamaika aldiz gertatu zait– lurrera botatzen naiz. Egun batean aitaren etxean nengoen, eta kurrilo saldo bat igaro zen eta egin zuten soinuak bengalena ekarri zidan gogora. Lurrera bota nintzen. Erne nago beti, antsietatea dut, alerta egoeran nago beti, eta psikiatrak azaldu dit trauma osteko estresa dela, eta agian luze iraungo didala. Urte luzez egon gara tentsio handiarekin, gauza asko jazo zaizkigu eta. Nire kasuan kroniko bihurtu da. Nik arazo fisikoak nituen eta psikiatrak esan zidan gaixotasun autoimmune bat izan zitekeela, gai psikiatrikoagatik, eta somatizatu egin daitekeela. Bestalde, lupusa dut, eta horretarako ere medikamentuak hartzen ditut. Duela gutxi urtebetez egon naiz bajaran horregatik. Ez dut nik esaten, nire psikiatrak esaten du, eta baditut txostenak esaten dutenak hortik datorkidala guztia. (...) Horretaz gain, nire aita errudun sentitzen da, azken finean bere alaba naiz eta bera nire aita delako izan da... tira, bera ez da arrazoia, nik oso argi daukat, nik beti jakin izan dut aitaren ondoan izango nintzela, beti, eta nire aita beti izango dela Estanis Amuchastegui, bizitza osoan. Hori horrela da. Eta argi daukat, bestalde, ez dudala hemendik alde egin nahi; alaba hemen haztea nahi dut, hemen bizi nahi dut eta ez naiz joango.

- *Ni dibortziatu egin nintzen eta koloneko minbizia izan nuen. Nonbaitetik atera behar du kakak. Banaketa... autoa erre zioten emazteari, mehatxuak... Hamairu urtez eskoltarekin ibiltzea, etxetik ateratzea bueltatuko zaren jakin gabe... Oso indartsua izanagatik, horrek nonbaitetik atera behar du. Koloneko minbizia horren ondorio izan liteke? Ez dakit, baina izan liteke. Oso gogorra da.*

Indarkeriazko gertakariak familia eta gertukoak ziprztintzen ditu

Senitarteko bat galtzen denean edo gertaera traumatiko batek ondorioak uzten dituenean, biktimaren hurbil-hurbileko komunitatea zeharo aldatzen da. Indarkeriazko gertaera baten ondorioz norbait galdu duten familia guztiak berdintsu deskribatzen dute egoera hori, gainditzen ez diren gertakariak, bizitza errotik aldarazten dutenak. Zuzeneko biktimaz gain, beraz, zeharkako biktimak ere badaude.

- *Gogoratzen dut ama zerraldo erori zela, eta ohera eramaten lagundu behar izan zidaten. Atentatuak ia pikutara bidali zuen familiaren egonkortasuna. Askok sufritu dut gai horrekin, inolako zerikusirik izan gabe. Gertaera haiek jada izan dute eragin handiegia nire bizitzan.*

- *Gehien bat, bildurra. Ama ta aittak gehiena. Gu umeak ginan, hau zaharragoa zan. Ez zuten superatu. Gurasoak barrundik asko eaman zuen. Gero edadeko prozesua bakizu, gu 13–14 urtekin, beste bi hiru urte, eta 18 urte arte gu ez ginen geatzen parrandan. Haik sufrittu duena...*
- *Nire emaztea: beldurra du eta gaizki dago, medikazioa hartzen du. Alaba gazteenaren autoaren kontra atentatua egin zuten, Aitziberren autoaren kontra, eta etxeari su eman zioten alaba gazteena barruan zegoela. Ni borrokalari bat naiz, baina nire familia... Nereak trauma osteko shocka du, lur jota dago. Ondorioak jasaten ari da. Denok ari gara ondorioak jasaten. Ezin dut jasan alabei, emazteari eta semeari egin diotena. Niri? Tira, seguru nengoen egiten ari nintzenaz.*
- *Ezer ez da berdina izan harrezkero. Laguntza psikologikoa behar genuen...*
- *Psikologikoki oso gogorra da alabei gezurra esan behar izatea, nolabait, bizitzako zenbait egoera apaindu nahian. Garajera autoaren bila joaten ginenean, azpian begiratu beharra zegoen, eskoltek begiratzen zuten autoaren azpian, eta denok makurtzen ginen, autoaren azpian ezer ba ote zegoen ikusteko. Gogoratzen dut alaba gazteenari esaten geniola katu-txo jaioberririk ba ote zegoen begiratzen ari ginela, amek motorraren berotasuna bilatzen dutelako eta, noski, autoa martxan jarriz gero... bada, horregatik begiratzen genuela, badaezpada. Baina halako batean, alabak esan zigun: "ez dakit zertarako esaten didazun hori, badakit bonba baten bila zabiltzala". Noski, hori neska txiki batek esaten dizunean... ama zaren aldetik, min ematen dizu. Edo alabak telebistan entzuten eta ikusten duenean auto bat lehertu dela –zeren eta nik, egia esan, ez diet inoiz debekatu izan telebista eta albiste-giak ikustea, dena ikusi izan dute beti–, eta "bonba" hitza entzuten dutenean, hau eta hura PPri buruz... eta galdetzen dizutenean: "ama, guri ere jarriko al digute bonba bat egunen batean?" Ez... Noski ezetz! Horretarako dauzkagu laguntzaileak... baina noski, katutxoek kontuak bezalaxe, horrek ere ez du betiko irauten, eta erantzuna dator: guri ez zure ama ez delako horren garrantzitsua. Zer esango diozu neskato bati? Eta azkenean, nazkatzen dira, eta esaten dizute: "zergatik esaten diezu laguntzaile, bizkartzainak badira?". Haurrak dira, baina ez leloak, noski, ez dira leloak, ikusten ari dira, badakite, entzuten dute, eta egunerokotasuna bizi dute... badakite pistolarekin dabiltzala. Azkenean badakite, badakite, eta gogorra da. Uste dut apur bat kostatzen zaiela –batez eta txikienari, jaiotzearen eskoltekin bizi zelako– erreferentzia hori galtzea, beti amarekin ibiltzen zen pertsona horren erreferentzia. Hasieran, gehixeago kostatzen zitzaion.*
- *Biktimei buruz hitz egiten da, hil dituztenei buruz, baina ez haien familiei buruz. Hemen badago ingurune bat biktima horien inguruan, familia, lagunak.. eta asko sufritu dute, gauza asko pairatu behar izan dituzte. Uste dut oraindik ez dela aintzat hartua izan hori, biktimei buruz hitz egiten da baina ez inguruaz, gertukoez. Uste dut errekonozimendu instituzionala egin beharko litzatekeela, erresistentziagatik, pairatzeagatik, ondoan egoteagatik...*
- *Ni biktima hitzarekin arazo bat daukat. Biktima hitza ez zait gustatzen, uste dut. Ez dakit definitzen zergatik, ez zait gustatzen, ez dakit esaten zehatz–mehatz zergatik. Nik uste dut gatazkaren ondorio batzuk pasa ditudala, kontzientea eta kontsekuentea naiz horrekin, militantziak ere hori ekartzen du, gatazka politiko baten ondorioak dira guzti hauek. Baina niri biktima hitza... mendeku politiko baten ondorioak jasaten dituela nire alabak? Noski. Eta ez dudala nahi nire alabak nik eta bere aitak pasa dugun guztia pasatzea? Noski. Nire alabak, jaiotzearen, 2.200 km egin behar zituen bere aita ikusteko. Gero, Sain Maur–ren, 1.200 km. Bizitzan erabaki batzuk oso konplikatuak dira, adibidez amatasunarena. Intza jaiotzearen, depresio batean erori nintzen, ze nik esaten nuen, Asierrri [Asier Oiartzabal] esa-*

ten nion, ostras! Zer egiten ari gara ume honekin, ezta? Ni bidaietatik negarrez etortzen nintzen, zer ari naiz eskaintzen ume honi. Baina denborarekin konturatu naiz nire umea oso zorionsua dela, ze maitasun askorekin bizi da, baina horrek ez du kentzen nire kulpabilitate sentsazioa daukatela eta hori edukiko dut Asier etorri arte. Eta ni ez naiz, ez naiz izango zorionsu bete-betean bere aita etxean egon arte, eta ez naiz nitaz hitz egiten ari, nire alabaz baizik. Baina nik ere erabaki hori hartu behar dut, nik familia bat eduki nahi dut, nire bizitzak aurrera jarraitu behar du, ni emakumea naiz, ama izan nahi dut eta paper hori ez dit inork kenduko, hori lortu dut, baina horrek dauka koste pertsonal, emozional eta fisiko izugarria. Eta hori zer da? Nik horri deitzen diot... konflikto honen ondorioak dira eta mendeku politiko baten barruan sentitzen naiz. (...) Niri askotan esaten didatenean... ostras, mina, sufrimendua... Jaurlaritzari entzuten diodanean, ez du nitaz hitz egiten, ez du nire alabaz hitz egiten eta niri horrek mina ematen dit. Baina ni oso kontsekuentea naiz nire militantziarekin, ni bikotea naiz baina ni militantea ere banaiz, eta nik hau bizi dut pertsona bezala, Ainhoa bezala, baina horren barruan militantziaz puntu bat ere badago.

- Bi seme-alaba ditut. Mutilak 25 urte egingo ditu orain, eta neskak 29. (...) Egia esateko, ez dute ezer jakin nahi honi buruz. Mutilak hemengo enpresa batean lan egiten du, eta dene-tarik dauka inguruan, errespetatzen dute... Oso gogorra da zure aita eskoltarekin ikustea... Eta autoan eskoltarekin ibiltzen nintzenez, ezin zuten nirekin joan, Guardia Zibila oso zorrotza zen horretan, esaten zuten: "autoa lehertzen bada, gu aterako gara hegan, baina zure familia ez". Horrelaxe zen, gogorra, argi eta garbi. Nire askatasuna etxeko lau paretan artera mugatzen zen. Eskoltak etxeko atean uzten ninduen, eta leku berean jasotzen ninduen. Hamairu urtez egon naiz horrela. (...) Mutila ordu biak laurden gutxian etorri zen, behatxulotik begiratu nuen, atea zabaldu, eta harrিতa gelditu nintzen lanpasean propaganda ikusi nuenean. Hartu, eta pentsatu nuen: "hemen zerbait gertatzen da". Eta disimuluan logelara joan nintzen, baina emaztea konturatu egin zen. Gutun-azal bat zen, eta barruan portaleko giltza bat zegoen -ederki zabalitzen zuen portaleko atea-, gutuntxo batekin batera. Buroa lehertuko zidatela esanez mehatxatzen ninduten. (...) [Javier] Balza Eusko Jaurlaritzako Barne kontseilariak esan zidan: "Vela, atera zure etxetik bihar bertan, hil egingo zaituzte bestela". Etxetik joan behar izan nuen, eta hiru urtez Andoaindik kanpo bizi izan nintzen familiarekin. Baina Andoainera etortzen nintzen, noski, eta ondorioz, zoritxarrez, bost eskolta jarri zizkidaten. Familiak horrekin guztiarekin bizi behar izan du.
- Senideek laguntza psikologikoa behar izan zuten orduan, eta orain beranduegi da.
- Emazteak une gogorrek bizi izan zituen. Hau ez zen onartzeko erraza. Alabak, berdin. Eta semeak psikologoarengana joan behar izan zuen, 8 urte zituela.
- Ni nire amaren lekuan jartzen naiz. Hortxe, egunero sufritzen.
- Nire amak oso-oso gaizki pasa du, duela urte asko. Nire ahizpa atera zenean eta... Nire ama izan da okerren pasa duena. Ama bigarren plano batean zegoen. Nire aita den pertsona da, beti aitaren aurka, baina ama zen ondoren etxean guztia jasan behar zuena, eta berak aguantatu du dena. Senarrarekin ezin joan izatea, ezin nahi zuen orduan atera ahal izatea, ezin hondartzara joatea edo dena delakoa...: bi pertsona zeramatzan atzean. Eta aita, ez dakit zenbat urtez, ez da hondartzara joan. Hori aitak jasan behar izan du, baina baita amak ere. Hortxe egon da bera, aguantatzen, eta gero alabei egin dietena egitea. Imaginatu ama batek zenbat sufritu behar duen; nik nire alabagan pentsatzen dut eta izugarria da. Oso-oso gaizki pasa du, nerbioetatik eta hori, ba lur jota dago. Eta ahal dugun bezala bititzen saiatu behar dugu...

- *Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoaren ondorioz, alde guztietatik biktima asko dago, eta egoera horiek, familian, inguruan, egoera mingarriak, tristeak sortu ditu eta sortzen ditu.*

Beldurra, posizio desberdinetatik

- *ETAk bezala pentsatzen ez genuenok beldur handia pasa dugu. Mundu horrek jendea mugatzen zuen. Manifestazioa egiten zutenean, herria jaten zuten. Benetako beldurra, nahitaez itxi beharra zegoen. Oso zaila da hori guztia ahaztea. Nire izena agertuko bada, ez eza-zu jarri hau; beldurtuta jarraitzen dugu, elkar ezagutzen dugulako denok.*
- *Beldurra? Adibidez, Guardia Zibilarena, zure etxean sartzen direnean eta zure etxeko atea botatzen dutenean. Hori ez da hurrengo egunean ahazten, e? Hurrengo egunean hori ez dela ahazten, pasatzen, eta bukatu da ezta? Ez, horrek ere sekuelak uzten ditu, beldurrarekin bizi arazten dizu, horrek ere sortzen dizkizu zure bizitzan ondorioak, ondorio handiak, badakizulako zer gertatzen den atxiloteta batean.*
- *Beldurra. Beldur handia.*
- *Gorrotok ez dut ikusi etxe hontan. Pena bai, haundiya, baino gorrotorik ez. Gurasoak igual hasten zian negarrez baino inoiz ez dut gorrotorik ikusi, da aipagarria. Beraiek ez dira konturatzen, ezta ni ere, azkenian “interiorizas el miedo de tal manera que te acostumbras a vivir con él y no te das cuenta de que lo tienes. Te das cuenta de que lo tienes cuando ves un control”.*
- *90eko hamarkadan, adibidez, ezker abertzaleko militantea izatea zen “como una aventura de riesgo”, atxiloteten beldurra. Nik uste dut gazteok beldur handia pasa dugula, edozein etxetako atea bota zezaketen zure militantziaren aitzakiarekin. Nire etxean Guardia Zibila sartu zen, ez zuten inor eraman baina etorri ziren, nire gurasoen etxean atea bota zuten, ez dakit zeinen bila joan ziren, baina norbaiten bila joan ziren. Erregistroa egin zuten, hankaz gora utzi zuten dena, gu egon ginen egun batzuk ez genekiela zer gertatzen zen. (...) Hori izan zen sarekada bat egin zutenean Seguran, Hernanin, eta horien tartean nire etxean... hori 90eko hamarkada bukaeran–edo izan zen. Nire etxean inor ez zen ETAko militantea, inor ez. Hori dena bizi izan dugu. Uste dut guk daukagun arazo ba dela ez dugula kontatzen guk bizitakoa. Uste dut beste askok kontatzen dutela “con pelos y señales” beraiek pasatakoa. Zilegi da horrela pasa dutelako, baina guk ere kontaktu beharko genuke gure errelatoa, baina nik uste dut guri askotan pasa zaigula ere, gure militantziaren errelatoan, “pues eso ba en el pack”, ez? Nik uste dut horrela bizi izan dugula: “en el pack” mehatxua, “en el pack” jazarpenak, “en el pack” isunak, “en el pack” beldur hori eta... “en el pack” edozein momentutan atxilotua, torturatua eta espetxeratua izan zaitezkeela zure militantziarengatik, eta nik uste dut guk ere horrela bizi izan dugula Euskal Herriko historia eta militantzia, eta horrela bizitzea ere ez da xamurra, ez da batere xamurra.*
- *Eskolta kentzen dizuten unean berriz ere libre bizitzen hasten zara, azalpenik eman gabe, baina hasieran iruditzen zaizu zerbait falta zaizula; izan ere, azalpenak emanez bizi behar izan duzu beti, guztia zurekin batera ibiltzen den pertsonarekin programatuz, koordinatu beharra dago. Eta bat–batean, zure burua bakarrik ikusten duzunean, ez duzu azalpenak ematen ibili beharrik eta, apur bat... ez dut esango kontrolik eza dagoenik, baina tira! Ea... hau eta bestea... Gaez bakarrik atera nintzen lehenengo aldian nabaritu nuen nik, etxera bakarrik itzuli nintzenean. Goizaldeko ordu bietan, garajetik etxera. Bat–batean, babes-*

gabetasun sentsazioa. Garai bateko beldurrik ez, baina... konturatzea ez daukazula inor ondoan. Baina tira, lau egun baino ez dira behar ohitzeko. Eta psikologikoki, uste dut beti geldituko zaigula bizi izan dugunaren arrasto bat, tentsio harena, nerbio haiena... autoan esertzen zara, eta abiatzen zara bonba bat jartzeko aukerarik ez dagoela pentsa daitekeen hiru edo lau kaletan barrena, egunero ibilbide desberdina egiten dudalako, eta ez dakitelako nondik joango naizen... eta... ene! Autoan sartu eta pentsatzea "nire txanda izango da gaur?"; "itzuliko naiz etxera eta ikusiko ditut berriz seme-alabak? Azkenean, uste dut antsietate arrasto bat uzten digula horrek epe luzera, estresa... hor gelditzen dira.

- *Bai, beldurrez bizi nintzen hori baino lehen balkoia erre baitziguten, eta ahizpari kotxea, eta aitaren kotxea, beraz, bai... Baina ez nuen inoiz pentsatu halakorik gertatuko zitzaidanik, zerbait hain larria, barrura sartuko zirenik. Oso azkar pasa zen dena, ez nuen inoiz halako beldurrik izan. Ez dakit, esan genezake gauza horietara ohituta geundela. Baina ez nuen pentsatzen halako gauza larririk gertatuko zitzaidanik; izan ere, hantxe bertan geratu ez nintzenean... Hala da, nengoen lekuan eserita egon ordez sofan egon izan banintz, ez dakit zer gertatuko zekidakeen. Hala da. Ez nuen uste halakorik egitera iritsiko zirenik... ez nuen uste.*
- *Nire kasuan, Andoainen inpaktu handia eragin zidan zinegotzi bat plazan behera bi eskoltarekin jaisten ikusteak lehengo aldiz. Estanis zen, espaloian barrena zihoan, Kale Nagusian dagoen okindegi baterantz. Bi eskoltarekin, bera bakarrik, igande goiz batean... ezin nuen sinetsi. Banekien hala ibiltzen zela, baina ikusi nuenean, pentsatu nuen nola zitekeen nik herri honetan nuen ordezkarietako batek hori egin behar izatea. Bizi osoan hemen bizi izan den pertsona bat, bizi osoan lan egin izan duena eta ordezkari politikoa izatea baino egin ez duena. Eta horrek inpaktu handia eragin zuen nigan. Eta oraingo ikuspuntutik begiratzen badiot, ikusita hainbat urtez era horretan bizi behar izan zuela egunero, hori ikaragarria izan zen. Politika desitxuratu zuen, dena.*
- *Hango bizilagunek nahi zuten guk [Batzokia] alde egitea handik, guk kulpa izango bagenu bezala. Beldurra, bai. Bizilagunekin problemak izan genituen. Nik behin hitz egin dut Barandiaranekin (Jose Antonio, alkate izandakoa), eta horrelako zera batean gauza gutxi esan nizkion, baina gauza bat argi esan nion: "zuek beti lagunak egiten, orain bezalaxe". Egia esan harreman handirik ez daukat Barandiaranekin, baina, entenditzen dut bera ez zela horrelakoa, baina bera bi aldetara ibiltzen zela iruditzen zait. (...) Ez zuen ezer kondenatzen.*
- *Hemen izan zen izugarria, torturak eta horrelakoak izan ziren dezente. Ni gogoratzen naiz beldurraz... Panizo, gero ETAk hil zuen sarjentua, hori zen una mala persona, baina ikaragarri! Gogoratzen naiz, ez dakit zer behar genuen, ez dakit pasaportearekin behar genuen eta joan ginen nire lagun bat eta biok, baina akojonatuta, eta esan ziguten: "tipo horrekin kontuz, ze igual zeozer egiten dizue". Ostras, eta tipoak halako batean itxi zuen atea eta haciéndose el simpático, denteroso... eta gu hantxe. Noski, tipoa paperekin eta gu beldurrez, gu pasa genuen beldurra, eta halako batean guardia zibil gazte bat sartu zen eta hartu genion papera eta "hasta luego". Beldurrez bizi ginen, eta gero, denok bagenekien Ansatarrek hil zituztenean nola ibiltzen ziren, el Canario... Udalak egin zuen dossier hartan azaltzen zen. Denok bagenekien zer kotxe zituzten, el Canario, el otro... ezagutzen genituen zeintzuk ziren.*
- *Greban geunden, eta gorabehera bat izan genuen 80ko hamarkadaren hasieran, sarrerako atean pikete batean geundela. Greba amaitu zenean, lanean nengoen batean, LABeko bat gerturatu zitzaidan, oso aktibista zen bat, eta esan zidan: "erakundeak badaki jada zer egin*

behar duen zurekin". Hoztuta gelditu nintzen. Zer gertatzen zen? Pentsatzen hasi, eta etortzen zaizu... Etxean ez nuen ezer esan, lankideren bati baino ez nion zerbait kontatu. Eta gero, goizean etxetik irten eta autoan sartzea, horixe zen arazoa. Hasteko azpiak miatzen zenituen, baina barrura sartzen zinenean, eta pizteko giltzari ematen zenionean, orduan sentitzen zenuen beldurrik handiena. Hiru edo lau hilabetez oso larrituta ibili nintzen, goize-ro, lanera abiatzen nintzenean, pum egingo nuela sentitzen bainuen... Mehatxua izan zen pikete batean geundelako sarrerako atean, eta ziztu bizian etorri zen autoan, eta baztertu izan ez bagina, harrapatu egin izango gintuen. Erreakzio gisa, ukabilkada bat eman nion autoari, besterik ez. Eta lanera bueltatu nintzenean, hori esatera etorri zitzaidan. Eta hauxe besterik ez nion erantzun: "zuek ikusiko duzue zer egin behar duzuen". Ez genuen gehiago hitz egin. Bagenekien zer gertatzen zen garai haietan. Greba ez zen lanekoa, gai politiko bategatik zen beharbada.

- Joseba Pagazaurtundua hil zutenean sozialisten egoitzara joatea erabaki nuen, nire babesik behar ote zuten jakiteko, arazoak baitzituzten herri askotan zerrendak osatzeko. Beldurra beti da librea. Bertara joan, eta jendea behar bazuten ni prest nengoela esan nien. Eta hurrengo legealdian zerrendetan sartu ninduten. Zinegotzi hautatu ninduten eta eskolta jarri zidaten. Ez nien lan handirik eman, baina oso gogorra da, ezin duzulako milimetro bat ere mugitu etxetik: "ez atera etxetik gu gabe", ezta egunkaria edo ogia erostera ere kale kantoiko dendara... Edozertarako atera behar nuela ere, eskoltak etortzen ziren, eta horregatik, askotan ez nintzen atera ere egiten. Eta ez egin errutinarik, inoiz ere ez... baina era berean, errutinaz betetzen zaizu bizitza, ez daukazu eta nora joan. Zer egin?

Zauriak ixtea galarazten duten egoerak

- Oraindik ere haustura soziala dago, eta zaila da gainditzea. Gorrotoak eraginda, batzuetan ezin dut gainditu; ezin da ongi bizi horrela sentitzen zarenean.
- Bizi osoko lagunak, lankideak, mendiko txangoetako lagunak, oso gertukoak... ez ziguten deitu ere egin nola geunden galdetzeko. Azkenean kalean edo denda batean topo egiten genuenean, ez ziguten irribarre ere egiten, ez ziguten esan sentitzen zutela... Baina hori herrian bizi zen beldurragatik zen.
- "Titi" [Estibaliz Garmendia, Joseba Pagazaurtunduaren alarguna] nirekin eta nire familiarekin etorri izan da urte gutxi batzuetan herrira oporretara. Sufritzen ikusi dut... Politikaren gaia edo dena delakoa ateratzen zen bakoitzean ba, horixe, negarrez... eta oso gaizki pasa du. Berez, hemendik Donostiara joan zen bizitzera, eta bi edo hiru urte eman zituen han, eta handik Logroñora joan zen, ez zuelako giro honetan bizitzea eta hemen bizi zena jasaten.
- Batzuok oraindik jarraitzen dugu sufrimendu honekin, egoera hau ez da bukatu. Nire bikotekideak 30 urteko espetxe zigorra dauka, estradizio bat dauka zain, eta Strasburgoren erantzunaren zain gaude jakiteko Espainian bere egoera nola geldituko litzatekeen. Oraintxe indefinizio puntu batean dago, berez eskaera dauka Iratxe Sorzabalen sumario batean eta nola torturapean hartutako deklarazio batzuk diren... Strasburgoren erantzunaren zain gaude.
- Txikiak lagundu diezadake. Ni arraro samarra naiz horretan, jasandako minak baldintzatu ez nazan ahalegintzen naiz. Nik inoiz ez diet gorrototik hitz egiten alabei, inoiz ere ez. Min ematen dit alaba nagusia nola dagoen ikusteak, txarra da beretzat, gazteena desberdin

dago eta gehiago jasan du... Nagusia joan egin zen, joateko gomendatu nion, mutil-laguna zuelako... eta ezin zuelako horrela jarraitu. Autoa erre zioten, eta gero ezin zuen berria martxan jarri ere egin, eskoltak etorri behar izaten zuen, autoa goitik behera miatzen zuten, baina ezin zuen... eta lanera joan beharra zeukan. Egoera sostengaezina zen. Txikia lagun-koiagoa da, era guztietako jendea ezagutzen du, lagun-koiagoa da. Nagusiak ez du entzun ere egin nahi...

- *Bizitza gauza guztien gainera dago, eta elkarrekin bizitzen saiatu behar dugu, desberdinak izan arren. Benetan horrela izan dadila, ez gaitzela erabat saiatu gainerakoei inposatzen, inolako onarpenik gabe, baina hori gertatzen da oraindik ere. Bestea erabat deskalifikatzen duzunean, zuk adina errespetu merezi ez duela pentsatzen ari zara. Eta horrela aniztasunari erasotzen zaio, eta baita, nolabait, metodo demokratikoei ere, zerbait inposatzeko saiakera egiten delako, ikuspegi bakar bat...*
- *Erreparazio bat izan beharko luke nire kasuak behintzat torturen ikuspegitik. Erreparazio handiena litzateke sistematikoa izan dan gauza bat erabat desaktibatzea, ze gaur egun, nahi bada gauza berbera egin dezakete. Dena aktibatuta dago bihar bi gazte harrapatzeko, “en la situación que sea”, eta horiek jarraitzen dute “pelagato” batzuk izaten, eta “karnizero” profesionalak oraindik hortxe daude, beren inpunitate guztiarekin.*
- *Ez genuen jakin noiz epaitu zituzten aitaren hiltzaileak, erakundeek ez ziguten abisatu, eta ez genuen jakin nola defendatu zuten, nolakoa izan zen epaiketa, ez ziguten epaia bidali. Telefono dei bat baino ez genuen jaso, epaiaren berri emateko. 30 urte geroago lortu genuen epaia Epaitegian, eta harri eta zur gelditu ziren jakin zutenean inork ez zigula esan epaia eskatu/eskuratu genezakeela.*
- *Nik uste dut nahiko gauza egiten ari direla. Gai honetan, agian gai honetan sentsibiltate pixka bat gehiago beharko lukete, adibidez ba urtero egiten den José Luis López de Lacallereña joatea, beste alderdiak joaten diren bezala. Nik uste dut udala joan egin beharko litzatekeela. Eta Pagazarena, aizu, zure anaia izango da baina gure herrikidea zen, eta gure lankidea izan zen. Zenbait gauza... Guri ere min eman zigun, zuek bakarrik ez zenuten hilketa hori sufritu. Herri guztiak sufritu zuen hori.*
- *Indarkeriak, alde batekoak zein bestekoak, zauri larriak eragiten ditu, min sakona, guk ez dugu ukatzen, onartu egiten dugu. Badira beste batzuk zitalkeria babestuta uste dutenak beren ekintzek ez dutela minik eragin. Haiek uste dute ongiaren eta gaizkiaren gainera daudela, guztiok dakigu zein diren. Arazoa da zer egiten dugun zauri horiek sendatzeko eta mina arintzeko: Lehenengo gauza eragindako mina onartzea da, eta hori guk bakarrik egin dugu, beste alderdiak, edo hobe esanda, beste alderdiek, ez dute ezer onartzen. Ez dute gatazka politikorik izan denik ere onartzen, argi dago, onartuko balute, haiek ere mina eragin dutela aitortu beharko bailukete.*

Zer falta da egiteko biktimen inguruan?

- *Laguntzak ez dira berdinak izan, ez denborari, interesari, zenbatekoei edo agudotasunari dagokienez, ez eta baldintzetara egokitze garaian ere. Zenbait laguntza mota ez ziren beti existitu, behar izan genituenean ez zeuden eta azkenean egon direnean dagoeneko ez dute zentzurik gutariko batzuentzat, baina orain, badirudi behar ditugun laguntzak ere ezin direla eskaini. Psikologoak ez daude espezializatuta eta curriculumean zerbait garrantzi-*

tsua gaineratu baino ez dute egiten. Eskerrak eman nahi dizkiogu Marixabel Lasari, lagundu zigulako, baina berak esaten zuen moduan, ez zen nahikoa izan. Uste dut orain hau dena hobetzen ari dela. Nolanahi ere, eskerrik asko jasotako laguntzengatik, baina esan beharra dago tormentu hutsa izan dela eta pazientzia handia behar izan dugula hainbat urtez, esaten zenetik egiten zen arte itzaroteko. Dagokionarekin hitz egitea gustatuko litzaidake, lehen eskutik jakin dezan.

- *Goazen denen mina baretzea pixka bat, ez da kenduko baino goazen baretzea.*
- *Ez dugu lortu José Díaz Pérez guardia zibilaren familia aurkitzea; 25 urte zituen eta ezkongabe zegoen. Familia ez zen hemen bizi eta haien arrastoa galdu egin da. Ez genuen lortu familiako inor aurkitzea zazpi zuhaitzen landaketa egiteko.*

Ez nago ados hasten direnean eskatzen, beti alde berari eskatzen zaio, barkamena ETakoek eska dezatela, damututa azaldu behar dute. Nik hori ez dut konpartitzen eta hori entzuten hasi aurretik, uste dut egindako mina aitortzearena oso inportantea dela. Baina bai iruditzen zait egindako mina aitortu behar dutela alde guztiek. Nik uste dut denek, alde ezberdinetakoek eskatu beharko luketela; hori bai, barrutik atera behar du. Barkamena eskatu behar dute, damututa azaldu behar dute, bakoitzak jakingo du hori nola kudeatu pertsonalki, niri oinarrizkoa iruditzen zait egindako mina aitortzea. Eta hortik gertuago eta pausoak emateko prest ikusten dut ezker abertzalea bestea aldea baino. Eta txalotzen dut. Ezin zara bestearen zain egon, zuk eman behar duzu aurreneko pausoa, eta benetan txalotzen dut, ze entzuten zaie ezker abertzaleko kide batzuei aitortzen egindako mina, eta nik ez dut zuzenean bizi izan, herri mailan bai, baina benetan iruditzen zait lasaigarria, eta errekonozimendu hori inportantea iruditzen zait oso. Terrorismoaren biktimen taldearen diskurtsoa oso itxia iruditzen zait, oso bortitza, ez garamatza inora, eta uler dezaket Maribel Blancok edo Pagazaurtunduak duten diskurtsoa... beren mina uler dezaket, baina ezin dut konpartitu diskurtso hori inolaz ere.

- *ETAk eta inguruneak sortutako persekuzio eta hilketa sistema horren kondena falta da. Kondena politikoa, kondena historikoa, juxtu juxtu egin nahi ez dutena. Erantzunkizuna konfliktuari pasatzen diote eta hori iruzurrak egitea da. Orduan konfliktuaren izenean persegitu eta hiltzen zuten eta orain, gutxi batzu izan ezik, hilketak ez dituzte kondenatu.*
- *Gelditu zaidan arrasto nagusia gorrotoa da. Nire arazo nagusia da ez naizela barkatzeko gai, eta gainera, "barkamena" kristau hitza denez eta ni ez naizenez kristaua, ez dit balio. Nire bi lagun José Luis eta Josebaren hilketak, nire familiari egin diotena, eta niri egin didaten guztia, ezin ditut barkatu. Niretzat, hitz hori ez da existitzen. Gorrotoa daukat, hori da ondorioa. Gorde egiten dut, asko, baina hemen herrian zeuden kolaboratzaileetako batek buruarekin horrela egiten didan bakoitzean... Beti saihestu izan dut begia begiaren ordain egitea, eta nahi izanez gero arma bat eduki nezakeen arren, pentsatu izan dut ezin dudala armarik eduki ez eskuan ez poltsikoan, bai baitakit ezin izango niokeela neure buruari eutsi.*
- *Zer esango diet ETako biktimen edo Jon-en familiakoei!... Pena handia ematen didala. Jon Lizarralderen senitartekoa izanik, haren bizitza era ikaragarri hartan amaitu zenean, oso gaizki pasatu genuen, nire anaia zen... baina familia horiek... batzuk... enpresariak, ez dakit... familia batzuk ez daude politikan sartuta, gertaera zeharka etorri zitzaien, zorigaiztoko amaierarekin, eta imajinatu dezaket haien izua, amorrua eta gorrotoa... Ulertzen diet. Nik ez dut anaiaren izenean hitz egingo... Nik bere garaian... orain, egoera dagoen moduan, ez dakit anaiak barkamena eskatuko lukeen ala ez... Noski, ez dut anaiaren izenean*

hitz egingo, ez dagokit... ez dakit. Nik neure iritzia dut. Familia horiei ezin hobeto ulertzen diet... Nola ez? Kalbario bat izan da... guztiontzat... Baina nik ere "zehir kalteak" jasan ditut, ez naiz gerra horretako parte. Jonen anaia baino ez naiz... Begiratu txarrak eta horrelakoak ere jasan behar izan ditut... bale, ulertzen diet, baina nik diot, oso ongi... ez didazula kasurik egiten? Ez naiz existitzen, ikusezina naiz? Bada, zu ere berdin niretzat. Zuk ere ezkutu bat jartzen duzu. lepa! Ez zaituztela agurtzen, bada esaten duzu: bale, hurrengoan zu ere ikusezina izango zara niretzat... Kito... ez duzu... zertarako...

- Batzuen eta besteen manipulazioetatik aldentzen saiatzen gara.
- *Biktimei dagokienez, batez ere memoria, egia, justizia eta erreparazioa zor dizkiegu; nire ustez, lau zutabe horietan oinarritu beharko genuke, biktima guztientzat, inor baztertu eta bereizi gabe. Biktima guztiei zor zaie hori, eta senitartekoei ere bai, noski, azken batean senitartekoak baitira bizirik gelditzen direnak. Izan ere, hil izatea zorrigaitz ikaragarria da, joan izatea, baina hemen jarraitu behar dutenak, uste dut horixe dela gizarte bezala egin dezakegun gutxienekoa, derrigorrez egin beharko genukeela uste dut. Orain ETA desegin da, egia da; maiatzaren 1eko asteburuan izan zen, justu, eta astelehen horretan bertan José Luis López de Lacalleren omenaldia genuen. Omenaldian hitz egin genuenean, esan genuen pozik geundela ETA behingoz desegin izanagatik, baina zoritxarrez berandu zebiltzala, inolaz ere ordainik jaso ezin izango duten 800 familia baino gehiago daudelako. Eta desegite horren baitan, oraindik ere 300 pertsona baino gehiagoren kasuak daude argitzeke, oraindik ere ez dakigu nola gertatu zen, zer gertatu zen. Baina ikertzeko ahaleginak egin jarraitu behar da, batez ere familiei begira, biktima guztien familiei begira, salbuespenik gabe. Ezin zaie batzuei barkamena eskatu eta besteei ez... halakorik inoiz gertatu behar ez zela onartu behar da.*

Batzuetan biktima edo gaizkilea nor zen kontuan hartuta erreakzionatu izan da

- *Nire adineko mutil bat zen Ansa. Nik hau kontatuko dut: ni orduan lanean nengoen HBko txosna batean. Eta ni gogoratzen naiz etorri zirela eta "Que han matado a uno" esan zutela. Noski, ez genekienez hildakoa nor zen, "la cosa de a ver el muerto de dónde es" ezta?, eta jakin arte, "habrá que esperar, habrá que esperar claro... a ver a quién han matado". Inori ez diot kontatu orain arte, baina nik hori bizi izan nuen. Hor zalantza asko egon ziren hasieran, ez baikenekien oso ondo. Orduan alde batetik-edo, eskuin muturrekoa izan zitekeen edo bestela besteen akats bat, eta akatsak ere barkatzen ziren. Eta gogorra zen, gero ikusi zen ezetz, ezta? Harrapatu zutela eta pim-pam.*
- ...biktimak tratatzeko garaian erabili izan gaituztela, era guztietako biktimak.

HERRITARREN ERANTZUNA KALEAN

1977–1981

Andoainen gertatu zen lehen hilketa David Salvador Bernardo taxilariarena izan zen, 1977an; Triple A–k hartu zuen bere gain hilketa, eta gertakarion aurka protestatzeko manifestazioak egin ziren Hernanin, bere bizilekuan, eta inguruko taxilariak geldialdia egin zuten dolua eta elkartasuna adierazteko. Ikerketa Batzorde bat sortu zen bost urte horietan herrian eta Heriotzaren Triangelua deiturikoan gertatu ziren eraso parapolizialak ikertzeko. *Deadar* txostena argitaratu zuten, EMK–OICE, ORT, EIA, LKI, PNV, PSOE, PCE, PTE, EKA, HB, EE, CCOO, LAB, UGT, USO, CSUT, SU, EGG, EGAM, Hauzolan, Batzorde Antinuklearrak, Emakumeen Biltzarra eta Udalaren atxikimenduekin. Andoaingo Korporazioak, Eeko alkatearekin 1979az geroztik, protesta mobilizazioetarako deia egin zuen Joxe Ramón eta Francisco Javier Ansa hil zituztenean, aipaturiko erakunde guztien bultzadarekin. 1979ko martxoaren 18ko manifestazio baketsua gogor erreprimitu zuen Guardia Zibilak. Baita maiatzaren 9ko mobilizazioak ere.

ETAk Ignacio Olaitz Mitxelena hil zuenean 1978an, Bigarren Hezkuntzako Leitzaran Institutuko irakasleak mobilizatu ziren. José Díaz Pérez guardia zibila hil zutenean, 1979an, ETAREN aurkako eta Guardia Zibilaren aldeko oihuak entzun ziren Donostian egindako hileta elizkizunen ostean.

1986–1987

Urte horietan ETAk egindako atentatuen kontra protestatu nahi zutenak Andoaindik beste herri batzuetara joaten ziren, batez ere Asociación por la Paz y Reconciliación–ek, gerora Gesto por la Paz–Bakearen Aldeko Koordinakundea izango zenak, Donostiako Gipuzkoa Plazan egiten zituen deialdietara. Garai hartan, hitz egin zedin eskatzeko ekimen bat sortu zen Mikel Goenaga San Martin parrokiako erretore zenaren babesarekin, kristau elkarteekin erlazionatutako gazte talde batetik abiatuta. Hamabi bat pertsona biltzen ziren hilero, “Bizitzako Hausnarketa” egiteko. Garai hartan, Tolosan hasi berria zen Gesto por la Paz.

- *Hemen izan zen apaiz bat lan asko egin zuena, Mikel Goenaga, bai, hil zena, eta asko markatu gintuen. Orduan berak bazeukan konpromiso sozial handi bat, eta politikoki ez zen deklaritzen, baina bueno, joera ere bazuen ezkerrekoa nabarmen. Pentsatu oraindik Elkarrri sortu gabe zegoenean, ateratzen ginen gazte batzuk pankartekin, hor eliz atzean badago plaza txiki bat, eta ateratzen ginen elkarrizketa eskatuz. Lau katu juntatzen ginen. Izaten zen larunbat arratsaldetan, hilabetean behin ateratzen ginen elkarrizketa eskatze-ra. Euskaraz ez, bietan jartzen zuen. Gero nik hori Elkarrin aurkitu nuen. 20 urte izango nituen... 87–88 inguru horretan. Guk bagenuen talde bat, “Cristianos de Base”, gazteak ginen eta hortik sortu zen ekimen hau. Aitortu behar da esperientzia ez zela erraza izan, gazteak ginen, izango genituen, ba horixe, nik uste 19 urte neuzkala. Eta ez genuen aldarrikatzen bakea, elkarrizketa aldarrikatzen genuen. Ez genuen hitz egiten formula politikoez edo antzeko gaiez, ez, ez... guk horretaz ez genuen hitz egiten. Aldiz, konfliktoak ze irtenbide eduki zezakeen. Gesto por la Paz–etik deitu ziguten, Tolosatik, beraiengana joateko eta guk esan genien ezetz, guk ez genuela aldarrikatzen alde bateko bakea, guk elkarrizketa nahi genuen, ze iruditzen zitzaigun hori zela irtenbidea.*

1990–1993

1990eko ekainaren 25ean Irunberriko arroilan Jon Lizarralde andoaindarra, ETAko komandoko beste kide bat eta guardia zibil bat hil eta ETAko beste militante bat eta guardia zibil bat zaurituta gelditu zirenean, protesta, atxiloketa eta sabotaje ugari gertatu ziren. Gesto por la Paz–ek 61 elkarretaratze isil antolatu zituen Euskal Herri osoan. Elkarri 1992an jaio zen, Andoainen. Hurrengo urtean, ETAk Juvenal Villafañe guardia zibila hil zuen eta Gesto por la Paz–Bakearen Aldeko Koordinakundeak elkarretaratze isilak antolatu zituen gaitzesteko.

– *Elkarrin dezente inplikatu nintzen, herri mailan juntatu ginen, eta gainera polita izan zen, ze oso talde anitza osatu genuen, tartean López de Lacalleren koinatua zegoen, Pagazaurtunduaren iloba, horiek biak, Ezker Abertzaleko erradikal samarren bat... baina denok prest ginen elkarrizketarako. Garai hartan asko lantzen zen, adibidez, hiztegia, foroak... ‘Ezetsi’ hitza asko erabiltzen zen, ez zen kondenatzen, Elkarrik ez zituen atentatuak kondenatzen, baizik eta beste hiztegi bat erabiltzen ahalegintzen zen, bi posizionamenduetatik ateratzeko, eta ezetsi egiten zituen, erdaraz: “reprobar”. Kalera asko ateratzen ginen, larunbat goizetan merkatuko plazara joaten ginen eta sinadura bilketak egiten genituen, edo manifestazioren bat, horren berri ematera, asko ateratzen ginen. (...) Gero Lokarri sortu zen, eta nik hor jarraitu nuen bukaera arte.*

1998–2001

– *2001ean jazarpenezko indarkeriaren kontra Euskal Herriko Gesto por la Paz–Bakearen Aldeko Koordinakundeak antolatutako deialdiaren salbuespenarekin, herri askotan egiten genuen moduan, Andoainen ez zen egon Gesto–ren talderik. 1998an, apirila inguruan, Miguel Ángel Blancoren heriotzaren ondoren, zenbait pertsonak talde bat osatzeko ahallegina egin genuen, eta elkarretaratzeren bat ere egin genuen, ez dut oso ongi gogoratzen, norbait hil izango zuten garai horretan, baina gero Lizarra iritsi zen, eta ETAREN 98ko su etena, eta ez genuen jarraitu, nolabait arrazoi nagusietako bat indarkeria gaitzestea eta biktimekiko elkartasuna adieraztea zelako. Eta gero erakundeetatik hasi ginen deialdiak egiten. Uste dut Andoainen gainerako herrietan bezala mobilizatu izan garela, gertatu izan zaigunean. Villafañe hil zutenean, hileta elizkizunetan jende asko egon zen, baina erreakzioa txikiagoa izan zela usten dut. Erakundeak deialdiak egiten hasi zirenean, su etenaren ostean, uste dut borroka armatuaren zentzugabekeria gero eta bistakoago egiten hasi zela. Aho batez erantzuten hasi ginen neurri handiagoan, manifestazio bateratuak egin ziren.*

2000 eta 2003

Udalaren deialdiak José Luis López de Lacalleren eta Joseba Pagazaurtunduaren hilketen eta ETAREN aurkako manifestazioak egiteko.

MEMORIA

Kosta egiten zaigu iraganaz oroitzea...

- *Esan beharra daukat bi lehenengoz bata guardia zibila zela eta bestearen abizena ez dudala zehazki oroitzen, baina zela Ola... hirurogeita hamarreko hamarkadan biak... hamarkadaren amaieran... baina guardia zibilarena izan zen... uste dut Andoainen bertan izan zela, baina atentatua ez dut gogoratzen... esan nahi dut... ez dut gogoratzen.*
- *Joxe Ramon eta Francisco Javier Ansari dagokienez, ez dut zehazki gogoratzen, ez dut gogoratzen baina badakit... idatzita daukat izena... badakit... Bai, gogoratzen ditut gertakerak, eta urtero gainera.*
- *Guardia Zibil bakarria hil zutela uste nuen, Villafañe.*
- *Berez, ez dut gogoratu ere egiten... Ez, ezer ez...*
- *Ez naiz gogoratzen. Ez dakit, bere denboran edukiko nuen baina... Nik paper zaharrak asko daukat gordeta, baina horiek denak ordenatzen eta bilatzen. Gorde egiten ditut, baina gero ordenatzea zaila da.*

... edo ez genuen gogoratzeko beste adinik

- *Zerbait entzun nuen etxean, baino oso txikiak ginen.*
- *1976an jaio nintzen, Franco hil ondoren, eta, beraz, ez dut bizi izan frankismo garaia. Franco 1975eko azaroaren 20an hil zen eta ni 1976ko abuztuan jaio nintzen, ni jaio nintzenerako desagertua zen.*
- *Ni neskatxa bat nintzen.*
- *Ez dakit nor den Jon Lizarralde.*

Nola gogoratu gertatu zena

- *Guztiz hitz egin behar da.*
- *Denok gara pertsonak, ez zen eta ez da inor hil behar. Hori argi daukat. Aintzat hartu behar dira, batzuk zein bestek.*
- *Bi etapa egon dira ETArekin. Frankismo garaian borroka armatua justifikatzen nuen, baina ondoren, 1977ko amnistiaren ondoren, jada ez nuen ulertzen. Ezin zen babestu ETAk jarraitzea. Hasieran ez zitzaien "terrorista" esaten, herria mobilizatzen zuten. Baina gero, guztiak balio zuen. Eta hori ezinezkoa da.*
- *Denen memoria gogoan izatea, koadro osoa, denek egin behar dute beren ekarpena objektibotasunez, bakerako eta bizikidetzarako bidea emateko.*
- *Nola nahi deten gogoratu? Erantzun hori esango dizut hemendikan urte batzutara nei iruizten zaitenean parte inportante bat finikitatuta dagoenean.*

- *Urtero adierazi dugu nola gogoratzen duen gure familiak eta zer pentsatzen dugun. Publikatu dugun azkeneko txostena irakur zenezaten nahiko genuke⁹⁸.*
- *Nire ustez eskoletan bai. Ari dira batzuk kontaktzen, ezta? Niri Aintzane Ezenarrok esan zidan ea prest egongo nintzatekeen ikastoletara joan eta umeei kontaktzeko, eta nik uste dut hori ez dela biktima batek kontaktzeko. Umeei ez zaizkie kontaktu behar gertakizunak biktima gisa, gertakizun bat egon da, alde batekoak, bestekoak...*
- *Min hori transmititu, zertarako? Gauza bat da jakitea, eta mina sentitzea diferentea da. Nik uste dut biktima kontaktzen eta negarrez hasten bada, orduan haiek gorrotoa–eta hartuko dutela, denak diferenteak dira. Kontatu behar dela bai, baina... Osagai asko falta dira, denak bat, alde batekoak eta bestekoak nola gauden, kontuz hor umeekin, denak ez dute berdin pentsatzen, ez dute berdin enfokatzen... hor enfokatu behar da denentzako berdin, zaila da, hori ondo pentsatu behar da nola egin.*
- *Uste dut argi utzi behar dela hemen gertakari asko aipatzen direla, baina badaudela beste asko ere inoiz inork kontaktuko ez dituenak, baina gertatu zirenak nolnahi ere. Horrek ez dio larritasunik kentzen gertatu den guztiari. Dakiguna eta esaten dutena nahiko garrantzitsuak dira jada, eskuak burura eramateko bezainbeste. Uste dut hau oso garrantzitsua dela, batzuek ez dutelako inoiz kontaktuko zer gertatu zaien, eta apur bat pentsatzen baduzu, konturatzen zara gauza asko gertatu direla, eta kasu zehatz honetan, ETArek mehatxuari buruz ari naiz. Errespetagarria da batzuek kontaktu nahi ez izatea ere. Gainera, gertakarien berri jasotzen dugunean, gertakari enpirikoak jasotzen ditugu, gertatu dena, baina gertatu denari bakarrik erreparatzen badiogu, esaten duten egia enpirikoari bakarrik, egia moralak ere nonbaitetik atera behar du, gertakari multzo horretatik uneren batean irakurketa bat egin behar da, esateko: bidegabea izan zen. Eta minari buruz hitz egiten dugunean, min hori aintzat hartzeari eta horri guztiari buruz, pausu bat gehiago egin behar da, mina aintzat hartzera mugatzen bagara, desberdinak diren gauzak berdintzen ariko garelako. Beste urrats bat egin behar da: bidegabea da, hiltzea gaizki egon zen, mina eragin zen bidegabea... Irakurketa hori ere nahitaez egin behar da... edo nik behintzat egin nahi dut eta egin dudala jakin dadin nahi dut, bestela gertaeren zerrenda bat baino ez baitut egingo, desberdina dena berdindu bakarrik egingo baitut.*
- *Aitortuko dut, ETArek atentatu bat eta sartzen zirenean, eta nola... horrek nola inpaktatzen ninduen. Ni gogoratzen naiz, jada egiten zitzaidala pixka bat gogorra, indarkeria erabiltzea arrazoi politiko batzuegatik... oroitzapen hori badaukat. Baina horretan gelditzen zen dena. Gaztaroan, 16–17–18 urteren bueltan, nire burua ikusten nuen abertzale bezala edo, ez dakit, bai, eta esango nuke ez nuela konpartitzen agian ETArek jarduna, ez nuela konpartitzen baina neurri batean justifikatu egiten nuela kontestu horretan. Momentu horretan, nik uste dut, pixka bat laino batean bezala, gogoratzen naiz oso ondo, erdi bideak bilatu behar zirela, adostasun bat behar zela.*
- *Hemen bizi ginen bolada batean abertzaleak ginela “los buenos de la película”, beti gauza horiekin. Gero espezialitatea Salamancan egin nuen, ateratzen zara hemendik eta ikusten duzu gauzak ez direla hain horrela. Ez dakit, ematen dizu beste ikuspegiak ulertzeko modua, beste ikuspuntu batzuk, ezta? Aztertzeko eta jakiteko zergatik den horrela. Eta gauzak ez di-*

98 Familia Pagazaurtundua–Garmendia (2018). *Joxeba Pagaza: un grito de libertad. Andoain 15 años*. Autoedición.

rela zuri edo beltz, hemen tonalidate asko daudela, eta gero gauza asko ez direla berdinak hemendik ikusita edo perspektibarekin ikusita. Hori argi eta garbi. Nik ez dut berdin ikusten 16 urte nituenean edo orain, ni por el forro, ni aldatu naizelako eta egoera ere aldatu egin delako. Eta badago jendea ez duena hori egiten, eskema fijo batzuk dauzkate eta horiekin, eta ematen du horiek zalantzan jartzea traizio bat dela, eta hori ez dut ulertzen, eta hori nik uste dut herri honetan asko pasa dela. Jakina, niri min handiagoa, ni igual kritikoagoa izango naiz mundu abertzalearekin, ni mundu horretan nagoelako, orduan niri gehiago izorratzen dit hor gaizki egiten dena. Zure bikoteak gaizki egiten badu gauza bat, gehiago izorratzen dizu ondoko, naiz eta xuabeago izan.

- *Nola gogoratu gure ibilbidea? Emigrazio handia egon zen denbora gutxian, hori alde bate-tik, eta bestetik ETakoak polimiliak zirela eta polimiliak ziren neurrian hori errentabilizatu egin zuten, ze gu azken finean garai hartan ikusten genuen ETA zela gure “salbatzailea”. Gu horrela bizi genuen eta gu Ardotxi miresten genuen. Ardotxi... arraroa egiten zait, “el hijo de la Pía”, Piaren semea, eta nik ikusten nuen torturatua, gu miresten genuen jende hori, ezta? Gainera ikasleak ziren eta ez dakit ze, jende intelektualki miresgarria, ez dakit, horien atzetik... Gero, zein hasi ziren hemen erortzen, ba zurekin eskolan ibilitakoa, esaten zenuela ni horrekin hemendik horra ez noa. (...) Nik uste dut 81ean edo... hor nonbait, hor gertatzen direla, hasten direla erortzen batzuk “que dices, bueno... o sea” hau? Beste aldetik, ETA ere hasten da atentatu batzuekin, Hipercor-eta... nora goaz horrela? Zentzugabeko gauzak, ezta? Eta gero gu hemengoak gara eta ezin dugu hau kritikatu. Ez, ba hau gaizki baldin badago esan egin behar da, eta handik aurrera gero eta kritikoago. Eta gero, are gehiago, nola irudikatzen diren ezker abertzaletik gauza horiek, ikurrinak eta ez dakit zer, folklorismoa azkenean, esaten diozu zeure buruari, zer da hau? Gu, aurrera joan beharrean, zer egiten ari gara, zer irudikatzen ari gara? Hori ez da nik nahi dudana herri progresista, nik ez dut hori nahi, aureskua eta abar, ez dakit.*
- *Honen harira, pixka bat ematen du batzuetan besteei botatzen diegula errua eta errua denok daukagu. Denok onartu genuen egoera bat eta bizi genuen egoera naturala izango babiliz bezala, halakoa ez zenean nik uste. Eta batzuk lehenago eta beste batzuk geroago joan gara konturatzen “jode, ba hau ez dago ondo, horrela ezin da bizi”. Hori igual izan zen mina sozializatu egin zenean, biktima hau zenean eta ezagutzen nuenean, eta, noski, beste biktima ez bazenekien nor zen... ez da berdina. Ez da berdina.*
- *Urte askoan egon izan naiz hilabete bakar bat ere osorik kobratu gabe, beti zegoelako grebaren bat. Izan ere, ETako norbaiti zerbait gertatzen zitzaion bakoitzean deialdia egiten zen eta denok parte hartzen genuen, frankismo garaian batuta geundelako erregimen haren aurka. Orain gaizki dago hau esatea, baina orduan, ETAk Indar Armaturen edo Guardia Zibilaren aurka zerbait egiten zuenean, txalotu egiten zen, erregimenari amaiera eman behar zitzaiola pentsatzen baikenuen... Beharbada orduan gertatutakotik etorri da gero gertatu den guztia, orduan beharbada arma asko eman zitzaizkielako aurrera jarraitzeko eta, gero, ezin izan zitzaizkielako kendu.*
- *Nola gogoratu? Uste dut gatazka oraindik ez dela bukatu. Orain beste era batera kokatu da. Gatazkak segitzen du. Guk erabiltzen ditugu beste tresna batzuk eta horrela segitu beharko dugu irabazi arte. Zer da irabaztea? Euskal Herria onartzea nazio bezala eta bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea aitortzea. Hori da irabaztea. Horregatik herriari galdetu behar zaio zer nahi duen, eta galtzen badugu errespetatu egin beharko dugu, baina irabaziko bagenu ez dakit besteek errespetatuko luketen. Dudak ditut.*

- *Nola ez oroitu Joxe Ramón Ansaren hilketa, 17 urteko mutil bat, tiro bat garondoan. Zur-bilduta gelditzen zara. Mobilizazioetan eta mugimenduetan egon ginen orduan, eta beno, une hartan, bandotan bereizi behar bada, bera batean egongo zen eta ni bestean, baina orduan bando berean geunden.*
- *Entzun duzunagatik, azaltzen dizutelako, kontatzen dizutelako, egia da lehen beste helburu batzuk zeudela eta ETA, azken batean, erregimenaren kontra zegoela, diktaduraren kontra. Beste helburu bat zuen, beste zentzu bat, eta egia da une horietan pertsona asko erregimenak erasoak sentitzen zirela, erregimenak kalte egiten ziela sentitzen zutela; arazo asko sortzen zituen erregimenak. Horregatik, guk nahiago genuen data hori beste une batean jarri, amnistia bat egon zelako. Jendeari birgizarteratzeko aukera eman zitzaion, gauzak beste era batean egiteko aukera. Alderdi politiko batean parte hartuta, hitzaren bidez, errespetuz. Bakoitzak bere printzipioak eta ideiak izaten eta defendatzen jarraituko du, noski, baina hitzaren bidez eta errespetuz. Libreak gara, gure idealak defendatzeko. Baina esatea zuk nik bezala pentsatzen ez duzunez, desberdin pentsatzen duzunez, ez dudala nahi zu libre izatea, pistola batez tiro egin edo bonba bat jarriko dizudala, desberdin pentsatzen duzulako... Horretan ez gaude ados. Nork bere ideiak defenda ditzala erakundeetatik. Nork bere iritziak defenda ditzala Estatu demokratiko batean. Noski, bakoitzak indar jakin bat izango du babesa ematen dion herritar kopuruaren arabera, eta leku batean eta bestean gertatu beharreko orekak edo desorekak gertatuko dira. Eta hori guztia zilegi da, dena da ongietorria, eta gainera, horrela izan behar du, baina hitzaren bidez eta errespetuz.*
- *Badut lagun bat ba nolabait ezker abertzalean sartu zuela ETApn-ko batek, eta gero hura joan egin zen ElAra, eta noski, lagunak esaten zidan: "hark ni konbentzitu ninduen eta gero alde egin zuen". Oraindik ez zaio buruan sartzen. Bai, jendeak eboluzionatu dezake, baina ez zaio buruan sartzen hori. (...) Eta okerrago atentatu bat edo zerbait egin duenarentzat: joaten zara zeozer egitera eta daukazu jende piloat atzean, eta bat-batean ez daukazu jenderik atzean edo oso gutxi daukazu. Ez dakit, gogorra izan behar du beraienez ere, damutu ala ez damutu, ezta? Azken finean, oker edo ez oker, oker nire ustez, bizitza eman dute zerbaitegatik, eta alferrik ematea ere... horrek ere tristeza izan behar du, konklusio horretara iristek. Zertarako balio izan duen!*
- *Estrategiak sortzen dira zerbaitegatik, nire ustez. Eta hemen, momentu batean saltzen digute Euskal Herria existituko ez balitz bezala. Indarrez zein sartu da hemen? Nik egiten dudak irakurketa da, eta autokritika egiteko prest nago, nik ez dut biolentziarik erabili, eta erabili badut, momentu batean mina egin badiot norbaiti, prest nago onartzeko, baina parekoak onartzen badu berak eginiko mina. Ni prest nago, parekoa prest dago? Bestela ez? Ba ez dakit, agian kostako zait. Esan nahi dut: memoriaren inguruan ados nago memoria bat egin behar dela, baina bi aldeetako memoria izan behar du. Eta ikusi behar dugu ni ez naizela joan beste lurralde bat zapaltzera, nirea zapaltzera etorri dira. Nire hizkuntza zapaldu didate. Gure izaera euskalduna suntsitu nahian ibili dira eta horrek ez dauka inolako ondoriorik. Hau da, nik ere alde hori aspimarratu nahiko nuke.*
- *Kontatzea? Oso zaila da ondo kontatzea. Nire ustez gauza da talde terroristak bat egon dela, ETA, ez dakit zergatik sortu zena, aldarrikatzeko... Horixe da inolako zentzurik ez duena. Talde terroristak, bere garaian, helburu bat zuen, eta nire ustez eskuetatik alde egin zien eta min ematen hasi ziren. Ez dakit, beste batzuekin ezin zutelako? Eta kaleko jendea hiltzen hasi ziren, eta niretzat horixe da egin ezin dena. ETA, hemen momentu batean mundu guztiak, edo ia mundu guztiak, babesten zuen ETA duela urte asko. Orduan bazuen nolabaiteko*

zentzua, baina gero, demokrazia iritsi zenean, Euskal Herriak duen autonomia, Ekonomia Ituna, daukagun guztia... Nire ustez, hortxe moztu behar zen, eta nahi duzun guztia eskatu, baina utzi talde terrorista. Eta horixe da egin ez dena, eta horregatik sufritu dugu guztiok, haiek eta guk.

- *Nire ustez badaude bi alderdi. Alderdietako batek eragin du bestea. Ea lortzen dudan ondo azaltzea. Bi alderdi daude, baina, zergatik. Alderdi hau hemen dagoelako besteak beste hori egin duelako. Eta haiek ezetz diote. Haiek diote beren alderdia hor dagoela beren ideien alde borrokan ari zirelako. Presoak zerbaitegatik daude preso, ez dituzte hor sartu nik ikusi nahi ez ditudalako. Hor daude pertsonak hil dituztelako, edo estorsionatu, edo bonbak jarri dituztelako edo dena delakoagatik, zerbait lapurtu edo norbait bortxatu duena bezalaxe. Hor dago delitu bat egin duelako, baina haiek eta beren senideek ezetz diote, han daudela beren ideien alde borrokan zebiltzalako.*
- *Euskal Herriko historia kontatu behar da, ez zatituta, baizik eta mendeetan bizitako egoerak lotuta, gatazkak eta horien aurrean izan diren erantzunak, borrokak... Nire ustez, historia azaldu behar da bere orokortasunean, gorrotorik gabe, gure ondorengoek informazio guztia izan behar dutelako beren iritziak osatzeko.*
- *Nik uste dut norberak bere biktimak dituela, argi eta garbi. Hau da, asko sufritu da herri honetan, Andoainen bertan jende askok sufritu du, baina arrazoi desberdinengatik. Eta bakoitzak bereari begiratu dio orain arte. Sufrimendua badago, nik sufritu dut, sufrituko zuen Pagazaren arrebak, besteak, baina jende konkretu horretaz gain, uste dut Andoainen sufritu duela herritar orok. Hau da, atxilotzen badute nire lagun bat, edo hiltzen badute Irunberrin nire lagun bat, edo Joxe Ramon Ansa hiltzen badute, nik ere sufritzen dut. Sufrimendua ez da familia batena edo lagun koadrilla batena edo... Nik uste dut sufrimendua oso zabalduta dagoela. Andoainek milaka shock bizi izan ditu, Joxe Ramon Ansa akabatu zutenean edo Pagaza akabatu zutenean, herritarrak, ez haien familiak bakarrik, haien lagun sarea, herritarrak uste dut biktimak ere bagarela. Zenbat jendek negar egin duen, izan gabe aita, ama, alaba, laguna... Terriblea da. Andoainen bezala seguru aski Euskal Herriko herri askotan. Ondo egin den? Gutxi egin den? Apenas ez den egin? Bakoitzak bereari, berea zaindu du, bere familia zaindu du, bere kolorea zaindu du, bere babesa eman dio jende horri eta besteari. Ez duzu begiratu, niri ez dit minik egin Pagazaren familiak ze sufrimendu izan duen, konsziente naiz sufritu dutela, baina sufrimendu hori urrutikoa da, sentsazioak niri ez dit minik egiten.*

Belaunaldi berriei transmisioa nola egin? Gorrotorik gabe bizi

- *Seme-alabei ez diegu gorrotorik transmititu. Eta gainera guk, ez dakit, baina gurasoek edozein atentaturekin beti mina izaten zuten, edozeinekin, e? Igual zen kanpokoia izan, batena izan bestearena... guk gurea pasako genuen baina gurasoek asko sufritu dute. Konturatzen zara aurrerago, urteekin... hori zen normalitatea. Beharbada... gu gazteak ginen eta haiek ziren gurasoak, eta haiek ikusten zuten ba beste mutil bat hiltzen bazuten, bai alde batekoa edo bestekoa, haien etxean ere. Aitak beti esaten zuen: "haien etxean ere ederrak pasatzen egongo dira". Etxean pasatakoa gogorarazten zion, guardia zibila bazen edo ETAKoa bazen, "ariko dira pasatzen". Horixe esaten zuen.*
- *Putasemerik handienak ere badu maite duen ama bat.*

- *Uste dut bakoitzak bere eran bizi izan dituela gertakariak baina, esan ohi den moduan, gertaera enpirikoak direnak dira, ezagutzen ditugunak: horrenbeste pertsona erail, horrenbeste pertsona hil, horrenbeste tortura... Hori guztia, gertatu den guztia... horren guztiaren inguruan askoz gauza gehiago daude, familia asko, min handia, indarkeria asko guztia blaitzen. Zaila da hori guztia transmititzea. Eta emaitza gisa atera behar da ez zegoela arrazoirik egin zena egiteko. Ziur nago hori geldituko dela memorian, ez zegoela justifikaziorik gizaki bat hiltzeko.*
- *Gertatutako guztia kontatuko diot alabari, baina harengan gorrotorik sortu eta errudunik bilatu gabe. Jakin behar du zer gertatu den, baina baita ez dela berriz gertatuko eta ezer baino lehen pertsonak garela jakinda, eta hortik aurrera edozer gauzaz hitz egin daitekeela eta hainbat gauza egin. Gertatu zaigun guztia jakitea nahi dut. Etengabe egon behar dut erne nire beldurak eta sentimenduak ez hari transmititzeko.*
- *Eta orain! Dena ahaztu nahi, ezer gertatu ez balitz bezala? Edo ETA eta bere mundua dira hori lortu nahi dutenak, biktimismoa beren alde erabiliz? Ezkutatu nahi gaituzte, gure mina eta haiek egindako hilketak ezabatu, aitzakia gisa erabiliz haiei historiak, Francok, Estatu Espainolak... ez diela uzten burujabe izatea erabakitzen. Politikariak hiltzen hasi zirenean bakarrik hasi ziren azkenok zerbait egiten. Ordurako gertatuak ziren erailketa asko jada, baina politikariek ez zuten gurekin hitzik ere egin. Boterea duten edo nahi duten guztiek manipulatu izan dituzte biktimak, hauteskundeetan edo beste nolabait etekina ateratzeko asmoz. Ahal bezain gutxi azaltzen saiatu gara.*
- *Bi alaba ditut, 18 eta 20 urtekoak. (...) Ni joan naiz gauzak pixkanaka esaten, pixka bat pentsatzeko, etortzen zirenean zerbaitekin pixka bat erantzuten: "ez al zaizue iruditzen hau eta bestea ze..."; pixka bat pentsaraziz. Ez dakit lortu dudan, baina bai. Bestearen tokian jartzea, ezta? "Ez dago eskubiderik" esaten zidaten, eta ba al dago beste hau egiteko eskubiderik? Ni saiatu naiz.*
- *Esan beharko genieke gatazka honetatik haratago ere badagoela bizitza, eta denok ikasi eta gure historiaren zati hori gainditu beharko genukeela, eta orain arte izan garena baino buruargiagoak izan, gizarte sanoago bat eratzeko eta helburuak betetzeko indarkeriarik gabe. Ahalegin bat egiteko eskatuko nuke, inork kikildu eta isilarazi ez gaitzan. Garrantzitsua da Hirugarren Munduko Giza Eskubideak defendatzea, baina lehenik inguruko ezarritako arduratu behar dugu. Estamentu politikoen hipokresiaren aurrean erreakzionatzea, Elizak urte haietan erakunde gisa egin zuenaren aurrean...*
- *Haurrei azaldu behar zaie ezin dela inor hil ideia batengatik. Hori da, azkenean, garrantzitsuena, ezin dela bide horretatik joan, inola ere.*
- *Zaharrenari esaten diot bere idealak argi izan behar dituela, eta inork ez duela inor jotzeko eskubiderik, eta are gutxiago hiltzeko eskubiderik, gauza jakin bat pentsatzen duelako. Beti hitz egin daitekeela, baita eztabaidatu ere, ez duzula zertan nirekin ados egon behar, baina horrek ez dizula inori min egiteko eskubiderik emango. Eta ez bada adostasun batera iristen, ba errespetatu egin behar dela, nik zure jarrera errespetatzen dut; errespetatu zuk nirea. Ni zure eremua errespetatzen ari naiz; errespetatu zuk nirea. Txiki-txikitandik.*

Behar bezala gogoratzeko proposamenak

- *Memoria komun batek asko lagundu dezake.*
- *Hasi behar dugu gertukoekin esperientziak konpartitzen, aitortzen elkarri mina, eragindakoa. Horregatik, esan zenidanean ez nuen zalantzarik izan, benetan sinisten baitut gauza*

hauetan. (...) Iruditzen zait oso txalogarria dela, baten omenaldia dela edo bestea dela, han egotea. Eta gauza hauek aukera ematen badute elkartzeko jendea, Erreterian egin den bezala, konpartitzea esperientziak, minak, elkar ezagutzea... ni ados nago.

- *Uste dut asko egin dugula aurrera. Duela 20 urte inork ez zuen hitzik ere egiten, biktimak guztiz ikusezinak ziren. Baina duela 10 urte ez horrenbeste, eta orain are gutxiago. Bai, aurrera egin da, baina uste dut gehiago egin behar dela. Erakundeak lider izan daitezke gauza batzuetan, egiten ari diren gauzetako batzuetan, baina, nire ustez, mezu argi bat bidali behar dute batez ere, adierariz ez zegoela ez arrazoirik ez justifikaziorik jendea hiltzeko proiektu politiko bat inposatzeko edo inposatzen saiatzeko helburuarekin. Hori da entzun behar den mezua. Baina entzuteaz gain, sumatu ere egin behar da, ikusi. Adibidez, Donostiako alkatearen mezua ETari eskerrak ematen zizkioten pintadak ikusi bezain pronto. Berehala kentzeko esan zuen, ez zuela inolako zentzurik, eta horrelakoak. Mezu argia da, berehalakoa, eta zalantzarik uzten ez zuena.*
- *Ez dut uste oso garrantzitsua denik gauza guztiak agertzea, beste batzuek baietz pentsatzen duten arren. Esan daiteke: hau guztia bildu da eta askoz gehiago ere badago, honetaz gain egon delako bere denda itxi behar izan duen jende asko edo dendan pintura bota dioten jendea. Ni barruan nengoela gertatu zen behin, greba egun batean denda zabaldu zutelako. Gauza bera egin duen jende asko egon da, taberna asko... Eta askok ordaindu behar izan dute, ez zirelako ausartzen ezetz esatera itsulapikoa pasatzen zutenean, beldur zirelako. Eta horrez gain, batzuek estortsioa jasan dute, eta ez dute inoiz kontatuko, ez dutelako kontatu nahi. Eta beste batzuek bestelako mehatxuak jaso dituzte, baina ez dut horri buruz hitz egingo, orain ez dator harira eta. Ez da horren garrantzitsua den–dena jasotzea, garrantzitsuagoa da guk jakitea egon badagoela gehiago baina jasotakoa behar bezain adierazgarria dela zer gertatu zen jakiteko. Ez genioke horrenbesteko garrantzi eman behar dena zehazki jakiteari, garrantzitsuagoa da esatea: begira, hau gertatu zen, eta baita gehiago ere, eta hau ez dugu jarriko, baina gure historiaren parte da nolana ere. Dakigunarekin nahikoa da jakiteko mehatxatu egin zela jendea isilarazteko, edo jendeak une askotan beldurra izateko, eta beste batzuetan isilik egoteko, ez zuelako konpromisorik hartu nahi, eta beste batzuetan, beste gauza batzuetan bezala, beste alde batera begiratzeko.*
- *Bai, udalak gehiago egin beharko luke eta ikastetxeetan ere egin beharko litzateke. Baina nik ez dakit irakasleek oso, ez dakit, oso... inplikatura ikusten dituzten gizarte gaiekin. Duela urte batzuk, lau urte–edo, egin genuen bideo bat Andoaingo ume erbesteratuei buruz. Diru laguntza bat eman ziguten eta pentsatu genuen, dokumental bat egingo dugu testigantzak jasotzeko, ezta? (...) Bai, artxibategitik. Aurkeztu genuen proiektua, ikusiz DBH4ko gai bat zela, Gerra Zibila eta horrela, horren inguruan erbesteari buruz, eta hitz egin genuen lau pertsonarekin, Andoaingo gerra umeak izandakoak, eta beren bizipenak kontatu zizkiguten. Ondo atera zen eta emanaldia egin genuen Basteron, ordubeteko dokumental bat, eta bukatu zenean ikusleek txalo zaparrada jo zuten, zaparrada ikaragarria. “Los pelos de punta” jarri zitzaizkigun nire alaba zaharrenari eta bioi. Jende ezaguna ikusi zuten: “si es la abuela de no sé quién”. Geroztik ez dute berriro eman. Ze da gauza bat urtero egin zitekeena. DBH4 mailan. Eman genien kopia bat eta lehenengo estrenora etorri ziren, eta egin genuen emanaldia beraientzat eta... ze ematen da (klasean), curriculumean dagoen gai bat da.*

Atzo iritsi zitzaidan whatsappetik. Nafarroako Gobernuak txango moduko bat egin du ikasleekin Ezkabako gotorlekutik hasita, iheslariak eta abar. Bide osoa, ez dakit zenbat ordu izan ziren. Gero iritsi zirenean Urepelera esan omen zuten: “jode, oso gogorra izan da eta ezin da

konparatu zer egoeratan egin zuten haiek". Gaua pasatzea eta dena. Nik uste dut horrelako gauzak egin behar direla, perspektibarekin. Edo denbora gehiago behar dugula gauza batzuetarako? Igal hori, ez dakit, baina.

- *Hezkuntzan sartzea ezinbestekoa da, baina denetarako, ez bakarrik indarkeriaren gaia jorrazteko. Gero eta beharrezkoagoa iruditzen zait, hori delako haurrei balio jakin batzuk irakasteko gunea. Uste dut alderdi horretan asko aldatu dela gauza. Baita Hezkuntza Saila bera ere, inplikatu egin da eta jendea eraman du hitz egin eta indarkeria guztien berri izan dezaten.*
- *Nik bizi izan dudana kontatu diezaioke, baina ulertzen dut beste batzuek bizi izan dutena ere kontatu beharko dutela, guztia ondo ulertzeko. Nik nire mobida bakarrik kontatzen badut, ez zara inpartziala, alde bakarrean gertaturikoa kontatzen ari baitzara. Guztia ezagutu behar dute, bestela, nola jakingo dute zer dagoen ondo eta zer gaizki, pertsonatxoak izan daitezten lortu behar dugu.*

Memoria lekuen kontrako erasoak

- *Aurrena jarri zan gurutze bat, goatzen naiz, burnizko bat lauburu batekin, hua puskatu in zuten, bi aldiz puskatu zuten, e? Bi behintzat bai, harri bat masakin jarrita ta hua puskatu in zuten. Bi seguru, ta bat uste det Zapa hil zuten egunean, nola hil zuen gau hartan, ta hoi zan urtebetea. Beste behin spraykin jarri bat "hijo puta" ta holako batzuk, puskatu ez baino... ondorengo urtetan. Hoi gertatu baino lehen, ez dakit udara bat zen edo, gu terreno batzuk ginun meta belarrakin ta haiek erre egin zittuen.*
- *José Luis López de Lacalleren parkea inauguratu eta hilabetera gorritz eta horiz pintatu zuten.*

ASKATU BEHARREKO KORAPILOA

Zein da egoera? Zer oroitzen puntu daude? Jarrera oso kontrajarriak daude biktima izateagatik jendaurreko aintzatespen bat nork merezi duen erabakitze garaian. Nola egin omenaldiak, oroitzenak, Udalaren papera, herriko memoria lekuak, Andoaingo biktima guztiei memoria leku komun bat eskaintzeko aukera... iritzi desberdinak daude.

2002ko apirilaren 18an, PSE-EE, EAJ eta PPren aldeko botoekin, eta HB eta EAren kontra-koekin, Udalak hilerrri zaharra zegoen lekuan eraikitako parkeari José Luis López de Lacalle izena jartzea onartu zuen, askatasunaren aldeko biktima guztien oroigarri. 2010eko azaroaren 10ean, ezohiko osoko bilkura batean, Andoaingo PSE, EAJ, EB eta Hamaika bat alderdiek –artean ezker abertzalea legez kanpo zegoen– Eusko Jaurlaritzak "Memoriaren Eguna"ren harira eta biktimen omenez onarturiko adierazpen insituzional bat berretsi zuten aho batez. Ekitaldi horretan, eta "A la libertad – Askatasunari" eskulturaren inaugurazioan, udalerrian atentatu baten ondorioz hildako zazpi pertsona omendu ziren, bost ETaren biktimak, eta bi Batallón Vasco Español eta Triple A taldearenak. Azken horiek ere hor sartu izana "aurrerapauso"tzat jo zuten adierazitako indar politikoez, nahiz eta jakitun ziren Triple A taldearen beste biktima bat ere sartu behar zela: David Salvador Bernardo.

Memoria lekuak

- *Ez dituzte biktima guztiak aintzat hartu nahi bihotzetik. Autokritika egin behar da herrian bertan, baina ez justifikazio gisa. Hau edo bestea egingo dugu guztiengatik, eta denak joan. Sektarismorik gabe.*
- *Ikuspegi sozialetik aintzatespen bat egin zen, guk egin genuen, José Mari Olazabalen omenez; aitak pobreen ministro deitzen zion. Andoaingo seme kutun izendatu genuen. Ikuspegi sozial eta politikotik ez da egon pertsona zehatz bati eskainitako aintzatespen espliziturik, baina guk bai egin genuen, ikuspegi batetik: José Luis López de Lacalleren parkea, adibidez, EAJren parte-hartzearekin egindako aintzatespen bat da. HB edo hauek kenduta, gainerako alderdi politiko guztiak parte hartu zuten. Monumentua egin zen, guk sustatu genuen, baina tira... José Luisenak inpaktu handia izan zuen, konturatzeko bazarete monumentu bat ere badago eta. Egin genuen lehenengo gauza izan zen, Gabarainek egin zuen zehazki, harrobira joan eta arroka bat eskatu, eta “L”a egin genuen, “Libertad” adierazteko. Horixe izan zen egin genuen lehenengo gauza.*
- *Monumentu desberdinak dira. Batetik “L”a dago, José Luis López de Lacalleren, eta bestetik parkea dago, zazpi zuhaitzena. Bereizteagatik diot, zeren eta batzuetan... Hilerri zaharra zegoen bertan, eta parke hori sortu zenean, ez zuen izenik. López de Lacalleren izena jarri zitzaion, monolitoa jarri zelako bertan, “L” bat duen arroka bat, baina apur bat aparte, hilerriaren sarrera zegoen lekuan. Gainera, beste monolito bat ere eskatu zen Andoaingo biktima guztien oroimenez, eta zazpi zuhaitz desberdin landatu ziren. 2010ean inauguratu zen. Ekitaldi garrantzitsu bat egin zen, Patxi López etorri zen. Ezker abertzalea legez kanpo zegoen eta orain ez dute leku hori onartzen, garai hartan ez zeudelako Udalean. Biktima guztiak aintzat hartzeko egin zen, ez dut ulertzen nola jar daitezkeen trabak osoko bilkuran erabakitako lekuagatik.*

Guk, Andoaingo alderdi sozialistakook, uste genuen lehenengo leku berean egiten jarraitu behar zela, Jose Luis López de Lacalle parkean. Baina ez parke hori José Luisekin erlazionatuta dagoelako, baizik eta hori delako zazpi biktimen omenez zazpi zuhaitzak landatu ziren lekua. Elkarbizik ere ekitaldi bat egiten du urtero parke horretan, eta gu ere joaten gara, baina ez da lortu ekitaldi propio bat egitea Udal moduan, maila instituzionalean.

- *Josebaren eskulturaren aurrean bi omenaldi egiten dira. Bata da alderdi sozialistak egiten duena, eta bestea familiak, Maitek-eta egiten dutena. Udalak ez du ezer egiten. Partiduak eta familiak.*
- *ETAren eta inguru politikoaren kondena ez dagoen bitartean eta zuriketa dagoen bitartean guk gure memoria gunearen errespeto osoa eskatzen dugu (Pagazaurtundua sendia).*
- *Nik badakit bakoitzak bere guneak dituela, baina guk Jose Luis Lopez de Lacalle gune horri ez diogu ematen gurea denik, baizik eta udalak bere bilkura batean onartutakoa. Beraz, udalarentzat dagoen gune aproposena da. Horrek ez du esan nahi gero bakoitzak alderdi mailan nahi duena egin ezin dezakeenik, baina hori da momentu honetan memoria egunean udalean jartzen den eragozpen handiena. Eta bestea ez du alderdi politiko batek egiten, egiten du herri plataforma batek [Elkarbizi], eta deialdi zabala egiten du. Deialdi zabal horretara, Mari Paz Artolazabal eta Blanca Villafañe etorri izan dira, eta aurten, azkenekoa, inork abisatu gabe, periodikoan irakurri zuelako, Ansa baten osaba*

azaldu da. Guk bi gauza inportante egin ditugu, nire iritziz, zentzu horretan: bata da erabakitzea fusilatuen omenaldia eta eskultura egitea, eta non egitea, nahiz eta gerora Oroituz taldeak bereganatu duen kontu hori, baina hori udalaren erabaki bat izan zen. Eta bestea, Jose Luis Lopez de Lacalle gunea, hori erabakitzea, eta uste dut bi inguru horietan, bi gune horietan egin behar direla bizikidetzaren arloan egin beharreko pauso denak.

- *Eskultura hori jarri genuen plenoan onartuta dagoelako: “Parque denominado José Luis Lopez de Lacalle, en memoria y representación de todas las víctimas por la libertad”. PSE ibili zen aurrea, eta planteatu zuen Bastero kulturaguneari Jose Luis Lopez de Lacalle izena jartzea. Guk [EAJ–PNV] esan genien ez zitzaigula ondo iruditzen, zeren eraikin hori beti izango da Bastero eta pena izango litzateke izen bat jartzea eta ez erabiltzea. Gero egon zen herri mailan postura bat, firmak eta biltzeko, omenaldi bat edo eskultura bat egiteko. Ibili ziren Eugenio Ariztimuño eta Gotzon Etxeberria. Ez zuten lortu babesik eta orduan planteatu zuten eskultura bat egitea. Mozio bat aurkeztu eta esan genion: guk mozio honi baietz esango diogu baina baldintza honekin: izan dadila Jose Luisen izena besteen ordezkari, denen ordezkari, askatasunaren alde hildako guztien oroimenean, eta Jose Luisen izena jarriko diogu. Baldintza horrekin onartu zen hori. Guk beti esan dugu, egin behar baldin bada zerbait, hor egin behar dela, horretarako daukagula plenoan aprobaturik. Eta gero memoria egunerako, udalak egin zuen lehiaketa antzeko bat, eta enkargatu zion, hori guk bultzatuta gainera, Gotzon Etxeberriari. Honek egin zuen eskultura, “Askatasunari”. Eta ez dakit diren zazpi, zazpi zuhaitz desberdin Andoainen erailda-koen oroimenez.*

Pegak eta zailtasunak

- *Ez zait ongi iruditzen telebista dagoenean bakarrik agertzea; argazkia atera... eta gero joan egiten dira.*
- *Pagazaurtundua familiarekin nik uste dut hor ere zaila dela egitea, hori ulertzen dut zaila, zeren aprobetxatu nahiko dute edozein ekitaldi. (...) Agian partiduak antolatzen duenera joatea edo udaletxe bezala antolatzea, hori egin zezakeen. Familiakoekin, ezer ez, horiekin... ze izango da jasotzeko. Nik uler dezaket minduta egotea, hori zilegi da, baina nik uste dut gaia erabiltzen ari direla beren onerako. Adibidez, ez diote uzten alargunari bere bizitza jarraitzen, ezta? Jarraitu behar du bizitzak, emakume horrek jarraitu behar du bizitzen, ezin da denbora guztian... eta nire ustez hor dauka sartuta, sartuta... gu hemen, gu hemen... eta hori ez zait ondo iruditzen, hori ez zait ondo iruditzen. Eta bi semearen-tzat ere hori ez da ona. Beraiengan pentsatzen, e? (...) Azkenekoa esan zidaten Logroñon bizi zirela; hemendik joan ziren Donostiara bizitzera.*
- *Hori gainditzea momentu honetan oso zaila da. Zergatik? Azkeneko gertaera ikusi dugulako, elkarbizitza eta bizikidetzaz aurrera eramateko aurreneko gauza egin behar dena da gertatu dena onartu, eta gero saiatu gauzak normaltasun batean egiten. Oso zaila da, nik hori badakit, oso zaila da eta Andoainen zailagoa. Baina hori egiten ez badugu, pertsona batzuk kartzelan egon, epaile batek baimenduta edo ez, baimenduta igual zait, horrelako ekitaldi bat egiten badugu... hori bizikidetzaren aurka doa. Bide hori ez darama inora. Horrek eramaten gaitu, gauzak zatituta baldin badaude, zatiketa mantentzera, zatiketa hori ez haustera.*

- *Pagazarena PSOEk egiten duenean joaten naiz, aurreko urtean ere joan nintzen eta aurreten ere egon naiz, baina ni Maitek bere kabuz egiten duenera, Fernando Savater eta jende horrekin, ez noa. PSOEk egiten dio omenaldi bat, eta ni PSOEk egiten dion omenaldira joaten naiz. Korapilo bat dago, askatzen oso zaila... eta korapilo horrek berak ere niri zenbait momentutan alderdi honetan arazoak sortu dizkit. Ni prest nago arazo horiei aurre egiteko eta aurrera begiratzeko.*
- *Egia esan asko begiratu dugu beste alde batera, hori egia da. Niri, adibidez, asko kosta zait José Luis de Lacalleren omenaldi batera joatea, ez nintzen joaten, eta sentitzen nuen, gainera Mari Pazen laguna nintzelako, baina ez nintzen joaten jende batekin ez elkartzeko. Ezin nuen joan... eta joan nintzen lehenengo aldian zinegotzi sozialistak sekulako hitzaldia bota zuen; hori ez zen López de Lacalle omentzeko izan, mitin sozialista botatzeko baizik. Eta, noski, ia alde egin nuen, baina gero deitu egin nion eta berarekin egon nahi nuela esan nion. Eta hitz egiten aritu ginen, eta negar egin nuen zinegotziarekin. Mari Pazekin egona nintzen. Negar egin nuen eta esan nion: horixe gertatu zait, bai, horixe. Izugarri sufritu dute, baina mitin sozialista batera joan nahi badut, bada joan egiten naiz, eta hara banoa omenaldi bat egitea nahi dut. Berak eskertu egin zidan eta asko hunkitu nintzen. Mari Paz ere deseroso sentitu zen, ez baitzen ari José Luisi buruz hitz egiten, baizik eta alderdiaren mitin bat botatzen. Mari Pazek adore handia izan du. Baina beste gauza bat esaten dizut, ni baldin badago Maite ez noa, ez noa. Ze, nire ustez, haren anaiaren kontura ari da karrera egiten, oso orokorrean, eta niretzat zera da..., benetan. Eta egunen batean Savaterrekin egingo banu topo, aurrez aurre, pare bat gauza esango nizkioke. Mina arintzeko horrenbeste gauza egiten saiatzen ari diren une honetan, jendea adiskidetzeko, ezin da sua pizten ibili, Andoain erdia salatzen eta iraintzen ibili.*
- *Nik ulertzen dut Udala ez joatea Pagazaurtunduaren omenaldira. Ezin du joan. Ezin da Andoaingo jendea seinalatu eta pertsona gaiztoak garela esan, ezin da joaten ez den mundu guztia eraso. Ez al dira konturatzen zergatik joaten garen batzuetara, esaterako Lacallereñera, eta ez beste batzuetara? Zergatik ez diete beren buruei galdetzen zer gertatzen den bertan ez joateko? Zerbait gertatuko da, ez? Nik uste dut arazoa haiek dutela, eta haien hizkerak, haien agresibitateak, sua pizten duenak... Ze, adibidez, Marixabel Lasak edo Mari Paz Artolazabalek adore handia dute, egin behar dutena egiten dute, baina ez dira oldarkorak, argi dute elkarrekin bizitzen ikasteko urratsak eman behar direla... Guk, alde honetan egon garenok, afektua erakutsi behar diegu, aitortza eta maitasuna, afektibitate hori erakusteko betebeharra dugu.*

Proposamen garaia. Memoriarako leku bateratu bat?

- *Nahi duenak egin ditzala bere omenaldiak, baina maila instituzionaleko ekitaldi bat egin beharra dago. Terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guztiak integratuko dituen egun bat.*
- *Beste leku bat behar da biktima guztiak gogoratzeko, baina maila instituzionalean. Ez Lacallek bere lekua, edo Pagazak berea. Suontzi bat guztientzat, leku komun bat gertaturiko guztiaren oroimenez.*
- *Niri hor iruditzen zait kristoren akatsa egin dela. Nik uste dut José Luis López de Lacalle, parke horretan dago alde batetik eskultura edo harri hori, eta gero hildakoen zuhaitz hori,*

eta nire ustez bai Josebaren Etxeak eta bai behekoak hor goian egon behar zuten. Hemen gauzak egiten dira "a demanda", eta udalak behingoz bere iritzia—edo eduki beharko luke. Ze hobeto, José Luis López de Lacalle zen, leku hori kanposantua zen lehenago. Nik uste dut hori zela "un sitio para honrar la memoria de todos los andoaindarras. Y hacer esculturas a los que murieron de manera injusta o de manera violenta" eta... los fusilados, algunos fueron fusilados, ahí mismo gainera. Así que el argumento de que la mayoría eran de Etxebarrieta, eso es una chorrada como un templo, baina nola Oroituz—ek esan zuen, Oroituz... bai baina ordaindu al du eskultura? Ez, ba orduan zer. Zeinek jartzen du eskultura? Herriak erabakitzen du.

- *Danak berdin tratatu, biktima guztik. Denak berdin izan ezkeo bai (eroso). Xumea dan bitartian... denak berdin tratatu ta xumea.*
- *Nik ez dut sentitzen omenaldi beharrik. Gogoeta bai, denak berdin. Gertakizunak hor daude, eta jakin behar dute atzetik datozenek zer gertatu den, baina adostasun bat egon behar du. Ikuspuntuak ikusi, analizatu eta ikuspuntu hori onartu, baina denak. Hor ez dago kolorerik. Hilketa denak beltzak dira, ez dago kolorerik.*
- *Horri izena aldatu beharko liokete, baten izena ez, ez harena eta ez guria. Nik ez dut nirea bakarrik nahi. Dena denena. Gune berean denok. Bai.*
- *Zuhaitza, arbola jartzea, inizatiba hori ez dakit nondik datorren, eta nik errespetatzen dut. Ez daukat inongo eragozpenik, e? Ondo biziz gero, bakean bizi bagara eta errespetuz, berdin zait harria jartzen bada, besteei arbola eta beste lorea. (...) Nik uste dut oso pertsonala dela.*
- *Gu publikoan azaldu eta aurpegia ematea ez, baina denak batera egitea ondo iruditzen zait. Beharra? Igual bakea ematen dizu.*
- *Berez, guk beti alderdi bezala [EAJ–PNV] defendatu dugu Lopez de Lacalleren hura dela biktimen parkea. Hemen, udaletxearen ondoan jarritako zera... Pagazarena, hori guk ez dugu... horren kontra egon gara beti, alderdi bezala. Niretzat, biktimen errekonozimendu forma guztiek tokia dute Lopez de Lacalle dagoen parkean. Gerra garaikoa behean dago, diferentziatuta, baina bestea da gerra edo epoka berdinekoa, eta orduan horrek egon beharko luke, nire ustez.*
- *Errespetuz esanda, Josebaren Txokoak lur publiko bat pribatizatu eta okupatu du. Ekin-tzen bidez inposatu da, nahiz eta arrazoia... hilketa... ba ez zen inoiz gertatu behar izan. Errua ETArena da, hori horrela da, baina familiak eta Udalak irteera bat adostu beharko lukete, eta lur horren jabetza herri osoari laga, ezin baitu bakoitzak bere "hilerri pribatua" izan Andoain barruan. Triple Aren hildakoek eta ETaren gainerako hildakoek ez dute oraindik monolitorik... Eta zer egingo dugu? Monolito bat edo eskultura bat jarriko dugu herriko biktima bakoitzarentzat: hildako, bahituriko, torturaturikoentzat...? Hala balitz, ez dadila egon bitartekoen eta lursailen diskriminaziorik.*
- *Okurritzen zait orain bat–batean, Andoainen zerbait aldarrikatzen denean udaletxearen aurrean elkartzen garela, izan pentsioen gaia, izan, nik zer dakit, Madrilgo atentatua, izan emakumearen aldeko aldarrikapena, Goiko Plazan elkartzen gara. Han ez dago inolako oroigarririk, udaletxe aurrera ateratzen gara. Hasteko, agian ez da gunerik behar,*

- igual nahikoa da azaroaren 10ean deialdi bat egitea eta hor elkartzea. Agian ez da beste gune bat behar, igual nahikoa da elkartzea aldarrikapen bat dagoenean. Goiko Plazan elkartzen gara eta ez dago ezer sortu beharrik. (...) Gune berri bat? Horren aldekoa ere ez naiz, sortu, sortu, ez naiz horren aldekoa, agian ez dago sortu beharrik. Andoaingo plazak elkartzen gaitu, ezta? Arrazoi desberdinengatik hor elkartzen gara (...) Udalak egin beharko luke, biktima guztien topaketa izan beharko luke.*
- *Uste dut José Luis López de Lacalle izeneko parkean, "Libertad" adierazteko "L" a ez baina bai han jarri zen eskultura, biktima guztien omenez jarri zela. Uste dut hori dela leku komuna. Azaroaren 10ean han egiten da. Ni ere joaten naiz. Han egiten da hura delako, nire ustez, biktima guztiak aintzat hartzeko lekua, baina beharbada, ez dakit oso ongi nola, dotoretasun gehiago eman beharko genioke. Arratsaldean antolatzen dute, eta beraz, joan zaitezke, zeren eta eguerdiko hamabietan egiten dutenean, baimena eskatu behar izaten dut lanean, Mari Pazekin eta José Luisekin dudan loturagatik. Lortu beharko litzateke jendeak benetan sentitzea hori denontzat dela. Agian dagoeneko ezarrita dagoen ekitaldi hori aprobetxatuz, biktima guztien omenez egiten den ekitaldi hori, adierazpen instituzional bat baino zerbait gehiago egin liteke. Ez dakit, erakusketa bat egin daiteke adibidez. Pentsatzen dut hau oso neketsua dela, eta Andoainen oso neketsua izango dela oraindik ere, baina agian egin daiteke. Memoria egitea gertatu zena kontatzea da. Bidegabeki sufritu zuen jendeari aitortpena egitea oso ongi legokeela jakinarazi beharko genuke. Nola lortu hori? Ongi legoke ulertaraztea biktima guztientzat dela eta haratago dagoen zerbait egitea, agian ez egunean bertan, asteburuan baizik, zerbait egitea han. Ez legoke gaizki. Ahal dela era bateratuan egin beharko litzateke... gutxienez deialdia.*
 - *Memoriaren gune bakar bat egotea, eta guztiek onartzea egokia litzateke, noski. Normalizazio politikoan eta elkarbizitzan urrats esanguratsua litzateke. Egun ez dago adostasunik. Leku bat inposatu nahi dela uste dut, ETaren kontrako borrokan sinbolo izan den lekua ezarri nahi dugutela iruditzen zait. Keinu horrekin, "azkenean hemen zaudete" esan nahi da. Berriz ere errelato bakarraren diskurtsoarekin egiten dugu topo. Memoria partekatua ezin da alde bat baztertuz eraiki den gune batean egin. Egun dagoen parkea, nik errespetu osoz ikusten dut. Zalantzarik gabe. Eta ez dut baztertzen, bertan egiten den ekitaldiren batean parte hartzea, horretarako behar den lana egiten badugu, eta egiten badugu horretan, denok egin beharrekoa esaten dut. Aipatu behar da orain arte inork ez duela lan berezirik egin, saiakera berezirik egin ezker abertzalearekin, horra bertaratu daitezten. Baina hori gauza bat da, eta beste bat da memoria partekatua hori zein sinboloren inguruan egin behar den. Non gogoratuko ditugu ETaren biktimak? Eta GAL, AAA edo Estatu terrorismoaren bestelako biktimak? Baina memoria partekatuan, partekatua bada behintzat, bestelako biktimak gogoratuko ditugu? Tortura sufritu duten andoaindarrak hor kabituko dira? Asko dago hitz egiteko eta adosteko. Egun indar politiko guztiak daude udalean ordezkatuak (PP izan ezik, baina PPK botoak bai baina inoiz ez du egiturarik izan herrian, militante ezagunik... Beti kanpotik etorritako zinegotziak izan dira), momentu ona da, gai hau mahai gainean jarri eta adostasun berriak eraikitzeko.*
 - *Ta hor jartzea La casa de Joseba? Leku egokia zen denentzat, eta nik uste dut denentzako izan daitekeela. Eta polita izango zen hori, ba bestea, hau da, porque es como un lugar sagrado, lehendik ere bai, eta polita izango litzateke, denak batera, ez bakoitza bere hildakoekin.*

- *Gizartea alderdi politikoan aurretik doa horrelako gauzetan. Oso adierazgarria iruditu zitzaidan, eta uste dut adi egon beharko genukeela seinale guztietara. Iaz, Elkarbizik antolatutako ekitaldian, José Luis López de Lacalleren eta Villafañeren senitartekoak etortzeaz gain, Ansaren senitartekoak ere etorri ziren. Eta horrek esan nahi du jada ez gaude la alde batean ala bestean. Uste dut denok izan behar dugula entzuteko eta ikusteko gai. Biktimak leku hori elkargune gisa ikusteko gai badira, uste dut alderdiok ez genukeela kanpoan gelditu beharko, eta maila berean jarri eta gai izan beharko genukeela esateko: gu ere bai. Gure aldetik, ez diogu kontra egingo guztien izenak biltzen dituen plaka bat jartzeari, nahi duguna topagune bat da, izan ere, dirua gastatu zuen Udalak hori egiteko.*
- *José Luis López de Lacalleren izena daraman errealitate bat da, baina biktima guztiak biltzeko ahalegina egiten bada, horren alde ez daudenei dagokie mugitzea. Biktima guztien omenezko monolito bat dago... terrorismoaren biktimen omenezkoa. Monolito handi bat dago, oraintxe bertan ez dut gogoratzen. Leku horretaz hitz egiteko garaian jende gehienak hilerri zaharra aipatzen du, López de Lacalleren izena baino gehiago.*
- *José Luis López de Lacalleren familiarekin hitz egin eta erabaki bateratu bat har liteke, herriko alderdi guztien artean, ahalik eta kontsentsurik handiena bilatuz baita herritarrekin ere, eta kale bati José Luis López de Lacalleren izena jar lekioko. Eta hilerri zaharreko guneari beste izen bat jarri, denon artean erabakita biktimen guztiokin errelazionatuta. Parkean "L"aren monolitoa eta zuhaitzak mantenduko lirateke eta berri batzuk sartu falta direnekin. Gai zaila da, baina elkarrizketa prozesu bati ekin lekioko, herritar guztiak integritate sentituko diren posizio bateraino iristeko, eta espazio hori gune komun bat izateko. Familiak eskuzabaltasun handiz jokatu beharko luke, eta kontu handiz aztertu beharko litzateke, zauri berriak ez zabaltzeko. Gerta daiteke gainera bizilagun gehienak esatea mantendu behar dela tokia dagoen bezala. Ezker abertzaleak ere parte hartu beharko luke prozesuan, zenbait keinu egin eta erabakiak hartu beharko lituzke elkarbizitzaren eta adiskidetzaren alde, gainerako alderdiei erabaki berri hori hartzen laguntzeko.*
- *Zaila da. Beste zerbait egitea programatu zen eta erakunde adierazpen batean geratu zen soilik. Lekuak José Luis López de Lacalle izena izateagatik eragozpenak egotea; ni, hala moduz geratu nintzen. Denak ados egoteko zelai batean egin behar bazen, zelai batean egi behar zen. Nik hori uste dut. Ez dut arazorik izango. EH Bildu sartuko litzateke. José Luis López de Lacalleren kontua kenduz gero, sartuko da, jakina. Hor haiena egingo zutelako. Zergatik ari zara niri ezetz esaten? Tontakeria bat dirudi, baina zergatik esaten diozu ezetz leku horri, José Luis López de Lacalle deitzen delako? Hau da, Pepito Francia deitzen bada, ez da ezer gertatzen. Arazoa José Luis López de Lacallerekin daukazu, izenagatik. Zergatik duzu arazo hori? Zer egin du izen horrek? Nik dakidanez, ezer ez; soil-soilik egon zen lekuan egoteko zorigaiztoa hiru tiro eman ziezazkioketen.*

Ongi etorriak

Zegokien zigorra bete ondoren Iñaki Igerategi Lizarribarri eta Iñaki Otaño Labakari otsailaren 18an egindako harreraren ondoren, eztabaida sortu zen era horretako ongietorri ekitaldi publikoak direla eta, biktimei sufrimendua eragin diezaieketelako. Ekitaldia Joseba Pagazaurtundua-ren hilketaren urteurrena izan eta astebetere egin zen, eta kontuan hartu behar da ETako bi preso ohi horiei sei urteko kartzela zigorra ezarri zietela atentatu horretarako eta herriko hiru ertzainaren etxebizitzaren eta ondasunen kontra egindako atentatuarentako informazioa pasatzeagatik⁹⁹. Ez zen egon liskarrik eta Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak ikerketa egin zuen arren, ez zuten jo ongietorrian deliturik egin zenik, Ertzaintzak adierazi bezala, terrorismoa goraipatzeagatik. Udalak argudiatu zuen ekitaldia legezkoa izan zela eta esan zuen tokiko erakundeak ez zuela parte hartu ekitaldian, baina oposizioko alderdi guztiek mozioa aurkeztu zuten gertaturikoari kritika eginez eta horrelako kasuetan jarduteko ereduak proposatu zituzten. EH Bilduk agiri propioa egin zuen.

Askotariko jarrerak daude:

- *Ni orain arte sekula ez naiz posizionatu politikoki Andoainen, sekula, ez alde batera ez bestera. Ez ditut konpartitzen gauza asko bi aldeetan. Gero, Iñaki, azkena askatu duten preso izandako batekin, nire adin berdintsukoa da, gure seme-alabak ikasgela berdinean daude. Kanean ikusi nuenean ongietorria partikularki eman nion, baina sekula ez naiz izan manifestazio zalea, joan izan naiz Elkarriren manifestazioetara, eta horrelakoak egin izan ditut, orain Gure Esku Dago-renak eta horrelakoak. Sekula ez naiz joan ongietorri batera. Orduan sekula ez nuen kuestionatzen, egia esan. Benetan egin zitzaidan... ez nuen konpartitu modua batere, parean jarri izana. Lasaiago pentsatzen hasita, uler dezaket batzuentzat mingarria izatea, ze denok dakigu etortzen direnean poza sortzen dela, normala den bezala. Orduan Andoainen egiten dira herriaren sarrera batean, agian diskretugoa izango litzateke Irunberri aurrean egitea, beraien gunearen aurrean egitea... Ez dut esaten ezkutatzeko, baina pixka bat bai. Pertsonekin kontu pixka batekin jokatzeko gustatzen zait, tratu pertsonalean ere gustatzen zait, eta uler dezaket arlo horretan ere... ez dagoela gaizki arlo horretan ere taktu pixka bat edukitzea molestatu egiten badie edo mina ematen badie, diskrezio pixka batekin egin, Irunberrin, kale nagusia aurrean dutela, egin dezatela, igual ez da ezer kostatzen. Eta ez zentsura moduan, kontu pixka bat edukiz besteen minarekiko kontsiderazio pixka bategatik.*
- *Ongietorriak eta omenaldiak gatazka egon den heinean egunerokoak izan dira gure herrian; espetxera sartu-irtenak izan diren bezalaxe. Azken urteotan ongietorri edo omenaldien inguruan sortu den gatazkak interes politiko bati erantzuten dio. Behin borroka armatua desagertuta, helburua errelato bakarra nagusitu dadin lortu nahi da. Ongietorri horietan, herritar asko biltzen dira, ideologia askotarikoak. Poza agertzen da, normalean, sufrimendu handia pairatu duen jendea eta familiak daudelako inplikaturik; torturatuak, dispertsio gogorra sufritutakoak, familiar zigortuak (umeak, helduak...)... espetxealdian familiako norbait galdu dute askok... eta egoera horrekin bukatzen dela poztekoa eta ospatzekoa dela pentsatzen du jende askok. Hori terrorista gaiztotzat dituztenei jasangaitza egiten zaie, eta maila batean ulertzen dut. Omenaldiekin ez da inor beheratu nahi, umiliatu nahi. Azken urteotan batez ere, tentu handiz egin dira, horrelakorik gerta ez dadin.*

99 Auzitegi Nazionaleko 6. Instrukzioko Epaitegi Zentralaren 7/15 epaia, 2015/03/13koa. Eta epai irmoa 2015/04/17an.

- *Oso zaila da, pankarta eta abar izaten dira batzuetan. Santakruzetan jartzen dira eta nik uste dut ez direla jarri behar. Omenaldiak, ongietorri bat izan zen, gertatzen da gero eman zitzaiola oihartzun handia. Jakina, Iñaki Igerategiren alaba eta nire alaba adin berekoak dira, eta nire alabak joan ziren eta ni ez nintzen joan, baina noski gero Iñakirekin topo egin behar nuen kalean. Nik ez diot esango “oso ondo egin duzu”, baina beste alde batetik zuk pagatu duzu egin duzuna, eta ni pozten naiz bera hemen egoteaz. Nik badakit nola pasa duen bere andreak eta nola pasa duten bere bi alabek, sei urte joan eta etorri, joan eta etorri, joan eta etorri, eta aitarik gabe bizitzea eta hori. Nik badakit hori eta uste dut ordaindu egin duela. Eta niri pertsonalki ondo erortzen zait eta da pertsona bat ondo erortzen zitzaidana lehen, eta ez zitzaidan ondo iruditu zer egin zuen, baina ni ez naiz hasiko epaitzen edo ez diot ezer esango, galdetuko balit esango nioke, baina ni ez naiz inor. Eman nizkion bi muxu eta ongi etorri esan nion, barrutik hori atera zitzaidalako. Bera ere poztu zen ni ikusteaz eta ez dakit nola esan, zer egin behar dugu, gehiago zigortu? Ez, bukatu da, egin du.*
- *Haien lekuan jar naiteke, ETAk herrian utzitako biktimen senitartekoen lekuan, eta pentsatzen dut min emango lidakeela, “Piti”ri bere heriotzaren urtemugan auresku publiko bat egingo balio Heriotzaren Triangeluko biktimen senitartekoei gertatuko litzaiekeen bezalaxe. Are gehiago, protestatu egingo nuke egin ez zedin eskatzeko.*
- *Ongi etorria neri ere egin zidaten. Eta nik ongi etorrian egon nintzen. Eta egongo naiz. Ainhoa Ozaeta etortzen danean ere egongo naiz. Eta Asier Oiartzabal etortzen danean ere... Ea lehenbailehen datozen. Ez zuten ongietorria debekatu. Oso mediatikoa izan da. Nire gustukoak ez baziren ez nintzen joango.*
- *Ulertzekoa da urte askoan espetxean egon ondoren datorrenari familiak harrera egin nahi izatea. Normala da. Baina uste dut ezin dela ongietorri ekitaldi publikorik egin, omenaldi bat egiten ari zatzaizkiolako, jendaurreko harrera bat, denok dakigun arrazoiagatik espetxean egon den norbaiti. Udalak ez du deitzen, noski, ez du deitzen, baina agian zerbait esan beharko luke, ezkutu samarrean hasieran, baina gero ez horrenbeste; izan ere, denbora asko igaro da jadanik. Kartelei buruz adibidez, festetan batez ere. Gauza horietako batzuk egiteari utzi behar zaio, zeren eta bestela, aldaketa ez da sinesgarria. Gauza asko ez dira sinesgarriak izango. Batzuetan, kontua ez da damua aitortzeko ekitaldi publikoak egitea, baizik eta zerbait aldatzen ari dela frogatzen duten gauzak egiten hastea.*
- *Oraindik badaude oztopoak eta horren erakusgarri dira ongietorriak. Niretzat oso fuertea da hori. Niri ondo irudituko litzaidake Herriko Tabernan bildu eta han omenaldi bat egitea, baina kalean? Denen aurrean? Bi pertsona informazioa pasa dutenak eta horrek balio izan duena beste bat akabatzeko! Bizikidetzaz hemen aurrera doa, eta zer da hori? Ez hori bakarrik: PPK kartelekin egindakoa ere atzera pauso bat da. Horrek ez dio batere mesederik egiten bizikidetzari. Azkenean behartu egiten zaituzte nolabait... komunikabideek, politikariek, Legebiltzarrak... behartu egiten zaituzte horretara. Bide egokia da? Ez. Ezin zara inguratzen zaituenetik aparte bizi.*
- *Ez, modu publikoan ez litzaieke egin behar. Hori suposatzen da lagun batzuek egin zietela eta kito, horrela hartu behar da nire ustez. Horrela hartu behar da (...) Kalean izan zen. (...) Ze beraiek ere... nik ulertzen dut eduki baduzu jendea atzetik esaten “gudari bat zara”, eta gero sei urteren ondoren itzultzea eta zutaz ahaztea, tristea dela esan nahi dut, zuk bidali nauzu hau egitera, nik egin dut, nik pagatu dut eta orain zu de rositas, no me haces ni puto caso, hori asko gertatu da hemen.*

- *Ez dakit mina eragin duen ala ez, baina badakit erabili egin dela. Hori arazoa baldin bada eta konpondu egin behar bada elkarbizitzaren izenean, ez da ongietorri egiten eta kito. Egin zen baldintza jakin batzuetan, baimena zegoelako. Ongietorria egin zen, eta ondoren beste harrera bat egin zen, pribatua eta partikularra, ez zelako sute gehiago piztu nahi. Plan-teatuta zegoen bigarren ongietorri bat, herriko plazan, baimena zuena. (...) Bi lagun horiek sei urte egon dira preso urruti, bete dute zigorra, eta zuk eta nik ditugun eskubide berberak dituzte. Nik nire laguna ondo tratatuko dut. Zergatik? Sei urtean jende askok ez duelako ikusi, ez duelako aukerarik izan ezta bisitatzeko ere, ukatu egin diotelako. Merezi du errekonozimendurik, bai ala ez? Nik ondo portatu nahi dut berarekin, merezi duelako, nire iritziz, ez dut esaten horrekin elkarbizitza hobetzen denik. Kasu honetan ez da helburua elkarbizitza hobetzea. Espazio publikoa hiru minutuz erabili zen, ez gehiago, horixe izan zen ongietorria, pankarta bat jarri zen bai, eta beste haiek azaldu ziren ostia bat jasotzera, haien helburua zen ea norbaitek jotzen zituen. Edozein liskarretan, norbait kazetarien artean sartu eta muturreko bat eman dezake, y se arma un follón de la leche. Albistea izan zen gainera jo egin zituztela, hori nahi zuten, eta jendeak oso argi zeukan ezin zuela joko horretan sartu.*
- *Herrian preso asko izan dira eta gaur egun ere badaude. Presoak kartzelatik irteterakoan herrian egiten zaien harreran, ongietorria egiten zaie eta ez dut uste hori omenaldi moduan hartu behar denik. Iruditzen zait egoera hau beste herrietan ere berdina dela. Zoritxarrez, harrerak urteetan egin behar izan dira, eta ez da inongo arazorik izan. Azken garai honetan, berriz, konfliktoko alde batekoek arazoak besterik ez dituzte sortzen, betiere komunikabide batzuen laguntzaz, tentsio handiko egoerak sortuz eta pertsonen eskubideak ukatuz. Komunikabide batzuen jarrera benetan susmagarria izan zen Ttinto eta Igeraren harrera egunean. Herritarren mugimendu guztiak zelatatuz ibili ziren, kamerak bazter guztietatik sartuz, tentsio handia sortu zuten eta hurrengo egunean, preso ohien atzetik ibili ziren eta baten kasuan etxeko atariaren parean orduak eman zituzten, bere mugimenduak jarraitzeko, etxetik irten eta bere atzetik joanez. Harreren bitartez, preso ohiari eta bere familiari eta ingurukoei elkartasuna adierazi nahi diet. Nik uste dut gatazkaren ondorioz egin beharreko harrerak, agurrak eta abar zilegi direla, eta ez direla ezkutatu behar. Kalean denok kabitzen gara eta elkar errespetatu behar dugu.*
- *Josebari omenaldia egin eta hamabost egunera, omenaldi horiek egin ziren; teoriarik, alderdi guztien bizikidetzaren onaren zenean. Harremanak normalak ziren, eta mota horretako ekitaldi bat egin zen. Ez dut esango dena lehertu zenik, baina kezka handiak zeuden, haserreak, alde batean eta bestean. Logikoki, aurrekora garamatza. Pertsona bakoitzak bere bizipenak bizi ditu, pertsona bakoitzak pasatu zaiona dauka eta gu ez gaude pertsona hori ateratzeaz pozten diren familiarterako horien aurka. Ezin hobeto ulertzen dugu. Nik oso ondo ulertzen du familiarterako eta lagun horiek beren lagun maitea espetxetik irteteaz poztea. Orain, hortik publikoki plaza batean edo leku publiko batean omenaldi bat egitea ez. Egin eremu pribatu batean, zure ingurunean. Ulertuko dut. Baina, modu horretan, jende asko sentitzen da berriro irainduta, biktima bikoitza dela, dena zuri itzultzen zaizu berriro. Zuk zure bizipenak dituzu, zuri gertatu zaizun guztia daukazu. Gauza horiek saihestu egin beharko genituzke, hain zuzen ere, bizikidetzaren hori hobea izan dadin.*
- *Uste dut ez diela biktimei bakarrik min egiten, gizarte osoari baizik. Nik, gizartearen parte naizen aldetik, uste dut hori oso gaizki dagoela, harrera horren testuinguruan ETArri eskerrak emateko pintadak egin direlako. Ea, ezetz, ez dagoela atera beharrik ezetz esatera, hori oso gaizki dagoela esatera. Agian inertziagatik egiten izango da, baina norbaitek esan behar du zergatik ari garen eskerrak ematen. Hori oso zaila da, nork bere ibilbidea egin behar duela-*

ko. Asko kostatzen zait zer egin daitekeen pentsatzea, eta bururatzen zaidan bakarra da ez egiteko esatea, eremu pribatuan egiteko esatea. Zer zentzu du harrera publiko batek? Hori da ni goibeltzen nauena, zer pentsatu ematen dit eta ikusarazten dit oraindik ere jende askok justifikatzen duela gertatu zena.

Proposamenak gai honekin

- *Legala bada eta gorrotoaren apologia ez badu egiten, egin daiteke.*
- *Ni egon nintzen ongietorri hartan, baina ikusitakoa ikusirik, uste dut horrelako ekitaldiak era diskretuagoan egin beharko lirakeela, ez jendaurrean. Pertsona maite bat indarkeriaz galdu duten pertsonen min egin diezaiekegula konturatzen bagara, min hori errespetatu beharko litzateke, are gehiago elkarbizitzan aurrera egin nahi badugu. Zentzu horretan, uste dut elkartearen edo antzeko leku batean egin beharko litzatekeela.*
- *Elkartu gaituzen parte guztiak eta hitz egin dezagun.*
- *Koherentziagatik, era horretako ekitaldiak leku itxian egingo nituzke.*
- *Herri honetako memoria egiten ari garena eginez eraiki behar da, hitz eginez. Sufritu dutenek, biktimek, gertatu zaienaren adierazpenak egin eta gauzak argi jar ditzatela. Eta ondoren, horretatik abiatuta, ea zer pentsatzen duen gizarteak. Jende askorekin hitz egiten duzu, eta harrigarria da, badirudi hemen ez dela ezer gertatu. Ez dakit, agian amnesia izango dute, edo agian berriro hutsetik hasi nahi dute. Baina hori egiten badugu, eta gertaturikoa kontatzen ez bada, imajinatzen dut 50 urte barru gerra zibilarekin gertatu zen gauza bera gertatuko dela. Idatzi, grabatu, komunikatu... hori egin behar dugu.*

BIZIKIDETZA

Elkarrizketatuetakoa batek esan bezala, bizikidetza “bakean bizitzea da, eta ez da gutxi”. Hona hemen beste iritzi batzuk:

- *Andoaindarraren arteko elkarbizitza bultzatu behar dugu.*
- *Ez da erraza onartzea, baina gizarteak aurrera egitea nahi badugu eta atzetik datozenentzat etorkizun bat nahi badugu, uneren batean aldatu beharko dugu. Tirorik eta horrelakorik ez egon arren, gorrotoa baldin badago gaur egungo gizartearen gertatzen den moduan, izorrotuta gaude. Egunen batean amaitu beharko du, urratsa eman beharko da.*
- *Garaille sentitzen gara: ez gaituzte iraindu, ez gara izan sektarioak edo hiltzaileak, ez dugu pentsatu beste batzuek diktadura ageri edo mozarrotu baten bidez inposatu nahi ziguten eran, ez dizkiogu inori bere eskubideak kendu gureak aldarrikatzeagatik, nobleziaz jardun gara. Gutariko bat hil dute, baina haren espirituak hemen dirau, librea da. Ez dago espetxeratuta. “Gerturatzea” gustatuko litzaziguke, gure bizitzak partekatzeke, eta eboluzionatu, aukeratu, gozatu, ikasi, partekatu eta abarretarako aukera izan dezan. Baina ikusten ez dudana arren, norbaitek hala erabaki zuelako eta bere ideiekin oso lasai gelditu zelako, hala diote, harro nago ez zuelako beste pertsona bat hil. Heldutasunera iritsi beharra dago, halaxe eskatu zion gure herriari. Bakearen eta Giza Eskubideen errespetuaren bidetik saiatu behar dugu guztia lortzen. Denok sufritu dugu, baina ez neurri berean, gizarteak gogoan*

izan behar du hori: batzuk bizirik daude, baina beste batzuk ez; batzuek albo batera begiratu dute, baina beste batzuek aurrez aurre, bakarrik, ahul egon arren indartuz, eta bala gehiagorekin erantzun gabe, horrela arazoa areagotu baino ez zen egingo eta. Zer gertatu izango zen mendeku bila hasi izan bagina? Gorrotoak gorrotoa ekartzen du, suntsitu besterik ez du egiten. Klase handia behar da maila horretatik aritzeko, eta guk, badugu. Gurasoek irakatsi ziguten, batez ere amak eta amaren aldeko amonak; omenaldi bat haiei, eta nire beste amonari, eta aitonei, eta baita gaixotu arte sufritu duten anaia-arrebei ere. Beti egoten da berpizte bat. Hori opa diet denei. Nire familia aspertuta dago gai honekin. Eta ni ere bai: bizitzak muga jartzen die gauzei, eta bizitza gu gara. Beraz, honaino, baina ikasitakoa ahaztu gabe.

- Nik uste dut aurrera doala, agian mundu horri, ez dakit, ezker abertzalearen mundu horri ez dakit barkatzen zaion ze... Damurik igual ez da ikusten. Nik uste dut liberatu egin direla, borroka armatutik aldendu direla eta hobeto daudela, baina damua, batzuk bai, baina orokorra, orokorra... Publikoan ez da hitz egiten gai honetaz. (...) Sentsazioa, zenbait jenderen sentsazioak, edo beste aldekoak tratatzeko moduan, hor nabaritzen da agian. Errespetua besteei nola diezun, hor nabaritzen duzu, besteak errespetatzen dituenak nik uste dut beste era batean ikusten dituela gauzak, baina errespeturik ez daukanak... hori ez da ezertaz damutu oraindik. Baina sentsazioak dira.
- Ni gaztetan beti behean ibiltzen nintzen, eta orain goian ibiltzen naiz umeak izan nituenean parkea hemen zegoelako eta hemen inguruan gertu dagoelako. Hemengo giroa erdalduna da eta behekoa euskaldunagoa. Baina badago jende asko oso integratuta. Nik uste dut asunto hori ez doala gaizki. Hemen zeuden batzuk... zona bat oso itxia ematen du, baina gero ikusten duzu baten alabak egin duela Magisteritza euskaraz eta bere seme-alabek euskal izenak dauzkatela, eta nolabait integratzen joan dira, ezta? Edo joan direla herrira eta orain Extremaduratik etorritakoak direla azkenak, tira orain azkenak besteak dira, afrikarrak-eta, baina esan nahi dut Espainiatik etorritakoen artetik azkenak direla. Soriakoak azken aurrenak dira eta horiek zeharo integratuta daude. Nire aldetik aitona-amonak Soriakoak nituen, eta haien seme-alabak euskaldunekin ezkondu ziren, eta orduan integrazioa nahiko naturala izan zen. Edo Fileto adibidez, Fileto Soriakoa da, gurasoak Soriakoak dira, eta hori naturaltasunez eraman dugu, bizilagun batzuk Valladolidekoak ziren eta beste batzuk Astigarragakoak, ez dakit. (...) Nire amona-eta Soriakoak izanda, osaba-izebak, ama eta denak Nafarroan jaio ziren, eta etorri ziren gerra garaian eta gogoratzen naiz etxean nola kontaktatzen zen: "Horri aita fusilatu zioten". Nola kontaktatzen ziren gauza horiek, ezta? Nola egin zieten hori, ezta?
- Nik uste det gainditu ingo deula, gaindituko deula.
- Azalpenak emateko, interesgarria litzateke bakoitzaren bidea besteari azaltzea? Ba, ez dakit, ondo egongo litzateke parean jartzea, bai. Baina ez dakit oraindik momentua den edo bakoitzak nola bizi duen ere. Esan nahi dut, bukatu dela... Zer bukatu da? Niretzako konfliktuak jarraitzen du, nahiz ETarik ez egon, Euskal Herrian niri eskubideak ez zaizkit bermatzen. Orduan nik ez dut bukatu konfliktu hori. Nik eta nire herriak ere ez, nire ustez. Nik bukaera ikusten dut autodeterminazio eskubide batekin edo behintzat Euskal Herria independente baten ametsetan. Eta sozialista eta euskalduna. Ez dakit utopia bat den. Lagunduko luke, nik uste dut aurrera jarraitzeko, jendearen perspektiba ere aldatuko luke.

- *Humanoki inoiz ez zaizkit heriotzak gustatu. Ulertzen dut estrategia baten barruan kokatu behar direla, baina armen kontra egon naiz beti. Humanoki mina eragiten digu den–denei, pertsona guzti–guztiei. Ez dut inor ezagutzen poztu denik, eta herri honetan inor ez da poztu besteen heriotzarekin, ez alde batekoak ez bestekoak. Andoaindik begiratuta, haustura bat eragin du harremanetan, Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezalaxe, nik uste. Pertsona ezagunak ziren, egunero ikusten genituen, nire kasuan bat bereziki; orduan, pertsonen artean nolabaiteko gatazka–edo sortu duten atentatuak izan dira. Bestela, estrategian kokatzen ditut.*
- *Pertsonen arteko erlazioak ez ditu Administrazioak zuzendu behar helburu politikoa atzean dituelako, txantaia morala izan daitekeelako horretara behartzea. ETA eta inguruaren kondena ez den bitartean bere oinorde politikoez ez dute legitimaziorik asmakerietarako. Pertsonen artean gertatzen dena, onerako bada, gauza naturala izan behar du. Coviten, GAL eta ETAREN biktimak elkarrekin egin dugu lan, justiziaren alde, inpunitatearen aurka. Erasotzaileek izena dute, ETA, GAL, eta Andoainen edo Hernanin, Batallon Vasco Espainolak izena daukate.*

Bizikidetzarako oztopoak

- *Gorrotoa dago oraindik hainbat pertsonetan.*
- *Niretzat, errekonozimenduaren kontua, denek errekonozitzea maila berean zer gertatu den, barkamena askok eskatu behar dutela eta eskatzen ari direla. Zauriak nik uste dut hasieran horrekin sendabidean jartzen direla, errekonozimenduekin. Ni ez naiz joango inoiz ez dakit zeinen omenaldira, baina ulertuko dut bere sufrimendua, ulertuko dut bere mina, ulertuko dut berak eduki duen gorrotoa. Ulertzen dut, mila gauza ulertzen ditut. (...) Gauza bat da ulertzea eta ikustea, gero oso hipokrita da pentsatzea sufrimendua zurea bakarrik dela, hori ez da erreala, hori pentsatzen duena ez da mundu honetan bizi, ez da Euskal Herrian bizi, azkenean horrek pauso bat ekartzen du, gero beste bat, baina hau oso mantso doa eta oso mantso joango da nire ustez, baina bueno, bidean gaude, ezta? Hori da garrantzitsua, bidean egotea. Ez da lan erraza, ez da lan makala, urte askotako ondorioak daude sendatu beharra, zauri asko dago sendatu beharra, hori ez da egiten horrela: plas! Eta bat–batean txipa aldatzen zaigu denei eta bat–batean beste pertsona bat bihurtzen gara, ze hor ibilbide bat daukagu, bizipenak dauzkagu denok, batzuek modu batekoak beste batzuek beste modu batekoak, eta pentsatzen dut pixkanaka joango dela goxatzen.*
- *Berak bere mina du, eta nik nirea. Baina bere mina ez da nire errua, eta ezta nire mina bere errua ere. Eta azkenean bizilagunak gara, topo egiten dugu... eta ez gara hasiko bada bata bestearen sorbaldan negarrez. Baina gutxienez kaixo esan... hori ez da batere kostatzen... Nik ez daukat, ez, baina azkenean nork bere kalbarioa du. Berak bere borroka duelako, eta nik nirea. Eta nirea da jakitea zer gertatu zitzaion nire anaiari. Eta berea izango da... nik uste... jakitea zer gertatu zitzaion nire anaiari, eta ez nire anaiak egin zuena norbaiti ordainaraztea. Baina beste aldean ere gorroto asko ikusten dut. Esan nahi dudana da gertatu zenaren errudunek, ziur asko, kartzelarekin ordaindu izango dutela seguruenik, baina ez dakit. Ez dakit, baina horrek ere ez du balio. Ulertzen didazu? Hor mendeku eta gorroto apur bat ere ikusten dut, kartzela zigorra bete egin behar delako, eta berdin diolako laurogei kilometrora ala mila eta bostehunera izan. Nork sufritzen du kasu horretan? Familiek. Eta ikusten dut ez direla gelditzen, ez dira gelditzen, gehiago eta gehiago nahi dute, eta nik ez dut nahi inork ordaintzea, nik banekien non zebilen anaia... Nik gauza bakar bat nahi dut: zer gertatu zen jakin eta aitorpena egitea, besterik ez.*

- *Nola konpondu hau? Honi soluzio bat eman behar zaio eta erreferendum bat egin beharko litzateke, orokorrean. Gatazka bultzatzen dute esaten dutenean ezker abertzalekoak direla hiltzaileak, txibatoak... Eta dohain ateratzen zaie. Eta horrek berak sortzen du herrian gatazka, eta zikintzen du herria. Kokatzen dute Andoain ez dakit zer balitz bezala, esaten dute herri terrorista dela... Kontxo, gero hauteskundeak iristen dira eta ezker abertzaleak irabazten du. Zerbait ondo egingo genuen, ezta? Eta Andoain ez da herri abertzale total horietako bat, esan nahi dut, euskara aldetik adibidez txikituta dago.*
- *Benetan lagun onak izan ditut, betikoak, nire ondoan egon direnak, baina beste batzuk koldar hutsak izan dira... Nik beti esan dut, esaten dut eta esango dut eskerrak fedea daukada. Niri fedea pila bat lagundu dit. Baina nik ezin nuen aitagurea errezatu, ezin nuen, zeren eta "barkatu gure zorrak"... Nik barkatzen ditut. Ez, ez ditut barkatzen. Garai hartan ez nituen barkatzen eta benetan... Hori bai, inoiz ez diet ezer txarrik opatu, inoiz ez. Ez dut nahi gorrotoz bizi eta nire seme-alabak eta bilobatxoak gorrotoz bete. Gorrotoa daukan pertsona ezin daiteke zorionsua izan. Eta bere inguruan gorrotoa besterik ezin du zabaldu. Nik maite ditut nire seme-alabak, nire familia eta nire lagunak. Nik ezin dut gorrotoz bete nire inguru guztia. Ez dut nahi.*
- *Giroa normalizatu egin da. Gu orain lasai pasa gaitezke lehen debekatuta genituen lekuetatik. Pasa gaitezke, baina oraindik ere aurpegi txarrak ikusten dira, eta pasatzerakoan haietako bat bakarrik baldin badago, ez du begiratzen, baina bat baino gehiago badaude, erdaraz esaten den bezala: "qué cojones andas tú aquí" moduan begiratzen digute. Hori oraindik badago.*
- *Gogoratu behar dugu errepresio zuri bat egon dela urte askoan; isunak eta zigor ekonomikoak. Manifestazioak antolatzea, kartelak jartzea... delitu bilakatu dute azken hamarkadetan, eta hori atxilotetetan ikusi ez bada ere, errepresio gogorra ekarri du. Isunak astero iristen ziren urte batzuetan zehar, antolatzeagatik ez ezik, manifestazio edo elkarretaratzeetan parte hartzeagatik isunak jarri izan dituzte. Beste sektore edo herritar taldeei aplikatu ez zaien zorrotasuna aplikatu zaigu, eta hori helburu politikoekin egin da. Kriminalizatu, jendea uxatu, eta ekonomikoki zama handia jarritz.*

Nire ustez gauzak sartzen ari direla gehiegi, batzuetan "no hay que aburrir". Gehiegi ematen bada erreakzioa kontrakoa izan daiteke, eta horrek niri beldurra ematen dit, ze nahiko sufritu dute gehiago sufritu arazteko. Ez dakit ondo egiten edo, gauza batzuk egiten ari gara nahiko ondo, nik uste dut, pausoak ematen ari dira eta nahiko ondo. Eta jode, beraiek ez zutela inolako... beraiek sufritu zituztela egoera batzuk... zergatik...
- *Barkamena ezin zaie eskatu biktima batzuei bakarrik. Onartu beharra dago honek ez zuela inoiz gertatu behar.*
- *Ikusten dudana orain gaizki hor, badagoela jendea atzean gelditu dena, borroka eskatzen, ikusten dut lekuz kanpo, antzinako zerbait. Ikusten dut oztopo bat besterik ez dela aurrera egiteko. Eta nik hori ikusten dut, jende kopuru handi bat dagoela garai batera itzuli nahiko lukeena, eta nik uste dut jende horrek gaur egun trabak jarri nahi dituela, ez dakit lortzen duten, baina hori nahi dute, eta hori ez dut ikusten. Eta gainera, hau azpimarratu nahi dut, gainera beraiek esaten dutenean guzti hori eta erakundeak eta kolektiboak kontrakoa esaten dutenean, fase hori pasata dagoenean, iruditzen zait guztiz zentzugabea.*

- *Eta niregana etortzen badira? Ez, ez nago maila horretan, baina horrek ez du esan nahi ez dudala ulertzen hori egitea, behar hori edukitzea pertsona horrek, beste gauza bat da nik parte hartzea, baina nik ere ez nioke eskatuko ez dakit zer berari.*
- *Gertaerekin, ikusten badut damutu eta “barkamena eskatzen dut” esatetik haratago, egingdako kaltea konpontzeko nahia dagoela... erreparazioa... hildakoei ezin zaie bizitza itzuli, ados, baina erreparazioa aipatzen dudanean jokabideaz ari naiz, baina benetan, jokabide hori ikus dadila... hori izan liteke... Garrantzitsuena da onartzea guztiz erratuta zeudela analisi politiko, pertsonal eta humanoa egiteko garaian... Hori da nire ustez egin behar duten erreparazioa. Horrek lagunduko lidake seguruenik. Hemen faktore asko daude. Nik badut arazo bat: Andoaingo jendea ezagutzen dut. Ni Andoaingoa naiz. Badira faktore batzuk... ikusten baduzu mundu horretan egon den eta dagoen jendea... oraindik ere mundu horren inguruan jarraitzen duena... Andoainen ezer ere egin izan ez dutenak inoiz... ez dute ezer ere egin langileen alde... orain zinegotzi den baten bat kenduta: [Agustín] Alberro, Alberro ez nuke zaku berean sartuko, gatazka guztietan egon izan baita nirekin %25, %10, %15 lortu behar zenean langileentzat, hori kentzen dut, hori bai, erratuta dagoen arren, bera egon zen eta... Baina gehienak ez. Horrek min egiten dit. Kristauen barkamen eske horretan ez... Nik zerbait egiten badizut, esango dizut: konpondu nahi dut, kalte egin dizut eta arazoa konpontzen saiatu nahi dut, gaizki egin dudalako, eta aurrerantzean ez dut berdin jokatu. Benetako jarrera aldaketa bat. Filosofikoki horrela da. Baina esaten baduzu, eta ez bada egia, gauzak ongi egin dituzula pentsatzen jarraitzen baduzu...*
- *Gustatuko litzaidake hurrei ez erakustea gu gorrotatzen, ez erakustea espainiarrak garela uste dugunok eta euskaldun bezain espainiar sentitzen garenek gorrotatzen. Niri gustatzen zait Espainiako bandera edukitzea, uste dut Espainia herrialde oso bat dela, ez dela zatitu behar... eta nik ez dakit euskaraz, baina uste dut dakitenak ez direla ni baino euskaldunagoak... Gustatuko litzaidake horrelako gauzarik ez irakastea, normaltasunez bizi ahal izateko, bizikidetzan. Nik, bizi izan dudana gorabehera, alabak era normalizatuan bizitzeko ahalgina egin dut, euskaraz hitz egiten dute, hemen bizi dira, hemengo jendearekin... Ez diet gorrotatzen erakutsi, hori akatsa dela uste dut, gorrotoarekin sufritu egiten baita azkenean. Gainerako hurrei ere gorrotatzen ez erakustea nahiko nuke, ez soilik alde batekoek, baina bada hori egiten ari den jendea, gaiztoak garela irakasten ari dira, esanez ikusteko zer egin dioten aitari, espetxean sartu dutela, PPkoak edo PSOEkoak edo poliziak gaiztoak direla... Ez, ez gaitezen deskuidatu. Zure aita espetxean dago delitua egin zuelako. Delitua egiten duenak, kasu honetan terrorismo delitua, edo partida batean lapurtzen duenak, berdin zait, ordaindu egin behar du.*
- *Gatazka politikoa konpontzeko, nire ustez, sustraietara jo behar da, aitortu aspalditik dagoela konpondu gabe arazo politiko bat, eta konponketarako alde guztien inplikazioa eman behar delako dela, benetako egoera berri bat eraikitzeko.*
- *Niri jende horrek min handia eman dit, niri eta nire familiari, eta, gainera, ez dute inolako damurik; ikusi egiten zaie. Pertsona jakin batzuei buruz ari naiz, herriko batzuei buruz, eta ez naiz orokortzen ari, hori ez delako kontua. Niri begiratu egiten zidaten, larderiazko begiradak egiten zizkidaten. Ezetz, ba, gizona! Nik orain ez zaitut agurtuko. Nik ez diet ezer egin inoiz. Inoiz ez diet ezer egin, eta ez naiz ezertan saiatu. Orain zer gertatzen da? Ez diozue ezer egin inori? Hemen, orain, jada ez da ezer gertatzen, dena oso normal dago... Saia daitezela ulertzen egindako mina; nik uste dut ez dakitela. Herriko jendeak ulertu egin behar du zer puntutaraino eragiten digun pasatu den horrek guztiak. Eta niri bezala, askori. Utz nazatela bakean eta kito.*

- *Kalean gurutzatzen garenean, agurtu egiten dugu elkar: kaixo eta agur, eta kito. Ez gara geratzen elkarrizketan, ezta ezer komentatzen ere. Guztiaren gainetik hezierak egon behar du. Kontua da une batzuetan, osoko bilkuretan, errespetua galdu dela eta, zehazki, gure bozeramaileari. Hiru urte daramatzagu horrekin eta oso zaila da; hari aurrez aurre barkamena eskatu nahi izan arren, nire ustez, barkamenak osoko bilkuran eskatzen dira, aktan jaso, eta jendaurrean jarri.*
- *Ebitatu ez det inor ebitatzen. Ebitatzen ditut bakarrik ertzainak, zipaioei ez diet kasoik egiten. Egia da. Bai, ez diet kasorik egiten, hori egia da.*

Denbora behar da

- *Nik ez dut uste hau dena hiruzpalau urtean desagertuko denik. Ezinezkoa da. Urte asko izan dira, mina handia izan da. Alde guztietan, haiek ere badute euren zatia, eta nik uste dut hori denbora gutxian konpontzea oso zaila dela. Ez dut uste dena ahazten denik horrela.*
- *Kanpora atera ezean, barruan geratzen da, eta ez du uzten aurrera egiten edo bestea uler-tzen saiatzen. Denbora kontua da. Uste dut ondo egiten ari dela egiten ari den moduan, baina, adibidez, dokumentalen zikloa egin zenean, jende gutxi joan zen, baina, tira, eta hitz egiterakoan, ia ez zuen inork hitz egiten. Eta hori normalizatuta egon balitz, nahikoa normalizatuta, ez legoke arazorik denek hitz egiteko.*
- *Denbora gehiago behar da, egunerokoarekin jarraitu, hitz egiten jarraitu. Gainera, EH Bildu-rekin puntu asko izan ditzakegu komun arlo sozialean, eta Batzarretan ere uste dut baietz, baina gero, amorrua ematen dizu gai jakin bat iristen garelako eta klak! Hormarekin topa-tzen gara.*
- *Gure familiak alde egin behar izan zuen, hortaz bizikidetzaz gure ausentziaren fisiko eta espi-ritualaren gainean gertatuko da.*
- *Guk ez degu poteatzen inoiz goiko partean, gure parte hau da eta karretera generalak egi-ten du muga. Baina esaten dizut, jende horrekin erreza da, ez dago inolako problemarik. Problema da gaia ateratzea Udaletxean, bozkatu behar danean, zerbait egin behar denean, presoen senideei laguntzak eman behar zaizkienean... Hor denak saltatzen du, salta todo. Andoainen oraindik falta da beste generazio bat, Udaletxean jendea mugitzea, aldatzea, errezago izateko eta diskurtso hori aldat, eta perspektiba gehiagorekin hitzegin ahal izateko. Orain diren aktoreak asko sufritu dute eta oraindik desgaste politikorako tresna bat dala oraindik iruditzen zait. Baina nik uste det baldintza oso onak daudela. Planteatzen da Andoain tetrikoa bezala baina irudipena daukat oso erreza litzatekela, aukera balego, gauzak egiteko elkarrekin. Udalak saiatu beharko luke bi komunitate desberdin hauek, erdalduna eta euskalduna, lau mundillo horiek.: abertzaleak, PSOEn ingurukoak, EMK-n egonda-koak eta orain Podemosen aglutinatu duena, hoiei aukera ematen diezu edo rollo kulturala egiteko, elkarrekin ekimen bateratuak egiteko... eta oso errez aterako lirarteke zerbait aman-komuna. Eta horrek hurratsak emango ditu zauritaz hitzegiteko eta zauriak lantzeko.*

Dena den, jarrera aldaketak daude, zerbait aldatzen ari da

- *Urratsak egiten ari dira, eta hori lagungarri izango da. Jarrera aldaketa bat nabaritzen da, orain askatasun osoz hitz egiten dut. Jarrera pertsonala aldatzen ari dela nabaritzen da, baina politikari buruz hitz egitea, ezta okurritu ere... badaezpada.*

- *Nik ikusten detena da barka eskatu behar dutela, herri honi barka eskatu behar diote. Eta nik barkatzen diet, nik barkatzen diet, nik superatu det, nik barkatzen diet... Hor konpon bere kontzientziarekin.*
- *Nik ez daukat "makila magikorik", baina bai ikusten dudala, uste dut, momentu honetan nahi badugu etorkizunera begiratu, erdibide bat bilatu beharko dugula, eta denek onartu beharko dutela eta dugula, hemen sufrimendu asko egon dela, min egin dela, errepresio handia egon dela, torturak egon direla, mendeku politikoa egon dela... Nik uste dut azkenean denon ardura dela, politikoena, herritarrena, etab. Azkenean, aurrera begiratu behar dugu, fase berri batean sartu behar dugu, blokeo honetatik ateratzeko, onartu beharko dira gauzak alde guztietatik. Nik uste dut batzuek onartu dutela edo onartzen ari direla mina eragin dutela herri honetan, ba nik uste dut hori denek egin behar dutela edo egin behar dugula. Nik ere igual onartu beharko dut momentu batean norbaiti mina eragin diodala nire ibilbide militantean, ez dakit.*
- *Begira, denda bat daukat. Nire ustez herriak onartzen du beste fase batean gaudela, nik ere bai, eta horregatik nago hemen, bestela ez nintzateke egongo. Niretzat hau beste pauso bat da. Nik denda bat daukat Andoaingo auzo batean, Asierren auzoan, nire bikotekidearen auzoan, eta auzo horretan denek dakite nire bikotekidea zein den, nire familia ezagutzen dute, oso integratuta daudela esan nahi dut, eta nik denda bat daukat eta mota guztietako pertsonak sartzen dira. Nire bezeroen artean badago emakume bat, anaia ETak hil diona, eta nik uste dut guk gaitasun handiagoa daukagula hori beste modu batean eramateko. Ez dut esan nahi berak ez duela nirekiko edo nire bikotekidearekiko amorrurik edukiko, baina nire dendara etortzen da eta nik berarekin. Bai, bai... denok ezagutzen dugu elkar eta nire dendan ideologia guztietako jendea sartzen da, eta ideologia guztietako jendearekin hitz egiten dut, harreman oso ona daukat eta ez dago problemarik.*
- *Nire ustez, herriak ez dauka konfrontazio puntu hori eta mendeku puntu hori. Nik uste dut herri honek beste modu batean bizi nahi duela. Batzuk arrarekin hilko dira, hori horrela da. Arrak hor daude eta hori kostatuko da asko. Nik uste dut gero eta gutxiago dagoela.*
- *Uste dut gizartea aurretik doanez, errazagoa dela... Tabernetan edo gauza jakin batzuek hitz egiteko moduko beste konfiantza egon ez arren, egon daitezke leku berean ardo batzuk edaten.*
- *Ez dakit... ez dut jaitsi nahi... gutxitan jaisten naiz. Baina aldatu da, bai. Bada buruarekin horrela egiten duen jendea, agur moduan...*
- *Orain datozen generazioak ya ezberdinak datozte, ez dute bizi izan... oaindikan konflikto hori dago baino errepresio hori ez dute bizi izan, bildur guzti hau... nik ustet beste generazioak beste modu batera datoztela. Nahi det esan, lehen sinistezina izango zan ni zipayo baten laguna izatea, baina gaur egun nere alaba izan daiteke zipayo baten semearen laguna, eta ez da ezer gertatzen, eta aldaketak hor oso nabarmenak dia, oso nabarmenak dia. Zure alabatxoa bere laguntzua da tal cual, porque bere laguntzua da, ta hor ya gauza asko puskatzen dia. Gauza asko puskatzen dia.*
- *Bai, nabaritzen dela uste dut, batez ere azkeneko urteetan. Oro har, 2011ko urria funtsezkoa izan zen. Hasteko, mehatxua desagertu zelako, existitzeari utzi ziolako; horrek askatasun handia eman zion mehatxupear bizi zen jendeari. Uste dut horri esker zenbait gauza berreskuratu zirela, bizilagunak garelako, gizakiak garelako. Kontua ez da nik zuri eskatzea ez*

dakit zer nolako ekitaldi bat egin dezazun, ekitaldi publiko bat ez dakit zertarako, aitorpe-nerako... izan ere, batzuetan gauza handiak egiten jarrai ez dadin nahi duzu, baina agian bada hori espero duen jendea. Ez dira gauza handiak, askoz sinpleagoa da. Hasteko, betiko gauzak egiteari utz diezaiokegu, denak du muga bat, ez dakit ongi ulertzen zaidan. Era be-rean, uste dut badela egoera oso bizkor gainditu duen jendea, gizartean oro har; eta hori ez da ez ona ez txarra, horrela da.

- *Jada ari dira aldatzen gauzak. Nik, adibidez, López de Lacalleren alargunarekin arrandegian egiten dut topo. Eta joan den egunean neskata bat zeraman aulkitxoan. Kasu egin nion neskari, eta ez nekien iloba zuenik. Eta irribarre egin zidan, eta gero arrandegikoak esan zidan iloba zela. Bada, kasu egin diot haurrari, besterik gabe... agian hanka sartu dut. Baina tira... ulertzen diet... guri gaizki begiratzea... azkenean... Izan ere, Mari Paz nire seme-alaben andereñoa izan da eta nik berarekin hitz egiten nuen... bera da gurekin hitz egiteari utzi ziona... gu ETAko militante baten familiakoak ginen... baina gu ez ginen me-trailtarekin edo dena delakoarekin ibiltzen... baina zeharka, noski... zara... akusatzen zaituzte... errudun egiten zaituzte. Eta hori errespetatu beharra dago.*
- *Andoainen, gaur egun elkarbizitza ona dugula esango nuke. Egia da biolentzia urte gogor-rak bizi izan ditugula eta horrek zauriak utzi dituela gizartean. Batez ere alderdien arteko harremanetan nabari da hori, eta baita pertsona jakin batzuen arteko harremanetan ere. Baina gauza bat da hori, eta beste bat da herrian dagoen giroa, elkarlana eta gaitasun asoziatiboa. Herriko elkarte kultural eta gastronomikoen artean dagoen elkarlana, kirol el-karteen kudeaketa, guraso asanbladak... elkarbizitza, alderdiek zorionez kontrolatzen ez duten gai bat da. Bestalde, alderdien arteko harremanari ere perspektibaz begiratu behar zaio. Azken urteotan ere asko hobetu da esparru hori. Ilegalizazioen garaian eta ETA inda-rran zegoenean ez zegoen harremanik, eta zegoena txarrerako zen. 2011–2015 agintal-dian, gauzak aldatzen hasi ziren, eta azken urteotan asko aurreratu da. Gure bizitzan 10 urte asko dira, baina herri baten bizitzan ez da tarte handiegia. Etorkizunari begira lan egin behar dugu, eta ziur naiz 10–15 urteko epean gauzak oso ezberdin ikusiko ditugula guztiok.*
- *Nola osatu berriz? Uste dut oinarriak jarrita daudela. Onartzen dugu guk ere mina egin du-gula. Aingerutxo bat ez naizela izan onartzen dut eta sufrimendua sortu dugula ere bai. Hori onartzen dut. Baina uste dut alde guztiek onartu behar dutela gauza bera. Bai, alde bate-koek eta bestekoek. Gertatu dena konfliktu politiko bat izan dela eta sufrimendua egon dela toki guztietatik. Hori gertatzen denean hasiko gara oinarriak jartzen elkarbizitzari buruz hitz egiteko. Baina orain bakarrik alde batekoa onartzen da eta esatea hemen ez dela kon-flikto bat egon ez dakit nora bideratzen gaitun. Konfliktu bat egon da eta badago. Horrela da. Egindako mina onartzen dugula esan dugu behin eta berriro. Andoainen ere bai. Ezker Abertzalean, Sortun... Momentuz, nahikoa egin dugu, denborarekin ikusiko dugu zer pauso gehiago eman behar diren.*
- *Egia esan bai, harritu ninduen. Eskoltak kendu ondoren arazo gehiago egongo zirela pen-tsatzen nuen, baina ez zen hala izan. Ez da egon ez irainik ez ezer. Ez, egia esan ez. Asku harritu nau horrek, zeren eta begiratu txarrak bai, horrelakoak egon dira, baina ez zaigu inor etorri, taldean daudela, “badakizu hilda zaudela” esatera, Sanjuan batzuetan gertatu zitzaidan bezala. Ez, horrelakorik ez zaigu gertatu.*
- *Ez dago problemarik, hemen festetan egiten da zera, bakallau txapelketa. Elkarte guztietako jendea etortzen da: batzokitik, andaluzak... denak etortzen dira honera, ezker abertza-*

learen santuariora, Irunberrira. Denak hortxe jartzen dira eta egiten dute bakailoa en alegre biribilketa. Esan nahi det oso erreza dala alde hortatik lan egitea. Badira urte batzuk. Irunberrik laguntza eskatzen dio edozein elkarteri eta eman egiten zaio. Harreman aldetik oso erreza da komunitatea osatzea.

- *Nik argi dut ez naizela gorrotoan biziko bizitza puta osoan. Gizarte hau egituratu beharra daukagu nolabait, normaltasunera itzul dadin, eta denbora asko beharko dugu horretarako.*
- *Nik argi daukat ez dudala inor gorroto. Ezta min eman digutenak ere. Baina ez dut traturik izango pertsona horiekin. Inor gorroto ez dudanez, ordea, ez dut ezinikusirik, ez dut zera pentsatzen... Ez dut desio. Pasa den kontu bat da, niri min handia eman didate, oso gaizki pasatu dut, gai honengatik oso gaizki pasatzen dut... Baina nire alaba bizi izan dugun hori ez dagoen leku batean bizitzea nahi dut. Normaltasun osora iristea nahi dut, eta nire alabak ahal duen ondoen bizitzea, hemen eta desberdintasun edo estigma hauek gabe: ni hemengoa naiz eta ni ez dakit nongoa, edo ni hangoa naiz eta ni hemengoa. Ez dut hori nahi.*

Orain garrantzitsuena da denbora gehiago izatea gorroto sentimendu hori duen jendearentzat. Nik ez daukat. Euskararekiko gorroto sentimendua ere badute batzuek, Euskal Herriarekin lotutako guztiarekikoa. Nik, alderantziz. Baina uste dut sentimendu hori duen jendeak denbora gehiago behar duela eta mina eman dietenen aldetik ohartzea egin duten minaz, jada ez damu izatea, baizik eta jakitun izatea. Nik horrelaxe izatea nahiko nuke. Bai, psikiatrarekin hitz egin nuen eta esan zidan, nire familiak ez bezala, nik ez dudala gorroto hori. Nire ahizpak ezin du. Hona etortzen da ni eta gurasoak hemen gaudelako; bestela, ez zatekeen gehiago etorriko. Gorroto hori... Hor dauka... Ezin du honetaz hitz egiten entzun, eta nire ama berdin. Ezin du eta nire amak ere ez. Tratamenduan egon da denbora batez. Utzi egin du. Ahalegindu da, baina ez da kontziente izan. Nire ustez, ez da barkamenik eskatu behar; soil-soilik aitor dezatela gaizki egin dutela, mina eman dutela, eta beste modu batean begira diezazutela. Nik hori esaten badiot nire ama, ahizpa edo aitari, hau esango lidakete: burutik zaude. Ez dakit zer esango zizuen nire aitak...

- o **Argituz:** ...ate bat ireki zigun zurekin, oraindik ezin duena berak zabaldu, eta zurekin egoteko eskatu zigun...
- o **Nerea:** ...badakielako beste ikuspuntu bat dudala. Nire aita zentzu horretan inoiz baino okerrago dagoela esaten badizut... Gehiago itxi da, askoz ere gehiago. Lehen, nire aitak edonorekin hitz egiten zuen eta orain segun eta norekin ez du hitz egiten, ez duelako entzun nahi. Horrenbeste jendek duen gorroto hori, alde batetik edo bestetik, denak zaku berean sartzegatik da. Ni ez naiz independentista, baina nire alabak euskara ikastea nahi dut, euskal kultura ez galtzea. Gauza batek ez du bestea kentzen. Nire alabarekin euskaraz hitz egiten dut. Kontua da niri gehiago kostatzen zaidala euskaraz hitz egitea gaztelaniaz baino. Gaztelaniaz hobeto ematen dut aditzera pentsatzen dudana eta euskaraz askoz ere gehiago kostatuko litzaidake, ez dudalako nire inguruan hitz egin. Nire ama Extremadurakoa da eta hona etorri eta lau hitz zekizkien. Guri esaten zizkigun lau hitzak. Nire aitak ez. Horregatik errieta egin diot; tira, ez ateratzen ez zitzaiolako...
- *Hurrengo belaunaldiei begiratu behar diegu. Nire semeak, zorionez, ez du ETA ezagutu, bi urte zituelako indarkeria armatua behin betiko utzi zenetik. Niri gerra zibilarekin gertatu zitzaidan hori. Entzuten eta irakurtzen duena jakingo du; jakina, etxetik hasita. Gu bizikidetzan ari gara jada.*

- *Guk, egoitzan, ezker abertzalekoa den jendea daukagu eta zerbait hartzera etortzen dena... Ni ez naiz joan Herrikora inoiz, eta ez daukat sartzeko asmorik ere. Baina jendea gure aurretik doa. Ez dira zinegotziak gure egoitzara etortzen direnak, herriko jendea da. Nire ustez, oraindik ez dira horretarako baldintzak ematen.*
- *Nabaritzen da, ordea, ETAk indarkeria utzi duenetik, jendea erlaxatuago dagoela. Jendeak lehen nor zegoen ikusi beharra zeukan segun eta non hitz egiteko, ez? Nik uste dut orain beste normaltasun bat dagoela, beste lasaitasun bat hitz egiteko.*
- *Alderdi batek esaten du txuria eta bestiak beltza, ba ein bihako da lortu aer noiz esaten duen grisa o ez dakit zer... Bestela hor jai dago. A los hechos me remito. Netzako alderdik arreglatu behar due beaien artian, alderdik arreglatzen badira, gero bestiak arreglatuko dira.*
- *Ea nola ematen diogun buelta denon artean. Garrantzitsua da denon arteko elkarbizitza lortzea. Uste dut alde guztiok elkartu eta gure artean hitz egin beharko genukeela, nola egituratu daitekeen ikusten saiatzeko. 77ko amnistia bizi izan nuen nik, eta orduan, gizartea berriro hutsetik hasi zen. Orain ez da erraza, gizarteari eta herritarren ordezkari diren politikariei egindako erasoak zuzenekoagoak izan direlako. Eta ikusten da batzuek gorroto asko daukatela oraindik, eta hori da aldendu behar den lehenengo gauza. Dena bustitzen duen gorrotoa, beldurra bezalaxe. Horiek dira kendu behar diren lehenengo bi gauzak: gorrotoa eta beldurra. Eta ondoren, hortik abiatuta, ea nola eraikitzen dugun denon artean, atzetik datozenek gizarte lasai eta baketsu bat aurki dezaten.*
- *Osoko bilkuraren batean egon da nolabaiteko hurbilketaren bat, duela ez asko, Katalunia-ekin lotutako gai batekin. Bilduko bozeramaileak hitz egitean aitortu zuen hiltzea gaizki zegoela. Uste dut hori izan zela hori entzun genuen lehen aldia. Maiderekin, gure bozeramaileak, zera esan zion: Arraioa! Eskerrik asko! Ez zuen gauza zehatz batengatik esan, oso ausaz esan zuen, izugarri kostatzen zaielako. Duela bizpahiru osoko bilkura izan zen. (...) Nire ustez ez da hain zaila; kontua da zu beste dinamika batean bazaude, kosta egiten zaizula.*

Emakumeen begiradapean

- *Justu hitzegin degu Andoainen bakarrik konflikto politikoaren inguruan. Hori da pena, ze hortik haratago, nik behintzat aipatu nahi nuke, ba egongo dira esparru pila bat, baina feminismoaren ikuspegitik Andoainen danborradekin euki genuen konfliktoa, laurogeita hiruan uste det hasi ginala. Dauden soziedadeak, momentu hortan zeudenak, emakumeei ez zien uzten ateratzen, tanborradan parte hartzen. Ni Udaletxean nengoela, ba saiakera egin genuen subentzioa kentzeko, ba pribatua izan behar badu... Komisiokoak ere ez zuten garbi ikusten eta egon zian izugarrizko talkak. Urte batean sentada bat ein zan feminista eta izan zan una batalla campal. Kutxarak gure gainetik, gizonezko guztiak... Honi buruzko memoria egin behar da ere.*
- *Uste dut desberdin lantzen ditugula gai hau eta beste batzuk, oro har. Beste jarrera bat dugula. Virginia Woolf Basqueskolarekin¹⁰⁰ hitz egin genuen duela gutxi, lantzera etorri ziren berdintasun gai batean. Mahai inguru bat egin genuen, eztabaidatu. Emakumezko zinego-*

100 Tokiko emakume hautetsien, alkate eta zinegotzien, espazioa, Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) eta Emakumearen Euskal Erakundeak (Emakunde) bultzatua: <http://www.eudel.eus/destacados/basqueskola/?lang=eu>

tzi guztiak egon ginen. Eta horri buruz hitz egin zen, eztabaida bestelakoa zela, ez dakit zergatik, baina eztabaida bat desberdina da emakumeen artean edo gizonen artean. Eta eztabaida bat desberdina da emakume baten eta gizon batean artean. Agian, era batekoak edo beste batekoak gara, baina, kontuz, emakumeen arteko eztabaida ere zakarra izan daiteke. Uste dut zaintzen kontuagatik izan daitekeela, edo uneren batean, guztiak ama ez badira ere edo izan nahi ez badute ere, arlo sentimentalagatik, gauzek min gehiago ematen digutelako, hori ere esan egin behar da. Nik ez dut esaten gizoni ez dienik min ematen, baina uste dut familiartekoren bati mina ematerakoan, agian guk okerrago daramagula pisua. Batzuetan, ordea, gainerakoak baino grinatsuagoak gara. Nik nire amarengan ikusten dut hori. Ez zait zaila egiten.

- *Lankide batzuek baieztatzen dute emakumeok espazio handiagoa irabazi behar dugula hemen ere, memoriaren eta bizikidetzaren gaietan. Eta egia da, ados nago. Zertan zehaztu daitekeen hori? Hortxe dago kokka... Nire ustez, "eginez egiten da". Goazen egiten hastera eta ikus dezagun noraino iristen garen. Ahalbidetu ditzagun topaketa espazioak eta hitz egiteko dinamika desberdinak, irabaz dezagun konfiantza eta errespetua, elkar gaitzean gaian nahasita gauden herriko emakumeak, jar ditzagun beste tonu batzuk, beste diskurtso batzuk, beste egiteko modu batzuk, atera ditzagun politikakerian lantzeke dauden erronkak eta egin dezagun aurrera pausoz pauso. Ahalegindu gaitzean horretan Andoainen ere.*

NOREKIN ESERIKO ZINATEKE?

2017ko azaroaren 26an, Ramón Rubial Fundazioak Arkaitz Estiballes bertsolaria –EH Bilduko zinegotzia da Zeanurin eta inputatuta egon zen Gaztesarearekin kolaboratzeagatik– gonbidatu zuen Eibarko PSE–EEren Herriaren Etxeko heziketa eskolaren inaugurazioan abes zezan. Arkaitz Estiballes Ormaetxeak kontatu zuenez, harritu egin zen gonbidapena jaso zuenean, baina ilusio handiz jaso zuen, eta hasieratik esan zien antolatzaillei bera EH Bilduko kargu publiko bat zela. Azaroaren 29an EiTbn egindako elkarrizketan adierazi zuenez, ekitaldira joan zen eta "eskerrak eman behar dizkiet ez zutelako inolako eragozpenik jarri". Eskerrak eman zituen Eibarko ekitaldira bildu ziren militante sozialistek begirunez eta maitasunez tratatu zutelako.

Hona hemen Arkaitz Estiballesek bota zuen bertsoetako bat:

"Ez dakizue baina Bilduko zinegotzia naiz dala eta ez dakizue ze ilusioz etorri naiz bertara. Gure herrian gertatu dena noski oso gogorra da, baina aurrekoei hipoteka hau ezin diegu ez laga. Eider maitea etorri hona zure indarrak atara. Animo euskal sozialistak bidean batuko gara".

- *Nire taldea balitz aurkariari begi keinua egiten diona?... Bada... ez dut uste arazorik egongo litzatekeenik... non eta bertsolaria ez den Otegi. Beno... aurkari politikoa izan da, bai. Orain bai da aurkari politikoa, orain bai... Politikan ikasi nuen lehen gauza, irakatsi zidaten lehenengoa da –erratuta egon naiteke, baina tesi berari eusten diot– abangoardiek*

- ez dutela indarkeriazko prozesurik hasi behar; proletarioen taldeari dagokiola emantzi-
patzeko helburuarekin indarkeria erabiltzeko eskubidea izatea, baina ez abangoardiei...
Beti kondenatu izan dut, PC(i) zegoenetik; PC(i)k ere kondenatzen zuen ETA.*
- *Oain holako zerbaitetaz hitzeiten hastea iruitzen zait etxea teilatutik hastea. (...) Ez det herria ikusten prest oaindikan.*
 - *Ez dakit. Gaur galdetzen badidazu: eseri nahi duzu mahai batean Amuchasen alabarekin? Ba erantzungo nizuke bai, zeren eta agian bere jarrera ez da gerra jarrera bat. Ni eseriko nintzateke aurrerapausoak egin nahi dituen pertsona batekin, baina gerran dagoen pertsona batekin, nahi duena hau boikoteatu, zatikatu, bada ez. Ni beste fase batean nago, nik jada gorrotoa, zama hori alde batera utzi dut, zeren eta... bai, bai. Ez dakit ondo azaldu dudan, hor nahi ditut ezberdintasunak egin. Nik uste dut gaur egun jende asko prest dagoela aurrera egiteko, eta jende asko ere dagoela oraindik zangotraba egiten, eman eta eman, egurra eta egurra, eta gehiago eta gehiago nahi duela, ze nik uste dut jende bat gatazka honetan oso eroso sentitu dela, eta nik uste dut ez dela hain justu ezker abertzaleko jendea. Uste dut beste jende mota bat dela. Adibideak garbiak daude, nire ikuspuntutik behintzat. Eta hor dago gorrotoa, mendekua, gorrotoa, mendekua, gorrotoa... eta horrekin ez goaz inora, ezta? Inora.*
 - *Zerbait publikoki egin ahal izatea, lehenbizi barruko lan asko dago egiteko, aipatu ditugun herri horietan egin den bezala, pixka bat gerturatzen joan, saretzen joan, elkarrizketak egin, hitz egin, minak konpartitu, aitortu... nik uste dut hori egiteko dagoela Andoainen. Bitartekari batzuk behar dira hori egiteko, hori berez ez da sortuko, hori Elkarrin egiten genuen, behar dira bitartekari batzuk hori bideratuko dutenak, landuko dutenak, eta nik uste dut hori ez dela sortuko hilabete batetik bestera, beharko du bere denbora, sare bat sortzen joateko, eta alde horretatik agian oso ona izango litzateke Legebiltzarrean ateratzen diren bezala, denok leku batean errekonozitu ahal izatea Andoainen egon diren biktima guztiak. Uste dut ibilbide luze samarra dagoela.*
 - *Ados, ez baduzu nahi, kito... zer gingo duzu? Ulertzen dut. Beharbada hurrengoan..*
 - *Pertsonak aldatzen direla eta norbaiten amak nirekin egon nahi duela esaten didazu, ea prest egongo nintzatekeen galdetu ere. Ba ez daukat inongo arazorik telefonoz deitu nahi badit edo beste leku batean elkarrizketa bat egin, baina moduak daude elkar hurbiltzeho.*
 - *Niregana gerturatu bada, horrelako zerbait esan nahi izango didala pentsatzen dut: "aizu, zurekin hitz egin nahi nuke". Orduan, galdetu niezaioke zergatik egin duten, zerk eraman dituen hori egitera... era horretako galderak egin daitezke, bai. Adibide zehatzak jartzearren, portaleko giltzen kopiak egin dituena edo niri buruzko informazioa pasa duena bada, kontzientzia ez du oso lasai izango, ez gutxienez aurrez aurre ikusten nauenean. Nik ez dut burua makurtuko, baina ziurrenik berak bai. Logikoki, hitz egiten saiatu nahi badu, berari dagokio gauzak argitzea. Hizketaldia izan daiteke oso... Gauza bat daukat argi: alde batean zein bestean, baliteke denok egin izatea hutsak. Eta gizartea nolabaiteko lasaitasunera irits dadin nahi badugu, denbora asko beharko da; izan ere, gorroto asko dago zabaldua, eta hori pertsona batzuen begiratueta islatzen da. Nolanahi ere, orain ezker abertzaleko batzuek agurtzen naute eta badakite zer pentsatzen dudan, batzuekin eztabaidatu ere egiten dut; orain gerturatu egin dira nolabait. Ez naiz ni izan haiei gerturatu zaiena.*

- Edozeinekin eseriko nintzake.
- Nire etxean ez dago gorroto izpirik. Begira, Juan Mari [Jauregi Apalategi] 2000ko uztailearen 30ean hil zuten, eta gu beti joaten gara bere omenaldira, zeren eta haiek ere PCkoak ziren eta elkar ezagutzen genuen garai haietatik. Niri Maixabelek deitu zidan eta esan zidan: begira, Ibon Etxezarreta etorriko da, Juan Mari hil zuen ETAko komandoko kideetako bat, eta jakinaren gainean jartzen zaitut. Ojala denek hartuko balute bide hori eta damutuko balira. Eta ez guregatik, zeren eta guri ez zaigu bizimodua aldatuko. Baina benetan gogorra izan behar du pertsona batentzat horrelako zama bizkar gainean eramatea. Ni nire semearekin joan nintzen eta ez nion ezer esan aurretik. Eta han ikusi genuen. Juan Mariren ekitaldietan lore eskaintza egiten da, eta gero abesti batzuk kantatzen dira. Eta etorri zitzaidan Maixabel esanez: aizan, esan zidan hirekin hitz egin nahi duala. Ba bai, nirekin hitz egin zuen. Gibeletan, oso gogor egon nintzen, zeren eta esan zidan: ni zure senarraren hiltzailea izan nintekeen, zeren eta biltzen gintuzten eta esan, zuek honi, besteak beste hari. Eta erantzun nion: Baina zer zarete, robotak? Txorimaloak ala pertsonak? Oihaneko animaliek gose daudenean hiltzen dute, eta pertsona batek berdin pentsatzen ez duen beste bati bizitza kentzea. Ordu erdi hizketan egon ginen. Ez, egindakoa aitortu zuen eta barkamena eskatu zidan. Eta semearekin ere hitz egin nahi zuela esan zidan. Ez nekien semeak nola erantzungo zuen, ez nekien. Esan nion: hor ni ez naiz ezertan sartuko, zuk ikusi berarengana joan nahi duzun ala ez. Eta berarengana joan zen, eta ikusi nitueanean elkarri eskua ematen, zerura begiratu eta eskerrak eman nizkion Jaunari. Gero, ilunabarrean, Aitziber alabari deitu nion, zeren eta Etxezarretak esan zidan: kartzelan baimena ematen badidate, maiatzaren 7an etorriko naiz eta nahi baldin baduzue... Eta esan nion: bai, erabaki hori zuk hartu behar duzu, ez nik. Eta bere erantzuna: bai, baina zuk eman behar didazu baimena. Eta nik: ba bai, aizu, denek horrela jokatu balute, hobe izango litzateke. Baina ez, nonbait ez zioten baimenik eman. Esan beharra daukat Jose Luisek ikusiko balu, dagoen lekutik, bere seme-alabak eta ni gorrotoz beterik bizi garela, ez litzateke lasai eta bakean egongo. Bai, oso pozik nago. Nire senarra benetan baketsua zen. Beti esaten zidan: “Del bien de los amigos hay que alegrarse a tope, y del bien de los enemigos un poco”.
- Oso lagunak ginen eta egun batean une batez geratu nintzen harekin eta haren andre-gaiarekin hizketan eta ez dakit nola hasi zen elkarrizketa, baina aitari buruzko kontuak esaten hasi zen, bere errua zela... Eta nik: zer esaten ari zara? Tira, pentsatu pixka bat... Eta aurrera eta aurrera jarraitzen zuen, eta nik: hara, utzi iezadazu bakean. Liskartu egin ziren pixka bat, erdi borrokan aritu ziren. Orain, topatzen garenean ez diogu aurpegira begiratzen elkarri. Kontu hori... Tira, niri beti gustatuko litzaidake laguna izan zarenarekin erlazio normala izatea, ez dakit, baldintzen arabera. Gaur egun, ikusten dudanean, nahi gabe ere, egoera bortitza da, deserosoa da niretzat. Niri ez zait gustatzen horrela egotea inorekin, eta are gutxiago nire laguna izan den pertsona batekin, eta denbora dezente egon gara elkarrekin.

Egia da familia askok oso gaizki pasa dutela. Niri ez litzaidake inportako haiekin hitz egitea, bat ere ez. Agian, on egingo lidake; izan ere, agian, ulertzen ez ditudan gauza batzuk ulertuko nituzke. (...) Andoainen duela gutxi hitzaldi-solasaldi batzuk egon ziren eta film batzuk eskaini ziren Basteron, Udalak antolatuta. Aitarekin hitz egin nuen eta joan egin nahi nuela esan nion, aurpegiak ikusi nahi nituen, eta nire aurpegia ikus zezaten eta ea zer zioten.

Nire aitak esan zidan ez zela joango eta niri bakarrik ez dakit zer ematen zidan... Bakarrik ez nuen joan nahi, ez nekielako ahal izango nuen.

- *Niri galdetzen didazu: eseriko zinateke Pagazaren arrebarekin momentu honetan? Ba nik esango nizuke ezetz, ze nik uste dut mendeku politikoaren bila dabiltzala, gai direla... haustura nahi dute, ez dute nahi hau konpondu, hor daude oraindik gerra batean. Horregatik esaten dizut nire ustez mailak eta mailak daudela. Covitekoekin hitz egingo duzu? Ba ez, ze ez daude prest, beraiek oraindik mendekuan daude, gerra, gerra, gerra...*
- *Nire emazte ohiaren bizilaguna da orain –bananduta gaudenez, ni ez naiz han bizi– autoa erre ziona, eta harekin topo egiten du igogailuan. Zer gertatuko zaio, hor dauka, eta, zer egingo duzu bada? Egia esateko, uste dut ez niokeela ezer ere esango, non eta ez nauen probokatzen. Ez ikusiarena egingo nioke, baina ez bizikidetza normal bat lortzeko ahaleginak ezezean ez gelditzeko, baizik eta alderantziz, bera neuregana etorri eta nirekin hitz egin nahi izateko. Hitz egiten hasi beharko genuke orduan, baina ni berarengana joan, ez. Berarekin hitz egingo nuke etorriko balitz, ez daukat inongo arazorik.*

Zer dago ekiteko?

- *Eguneroko erlazioetan gauza asko aldatu dira, hobera. Oro har, gauzak asko aldatu dira. Baina gauza batzuek hor egoten jarraitzen dute, hesi gisa. Batzuek uste dute ez dutela ezer txarrik egin, deialdi batera edo bestera joan direla eta kito. Hau esatea falta da: aizu, beste pertsona bati eragin dion zerbait egin dut, ez dakit esaten ona edo txarra, baina beste pertsona bati eragin dio. Hori falta dela uste dut. Ematen du guk beti isilik egon behar dugula. Ados, orain hitz egin daiteke, baina, hala ere, ez zaigu entzuten. Frustrazio pixka bat sentitzen dugu beraiek beti gauza bera aldarrikatzen jarraitzea eta guk, berriz... ematen du zerbait txarra dela... Nik hori sentitzen dut. Adibidez, imajinatu Andoainen kiroldegian izena ematen dudala. Imajinatu, izena ematen dudala, han agertzen naizela eta halakorekin topatzen naizela... Tira, bada, jada ez naiz joango, ezingo dut joan, niretzako deserosoa delako. Edo beste adibide bat. Nire alabarekin gertatu zait ikastaro batean eman diodala izena. Tira, haurtzaindegian ere bai... Zuzenean gertatu zitzaidan nire alabaren irakasleetako bat denetik deitu zidanetako bat zela, jazarri eta iraindu ninduenetako bat... Dena mugitzen zait eta amorru gehien ematen didana da ematea hemen ez dela gertatu.*
- *Aurrera begira zer egin behar den Andoainen? Niretzat hor faktore oso inportante bat dago, eta da denbora behar dugula pixka bat mamitzeko zer gertatu den. Denbora behar dugu pixka bat ahazteko, ahaztu ez, baina bai mamitzeko zer gertatu den denbora honetan. Denbora behar dugu, denbora... Zer egin behar dugun? Uste dut biktima guztiak onartu behar direla. Guk onartzen badugu biktimak eragin ditugula eta besteek ez badute gauza bera onartzen, ba ez dakit nola konpon daitekeen gai hori. Oso zail ikusten dut. Ni prest nago: bale, zure senarra, zure anaia... biktima bat da. Ados. Baina beste batzuk ere bai. Prest zaudete horretarako? Zer paper jokatu du Guardia Zibilak herri honetan? Prest zaudete hori onartzeko? Ez bada hori ikusten, orduan nola egin dezakegu aurrera?*

Eta presoekin? Eta senideen sufrimenduarekin? Zer egin?

Gaur egungo eta etorkizuneko bizikidetzan egon daitezkeen oztopoen artean atal hau sartu dugu, testigantza batzuetan agertu den moduan, baina, aldi berean, jarrera oso argiak aurkitu ditugu kontrako noranzkoan.

- *Oso argia naiz. Gauza bera esaten jarraitzen dut. Berdin zait, ez zaizkit inporta. Badakit oso gogorra dela esaten dudana eta jendeak ez duela ulertuko ziurrenik, baina berdin zait. Su-fritzen dutela? Bale, baina nik ere sufritu dut. Hil dute, bonbak jarri dituzte... eta haien alde agertzen ari dira [senitartekoak]. Tira, ulertzen dut. Bakoitzak zertan sinesten duen, hura babestuko du, denok egiten dugu hori. Baina uste dut horretarako daudela legea, demokrazia, hautesontziak... Nik pentsatzen nuenaren alde egin dut une honetan demokraziak eta legeak eman dizkidaten legezko botoetan oinarrituta, herritarrek aukera eman didate; beraz, herritar talde baten legezko ordezkaria naiz, baina pertsona hauek ez daukatenez ordezkartzarik, jendea hil, estortsioa egin, bahitu edo mehatxatzea erabaki dute. Hori delitua da, hemen eta edozein herrialde demokratikotan. Eta ez dit balio esateak helburua aski dela gauzak edozein bidez lortzeko, ni ere ari naiz defendatzen haiek nahi ez dutena, baina modu demokratikoan ari naiz. Beraz, kartzela zigorrak osorik bete behar dituztela pentsatzen jarraitzen dut, eta uste dut dispertsioa haiek elkarrekin egotea saihesteko era bat dela, haiek berrantolatzea saihesteko era bat... Zigor bat dela familientzat? Bai, baina familiek babestu egiten dituzte. Eta esan nahi dudana da batzuetan erruduna ez dela hil duena barkarik, nolabait kolaboratu duena edo delitua ahalbidetu duena ere errudun dela. Askotan ahaztu egiten gara babestu dituen jendeaz, etxean hartu dituztenez, ezkutatu dituztenez. Eta azken batean, delituak egiten laguntzea da hori, delitu oso larriak gainera, inolako errurik ez zuen jendea hil dute eta. Azkenean, elkar babesten dute denek.*

Benetan uste badute ez dela hil behar, ez diote babesik emango jarduteko era horri, beste era batean jarduteko eskatuko diote senitartekoari. Ez diete inoiz eskatu izan ez hiltzeko, eta ez dira damutzen. Ez hil dutenak, ez haien senitartekoak ere, ez dira damutu gertatutakoa-gatik, eta ez dute barkamenik eskatzen, eta ez daude laguntzeko prest. Hilketak asko daude argitu gabe. Eta inork ez du laguntzarik eskaintzen hilketak horiek denak nolabait argitzeko. Jende askok ez daki nork hil zituen bere senitartekoak, hori jakiteko eskubidea dute; eta hil edo lagundu dutenetako batzuk kalean daude. Egia esan, eta errepikatzen dizut esandakoa, ez didate inongo penarik ematen. Berdin pentsatzen jarraitzen dut, eta beharbada horretan oso gogorra naiz, bizitza arrunteko beste gauza batzuetan oso tolerantea naizelako, baina gai honetan, beharbada oso gogorra naiz. Nik ez dut ahazten, eta ez dut barkatzen. Horrelakoa naiz. Baina ez dut egun osoa burua jaten pasatzen, pentsatuz ea nola lor dezakedan honek edo besteak hiru egun gehiago igarotzea espetsuan.

- *Iñaki Lasagabaster irakasleak duela gutxi esan duenez, espetxe politikak "ezin ditu alde batera utzi espetxeratuta dauden pertsonen eskubideak"; eta bereziki kontuan hartu behar da gaixotasun larriak dituzten pertsonen egoera edo espetxe zigorrak familia naturala bizi den lekutik gertu betetzeko aukera. Preso dauden pertsonak askatasunaz gabetuta dute, baina ezin zaie bestelako eskubiderik kendu. Hortik aurrerakoak herriaren egoerara egokitzen diren salbuespenezko legeak eta mendekua dira.*
- *Gogoan dut osoko bilkura batean Andoaingo ETako preso bat kalera ateratzeko eskatu zela, eta gurasoak eta arreba zeuden, eta nik benetan pentsatzen nuena esan nuen, baina noski, presoek Etxerat plataformakoak zeuden, eta penarik ematen ez al zizun galdetzen zuten.*

Bada, egia esan nuen: ez, egia esan ez didate penarik ematen. Behin baino gehiagotan esan izan dut, baita Batzar Orokorretan ere, eta beraz, idatzita dago, grabatuta eta idatzita. Ez didate inongo penarik ematen. Beraiek ez dute penarik sentitu nire kideetako bati tiro egin diotenean garondoan, edo bonba bat jarri dutenean, edo haurrak hil dituztenean. Eta orain pena sentitzeko eta haien lekuan jartzeko esaten badidate... bada, ez, egia esan ez. Sentitzen dut, agian hotzegia naiz, baina ez. Ez didate inolako penarik ematen, eta uler dezaket seme-alabak dituztela eta haur horien gurasoak espetxean daudela, baina guraso horiek ez lirateke kartzelan egongo, adibidez, beste haur batzuen gurasoak hil izan ez balituzte, haur horiek orain ezin dute eta inora joan beren gurasoak ikustera. Edo haurrak hil izan ez balituzte, edo jende asko hemendik joatea eragin izan ez balute, edo nire alabak ia 18 urtez eskoltarekin ibili behar izatea eragin izan ez balute ama mehatxatuta zeukatelako. Edo nire alaben atzetik ibili izan ez balira. Zeren eta horixe ikusi nuen ETako komando bati hartutako paperetan, nire alaben izena zeukatela jasota, haien ikastetxearen izena, sarrera eta irteera orduak, etab.

- *Presoak salbuespenezko egoera batean daude giltzapetuak. Herritar ezagunak dira, giltzapetuak izan aurretik hainbat lan egin dituztenak herriko eragile politiko edo sozial gisa. Komunikabideetatik ezabatu dituzte, eta duela urte batzuetatik hona beren aurpegiak erakustea ere debekatu nahi izan dute. Existituko ez balira bezala. Horren helburua garbia da: gatazka politikoa ukatzea eta presoek giza eskubideen defentsan ari direnen lana kriminalizatzea, jendea hurbil ez dadin. Kartelak, pankartak... beti egon dira, eta azken urteotan errespetuzko terminoetan jarri izan dira batik bat, eskubideen planoan esango nuke, presoek hurbilketa eskatuz eta gatazkaren amaiera errazteko etxeratzea eskatuz. Nor sentitzen da umiliatuta gai horiekin? Une honetan, ETarekin lotura izan duten pertsonak soilik daude espetxean. Ez dago estatu terrorismoan aritu den inor espetxean, ez dago torturatzailerik espetxean... ez al da zilegi beste hauen etxeratzea aldarrikatzea? Hauetakoren bat etxetik 1.000 km-ra baldintza gogorretan hiltzen denean, ez al da zilegi hori salatzea eta gogoratztea?*
- *Andoaingo udalean, uste dut izan zela 95ean-edo, presoek aldeko komisio bat sortu zen, eta alderdi politiko guztiek onartu zuten, PPK barne. Komisio horrek presoak Euskal Herri-ratzea eskatu zuen. Kontua da garai haietan ez zegoela diru-laguntzarik edo antzekorik udalean, ezta presio sozial handirik ere presoek gaiaren inguruan. Preso batzuk Almerian zeuden, beste batzuk... dispertsioa pil-pilean zegoen. Hasi ginen pankarta batzuk-eta ateratzen plenoetan, eta orduan alkateak, Perez de Gabarain, plenoak suspenditzen zituen. Azkenean goizeko 8:00etan jarri zituen, eta hala ere han egoten ginen. Pankartak gordeta sartzen genituen, eta orduan behin haserretu egin zen eta esan zigun: "Bueno, a ver, ¿pero qué queréis?". Hiru hilabetez eduki genuen paralizatuta udala. Gure erantzuna izan zen: "Pues lo que queremos es hablar de los presos, si es lo único que pedimos, sociales y políticos, aquí hay que hablar de una realidad". Eta onartu egin zuten. PPK ere esan zigun: "¿Pero de todos los presos?". Eta gure erantzuna: "Por supuesto". Garai haietan hemen apaiz bat zegoen, Mikel Goenaga, iaz hil zena, eta Proyecto Hombre-n sartuta zegoen. Hemen erreferente bat izan zen zentzu horretan, Askagintzan zegoen, eta hor bazegon mugimendu oso indartsu bat, horren inguruan, eta Mikelek ere parte hartzen zuen komisio horietan. Gero gorabeherak izan ziren parte hartzaileen artean eta betikoa, azkenean talka egin zuten gestioak eta herrigintzak. Horren inguruan sortu zen komisio bat, eta Gabonetan sinadurak eta abar biltzen ziren, Urte Zaharreak, EAJko jendea, zinegotziak, Gestorak, Eliza, Askagintza... egitasmo irekia zen. Bi urte egin zituen. Beti eman den itxura... Andoainen konfrontazio batean*

egon garela... eta nik horixe azpimarratu nahiko nuke. Oso herri zanpatua izan da, nik uste bi aldeetatik, konfrontazioa iritsi da pertsonetara, familietara. Beste herri batzuetan bezala, ezta? Baina eduki ditugu ere beste bategite horiek. Esan nahi dut gai izan garela mahai batean alderdi politiko ezberdinak esertzeko eta sinadurak biltzeko, eta hori ukatu egiten da edo ez da azaltzen. Eta horrelako ekimenak ezker abertzaleak bideratu ditu. Beti eman da itxura puskatzera joan garela, eta ez da egia, eraikitzen badakigu, eta oso baldintza kaskarrretan gainera.

- *Presoen kasuan, biktimenean bezalaxe, ezin dugu orokorrean hitz egin, pertsona bakoitza desberdina delako. Ziur asko indarkeria maila, hausnarketa maila eta ez dakit zer maila ere desberdinak dira. Preso bakoitzaren egoera desberdina da. Oro har, seguru asko egongo dira familien egoera arindu dezaketen gauzak, nolabait esatearren. Adibidez, bizilekutik gertu edo urrun egotea. Hori ez dago aurreikusita zigorrean. Beraz, egin daiteke. Ez da legez kontrakoa, alderantziz, indarreko legedia betetzea da. Uste dut gauza gehiago ere egin daitezkeela indarreko legedia betetz: birgizarteratzea hor dagoen zerbait da, espetxe zigorrek birgizarteratzea baitu helburu, zigorraz beraz gain. Espetxeek ere izango dute erantzukizunen bat, noski. Horrelako gauzak egin daitezke, baina askoz gehiagorik ez: indarreko legedia betetzea da, legediak ez du esaten Cartagenan egon behar dutenik. Dena korapilatsua da, baina gauza horiek egin daitezke. Baina susmoa dut jende askorentzat hori ez ote den nahikoa, eta esan nahi dut amnistia eskatzeak orain ez duela zentzurik.*
- *Nik ez dut arazorik presoak hurbiltzearekin. Ulertzen dut gaur egun, egungo baldintzetan, preso horiek urrun egoteak ez duela zentzurik. Azken finean, familiartekoentzako sufrimendua da batik bat, horiek ordaintzen baitute kilometro horiek egin behar izatea lagun maiteak ikusi ahal izateko. Ulertzen dut hurbildu nahi izatea. Hori bai, gauza bat da hurbiltzea eta beste bat amnistia eskatzea edo askatzea eskatzea. Hor ez nago ados, bakoitzak dagozkion kondenak bete behar dituelako epaituak izan ziren eta onartu zitzaizkien gertakariengatik.*

Udalaren papera

- *Udala ideologia desberdinen arteko hurbilketa lortzeko ahaleginak egiten ari da, eta hori ongi dago.*
- *Gobernuak urratsak egin behar ditu presoen gaiarekin eta beste batzuekin, bestela horrek bere ordaina eskatuko du. José Luis [López de Lacalle], Pagaza [Joseba Pagazaurtundua]... Haiei buruz hitz egin behar da, gertaerei itzuli bat eman behar zaie. Berdin pentsatzen ez dutenekin eta kritikatzten dituztenekin batera bizi behar da.*
- *Diskurtso batzuk entzunda ematen du herri guztia izan garela, inplikaturik egon garela, esan izan da bere lankideak ere izan zitezkeela. Ostras... guk egin genuen, guk itxi genuen Udaletxea, langileok. Ni orduan Komiteko burua nintzen, eta joan nintzen Barandirengana eta esan nion: "Itxi egingo dugu". Asanblada egin genuen, gauza handirik esateko ez bazegoen ere: hau da, lankide bat hil digute eta greba egin behar dugu, ados dagoenak altxa dezala eskua. Eta norbaitek esan zuen zergatik ezin zen bozketa beste era batean egin. Eta esan nion: "No, es la primera vez que nos matan a un compañero". Gehienak ados. Orduan joan nintzen Barandirengana eta pasatuta zegoen, bere "guardia pretoriana"-rekin, eta esan nion: "Te exigimos que cierres el Ayuntamiento", eta bai, problemarik gabe. Berak sufritu zuen, nik uste dut ez zela... ez dakit, nire irudipena da. Gero, esan behar da Barandik ez zigula ezta deskontatu ere egin, udalak ez zigun deskontatu egun hori.*

- Ezker abertzalean, agian hau gogorra da esatea, baina alkate bat duzu zure taldekoa edo zure aldekoa, eta bi hildako jartzen dizkiozu mahai gainean? Lagun horiekin ez duzu etsairik behar. Ni alkate izango banintz momentu horretan, esango nieke: hementxe gelditzen zarete! Ez bat, ez, bi gainera. Bi. Hostia! Nik uste dut azkenean hemen gaizki bukatu zuela, gaizki-edo... nik uste dut langile batzuek ez ziotela barkatu ezer ez esatea. Udaltzain batzuek esaten zioten: “Si me hubieran matado a mí, ¿tampoco ibas a hacer nada?”...
 - Espainiak alde batekoak bakarrik errekonozitzen ditu, ETAk hil dituenak; beste guztiak ez dira existitzen. Jaurlaritzak ere ez du asko egiten, nik uste. Udala badakit hasi dela zer edo zer egiten. Esan zidaten ea nahi nuen hor sartu eta ezetz esan nien, oztopo bat izango nintzelako agian, nire motxilagatik. Orduan ezetz esan nien. Uste dut mantso doazela. Agian horrela joan behar da. Ez dakit. Oreretan egin zena zergatik ezin da hemen egin?
 - Udalean gauza asko aldatuko genituzke, horretarako gaude, baina haren ordezkariet dago-guenez, esango genuke zintzo jokatu behar dugula guztiz.
 - Erakundeek beren papera dute, eta Udalari dagokio biktima guztien politika publikoa lan-tzea herri mailan.
 - Agian lan mahai gehiago sortu beharko lirateke, jendeak bere iritzia emateko, tabuak eza-batzen hasteko... horrelako gauzak. Gizartea geldirik badago, denbora asko beharko da honi buelta emateko, noski. Ez dakit noren ekimena izan behar duen. Eusko Jaurlaritzarena, erakundeena, Udalarena... Mahaiak mugitu eta lan egitea gaiaren inguruan, normalitza-tzen saiatzeko, oraindik gorroto handia dago eta...
- Omenaldietara joaten ez direnek joan behar lukete, eta are gehiago alkatetzan badaude; eran-tzukizun handiagoa dute, adibide izan behar dute. Beraingandik atera behar duen zerbait da. Beraingandik atera behar du. Urratsak eman beharko lituzketen lehenak dira. Agertzen ez badira, asko kostako dela adierazten ari dira jada. Ez dut uste barruko erreakzioen beldur direnik, seguruenik ez zaie aterako. Ez dut uste debekatzen izango dietenik, baina ez dakit, mundu hori oso konplexua da. Baina Udala herritarrengandik gertuen dagoen erakundea da, herritar guztiengandik, eta ausartu beharko luke, dagokion papera bete beharko luke.
- Ezker abertzalean, igual hau gogorra da esatea baina daukazu alkate bat zure taldekoa, edo zure aldekoa, eta bi fiambre jartzen dizkiozu mahai gainean? Lagun horiekin etsaiak ez dituzu behar. Ni alkate izango banintz momentu horretan esango nien: hemen gelditzen za-rete. Ez bat, ez, bi gainera. Bi. Hostia. Nik uste det hemen azkenean gaizki bukatu zun, gaizki edo... nik ustet langile batzuk ez zioten barkatu ezer ez esatea, udaltzain batzuk esaten zu-ten: “¿Si me hubiera matado a mí tampoco ibas a hacer nada?”...
 - Jarrera kontua da. Nik uste dut udal agintean daudenak jarrera bat izan beharko luketela biktimen ondoan egoteko. Ez da hainbeste omenaldi bat egitea, zeren eta azkenean ome-naldi bat... bai, joaten zara, egiten duzu eta kito. Biktimen aldeko jarrera. Eta jarrera horre-kin, eskatu ohi dena: egia, justizia, erreparazioa... jarrera kontua da. Jarrera hori nik ez dut ikusten, ez dut ezker abertzalean oro har ikusten. Ulertzen dut jarrera bezala ondo ikustea lgerategi eta Otañori harrera egitea, baina beste jarrera bat behar da. Beste biktima klase batzuekin duten jarreraren antzekoa. Hori da falta dena Andoainen eta ez bakarrik ezker abertzalean, oro har udal talde guztietan falta da. Biktimen aldeko jarrera, jarrera positiboa, baikorra, hurbiltze hori, sentiaraztea beraiek ze sufritu duten, gerturatze hori. Erreparazio modu bat da hori, ez justiziak-edo ekar dezakeena, hori ere bai. Baina pertsonalki, jarrera bezala hurbiltze hori, horretatik asko falta da.

- *Nire ustez, omenaldietara joan beharko lirateke. Alkatea ez dut inoiz ikusi. López de Lacalle-renean ez dut ikusi, bestera ez da joango ezin delako joan. Ez zait bururatzen zer egin dezaket. Ez zait bururatzen... Agian, mundu hain bereizien artean bilera diskretuak antolatzen baditu, ez? Desberdinen arteko bilerak...*
- *Andoaingo Udaletxeko gobernuan zeuden Joxebaren persekuzioaren lagunak eta erahiltzaileen lagunak. Horri guztiaren gainean badauka zer pentsatua gaurko gobernu taldeak. Joxebaren hilketaren kolaboratzaileak goratuak izan ziren ez familiari barkamena eskatzeagatik, baizik eta hori ez egiteagatik.*
- *Zauriak ez dira sendatu. Andoainen, nik esango nuke oraindik belaunaldi batek oso gordin bizi duela gaia eta ikusten da udalean kontsentsuak lortzea oso zaila dela. Nik uste dut sufrimenduaren magma moduko bat dagoela, ez nuke esango gorrotoa. Herritarren artean ez. Oso diferentea da herritarrok nola bizi dugun hori eta klase politikoak nola erabiltzen duen hori. Elkarbizitza Andoainen, nire ustez prentsan–eta agertzen dena baino askoz txukunagoa da. Ni agurtzen naute EAJko zinegotziek, PSEkoek... Casa del Pueblo–n egon naiz, hurbiltze hori badago. Baina alderdien artean, ordezkari politikoek edo alderdietako egiturek zer ahalegin egiten duten. Erabili egin da, biktimen gaia erabili egin da arerio politikoa desgastatzeko, mintzeko, hondatzeko, hondoratzeko. Eta Andoainen hori horrela da. Udalean dauden ezinikusiak, argi esateko, Andoainen PSE oso gogorra da, nire iritziz. Asko sufritu du, badakit. Ni nire etxean banago nire alabarekin eta molotov koktel bat botatzen badigute, y si sale por patas y de puto callo... Ostias, nik hori aitortzen dut. Gogorra da, niri hori gertatzen bazait, ez dakit nola erantzungo nukeen. Onartzen dut hori. Baina onartzen dut ere aurrera begiratu behar dugula. Ez dut ahazten gertatutakoa, egia da, baina etorkizun on baten alde prest nago atzera hainbeste ez begiratzeko. Eta ez da traidore izatea edo ezkutatutahi izatea, ez, niri balantzan jartzen badidazu: aurrera egin behar dugu, bai ala ez? Hori baldin bada baldintza, jartzen naiz aurrera begira eta prest nago irentsi beharrekoak irentseteko, ez daukat problemarik, baldin eta shock egoeratik irteteko eta aurrera egiteko balio badu. Eta uste dut herritarrek askoz errazago egingo dutela aurrera alderdiek baino.*

POSITIBOA ETA NEGATIBOA

- *Ez dut ia ezer onik ikusten; izan ere, batzuk... Bai, asko kostatzen zait zerbait positiboa ikustea batzuegan. Pentsatu egin beharko nuke, baina une honetan ez zait ateratzen... ziur baietz... Tira, baina, gero, agian...*
- *Erasotzailearen erantzunkizuna ezin diozue biktimari igorri.*

Esan beharra daukagu hurrengo bi galderen kasuan oso zaila izan zela galdetzen zenari erantzutea. Pertsona batzuekin ez zen lortu. Ez gaude ohituta horrelako ariketak egiten. Gehienek ez zuten behar bezala erantzuten. "Besteak" kritikatu bai, baina ez zuten ezer negatiborik adierazi nahi "bereak" aipatzen zituztenean. Eta besteei buruzko gauza interesgarriak ere nekez esaten zituzten, kritiketara bueltatzen ziren. Baina egon ziren erantzun interesgarri batzuk.

Ikusten al duzu ezer positiborik zuk bezala pentsatzen ez duten pertsonengan edo taldeetan?

- *Alderdiko egituraren edo hauteskunde estrategiaren gainetik, Andoaingo herritarren interesen aldekoak diren gaietan itunak egiteko gaitasuna ikusten dut nik, baina zoritxarrez ez da sarritan gertatzen.*
- *Nik bereziki, izenik aipatuko ez dudan ordezkari publiko bati mirespena diot haren eztabaidarako buruargitasunagatik, elkarrizketara irekia dagoelako eta aurkari politikoak errespetatzen dituelako.*
- *Nik hitz egingo nizuke jende konkretu batez, eta niri iruditzen zait jende horrek meritu handia daukala, izenak eta ez naiz gogoratzen. Etxeko norbait galdu duen jendea, biktimak edo deitzen direnak. Erakutsi duten ausardia eta hau konpontzeko egiten ari diren lana, esaten ari direnak hau konpondu behar dugula, aurrera jarraitu behar dugula... Sufrimendua dago, denok sufritu dugu, nire gizona edo beste hura hil dutela, eta horren guztiaren gainetik daude. Niretzat hori txapela kentzeko modukoa da. Niri irudi hori gelditu zait eta uste dut gutako askok ezingo genukeela horrelakorik egin, ezta? Adibidez, Bilboko manifestazio batean ETaren biktima bat joatea pankarta atzean presoek eskubideen alde, horixe behar dugu, pertsonalizatu gabe, ikusi gatazka bere osotasunean eta aurrera egin hurrengo belaunaldiak zulo berean eror ez daitezen. Niretzat eredu garria da hori, pertsona horiek eredu dira eta uste dut beste batzuek bide beretik jarraituko beharko luketela, politikoez, instituzioez... Miresten ditut pertsona horiek, zeren eta ez dakit ni horretarako gai izango nintzatekeen. Ostras, horixe egin behar da, nik uste.*
- *Ez. Ez dut ezer positiborik ikusten. Ongi moldatu naiteke haiekin. Naiz nahiko... Agurtzen banaute eta horrela egiten badidate... lehen espaloiz aldatu eta espainol eta horrelakoak esaten zizkidatenez, bada, nik horrela egiten diet... besterik ez. Baina formalismo bat da, ez naizelako inoiz izan indarkeriazalea... rockerra izan naiz.*
- *Mundu horretako pertsona batzuegan gorrotorik ez izatearen jarrera, itxuraz behintzat; hurbiltzen zaien jendearekiko esker onekoa, Andoainen, hala eta guztiz ere, normaltasunez bizikide izaten ahalegintzearena. Une txarretan ez zion utzi min izugarria eman ziezaioketen lekuetatik pasatzeari, han kasu egiten zioten jendea bazegoen normaltasunez onartzen zutelako, ez ziren harroak... Beste aldean ezagutzen dut, baita ere, hori egin duena, hurbildu egin dena, sentsibilitatea izan duena...*
- *Uste du Bildun kideak baretzen edo kontrolatzen ahalegintzen ari direla. Zaila da, pertsona guztien bizipenen barruan batzuek beste batzuk baino askoz ere biziago bizi izan baitute. Ildo horretan, zaila da, baita ere, pertsona horiek guztiak kontrolatzea eta ikusten da al-dian-al-dian pintadak egiten direla eta asaldura bat egon dela, eta ez hemen, Hernanin. Bai, bai, saiatzen ari dira. Duela pare bat urte mezu oso mingarriak egon ziren Txiki Benegasen aurka. Horiek azkar kentzeko eskatu genuen eta berehala kendu ziren. Denetik dago... Beraien artean euste lan bat egiten ahalegintzen ari dira aurrera joateko...*
- *Nekaezintasuna, pertseberantzia, egoera oso zailetatik ateratzeko gaitasuna...*
- *Batzuk urratsak ematen ari dira bakerantz, seguru nago. Norberak bere eboluzio pertsonala egiten du, beharbada ez zurearen berdina. Eta eboluzio pertsonal horrek beharbada ez zaitu eramango jendaurrean ezer esatera, agian analisia eta kritika barrura begira baka-*

rrik dira, eta kito, zeren eta denak ez dauka jendaurrera atera beharrik. Norberak bereganako hausnarketa eta gertatu denaren analisisa egingo balu, eta oso gaizki egon zela esango balu... nola justifika dezaket bizilaguna hil izana, nola txalotu dezaket... pentsatzen dut baldela hori egin duen jendea.

- *Eta besteak zer egiten duten ondo? hori oso zaila da esatea.*
- *Nik uste dut orain, PSOE adibidez, orain nahiko lasai ikusten dut, gauzak konpontzeko bidean... tira... nik ondo ikusten dut alde horretatik. Ez du gorrotorik bultzatzen, agian PP egiten ari dena, ezta? Agian alde horretatik. Eta asko sufritu dute, asko eman diete eta hil egin dituzte. Nik uste dut ari direla beren aldetik jartzen, egiten ari direla ahalegina aurrera egiteko.*
- *Ez erailtzea oso ondo dago; hortik hasita, hori sekulakoa da. Ez erailtzea sekulakoa da. Tira, nire ustez, aitortu behar zaie urrats asko eman direla eta beste dinamika batean daudela. Helburu batzuk dituzte eta errespetagarriak iruditzen zaizkit, eta uste dut konturatu direla horiek lortzeko ez zela beharrezkoa egiten ari zirena egitea. Gero nire beste hatsa etortzen bazait ere.*

Zer iruditzen zaizu negatiboa zuk bezala pentsatzen dutenengan?

- *Oraintxe bertan gauza negatibo bakar bat ikusten dut ikuspuntu politikotik: Estatu plurinazional bati buruz hitz egiten ari direla. Hori ezinezkoa da. Errepublika federalista bat bai, baina Estatu plurinazional bat ez. Zer esan nahi du horrek? Zer da hori? Ezkerretik esan nahi dut.*
- *Inertzia. Behin eta berriz akats berak egiteko joera. Aldaketari beldurra izatea. Herritarren autonomiari beldurra izatea. Zureenganako konfiantza gutxi izatea...*
- *Ez dut askorik esateko, baina gustatuko litzaidake gureak (sozialistak), sare sozialetan ahalik eta gutxien ateratzea edo Andoainen gertatzen diren bizikidetzak gaiei edo egoerei buruzko iruzkin ahalik eta gutxien egitea; izan ere, baretzen ahalegintzen ari gara, eta zenbait iruzkin ateraz gero, gero itzuli asko ematen zaie eta, agian, sinpleki, kaltetu egiten gaituzte, ez digute inolako onurarik ekartzen. Oro har, gaur-gaurkoz ez gara gai politikarrien artean ardo bat hartzeko elkartzeko.*
- *Berandu iritsi gara, berandu iritsi gara beti... Ni berandu iritsi nintzen. Beste batzuk beranduago. Eta erakundeak askoz beranduago iritsi dira. Askotan ekintzak eta hitzak ez zetozen bat. Adierazpen zoragarri bat egin dezakezu, baina biharamunean egiten duzuna ez baldin badator bat esan duzunarekin, ezikusiarrena egiten edo biktimak politikoki erabiltzen jarraitzen baduzu. Biktimak politikan sar daitezke nahi duten guztietan, baina hitz egiten ari garen guztia alderdien arteko borrokaren aurretikoa da. Berandu iristean gain, uste dut erakundeek batzuetan beraientzako bakarrik egin izan dituztela gauzak, joan ezin zitekeen orduetan... Ekintzek bat etorri behar dute hitzekin.*
- *Guk gauza asko gaizki egin ditugu, ezta? Ba jarri... hasi ginen nik ustet... askotan ez gea eboluzionatu eta batenbat eboluzionatu in danean: que si traidor... hoi ez zait gustatu gure mundutikan.*
- *Ufff. Intrantsigentzia, jarrera aldatzeko gai ez izatea.*

- *Jende batek ez du ezertxo ere jakin nahi. Esaten dute: “Bueno, bueno... iritsi da bakea, tira bakea... iritsi da normalizazioa, segi dezagun bizitzen”. Utzikeria? Batzuen utzikeria da, baina beste batzuen ezin da utzikeria izan, oso grabea litzatekeelako. Utzikeria baino gehiago, zenbait sektoretan –eta nirea ere sartzen dut hor– nagikeria da, bai... Zertarako sartu behar dugu horretan hemen normal bizi bagara? Hori hutsegite bat da. Hau ez al da gure kontua?*
- *Nire alderdiak zer egiten duen gaizki? Alderdiak niretzat aurrera begira dauzkan oztopo handienak barnean ditu, beti dagoelako sektore bat alderdian ezker abertzaleak zer egiten duen begira, nola hurbildu edo haiekin harremanetan jarri. Alderdiak bere bidea egin behar du, besteengan pentsatu gabe eta inoren mende egon gabe. Zentzu horretan, nik uste dut alderdiak ez duela garbi jokatzeko. Ez nuke gauza bera esango lehendakariarengatik.*
- *Nire ustez, gaizki egin diren gauzak aitortu beharko genituzke. Agian, horrek balioko luke guri aitortzen ez zaizkigun gauzak aitortzeko. Zergatik sinetsiko dizut, niri gezurretan ari bazara? Zilegitasun apur bat kentzen dizu. Aitortu beharra dago Alderdi Sozialistan gauza batzuk gaizki egin direla.*

Solaskideen arabera da baita ere; izan ere, azkenean, udalerririk horretan ezetzaren aldekoak badaude alde bakoitzean, nire alderditik horiei urik ere eman behar ez zaiela pentsatzen dutenetako bat badago eta beste aldetik ere pentsamendu bera duen bat, akabo, ez baitugu ezer lortuko.

- *Ez dela ezer egiten gai honi “adarretatik” heltzeko. Ikusten dugu bizikidetzak posible dela, urrats bat emanda aitzindari izan gaitzkeela, inoren zain egon gabe, eta uste dut esku frenoak botata dugula alde horretatik. Oro har, erraza litzateke urratsak egitea eta ez dira egiten, edo oso txikiak dira. Keinu pertsonalak ere egin daitezke. Udaletik kanpo, ezker abertzalean badaude alkate izandakoak, badaude “prohombres” edo “promujeres”, nolabait itzala izan duten pertsonak, eta horiek ere egin zezaketenez zerbait. Eta ez da egiten.*

9.

Testuinguru kronologia

AZKEN HIRUROGEI URTEETAN ZIO POLITIKOKO INDARKERIARI LOTUTA ANDOAINEN IZAN DIREN GERTAERAK

Testuinguru kronologia deitu dugun gertaeren errebaso honek biltzen ditu bai indarkeria politikoari lotuta Andoainen izan diren gertaerak bai herrian gertatu ez izanagatik harekin zerikusia izan dutenak edo hari eragin diotenak. Andoaingo historia hurbilaren errebaso honen helburua, hortaz, gertatutakoaren argazkia osatzen laguntzea da.

Erraz uler daitekeenez, gertaera jakin batzuk aipatzeke gelditu dira, orriotan jasoak izateko zailtasunagatik: jazarpen kasu jakin batzuk, irainak, mehatxuak, eraso guztiak, greba eta manifestazioetan zauritutakoen kasu guztiak, udal ondarearen aurkako ekintza guztiak, beldurra eragiteko eginiko pintada guztiak... Horiek guztiak beste lan batean jaso litezke, beharbada.

Lan honen edukia zabaltzeko eginkizun horretan, beste zeregin bat izan liteke aipatu gabekoei txosten hau idatzi duen taldeak eginiko akats posibleen zuzenketa gehitzea. Halakorik gertatu bada, barkamena eskatu nahi dugu alde zurretik.

Kronologia honetan norabidea aurkitzeko, oso lagungarri izan zaizkigu Peio Urrutia Ochoak, Karmele Otaegi Negredok, Víctor Placencia Mendiak edo Pedro Barruso Barések Andoain eta andoaindarren historiari buruz idatzi dituzten lanak, hainbat formatutan jasota daudenak *Leyçaur*¹⁰¹ aldizkarian. Herri honen bilakaera historikoa ezagutu nahi dutenek altxor idatzi bat aurkituko dute Andoaingo Udalaren web orrian: *Leyçaur* – Ikerketa Historikoen Aldizkaria. Legatu hori erabili dugu kronologia honen lehenengo atala osatzeko, aipatutako pertsonen modu egokian jaso dituzten lekukotasun eta gertaerekin. Balio handikoa izan zaigu ere Xabier Lasa Oroituz Andoainen taldeko kideak egin duen kontraste lana 1977 urtearen arte.

101 Ikus *Leyçaur* bilduma Udalaren web orrian: <http://www.andoain.eus/eu/leycaur-ikerketa-historikoen-aldizkaria>

FRANKISMOAREN BIGARREN ERDIA

1956

Otsailaren 10a. Francoren Ministro Kontseiluak lehen salbuespen-egoera agindu zuen, hiru hilabete iraungo zuena. Espainiarren Foruko 14. eta 18. artikulua ezabatu ziren, bizilekua aukeratzeko eskubidea eta komisaldegian atxilotutakoak 72 orduan askatzeko betebeharrak aitortzen dituztenak, hurrenez hurren. Dena den, grebak ugaritu egin ziren apiriletik aurrera. Horren bidez, diktadura saiatu zen geldiarazten lan gatazken berpizte bat, 1947 eta 1951ko lanuzteen ondoren, eta sindikatu bertikalaren aurkako lehenengo ikasleen protesta.

Apirilak 9. Salbuespen egoera betean, egongreba deitu zuten Andoaingo Laborde Hermanos enpresan. Apirilaren 14an, bat egin zuen lanuztearekin Intex enpresak; langile bat atxilotu eta Martuteneen espetxeratu zuten. Apirilaren 16an, SAPA eta Comacq-eko plantillak irten ziren (azken horretan lau langile kanporatu zituzten). Apirilaren 17an, Moleda eta Fábrica de Bombas enpresek egin zuten bat grebarekin. Apirilaren 20an, enpresatik irtetea galarazi zien Guardia Zibilak Labordeko langileei.

SAPAn, ordezkari sindikal gisa aritzen ziren Eugenio Ariztimuño eta José María Olazabal, besteak beste. Lehenengo lanuzte handia izan zen 1936ko kolpe militarren ondoren¹⁰². Frankismoaren lehen etapan, Fuero del Trabajo delakoak *lesa patria* delitutzat hartzen zituen grebak; 1944ko Zigor Kodeak, sedizio delitutzat¹⁰³.

Víctor Placencia Mendiaren hitzetan: *“Jendearen egonezina aurretik bazetorren ere, 1956ko udaberrietik aurrera hasi zen egiazki kezagarri izaten agintarientzat, bat-batean sortu eta lan arloan erreibindikazio kutsu nabarmena zuen greba mugimendu bihurtu baitzen. Nahiz eta, garai horretan, aldarrikapen politikotzat har zitekeen diktaduraren kontsignen aurkako ekintza oro”*¹⁰⁴. Peio Urrutiak hauxe dio:

Herria aldatzen ari zen, ikuspuntu guztietatik. 1950etik 1965era doan epean, bikoiztu egin zen biztanleria (4.647 biztanle izatetik 9.548 biztanle izatera igaro zen). Peio Urrutia Ochoak zertzelada batzuk ematen ditu:

*Oposizio politikoan, baita sindikalean ere, belaunaldi aldaketa bat gertatu eta gerra zibila bizi izan ez zuten protagonista berriak nagusitu ziren, kutsu antifrankista nabarmeneko talde ugarien sorrera eta zati-keta ideologiko oso indartsu batekin. Kristau joerako sektoreak sartu ziren udaletan, gizarte arloan aurrera egin nahi zutenak, ‘demokrazia organikoaren’ zirrikituak aprobetxatzen saiatu zirenak udal kudeaketan parte hartzeko. (...) Horrekin batera, moral aberkoi hantustearen desaktibazio ideologiko bat gertatu zen, asperduraren asperduraz, baita moral erlijiosoarena ere egunerokotasunaren ikuspegitik”*¹⁰⁵.

Diktadura frankistak biltzeko sortzen zituen gorabehera eta arazo gainditu ondoren azaroaren 1an Santa Cruz Lagun-talde Elkarteak sortu zen¹⁰⁶.

102 Beste bi greba orokor izan ziren, 1947an y 1951n.

103 PLACENCIA MENDIA, Víctor (2012). *Sociedad anónima de Placencia de las Armas. SAPA. Trayectoria histórica de una empresa (1935–1985)*. Leyçaur 12, Andoaingo Udala, 318.–321. or.

104 *Ibidem*, 318–321. or.

105 URRUTIA OCHOA, Peio (2010). *Doce mil tres: Apuntes para el final de una década (Andoain, 1966–1970)*. Leyçaur 11, 301. eta 302. or. Andoaingo Udala.

106 Andoain y su historia. El escopetero de Andoain. j.irusta.orbegozo@kzgunea.net

1958

Martxoak 26. Andoaingo enpresa gehienek bat egin zuten bezperan Tolosako paper fabriketan hasi ziren lanuzteekin: *“Mila langile inguruk egin zuten greba”*¹⁰⁷. Sei langile atxilotu zituzten Tolosan eta istiluak izan ziren Andoainen eta Villabonan. JOC (Juventud Obrera Católica)¹⁰⁸ eta HOAC¹⁰⁹ erakundeetako eliz ordezkariak gobernadore zibilar eman zioten idatzi batek honako hau zioen, besteak beste: *“Uste dugu kalte izugarria egingo diotela gizarte bakeari grebalari batzuen aurka hartu diren zigor neurriek”*¹¹⁰ (Víctor Placencia Mendiak adierazten duenez, 1954ko udaberriko hauteskunde sindikalen ondoren, ordezkari sindikalen karguetara iritsi ziren abertzaletasunetik, karlistotik edo sozialistotik zetozen pertsonak, baita HOAC eta JOC erakundeetatik zetozenak ere. Bere aldetik, Peio Urrutiak dioenez, 1961eko greban, karlistak, sozialistak, errepublikanoak, abertzaleak eta JOCeke ordezkariak zeuden Laborde SA enpresako batzordeko kideen artean).

Abuztuak 18. Francisco Franco diktadorea, agintari militar, zibil eta erlijioso talde handi batek lagunduta, bisitan etorri zen Andoaingo SAPA enpresaren kanoi fabrikara. Segurtasun indarrek hartu zituzten herriko kaleak. SAPA inguruetan, bost metrotik behin kokatu ziren guardia zibilak.



Pontxo Iriarte Francoren eskuinean,
198an SAPAn¹¹¹.
AUA 3673 © Truchuelo

Abenduaren 1a. Deban egindako bilera batean, izena jarri zitzaion Ekin-eko kideek eta EGI-ko kide ohiek osatutako erakunde berri bati: Euskadi ta Askatasuna (ETA).

1959

Ekainak 18. PCE k greba orokorrerako deialdia egiten du Espainiar Estatu osoan.

Uztailaren 30a. Ordena publikoa arautzen zuen 45/1959 legea onartu zen, bai eta salbuespen-egoeren erregulazioa ere, frankismoaren oinarritzko legeetan aurreikusi bezala. Lege horren 2. artikuluan, besteak beste, ordena publikoaren aurkako balizko ekintzak jasotzen ziren: Espainiaren batasun espiritualaren, nazionalaren, politikoaren eta sozialaren aurka egiten dutenak; geldialdi

107 URRUTIA OCHOA, Peio (2008). *XXV años de paz y cinco mil días de paciencia (Andoain 1952–1965)*, Leyçaur 10. Andoaingo Udala, 327. or.

108 *Juventud Obrera Católica*. Langile gazteek osatutako elkartea. Diktaduran onartu ziren erakunde bakarrak Eliza Katolikoa-ri lotuta zeuden.

109 *Hermanidad Obrera de Acción Católica*. 1946an sortua. Erakunde honetako kide asko frankismo garaiko lan arloko borroketan aritu ziren; gerorago, USO sindikatuaren eta lehenengo Langile Batzordeen sorreran parte hartu zuten.

110 ESNAOLA, S; ITURRARAN, F. *El clero vasco en la clandestinidad*. Bilbo, 1994. Hemen aipatua: URRUTIA OCHOA, Peio, Op. Cit., 328. or.

111 Elkarrizketa Pontxo Iriarteri Aiurri aldizkarian (2008/12/02). http://aiurri.eus/Andoain/Albisteak/20081202/Klandestinoa_Francoren_ondoan

kolektiboak, bide publikoetako jende-pilaketak, manifestaldiak eta elkarretaratze publikoak; su-bertsioa eragin dezaketen propaganda eta gomendioak; agintarien edo haien agenteen erabakiei men ez egitea... Horrez gain, hedabideen eta ekitaldi publikoen zentsura xedatu zen (29. artikulua), bai eta etxeen erregistroak ere, eta enpleguaren eta soldataren “behin behineko” etenak funtzionarioentzat, “errekurtsorik jartzeko aukerarik gabe” (30. artikulua)¹¹². Hori gutxi balitz bezala, gainera, ez zegoen salbuespen-egoera haiek kontrolatuko edo ikuskatuko zituen erakunde judizial independenterik (ezarritako hamabi haietatik 11k eragina izan zuten euskal probintziaren batean)¹¹³.

1960

Ekainak 27. DRIL¹¹⁴ taldeak bost lehegailu ipini zituen Bartzelonan, Madrilen eta Donostian. Gipuzkoako hiriburuan, Begoña Urroz haur lasartearra hil zen leherketaren ondorioz. Gobernazio Ministerioak “*atzerriko elementuen kontsigna terroristei*” egotzi zizkien lehegailuak, “*Espainiako komunistekin eta separatistekin batera dihardutenak*”¹¹⁵.

Irailaren 21a. Altxamendu militarren, bidelapurreriaren eta terrorismoaren aurkako dekretua onartu zen. Dekretu horren 2. artikuluan ordena publikoaren aurkako delitutzat jotzen ziren grebak eta manifestaldiak, bai eta erregimenak lerratutzat edo faltsutzat jotako berriak hedatzea ere. Artikulu hori indarrik gabe utzi zen 1963an, Ordena Publikoaren Auzitegia sortu zenean, baina berriro indarrean jarri zen 1968an, ETAk Gipuzkoako Brigada Politiko Sozialeko inspektoreburua, Meliton Manzanos Gonzalez (59 urtekoa) hil zuenean.

1961

Uztailak 29. Ildfonso Iriarte Otermin *Pontxo* atxilotu zuten ehun pertsonatik gora atzeman zituen polizia sarekada batean (hirurogei bat espetxeratu zituzten). Atxilotuei leporatu zieten Espainiako banderak erretzea Donostian eta Zarautzen, eta uztailaren 18an (kolpe militarren urteurrena) Donostian soldadu frankista ohiak zeramatzan tren bat deskarrilatzen saiatzea. *Pontxo* Iriarte EGI eta Ekin erakundeetako militante izana zen eta ordurako ETAn ziharduen, eta haren aurkako akuzazioa izan zen legez kontrako propaganda egitea eta gazteak erakundera erakartzea, Andoaingo “Escuela Nocturna” zelakoan irakasle zela baliatuta (SAPAn zuen lanarekin bateratzen zuen zeregina). Formakuntza doan ematen zuen eskola bat zen (kontabilitate arloan izan ezik), eta gazteei eduki akademikoak edo prestakuntza teknikoa emateaz gainera, saiatzen zen mendi txangoen eta eskolaz kanpoko jardueren bidez “*espíritu crítico sustatzen eta ikusteko eta behatzeko, ulertzeko eta interpretatzeko, ezagutzeko eta aldatzeko gogoia pizten*” (Urrutia 2008: 299).

Jipoez eta ukabilkadez gainera, komisarian “harrien tortura” egin ziotela adierazi zuen Iriartek: gal-tzontzilotan eta eskuak bizkarrean lotuta, harriz betetako ontzi batean belauniko, buruan eta belarrietan eman zizkioten kolpeek harrien gainean mugitzera behartu zuten¹¹⁶. Oraindik ere ikus daitezke tortura horren ondorioak haren belaunetan. Melitón Manzanos izan zen buru galdeketa saioetan.

112 *Ibidem*, 58. eta 59. or.

113 *Ibidem*, 60. or.

114 *Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación*.

115 *La Vanguardia Española* 1960/06/28.

116 *Pontxo* Iriarteren lekukotasuna, talde idazleak 2018/07/06an Donostiako Antigua auzoan bildutakoa.

1962

José Mari Olazabalen¹¹⁷ lekukotasuna, garai hartan Andoaingo Udaleko zinegotzi zena (halaber, USO sindikatuko militante eta SAPA enpresako batzordeko kidea):

Gogoan dut fabrikara deitu eta esaten zidatela: 'Bihar Franco dator, Donostiara joan behar da ongie-torria egitera'. Eta berehala hasten zen tripako mina... Batzuetan esaten nien gaixo nengoela eta ez nintzen joaten; beste batzuetan, aldiz, joaten nintzen, beldurragatik, egokitzen zitzaidan lekura, Foru Diputazioko Plazara ia beti. Politikoki, men egin behar zenion agintzen zizutenari, eta ez zegoen inolako aukerarik ezer eztabaidatu edo interpretatzeko.

Urtarrilak 14. Pontxo Iriarte espetxetik irten zen, bost hilabetez behin-behinean espetxeratuta egon ondoren (lehenengoa, inkomunikatuta).

Otsaila, martxoa eta apirila. Protesta handiak hainbat enpresatan, eta atxilotetak, tratu txarrak, isunak eta kaleratzeak. Elkartasuna, baita ere¹¹⁸.

Maiatzak 4. Lan gatazkak areagotzen ari zirenez, hiru hilabeteko salbuespen egoera ezarri zuen Espainiako Gobernuak Gipuzkoan, Bizkaian eta baita Asturiasen ere (meatzarien protestak hasi ziren). Agintari frankistek *"asmo gaiztoko kanpoko propagandari"* leporatu zioten errua; aldiz, Gipuzkoako gobernadore zibilarentzat, *"propaganda komunistak artifizialki sortutako anormaltasun egoera"* bat izan zen.

Egun berean, gobernadore horrek jakinarazpen bat bidali zion Andoaingo alkateari, gobernuak Beasaingo CAF itxi ondoren:

Gobernuak hartutako neurriari dagokionez, *"ez da salatutako lan gorabeheren areagotze baten ondorio, neurriak hartzeko aukera bermatzeko beharraren ondorio baizik, beharrezkoak izanez gero, gatazkak ez daitezen zabaldu, ordena eta bake publikoa arriskuan jar dezaketen alterazio bihurtuz"*. Gainera, Andoaingo alkateari agindu zitzaion erne egoteko, edozein gorabeherari berehala aurre egiteko prest: *"herri horretan nire Agintaritzaren ordezkari zaren aldetik, kontuan izango duzu beti aipatutako Dekretua (...), segurtasuna eta ordena bermatuz, eta horiek berrezartzen ahaleginduko direnei lagunduz, baita lan diziplina berrezartzeko eginkizuna dutenei ere; azken batean, berehala eta arduraz lagunduz herri horretako bakea eta ordena publikoa ezinbestean mantentzeko zeregina dutenei"*¹¹⁹.

Ekainaren 8a. Salbuespen-egoera hura Espainia osora zabaldu zuten, "Euskal Herriko industria-guneetako langile-gatazka orokortuak, oposizioa Municheko Biltzar Politikoan berrantolatzen ari zela eta ikasle-gatazkak"¹²⁰ argudiotzat jarrita. 14. artikulua eten zuten, egoitza-askatasunari eragiten diona, biltzar horretara joan zirenetako batzuk konfinatzeko helburuarekin.

117 José Mari Olazabalen 60etako hamarkadari buruzko lekukotasuna, URRUTIA OCHOA, Peiok bildutakoa, *XXV años de paz...* Op. Cit., 238. or.

118 ARACIL, Rafael; OLIVER, Joan; SEGURA, Antoni (1998). *El mundo actual. De la Segunda Guerra Mundial a nuestros días*. Ediciones Universitat de Barcelona, p. 308. or. Halaber, hemen: *Huelgas de 1962*, Fundación Juan Muñoz Zapico. CCOO de Asturias/ Comisiones Obreres d'Asturies. 50. urteurrena, 2012.

119 URRUTIA OCHOA, Peio. *XXV años de paz...* Op. Cit., 335. or.

120 GURRUCHAGA ABAD, Ander (1985). *El código nacionalista vasco durante el franquismo*. Anthropos. Conciencia y libertad bilduma, 294. or.

Abuztuak 20. Polizia operazio zabala hainbat arrazoirengatik (ELA, ETA...) aurretik fitxatuta zeuden pertsonen aurka. Poliziak *Pontxo* Iriarte atxilotu zuen berriro, goizaldeko 04:00etan. Donostiako Aieteko bidean jarritako lehergailu batekin lotu nahi izan bazuten ere (Francok izen bereko jauregira joateko erabiltzen zuen bidean, hain zuzen), geroago atentatu saioaren egileak –anarkistak, antza– atxilotu zituzten. Melitón Manzanás izan zen galdeketen buru, eta Iriartek adierazi zuen *“behin eta berriro jipoitu”* eta borrekin gogor kolpatu zutela. *“Harrien tortura”* egin zioten berriro. Gainera, *“ez ziguten uzten lo egiten eta egun osoz galdekatzen gintuzten, txandaka, atsedenerako tarterik utzi gabe”*¹²¹; *“gure umiliazioa bilatzen zuten eta ‘emagalduek’ deitzen zieten gure emazte eta neskalagunei”*¹²². 1963ko martxoaren 2an, Gerra Kontseilu Sumarisimo batean epaitu zuten beste 13 lagunekin batera. Epaietan lehergailua akusaziotik kanpo gelditu bazen ere, sei urteko espetxe zigorra ezarri zioten, *“ETA erakunde separatistako kide”* izateagatik, Frantzian erbesteratutako pertsonekin harremanetan egoteagatik eta legez kontrako propagandagatik.

1963

Maiatzak 20. *Pontxo* Soriako espetxera eraman zuten Carabanchelgo espetxetik. Sorian espetxeratu zegoela, emaztea –Mari Kruz Okiñena andoaindarra– lehenengo alabaz erditu zen: Maddalen.

Maiatzaren 30a. Francoren Ministro Kontseiluak Ordena Publikoaren Auzitegia sortzea onartu zuen, eta Gorteetara igorri zuen lege–proiektua. Abenduaren 2an argitaratu zen.

Irailak 2. Goiz–goizetik, Guardia Zibilaren Andoaingo kuartelaren aurrealdea paperezko ikurrinez beterik agertu zen.

Azaroak 12. Ikastola zabaldu zen, Kale Nagusian, 53 umerekin. Aurreko urteetan, euskara klaseak eman ziren ezkutuan etxe partikularretan.

Ikastola iriki gendun, beste batek eta nik. Mari Paz Artolazabal

*Ikastolen mugimendua Gipuzkoa osoan behin betiko sendotu eta neurri batean klandestinitatetik atera bazen ere, 1970an oraindik ez zuen inolako aitortza ofizialik*¹²³.

Abenduak 13. Ángel M^a Artola Lizarribar atxilotu zuten (gerora ETA Berri eta EMK erakundeetako kide izango zena), eta sei hilabeteko espetxealdia ezarri zioten. Ondoren, erbestera ihes egin zuen.

1964

Otsailak 9. Poliziaren sarekada batean, Xabier Izko de la Iglesia¹²⁴ atxilotu zuten, JOCeke kide ohia eta une horretan ETako militante zena, urtarrilaren 6an Andoaingo San Martin elizaren kanpandorrean ikurrina handi bat jarri izanaren akusaziopean. Hainbat lagunek herriko kuartelera joan behar izan zuten, guardia zibilen galderei erantzutera; horien artean, Esnal jaunak, kanpandorreko erlojuari giltza emateko ardura zuena¹²⁵.

121 *Pontxo* Iriarteren lekukotasuna. Hemen: *XXV años de paz...* Peio Urrutia Ochoa.

122 *Ibidem*. Mari Kruz Okiñena, andoaindarra, *Pontxo* Iriarteren neskalaguna zen.

123 *Doce mil tres*. Op. Cit. 336. eta 362.

124 1970eko abenduan epaitu zuten Burgosko epaietan eta heriotza zigorra ezarri zioten (kommutatu egin zioten gero).

125 Jokin Esnalen lekukotasuna. Hemen: URRUTIA OCHOA, Peio. *XXV años de paz...* Op. Cit.

Martxoak 8. “Fiesta de los Mártires de la Tradición” izeneko karlisten ospakizunean, erregimeneko agintari eta pertsona ospetsu ugari bildu ziren herrian; besteak beste, Manuel Valencia Remón Gipuzkoako gobernadore zibila eta Juan de Aizpurua “Movimiento”-ko buruzagiordea. Langileen adarreko ETAko kideek (1967an ETA Berri eta 1969an Komunistak –‘maoistak’, Jesús Mari Olazabalen hitzetan¹²⁶–) sabotaje sinboliko bat egin zuten, bonba kirasdunak jaurtiz ekitaldi nagusia egiteko aukeratu zen Maiza zinema areto barnean.

Martxoak 13. Poliziak Luis María Garmendia Alberdi atxilotu zuen komisarian bertan aurkeztu zenean.

Apirilak 1. “XXV años de paz” izeneko kanpaina frankista, 1936ko estatu kolpearen ondotik frankistek lortu zuten garaipen militarren urteurrenean.

Apirilak 15. Hainbat atxilotu ETArekin lotuta (Langile Mugimendukoa; gero, ETA Berri): Juan Martín Gogorza Alcoz¹²⁷, Javier Zubillaga Agirrezabala, Jesús María Olazabal Iñurrita¹²⁸ eta Juan Pedro Arregi Goikoetxea, denak 19 urtekoak. Beste hiru lagun atzeman zituzten Zarautzen eta beste bat Getarian. Egotzi zizkieten ekintzen artean: Pablo Echeveste Andoaingo frankista ezagunaren [Andoainen 1936ko errepresioko eragile aktiboenetako bat izan zen, eta Andoaingo alkate, 1940–1943] autoari sabotajea egitea (autoaren gurpilak zulatu zituzten), herrian legez kontrako propaganda banatu eta pintada subertsiboak egitea, Belkoain mendiaren gurutzean ikurrina ipintzea eta Maiza zinema aretoan martxoaren 8an bonba kirasdunen bidez eginiko erasoaren egileak izatea. Espetxeratu egin zituzten, legez kontrako elkartegatik eta legez kontrako propagandagatik.

Maiatzeko lehen egunak. Santa Krutz jaiak. Joxe Etxeberria Lasarte Urnietako gaztea guardia zibilek atxilotu eta Andoaingo Alhondigako kuartelillora eraman zuten. Bezperako dantzaldian zehar, musika taldeak atsedean hartu zuenean, mikrofonoa hartu eta “Gora Euskadi askatuta” oihukatu zuen. Torturatua izan zela kuartelilloan adierazi zuen.

Abuztuak 5. José Mari Olazabal Iñurrita, USOko kidea, hilabete eta erdirako kaleratu zuten, urte horretako udaberriko lanuzteetan parte hartzeagatik.

Urriak 14. Javier Zubillaga Agirrezabala, Jesús María Olazabal Iñurrita, Juan Martín Gogorza Alcoz eta Juan Pedro Arregi Goikoetxea epaitu zituzten ETAko kide gisa sabotajeak egin, ikurrinak jarri eta pintadak egiteagatik. TOPEk epaitu zituen.

Urriaren 6tik azaroak 9ra. Gipuzkoako hainbat herritan bi astez egin zen polizia erregistro eta sarekada baten emaitza: 21 lagun espetxeratu zituzten Martuteneko kartzelan. Bi andoaindar, horien artean: María Concepción Amiano Apalategi, ETArekin zerikusia zuelakoan, eta Ricardo Arregi Aranburu, 20 urtekoa, urriaren 22an atxilotua, Euzkadiko Aliantza Sindikalak (STV, UGT eta CNT)¹²⁹ eta Euzko Gaztedi EAJko gazte erakundeak sinatutako esku-orri batzuen banaketarekin lotua. Azkeneko orri hauek ezbaian jartzen zuten karlistek eta falangistek “Tradizioaren Martiriei”

126 Jesús María Olazabal Iñurritaren lekukotasuna. Hemen: URRUTIA OCHOA, Peio, Op. Cit., 363. or. Hizkera arruntean, Olazabalek “txinatarrak” deitzen die, beren orientazio politiko maoistarengatik; talde horretakoa zela aitortzen du.

127 Lehenengo langile batzordeetako kide ere izan zen. Lau aldiz atxilotu zuten.

128 Gutxienez hiru aldiz atxilotu zuten.

129 236/1964 Sumarioa.

eskainitako ospakizun-omenaldia¹³⁰, Andoainen “*ez baitzen heriotza bakar bat ere izan*”, eta bai, ordea, “*17 andoaindarren fusilamendua, haien delitu bakarra izanik euskaraz pentsatzea eta demokrata gisa aritzea*”¹³¹.

Azaroak 2. 236/1964 sumarioan, Guardia Zibilaren Komandantziako buru zen teniente koronelak azken atxilotuen polizia fitzak bidali zizkion epaileari. Ricardo Arregiri dagokionez, ez ziren Euzko Gaztediren esku-orriak aipatzen, eta honako hau irakur zitekeen:

“Ricardo Arregui Aramburu, (a) ‘Lucas’, nacido el 22 de septiembre de 1942, hijo de Pedro y Benita, soltero, estudiante de Ciencias Económicas, natural y vecino de Andoain, con domicilio en la villa Eguzki-alde.

“Este individuo es de buena conducta moral pública y privada; no consta haya sido sancionado por hechos delictivos en infracciones a Leyes o Reglamentos. Es persona muy amante del estudio y posee una instrucción muy elevada, siendo escritor o colaborador de la revista escrita en lengua vasca, titulada ‘Zeruko Argia’, que significa ‘Luz y Cielo’, estando considerado por sus congéneres como intelectual.

“Políticamente, carecía de antecedentes; no obstante no haber demostrado su ideología, se le consideraba como nacionalista–vasco–separatista educado en ambiente muy arraigado de este matiz.

“El día 22 de octubre último fue detenido por fuerzas del Servicio de Información de esta Comandancia, por formar parte de una organización clandestina, titulada “Alianza Sindical de Euzkadi STV, UGT y CNT” la cual había puesto en circulación la propaganda titulada “Trabajador de Euzkadi”, haciendo un llamamiento a la población obrera para que se manifestara pacíficamente en esta capital, el día 18 del mismo mes. Este individuo tenía como misión ser asesor político de F. L. G. y Jefe de la Zona para la distribución de propaganda en Andoain, habiendo tenido contactos además con elementos del Gobierno de Euzkadi en el exilio. Fue ingresado en prisión a disposición de ese Juzgado”¹³².

Abenduak 17. Ricardo Arregi Martuteneko espetxetik irten zen, epaiketaren zain.

1965

Apirilak 11. Ezezagunek ikurrina ipini zuten Udaletxearen erdiko mastan. Guardia Zibilak hainbat lagun deitu zituen kuartelera, galdekatuak izateko.

Maiatzak 12. Kontxi Amiano Apalategi epaitu zuten TOPen.

Ekainak 28. Eginbideak ireki ziren herriko gazte batzuen kontra, “*txistulari batzuek hainbat doinu jotzeagatik esanahi nazionalista beteko kantuez lagundurik*”¹³³. Gobernadore zibilak mila pezetako isunak ezarri zizkien lau gazteri eta 500 pezetakoak gainerakoei, garai hartan kopuru handiak zirenak.

130 BAZTARRIKA, Patxi (1998). *Ricardo Arregi (1942–1969)*. Kultur Saila. Eusko Jaurlaritza, 4. or.

131 *Ibidem*. Esku-orriaren erreprodukzioa, 10. or.

132 236/1964 sumarioa.

133 URRUTIA OCHOA, Peio, Op. Cit., 367. or.

Urriak 27. TOpek Ricardo Arregi Aranburu kondenatu zuen beste bederatzi lagunekin batera. Bi ziren akusazioak: legez kontrako propaganda (Euskadiko Aliantza Sindikalak Donostiako Sindikatuen Delegazioaren aurrean deitu zuen elkarretaratzearen berri ematea) eta legez kontrako elkarteak (EAJ–Euzko Gaztediri lotua). Fiskalak ez–frogatutzat jo bazuen ere bigarren akusazioa, lehenengo auziagatik kondenatu zuten Arregi: urtebeteko espetxealdi txikia eta 10.000 pezetako isuna.

Abendua. Aldaketa Zigor Kodean, greba ekonomikoa eta greba politikoa bereizteko. Auzitegi Gorenaren epaia PCEn aurka legez kontrako elkarteagatik.

1966

Langileen borroka bat egin zuen neurri handi batean oposizio politikoarekin eta borroka antifrankistarekin. (...) Botereak goitik behera kontrolatzen zuen prentsak eta egunkariak Informazio Ministerioaren kontsignak argitaratzen zituen era mimetikoan. [1966ko abenduaren 14an, Lege Organikoaren erreferendumean] "Andoainen, aurkako botoa nabarmen handiagoa izan zen hiriburuan eta probintziako beste herrietan baino. (...) Erreferendumak ez zuen inolako eragin politikorik izan gazteen artean, eta ageriago utzi zuten hori Udaletxearen leihotatik zintzilikatutako hauteskunde propagandaren aurkako erasoek eta frontoian eginiko pintadek, biztanleriaren zati esanguratsu baten erregimenaren kontsignekin bat ez egiteak baino"¹³⁴.

Urtarrilak 14. 15 eta 20 urte arteko lau gazte kuartelera eraman zituzten herriko kaleetan botatako esku–orriak lurretik hartzeagatik. Orri horietan, espetxean gose greban zegoen José Luis Zalbide etakidearen egoera salatzen zen.

Urtarrilak 25. Ángel Artola Lizarribarren epaiketa TOPen. 1963an atxilotu zuten.

Apirilak 10. Guardia zibilek Xabier Amiano Apalategi 22 urteko gazte andoainarra zauritu zuten balaz sorbaldan Irungo La Salle ikastetxearen ondoan, beste gazte batzuekin batera ETAk deitutako Aberri Egunean parte hartzeko menditik herri horretara sartzen saiatzen ari zela. EAJK Gasteizera joateko deia egin zien bere jarraitzaileei. Irungo sarbideak segurtasun indarrek zainduta zeuden eta kontrol horietako batetik tiro egin zuten. Mertxe Eguren Garcés ere zauritu zuten, Erandioko 19 urteko gaztea. Bi–biak ospitaleratu egiten zituzten.

Maiatzak 7. Hilabete geroago, balaz zauritutako bi lagunak atxilotu zituzten Andoainen (Mertxe Eguren Garcés eta Xabier Amiano Apalategi), beste bi pertsona ezagunekin batera (José Martín Gogorza, horietako bat). Hainbat lagunekin elkarte batean afaltzen ari ziren. Jende ugari bildu zen Guardia Zibilaren kuartelaren aurrean protesta egitera, eta atxilotuak aske utzi zituzten.

Abuztuak 7. Zumarragan, Gipuzkoako Behin–behineko Langile Batzordea ("Comisión Obrera Provisional") sortzeko batzarra egin zen. Andoainekin lotutako bi pertsona izan ziren batzar horretan: José Luis López de Lacalle Arnal (PCEn zuzendaritzako kidea) eta Jesús María Olazabal Iñurrita (ETAko Bulego Politikoarekin –ETA Berri, gero– lerrokatua). Tolosaldeko delegatu aukeratu zituzten biak¹³⁵. Guardia Zibilak ekitaldi publikoaren aurka egin zuen. Kontrolak jarri eta nortasun

134 *Doce mil tres*. Op. Cit. 336., 362., 401. eta 405. or.

135 BARRUSO BARÉS, Pedro (2017). "Guerra civil y Franquismo en Andoain (1936–1975). *Leyçaur* 14. Andoaingo Ikerketa Historikoen Aldizkaria, 564. or.

agiriak kendu zizkien lagun askori. Egun berean eta hurrengoetan, Behin-behineko Langile Batzordeko langile batzuk atzeman zituzten: José Luis López de Lacalle eta Jesús María Olazabal Iñurrita, besteak beste.

Abuztuak 25. *El Diario Vasco* egunkariak honela kontatu zuen José Luis López de Lacalleren atxiloketa:

Brigada Politiko–Sozialaren lan arretatsuari esker, hainbat material eta idazteko makina bat aurkitu zituzten haren etxean atzo goizalean, propaganda lan ugaritan erabili direnak. Poligrafoz egiten ziren kopiak, noizean behin banatzeko edo “Unidad y Lucha” izeneko liburuxkaren bidez zabaltzeko (“Órgano de la oposición sindical de Guipúzcoa” azpiztituluaz hilean behin argitaratzen zena)(...)

Galdeketa zorrotz baten ondorioz eta aurkeztutako frogen ebidentziaren aurrean, aipatutako J.L. López de Lacallek probintziako antolakuntzako izenak eta egitura jakinarazi zituen. Horri esker, bi etxe lokalizatu ziren (...) “Mundo Obrero” aldizkariaren plantxak eta literatura komunista eta separatista ugari. (...) Aipatu beharrekoa da aitaturako “Unidad y Lucha” panfletoa, aurtengo apirilaren 1ean, gipuzkoarrei zuzendu zitzaizela Aberri Eguna zela–eta, Euzkadiko Alderdi Komunistako Batzordeak sinatuta.

(...) Langile Batzordeak, ordezkaritza sindikalak albo batera utzirik beren baldintzak inposatzen zituztenak, enpresekiko elkarrizketak eta negoziazioak nahasiz, lanuzteetara deituz, helburu politiko eta subertsibo argiekin. Geroago, haien jarduera bideratu nahi izan da Pragako Radio España Independiente–tik behin eta berriz eginiko deien bitartez, bat egin dezaten beste erakunde batzuekin: hala nola HOAC (Hermandades Obreras de Acción Católica), JOAC, Demokrazia Kristaua eta ETA erakunde separatistarekin, probintziako batzorde bat osatzeko (...).

Urteak geroago, *El País* egunkariak honako hau idatzi zuen José Luis López de Lacalleren atxilotetari buruz:

*José Luis basatiki torturatu zuen Meliton Manzanasek, frankismoko polizia politikoaren buruzagi zena Donostian*¹³⁶.

José Luis López de Lacalleri 6 urte eta 6 hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten, legez kontrako elkarreagatik eta legez kontrako propagandagatik. 1971n atera zen kartzelatik, 5 urte espetxean eman ondoren, Carabanchelen, Sorian eta Segovian. Soriako kartzelan, gose greba bat egin zuen Marcelino Camacho eta bere sindikatuko beste kide batzuekin batera. López de Lacalle PCEko Batzorde Zentraleko eta Euzkadiko PCko zuzendaritzako kide izan zen.

Jesús María Olazabal Iñurritak, Tolosako kartzelan 45 egun igaro ondoren, sei hilabete eman zituen Martuteneko espetxean. Honek ere torturak jasan zituela deklaratu zuen.

Urriak 25. Juan Martin Gogorza andoaindarra eta Izaskun Sasiain tolosarra epaitu zituen TOPEk, “baimendu gabeko manifestazio” batean parte hartzeagatik eta “desordena publikoengatik”.

1967

Martxoak 19. Poliziak Juantxo Amilibia EAJko kidea atxilotu zuen herriko elizan ikurrina jartzen saiatzen ari zela.

136 *El País*, 2000/05/08.

Apirilaren 21a. Ministro Kontseiluak salbuespen-egoera ezarri zuen berriro, Bizkaian, egoitza-as-katasuna eta egoitzaren bortxaezintasuna murrizten zituena, eta atxiloaldien iraupena luzatzeko aukera zuena. Laminaciones de Bandas enpresako langileen greba eta langileekiko solidaritatea izan ziren aitzakiak: “*azken hilabeteetan behin eta berriz legearen kontra jardutea eta ordena pu-blikoa aztoratzea, eta nabarmena izatea badirela legez kanpoko taldeen ekina eta kanpoko lagun-tza*”¹³⁷. Erbesteraketak egin ziren, eta Auzitegi Nagusiak legearen kontrako deklaratu zituen Lan-gile Komisioak.

Uztailak 13. TOPen kondena epaia Juantxo Amilibiaren aurka, ikurrina jartzeagatik.

Abenduak 6. Jose Mari Olazabal Iñurritaren aurkako beste epaiketa bat TOPen apirilean atxilotuta izan zelako Zarauzko Frantziskotarren komentuan Maiatzak 1eko mobilizazioak prestatzeko.

Abenduak 24. Gabon Gauean Guardia Zibilaren kuartelaren barrura sartu ziren Jose Ramón Goi-koetxea *Ardotxi* eta Iñigo (abizena ez dakigu), ETAn sartu berriak bi gazte. Gau hartan inorekin ez zirela topatuko pentsatu zuten, eskailera batetik igo eta barrura sartu zirenean. Guardia zibi-len armak lapurtu nahi zituzten. Hori zen helburua. Den-dena itzalita zegoen eta bat-batean: “Alto, ¿quién vive? entzun zuten eta tiro bat segidan. José Ramón Goikoetxea zaurituta suertatu zen, bere pistola zaharra disparatu egin zitzaion eta bala belaunean harrapatu”¹³⁸. Guardia Zibilak ez zituzten harrapatu. Esnalek “*kanoi antiaereo baten sabotajea SAPAn*” aipatzen du garai hartako ekintza esanguratsuenen artean¹³⁹.

1968

Martxoak 29. Juan Martín Gogorza Alcozen aurkako beste epaiketa bat TOPen.

Apirilak 14. Poliziak Donostia inguratu zuen Aberri Egunaren deialdia zela-eta. Istiluak izan ziren eta berrehun pertsona inguru atxilotu zituzten. Gipuzkoako hiriburuan sartzeko modurik ez ze-goenez, Andoaingo hainbat lagunek Errenteriara eta Arrasatera joatea erabaki zuten.

Ekainak 13–28. Txabi Etxebarrieta (23 urte) ETako kide garrantzitsuaren aldeko hileta elizkizun guztiak debekatu zituzten. José Antonio Pardines Arcay (25 urte) guardia zibilaren hilketaren egi-lea (Andoaindik hurbil, Aduna eta Villabona artean), ordu batzuk geroago hil zuen Guardia Zibi-lak, ekainaren 7an, Tolosako Benta Haundi auzoan.

Abuztuak 3. Gobernuak, dekretuz, salbuespen-egoera ezarri zuen Gipuzkoan, hiru hilabetez, bezperan Meliton Manzanos Gonzalez inspektorea (59 urtekoa) hil baitzuten, Irunen egindako atentatu batean. Lehenengo hogeitun egunetan lagun asko¹⁴⁰ atxilotu zituzten Poliziak eta Gurdia Zibilak, eta horietako batzuk Espainiako leku urrunetara deportatu zituzten.

137 ABC 1967/04/22. Egunkari horren arabera, multikopistak eta propaganda aurkitu zituzten ezkutuko etxebizitza batean, eta Poliziak sei lagun atxilotu zituen, Barakaldon, Euskadiko Langileen Oposizio Sindikalarekin eta “Aurrera” eta “Vanguardia Obrera” argitalpenekin lotuta.

138 GOIKOETXEA José Ramón *Ardotxi* (2006). *Mentxakaren aitorpena*. Donostia: Elkar. Testuen edizioa eta itzulpena: Rafa Egi-guren, 178–183. orr.

139 Jokin Esnalen lekukotasuna. Hemen: Peio Urrutia Ochoa. *Doce mil tres...* Op. Cit., 408. or.

140 EAJ-PNVko Euzkadi boletinean izen asko aipatu zituzten: Joseba Goñi apaiza, notaria zen Miguel Castells eta bere se-mea, Miguel Castells Artecheko abokatua; Xabier Lete, Ez Dok Amairuko poeta eta abeslari, Dionisio Oñatibia medikua...

Gutxik hartu zuten atentatu hau atzera bueltarik gabeko puntutzat, behin zeharkatuta atzera egiteko modua emango ez zuen lerrotzat. Melitón Manzanasen garrantzi politikoa, ondo irabazitako haren torturazailer fama (zeinaren eskuetatik igaro baitziren ustez garrantzitsutzat—edo jotzen ziren ia atxilotu guztiak—Recalde edo Luis Martín Santos, edo gure inguru hurbileko pertsonen dagokienez, José Luis López de Lacalle edo Pontxo Iriarte—) eta askatasunak errotik erauzi zituen diktaduraren marko errepresiboa lagungarri izan ziren perspektiba berregokitzeko¹⁴¹.

Abuztuak 5–12. Guardia Zibilak ETarekin zerikusia zutelakoan atxilotu zituen: Francisco Roldán Agirresarobe (17 urte), José Ramón Goikoetxea Sorondo *Ardotxi* (21 urte), Joseba Arregi Aranburu (22 urte, artean apaizgai), Kontxi García Amiano, Ignacio Arín Arrieta “Lisar” (21 urte) eta Iñaki Sueskun Jauregi (21 urte). Gabonak iritsi aurretik askatu zituzten. Guztiek tratatu txarrak, torturak eta koakzioak salatu zituzten¹⁴². Abenduaren 20an eginiko indagazio deklarazioetan (eginiko sakalaketengatik “ahozko koakzioak”¹⁴³ ere pairatu zituzten saio horretan), jasandako tratua aipatu zuten atxilotuek. J.R. Goikoetxea *Ardotxi*: “koakzio moral eta fisikoa galdeketetan”. Joseba Arregi: “torturak eta kolpe fisikoak borraz, buruan, hanketan eta gorputz osoan; mehatxuak”. Ignacio Arín: “tratu txar fisikoak eta gimnasia ariketak bost orduz jarraian; kolpeak borraz; lo egiteko baldintza gizagabeak; etengabeko mehatxuak eta tentsioa”. Antzeko tratua pairatu zuen Francisco Roldánek: “koakzioak, jipoiak eta tortura”.

Azaroaren 4a. Salbuespen—egoera hiru hilabetez luzatu zen Gipuzkoan¹⁴⁴.

Abenduak 6. Jesús Mari Olazabal Iñurritaren aurkako epaiketa TOPen.

Urte honetan, Auzitegi Gorenak legez kanpoko deklaratu zituen CCOO (urriaren 15ean, eta abenduaren 18an eta 27an), UGT (abenduaren 2an), FIJL (gazte libertarioen iberiar federazioa) eta ETA (apirilaren 3an eta 9an, ekainaren 24an eta azaroaren 18an)¹⁴⁵.

1969

Urtarrilak 24. Gipuzkoakoa amaitu gabe, salbuespen—egoera ezarri zen Espainia osoan. Espainiaren Foruko 12., 14., 15., 16. eta 18. artikulua indarrak gabe utzi ziren, adierazpen—askatasunari, biltzeko askatasunari eta elkartzeko askatasunari eragiten diotenak, batez ere. Martxoaren 25era arte iraun zuen.

Ángel María Artola Lizarribarrek etxetik ihes egin zuen, Guardia Zibilak atzeman ez zezan. 1966/01/25ean epaitu zuen TOPEk. Arantza Lizarribarrek ere ihes egin zuen.

141 URRUTIA OCHOA, Peio (2010). *Doce mil tres...* Op. Cit., 407. or.

142 26–68 Prozedura Sumarisimoa. Donostiako VI. Erregio Militarreko Kapitaintza Nagusia. Aurreko Diligentziak 18–69, Ordena Publikoko Auzitegiko 908–68 Presazko Sumariotik eratorritako lekukotasunen ondorioz bideratuak. Auditoreak aurreko prozedura amaitzen du, 1970/02/05an, honako hau adieraziz: “*De lo actuado, sin poder asegurar que sean mendaces las manifestaciones de los denunciantes, tampoco cabe afirmar que sean ciertas, por carecer de apoyo en toda otra prueba exterior a las mismas, por lo que, visto el Art. 521 del Código de Justicia Militar, “PROCEDE que V.E. acuerde la terminación del presente Procedimiento Previo sin declaración de responsabilidad. (...)”.*”

143 *Ibidem*. Ignacio Arinen lekukotasuna.

144 Decreto—ley 12/1968, de 31 de octubre. BOE nº 265, de 4 de noviembre.

145 SARTORIUS Nicolas eta ALFAYA Javier (1999). *La memoria insumisa sobre la dictadura de Franco*. Madril: Espasa, 254. or.

Martxoak 2. Poliziak María Jesús Arín eta Joseba Aldalur andoaindarrak atxilotu zituen, beste bost lagunekin batera (Urnietako Felipe Izagirre frantziskotarra, tartean), Donostiako Artzain Onaren elizan presoan aldeko itxialdi batean zeudela.

Uztailak 10. Ricardo Arregi auto istripu batean hil zen, Eibarrera Euskaltzaindiaren bilera batera zihoala. 26 urte zituen.



Ricardo Arregi, ezkerrean, hizketan Koldo Gorostiaga eta Ibon Sarasolarekin (1968).

AUA 5030XX10, © Truchuelo.

Urriak 27–29. Manifestazioak eta protestak Andoainen epaiketa sumarisimo militar batek Andoni Arrizabalaga Basterretxea ondarrutarraren (“Itziarren semea”) eta etakideari ezarritako heriotza zigorraren aurka. Gerra Kontseiluan epaitu zuten, Burgosen, Ondarroako Udaltzaingoaren ibilgailu baten azpian indar gutxiko lehergailu bat ipintzearen akusaziopean. Eztanda atxiloketa egunaren biharamunean izan zen eta ez zuen zauriturik eragin. Horren berri izatean, manifestazio handi bat egin zen herrian, Guardia Zibilaren “bi zaldi” batek jendearen kontra abiada bizian ekin zionean amaitu zena.

1970

Martxoak 6. TOPEk bi urteko espetxe zigorra eta 10.000 pezetako isuna ezarri zien legez kontrako elkarteagatik Ignacio Arin Arrieta eta José Ramón Goikoetxeari, bi–biak auzi ihesean epaituak, eta hiru hilabete eta hamalau eguneko atzipenaldi handia, Fernando Roldán Agirresaroberi. Ignacio Sueskun Jauregi absolbitu egin zuen.

Urriak 9. TOPEk Joseba Arregi Aranburu epaitu zuen 1968ko abuztuko atxiloketagatik irekitako auzian.

Urriak 13. Guardia Zibilak Elías Díaz Arriba atxilotzen du Donostiako Askatasunaren Hiribidean. Torturak salatzen ditu.

Abenduak 2 eta 3. Greba orokorra egin zen Andoainen ETAko 16 kide epaitu behar zituen Burgosko epaiketaren aurka (bederatzi heriotza–zigor jarri zizkieten auzipetutakoetatik seiri). La Salle eta Berrozpeko ikasleak kalera irten eta fabriketarantz abiatu ziren. Manifestazioak, barrikadak eta atxiloketak. Guardia Zibilak hainbat pertsona balaz zauritu eta atxilotu zituzten. Itxialdia San Martin elizan. Greba zabaldu egin zen.

Mobilizazioetan zehar, Gerbasio Agirre Arin, Villabonako gaztea, Andoaingo guardia zibilek atxilotu eta kuartelean egun batean eduki zuten. Kaletxikin, guardia zibilek Joakin Urdanpilleta Goenaga eta Jesus Gomez Alvarez atxilotu eta Andoaingo kuartelera eraman zituzten, eta bertan arratsalde batean eduki zituzten han. Bai atxilotzeko unean, kalean bata gero kuartelean kolpeak eta torturak jasan zituztela Gerbasio Agirrek eta Jesus Gomezek esan zuten. [Beste bi txandetan, 1972–1973an, Jesús Gómez berriro atxilotu zuten eta torturak jasan zituela salatu zuen. Guardia Zibilen Donostiako Komandantzian eta Lasarteko Kuartelean].

Abenduak 4 eta 5. Hiru hilabeteko salbuespen-egoera ezarri zuten Gipuzkoan, batetik, hilaren 1ean Alemaniako kontsula, Eugen Beihl Schaeffer, ETA bahitu zutelako eta, bestetik, gerra-konseiluaren aurkako protestak orokortu zirelako. Andoaingo Kale Txikin Guardia Zibilak kargak egiten zituen, benetako munizioa erabiliz. **Abenduaren 5an**, Toribio Eraso eta Julio Miron Gonzalez atxilotuak izan ziren, herriko lantokietan geldialdiak egin osteko egunean. Andoaingo kuartelean, bultzadizoak, kolpeak eta ilea moztu zietela guardia zibilak salatu zuten. Hilabete eta terdi Martutenen egon behar izan zuten, isuna ez ordaintzeagatik. Abenduaren 5eko *El Pueblo* egunkariak Andoain aipatu zuen Burgosko epaiketaren ondorioz istiluak ("*alteraciones de orden público*") izan ziren herrien artean. **Hilaren 8an**, Eibarren, PC(i)ko kide bat hil zen, Roberto Perez Jauregi (21 urtekoa), kaleko jantzia zeraman polizia baten tiro baten ondorioz.

Hilaren 14an, Espainia osora zabaldu zen salbuespen-egoera.

Guardia Zibila atzetik zutela jakitean, etxetik alde egin zuten Javier Zubillaga Agirrezabalak (ETA VI erakundeari lotua eta 1964an jada atxilotua izan zena) eta Ramón eta Koldo Urrutia Galarraga anaiek (ETA V-ekoak).

1971

Otsailaren 7a. Salbuespen-egoera kendu zuten. Alabaina, Gipuzkoan indarrrik gabe iraun zuen Espainiarren Foruko 18. artikulua, eta beraz 72 orduz baino gehiagoz atxiki zitezkeen atxilotuak.

Martxoak 7. Poliziak José Ramón Goikoetxea *Ardotxi* andoindarra atxilotu zuen Bilbon, ETA VI Asanbladako beste kide batzuekin batera, sarekada zabal batean. Martxoko lehen hamabostaldian, berrogei lagun atzeman zituzten eta etxe miaketa ugari egin ziren Euskal Herriko hainbat hiri eta herritan. *Ardotxik* Bilboko komisarian emandako hamabost egunetan jasandako jipoiak eta torturak salatu zituen. Martxoaren 21ean, Basauriko espetxera eraman zuten. TOPEk zortzi urteko espetxealdia ezarri zion, eta Soria, Jaen eta Carabanchelgo kartzeletan bete zuen zigorra.

*Beldurra zuen, ez bakarrik fisikoa, baita beste era batekoa ere. Jipoiek eta torturak izutzen zuten. Dena dela, urduritasun eta asaldura handiena eragiten ziona komisariatik harago begiratzea zen. Gizartetik berezia izateak, isolamendu politikoak, lagun eta burkideekiko lotura eteteak, indigentzia afektiboak, bakardadeak... haren etorkizuna bideratzen zuten*¹⁴⁶.

1972

Otsailak 4. Poliziak Andoaingo SAPA enpresako lau langileren atxiloketaren berri eman zuen. Akusazioa: Langile Batzordeak sindikatuko kide izatea. Atxilotuei, "legez kanpoko batzorde laboretako balizko partaide izatea" leporatzen zaie, "eskudun informazio iturrien arabera"¹⁴⁷.

Otsailak 12. Zarautzen, Poliziak tiro egin zuen altoa jasotzean gelditu ez zen auto baten aurka. Autoan zihoazen lau lagunak identifikatu zituela adierazi zuen; horien artean, Ramón Urrutia Galarraga andoindarra.

146 GOIKOETXEA, José Ramón *Ardotxi*. Op. Cit. 1. atala.

147 *El Diario Vasco* 05/02/1972.

Maiatzak 6. Santakruzetan, lagun talde handi bat kantuan eta dantzan ari zen txaranga baten doinupean. Halako batean, doinuari jarraiki jendea makurtu zenean, pertsona batek (I.A.) bere zira gorria jaso zuen nabarmenki lagun buruen gainetik. Antza, hori ez zen inguruan zeuden guardia zibil batzuen gustukoa izan, esanahi politiko bat ikusi baitzuten keinu horretan, eta zira gorriaren jabea atxilotu zuten. Ondoren, pertsona talde handi bat herriko kuartelera hurbildu zen, atxilotetaren bidegabekeria salatzerako, eta aske utzi behar izan zuten guardia zibilek atxilotutako laguna. Festak jarraitu zuten.

Abuztuak 12. Josu Urrutia Galarraga eta Jose Ramon Sevillano García, adin txikiko gazteak, Irungo mugan atxilotu zituzten, Donibane Lohizunen mendiko tresnak erosi ostean berriro Andoainera zetozela autobusean. Gobernu zibilean hiru egunetan eduki zituzten atxilotuta. Biek torturak fisikoak eta heriotza mehatxuak jasan zituztela adierazi zuten. Josu Urrutiaren

Azaroak 20. TOPEk Francisco Roldán Agirresarobe epaitu zuen, ETAko kide izateagatik. 1970ean atxilotu zuten.

Urte honetan Joseba Arregi Roldánek Iparraldera ihes egin zuen ETAREN propaganda egiteagatik Guardia Zibilak bilatua zela.

1973

Apirilaren 22a. Urte horretan, zenbait herritan deitu zen Aberri Eguna.

Poliziak Arantxa Lizarribar atxilotu zuen Andoainen. Hiru egunez egon zen inkomunikatuta eta kargurik gabe aske utzi zuten. Torturak salatu zituen.

Maiatza. Ixabel Barriola Mendizabal istripuz hil zen, auto batek harrapatuta Perpinyatik hurbil, lapurreta ikusgarri bat egin ondoren ETAko beste militante batzuekin batera (Txomin Iturbe Abasolo, horien artean)¹⁴⁸. Ixabel Barriola Baionan jaio zen, gerra zibila amaitzean erbestera jo zuen aitona kokatu zen hirian, Ebaristo Barriola Goikoetxea, Itxarkundiako gudaria. Barriola familia, tradizio nazionalista handiko familia XX. mendearen lehen herenean, oso kolpatua izan zen 36ko gerran: kartzela, langile batailoiak, exilioa, isunak, inkautazioak...

Abenduak 20. Madrilen, 1.001 prozesua hasi zen, Langile Batzordeetako buruzagien aurkako epaiketa. Eugenio Ariztimuñok Karmele Otaegiri kontatu zionez, bi asanblada egin ziren Andoaingo inguruko mendietan, Borda eta Murkaio artean, eta 25 lagun baino gehiago bildu ziren guztira ("*lagun asko, garai hartan*")¹⁴⁹. (1975 eta 1977 artean, enpresa batzordeak biltzen zituen koordinadora bat egon zen martxan herrian¹⁵⁰).

Egun berean, ETAk hiru lagun hil zituen Madrilen eginiko atentatu batean: Luis Carrero Blanco almirante eta Espainiako gobernuko presidentea, haren eskolta Juan Antonio Bueno Fernández polizia inspektorea eta José Luis Pérez Mogena auto gidaria.

148 EGAÑA, Iñaki (2017). *Breve historia de ETA*. Tafalla: Txalaparta, 146. eta 147. orr.

149 OTAEGI NEGREDO, Karmele. *La Transición en Andoain desde la perspectiva de la izquierda*. Leyçaur 5. Andoaingo Udala, 1998, 380. eta 381. or. Lan osoa kontsulta daiteke Udalaren web orrian: <http://www.andoain.eus/eu/leyçaur-ikerketa-historikoen-aldizkaria>

150 *Ibidem*, 381. or.

1973 garren urte horretan Felipe Gurrutxaga Arratibel(EMK) atxilotua izan zen eta Elena Garmendia Sorrondegi, Mercedes Brossa (SAPA ko langilea eta feminista) eta Celes Gogorza Alcoz ek (CCOO) Andoaindik ihes egin zuten.

1974

Urtarrilak 1. Ramón Urrutia Galarraga andoaindarra eta beste bost ETA kide errefuxiatu Frantziako hainbat lekutan konfinatu zituzten herrialde horretako agintariek. Hurrengo egunetan, sarekada, miaketa, atxiloketa eta deportazio gehiago izan ziren Iparraldean.

Otsailak 19. Bilbo, Zaragoza eta Bartzelonan euskal ikasle unibertsitarioen aurka egindako sarekada zabal batean Poliziak Manuel Félix Olazabal Agirrezabala andoaindarra atxilotzen du, MCE-EMKko kide eta Arkitektura ikasketen lehen mailako ikasle.

Martxoak 25. Juan Ignacio Irulegi Garmendiaren aurkako epaiketa TOPen. Zazpi aldiz atxilotuko zuten.

Apirilak 3. Guardia Zibilak José Miguel Apaolaza Beraza eta Guillermo Albizu Galardi ETA VI-ko kideak atxilotu zituen, Andoainen eta Urnietan, hurrenez hurren.

Uztailak 15. César Lazkano Ajamil (dagoeneko hila) eta Ramón Irazu Garmendia, injeniaritza ikasleak atxilotzen ditu Donostian Poliziak baita bere anaia Iñaki Irazu Garmendia¹⁵¹, Ekonomia ikaslea. Ikasle abertzaleen erakunde bat antolatzeke asmoa leporatzen diete, eta "legepeko propagandak" egiteagatik. Komisaldegian tratatu txarrak eta torturak jaso izana salatzen dute. Fiskalak TOP ari zuzendutako idatzian honakoa irakur daiteke:

"Aldikako bilera zehazgabetan elkartzen ziren 15 edo 20 egunetan behin, leku ezberdinetan (...) jendea hartu eta eztabaidatu egiten zen, dotrinaratze, propaganda eta liburu subertsiboen gainean. Proselitismoa, ezagutaraztea eta propaganda "ereitea" antolatzen zituzten, batez ere hezkuntza eremuan, baita "pintadak" leku publikoetan, "Aberri eguna" delakoaren inguruan (...) "¹⁵².

Irailak 16. Guardia Zibilak Jose Luis Urbistondo Ibarbia atxilotu zuen. Antiguako Komandantzia torturatu zutela adieraziko du.

Abenduak 2 eta 3. Amnistiaren aldeko eta errepresioaren aurkako greba orokorra. Lanuzteak izan ziren Andoaingo eta inguruetako enpresa ugartan.

Abenduak 9. Felipe Gurrutxaga Arratibel EMKko kidearen aurkako epaiketa TOPen. 1973an atxilotu zuten.

Abenduak 11. Bigarren greba orokorra hilabete berean, aurrekoak baino oihartzun handiagoa izan zuena: bizitzaren garestitasunaren aurka eta amnistiaren eta askatasun demokratikoen alde. Poliziaren kargak eta atxiloketak.

151 Iñaki Irazuk, "Errukiaren saria" (Erein, 2018) liburuan, bere atxiloketaz idazten du zenbait poematan.

152 "Al Tribunal de Orden Público". Ministerio Fiskalaren idazkia, 1974 urteko 695 garren sumarioari dagokion bilkarian, Ordena Publikoko Lehen Epaitegia, 1974/12/20.

Abenduak 16. Guardia Zibilak Candido Uranga Ormaetxea eta Jesus Perez Markotegi Andoaingoak eta Zizurkilgo Antton Agirretxe atxilotu zituen: hiru egun Andoaingo Kuartelean, bat Donostiako Komandantzian bestea Tolosan. Langileen Komiteetako sindikalistak ziren, Laborde lan-tegian. Andoainen kolpe fisikoak jasan zituztela, eta Komandantzian heriotza mehatxuak, pistola buruan jarrita, adierazi zuten. Hiru hilabete Martutenen pasa eta TOPen epaiketaren zain zirela, 1975an amnistiatuak izan ziren.

Urte honetan, beren etxeetatik alde egin zuten Iñaki Sueskunek eta José Ramón Barriola Lizarribarrek. Guardia Zibila zuten atzetik, ETAko kide zirelakoan.

1975

Otsailak 11. Poliziak Bixente Isasi Aranburu, Ramón Jauregi Elizondo, Miguel Ángel Arregi Roldán, Jesús Ramón Gómez Uranga eta Antonio Iruretagoiena Martin atxilotu zituen, ETApM-ko kide izatearen akusaziopean. Torturak salatu zituzten. Bi urtez egon ziren espetxean eta indultuarekin irten ziren.

Martxoak 27. Hainbat lagun atzeman zituzten Andoainen eta Mutrikun, martxoaren 30ean Gernikan egitekoa zen Aberri Egunerako ETaren propaganda banatzeaz akusatua. 38 atxilotu izan ziren egun horretan.

Apirilak 8. Manuel Félix Olazabal Arrizabalagaren aurkako epaiketa TOPen.

Apirilak 18. TOPEk sei hilabeteko kartzela zigorra ezarri zion Jose Luis Urbistondo Ibarbiari.

Apirilak 23. Guardia Zibilaren sarekada PTEren (*Partido del Trabajo de España*) aurka. Lau lagun atxilotu zituzten: Pablo Narciso Tejada, Carlos Sanz Díez de Ure (zelularen arduraduna; Euskadiko Ezkerrako (EE) zinegotzi izan zen 1979ko hauteskundeen ondoren eta alkate, hurrengo legegintzaldian), Iñaki Zabala Zabala eta José Luis Gonzalo Zabaleta *Txori*. PTEren herriko zelula osatzeaz akusatu zituzten (aurretik, *Partido Comunista de España Internacional* – PCE(i), eta 1979tik aurrera, *Partido de los Trabajadores* – PT). Julián Méndez Errenteriako bizilagun eta Andoaingo PTEren zelulako kidea ere atzeman zuten. Aske gelditu ondoren, Sanz, *Txori* eta Zabalak SAPAn zituzten lanpostuak berreskuratzea lortu zuten.

Ni, soldadutza egiten ari bainintzen, eta Patxi eta Eugenio Ariztimuño anaiak izan ezik, PTEren egitura osoa erori zen. Badakizu, garai hartan jipoitu egiten zituzten kuartelean. Julian, hark bai potroak, ia garbitu zuten. Hark geldiarazi zuen "aitorpenen" katea. Ni ez ninduten salatu, izan ere, alderdian bazen arau bat, "hitz egin behar baduzu hitz egin ezazu", baina ez salatu soldadutza egiten ari den inor, eta hori sakratua zen, bide militarretatik epaitzen baitzintuzten. Bortizki torturatu zituzten. Estanis Amuchastegui Arregui.

Apirilak 24. Poliziak Mikel Gardoki Azpiroz ETApM-ko kidea (andoaindarra, 23 urtekoa eta seme baten aita) hil zuen tiroz Ergobiko taberna batetik irteten ari zela (Beizama tabernaren aurrean). Harekin zihoan Juan Miguel Goiburu Mendizabal *Goierri* etakide garrantzitsua balaz zauritu zuten beso batean, eta lurrean zetzala atxilotu zuten.

ETApm erakundearen sartzeari eskatu aurretik, Mikel Gardoki *Rubio* (erakundearen sartzeko fasean zegoena, Mikel Goibururen arabera¹⁵³) harremanetan egon zen EGI, ETA VI eta Barnuruntz erakundeekin. Donostian, Ategorrieta auzoko kale batek haren izena izan zuen 32 urte luzez.

Tabernatik irtetean, altoa eman zieten Marietta bana eskuetan oso metro gutxitara zeuden bi gizonenak. Aurkako norabidean lasterka hasi aurretik, ikusi zuten poliziek hartua zutela inguru osoa. Goierri saiatu zen kazadoraren poltsikoan zeraman 7,65eko pistola ateratzen, baina ezin izan zuen, itxi egin zuelako haren kremlera propaganda deskargatzean, pistola eror ez zedin. Tiro jaso baten harrapatu zituen eta, orduan bai, Goierrik, lurrera erortzean, arma ateratzea lortu zuen. Lurrean etzanda zegoela, min keinuak egiten eta berehala hiltzen ikusi zuen burkidea. (...) Ez zuen aukera gehiagorik izan: bota batek aurpegia zapaldu zion eta beste bik, zabalik zituen eskuak¹⁵⁴.

Apirilak 25. Gardokiren heriotzaren eta Goibururen atxilotetaren biharamunean, hiru hilabeteko salbuespen egoera ezarri zen Gipuzkoan eta Bizkaian. Francoren erregimenak erabili zuen argudioa izan zen irailean egin nahi zituen fusilamenduek eragin zezaketen *“liskar egoera”*. Indarrik gabe utzi zituzten Espainiarren Foruko 12., 14., 15., 16. eta 18. artikulua, *“izaera oldarkorreko eta terroristako aztoratze-ahaleginen aurrean hiritar bakea babesteko premia”* aitzakia hartuta¹⁵⁵. Juan Miguel Goiburuk 21 egunez egon zen atxilotua Donostiako Komisarian.

Hilabete horietan, Andoaindik ihes egin zuten José María Azcue Azcuek (legez kontrako elkarteaz akusatuta), Pello Elzaburu Arzamendik, Álvaro Mujika Seguiolak eta Martín Otaño Labakak, ETApm-ekin zerikusia zutelakoan segurtasun indarrak atzetik zituztela. Bai atxilotzen dituzte Modesto Baltasar Iparragirre, torturak salatu zituen, eta Francisco Javier Elzaburu Arzamendi, ETApm rekin erlazioan zutela hauek ere.

Abuztuak 4. San Esteban jaietan, Xabier Martiarena Lizarazu, Jesús María Gonzalo Zabaleta, Ángel Sáez Díez de Ure eta Andrés Carmelo Asensio Díez-ek propaganda banatzen dute, irailean egingo diren epaiketen aurka, tartean heriotz zigorra eskatzen den zenbait ere badaude. Laurak atxilotuak izan ziren ondoren eta Urriaren 18 an Madrilan auzipetuak, legez kanpoko propaganda egotzita.

Abuztuak 12. 17 eta 20 urte bitarteko ikasle batzuk atxilotzen dituzte Donostian, Ikasle Abertzale Sozialisten Erakundea (IASE) rekin erlazioan zutela, haien artean Juan Cruz Arregi Roldán, Aitor Arregi Urrutia, José Antonio Iztueta Maíz, Juan Carlos Lizarralde Zabaleta eta Francisco Javier Elzaburu Arzamendi. Cifra agentziaren esanetan *“atxilotuetako baten lan eremua Andoain ingururaino iristen zen, bertan legez kanpoko ekintzak burutu zituztelarik”*¹⁵⁶.

Abuztuak 26. Gobiernu frankistak legedi antiterrorista abiatzen du, 10/1975 Lege dekretua. Zenbait argitalpen itxi eta atxilotze aldia luzatzen da, besteak beste.

Egun horretan bertan, Guardia Zibilak karnetak bahitzen dizkiete José Ruiz Fajardo, Ramón Azpeitia Ormazabal eta Antonio Miron González, hirurak Comités Obreros delakoetako kide, eta jasotzera koartelera joateko esaten diete. **Irailaren 1ean** atxilotzen dituzte, legez kontrako pro-

153 Mikel Goiburu Mendizabalen lekukotasuna talde idazle honi.

154 AMIGO, Ángel. *Pertur. ETA 71–76*. Hordago, 1978, 99. or.

155 Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1975/04/26. Estatuko agintaritzaren lege-dekretuaren lehen aipamena.

156 *Abc* 1975/02/20.

paganda (pintadak...) eta herri asanbladatan hitza hartzearen salaketapean. Bost egun eman zituzten atxilotuta eta torturak jasan izana salatu zuten. 75.000 pezetako isuna jartzen diete eta ordaintzen ez dutenez, **irailaren 26an** Martutenen espetxeratzan dituzte hilabeterako.

Abuztuak 28 eta 29 eta iraileko lehen astea. Lanuzteak, denda eta establezimenduen itxiera, mobilizazioak eta istiluak Ordena Publikoaren Indarrekin (FOP), ETAko bi kideren (Juan Paredes *Txiki* eta Ángel Otaegi; José Antonio Garmendiari zigorra kommutatu zioten) eta FRAPeko [Frente Revolucionario Antifascista y Patriota] beste hiruren (José Humberto Baena, José Luis Sánchez eta Ramón García) heriotza zigor eskaerak geldiarazten saiatzeko protestetan [Blanco Chivite, Fernández Tovar, Concha Tristán, María Jesús Dasca eta Manuel Cañaveras indultua eman zieten]. Irailaren 1an Jose Joakin Esnal Escudero atxilotu zuten. Guardia Zibileko kuartelean bost egunez egon zen eta denetarikoa torturak jasan zituen adierazi zuen: gorputz guztian kolpez gain, bainera eta kirofanoa. Ondoren, 100.000 pezetako isuna ez ordaindu nahi izateagatik, urrian Martutenen hilabete pasa zuen. Abuztuaren 28an Urnietan egin zen manifestazioan atxilotu zituztenak Andoingo kuartelera eraman zituzten: Jose Mari Izagirre Goia, Jesus Mari Gorrotxategi Begiristain, Joxe Antonio Jauregi Garmendia, Maria Zita Elustondo, Lurdes Lizeaga, Txaro Ugalde eta Patxi Gorrotxategi Begiristain. Hiru egun Andoingo kuartelean egon ziren. Tratu txarrak jasan zituztela esan zuten, muturrekoak aurpegian eta horrelakoak. Baina gehien torturak jasan zituena, Jose Mari Izagirre izan omen zen, testimonioen arabera. Honek eta Patxi Gorrotxategi Begiristainek Martutenekeo espetxean bi hilabete pasa zuten.

Irailak 15. Guardia Zibilaren beste sarekada batean, Araban eta Bizkaian, Gasteizen Arantxa Lizarribar Lasa andoaindarrak atzeman zuen berriro, eta bere senarra ere: Antonio Urbieto Aranzaste tolosarra, ORTko [Organización Revolucionaria de Trabajadores] kideak izateaz akusatuta. Bost egunez egon zen Arantxa Lizarribarrek inkomunikatuta eta Langraizko kartzelan espetxeratu zuten. Torturak salatu zituen (Arantxa Lizarribar zortzi aldiz atxilotu zuten).

Irailak 21. Donostiako kanpoaldean Polizia Armatuak egindako errepide control batean Iparraldetik propaganda zekarten bi ikasleren atxiloketen ondoren, Poliziak sarekada berri bat egiten du Ikasle Abertzale Sozialisten Erakundearen (IASE) aurka. Hamahiru lagun atxilotu zituzten Donostian eta Bilbon ikasleen erakunde horretako kide izatearen akusaziopean, haien artean Ixiar Irulegi Garmendia, Magisteritzako ikaslea, César Lazkano Ajamil eta Ignacio eta Ramón Irazu Garmendia. Hirurak komisarian jasandako tratu txarrak eta torturak salatu zituzten. Ixiarrek "kirofanoa" egin ziotela adierazi zuen. Epaileak, neskaren egoera ikusirik, aske utzi zuen, nahiz eta ez zuen eginbiderik abiatu ustezko tortura delitua ikertzeko. Ixiar Irulegi ere ez zen ausartu ezer gehiago egitera: "*nahikoa zuen handik irtetearekin*"¹⁵⁷.

*Bahitua eta umiliatua sentitu zen. Jipoiak eta jarrera matxistak pairatu zituen. Epaitegira eraman zutenean, ezin zen ibili, eta saihesten hezur bat hautsita eta ubeldura ugari zituen. Hala ere, epaileak antza ez zuen ezer ikusi, eta "Esta chiquita a casa" besterik ez zuen esan*¹⁵⁸.

(Ixiar Irulegik "Arnasa hartzen" izeneko ipuina aurkeztu zuen XIII. Teodoro Hernandorena Ipuin Lehiaketara, 2014an. Egin zizkioten torturak kontatzen ditu ipuin horretan).

157 Elkarrizketa *Berria* egunkarian 2018/06/17an: "*Denok dakigu torturak egon direla; ikusi nahi ez duenak arazo bat dauka*".

158 SARAVIA, Mauro. *Emeek emana*. Intxorta 1937 Kultur Elkartea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, 64. or. 2004an, jasandako torturen historia kontatu zuen "Arnasa Hartzen" ipuinean.

Irailak 25. María Jesús Esnal Artola eta Clara Zubiarraín Suescun mugan atxilotzen dituzte Txiki eta Otaegiren aurkako epaiketari eta heriotz zigorrari buruzko propaganda zekartenean. Antiguoko, (Donostia) Guardia Zibilaren Komandantziara eraman zituzten lehenik, eta ondoren Tolosako koartelera, eta handik, egun horietan zegoen atxilotu kopuru handiagatik lekurik ez zeukatenez, berriz ere Donostiara bidali zituzten. Tratua ez zen ona izan eta kolpe batzuk jaso zituzten, haien esanetan. Hiru egunen buruan aske utzi zituzten, aldizka koartelean azaltzeko betebeharrarekin. Martuteneko kartzelan hilabete terdi egin zuten preso.

Irailak 27–30. Grebak, mobilizazioak eta liskarrak Ordena Publikoaren Indarrekin (FOP), ETAko (Txiki eta Otaegi) eta FRAPeko (Baena, Sánchez eta García) kideen exekuzioen ondoren. Egoera horretan berrogei bat pertsonak asanblada bat antolatu dute San Esteban auzoko Pinarren mobilizazio berriak prestatzeko. Irailaren 29an, lanuztea erabatekoa izan zen herrian. Hori dela eta atxilotetak eta zaurituak protestetan egon ziren: Carmen Otegi (dagoeneko hila) ere atxilotua izan zen.

Urriak 18. Lehenago atxilotu izandako persona hauek, egun honetan prozesatu zituzten, legez kanpoko propaganda eta bilerak egitearen salaketapean: Antonio Arberas Ezama, Epifanía Jauregi Aristegi, José Ignacio Fernández de Retana González de Lopidana, Sara Otaño Labaca, María Itziar Martiarena Lizarazu, Xabier Martiarena Lizarazu, Jesús María González Zabaleta, Ángel Sáez Díez de Ure eta Andrés Carmelo Asensio Díez. Baldintzapeko askatasuna ematen diete, 30.000 pezetako fidantzapean, epaiketa iritsi artean.

Azaroak 11. Gaueko hamaikak aldera, guardia zibil batek balaz zauritu zuen ezker belaunean Juan Ignacio Irulegi Garmendia, Citroën 2CV batetik irtetera behartua izan ondoren. Arantxa Olano neskalagunarekin zegoen autoan, bizileku zuen Agustin Leitza kalean. Kalekoz jantzitako hiru guardia zibil hurbildu ziren bikotearengana, eta horietako batek egin zion tiro, Irulegi aurreko atxiloteta batetik ezagutzen zuen Manuel Sánchez Vallések, bikotea eskuak gora paretari begira zegoenean. Ez zituzten gazteak miatu eta ez zuten auto barruan begiratu *“legez kontrako propagandarik”* bazegoen, horren *“susmagarri”* iruditu zitzaizkiela esanez gertakizunak justifikatu bazituzten ere. Tiro egin zuen gurdia zibilar sumarioa zabaldu bazioten ere, bi urte eta erdi geroago amnistiatu egin zituzten jakinarazi zion Epaitegi Militarrek Juan Ignacio Irulegiri.

FRANCOREN HERIOTZATIK KONSTITUZIORA

1976

Urtarrila eta otsaila. Silen SL enpresako grebalariek Andoaingo herritar multzo zabal baten elkartzuna jaso zuten, eta mobilizazio handiak egin baziren ere¹⁵⁹, 60 langile kaleratu zituzten. Lanuzteek hiru hilabetetik gora iraun zuten. Protestak eta errepresioa. Asanbladak elizan. Urtarrilaren 26an, lanuzteak egin ziren. Otsailaren 15ean, 1.500 lagun bildu zituen manifestazioa egin zen herriko kaleetan barrena. Otsailaren 23an, emakumeen manifestazioa. Otsailaren 25ean, Greba Orokor Aktiboa eta 4.000 lagunek osatutako manifestazioa egin zen, Guardia Zibilak bortizki sakabanatu zuena –15 jeep zenbatu ziren herrian–. Zauritu ugari izan ziren eta horietako batzuk ospitaleratu egin behar izan zituzten. Istiluetan izan ziren hiru atxilotuak Martutenen espetxeratu zituzten, kuarteletik igaro ondoren, erasoaz eta men ez egiteaz akusatuta. Atxilotuetako bi, Agustín eta José M^a Zubillaga Aguirrezabala anaiak dira, EMK-koak, bi egun eman zituzten Antiguoko (Donostia) Guardia Zibilaren Komandantzian. Otsailaren 26an behin-behinean utzi zituzten aske.

159 OTEGI NEGREDO, Karmele. *Op. Cit.*, 367–423. or.

Hona hemen lekukotasun batzuk:

Goizeko 10:30erako zegoen deitua elkarretaratzea plazan. Guardia Zibilak ez zuen uzten pasatzen (...) jipoika hasi ziren, koplari gabe, fusilen eta metraileren kulataz. Baina, berriro ere, emakume heldu batzuk izan ziren kemenez eta adonez beterik egoerari aurre egin ziotenak: horietako batek, eszena patetiko batean, besoak zabalik eta negarrez, guardia zibilei garrasi egin zien: 'Hil nazazue, hil nazazue, ken iezadazue bizia!...' Manifestazioak aurrera egin zuen, Kaletxikirantz, eta Silenera iristeko errepidearen bidegurutzera heltzean, guardia zibilen ilarek moztu zioten bidea (...) Komandanteak aginduta, eraso egin zuten, kontuan izan gabe nor zuten aurrean: haur, emakume edo adineko (...) Jendeak oihuka erantzun zuen: "Ogia, lana, askatasuna", "Despidorik ez", "Bienzobas, esplotatzailea", "Elkartasuna Silen-ekin"... eta ondoren Guardia Zibilak berriro eraso zuen (...) tiro jasak entzun ziren, hainbat aldiz. 16 bat urteko bi mutiko Ori ibai kirasdunear leporaino sartzera behartu zituzten (...) Arratsaldean, mila pertsona baino gehiago elizan sartzen saiatu ziren, asanblada egiteko. Bultzadak eta borroak izan ziren, baina ez zuten sartzetik lortu, 30 bat lagunek izan ezik, kanpandorrera igo eta kanpai joka hasi zirenak (...) sakabanatu egin zituzten, etxe atarrietan sartu eta pistola eskuan jipoitu zuten babes bila zebilen jendea... Deadar¹⁶⁰.

Denbora luzez egon ziren greban, eta elkartasun grebak egin behar izaten genituen sarri, dirua biltzeko. (...) Guardia Zibilaren gorputz bereziak, txima luzedunak, jendea zapaltzeko. (...) Etengabeko tentsioa, ezin bizi. (...) Gerentea ez zen kapaz izan hitz egiteko, irtenbideak bilatzeko, eta Guardia Zibilak asanbladatan biltzen ziren langileak jipoitu besterik ez zuen egiten. Tentsioa. Tirohotsak...¹⁶¹.

Agustín Zubillaga Agirrezabala

Greba honek garrantzi handia du Andoainean, beste guztiak baina sakonago errotu eta herriaren parte zabal baten elkartasuna lortuko duelako, Burgoseko epaiketak bakarrik gainditu zituen mobilizazio mailarainokoak. Agian antolatu zen moduagatik, elizan egiten ziren asanbladak, manifestazioak, edo Guardia Zibilak hedatutako agente kopuru handiak, ordurarte Andoainean ezezaguna zen errepresio maila erabili zuelako¹⁶². Karmelegi Otaegi Negredo

Urtarrilak 9. Andoaingo kaleetan manifestazioa egin zen, herrian mediku gehiago eskatuz. Zumea Kalea eta Kale Berria batzen diren horretan (Banco Guipuzcoano parean), guardia zibilak disolbatu egin zuen, kulatazoka eta kolpeka.

Urtarrilak 31. Ramón Jauregi Elizondo eta Miguel Ángel Arregi Roldán epaitu zituzten TOPen. 1975ean atxilotu zituzten ETApm-rekin zerikusia zutelakoan. Jauregi Eeko zinegotzi izan zen 1979 eta 1983 artean, eta hautetsi, 1987an; 1995ean, independente gisa aurkeztu zen EAJren zerrendan.

Martxoak 8. Javier Zubillaga Agirrezabalaren aurkako epaiketa TOPen.

Martxoak 8. Greba eta manifestazioak martxoaren 3an Gasteizen hildako bost langileengatik. Poliziaren kargak.

160 Deadar dosierra, Udalak eta alderdi politiko guztiek sinatua. Karmelegi Otaegi Negredoren *La Transición en Andoain desde la perspectiva de la izquierda* lanaren eranskin dokumentalean, 410. eta 411. or.

161 Agustín Zubillagaren lekukotasuna. Hemen: *XXV años de paz...* Op. Cit., 386. or.

162 OTAEGI NEGREDO, Karmelegi. Op. Cit., p. 387.

Irailak 18. ETAm-ren atentatu saioa Pedro Gallo Boada alkate frankistaren aurka. Erasotzaileari trabatu egin zitzaion arma. Pedro Gallok herritik alde egin zuen gertakizun honen ondoren. José María Portell¹⁶³ kazetariak esandakoaren arabera, "Camilo Alonso Vega generalaren laguntzailetako bat izan zen, hau Nafarroako Laugarren Dibisioko komandantea zenean".

Irailak 27. Guardia Zibilak Margarita Lizarazu Balerdi eta Itziar Martiarena Lizarazu (18 urte) ama-alabak zauritu zituen Iarriki¹⁶⁴, frankismoko azken fusilatuen lehen urteurrenean manifestazio bat Udaletxeko plazan amaitzera zihoala. "Txintik esan gabe" ekin zioten, "abiada bizian zetozen jeep-ak jarrera baketsuan zegoen jendetzaren aurka zuzenduz"¹⁶⁵. Ama-alabak, herriko anbulatorioan artatuak izan ondoren, Donostiako Arantzazu Ospitalera eraman zituzten, haustura, kontusio eta higadura ugarirekin. Manifestazio berean, 28 urteko José Ramón Goikoetxea *Ardotxi* ere zauritu zuten, gomazko pilotaz. Tiro egin zuen guardia zibila 1975/11/11n Juan Ignacio Irulegi hankan zauritu zuen berbera izan zen¹⁶⁶, eta atzetik egin zion tiro *Ardotxiri*, hiruzpalau metrotik, ezkerreko giltzurrunera¹⁶⁷. Guardia Zibilaren Brigadak nortasun agiriak kendu zien pertsona ugariri. Gero, udal bilkura batean, herritarren nortasun agiriak berreskura zitzala eskatu zioten alkate berriari.

Urriak 4. ETAm-k Donostian eginiko atentatu batean, Juan María Araluze Villar (59 urte) Gipuzkoako Diputazioko presidentea, José M^a Elícegui (25 urte) auto gidaria eta Luis Francisco Sanz (24 urte), Antonio Palomo (24 urte) eta Alfredo García (29 urte) poliziak hil zituzten. Berehala, segurtasun indarrek sarekada zabal bati ekin zioten Gipuzkoan. Urriaren 11an, Guardia Zibilak Andoainen atxilotu zituen: José Luis Gonzalo Zabaleta (PTEkoa), Arantxa Lizarribar Lasa (ORTkoa, zortzi aldiz atxilotu zuten 1974 eta 1976 artean¹⁶⁸), Xabier Arberas Ezama (LAIA), Antonio Miron González (OICE), Juan Inazio Irulegi Garmendia (LC) eta herriko beste bizilagun batzuk. Lehenbizi Andoaingo kuartelera eraman zuten, eta ondoren Antigua auzoko komandantziara. Xabier Arberas, Juan Inazio Irulegi eta Antonio Mironek torturak salatu zituzten, aske utzi bazuten ere kargurik gabe.

1977

Urtarrilak 4. 'Tribunal de Orden Público' (TOP) zelakoa desegin eta haren ordeztu Auzitegi Nazionala sortu zen .

Urtarrilak 13. Poliziaren Legearen proiektua onartu zuten.

163 PORTELL, José María. *Euskadi: Amnistía arrancada*. Euskarri digitaleko berrargitaratzea: 42 Link, Javier Elzo ren hitzaurrearekin, 2013.

164 Itziar Martiarena Lizarazuren (18 urte) eta haren ama Margarita Lizarazu Balerdiren lekukotasuna Tolosako Epaitegian, 1976/09/29an. Donostiako ospitaleko txosten medikoen arabera: alabak: ezkerreko erradioaren haustura distala; amak: eskuineko estiloide kubitalaren haustura, ezkerreko erradioaren haustura distala, lesio makatua ezker eskuan, kontusio eta higadura multipleak.

165 Aurreko Diligentziak: 347/76 Ordena zk.: 2181. Ferrolgo Artxibategi Militarra. Kutxa: 154. Jatorria: Donostia. Tolosako Epaitegian adierazi zuten: "Amak lasterka egin ezin zuenez, Udaletxeko arkupeetan babestu ginen. Manifestarien atzetik zihoan guardia zibil talde batek korrika alde egin genezala agindu zigun, baina amak lasterka egin ezin zuela esan zienean, han gelditzeko esan ziguten, mugitu gabe, ez zitzaigula ezer gertatuko. Handik gutxira, beste guardia zibil talde bat etorri zen, Panizo sarjentua buru zuela; ikusi ninduenean, txintik esan gabe, arma kulataz niri jipoika hasi zen. Amak, arriskua ikusita, burua babestu zidan bere beso eta eskuekin, eta niri eman nahi zizkidaten kolpe guztiak jaso zituen. Panizo sarjentuak, ikusirik ezin ninduela jo, ama jipoitzen jarraitu zuen".

166 José Ramón Goikoetxea Sorondoren lekukotasuna Tolosako Epaitegian 1976/09/29an aurkeztutako salaketan. *Deadar*, p. 5.

167 Aurreko Diligentziak: 346/76, Ordena zk.: 2092. Ferrolgo Artxibategi Militarra. Kutxa 149. Jatorria: Donostia.

168 OTAEGI SAGREDO, Karmele. Op. Cit.

Urtarrilak 28. Salbuespen-egoera ezarri zen Espainia osoan, bi hilabeterako. Indarrik gabe utzi ziren Espainiarren Foruko 15. eta 18. artikulua (azkena izango zen), urtarrilaren 26ko Madrilgo Atocha kaleko bost abokatu laboralisten erailketaren ondoren.

Martxoak 9 eta 10. Manifestazioak, protestak, lanuzteak eta polizia kargak Gipuzkoan, Guardia Zibilak Itsason eginiko operazioaren aurka deitutako greba orokorrean. Operazio horretan, tiroz hil zituzten Nicolás Mendizabal Barandiaran (29 urte) eta Sebastián Goikoetxea Mariezkurrena (28 urte) ETApM-ko militanteak. Gipuzkoako hiru egunkarietako langileek bat egin zuten lanuztearekin eta ez zen egunkaririk argitaratu.

Martxoak 18. Martín Villa Barne ministroak Brigada Nazional Antiterroristaren sorrera iragarri zuen.

Apirilak 1. Sindikatueta Elkartzeko Eskubidea arautzeko Legea onartu zen¹⁶⁹. Sindikatu bertikal eta bakarra lurperatu zuen behin betiko.

Maiatzak 12–16. Manifestazioak eta greba orokorrerako deialdiak Amnistiaren Aldeko Bigarren Asteazkenean zehar. Zazpi lagun hil ziren. Maiatzaren 13an Andoainen egin ziren mobilizazioen ondoren, itxialdi eta baraualdi bat egin zen elizan, biharamunera arte. Maiatzaren 13an eta 16an ez zen egunkaririk argitaratu Gipuzkoan, haien langileen erabakiz (horietako bat, José Luis Cano Pérez 28 urteko gaztea, *La Voz de España* egunkariko tipografoa, tiroz hil zuen Poliziak Iruñean egin zen amnistiaren aldeko manifestazio batean).

Maiatzak 18. Arratsaldean, ETApM-k Manuel Orcera de la Cruz polizia erail zuen Donostian, 24 urte betetzear zela. Goizaldeko 02:00etan, ezezagunek su eman zioten Elzaburu familiak Andoainen ardoak eta likoreak banatzeko erabiltzen zuen furgonetari. Semeak –Francisco Javier eta Peio– atxilotuta eta erbesteratuta egon ziren, hurrenez hurren.

Ekainaren 15a. UCDk hauteskunde nagusiak irabazi zituen, estatu mailan, Nafarroan eta Araban. EAJ–PNV nagusitu zen Bizkaian eta Gipuzkoan.

Legezkotasuna konkistatzeko garaia zen, propaganda egun argiz banatzekoa, Santitik Urangaraino, gauzak behartzekoa. Edo Guardia Zibilaren kuartelera joatea CCOOren mitin bat egiteko (haren berri eman edo baimena eskatzeko); (guardia zibilek) ez zekiten zer egin...¹⁷⁰.

Urriak 7. Triple A taldeak (Alianza Apostólica Anticomunista) David Salvador Bernardo taxi gidaria hil zuen, 44 urtekoa eta bi semearen aita. "ETAren salatari" izateaz akusatu zuten hilketa beren gain hartuz Bilboko *El Correo Español–El Pueblo Vasco* egunkarira bidali zuten agirian. Ez zen ezein alderdi politikotako kide, eta lankideen arabera, "persona isil eta diskretua zen, inori kalterik egiten ez ziona"¹⁷¹. Bilbon jaioa, hamar urtetik gora zeramatzan bizitzen Hernanin. Gorpua 07:30ean aurkitu zuten, taxiaren barruan, Seat 1500 bat, Andoaingo Renfeko tren geltokitik hurbil, buruan bi tiro zituela. Hilketa hau lehenbizikoa izan zen "Heriotzaren triangelua" deitu zitzaion eskualdean –Andoain, Urnieta, Astigarraga eta Hernanik osatutakoan– gertatuko ziren eraso faxisten artean. Eskualdeko taxilariak lanuztea egin zuten dolua eta elkartasuna adierazteko.

169 1977/04/04ko BOE. 80, 7.510–7.511. or.

170 Agustín Zubillagaren lekukotasuna. Hemen: *La Transición en Andoain desde la perspectiva de la izquierda*. Op. Cit., 390. or.

171 *El País*, 1977/10/08.

Urriak 8. David Salvador Bernardoren aldeko hileta elizkizuna. Hilketari buruzko datu gehiago ezagutu ziren: atzetik egin zioten tiro taxi barrutik eta bala batek burua zeharkatu zion.

Urriak 15. 46/1977 Legea edo Amnistia Legea dekretatzen da, Urriaren 15 ekoa, preso politikoen amnistia barne duena.

Urte honetan, Peio Eceiza, La Salle eskolako irakasle lanetik kaleratzen dute. Karmele Otaegik *Leyçaur en argitaratutako idazkian dio*, OICEko militante hau “arazoak sortzen dituen pertsona dela, ikastetxearen gidallerroetatik aldendu eta ikasleekin erlazio ezberdin bat izaten saiatzen dela eta baita eskolak emateko modu ezberdinak erabiltzen ere”¹⁷². Honi buruz José Ruiz Fajardo ren iritzia jasotzen da, Eceiza ren militantzia kidea, zeinak “ikastolatik “gorri” izana leporatutako hama-bi irakasleren kanporaketarekin antzekotasuna hartzen dion”¹⁷³.

1978

Martxoak 10. ETAm–k José M^a Acedo Panizo erail zuen, Adunan zuen lanpostuan. Guardia Zibileko sarjentu izan zen bost urtez Andoainen. Bi hilabete zeramatzan indar militar horretatik erretiratua eta zinpeko zaindari lanetan ari zen Adunako ATC fabrikari. Bi seme eta alaba baten aita, José Acedo Panizok 56 urte zituen eta denbora gutxi zeraman Tolosako Amaroz auzoan bizitzen. ETAm–k, eraso bere gain hartzean, hamar urte lehenago Tolosako Benta Haundin Txabi Etxebarriaren heriotza eragin zuen tiroketarekin lotu zuen guardia zibil ohia. **Iluntzean**, Donostian, eskuetan kateak eta burdinagak zeramatzaten hogei bat “inkontrolatuk” paseoa zebilen jendea-ri eraso zioten; motoak lurrera bota eta autoetan txikizioak eragin zituzten. Tabernetan sartu eta jendea oihu egitera behartu zuten: “*Viva España*” edo “*Vascos asesinos, cobardes y traidores*”¹⁷⁴. Oihu egiten ez zuenak jipoia jasotzen zuen. Goizeko 04:00etan, Triple A taldearen lehergailu batek eztanda egin zuen Askatuak kirol taldearen tonbolan.

Martxoak 22. Molotov koktelak Iberduerok herrian zuen bulegoaren kontra.

Apirilak 11. Eskuin muturreko ezezagunek sua pizteko prestatuta zegoen lehergailu bat jarri zuten Elzaburu familiaren etxeko eskailburuan (familiako kide bat erbestean egon zen eta 1977ko amnistia legearen ondoren itzuli zen), goizaldeko 3:30 eta 4:00 artean. Bizilagunek sua itzaltzea lortu zuten, Guardia Zibila agertu aurretik. Ez zen kalte pertsonalik izan; bai, ordea, kalte materialak.

Apirilak 18. Gipuzkoako gobernadore zibilak jakinarazi zuen hiru gizonezko espetxeratu zituztela Martutenen; horien artean, Ignacio María Iturbide *Piti* andoaindarra, atxilotzeko unean soinean pistola bat eta hainbat nortasun agiri zeramatzana. Gobernu Zibilaren oharrak hainbat eraso egotzi zizkion taldeari: besteak beste, suteak eragitea PCEn Donostiako egoitzan eta Lasarte-ko Insausti tabernan, eta lehergailuz erasotzea Askatuak–en Tonbola (Donostia), Viñaspre Farmazia (Ordizia) –Ceferino Pérez de Viñaspre semea Iruñean segurtasun indarrekin izandako tiroketa batean hil zen (“*Bi eta bat gure alde*” esan zuen Martin Villak, artean Barne ministro zenak)– eta Goikoetxea Iturgindegia (Hernani). Iturbide aske utzi zuten denbora gutxiren buruan, “*goi mailan zituen lagunengatik*”, jasotako lekukotasunaren arabera.

172 OTAEGI NEGREDO, Karmele. Op. Cit., p. 391.

173 *Ibidem*.

174 *El País*, 1978/03/11.

Ekainak 21. Lapurreta herriko Gipuzkoako Aurrezko Kutxaren bulegoan. 340.000 pezeta eraman zituzten. Buruak estalita eta armak zituzten hiru lagunek ihes egin zuten, Seat 131 batean. Autoaren jabea –José Luis Siaga Lorenzo– bahitu egin zuten, eta lotuta eta ahoa estalita utzi zuten Andoain inguruko mendi batean.

Uztailaren 1a. Indarrean sartu zen Ministro Kontseiluak ekainaren 29an onartutako terrorismoaren aurkako legea, urtebeterako.

Uztailak 10, 11 eta 12. Protestak, lanuzteak, asanbladak eta mobilizazioak Sanferminetan polizia tiroz hildako lagunengatik: uztailaren 8an, Germán Rodríguez (22 urte), Iruñean, eta uztailaren 11n, Joseba Barandiaran (19 urte), Donostian.

Uztailak 23. Inkontrolatuek Gómez Uranga familiak Kaletxikin zuen okindegia metrailatu zuten, baita banaketarako erabiltzen zuten ibilgailua eta familiaren etxeko pertsianak ere (Josu semea ETApM–rekin lotura zuelakoan atxilotu zuten).

Abuztuak 1. Beste atentatu parapolizial bat Gómez Uranga familiaren okindegiaren aurka. Molotov koktel batek kalte materialak eragin zituen. Pertsona batek telefono dei baten bidez hartu zuen bere gain eraso, ezein siglarik aipatu gabe.

Irailak 30. Posta tiroak Elzaburu familiaren etxearen kontra, goizaldeko 4:00etan. Tiroek pertsiana bat zulatu, kristalak hautsi eta pareta baten kontra jo zuten.

Urriak 29. ETAk Ignacio Olaiz Mitxelena erail zuen, Urnietan. 42 urtekoa, alaba bat eta bi seme zituen. Andoaingo Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kidea zen. Postu bat zuen emaztearekin barazki azokan. Gorpua bere autoan aurkitu zuten, Seat 1500 bat, Urnietako San Jose harrobian, hamar bala zulorekin. Ezkerreko eskuan diru kopuru jakin bat zuen (iturri batzuek 500 pezetako billete bat aipatzen dute; beste batzuek, 1.000 pezetako billete bat, edota hiru¹⁷⁵). Gertaerak hasieran eragin zituen nahasmen eta zalantzen ondoren –atentatua eskuin muturrak eginikoa izango zela pentsatzen zen–, ETAm–k erreibindikatu zuen hilketa, Herri Irratira eginiko telefono dei batean: segurtasun indarren “*infiltratu*” izatea leporatu zion biktimari.

Poliziaren salatari izatea akusatu zuten. Egia izan ala ez, garai hartan ‘txibatismo’ psikosi betean bizi ginen, eta, nahiz eta ados ez egon, atentatuak ez ziren publikoki gaitzesten¹⁷⁶. Karmele Otaegi Negrodo

Urriak 30. Oraindik zalantzak zeudenean Ignacio Olaiz Mitxelenaren erailketaren egiletzaren inguruan –Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kideen artean bereziki–, ETAk agiri bat bidali zuen egunkarietara. Senideak deseustatzen dute indarrekin akusazioak. Hona hemen *El País* egunkariak argitaratutakoaren zatiak¹⁷⁷:

ETAm–k adierazi du arretaz aztertu dituela haren jarduerak duela lau hilabetez geroztik. Orduan eskatu zuen biktimak euskal erakunde armatuan sartzea. Dirudienez, erakunde politiko abertzaleek –komunikatuan ez da izenik aipatzen– nahikoa informazio eman diote ETARI susmoak izateko Iñakiren benetako asmoei buruz, “zeinaren ondorioz agerian gelditu baita inolako zalantzarik gabe haren

175 *El Diario Vasco* egunkariaren lehen orria, 1978/10/31.

176 OTEAGI SAGREDO, Karmele. Op. Cit., 391. or.

177 *El País*, 1978/11/01.

infiltrazio eta indar polizialekiko lankidetzeta lana". Eginiko ikerketen ondorioz, ETAk ateratako ondorio aizan zen Iñakik "Espainiako segurtasun agenteetako batentzat lan egiten zuela, Pascual Blancanieves Donostiako ETAREN kontrako brigada buruaren aginduei jarraiki".

Urriak 31. Leizaran IES Bigarren Hezkuntza Institutuko irakaslegoak atentatuagatik protesta ekitaldi bat burutzen du. Ignacio Olaitz Mitxelenaren hileta elizkizuna eta ehorzketa Oiartzunen. Bai hildakoa bai haren familia herri horretako Iturriotz auzokoak ziren. Blanqui Ortigosa alargunak eta Salustiana amak gezurtatu egin zuten ETAREN akusazioa. Blanquiren hitzetan:

Hau guztia ETAREN oker handi bat izan da. Egia osoa ezagutzen dut, oso ondo ezagutzen nuen senarra eta ziurta dezaket ez dela salatari bat izan ¹⁷⁸.

Bere alaba Zuriñerentzat:

Ez da egia. ETAk ez zuen inoiz frogatu ezer, ezta nahi ez zuenari hiltzen zuenean. Gizarte koldar honek bizirik segitzeko, horrelako komunikatuak eta ETAREN ekintzak hainbeste urtetan zehar nahiago zuen zalantzan ez jartzea.

Azaroak 1. José María Urdanpilleta Goenaga atxilotu zuten Tuteran. Aske utzi zuten, kargurik gabe.

Azaroak 2. Inkontrolatuek su eman zieten Leizotz auzoko Anastegi baserriko lau belar metari.

Azaroak 16 eta 17. Lanuzteak, greba eta manifestazioak Andoainen eta Gipuzkoa osoan, Guardia Zibilak Arrasaten tiroz hildako hiru lagunuen heriotza salatzeke: José María Iturrioz Garmendia (24 urte) eta Roberto Aranburu Uribarren (21 urte) Komando Autonomo Antikapitalistetako kideak, eta Emilia Larrea Sáez de Adana (52 urte) Arrasateko bizilaguna. Guardia zibilen tiroek beste lau lagun zauritu zituzten. Eztabaida handia piztu zen José Ramón Recalde Eusko Kontseilu Nagusiko Giza Eskubideen zuzendariaren eta Rodolfo Martín Villa Espainiako Gobernazio ministroaren artean. Hilaren 19an, izenburu honekin argitaratu zen *El Diario Vasco*: "Gipuzkoa ia erabat geldirik ostiralean". *La Voz de Guipúzcoa* eta *Radio Popular* irratiak ez zuten emanaldirik egin, eta *Radio San Sebastián*ek, berriz, parteak eman zituen ordu eta erdiro. Gipuzkoako prentsako langileek lanuztea egitea erabaki zuten, eta, beraz, hurrengo egunean ez zen egunkaririk argitaratu.

Abenduak 6. Espainiako Konstituzioaren erreferenduma. Andoainen, erroldan zeuden 10.421 lagun % 57,49a abstenitu egin zen edo ez zuen bozkatu (6.322 pertsona). Bozkatzera joan zirenen artetik (% 42,51), 3.016 lagunek baiezkoa eman zuten eta 1.083k, ezezkoa¹⁷⁹.

Abenduak 26. Luis Fernando Monfort Halle bahitu zuten Hernanin, haren aita Luis Monfort Palacios enpresaria (Andoingo Papelera Leizarán) eramaten saiatu zirenean. Egun berean utzi zuten aske bahitzaileek –etakideak–, haien helburua izanik estortsio ekonomikoa egitea enpresariei ("iraultza zerga").

178 *El Diario Vasco*, 1978/11/02.

179 *El Diario Vasco*, 1978/12/07. Datuak oso gutxi aldatzen dira Peio Ochoaren lanean. 442. orrialdeko 31. laukiaren arabera, hauteskunde erroldan 10.511 lagun zeuden; 6.028 pertsona abstenitu ziren (%77,34), eta baiezkoek eta ezezkoek kopuru bera izan zuten.

KONSTITUZIOA ONARTU ONDOREN

1979

Otsailak 1. Hiritarren Segurtasunerako Dekretu–Legea sortzen da, Kongresuaren Osokoak botu bakarragatik balioztatua urte honetako Abenduaren 20an.

Otsailak 3. ETAm–ko komando batek José Díez Pérez guardia zibila tirokatu zuen, herriko kuartelaren atean zegoela. 25 urte zituen eta ezkongabea zen. Donostiako Poliklinikara bizirik iritsi bazen ere, zauri larriek heriotza eragin zioten. Atentatuak beste bi agente zauritu zituen (bi–biak 30 urtekoak): Miguel Ángel Madariaga Lope tenientea, balez larriki zauritua aldaka batean, sorbaldan, hanka batean, bizkarrean eta sabelean (noduluak bireketan eta elbarritasuna eskuineko besoan), eta beste guardia zibil bat, Antonio Piqueras Martínez, zauri fisiko arinak izanagatik nahasmendu psikologiko larriak izan zituen.

Otsailak 4. Bezperako azken orduetatik, José Díez Pérezen hil kapera Donostiako ospitale militarrean. Hileta elizkizunean, hildakoaren familia eta hurbilekoak bakarrik izan ziren. Córdobaan lurperatu zuten hurrengo egunean.

Otsailak 27. Molotov koktelak Zubiaurre Etxearen aurka.

Martxoak 9. Inkontrolatuek su eman zieten Euskadiko Mugimendu Komunistako (EMK) militanteen bi autori. Zehazki, José Agustín eta José María Zubillaga Agirrezabala anaien autoei (lehena EMK–OICko zinegotzi izan zen urte horretako apirilaren 3an egin ziren hauteskundeen ondoren; mehatxuak jaso zituen). Sutea Arin Etxeko biltegiko atera zabaldu zen.

Martxoak 10. Goizaldeko 05:00etan, Elizaburu familiaren etxea metrailatu zuten berriro, eta telefonoz mehatxatu zituzten: *“Guztiak hilko zaituztegu, putasemeak!”*.

Martxoak 11. Asanblada atentatu parapolizialak salatzeke. Manifestazio baterako deia egin zen, martxoaren 18rako, *“talde faxistak legez kanpo uztea eta desegitea exijitzeko”*. Gainera, gaiari buruzko adierazpen publiko bat egitea eskatu zioten Udalari, eta ikerketa batzorde bat sortzea, gertaerak argitzeko.

Martxoak 16. Molotov koktel bat bota zuten Arregi Roldán familiaren etxe atariaren kontra. Bizilagunek itzali zuten sutea. Handik bi egunetara, goizaleko 05:00etan, Salvadora Roldánek telefono dei bat jaso zuen: ahots batek familia mehatxatu eta iraindu zuen.

Martxoak 17. Hiru lagunek Guardia Zibilaren kuartela metrailatu zuten, ordubete lehenago Andoainen bertan A.M.M.–ri lapurtutako Citroën batetik. Ez zen zauriturik izan. Guardia zibilak atzetik joan zitzaizkien arren, ezin izan zituzten atzeman.

Martxoak 18. Goizeko laurak aldera, inkontrolatuek eraso egin zioten berriro Anastegi baserriari. Hainbat tiro egin zituzten baserriaren kontra, bertakoak beldurtzeko asmoz. Tiro batek leiho bateko kristala apurtu eta gela baten barrura sartu zen. Horrenbeste eraso izan zituen Kaletxikiko okindegira telefonoz deituz hartu zuten beren gain ekintza egileek.

Martxoak 18. Guardia Zibilak sakabanatu egin zuen atentatu parapolizialak salatzeke herrian egin zen manifestazio baketsua. Tiroak eta ke poteak jaurtitzeaz gainera, tabernak hustu zituzten: *“Todo el mundo a sus casas”*. Txitibar tabernan, José Antonio Pérez Gabarain zauritu zuten, apirilaren 3an egingo ziren udal hauteskundeetan EEren zerrendan aurkeztuta alkate izatera helduko

zena, eta geroago ere PSE–EEko alkate izango zena. Gomazko pilota batek garezurreko traumatismoa eragin zion. Adineko bost emakume atxilotu zituzten: Salvadora Roldán, Maritxu Suescun, Angelita Gallego, María Teresa Isasi eta Miren Arregui. Kuarteletik irtetea, isekak, mehatxuak eta irainak salatu zituzten. F.G. Donostiako Erresidentziara eraman zuten, Ankora kalean Cristóbal tabernatik hurbil zegoela gomazko pilota batek buruan eragin zion zauri batekin. Elías Girol ere zauritu zuten, arma kulataz buruan emandako kolpe batez. Arratsaldean, Guardia Zibilak kontrol bat jarri zuen herri erdian, Zumea kalean. Udalak gertakizun horiek salatu zituen ezohiko bilkura batean.

Martxoak 22. Bi orduko lanuztea (11:00–13:00), martxoaren 18ko gertakizunak salatzeke. Taberna eta denda gehienek itxi zuten atea.

Martxoak 30. Inkontrolatuek tiro egin zuten Ontza elkarte barrura eta bala batek Juan Alberto Uranga zauritu zuen.

Apirilak 3. Ramón Ansa Zinkunegi (Francisco Javier Ansaren anaia, bi urte beranduago BVEk hil egingo duena) Udal hauteskundeetarako zerrenda buru izanda, EAJ–PNV alderdirik bozkatuena da (2.727 boto kopurua eta 8 zinegotzi), ondoren EE (1.779 boto kopurua eta 5 zinegotzi) eta hirugarrena PSE–PSOE (1.016 boto kopurua eta 3 zinegotzi). Azkeneko bi alderdi hauek eta EMK–OICEko zinegotzi bakarra indarrak batuko dituzte eta José Antonio Pérez Gabarain (EE) hautatu zuten alkate [honek 1995an, 2003an eta 2007an PSE–EEekin alkatea izango da ere].

Maiatzak 6. Joxe Ramon Ansa Etxeberria, afiliazio politikorik gabeko 17 urteko gaztea, hilik aurkitu zuten goizaldean, garondoan tiro bat zuela, Azkonobieta baseritik hurbil. Bizileku zuen Upategi baserrira zihoala hil zuten. Bezperan lagunekin egona zen Santakrutzetan, eta bertan behera utzi zituzten festak albistearen berri izan bezain pronto. Tabernek ere itxi zituzten ateak. Triple A–k erreibindikatu zuen erailketa.

Maiatzak 6. Gaueko 22:30ean, herri asanblada bat egin zen Udaletxean, udal ordezkariak, alderdi politikoak, fabrika batzordeak eta herriko gizarte erakundeak bildu zituena. Udal areto bete batean, ordura arte zegoen informazio guztia eman zitzaizen bertaratutakoei. Joxe Ramon Ansaren erailketa “*Andoain pairatzen ari den eskuin muturreko taldeen atentatu sail luze batean*” kokatu ondoren, dei egin zitzaizen herritarrei hurrengo egunetan herrian egingo ziren protesta ekintzetan eta greba orokorrean parte hartzera.



A.M.A, 4027XX03, © Moisés.

Maiatzak 7. Milaka lagun bildu ziren ehorzketan eta ondoren egin zen manifestazioan, “*Fazista taldeak deuseztu. Disolución de las bandas fascistas*” pankartaren atzean. Hamaika alderdi politikok (EAJ, PSOE, EE eta HB, besteak beste), sei sindikatuk (UGT eta LSB–USO, horien artean), hainbat erakundek eta enpresa delegatuen asanbladak komunikatu bat idatzi zuten, errudunentzako zigorra eskatuz, eta “*ordena publikoaren indarretatik argiki faxistak diren elementuak depuratzea*”¹⁸⁰.

180 1979/05/07ko adierazpena. Sinatzaileak: LKI, Herri Batasuna, Euskadiko Ezkerra, EIA, EAJ, EMK–OIC, PSOE, EKA, ORT, PTE, PCE–EPK, CSUT, UGT, ELA, LSB–USO, LAB, SU, Hauzolan, Ricardo Arregi Kultur Taldeak, enpresa ordezkarien asanblada. Deadarl, 8. or. Leyçaur 5, Andoaingo Udala, 1998.

Maiatzak 7. Andoaingo Udalak ezohiko eta premiazko bilkura egin eta erabaki hau hartu zuen:

Andoaingo Udalbatzak, kontuan izanik gure herrian kokatuta dagoen Guardia Zibilaren ohiko jarrera antidemokratiko eta bereziki errepresiboak herritarrengan sortu duen ezinegon nabarmena, eta aintzat harturik halaber Udal honetako indar politikoek Ordena Publikoaren Indarren inguruan dituzten plantamendu desberdinak, honako hau erabaki du:

1. Gobernu agintariei exijitzea erantzukizunak eska diezazkieketela Guardia Zibilaren Andoaingo kuarteleko buruei, beren jokabide errepresibogatik eta, oso bereziki, 1979ko martxoaren 18an herritarrek eginiko manifestazio baketsuan beren indarrek izan zuten jokaera irrazional eta basatiagatik.
2. Guardia Zibilaren Andoaingo kuarteleko buruei exijitzea agindupean duten plantillako kide guztien ikerketa sakona, horietakoren batek edo batzuek gure herrian izan diren eraso faxistetan zuzenean edo zeharka parte hartu duten jakiteko.
3. Halaber, Udalbatza honek, herritarrek gai honen inguruan duten kezka jakitun, erabaki du dagokien agintariei exijitzea Euskaditik atera ditzatela Guardia Zibilak Andoainen dituen kideen artetik erregimen frankistan beren jokabide errepresiboagatik bereziki nabarmendu zirenak, eta, horrekin batera, kide horiek, erantzukizunik izanez gero, horiei aurre egin diezaietela eta indar armatutik kanporatuak izan daitezela.
4. Ordena Publikoaren Indarrak alkatearen menean egotea.
5. Azkenik, beste behin, Gobernuari exijitzen diogu martxan jar dezala ordena publikoaz arduratuko den eta euskal autonomia erakundeen kontrolpean egongo den euskal polizia.

Andoain, 1979ko maiatzaren 7a

Maiatzak 8. Goizez. Antonio Oyarzabal Gipuzkoako gobernadore zibilak azalpenak eskatu zituen Andoaingo Udalari, Ordena Publikoaren Indarrak lotzeagatik bi egun lehenago Joxe Ramon Ansa hil zuten talde faxistekin. Segurtasun indarrak *“desprestijiatzeko kanpaina demagogikotzat”* jo zituen Udalaren erabakiak, *“asmo ezkutuko akusazioak”*, eta *“arduragabetzat eta oso larritzat”* hartu zuen udal agintarien jokabidea. *“Frogak nahi ditut”* erantsi zuen, *“oso apreziatio larriak baitira, eta ez nago prest horiek onartzeko”*.

Maiatzak 8. Arratsaldez. Andoaingo alderdi politikoek, sindikatuek eta gizarte erakundeek gobernadore zibilari zuzendutako erantzunean, *“bat gatoz guztiz Udalak aho batez hartutako erabakiekin”* adierazi zuten, *“fidelki jasotzen baitute herritarrek sentitzen dutena”*, eta ohartarazi zioten, udal erabakiak fiskaltzara igorri gero, aurrean izango zuela *“gure herri osoa, prest era horretako probokazio bati erantzuteko, batasunarekin eta mobilizazioekin”*.

Hurrengo egunetan, 25 udalek bat egin zuten Andoaingo Udalbatzak hartutako erabakiekin: Donostia, Irun, Beasain, Zumarraga eta Tolosakoak, besteak beste.

Maiatzak 9. Borroka eguna, greba, asanblada eta lanuzteekin. Poliziak manifestazioak sakabanatu zituzten. Lankide Aurrezkiren egoitzara harriak bota ziren.

Maiatzak 26. Inmaculada Lasarte, Xaxin baserrikoa (Leitzaran), 28 urtekoa eta urtebetetik beherako alaba baten ama), herrian egin ohi zuen esne banaketa amaitzean, buzo urdinez jantzitako hiru guardia zibil aurkitu zituen bere ibilgailuaren ondoan. Galdekatzen hasi ziren. Triple A–k Joxe Ramon Ansa erailteak pena eman ote zion galdetu ziotenean eta neskak “bai” erantzun zuenean, mehatxatu egin zuten: *“orain zuen txanda da”*¹⁸¹. Inmaculada Lasarte ez zen ezein alderdi politiko-tako kide eta ez zuen kutsu politikoko jardueretan parte hatzen.

Ekainak 4. Lanuzteak Andoaingo enpresa gehienetan Tuteran hildako Gladys del Estalen heriotzagatik. 23 urteko gaztea energia nuklearraren kontrako nazioarteko jardunaldi–festa batean parte hartzen ari zen. Guardia Zibilak protestak sakabanatu zituen, ke poteak eta gomazko pilotak jaurtiz. Pertsona batzuk Juan Bautista Erro eta Zumea kaleetako bi etxe ataritan sartu ziren, babes bila, guardia zibilen bortizkeriak izututa, eta atari horien barruraino iritsi ziren ke poteak.

Ekainak 9. Ezezagunek zortzi tiro egin zituzten María eta Francisco Arinen etxearen kontra, goizaldeko 03:00etan. Hiru balak leiho baten pertsiara eta kristala zulatu eta gela bateko sabaiairen kontra jo zuten. Semeetako bat –Iñaki– atxilotuta egon zen 1968an, ETArekin zerikusia zuelakoan. Erbestean zela, bi urteko espetxe zigorra ezarri zioten auzi ihesean.

Ekainak 26. Andoainen eta inguruko herrietan izan zen atentatu faxista segida zela–eta, eta mehatxu gehiago jaso zirenez, pertsona taldeek zaintza lanak egin zituzten txandaka¹⁸², Udal-tzaingoaren ibilgailuen laguntzaz.

Uztailak 18. Fuerza Nueva (FN) taldearen pintada ugari herriko kaleetan. Horietako bat kuartelaren garitaren azpian¹⁸³.

Uztailak 27. Ultren mehatxuak Udalari. José Antonio Pérez Gabarain alkateak (EE) idatzi bat aurkeztu zuen babesa eskatuz Eustaquio Iruستا Zabala udal idazkariarentzat, heriotza mehatxu ugari jaso zituena bere lanpostua utz zezan. Udal lankideek txandaka lagundu zioten etxetik lanerako eta lanetik etxerako bidean.

Abuztuak 4. Goizaldeko 04:45ean, beste atentatu bat Gómez Uranga familiaren aurka. Martxan zihuan auto batetik, hiru tiro egin zituzten pistolaz familiaren ibilgailuen kontra (Seat 600 bat eta jeep bat). Ordu laurden geroago, erasotzaileak itzuli eta tiro jasa bat bota zuten metrailetaz okindegiaren aurka. 05:45ak aldera, ahots anonimo batek bere gain hartu zuen atentatua Arregi familiaren etxera eginiko dei batean (Salvadorak hartu zuen telefonoa): *“Gaur zure lagunari tokatu zaio, hurrengoan zuri, putasemeak!”*.

Abuztuak 14. Joseba Apalategui eta Jesús Etxabe atxilotu zituzten EEren hauteskunde pintada bat egiten ari zirenean, Txartel Hotel inguruan, *“Estatutuarekin presoak kalera”* zioen plantilla erabilia. Ez zuten esaldia bukatzeko astirik izan. Polizia bat hurbildu zitzaie, pistola eskuan, eta paretari begira jarrarazi zituen, eskuetako hatz bana bakarrik jarririk hormaren kontra eta ahalik eta urrunen ipinita hankak paretatik. Ondoren, kuartelera eraman eta Etxaberi bi galdeketa egin

181 Deadar! 13. or. Ikerketa Batzordearen Dosierra; bat egin zuten Udalak eta jada aipatutako alderdi politiko, sindikatu eta erakunde guztiek. Leyçaur 5, Andoaingo Udala, 1998.

182 *El País*, 1979/06/27.

183 Ikerketa Batzordearen Ondorioak. Hemen: OTAEGI NEGREDO, Karmele. Op. Cit., 422. or.

zizkieten, iraganean ETAp^m-rekin izan zuen loturaren inguruan; hiltzeko mehatxuak egin eta aurpegian jo zuten, “*koplarik gabe*”, bere lekukotasunean adierazi zuen bezala.

Irailak 1. Goizaldean Sorabillako jaietatik zetorren gazte talde batek –José Mari Arruti zizurkildarra, horien artean– Andoaingo Goiko Etxeberri baserrirako bidea hartu zuen (baserri horretakoa zuen bikotekidea Arrutik). Azken hori unez batez taldetik bereizi zenean autotik zerbait hartzeko, kalekoz jantzitako hiru gizonezko armadunek bahitu, jipoitu (kolpe gogor bat urdailean) eta mehatxatu egin zuten, harik eta bila ari ziren pertsona ez zela ohartu ziren arte. Maiatzean Triple A–k erail zuen Joxe Ramon Ansaren lagunetako bat zela uste zuten. Geroago, José Mari Arruti hiltzeaz mehatxu zuten gertatutakoa kontatuz gero.

Irailak 23. Inkontrolatuek pintada faxistak egin (svastikak) eta herriko bizilagun ugariren ibilgailuen gupilak zulatu zituzten; besteak beste, José Antonio Pérez Gabarain EEko alkatearen¹⁸⁴, Luis María Arnaiz Velascoren eta Modesto Baltasarren autoenak (Baltasar Miren Arregi Roldánen senarra zen, eta emaztearen familiaren etxea hainbat aldiz eraso zuten).

Irailak 28. Goizaldean, Tomás Alba Irazusta (41 urte) HBko zinegotzia hil zuten bi posta tiroz, Astigarragan, Kako sagardotegian afaltzetik irteten ari zela. “Grupos Armados Españoles” (GAE) taldeak hartu zuen bere gain atentatua. Eguna argituta, ETAp^m-k Guardia Zibilaren Land Rover bat metrailatu zuen Andoainen: Manuel Ruiz guardia zibila zauritu zuten.

Abenduak 11. Herriko bizilagunen autoen kontrako inkontrolatuen beste eraso sail bat. Besteak beste, José Antonio Irulegiren ibilgailuaren aurkakoa.

1980

Martxoak 17. Inkontrolatuek su eman zioten Miren Arregi Roldánen autoari, 1979ko martxoaren 16an eta irailaren 23an jada beste atentatuak izan zuena.

Apirilak 1. ETaren eraso metrailetaz Guardia Zibilaren kuartelaren aurka.

Maiatzak 8. Juan José Rosón Barne ministroak “*zorroztasun handiagoa*” iragarri zuen baimendu gabeko manifestazioen aurka. Maiatzaren 21ean, polizia plan bat aurkeztu zuen Euskal Herrirako.

Maiatzak 16. Armak zeramatzaten lagun batzuek Pepsico enpresaren DKW furgoneta bat bahitu zuten Andoainen. Orian utzi zuten aske gidaria.

Ekaina. Triple A-k familia bat bahitu zuen, herriko banku batean lapurreta egiteko asmoz. Bi lagunek bankuko arduraduna atzeman eta bere etxera eraman zuten. Gaua familiaren etxean igaro ondoren, goizean komandoko bi kide arduradunarekin batera bulegora joan ziren; beste bi lagun (emakumea, horietako bat) familiako beste kideak zaintzen gelditu ziren. Lapurretak huts egin zuen arazo teknikoengatik eta lau erasotzaileek ihes egin zuten herritik (Txosten hau idatzi duen taldeak informazio hau jaso eta egiaztatu egin du. Dena dela, biktimek ez dute izen-abizenik eman nahi izan, eta haien nahia bete dugu).

184 José Antonio Pérez Gabarain Euskadiko Ezkerrako alkate izan zen 1979 eta 1983 artean. EEK PSE–PSOerekin bat egin zuenean, PSE–EEko alkate izan zen 1995 eta 1999 artean eta 2003 eta 2009 artean. Azken urte horretan uko egin zion karguari, eta senatari hautatu zuten Alberto Buenen ordeztu.

Uztailak 3. María Ángeles Galarraga atxilotu zuten.

Irailak 11. Goizaldean, burua estalita zuen pertsona batek hainbat tiro egin zituen Ontza elkarte barrura. Elkartean zeuden lagunak, zazpi totalen, ezkondu aurreko agur batean, ohartuta ikusi zutenean pertsona bat pistola batekin kanpoan zegoela eta aurreko urteko eraso gogoan, argiak itzali zituzten eta lurrean etzan ziren berehala, tiroak hasi aurretik, eta horri esker salbatu zuten bizia. Kalte materialak izan ziren. Batallón Vasco Español (BVE) taldeak erreibindikatu zuen eraso.

Urriak 24. Guardia Zibilak Mercedes Zabala Huici atxilotu zuen. Aske gelditu zen epailearen aurretik igaro gabe. Torturak salatu zituen.

Azaroak 14. BVE taldeak Joaquín Antimasbere Eskoz (31 urte) hil eta Andrés Etxeberria Etxeberria zauritu zuen Urnietatik Andoainera doan errepidean.

Azaroak 17. Hainbat alderdi politikok eta erakundek greba orokorrerako deia egin zuten Gipuzkoan, atentatu hori eta Caracasen Jokin Alfonso Etxebarria eta Esperanza Arana senar-emazteak hil zituena salatzen (Euskal Preso eta Erbesteratuen aldeko Venezuelako Batzordeko kideak ziren). BVEk hartu zituen bere gain bi atentatuak.

Azaroak 27. Frantziako Poliziak Arantzazu Galparsoro atxilotu zuen. Gero, Espainiako agintarien esku utziko zuen.

Azaroak 30. Guardia Zibilak Juan Andrés Armendariz Barrenetxea, Jesús María Iraola Alkorta eta Francisco eta José Antonio Arruti Arruti anaiak atxilotu zituen Andoainen. Ceutan, Vicente Aizpuru Gorrotxategi atzeman zuten, eta Madrilen, Ignacio Olazabal Ezeiza. Espetxeratu egin zituzten, ETApm-rekin zerikusia zutelakoan, eta atxilo aldiaren torturak jasan zituztela salatu zuten.

Abenduak 3. Guardia Zibilak Pedro Jauregi Arribillaga andoaindarra atxilotu zuen Olaztin. Aske utzi zuten kargurik gabe. Torturak salatu zituen.

1981



Joxe Ramon Ansa Etxeberriaren familiak oroitarri bat ipini zuen BVEk 1979an erail zuen senidea gogoratzeko. Bi aldiz eraso zioten, eta hirugarren batean pintura bota zioten.

Urtarrilak 13. Gipuzkoako gobernadore zibilak indarrik gabe utzi zuen liburuzain posturako euskaraz jakitea eskatzen zuen Andoaingo Udalaren erabakia. Urtarrilaren 15ean, Carlos Garaikoetxea lehendakariak *“onartezintzat”* jo zuen gobernadore zibilaren jokabidea.

Otsailak 9. EAJ-PNV, PSE-PSOE, PCE eta EE alderdiek eta CCOO, ELA-STV eta UGT sindikatuek greba orokorra egiteko deialdia egin zuten, ETAm-ak Lemoizko zentral nuklearreko ingeniari nagusia, Jose Maria Ryan Estrada (39 urtekoa), bahitu eta hil zuelako. Grebak jarraipen handia izan zuen Andoainen.

Otsailak 16. Beste greba orokor bat egin zen, orduko hartan, ETAm-eko kide baten heriotza zela-eta protesta egiteko; izan ere, Joxe Arregi Eizagirre etakidea (30 urtekoa) Madrileko Segurtasun Zuzendaritza Nagusian hil zen, torturen ondorioz. Hilaren 4an atxilotu zuten Espainiako hiriburuan. Greba orokorra, herrian oihartzun handia izan zuen.

Martxoak 2 eta 3. BVEk Francisco Javier Ansa Zinkunegi (36 urte) erail zuen, Urnieta eta Andoain arteko errepidean, Krafft enpresa ondoko autobus geltokitik eta bizileku zuen Leizotz auzoko Antxizu baserrikerit hurbil zegoenean. Burua estalita zuten bi lagun auto batean hurbildu zitzaizkion eta horietako batek tiro egin zion ondo-ondotik. Ramón Ansa Zinkunegiren anaia zen (EAJko alkateordea) eta Sorabillako Construcciones Metálicas Fierro enpresan lan egiten zuen. Lantokira zihoan hil zutenean. Lankideek, asanbladan bilduta, lanuztea egitea erabaki zuten, hilketa salatzeko. Mila lagun inguru bildu ziren Udaletxeko plazan protesta modura.

Martxoak 4. Greba orokorra Andoain, Hernani eta Urnietan, eskualdeko enpresa delegatuen asanbladak deituta. Hileta elizkizuna, San Martin elizan. Krafft-eko langileek lana utzi eta manifestazioan Goiko Plazaraino.

Egun berean, komando erasotzaileko hiru kide atxilotu zituzten, BVE, GAE edo Triple A siglak erabiltzen zituena "Heriotzaren triangela" delakoan egin ohi zituen erasoak errebindikatzeko: Ignacio Iturbide Alcaín *Piti* andoaindarra, Ladislao Zabala Solchaga donostiarra (60etako hamarkadako Diputazioko lehendakariorde baten semea eta José Solchaga Zala jeneralaren iloba) eta Rogelio González Medrano izeneko hirugarren pertsona bat. Donostiako komisario buruak adierazi zuenez, komandoaren ekintzak "terrorismo indiskriminatua izan dira; helburuak zehatzak bazi-*ren ere, biktimak –Tomás Alba izan ezik– indiskriminatuak ziren*"¹⁸⁵. Rogelio González aske utzi zuten hiru egunen buruan, ultren mehatxu anonimoekin lotzen zuten zantzuak izan arren ez zelako atentatuekin lotuko zuen arrasto nahikorik aurkitu.

*Denbora gutxiren buruan, Rogelio González Medrano ultra "damutuak" aitoren idatzi bat aurkeztu zuen, aipatutako bikoteaz gainera beste pertsona batzuk ere nahasiz hainbat atentatutan: militarrek eta Guardia Zibileko kideak, besteak beste*¹⁸⁶.

Martxoak 7. Udalak deitutako manifestazioa Francisco Javier Ansaren erailketa salatzen. Pankartaren leloa: "Contra las bandas fascistas. Detención y castigo a los culpables. Esclarecimiento total de los hechos (Talde faxisten aurka. Errudunak atxilotu eta zigortu. Gertaerak gutiz argitu)".

Martxoak 30. Poliziak eta Guardia Zibilak Gasteizen ETAm-ko hainbat kide atxilotu ondoren, atentatuak egiteko materialez betetako zulo bat aurkitu zuten Andoainen. Atxilotuetako bi 1982ko otsailaren 4an epaitu eta kondenatu zituzten Ignacio Olaiz Mitxelenaren erailketagatik.

Ekainak 6. Alarma, salbuespen eta setio egoeren legea jarri zen indarrean.

Azaroak 10. Guardia Zibilaren artezilariek Iberduero enpresaren herriko subestazioan jarritako lehergailu bat indargabetu zuten.

185 *El Diario Vasco*, 1981/03/05.

186 BARRUSO BARÉS, Pedro. *Op. Cit.*, 590. or.

Abenduak 15. Komando Autonomo Antikapitalisten lehegailua Tejas y Ladrillos del Oria enpresaren aurka. Eztandak enpresaren zinta garraiatzailea hautsi zuen. Enpresak lan arazoak zituen eta erregulazio espediente bat zabaldu zuen.

1982

Urtarrilak 13. Polizial Andoaingo lau bizilagun atxilotu zituen ETAm-rekin lotura zutelakoan: Bittor Lizarralde Urreta, Madrilen, Fermín Lagala Urkia, Andoainen, eta Imanol Olazabal Ezeiza, Melillan. Hiruak espetxeratu zituzten eta torturak salatu zituzten. Villabonan atzeman zuten laugarren atxilotua, Josetxo Urdanpilleta Goenaga, aske utzi zuten kargurik gabe, nahiz eta torturak salatu zituen.

Otsailak 4. Auzitegi Nazionalak 27 urteko espetxe zigorra ezarri zion José Luis Martín Elustondori, 1978an ETAm-k Ignacio Olaizen aurka eginiko atentatuagatik. Auzi berean, 6 urteko espetxe zigorra ezarri zion Joaquín Zubillaga Artolari. Abenduaren 17an, espetxe zigor bera ezarriko zion José Ignacio Goikoetxea Arandiari.

Martxoak 30. Ramiro Carasa Pérez (38 urte) Donostiako Arantzazu Ospitaleko Traumatologia zerbitzuko mediku buruaren gorpua aurkitu zuten baso bide batean, Xoxokatik 500 bat metrora, Urnietako udal barrutian, Andoaindik gertu. Bost bala zulo zituen. ETAk bere gain hartu zuen Carasaren bahiketa, galdeketa eta hilketa.

Apirilak 11. Gobernu Zibilak debekatu egin zuen HBk Aberri Egunerako antolatutako ekitaldia.

Ekainak 13. ETAm-ren lehegailu batek Leizotzen Asu baserritik hurbil zegoen dorre elektriko baten oinarria suntsitu zuen.

Ekainak 24. Joaquín Navarro Esteban, Donostiako Lehen Instantziako magistratuak Estatua eta Manuel Sánchez Vallés guardia zibila kondenatzen ditu, Juan Ignacio Irulegi Garmendia ri indemnitzazioa ordaintzera, 1975/11/11an bala zauri bat eragiteagatik. Agenteari bere garaian sumario bat zabaldu zioten, baina bi urte terdi ondoren Epaitegi Militarrek Juan Ignacio Irulegiri jakinarazi zion guardia zibila amnistiaturik izan zela. Oraingoan ordea, sententziak kondena ekarri du, Estatuko erakundeek "ausarkeria eta fede txarra" bide. Deklaratzera deitua zen guardia zibilaren destinoa ukatuz, "epaitegiko errekerimenduei entzungor eginaz, Manuel Sánchez Vallés guardiaren aitorpen judiziala eragotziz, hau izan bait zen tiroa egin zuena"¹⁸⁷.

Irailaren 30a. "Zazpigarrenekoek" (ETApm VII) beren disoluzioa jakinarazi zuten, publikoki. Prentsaurreko bat eman zuten, txanorik gabe, erakundearen anagrama eta "Pertur" zenaren argazki bat atzean zituztela.

Urriak 19. Poliziak Juan Carlos Roig Jalón atxilotu zuen Andoainen. Espetxeratu egin zuten.

Urriak 31. Madrilgo gobernuak dekalogo antiterrorista berri baten berri eman zuen, Zen Plana izenez ezagutuko zena (Zona Especial Norte).

187 *El País* 1982/06/25.

Azaroak 3. Aizan mugimendu feministak neska baten bortxaketa saioa salatu zuen. Erasoa herriko harrobian gertatu zela adierazi zuten, eta erasotzaileak pistola bat zeramala eta poliziatzat aurkeztu zuela bere burua¹⁸⁸.

Azaroak 10. ETAm-k lehergailu bat ipini zuen Leizaran kaleko Banco Hispano Americano-ren (BHA) bulegoan, goizaldeko ordu bata aldera, *"botere ekonomiko-finantzarioen"* kontrako bere kanpainan. Zauriturik izan ez bazen ere, kalte material handiak izan ziren bulegoaren fatxada nagusian, sabaian, markesinan eta kanpoko argiztapenean, eta inguruko eraikinetako kristalak ere apurtu ziren.

Azaroak 26. ETAm-ren beste lehergailu bat, kanpaina berean, Banco de Vizcaya-ren bulegoaren kontra. Lehergailuaz ohartarazteko Gurutze Gorrira eginiko telefono dei baten ondoren –*"dagoeneko lehertuta behar zuen"* esan omen zuten¹⁸⁹–, Guardia Zibilaren artezilariek ekin zioten bonba erretiratzeari, gailu mekaniko baten bidez, eta orduantxe egin zuen eztanda. Zauriturik izan ez bazen ere, leherketak artezilarien materiala hondatu eta inguruko etxeetako kristalak apurtu zituen.

1983

Maiatzak 4. Zuzen aldizkariaren 79. zenbakian, ETAk bere gain hartu zuen Banco Bilbao-ren Andoingo bulegoan jarritako lehergailua. Dena dela, *Egin* egunkariaren 1983ko urtekariak, Txalaparta argitaletxearen *Euskadi eta Askatasuna* Entziklopediak (1993) eta 1983/05/05eko *El Diario Vasco* egunkariak Beasainen kokatzen dute atentatua.

Uztailak 22. Ignacio Marcos eta Fernando Narro atxilotu zituzten Andoainen.

Urriaren 26a. Ministro Kontseiluak terrorismoaren aurkako beste zenbait neurri onartu zituen. Azaroaren 3an onetsi zituen Diputatuen Kongresuak.

Azaroak 5. ETAm-k bonba bana jarri zuen BHAREN eta Banco de Vizcaya-ren bulegoetan, Leizaran kalean eta Eskolak kalean, hurrenez hurren. Ez zen kalte pertsonalik izan. Gaueko 12:10ak aldera, lagun batek telefonoz deitu zuen DYARA hamar minututan eztanda egitekoak ziren bi lehergailuez ohartaraziz. Leherketak kalteak eragin zituen inguruko etxe eta leihoetan. Poliziaren arabera, bi bonba-tranpa ziren, artezilarien kontra prestatutakoak.

1984

Martxoak 14. Poliziak Juanjo Garmendia Garmendia atzeman zuen Andoainen. Espetxeratu egin zuten.

Maiatzak 30. ETAREN lehergailua herriko Peugeot Talbot kontzesionarioaren aurka.

Uztailak 18. Fermín Lagala Urkia atxilotu zuten berriro –Poliziak kasu honetan–, Villabonan, eta berriro salatu zituen torturak. Espetxeratu egin zuten (1982/01/13an atxilotua izan zen eta aldi hartan aske utzi zuten).

188 "Cronología de la guerra sucia en Euskal Herria (1959–2014)". Hemen: *La guerra no declarada*. Euskal Memoria Fundazioa. Andoain: Aise Liburuak, 2014, 699. or.

189 *El Diario Vasco*, 1982/11/27.

Irailak 6. Guardia Zibilak José Jauregialzo Oyarzabal atxilotu zuen. Aske gelditu zen epailearen aurrean deklaratu gabe. Tortura psikologikoa salatu zuen.

Irailak 27. Espainiako Kongresuak terrorismoaren aurkako beste lege bat onartu zuen.

Urriak 11. Guardia Zibilak Clara Pavo Tena eta Julio Mirón González atzeman zituen Andoainen. Aske gelditu ziren epailearen aurretik igaro gabe.

Azaroak 22. Herrian jarraipen handia izan zuen Santi Brouarden hilketaren dela-eta deitutako greba orokorrak. Santi Brouard HB koalizioaren bozeramailea zen Eusko Legebiltzarrean, eta 65 urte zituen GALek hil zuenean. Asanblada eta manifestaldia egin ziren.

Abenduak 1. Herriko bi udaltzain atxilotu zituzten.

1985

Urtarrilak 3. Talde Armatuen eta Elementu Terroristen Aurkako Legea indarrean sartu zen, Espainiako konstituzioaren 55.2 artikulua garatzen duena.

Martxoak 9. Guardia Zibilak Ricardo Callao atxilotu zuen. Aske gelditu zen epailearen aurretik igaro gabe.

Maiatzak 3. Ezezagunek lurrera bota zuten –eta balkoiko masta hautsi– jaietan Zumeako Santa Krutz ermitara doan alardean jartzen den bandera.

Ekainak 19. Guardia Zibilak Jesús María Arizmendi Urretabizkaia atxilotu zuen.

Ekainak 7. BVEko hainbat kideren aurkako epaiketa hasi zen Auzitegi Nazionalen. Akusatuen aulkian, besteak beste, Ignacio María Iturbide Alcain *Piti* andoaindarra eta Ladislao Zabala Solchaga eseri ziren, zazpi erailketa burutzeaz eta beste bi saiatzaz akusatuta, hainbat desordena publiko eragiteaz gainera. Ekainaren 11n irakurri zen epaian,¹⁹⁰ 231 urteko espetxe zigorra ezarri zioten bakoitzari, eta urtebetekoa, Jesús Jiménez Cortázar, José Luis Jiménez Clavería eta Benito Santos Medinari, armak edukitzeagatik (Iturbide hamar urteren buruan irten zen espetxetik. 1998/03/09an, berriro atzeman zuten, Valentzian, bi lagunekin batera, ihesean lurrera bota zuen poltsan pistola bat, munizioa, ileorde bat, defentsa pulberizatzaile bat eta bahiketetan erabiltzen den buru estalki horietako bat zeramatzala. Epaileak behin-behinean utzi zituen aske¹⁹¹. 2001eko irailean, berriro agertu zen egunkarietan haren izena, Nafarroako atrakatzaille talde bati lotua. Hamabi urte geroago, 2013ko ekainean, hilik agertu zen Bilbo inguruko inguru menditsu batean. Ladislao Zabala Solchaga 2015eko uztailaren 30ean hil zen).

Abenduak 18. Protestak, manifestaldiak eta kargak izan ziren, hilaren 15an Bidasoa ibaian, Guardia Zibilak atxilotu eta hainbat egunetara, Mikel Zabalza Garate (32 urtekoa) hilik agertu zelako deitutako greba orokorraren baitan.

190 Auzitegi Nazionalen Arlo Penaleko Aretoko II. Sekzioa. 32. epaia, 1985/06/11.

191 *El País*, 1998/03/14.

1986

Otsailak 25. Espainiako Kongresuak Segurtasun Indarren eta Kidegoen Lege Organikoaren proiektua onartu zuen.

Martxoak 10. ETak José María Egaña Loidi (61 urte) bahitu zuen Donostian, ibilgailuentzako osagarriak eta produktu kimikoak fabrikatzen zituen Andoaingo Krafft enpresaren Administrazio Kontseiluko bazkide sortzaile eta presidentea. Patxi Irígoras alkateak elkertasuna adierazi zion enpresari eta bere kezka adierazi zuen haren etorkizunagatik (martxoaren 25ean, ETak bahitua- ren bi argazki bidali zituen hedabide batera, eta martxoaren 29an utzi zuen aske, Lezon, familiak 300 milioi pezeta inguruko erreskatea ordaindu ondoren).

Martxoak 18. Poliziak Esther Garralda Arin, Pedro Jauregi Arrillaga eta Fermín Uribesalgo Uribe atxilotu zituen. Aske utzi zituzten epailearen aurrean deklaratu gabe.

Irailak 2. Inkontrolatuek su eman zieten Iñaki Kanposen ibilgailuari, Andoainen, eta Luis Mansorenari, Tolosan.

Azaroak 7. Poliziak Pedro Loran Iturbide atxilotu zuen Hernanin. Aske utzi zuten epailearen aurretik igaro gabe. Torturak salatu zituen.

1987

Urtarriletik aurrera. Dispersio- eta urrutiratze-politikak orokortzen hasi ziren, ETarekin lotutako pertsonak Euskal Herritik urrun dauden espetxeetara eramatekoa.

Maiatzak 20. Frantziako Poliziak zortzi lagun atxilotu zituen Urruñan eta Sokoan; tartean, 33 urteko Kontxi Labaien Intxausti andoaindarra. Espainiako Poliziaren esku utzia, aske gelditu zen kargurik gabe. Biharamunean, torturak salatu zituen.

Ekainak 17. Poliziak Garbiñe Huizi Belamendia atzeman zuen Andoainen. Aske utzi zuten epailearen aurretik igaro gabe.

Ekainak 25. Frantziako agintariak, urgentziazko prozedura erabilita, Espainiako Poliziaren esku utzi zuten Pedro María Goikoetxea Errazkin, Hernanin jaiotako 29 urteko ustezko etakidea. 1976/09/18an Pedro Gallo Boada Andoaingo alkatearen aurka egin zen atentatu saioan parte hartzea leporatzen zioten. Goikoetxearekin, 68 lagun ziren ordura arte urgentziazko prozeduraz kanporatuak izan zirenak.

Irailak 16. Frantziako Poliziak Inaxio Otaño Labaka 26 urteko andoaindarra atzeman zuen Hendaian, Iparraldera ihes egindako beste lagun batzuekin batera. 1988ko maiatzaren 18an, Espainiako Poliziaren esku utzi zuten. Guardia Zibilaren torturak salatu zituen.

Urriak 17. Legebiltzarrak zuzenketa bat onartu zuen, Ertzaintza hedatzeko eta Estatuko Segurtasun Indarrak apurka-apurka ordezkatzeko plana eguneratu zedin.

Azaroak 5. Madrilan, terrorismoaren aurkako Estatu Itun berri bat sinatu zuten PSOE, AP, CDS, EAJ-PNV, EE, CiU, PL eta PDP alderdiek. Azaroaren 10ean berretsi zuten.

Abenduak 1. Frantziako agintariak Espainiako Poliziaren esku utzi zuten José María Urdanpilleta Goenaga andoaindarra. Bi egunen buruan, aske gelditu zen epailearen aurretik pasa gabe.

1988

Urtarrilak 12. Ajuria Eneako Ituna sinatu zuten [aurrez, 1987an, Madrilgo Ituna, eta, gero, urriaren 7an, Nafarroakoa] APk, CDSk, EAK, EAJ-PNVk, PSE-PSOEk eta Jose Antonio Ardanza lehendakariak.

Urtarrilak 20. Frantziako Poliziak Francisco Javier Jauregi andoaindarra atxilotu eta Espainiako agintarien esku utzi zuen. Aske gelditu zen epailearen aurretik pasa gabe.

Otsailak 17. Berrero atxilotua, Imanol Olazabal Ezeiza aske utzi zuten epailearen aurrean deklaratu gabe.

Martxoak 3 eta 4. Koordinadora Abertzale Sozialistaren (KAS) protesta deialdia Gipuzkoan, Herrera de la Manchán espetxeratuta zegoen Mikel Lopetegui Larrarte (33 urte) presoaren heriotza salatzeke. Erantzun desberdina. Asanbladak lantegietan eta manifestazioa.

Maiatzak 12. Diputatuen Kongresuak terrorismoaren aurkako legedi berezia onartu zuen. Lege hori behin betiko sartuko zen Zigor Kodean eta Prozedura Kriminalaren Legean, eta, horrenbestez, Estatuko lege arrunten parte bihurtu zen.

Ekainak 20. Frantziako Poliziak Xabier Jauregi Arribillaga atxilotu zuen Bokalen. Guardia Zibilaren esku utzi zuen. Torturak salatu eta espetxeratu egin zuten.

Uztailak 12. Polizia Nazionalak Patxi Irastorza Goitia atzeman zuen Andoainen. Uztailaren 16an utzi zuten aske. Torturak salatu zituen (Irastorza jada hilik badago ere, KREIren txostenak jaso zuen haren lekukotasuna)

1989

Urtarrilak 8. ETAk aldebakarreko su-etena deklaratu zuen, eta, gero, **hilaren 23an**, bai Barne Arazoetarako Ministerioak eta bai ETAk berretsi egin zuten elkarrizketa-mahai bat eratu zela Aljerren. Alde askotako bilerak eta akordioak egin ziren, eta agindutakoak ez betetzea aurpegiratu zioten elkarri, **apirilaren 7an** ETAk Irungo polizia bati pakete batean lehergailu bat zion arte. Pakete hark zauriak eragin zizkion haren bizilagun bati, Jose Maria Rubiori. Ekintza horrekin, su-etena amaitutzat jo zen.

Irailak 17. Ertzaintzak Juan Joxe Petrikorena Leunda atxilotu zuen, bezperan Irungo Bentaseko ordainlekuan Guardia Zibilak tiroz hildako bi etakideen heriotzak salatzeke herrian egin ziren protestetan. Juan Oiarbide Aranburu (39 urte) eta Manuel Urionabarrenetxea Betanzos (37 urte) ziren hildakoak. Gesto por la Paz/Bakearen Aldeko Koordinakundeak, argitara eman zuen komunikatu batean, ETARI desagertzeko eskatu zion, eta bere samina adierazi zuen *“bi pertsonen heriotzagatik, kasu honetan ETAko bi kide”*¹⁹².

Irailak 28. Andoaingo Udalak Amnistiaren Aldeko Batzordeei leporatu zien ETAREN jomugan jaretzea Garbiñe Biurrun Tolosako epailea. *El País* egunkariaren arabera¹⁹³, erakunde horrek *“errepresioari lege estaldura emateaz”* akusatu zuen epailea, gazte bat espetxeratzea erabaki zuenean Ertzaintzak molotov koktelekin atxilotu ondoren. Hilabete batzuk lehenago, beste kasu bategatik ere kritikatu zuten Garbiñe Biurrun Amnistiaren Aldeko Batzordeek.

192 *El Diario Vasco*, 1989/09/18.

193 *El País*, 1989/09/29.

Azaroaren 21a eta 22a. Greba egin zen, Madrilgo Alcalá hotelean Josu Muguruza HBko diputatua hil zutelako (31 urtekoa) eta zauri larriak eragin zizkiotelako Iñaki Esnaola abokatuari.

1990

Ekainak 25. José Luis Hervás Mañas (34 urte) guardia zibila eta ETAko bi kide hil ziren Ilunberriko Arroilan izandako tiroketa batean. Etakideetako bat andoaindarra zen: Jon Lizarralde Urreta, 34 urtekoa; bestea, Susana Arregi Maiztegi, 25 urteko oñatiarra. Tiroketan bi zauritu izan ziren: José Domínguez Píriz sarjentua, balaz aldakan zauritua, eta hirugarren etakide bat, Germán Rubenach Roig, zauri larriak izan zituen buruan eta hanka batean jasotako bala banaz. Bertsio ofizialaren arabera, etakideek, ihes egiterik ez zutela ikustean, beren buruaz beste egitea erabaki zuten, eta hilik aurkitu zituzten biharamunean. Aldiz, familiek eta haien abokatuek adierazi zuten atxilotuak eta exekutatuak izan zirela, gauz galdekatuak eta torturatuak izan ondoren, eta 20 ordu baino gehiago igaro zirela lehen tiroak egin zirenetik gorpuak aurkitu ziren arte. Jon Lizarralderen kasuan, asfiaz hil zela adierazi zuen autopsiak; bere aldetik, Madrilgo Toxikologia Institutuaren txostenaren arabera, ur kantitate esanguratsuak aurkitu ziren haren gorpuan (Irati ibaiak zeharkatzen du arroila). Susana Arregik bi bala zulo zituen bata bestetik oso hurbil, buruaren ezker aldean. Uztailean, Amnistia Internacional–ek jakinarazi zuen bi aldiz idatzi ziola hil horretan Justizia ministroari, datu horien inguruko bere kezka adieraziz, kontraesana ikusten zuelako suizidioaren bertsioaren eta analisi toxikologikoen emaitzen artean.

Ekainak 25. Errepide mozketak eta liskarrak manifestarien eta segurtasun indarren artean, hainbat herritan, Ilunberriko gertaerak salatzeako deitutako mobilizazioetan: Andoainen, bost lagun atxilotu zituzten eta epailearen aurretik igaro ziren. Guardia Zibilak Nafarroa komandoko kideetat jo zituen ETAko hiru kideak, eta hainbat atentaturen egiletzat.

Ekainak 26 eta 27. Protestak eta saltoki eta tabernen itxiera piketeak eraginda. Pintadak banku bulegoetan. Manifestariek Tolosa–Donostia lineako autobus bat harrikatu zuten, kristalak hautsiz. Ertzaintzak hiru lagun atxilotu zituen istiluetan: Jesús López, A.L.U. adingabea (15 urte) eta Aitor Arribillaga Buldain (18 urte).

Ekainak 27. Bakearen Aldeko Koordinakundeak 61 elkarretaratze isil antolatu zituen Ilunberriko gertaerengatik protestatzeko. José Antonio Ardanza lehendakariak adierazi zuen arrazoizko zalantzak zituela bertsio ofiziala ezbaian jartzeko: *“Bertsio ofiziala sinetsi nahi dut, baina harritzen nau, ez dudalako uste bi etakide beren buruaz beste egin dezaketarik”*. Biharamunean, PSE–PSOEek erantzun zion: *“Lehendakariak erabateko kredibilitatea ematen die terroristei”*¹⁹⁴.

Ekainak 29. José Luis Corcuera Barne ministroaren agerraldia Diputatuen Kongresuan, Ilunberrin gertatutakoari buruzko bertsio ofiziala emateko.

Uztailak 3. Patxi eta Manuel Burguete atxilotu zituzten Ilunberrin. Germán Rubenachek eginiko deklarazioak –Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko ZIUtik lehenbizi eta uztailaren 11n eginikoak ondoren– *“guztiz kontraesankorrak”*¹⁹⁵ izan ziren, eta are gehiago nahasi zuten kasua. Hiru egun geroago, uztailaren 14an, bata zuriz jantzitako bi lagunek –Informazio Zerbitzuetako agenteak

194 ALONSO Rogelio, DOMÍNGUEZ, Florencio eta Marcos GARCÍA REY. *Vidas Rotas*. Madril: Espasa, 2010, 747. or.

195 17/95 epaiaren Lege Oinarrien C) puntua. Auzitegi Nazionala. Hirugarren Sekzioa. Arlo Penaleko Aretoa. 68/91 erroilua. 4. Epategi Zentrala. 62/91 sumarioa. 1995/03/21ean Madrilen irakurritako epaia.

ustez¹⁹⁶– ospitaletik ihes egitea proposatu zioten Rubenachi, eta horretarako plana kontatu zioten. Uztailaren 16an, Gregorio Marañon Ospitalera eraman zuten, eta bi egun geroago, kanpatzeko tresneria aurkitu zuten arroilan.

Hilaren 19an, atxiloketa ugari izan ziren: “legalez osatutako eta German izeneko komando bateko kideak (...), La Ribera izeneko komando armatu legal bat, Larrau izeneko beste laguntza komando bateko bi kide, baita Nafarroa komandoko liberatuei laguntzeko azpiegituraren zatirik handiena ere, Iruñean, Lekunberrin, Cadreitan, Antsoainen, Areson eta Madotzen. Komando horietako kideei armak, lehergaiak eta dokumentazioa atzeman zitzairen, eta La Ribera komandoaren bi zulo aurkitu ziren, Darocan (Zaragoza) eta Barasoainen (Nafarroa). Gainera, Nafarroan 1988az geroztik eginiko ekintza terrorista gehienak argitu ziren, baita Errioxan eta Zaragozan eginiko atentatu batzuk ere. Atzemandako dokumentazioa aztertuta, Guardia Zibilak, Beramendi inguruko baso itxi batean, Irurtzunen, Adolfo Villoslada nafar enpresaria 85 egunez bahituta eduki zuten “herriko kartzela” aurkitu zuten”¹⁹⁷.

Azaroak 14. Poliziak Hasier Garmendia Garmendia andoaindarra atxilotu zuen Usurbilen. Aske gelditu zen epailearen aurretik pasa ondoren.

Abenduak 24. Gasolina bidoiak jarri zituzten Excavaciones Añua enpresaren bi makina hondeatzaile eta kamioi baten azpian, Bazkardoko obretan. Ertzaintzak erretiratu zituen bidoiak eta ez zen surik piztu.

1991

Urtarrilak 15. Guardia Zibilak hainbat lagun atxilotu zituen polizia operazio zabal batean: Xabier Lekuona Barreras, Mikel Armendariz Sierra, Joxi Kortajarena Izagirre, Andoitz San Sebastián Aizpurua, Axier Oiartzabal Txapartegi, Juan Joxe Petrikorena Leunda eta Aritz Arnaiz Laskurain. Iker Arnaiz (Aritzen anaia) eta Xabier Olazabal ere atzeman bazituzten ere, aske utzi zituzten. Azken bi horiek izan ezik, beste guztiek atxiloaldian jasandako torturak salatu zituzten; atxilotutako batak epailearen aurrean deklaratu zuen “poltsa” egin ziotela eta deskarga elektrikoak jaso zituela barrabiletan. Mikel Armendariz eta Joxi Kortajarena Izagirre aske gelditu ziren urtarrilaren 19an, epailearen aurretik pasa ondoren. Besteak espetxeratu egin zituzten. Hasier Garmendia Garmendia ere atxilotu zuten, Usurbilen, nahiz eta aske gelditu zen kargurik gabe epailearen aurrean deklaratu ondoren.

Urtarrilak 15. Guardia Zibilak LAB sindikatuaren Andoaingo egoitza miatu zuen, hamar Nissan eta bi tanketa erabili. Bost minutuz paretaren kontra eduki zituzten une horretan egoitzan zeuden pertsonak, tarte horretan gertatzen ari zena ikus ez zezaten. Miaketak zazpi ordu iraun zuen, eta bukaeran hainbat dokumentu eraman zituzten.

Ekainak 25. Monolito bat ipini zen Olazar parkean, Ilunberriko Arroilako gertakarien urteurrenean. Kendu egin zuten.

196 Itziar Lizarralde Urretaren testimonioa txosten honetarako.

197 SÁNCHEZ, Manuel (UCOko koronela –Unidad Central Operativa–) eta SIMÓN, Manuela (Informazio Zerbitzuko). 2017. *Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA*. 1 liburukia. Bartzelona: Península, 377. or.

1992

Otsailak 13. Diputatuen Kongresuak Herritarren Segurtasuna Babesteko Legea onartu zuen.

Otsailak 16. Bi kanpin-gas bonbonaz eginiko lehergailu batek eztanda egin zuen BHAREN bulegoan.

Martxoak 29. ETAren buruzagiak atxilotu zituzten Bidarten, Joseba Arregi Erostarbe "Fiti" oñatira besteak beste. Guztira, hamabi pertsona atxilotu zituzten.

Maiatzak 15. Ertzaintzaren artezilariek etxean eginiko lehergailu bat indargabetu zuten. EITBren errepikagailu baten ondoan zegoen.

Maiatzak 27. PSOEren Gobernuaren politika ekonomikoaren kontra deitutako greba orokorrean, hiru telefono kabinari eraso zieten manifestariek.

Abenduak 12. Ertzaintzak I.B.E. gaztea atxilotu zuen Villabona eta Andoain artean, Orion bizi zen enpresari bati estortsio ekonomikoa egiten saiatzeaz akusatuta.

1993

Uztailaren 5a. ETAk Julio Iglesias Zamora industrialaria bahitu zuen. Bahitua Ikusi enpresaren jabearen iloba zen. Julio Iglesias 116 egun izan zuten bahituta.

Abuztuak 6. Frantziako Poliziak Carlos Almorza Arrieta etakidea atxilotu zuen Parisen. Espetxeratu egin zuten. 1997ko azaroaren hamabian gaizkile-talde partaide izateagatik hamar urtera konnatuta izango da.

Abuztuak 9. Estortsio ekonomikoarekin zerikusia izateaz akusatutako hainbat laguneren atxiloke-tagatik protesta egiteko, BCHren bulegoaren kristalak apurtu eta molotov koktelak jaurti zituzten Renferen geltokiko bulegoaren (barruan ez zen surik piztu) eta Diputazioko Land Rover baten (ibilgailuaren aurrealdea erre zen) aurka.

Irailak 10. Ertzaintzak Inaxio Otaño Labaka atzeman zuen, Donostiako Aste Nagusiko Salbean izandako istiluetan parte hartzeaz akusatuta. Istiluetan, 33 lagun atxilotu zituzten eta 77 zauritu izan ziren. Aske utzi zuten ordu gutxiren buruan.

Irailak 12. Ezezagunek su eman zioten Pío Baroja kalean aparkatuta zegoen ertzain baten ibilgailu partikularri. Sua aldameneko auto batera zabaldu zen (Seat Toledo bat).

Irailak 16. Arratsaldez. Bere auto azpian itsatsitako lehergailu batek Juvenal Villafañe García hil zuen, Eskolak kalean. Villafañe Guardia Zibileko tenienteorde erretiratua zen. 77 urtekoa, hiru alaba zituen eta 26 urte zeramatzan Andoainen bizitzen. Hasieran Gurutze Gorriko mediku batek artatua (geroago EH Bilduko zinegotzi izango zena), Donostiako Ospitalean hil zen. Eztrandak ez zuen beste inor zauritu, nahiz eta kalteak eragin zituen inguruko etxeetako leihoetan, harategi batean eta inguruan aparkatuta zeuden autoetan. **Gaez.** Andoaingo Udalak eginiko ezohiko bilkuran, EAJ, PSE-EE eta EuE-EA alderdiek "atentatu basatia" gaitzetsi eta elkartasuna adierazi zioten familiari.

Irailak 17. Bakearen Aldeko Koordinakundeak elkarretaratze isila antolatu zuen herriko plazan erailketa gaitzesteko. Juvenal Villafañe oso ezaguna zen ehiza eta arrantza baimenak lortzeko trasteetan ematen zuen laguntzagatik, eta pertsona asko hurbildu ziren San Martin elizan egin zen

hileta elizkizunera. Beste batzuen artean doaz Enrique Rodríguez Galindo koronela eta Segurta-sunerako idazkaria Rafael Vera. Parrokoak "aitagurea" euskaraz kantatzeko eskatu zien bertaratu-takoei, familiak espreski hala eskatuta. María Ángeles alabak adierazi zuen aita oso integratuta zegoela herrian; bere aldetik, Blancak gogoratu zuen bi urte lehenago aitari mehatxu egin ziotela telefonoz, eta "uzkur" eta "kezkatuta" utzi zuela dei horrek¹⁹⁸.

Irailak 26. Ertzaintzak Ruben Gelbenzu atxilotu zuen Xabier Galparsoro Golmaio (27 urte) eta Gurutze lantzi Igerategiren (31 urte) heriotzak salatzeke herrian antolatu zen protesta batean. Galparsoro Indautxuko Komisariako leiho batetik erori zen; lantzik bihotz hutsegite bat izan zuen Guardia Zibilaren Madrilgo egoitzan. Manifestariak autobus bat gurutzatu eta su eman zioten, eta BHaren bulegoaren kristalak hautsi zituzten. Gelbenzuk hurrengo egunean aske geldituko da, baina hortik bi urtera, 2 urte 4 hilabete eta egun bateko kondena bat jasotzen du, Donostian eginiko epaiketa batean. Kondena osorik betetzen du Valentziako Picassent espetxean.

1994

Otsailak 18. Kamioi batek Matilde Arribillaga Olasagasi Senideak-eko kidea harrapatu eta hil egin zuen, errepidea gurutzatzen ari zela Gasteizen egitekoa zen euskal presoaren eskubideen aldeko elkarretaratze batera joateko autobusa hartzeko.

Martxoak 29. Molotov koktel bat jaurti zuten Renferen geltokiaren kontra, José María Igerategi Gilisagasti (26 urte) etakidearen heriotzaren berri jakin eta gero. Eztanda egin zion motxilan zerman lehergailuak.

Apirilak 27. Luis Blázquez magistratua buru zuen Donostiako Probintzia Auzitegiak baliorik gabe utzi zituen Xabier Lekuona Barreras, Andoitz San Sebastián Aizpurua, Juan Joxe Petrikorena Leunda, Asier Oiartzabal eta Aritz Arnaiz Laskurainen aurkako epaiketan akusazioak aurkeztutako frogak. Fiskalak 46 urteko espetxe zigorra eskatzen zuen bost akusatuentzat, eta Irurtzun-Andoain autobien eraikuntzan 1988 eta 1990 artean eginiko hainbat eraso egozten zizkien: zazpi kamioi, bi garabi, lau makina hondeatzaile eta motonibelagailu bat hondatu eta erretzea, eta enpresa hornitzaile baten zaintzaile bat atxiki eta haren instalazioei su ematea (fiskalak aurkeztutako erre-kurtso baten ondoren, 1995eko uztailan Auzitegi Gorenak baliozkotzat jo zituen frogak guztiak, eta aurreko absoluzio epaia errebokatu ondoren, epaiketa berriz egitea agindu zuen -1996an egingo zen-).

Maiatzak 28. Ertzaintzak Unai Barruetaberria atxilotu zuen horma-irudi bat margotzen ari zela. Urriaren 4an, Manuel Rodríguez Rodouco ere atzeman zuten.

Ekainak 7. Frantziako Poliziak Imanol Olazabal Ezeiza atxilotu zuen Parisen. Espetxeratu egin zuten.

Irailak 16. Juvenal Villafañe García oroitu eta omentzeko ekitaldia, haren erailketaren lehenengo urteurrenean. Ekitaldira hurbildu ziren lagunek loreak ipini zituzten bonba lehertu zen tokian.

Urriak 4. Ertzaintzak Manuel Rodríguez Rodouco atxilotu zuen Donostian. Aske gelditu zen epai-learen aurretik igaro gabe.

198 "Dei anonimo bat jaso zuen: ez bazuen uzten arma lizentziak tramitatzeke lana, ondorioak pairatu beharko zituen". Blanca Villafañeren lekukotasuna. SÁNCHEZ, Manuel eta SIMÓN, Manuela (2017). *Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA*. 1. liburukia. Bartzelona: Península, 473. or.

Azaroak 13. Ertzaintzak sei lagun atxilotu zituen herrian, haiekin izandako eztabaida baten ondoren.

Azaroak 19. Guardia Zibilak Koldo Mancisidor Aldasoro "Mantxi" eta Lucas Sarasola Araneta atxilotu zituen kontrol batean, ETari laguntzeaz akusatuta. Mancisidor espetxeratu egin zuten eta torturak salatu zituen. Sarasola aske utzi zuten ordu gutxiren buruan, epailearen aurretik pasa gabe, baina torturak ere salatu zituen (elektrodoak eta poltsa). Atxiloketengatiko protestetan, eraso egin zieten hainbat banku bulegori eta kalteak eragin zizkioten ertzain baten ibilgailu partikularri. Guardia zibilak hainbat tabernetan sartzen dira norbaiten bila.

Azaroak 28. Ertzaintzak Rubén Gelbentzu González atxilotu zuen. Aske utzi zuten.

Abenduak 18. ETaren aurkako polizia operazioa hainbat herritan. Besteak beste, Guardia Zibilak Aritz Arnaiz Laskurain andoaindarra atxilotu zuen Atarrabian, eta espetxeratu egin zuten ETako kide izateaz akusatuta. Atxiloaldian torturatu zutela salatu zuen, Guardia Zibilaren Iruñeko Komandantzia eta Madrilgo Zuzendaritza Nagusia: *"itotzeko saioak, deskarga elektrikoak, eta flexioak egitera behartu eta igeltsatuta zuen beso bat bihurritu ziotela adierazi zuen"*¹⁹⁹.

Abenduak 19. Ertzaintzak atxiloketen aurkako elkarretaratze bat sakabanatu zuen, antza manifestari batzuek harriak egin ziotenean polizia auto bati. Banco Guipuzcoano eta Banco Santandereen bulegoetara eraso zieten. Ezezagunek su eman zioten Diputazioaren ibilgailu bati.

Abenduak 20. Guardia Zibilak Iker Arnaiz atxilotu zuen Andoainen, Aritzen anaia, ETari laguntzeaz akusatuta. Abenduaren 24an aske utzi zuten, kargurik gabe. Torturak salatu zituen, Donostiako Antigua auzoko Komandantzia eta Guardia Zibilaren Madrilgo Zuzendaritza Nagusia. Zehazki: *"kolpeak, itotzeko saioak, deskarga elektrikoak, eta flexioak etengabe egitera behatu zutela adierazi zuen"*²⁰⁰.

1994 amaiera. Joseba Pagazaurtundua Andoaingo Udaltzaingo buruari ofizialki jakinarazi zioten ETaren zuzendaritzak bere kontrako atentatu bat prestatzea agindu zuela.

1995

Otsaila. Ezezagunek su eman zioten Juan Fernando Narciso Perianesen autoari. Udal hauteskundeetarako PSE-EEren zerrendan zegoen. Zinegotzi izan zen aldia, mehatxu pintadak egin zizkioten hainbat aldiz.

Otsailak 25. Su eman zioten Joseba Pagazaurtunduaren autoari. Suak inguruko beste zazpi ibilgailu ere hartu zituen. Egoera horretan, haren aurkako atentatu bat saihesteko, martxoan Arabako Guardia herriko Ertzaintzara bidali zuten zerbitzu eginkizunetan.

Martxoak 21. Auzitegi Nazionalak Germán Rubenach Roig absolbitu zuen fiskalak egozten zion adostutako homizidio delitutik, Ilunberriko arrolaren kasuan. Behin-behineko askatasunean utzi zuten.

199 Human Rights Library–ren 616 kasua. University of Minnesota. "Report of the Special Rapporteur on torture and cruel, inhuman or degrading treatment or punishment, Visit by the Special Rapporteur to Pakistan, U.N. Doc. E/CN.4/1997/7/Add.2 (1996) (Nigel Rodley, Special Rapporteur)".

200 621 kasua. *Ibidem*.

Martxoak 24. “Borroka eguna” Euskal Herrian, martxoaren 20an Lasa eta Zabalaren gorpuzkinak Alacanteko gorputegi batean zeudela jakin ondoren deitua. Andoainen, tentsio uneak izan ziren manifestarien eta herriko saltoki batzuen artean.

Maiatzak 3. Ezezagunek su eman zioten Guardia Zibilarekin lotzen zuten herriko bizilagun baten autoari²⁰¹.

Ekainak 17. Behin-behineko espetxealdian zegoen Aritz Arnaiz presoak Udaletxera eraman zuten HBren zerrendan lortu zuen zinegotzi karguaz jabetzera. Ekitaldian, “faxistak” egin zieten oihu EAJ eta PSE-EEko zinegotziei. Kanpoan, elkarretaratze bat egin zen udaletxe inguruan zinegotzi presoari babesa adierazteko, eta Ertzaintzak kargatu egin zuen lagun batzuk Arnaizi agur egitera hurbiltzen saiatu zirenean. Harriak eta hainbat objektu jaurti ziren eta polizia ibilgailuen kristalak hautsi zituzten.

Uztailak 1. Protestak Rosa Zarraren (58 urte) heriotzagatik. Talde batek Ertzaintzaren ibilgailu bat harrikatu zuen. Bi ertzain zauritu zituzten.

Abuztuak 17. ETAko komando batek atentatu bat egin zuen Guardia Zibilaren Arnedoko kuartelaren (Errioxa) kontra, eta komandoko hiru kideek bost ibilgailu erabili zituzten gorabeheraz beteriko ihesaldi batean. Poliziak adierazi zuen Asier Oiartzabal zela etakideetako bat. Ibilgailu horietako batean, Andoainera heldu ziren. Arabako Otazu herrian pistolaz lapurtutako karabana bat zen, eta Andoainera gidatzera behartu zuten jabea. Komandoko kideek hainbat orduz atxiki zuten bahituta, eta ihes egitea lortu zuten.

Azaroak 23. Frantziako Jendarmeriak Fermín Sánchez Agurruza Andoaingo HBko zinegotzi ohia atxilotu zuen Roazhonen.

Azaroak 28. Guardia Zibilak berriro atxilotu zuen Rubén Gelbentzu, Antsoainen. Espetxeratu egin zuten.

Azaroak 28. Jon Salaberria eta Imanol Iparragirreraren atxiloketak salatzen jarraik eta Amnistia-aren Aldeko Batzordeak deitutako manifestazio bat amaitzean, burua estalita zuen talde batek PSE-EEren egoitzako hiru kristal blindatu hautsi zituen. Barrura sartu, egoitzaz arduratzen zen emakumea zakarki erditik kendu (barrura sar ez zitezen saiatu zen) eta hainbat kalte material eragin zituzten (beirazko mostradoreak, telebista, ontziteria eta botilak); pintadak ere egin zituzten pertsianetan.

Abenduak 30. Ezezagunek kiskali egin zuten Kale Nagusian aparkatuta zegoen ertzain baten autoa.

1996

Otsailak 6. ETAko Donostia komandoak Fernando Múgica (62 urte) hil zuen Gipuzkoako hiriburuko San Martin kalean. Ihesaldian, tiroketa bat izan zen etakideen eta Ertzaintzaren patruila baten artean. Atentatuaren egileak atxilotzeko operazioan, Ertzaintzak inguratuta eduki zuen hainbat egunez Andoain, eta kontrolak ezarri zituzten herriaren sarrera-irteeretan. Etxe eta lokal ugari miatu bazituzten ere, ez zuten atentatuaren egileen arrastorik aurkitu.

201 *Joxeba Pagaza: un grito de libertad. Andoain 15 años*, 2018, 6. or.

Otsailak 9. Guardia Zibilak herriko bi etxebizitza miatu zituen. Hutsik zeuden. Ertzaintzak kontrolak jartzen jarraitu zuen.

Otsailak 12. Xabier Lekuona, Juan Joxe Petrikorena, Andoitz San Sebastián, Aritz Arnaiz eta Asier Oiartzabalen aurkako epaiketa Gipuzkoako Auzitegian. Bigarren aldiz epaitzen zituzten, Auzitegi Gorenak fiskalak lehenengo epaiketan aurkeztutako frogen baliogabetasun deklarazioa errebokatu ondoren. Leizarango autobidea (1995eko maiatzaren 6an inauguratu zen A-15 autobidea) eraiki zuten enpresen aurkako sabotajeak egiteaz akusatuta zeuden. Asier Oiartzabal ihesean zegoen, eta Aritz Arnaiz, preso. Auzipetuen abokatuak prozesua baliogabetzea eskatu zuten berriro, bost akusatuak Guardia Zibilaren tratu txarrak eta torturak jasan zituztelako, besteak beste. Fiskal buruak eskaera horren aurka egin zuen. Kanpoan ehun gazte inguru bildu ziren, auzipetuen askatasuna eskatzeko.

Otsailak 13. Miaketak Arrasatera zabaldu ziren bitartean, manifestazio batek herriaren “*polizia setioa*” salatu zuen. Tentsioak gora egin zuen biharamunean, ETAk Francisco Tomás y Valiente Konstituzio Auzitegiko presidente ohia hil zuenean Madrilgo Unibertsitate Autonomoko bere bulegoan.

Otsailak 19. Herriko hainbat bizilagunek zitazioak jaso zituzten Hernaniko Ertzain Etxera deklaratzera joateko. Segurtasun indarren kontrolak jarraitzen zuten (2008an ETAko Donostia komandoaren aurka egin zen epaiketan, jakin zen komandoko kideak herritik banan-banan irten zirela atentatuaren ondorengo hirugarren astetik aurrera).

El País egunkariak hauxe zioen urtebete geroago: “Bizilagunek gogoan dute Ertzaintzak iaz Donostia komandoaren bila pisu ugari miatuz egin zuen operazioa, “salbuespen egoera” bat bizitzearen antzeko esperientzia bat balitz bezala”²⁰².

Martxoak 27. Burua estalita zuten pertsona batzuek herriko Batzokia harriatu zuten.

Martxoak 28. Berriro harriatu zuten Batzokia.

Apirilak 1. Ertzaintzak Juan Joxe Petrikorena Leunda atxilotu zuen, Hernani eta Donostiako beste bi lagunekin batera, ETARI laguntzeaz akusatuta. Espetxeratu egin bazuten ere, geroago absolbitu egingo zuten.

Apirilak 2. Burua estalita zuen talde batek su eman zion Donostia-Tolosa lineako autobus bati, herriko gasolindegitik hurbil, ETAko Donostia komandoari lotutako azken atxiloketengatik protestatzeko. Autobusa kiskalita gelditu zen.

Apirilak 12. Sua pizteko prestatuta zegoen lehergailu bat ipini zuten Arrate plazan aparkatutako ertzain baten autoaren azpian (Renault Clío). Kalte txikiak eragin zituen.

Apirilak 29. Ertzaintzak hiru lagun atxilotu zituen Andoainen kale borrokako ekintzetan parte hartzeaz akusatuta.

Ekainak 18. Herriko batzokiari eraso zioten.

Iraila. Pintadak herriko ertzain baten kontra.

Irailak 21. Su eman zieten Eskolak kaleko BBV eta Kutxaren bulegoetako kutxazain automatikoei.

Irailak 27. Gudari Egunean, su eman zioten EiTren errepikagailuari.

202 *El País*, 1997/06/09.

Urriak 11. Bigarren aldiz, su eman zioten Joseba Pagazaurtunduaren ibilgailuari, Huitzi Doktorearen kalean. Suak aldamenean zeuden beste bi ibilgailu ere kaltetu zituen.

Azaroak 21. Ezezagunek Kutxaren bi kutxazain erre zituzten, Eskolak kalean eta Kale Nagusian.

Azaroak 25. Goizeko 10:15ean, ETAk DYAr deitu zuen esanez lehegailu bat jarri zuela Inquitex enpresan. Ertzaintzak ingurua jendez hustu eta bonba indargabetu zuen. Lehegarri bat ipini ondoren, bonba leherrarazi zuten, inolako kalterik eragin gabe. Amosalez osatua –500 g eta 1 kg artean–, plastikozko ontzi batean ezkutatuta zegoen, fabrikaren atzealdean. Enpresak mehatxurik jaso ez zuela adierazi bazuen ere, ETAk, eraso bere gain hartzean, Enrique Quiralte Crespo enpresaburua akusatu zuen *“Euskal Herriari lapurtutako dirua itzultzeari uko egiteaz”*²⁰³.

Azaroak 30. Kutxaren kutxazainei eraso zieten Andoainen (Kale Nagusia), Erreterian eta Ibarren. Andoainen, bi telefono kabina ere erre zituzten.

1997

Urtarrilak 18. Burua estalita zuten ezezagunen eraso Renferen geltokiari. Suak eraikineko etxebizitza bat kaltetu zuen.

Urtarrilak 30. Guardia Zibilak Imanol Olazabal Ezeiza atxilotu zuen Antsoainen. Espetxeratu egin zuten.

Otsailak 1. Molotov koktelak Kutxaren eta BBVren bulegoen kontra, hurrenez hurren kale Nagusian eta Eskolak kalean kokatuak. Dei anonimo batek bere gain hartu zituen beste eraso batzuk: Banco Santanderren bulegoaren eta Kutxaren beste bi kutxazain automatikoren aurkakoak.

Otsailak 7. Ezezagunek su eman zieten hiru kutxazain automatikori.

Otsailak 9. Eugenio Ariztimuñoren autoa kiskali zuten, sua eragiteko lehegailuak botata ibilgailuaren barrura.

Otsailak 10–12. Protestak eta sabotajeak Alcala–Meco espetxean hildako José María Aranzamendi Arbulu (41 urte) presoaren heriotzagatik, HBko Mahai Nazionaleko hainbat buruzagiren atxilotetengatik eta kartzelan sartu aurretik bere buruaz beste egin zuen Eugenio Aranburu “Txo” (42 urte) HBko buruzagiaren heriotzagatik. Otsailaren 10ean, su eman zioten herriko tren apeaderoari.

Otsailak 21. Ezezagunek su eman zioten goizaldean Andoaingo Udaltzaingoaren ibilgailu bati (Opel Frontera). Kristalak hautsi eta likido sukoi bat isuri zuten barrura, su eman aurretik. Udaltxearen ate aurrean aparkatuta zegoen.

Martxoak 2. Ertzaintzak Aritz Barrado Erraste atxilotu zuen HBko Mahai Nazionaleko kideen atxilotetak salatzeke martxoaren 7rako deitua zegoen greba orokorreko kartelak jartzen ari zenean.

Martxoak 7. Burua estalita zuten hiru lagunek pintura horia eta gorria bota zuten Maxen Zinkunegi EAJko zinegotziaren liburu dendaren kontra. Eraso gehiago izan zituen; hala nola atearren sarraila silikonaz blokeatzea edo pertsianak apurtzea.

203 ETaren Zuzen aldizkaria (79), 2004ko otsaila. *Vasco Press* agentziaren “Crónica de documentación y actualidad” lanean erreproduzitua, 2004/08/30, 49. or.

Martxoak 27. Ezezagunek su eman zioten ertzain baten autoari, Joakin Larreta kalean.

Apirilak 9. Goizaldeko 0:40ak aldera, molotov koktelak jaurti zituzten BBVk Eskolak kalean zuen bulegoaren kontra. Kalte material handiak izan ziren eta bulego gaineko lau solairuak hustu behar izan zituzten.

Apirilak 25. Manifestariak hainbat telefono kabina apurtu zituzten "Alternatiba demokratikoa" izenekoaren alde deitutako Borroka Egunean.

Apirilak 26. Manifestariak molotov koktelak jaurti zituzten Kutxaren Andoaingo bulegoaren kontra.

Maiatzak 3. Ezezagunek su eman zioten telefono kabina bati.

Ekainak 7. A.K.A. adingabea hil zen I.L.M.–ren etxean ehiza kartutxoetatik ateratako bolbora manipulatzen ari zenean. Hasieran batean kale borrokarekin lotu bazuen ere, gertakizunak ez zuen politikarekin inolako loturarik izan.

Ekainak 8. *El País* egunkariaren arabera: "1997ko urtarrilaz geroztik, 20 gertakari bortitz izan dira Gipuzkoako Andoain herrian, aurreko urte osoan baino gehiago. Sabotaje ekintzek kalteak eragin dituzte banku bulegoetan, RENFEren geltokian, EAJren batzokian eta Ertzaintzaren ibilgailuetan".

Uztailak 3. Ezezagunek molotov koktelak jaurti zituzten Kutxak Eskolak kalean zuen bulegoaren fatxadaren kontra. Kutxazain automatikoa kiskali zen.

Uztailak 13. Ajuria Eneako Mahaiak ordubeteko lanuztea deitu zuen herri guztietan, ETAk Miguel Angel Blanco Ermuako PPko zinegotzia (29 urtekoa) hil zuelako bezperan, eta manifestaldiak antolatu zituen Bilbon, Donostian eta Gasteizen.

Uztailak 24. Gaueko 23:45ean gutxi gorabehera, ezezagunek su eman zioten Zuberoka kalean aparkatuta zegoen Renault 21 bati. Gasolina bidoi bat eta zuzi bat erabili zituzten. Erasotzaileek uste zuten autoa Estanis Amuchastegui PSE–EEko zinegotziarena zela, baina haren bizilagun batena zen. Bi egun geroago, huts egin zutela aitortu zuten, eta zinegotziaren etxe ondoko horma batean mezu bat idatzi zuten, ibilgailuaren matrikularekin: "harrapatuko zaitugu".

Abuztuak 6. Goizaldean, burua estalita zuen talde batek su eman zion Euskadiko Kutxak Juan Bautista Erro kalean zuen bulegoaren kutxazain automatikoari, estolda tapa batekin bulegoko kristalak apurtu ondoren. Garrak eraikinaren lehen solairuraino iritsi ziren eta gas naturalaren hornidura sistemari eragin zioten. Leherketa arriskuagatik, hamabi familia atera zituzten beren etxeetatik eta lau orduz egon ziren kalean, suhiltzaileek eta udaltzainek sua itzali arte. Suak kalteak eragin zituen banku bulegoaren altzarrietan eta sistema informatikoan, eta kalte ekonomikoak 20–25 milioi pezetakoak izan ziren.

Irailak 28. Burua estalita zuten zortzi lagunek molotov koktelak bota zituzten Kutxaren bulegoaren kontra, kristalak apurtu ondoren.

Urria. Ertzain batek mehatxu deiak jaso zituen telefonoz.

Urriak 21. Ertzaintzak Carlos García Preciado (28 urte) atxilotu zuen, abuztuaren 6an Euskadiko Kutxaren kutxazain automatikoaren erreketan parte hartzeaz akusatuta. Espetxeratu egin zuten eta torturak salatu zituen.

Azaroak 17. Molotov koktelak jaurti zituzten bi ibilgailuren aurka (Opel Midi eta Audi 4). Furgoneta EAJ alderdi politikoarena zen, eta autoa Joseba Egibar alderdi horren bozeramailearena. Bi ibilgailuak azken horren etxetik hurbil aparkatuta zeuden.

Abenduak 31. Molotov koktelak bota zituzten ertzain eta EAJko kidearen gurasoen etxearen kontra, Lasalle etorbidean. Autoa ere erre zieten.

1998

Urtarrilak 1. Molotov koktelak jaurti zituzten ertzain baten etxearen fatxadaren kontra, Joakin Larreta kalean. Kalte material txikiak eragin zituzten.

Urtarrilak 8. José Ignacio Iruretagoiena Larrañaga (35 urte) Zarauzko PPko zinegotzia erail zuen komandoa Andoaingo pisu franko batetik abiatu zen itsasertzeko herrira atentatua egitera. Amosalez eginiko lehergailu bat ipini zuten zinegotziaren ibilgailuaren azpian. Atentatua egin ondoren, Andoainen ezkutatu ziren berriro. Bonba urtarrilaren 9ko goizeko lehen orduan lehertu zen, Zarauzko Urdaneta kalean.

Urtarrilak 11. Goizalean, Mikel Arregi EAJko zinegotziaren ibilgailuari eraso zioten, Agustin Leitza kalean. Estolda tapa batekin autoaren kristalak hautsi ondoren (Peugeot 405), likido sukoa isuri eta su eman zioten. Autoa erabat kiskalita gelditu zen.

Otsailak 10. Estanis Amuchastegui Andoaingo PSE-EEko Antolakuntzako bozeramaile eta idazkariak mehatxu dei bat jaso zuen telefonoz: ahots anonimo batek esan zion autoa erretzean huts egin zutela (ikus 1997/07/24), baina berarekin ez zutela hutsik egingo.

Apirilak 28. Beste eraso bat Batzokiaren kontra.

Ekainak 6. Gauerdia igarota, ezezagunek molotov koktelak bota zituzten EAJren Batzokiaren aurka. Kalte material txikiak eragin zituzten.

Ekainak 23. Istiluak Sanjoanetan txosnetan zegoen talde baten eta Ertzaintzaren artean. Lagun bat atxilotu zuten.

Ekainak 25. Mexikoko Poliziak Pello Zelarain Oiarzabal atxilotu zuen Cancunen eta Espainiako agintarien esku utzi zuten. Pello Zelarainek adierazi zuen torturatu egin zutela Madrilgo Canillaseko Komisarian, espetxeratua izan aurretik.

Ekainak 29. Su eman zioten furgoneta bati eta garrak ondoko ibilgailura eta etxe bateko fatxada zabaldu ziren, Kaletxikin.

Abuztuak 21. Mehatxu pintadak Arrate plazan, PSE-EEren egoitzaren ondoan: *“Estanis Amuchastegui, oraingoan ez dugu hutsik egingo: SS5201AC R-21 gorria”* eta *“Estanis kontuz: SS5201AC R-21 gorria”*.

1998 amaiera. ETAk suetena iragarri zuen Lizarra-Garaziko itunaren sinaduraren ondoren. Joseba Pagazaurtunduak, bere borondatearen aurka, zerbitzu eginkizunak amaitu zituen Arabako Guardiako Ertzaintzan, eta Andoaingo Udaltzaingoaren buruzagitzara itzuli zen, 1999 urte hasieran. Berehala, mehatxuak eta irainak hasi ziren berriro, eta laneko baja hartu zuen 1999 amaiera aldera, nahiz eta herrian bizitzen jarraitu zuen. Geroago, laneko bajak eta lanaldiak txandakatuko zituen.

1999

José Luis López de Lacalle jomugan jartzen zuten mehatxu kartelak agertu ziren herriko kaleetan.

Otsailak 13. Goizaldeko 01:45ean, bi molotov koktel jaurti zituzten Bake Epaitegiaren kontra, kalterik eragin gabe haren instalazioetan.

Otsailaren 28a. Jaurlaritzako barne-arazoetarako sailburuak, Javier Balzak, berretsi egin zituen urtarrilean esandakoak: *"Hasiak gara PSE-EEko eta UAKo zinegotziak babesteko neurriak artikulatzen, ez Polizia Nazionalak ez Guardia Zibilak ez baititu hautetsi horiek babesten, soilik PPko karguak baizik, eta hau ez da kritika bat. Laster izango dute Ertzaintzaren babesa kargu guztiek"*²⁰⁴.

Martxoak 28. Aurretik hainbat aldiz iragarri zuten moduan, goizaldeko 05:00ak aldera, ezezagunek lau molotov koktel jaurti zituzten Estanis Amuchastegui PSE-EEko zinegotziaren etxearen aurka, Zuberoa kalean. Emaztearekin eta 25 eta 18 urteko bi alabekin zegoen. Hiru lehergailu etxeko balkoian lehertu ziren, eta laugarrenak fatxadaren kontra jo zuen. Familia esnatu egin zen zaratak eta keak ikaratuta, eta sua itzaltzea lortu zuten. Gainera, erasotzaileek beste bi molotov koktel jaurti zituzten etxe atariaren ondoan aparkatuta zegoen familiaren ibilgailuaren barrura (Renault 21). Kiskalita gelditu zen.

Maiatzak 11. Ertzaintza errenta ordaintzeari utzi zioten Andoaingo etxe batean sartu eta armak eta dokumentuak aurkitu zituen.

Ekainak 12. Udal hauteskunde bezperan, José Luis Vela Arburua PSE-EEko zerrendako hautagaiaren ibilgailuaren lau gurpilak zulatu zituzten. Egun berean, mozorroz eta buzo zuriz jantzitako pertsona talde batek elkarretaratzea egin zuen pankarta baten atzean José Luis Velaren etxe atariaren aurrean.

Irailak 28. Minbiziak jota hil zen Esteban Esteban Nieto preso ohi tolosarraren heriotzaren albiste zabaldu zenean, kartelak eta pintadak agertu ziren herrian heriotzaren erantzukizuna leporatuz PSE-EE eta PPko zinegotziei. PSE-EEK salaketa jarri zuen Andoaingo Epaitegian, mehatxuengatik:

Hiltzaileak! Esteban hil duzue!: Juan Carlos Cano. Vanesa Vélez. María Nieves Zumeta. Francisco Luis Vía. Juan Luis (José Luis) López de Lacalle (Ermuko Foroko kidea). José Antonio Pérez Gabarain. Gemma Zabaleta. Estanislao Amuchastegui. José Luis Vela.

Irailak 29. PSE-EEK bere zinegotzien aurkako mehatxuak salatu zituen Andoaingo Epaitegian.

Abenduak 31. Pintada gehiago PSE-EE eta PPko udal ordezkarien aurka.

2000

Urtarrilak 4. 21:00ak aldera, burua estalita zuten hiru lagunek sua pizteko prestatuta zeuden lehergailuak jaurti zituzten María Ángeles González PSE-EEko zinegotziaren etxearen aurka, Arrate plazan. Lehenengo lehergailuak etxeko gela bateko kristalak hautsi eta sua piztu zenean, zinegotziaren ama balkoira atera eta oihuka hasi zen erasotzaileen aurka, bigarren lehergailu bat jaurtitzeko prest zeudenean. Ihes egin zuten. Zinegotzia ez zegoen une horretan etxean, eta sukaldean afaltzen ari ziren gurasoek eta ahizpak sua itzaltzea lortu zuten, mantak erabilita eta bizilagunen laguntzaz.

204 *El Diario Vascon* jasotako elkarrizketa, 1999/02/28.

Urtarrilak 22. 18:00ak aldera, berrogeita hamar bat lagunek jaietako petardoak eta harriak jaurti zituzten Estanis Amuchasteguiaren eta haren familiaren etxearen fatxadaren eta leiho baten kontra (Zuberoa kaleko solairuarte batean). Era guztietako irainak ere bota zizkioten PSE-EEko zinegotziari: hala nola *“Hiltzailea, kartzeleroa, PP eta PSOE kartzeleroak”*.

Urtarrilak 27. Espetxeetako egoera salatzeako deituriko greban, kalteak Renferen katenaria batean.

Otsailak 21. Parisko Auzitegi Korrekzionalak auzi ihesean epaitu zuen Asier Oiartzabal eta bost urteko espetxe zigorra ezarri zion, helburu terroristak dituen gaizkile taldeko kide izateagatik.

Otsailak 28. Lau molotov koktel bota zituzten José Luis López de Lacalleren etxearen kontra eta heriotza mehatxuak zituzten pintadak agertu ziren. Familia ez zegoen etxean. Pertsianak jaitsita zeudenez, molotov koktel batek pertsiana baten kontra jo eta lehenengo solairuko balkoi batera erori zen. Balkoian butano bonbona bat zegoen, baina ez zen lehertu.

Frankistek bost urtez eduki ninduten preso, baina sekula ez ziren ausartu nire familiari erasotzera²⁰⁵.

Apirila. Estanis Amuchasteguiaren eta haren familiaren kontrako eraso bortitzak behin eta berriz errepikatzen zirenez, agintariak bizkartzaina ipini zioten zinegotzi sozialistari.

Apirilak 27. Ertzaintzak Iñaki Miner Canflanca atxilotu zuen. Torturak salatu zituen. Espetxeratu egin zuten.

Maiatzak 2. Hainbat edukiontzi erre zituzten.

Maiatzak 7. Goizez. ETak José Luis López de Lacalle erail zuen, Ondarreta kalean, bere etxetik hurbil, Elizondo tabernan kafe bat hartu ondoren. 62 urtekoa, seme bat eta alaba bat zituen. Ermuko Foroko kidea, *El Mundo* egunkariko zutabegilea zen (aurretik *El Diario Vasco* egunkarian aritu zen). Lau tirok garondoan, lokian, bularrean eta sabelean jo zuten, eta heriotza eragin zioten. Tolosako Ugarola kooperatibako finantza zuzendari izan zen, 1998an erretiroa hartu zuen arte. Antza, inork ez zuen atentatua ikusi. Gurutze Gorriko kideek 10:15ean hil zela ziurtatu zuten. Mairidire batez estali zuten gorpua, lurrian zabalik gelditu zen haren aterkiaren eta une batzuk lehenago Stop liburu dendan erosi zituen zortzi egunkariak zeuden poltsa baten ondoan. Hurbildu ziren pertsonen artetik ETaren kontrako lehen oihuak entzun ziren.

Halabeharrez, Maiatzaren 5 ean, bizitza nolakoa den, elkarrekin basoerdi batzuk hartu eta ostiraleko 21:30 tan elkar agurtu genuen eta esan zizkidan azken hitzak: ‘Vela zaindu zeure burua, zuri niri baina lehenago emango dizute eta, azken finean jubilatuta berri naiz eta ordutegiak aldatzen ditut, baina zu, egunero garaje horretatik ateratzen ikusten zaitudanez, niri baino lehen emango dizute, beraz zaindu zeure burua’. José Luis etxe txikietan bizi zen eta ni dorrean. 48 ordu pasa baina lehen akabatu zuten. Hamabost egun lehenago saikera bat egin zuten, leku berean itxaron zioten, baina Gotzon Etxeberria eskultorearekin elkartu eta ohi baina beranduago iritsi zen bere etxera. Zain zeudenak alde egin zuten. Ertzaintzatik esan zidaten: ‘berarekin harrapatu bazintuzte, zeuri ere emango zizuten, izan seguru²⁰⁶. José Luis Vela Arburua

205 José Luis López de Lacalleren adierazpenak *El Diario Vasco* egunkariari (2000/03/08).

206 José Luis Vela Arburuaren testigantza txosten honetarako.

Maiatzak 7. Arratsalde. Udalaren ezohiko bilkuran, hilketa salatzen zuen *“gaitzespen mozio irmoena”* onartu zen PSE–EE, EAJ–EA eta PP alderdien botoekin. Onartutako mozioak zioenez, *“bere ideiak hitzez defendatu dituen gizon bat zen, eta horregatik erail dute”,* eta *“hilketa basati honek guztiz apurtzen ditu bizikidetzeta eta elkarrekiko errespetua”*²⁰⁷. Euskal Herritarrok (EH) abstenitu eta Joxean Barandiaran alkateak irakurri zuen mozio alternatibo bat aurkeztu zuen, gainerako alderdi guztiek atzera bota zutena. Testu horretan, EHk bere *“nahigabea”* adierazten zuen *“López de Lacalleren heriotzagatik”,* eta bat egiten zuen *“familiaren eta lagunen minarekin”*. Bukatzeko, honako hau eranstean zuen: *“gaur egun dirauen enfrentamendu eskema gaindituz soilik lortuko dugu bakea eta demokrazia eszenategi batera heltzera”*²⁰⁸.

Amorru oihuak entzun ziren eta hitzezko enfrentamenduak izan ziren. Pertsona batzuek *“hiltzailak”* deitu zieten ezker abertzaleko zinegotzi eta jarraitzaileei, eta hauek presoan eta Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko kontsignekin erantzun zuten. Bilkura hainbat aldiz eten zen. Bul-tzadak eta tirabirak izan ziren, eta Ertzaintzak esku hartu behar izan zuen, alkateak giroa baretzea lortu zuen arte. Hiru egunez ikurrina haga erdian jartzea onartu zen.

Maiatzak 7. 18:00ak aldera. Bilkura amaitzean, elkarretaratze isil bat egin zen biktimaren etxearen aurrean. Juan José Ibarretxe lehendakaria izan zen bertan –biharamunean erakundearen aurrean 15 minutuko lanuztea egiteko deia egin zuen–, alderdi guztietako buruzagiekin batera (EHkoak izan ezik). Manifestazioak egin ziren beste herri batzuetan, deialdietan zatiketa izan bazen ere. Ermuko Foroaren jarraitzaileek, Donostiako Artzain Onaren katedral aurrean bilduta, lehendakariaren dimisioa eskatu eta *“Arzalluz faxista, Otegi terrorista”* garrasi egin zuten.

Maiatzak 8. Atentatuaren biharamunean, pintadak agertu ziren José Luis López de Lacalleren aurka haren etxearen fatxadetan. Senideek eta lagunek ezabatu zituzten. Ikurrina haga erdira jaitzita egon zen Udaletxean, eta alderdi politikoak zatituta elkarretaratu ziren erakundearen aurrean. EAJren Donostiako egoitzaren aurrean, pertsona talde batek Juan José Ibarretxeren dimisioa eskatu zuen. Bakearen Aldeko Koordinakundeak eta Denon Artean–ek elkarretaratze isilak antolatu zituzten.

Maiatzak 8. Juan María Uriarte gotzainak zuzendu zuen José Luis López de Lacalleren hileta elizkizuna, San Martin elizan, ordezkaritza politiko zabala bildu zuena: lehendakaria, haren gobernu osoa, Senatuko lehendakaria eta hainbat ministro. Komunista beterranoek ukabila altxatu zuten hilkutxa haien aurretik igaro zenean, eta *“Internazionala”* kantatu eta *“Askatasuna”* garrasi egin zuten. Milaka pertsonak parte hartu zuten elizkizuna amaitzean *“Askatasunaren alde”* pankartaren atzetik egin zen manifestazioan. Manifestazioan bota ziren paskinetan, honako hau irakur zitekeen: *“ETAk tiro egiten du Arzalluzek iraindu eta Egibar eta Anasagastik jomugan jartzen dituzten aurka”*. Joxean Barandiaran EHko alkateak gutun bat bidali zion familiari (argitaratu egin zen). Ez zen joan hileta elizkizunera, *“nire nahia hori bazen ere”,* keinu hori *“gaizki interpretatua”* izango zelakoan. Beste alderdiek alkatearen jarrera kritikatu zuten, EHk Goiko Plazan *“Bakea eraikiz. Euskal Herriak du hitza eta erabakia”* leloa zeraman pankarta atzean egin zuen elkarretaratzean izan zelako. Liskarrik egon ez bazen ere, tentsio handiko uneak izan ziren.

207 *El País*, 2000/05/08.

208 *Ibidem*.

Maiatzak 9. Hilketaren kondentatzeko mezuan, José Luis López de Lacalleren familiak bereziki aipatu zituen *“erailtzaileei lagundu dieten andoaindar koldarrak, zeinak, erailketa basati hau nahikoa izango ez balitz bezala, gure samina errespetatu gabe, beste behin publikoki iraindu baitute pintaden bidez gure José Luis”*. Halaber, *“isiltzen direnak eta salatzen ez dutenak”* ere aipatu zituen. Ermuko Foroak bere fundatzaileetako baten erailketagatik Bilbon deitutako manifestazio isilean, *“Contra el fascismo, por la libertad”* leloa zeraman pankarta eraman zuten, foroko kideez gainera, Pedro J. Ramírezek, Luis Herrerok eta Carlos Dávilak. Manifestazioan erakutsi ziren karteak Juan José Ibarretxeren dimisioa eskatu zuten. Ez zen Eusko Jaurlaritzako ordezkari izan.

Maiatzak 10. Bost minutuko lanuztea Espainiako unibertsitateetan, Errektoreen Konferentziak (CRUE) deituta, hilketaren salatzearen elkarretaratze isilen bitartez.

Maiatzak 12. Espainiako egunkari nagusietako zuzendariak idatzi bat argitaratu zuten, *“No nos callarán”* izenekoa, José Luis López de Lacallen hilketaren eta ETA bera kondentatuz.

Maiatzak 20. Ertzaintzak Xabier Miguel Galparsoro atxilotu zuen Donostian. Aske gelditu zen.

Maiatzak 28. Omenaldia José Luis López de Lacalleri hilerrian. Senideak eta lagunak bildu ziren.

Uztailak 1. Su eman zioten militar baten auto partikularrari. Kiskalita gelditu zen.

Abuztuak 24. ETak hutsegitez lehegailu bat ipini zuen Lazkaoko Pingon Sociedad Cooperativa enpresan, jomuga Andrés Tellería Zumarraga eta Andoaingo Tyldo SA zituenean, *“iraultza zerga”* ez ordaintzeagatik²⁰⁹.

Irailak 3. Goizaldean, ezezagunek likido sukoia bota eta su eman zioten Estanis Amuchastegui PSE-EEko zinegotziaren alaba baten (Aitziber) autoari. Auto berri-berri bat zen (Citroën Saxo), eta Zuberoka kalean aparkatuta zegoen. Ertzaintza berehala agertu zenez garrak auto barrura sartu ez baziren ere, karrozeriak kalte handiak izan zituen. Alabak Andoaindik kanpo bizitzera joateko erabakia hartu zuen.

Irailak 23. José Luis Vela Arburua behartu zuten *“bai ala bai”*²¹⁰ bizkartzainekin ibiltzera. Ez zioten beste aukerarik eman, kontuan izanik aurrekariak eta segurtasun indarrek eskura zituzten datuak. Barne Ministerioak Guardia Zibilaren esku utzi zuen zeregin hori. 13 urtez egon zen bizkartzainekin.

Urriak 13. Frantziako polizia Asier Mendizabal Arizmendi eta Arkaitz Lasa Esnaola atzeman zituen Miarritzen. Aske utzi zituzten.

Urriak 18. Bertan behera gelditu zen berriro 1997an Euskadiko Kutzaren kutxazaina erretzeagatik egitekoa zen epaiketa, lekuko babestua agertu ez zelako (ziurtagiri mediko bat bidali zuen auzitegira gastroenteritis akutuagatik bajan zegoela adieraziz). Epaietan ez agertzeko arrazoiak ezagutu ondoren, fiskalak isuna eskatu zuen lekukoarentzat, eta ahalik eta lasterren berriro deitzeko erabakia hartu zuen. Gainera, ohartarazi zitzaion atxilotua izan zitekeela agintariei laguntza ukatzeagatik²¹¹.

209 ETaren Zutabe aldizkaria (79), *Vasco Press* agentziaren kronikan. Op. Cit. 49. or.

210 José Luis Velaren testimonia txosten honetarako.

211 *El País*, 2000/11/07.

Azaroak 6. Lekuko babestua ez agertzeagatik, Auzitegi Nazionalak bertan behera utzi zuen 1997/08/06an Euskadiko Kutxaren kutxazaina erretzeagatik egitekoa zen epaiketa. Lekukoak adierazi zuen beldurtuta zegoela jaso zituen mehatxuengatik.

Azaroak 12. Su eman zioten BSChren Kale Nagusiko bulegoaren kutxazainari, goizeko 03:00ak aldera.

Azaroak 28. Frantziako autoritateak Carlos Almorza Arrieta, ETAko militantea, Espainiako Polizien eskutan uzten dute.

Abenduak 4. Hainbat aukeratan bertan behera gelditu ondoren 1997an Euskadiko Kutxaren kutxazaina erretzeagatik egitekoa zen epaiketa, azkenean, lekukoak –akusatuak edo publikoak identifika zezan saihesteko erabili ohi ziren neurriek babestua– ukatu egin zuen akusatua ezagutu zuenik Poliziak erakutsi zizkion argazkietan eta baita mehatxatua izan zenik ere.

Abenduak 8. PPK eta PSOEk Askatasunen aldeko eta Terrorismoaren kontrako Akordioa sinatu zuten; “Alderdien Legea” edo “Terrorismoaren aurkako Itun” berria izenez ere ezaguna.

Abenduak 13. Europako Parlamentuak Giza Eskubideen Sajarov Saria eman zion ¡Basta Ya! ekimenari. Fernando Savaterrek jaso zuen saria Europako Parlamentuan egin zen osoko bilkuran. Taldeko beste kide batzuekin batera bidaiatu zuen Estrasburgora; besteak beste, Joseba Pagazaurtundurekin.

Abenduak 23. Sua eragiteko prestatutako lehergailu bat jarri zuten ertzain baten autoaren azpian. Kalte materialak eragin zituen.

Abenduak 26. Auzitegi Nazionalak 16 urteko espetxe zigorra ezarri zion Carlos García Preciadori, eta bilatzeko eta atxilotzeko nazioarteko agindua eman zuen, gazteak etxetik ihes egin zuelako epaiketa hasi baino egun batzuk lehenago.

Abenduak 30. Sua eragiteko prestatutako lehergailuak jaurti zituzten 1997an erre zuten Euskadiko Kutxaren kutxazainaren auziko lekuko babestuaren autoaren aurka. Lekuko horren lehenengo deklarazioa erabili zen Carlos García Preciado atxilotzeko eta Auzitegi Nazionalak 16 urteko espetxe zigorrera kondenatzeko. *El País*–en arabera: “Lekukoak eskatu zuen epailearen aurrera agertu behar ez izatea, beldurragatik, hainbat aldiz mehatxatu zutelako. Lekukoa agertu ez zenez, bertan behera gelditu zen epaiketa bi aldiz, eta azkenean agertu behar izan zuen. Deklarazioan atzera egin bazuen ere, epaileak ez zion baliorik eman azken lekukotasun horri, eta García Preciado kondenatu zuen. Auzipetuak ihes egin zuen kartzelan ez sartzeko”²¹².

Abenduak 31. Mehatxu kartelak eta paskinak lekuko babestu eta bezperan erretako autoaren jabearen aurka, “gezurti”–tzat jotzen zuten. Emakumeak herritik alde egin zuen bere garaian pairatu zuen jazarpenagatik, eta hilabete gutxi batzuk lehenago itzuli zen.

2001

Otsailak 23. Erasoaren Renferen geltokiaren kontra.

Otsailak 26. Ertzaintzak Koldo Otamendi Gutiérrez eta Peio Gallo Pérez atxilotu zituen. Aske gelditu ziren epailearen aurretik igaro gabe.

212 *El País*, 2002/11/02.

Otsailak 27. José Ignacio Guridi Lasa espetxeratu zuten Teresa Palacios Auzitegi Nazionaleko epailearen aginduz. Besteak beste, José Luis López de Lacalleren hilketari egotzi zioten.

Martxoak 6 eta 9. Haikaren kontrako polizia operazio batean, 15 gazte atxilotu eta hainbat egoitza eta lokal miatu zituzten. Protesta eguna deitu zuten martxoaren 9rako, eta 30 bat lagun atxilotu zituzten. Egun berean, ETAk Iñaki Totorica Vega ertzaina erail zuen bonba autoz Hernaniko Zinko Enean. Beste ertzain batek zauri larriak izan zituen. Totoricak 26 urte zituen eta EAJko eta UGTko kide zen.

Martxoak 11. Goizaldeko 03:30ean, lau molotov koktel bota zituzten Joseba Pagazaurtundua Andoaingo Udaltzaingoko sarjentu buruaren etxearen balkoiaren kontra, Mimendi kalean. Hiru lehegailu terrazara erori ziren, baina ez ziren lehertu. Dena dela, likido sukoiak kalteak eragin zituen berogailu batean, garbigailuan eta beste objektu batzuetan, baita bizilagun baten atean eta etxe atarian ere. Etxea hutsik zegoen une horretan. Erasoa bere gain hartu zutenek *“txakurren salatari”* eta *“errepresore”* izateaz akusatu zuten²¹³.

Martxoak 17. Burua estalita zuen talde batek BSCHren bulegoaren kristalak apurtu eta molotov koktelak jaurti zituen barrura.

Apirilak 26. Mehatxu kartelak herriko PSE-EEko eta PPko hainbat zinegotziren aurka.

Apirilak 28. Erasoa EAJren egoitzaren aurka.

Abuztuak 11. Gasolina isuri ondoren, su eman zioten Juan Fernando Narciso Perianes PSE-EEko zinegotziaren bizkartzain lanetan aritzen zen segurtasun zaindari pribatuak (Prosegur) erabiltzen zuen alokairuko ibilgailuari. Autoa guztiz kiskalita gelditu zen, eta garrek kalte handiak eragin zituzten aldamenen aparkatuta zeuden beste bi ibilgailutan. Hilabete baino gutxiago igaro zen bizkartzaina autoa erabiltzen hasi zenetik.

Abuztuak 22. Ertzaintzak ETAren Zartako/Buruntza komandoari atzemandako dokumentazioan, PSE-EEko kideen zerrenda bat aurkitu zuten; besteak beste, Estanis Amuchastegui eta José Luis Velari buruzko datuak ageri ziren: familia datuak, ohiturak eta helbideak.

Irailak 11. Goizaldeko 05:00ak aldera, lehegailuak bota zituzten Joseba Pagazaurtundua Udaltzaingoko buruaren auto partikularraren aurka (Peugeot 309). Kiskalita gelditu zen. Garrak Huitzi Doktorearen kalean baterian aparkatuta zeuden beste zazpi ibilgailutara zabaldu ziren: hiru guztiz kiskalita gelditu ziren (Audi A-4, Citroen Saxo eta Renault 21) eta gainerakoek hainbat kalte izan zituzten (Ford Fiesta batek kalte handiak izan zituen aurrealdean; Nissan Serena, Ford Escort eta Nissan Almera).



Aiurri.

Irailak 14. Atentatutik hiru egunetara, Joseba Pagazaurtundua lehen eskutitz bat idatzi zion Javier Balza Eusko Jaurlaritzako Barne sailburuari. Pairatutako mehatxuak eta erasoak zerrendatu ondoren, honela jarraitzen zuen gutunak: *“Litekeena da gutun honetan azaldutakoa zuretzat inolako garrantzirik ez izatea. Beharbada pentsatuko*

213 Joseba Pagazaurtunduaren lehen gutuna Javier Balzari (2001/09/14). Familiak eman zuen idatziaren berri.

duzu arrazoi sendoak dituzula gertatzen zaidanari jaramonik ez egiteko. Aldiz, euskal herritar honek uste du zure gobernuaren Barne Sailak kezkatu eta arduratu egin beharko lukeela haren egoeragatik”.

Javier Balzari igorri behar zuenetako bigarren gutun batean –datarik gabekoa–, ageriagoa da desesperazioa: *“Joseba Pagazaurtundua Ruiz naiz, Ertzaintzako 00201 agente ohia. Gero eta hurbilago ikusten dut ETAK hilko nauen eguna. Badakit ‘Buruntza’ komandoaren paperetan agertu naizela, eta EZ ZAIT HORREN BERRI EMAN. Badut ere komando beraren hurbileko senide bati buruzko beste datu batzuen berri, eta horiek ere ez dira jakinarazi. Bost axola niri zuk eta zure morroiek, ETari niri buruzko informazioa pasatzearekin mehatxatu eta iraindu ninduzuenok, kasu egiten didazuen ala ez. (...) Nire historialari begiratzea iradokitzen dizut (...), ez dut inor engainatu nire ideiei buruz, zure alderdiko traidore eta lausengari askok ez bezala”²¹⁴ (ikus 2003/02/28).*

Irailak 23. Frantziako Brigada Antiterroristak, Guardia Zibilaren laguntzaz, bost etakide atxilotu zituen Dax eta Saint Étienne hirietan, Saboia eskualdean; horien artean, Asier Oiartzabal Txapartegi andoaindarra, Poliziak logistika aparatuen buru jotzen zutena. Plevin (Bretainia) eta Grenobleko bolbora biltegietatik dinamita lapurtzeaz ere akusatu zituzten.

Irailak 26. Nafarroako Gobernuak faktura bidali zion Iruñeko klinika batean ospitaleratuta egon zen ETako kide andoaindar bati.

Irailak 27. Sabotaje ekintza Andoain eta Villabona arteko trenbidearen kontra. Kontrapisuak moztu zituzten.

Azaroak 1. Atentatu saioa José Luis Vela Arburua PSE–EEko zinegotziaren etxearen aurka, Ondarreta kalean, goizaldeko 02:00etan. Hutsegitez, solairu batzuk gorago bizi ziren eta antzeko abizena zuten senar–emazte erretiratu batzuen ate aurrean ipini zuten etxean egindako lehergailua. Bi bonbonak, likido sukoiak eta hasle pirotekniko batek osatutako lehergailuaren eztandak piztu zuen sua adineko senar–emazteen etxe barrura zabaldu zen ate azpitik. Emakumeak bigarren mailako erredurak izan zituen hanketan; senarrak, lehen mailakoak, besoetan. Gainera, gizona, garren indarra ikusirik, leihotik salto egiteko zorian egon zen, hamargarren solairu batetik. Senar–emazteak Hernaniko anbulatoriora eraman zituzten, nerbio krisi batek jota, sua itzaltzen lagundu zien eta kea arnasteagatik intoxikatu ere egin zen bizilagunarekin batera (Donostiako Arantzazu Ospitalera eraman zuten). Azken horren semeak ebaki bat egin zuen eskuan, su–itzalgailua kaxatik ateratzean. Hamaika solairuko eraikina hustu behar izan zuten eta bizilagunak kalean egon ziren ordu erdiz zain, dena etxean utzita eta manta batzuk soinean, arrisku egoera igaro arte. Etxeko sabaia, atea eta eskailburua kaltetuta eta belztuta gelditu ziren.

Azaroak 1. Gaeuz, Bazkardoko Citroën kontzesionarioa eraso zuten. Ahots anonimo batek bere gain hartu zituen eraso hau eta José Luis Vela zinegotziaren aurkako atentatu saioa.

Azaroak 6. Udaleko bozeramaileen batzordeak, PSE–EE, EAJ–EA eta PPren botoekin eta Batasunaren abstentzioarekin, elkartasuna adierazi zien Ondarreta kaleko 7. atariko bizilagunei, Citroën kontzesionarioko jabeari eta José Luis Vela Arburua PSE–EEko zinegotziari.

Azaroak 12. José Ricardo Callao Arregi andoaindar errefuxiatua atxilotu zuten Montevideon (Uruguai). Aske utzi zuten ordu gutxiren buruan. Callao kondenatu egin zuen Frantziako auzitegi ba-

214 Joseba Pagazaurtunduaren arrebaren, alargunaren eta amaren prentsaurrekoa. *El Mundo*, 2003/02/28.

tek 1985/03/11n, hilabeteko espetxe zigorrera Baionako kartzelan, legez kontrako egonaldia-
tik. Espainian ez zuen auzirik zabalik.

Azaroak 14. Mehatxu paskinak herriko kaleetan. Argazki batean, José Luis Vela PSE-EE zinegotzia eta Miguel Buen alderdi horretako Gipuzkoako idazkariordea ikus zitezkeen, bi-biek bekokian diana bat zutela (argazkia erasoaren biharamunean Ondarreta plazan eman zuten prentsurre-koan eginikoa zen). “Opresore”-tzat jotzen zuten zinegotzia eta honako hau galdetzen zioten: “Nola utziko dizugu lasai bizitzen herri honen hitza errespetatzen ez baduzu?”. Paskina abisu batekin amaitzen zen: “Euskal Herritik kanpo ikusi nahi zaitugu. Alde hemendik!”²¹⁵.

Azaroak 20. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Andoaingo mehatxu paskinak gaitzetsi zituzten.



© Bakearen Aldeko Koordinakundearen elkarretaratzea.

Abenduak 15. Bakearen Aldeko Koordinakundearen jarraitzaileek elkarretaratze bat egin zuten plazan jazarpen indarkeriaren kontra, honako lelo hau zeraman pankartaren atzean: “No a la violencia de persecución. Elkarrekin askatasunaren alde”.

2002

Urtarrilak 21. Herriko epaitegia hustu zuten –baita Gipuzkoako gainerako epaitegiak ere– mehatxu faltsu bat jaso ondoren.

Otsailak 21. Asier Oiartzabalen kontrako epaiketa helburu terroristak dituen gaizkile taldeko kide izateagatik, Parisko Auzitegi Korrekzionalean. Bost urteko espetxe zigorra ezarri zion auzi ihesean.

Martxoak 2. Renferen apeaderoaren kontrako eraso saioa likido sukoia erabiliz.

Martxoak 4. Mehatxu kartelak herriko hainbat tokitan PSE-EEko eta PPko zazpi udal ordezkariaren kontra, izen-abizenekin: “Hilda zaudete”.

Martxoak 4. 29 urteko bizkartzain pribatu batek –Barne Ministerioak kontratatua Gipuzkoan ziharduen epaile bat babesteko– bere buruaz beste egin zuen bere arma erabiliz Andoaingo Nafarroa plazako bere etxean. Berehala hil zen. Irunen jaioa, J.A.G.R. guardia zibila izan zen, Ombuds enpresarentzat lanean ari zen eta lau hilabeteko seme baten aita zen. Espainiako Biskartzainen Elkarteak (ASES) adierazi zuenez, “Euskadin lanean ari diren kolektibo honetako kide asko muturreko egoera batean daude, jasaten duten presioagatik eta lan baldintza txarrengatik”²¹⁶.

215 *El País*, 2001/11/15.

216 *ABC*, 2002/03/06.

Martxoak 21. Urnietan, pistolaz mehatxatu zuten Peugeot 306 gris metalizatu bateko gidaria eta Andoain inguruko mendi batera eraman zuten. Zuhaitz batera lotu zuten. Autoa ETAk Orion egitako atentatu batean erabili zen: hain zuzen, Juan Priede Pérez (69 urte) PSE–EEko zinegotziaren hilketan.

Martxoak 25. Guardia Zibilak ETako Bakartxo komandoari atzemandako dokumentazioaren artean, Estanis Amuchastegui buruzko informazioa zuen fitxa mekanografiatu bat aurkitu zuten: datu pertsonalak, senideen filiazioa, bere gain zuen kargu politikoa, zinegotziaren argazkia zuen egunkari ebakin bat, eta haren ohiturei eta hartzen zituen segurtasun neurriei buruzko informazioa. José Luis Vela Arburuari buruzko datuak ere agertzen ziren.

Apirilak 18. PSE–EE, EAJ eta PPren aldeko botoekin eta HB eta EAren aurkakoekin, Udalak onartu zuen *“hilerri zaharreko parkeari ‘José Luis López de Lacalle Parkea’ deitzea, askatasunaren aldeko biktima guztien oroimenez eta haien ordezkari modura, eta parke horren sarreran monolito bat jartzea, José Luis López de Lacalleri eskainia, A. Leitza eta Rikardo Arregi kaleen bidegurutzetik ikusiko dena, askatasunaren aldeko biktima guztien oroimenez eta haien ordezkari modura”*.

Apirilak 20. Goizaldeko 03:30ean, sua eragiteko prestatutako lau lehergailu bota zituzten ertzain baten etxearen fatxadaren aurka. Etxean, ertzaina, emaztea eta 12 urteko semea zeuden. Bi lehergailuk adingabea lo zegoen gelako leiho ondoan jo zuten.

Apirilak 25. Goizaldeko 05:00ak aldera, ezezagunek su eman zioten Ondarreta kalean aparkatuta zegoen José Luis Vela Arburua PSE–EEko zinegotziaren emaztearen Opel Corsa autoari. Etxean egitako lehergailua likido sukoiz betetako bidoi batez eta suziri piroteknikoz osatuta zegoen.

Autoa kiskalita gelditu zen eta garrak aldameneko ibilgailuetara zabaldu ziren (Nissan Serena batera, besteak beste). Dena dela, ez zen kalte pertsonalik izan eta sua ez zen inguruko etxetara zabaldu. Aldameneko horman agertu zen gutun–azalaren barruan, *“Gora ETA. Boom! Dena emango dugu zu hiltzeko”* irakur zitekeen, eta PSE–EEko zinegotziaren etxe atariko giltzaren kopia bat ere bazuen, zinta itsaskorrez itsatsita.



José Luis Velak utzitako argazkia.

Maiatzak 6. José Luis López de Lacalleri eskainitako monolitoa eta parkea inauguratu ziren, erailketaren bigarren urteurrenean. Maiatzaren 11n, haren izena duen Fundazioak bere II. Saria eman zion Joseba Arregiri.

Ekainak 26. José Luis Vela Arburua PSE–EEko zinegotziak gutun–azal bat aurkitu zuen bere etxe sarrerako alfonbran, atariko giltzaren beste kopia batekin eta honako mezu honekin:

Vela jaun maitagarria:

Hemen gaituzu berriro zure etxe atarian, baina jakizu etorriko garen hurrengo aldia ez dela izango zuri fardeltxo bat uzteko, zuri burua lehertzeko baizik, ondo merezia duzun bezala.

Zergatik? –Ez dituzu errespetatzen ez Euskal Herriaren hitza ez eskubideak. (...) Zure helburua da gure herria zapaltzea (...) honen guztiaren erantzukizuna duzu. (...) Soilik errepresioaren aldeko apustua egiten duzu.

Har ezazu kontuan honako hau: Euskal Herritik (edo bizitza honetatik) alde egitea aholkatzen dizugu, nazka–nazka eginda gaudelako gure herrian inpunitate osoz agintzen saiatzen diren zu bezalako atzerritarrekin.

(...) Guk arriskuan jartzen dugu gure bizitza gure herriak bizirik iraun dezan; zuk, aldiz, zurea ez den herri bat zapaltzeko soil–soilik.

Zuk jakingo duzu inork baino hobeto zer erantzun. Pentsa ezazu ondo, baina ez berandutu gehiegi, gelditzen zaizkizun egunak atzerako kontaketa bat direlako. Zaindu zaitez.

Gogoan izan ere honako hau: Gorde ezazu zure atariko giltza, baina ez lasaitu gehiegi, beste 47 kopia ditugulako eta 47 lagun prest daudelako dena emateko zu akabatzeko.

Zorte on–ona opa dizugu bizitzan.

Mezu horren berri izan ondoren, Javier Balza Barne sailburuak José Luis Velari jakinarazi zion ETak hil egin nahi zuela eta bere etxetik alde egin behar zuela. Velak hiru urte eman zituen familiarekin Andoaindik kanpo bizitzen eta bost bizkartzain izatera heldu zen²¹⁷.

Uztailak 3. Baltasar Garzon epaileak Batasunari egotzi zion hainbat greba–deialditan eta borroka–jardunalditan kale borrokako berrogeita hamar bat ekintzaren ondorioz sortutako kalteen erantzukizun zibil solidarioa, eta 24 milioi euro exijitu zizkion. Alderdiak ez zuenez zenbateko horren abalik aurkeztu, 109 banku–konturen saldoak blokeatzeko agindu zuen epaileak, eta 75 herriko taberna eta elkarteren lokalak enbargatzeko. Horien artean, Andoaingo egoitzaren blokeoa eta bahitura.

Uztailak 13. Pintura gorria eta horia bota zioten José Luis López de Lacalleren monolitoari. Eguerdian, PSE–EEko bost zinegotziek elkarretaratze bat egin zuten monolitoaren ondoan, erasoa salatzeko.

Uztailak 25. Bi lehergailuk eztanda egin zuten ordu erdiko aldearekin: lehenengoak, Antonia Landa Ayerbe PSE–EEko zinegotziaren etxean; bigarrenak, PSE–EEren Herriko Etxean.

Abuztuak 12. Su eman zioten Andoaingo PSE–EEko zinegotzi baten bizkartzainaren autoari.

Abuztuak 26. Auto judizial batek Batasunaren jarduera guztiak bertan behera uzteko agindua eman eta egoitzak, lokalak eta web orriak itxi zituen, oinarri hartuta Alderdien Legea edo ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoa. Egun berean eta biharamunean, Polizia Nazionalak eta Ertzaintzak indarrez hustu zituzten ezker abertzalearen hainbat egoitza.

Abuztuak 28. Epailearen aginduz Batasunaren lokal ugari itxi ondoren, iluntzean, 30 bat lagun PSE–EEko Andoaingo Herriko Etxera hurbildu ziren kartel, erratz eta kolaz beteriko kuboekin, “Zigilatua” leloa zeramatzatzen paperez betetzeko haren fatxada. PSE–EEko egoitzaren kristalak papereztatzen hastera zihoazenean, Joseba Pagazaurtundua Udaltzaingoko sarjentuarekin egin zuten topo, lokaleko atea ixten ari zela (laneko baja hartuta zegoen). Enkontruak eragin zuen ezustekoaren ondoren, berehala hasi ziren oihuak, mehatxuak eta irainak. Pagazaurtunduak Estanis Amuchasteguirri eta haren bizkartzainari deitu zien, pitin bat lehenago egoitzaatik alde egin zutenak. Irainak eta mehatxuak bota zizkieten elkarri. Joseba Pagazaurtunduak aurre egin zien eta kolpe bat jaso zuen ezker sorbaldan erratz baten makilarekin. Geroago, Amuchastegui saiatu zen

217 José Luis Velaren lekukotasuna, 2018/03/19.

azaltzen zergatik egin zioten aurre beren egoitzara hurbildu zen taldeari: *“Beharbada hau ez da ulertuko hemendik kanpora, baina Herriko Etxea, gure egoitza, nahiz eta txikia eta ‘kutrea’ izan, gure askatasun leku bakarra da, dugun gauza bakarra. Horregatik ez dugu inoiz lokala bakarrik uzten”*²¹⁸.

Abuztuak 29. Joseba Pagazaurtunduak salaketa bat aurkeztu zuen Hernaniko Ertzain Etxean, bezperan PSE–EEn egoitza ondoan jaso zituen mehatxu eta erasoengatik (*“Harrapatuko zaitugu”*...).

Abuztuak 30. Herriko Batzokiari eraso zioten.

Irailak 10. Joseba Pagazaurtunduaren auto partikularra (Peugeot 309) erre zuten.

Irailak 13. Guardia Zibilak Arkaitz Lavega Tárrega atxilotu zuen Andoainen, 16 lagun atzeman zituen operazio batean. Arkaitz Lavega Donostiako udaltzaina zen eta ETari informazioa emateaz akusatuta espetxeratu zuten.

Irailak 14. Guardia Zibilak Aroa Arrieta atxilotu zuen

Irailak 19. Beste eraso bat Batzokiaren kontra.

Irailak 28. Hainbat zinegotziren izen–abizenak eta filiazio politikoa (Estanis Amuchasteguiarenak, besteak beste) aurkitu zituzten Guardia Zibilak atxilotutako ETaren Zelatun komandoaren dokumentazioan.

Irailak 28. Gaueko 23:30ean, burua estalita zuen talde batek molotov koktelak jaurti zituen Ertzaintzaren furgoneta baten aurka.

Urriak 15. Etxean eginiko lehergailu batek Laboral Kutxaren Andoingo bulegoko zuzendariaren ibilgailua txikitu zuen. Erasotzaileek ondoren argitaratu zuten komunikatuan, hutsegite bat izan zela adierazi zuten, eta ez zutela ezer pertsona horren kontra.

Urriak 26. Sua eragiteko prestatutako lehergailuak bota zituzten Kaleberrin aparkatuta zegoen auto baten kontra. Lekuko babestu batek bi urtetan izan zuen bigarren erasoaren. Haren deklarazioaz baliatuta, 2000n herriko bizilagun bat atxilotu eta kondenatu zuten kutxazain automatiko bat erretzeaz akusatuta.

Urriak 30. Etxean eginiko lehergailu bat (petardo pirotekniko bati itsatsitako likido sukoia) jarri zuten Mikel Arregi Aranburu EAJko zinegotziaren autoaren azpian (Peugeot 306), Zumea kalean. Eztandak kalte txikiak eragin zituen ibilgailuaren ezkerreko aldean. Bigarren atentatu honen ondoren, Mikel Arregiren etxea Ertzaintzaren zainketan egon zen.

Urriak 31. Ezezagunek *“Euskal Herritik alde egitera gonbidatzen zaituztegu”* idatzi zuten PSE–EEn Juan Fernando Narciso Perianes eta José Antonio Pérez Gabarain zinegotzien eta Baltasar Garzón epailearen izenen ondoan.

Azaroak 1. Pintada bat agertu zen Gurutze Gorriaren eraikinaren fatxadan: *“Narciso”* (Juan Fernando Narciso Perianes PSE–EEn zinegotzia) eta *“Gabarain”* (José Antonio Pérez Gabarain EEn eta PSE–EEn alkate ohia) izenak eta *“PSOE”* siglak ageri ziren diana batzuen barruan, azken horiek maiuskulaz idatzitako ETA siglez bereziak.

218 *El País*, 2003/07/06.

Azaroak 14. Barne Sailak iragarri zuen 70 milioi euro bideratuko zituela mehatxatutako lokalak eta pertsonak babesteko. Eta Askatasunaren aldeko Fundazioak Euskal Herrian Estatuaren presentzia handiagoa aldarrikatu zuen biharamunean.

Abenduak 11. Auzitegi Nazionalak 30 urteko espetxe zigorra ezarri zion José Ignacio Guridi Lasa eta kideari José Luis López de Lacalleren hilketagatik. Peritu balistikoek adierazi zuten Ertzaintzak atxilotetan atzeman zuen errebolberra atentatuan erabili zela. Polizien arabera, ekintzan beste bi lagunek parte hartu zutela jaso zuen epaiak: Frantzian atxilotuta zeuden Asier Arzalluzek eta Aitor Agirrebarrenak.

Abenduak 19. Hainbat protesta eta errepide-mozketa izan ziren herrian, Baltasar Garzon epai-leak Herri Batasunako hainbat mahaitako hogeitaka kide Auzitegi Nazionalan aurkeztera deitu zituelako. Epai-leak auto bat kaleratu zuen azaroaren 21ean, eta azken hamabost urteotako kargudun abertzaleei ETAko kide izatea egotzi zien. HBko hautetsiak eta hautetsi ohiak aske geratu ziren fidantzapean.

Abenduak 31. Ezezagunek su eman zioten Estanis Amuchasteguiren bizkartzainek erabiltzen zuten autoari (Renault Laguna). Zinegotziaren etxe ondoan aparkatuta zegoen. Barruan zegoen guztia kiskalita gelditu zen: hiru kazadora, dokumentazioa, frekuentzia inhibitzaile bat, kargagailu bat...

2003

Otsailak 8. Goizez. ETAk Joseba Pagazaurtundua Ruiz Udaltzaingoko sarjentu burua erail zuen, kafe bat hartzen ari zela Agustin Leitza kaleko Daytona tabernan. 45 urte zituen eta 14 eta 9 urteko bi seme. Donostia Ospitalera eraman zuten, hiru balaz larri zauritua, eta bederatzi orduren buruan hil zen, ZIU unitatean haren bizia salbatzeko ahalegin handiak egin bazituzten ere. Eraso-tzaileak tiro egin zion kafe bat hartu ondoren. Joseba Pagazaurtundua PSE-EEko eta ¡Basta Ya! taldeko kide aktiboa zen, baita UGTko kidea ere. ETApm-ko, EIAko eta Euskadiko Ezkerrako militante izan zen. CNTtik hurbil ere egon zen une batzuetan. ETAk Guardia Zibilaren "kolaboratzaile"²¹⁹ izateaz akusatu zuen (Maite Pagazaurtundua arreba PSE-EEko zinegotzi izan zen Urnietan 1999 eta 2007 artean; Terrorismoaren Biktimen Elkarte buru, 2005 eta 2012 artean; eta gaur egun UPyDko eurodiputatu da Europako Parlamentuan).

Otsailak 8. Arratsaldez. Udalak atentatua gaitzetsi eta manifestazio baterako deia egin zuen, "hiltzaileak", "salatariak" eta "faxistak" oihuak entzun ziren bilkura batean. Ezker abertzaleko zinegotzien aurkako gaitzespenak ere entzun ziren, eta "ETA ez - ETA no" pegatinak jaurti zitzaizkien. José Antonio Pérez Gabarain alkate ohi eta PSE-EEko bozeramaileak bilkuran onartutako gaitzespen idatzia irakurri zuen. Besteak beste, herritarrei eskatu zitzairen beldurra gainditzeko eta "ez zituztela makurraraziko" esateko indarkeria erabiltzen zutenei. Joxean Barandiaran EHko alkatea harremanetan jarri zen hildakoaren hurbilekoak ziren pertsonekin²²⁰, hilketa deitoratzen zuela adierazteko, baina ez zuen bat egin proposatu zen gaitzespen posizionamendu publikoarekin. Jesús Mari Olazabal Iñurrita legez kanpo utzitako EH Bilduko zinegotziak, "nire izenean eta argi

219 ETAREN Zuzen aldizkaria (79), 2004ko otsaila, 30. or. *VascoPress* agentziaren "Dokumentazio eta gaurko albisteen kronika"-n erreproduziturua, 2004/08/30.

220 *ABC*, 2008/05/22.

eta garbi” hitz eginez, “egoera honetan ekintza armatuek ez dute lekurik”²²¹ adierazi zuen, nahiz eta ez zuen parte hartu PSE–EE, EAJ–EA eta PPK adostutako testuaren bozketan. Bilkura amaitzean, elkarretaratzea eta manifestazioa egin ziren.

Otsailak 8 eta 9. Joseba Pagazaurtunduaren gorpu beila Donostiako Zorroagako beilatokian egin zen. Familiak esplizituki eskatuta, ez ziren beilatokian egon ez lehendakaria, ez Eusko Jaurlaritzako kideak ezta Lizarra–Garaziko Itunaren sinatzaileak ere. José Antonio Ardanza lehendakari ohia izan zen salbuespen bakarra.



ABCren azal–orriko argazkia.

Otsailak 9. Goizez. Pintadak agertu ziren Herriko Tabernan (HBren egoitzan): “Hiltzaileak, ordainduko duzue”, “naziak”, “koldarrak”, “ETA zarete”... **Eguerdian.** Milaka lagun bildu zituen manifestazioa Andoaingo kaleetan barrena, besteak beste José Luis Rodríguez Zapatero Espainiako Gobernuko presidentek eraman zuen “ETA no, ETA ez” leloa zeraman pankartaren atzean. Manifestazio isila izan bazen ere, une batzuetan “hiltzaileak” eta “salatariak” oihuak entzun ziren. Manifestari batzuek Juan José Ibarretxe eta beste buruzagi abertzale batzuen kontrako oihuak bota zituzten. ¡Basta Ya! taldeak Gasteizen Ajuria Eneko Jauregi aurrean antolatutako elkarretaratze batean, “ETA hiltzailea. Eusko Jaurlaritz, erantzulea” izeneko manifestua irakurri zuten. **Iluntzean.** Bakearen Aldeko Koordinakundearen eta Denon Artean–en elkarretaratzeak.

Otsailak 10. Joseba Pagazaurtundua oroitzeko eta omentzeko ekitaldia Goiko Plazan. Rosa Díezek eta Maite Pagazaurtundua hartu zuten hitza eta kritika zorrotzak egin zizkieten EAJri. Josebaren arrebak hitz hauek esan zituen, besteak beste:

*Madarikatuak hiltzaileok. Madarikatuak salatariok, heriotzari dei egiten diozuenok. Madarikatuak bihotz gaiztoko abertzale faltsuok, eromena elikatu duzuenok. Madarikatuak ere itsuok, gatazka bat dagoela errepikatuz aitzakia bat eman diezuelako abertzale faltsuei, eroei eta hiltzaileei, aitzakiarako lekurik balego bezala borroaren eta biktimaren artean. Eta zuek, izotzezko bihotza duzuen politikariok, erostariak bidaltzen dituzuenok pankarta atzean jartzeko, itxurak gordetzeko, herria engainatzeko... jaso ezazue nire familiaren mespretxua. Eta zuek, herritarrok, zigor itzazue. Jakingo duzue demokratikoki nola egin*²²².

Otsailak 11. Andoaingo PSE–EEK bere egoitzari “Joseba Pagaza Askatasun Eremua” izena jartzea erabaki zuen, hildakoaren oroimenez. Herriko Udaltzaingoak lankidearen hilketa gaitzetsi eta 24 orduko itxialdia egin zuen Udaletxeko bilkura aretoan. Elkartasuna adierazi zioten Iñaki Pagazaurtundua Josebaren anaia eta herriko udaltzainari, eta alkatea kritikatu zuten atentatua publikoki ez gaitzesteagatik. PSE–EEK Joxean Barandiaran alkatearen aurkako zentsura mozioa aurkeztu zuen, PPren babesaz, baina ez zuen EAJ–EA koalizioaren babesik lortu.

Otsailak 11. PSE–EE eta PP alderdiek Batasuna Andoaingo alkatetzatik kentzera desafio egin zioten EAJri.

221 *El País*, 2003/02/08.

222 Maite Pagazaurtunduaren ¡Malditos! testuaren zati bat, 2003/02/10an irakurrita. Fundación para la Libertad: <http://para-libertad.org/%C2%A1malditos/>

Otsailak 12. ¡Basta Ya!-ren beste elkarretaratze bat Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitza aurrean, “ETA hiltzailea. Eusko Jaurlaritza erantzulea” leloaz.

Otsailak 13. Abokatutzak froga berriak erantsi zizkion HB–EH–Batasunaren kontrako demandari, erakundea legez kanpo uzteko. Besteak beste, Andoaingo Batasuneko udal taldearen erabakia Joseba Pagazaurtundua hil zuen atentatua ez gaitzesteko.

Otsailak 19. Askatasunaren aldeko eta terrorismoaren aurkako Itunaren jarraipen–batzordeak [2000an sinatua], Diputatuen Kongresuan bilduta, PPren Gobernuak eta PSOEek sinatutako akordioa berretsi zuen terrorismo–delituengatik zigorrak 40 urtera handitzeko eta espetxe–onurak eskuratzearagozteko. Horrela jakinarazi zuten PSOEko bozeramaile Jesus Calderak eta PPko idazkari nagusi Javier Arenasek. Azken honek adierazi zuen akordio hori “ETAri emandako erantzuna”²²³ zela, egun batzuk lehenago ETAk Joseba Pagazaurtundua (45 urte) hil baitzuen Andoainen.

Otsailak 20. Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria* (1990–2003) itxi zuen epailearen aginduz. “ETAren tresna izatea” izan zen Juan del Olmo epaileak euskaraz argitaratzen zen egunkari bakarri itxi eta bahitzeko erabili zuen arrazoietakoa bat. *Egunkaria*–k Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean zuen egoitza, eta bai ixtea bai bahitura luzatu egingo ziren ondoz ondo. Guardia Zibilak Zuzendaritzako eta Administrazio Kontseiluko hamar kide atxilotu zituen: Martxelo Otamendi, Peio Zubiria, Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uria, Luis Goia, Xabier Oleaga, Fermín Lazkano, Txema Auzmendi, Inma Gomila eta Xabier Alegría.

6. Instrukzioko Epaitegi Zentralaren autoaren arabera, “Egunkaria” sortuz, ETA saiatu zen “euskarazko informazio egitura bat sortzen, kontrolpean edukiko zuena, ideia terroristak eta taldearen balioak eta interesak babestu eta zabaltzeko, euskararen laguntza erabilita kultur estaldura gisa”. Hirurehun guardia zibilek parte hartu zuten operazioan, hamar pertsona atxilotu zituzten eta hogeita bat miaketa egin ziren etxe eta enpresetan. (...) Guardia Zibilaren lan gaitzak ez zuten espero zen babes judizialik izan: urte batzuk geroago, 2010ean, Auzitegi Nazionalak absolbitu egin zituen auzipetuak²²⁴.

Otsailak 22. Manifestazio erraldoia Donostian Guardia Zibilak itxitako *Euskaldunon Egunkaria*–ren alde.

Otsailak 25. Martxelo Otamendi *Egunkaria*–ren zuzendariak Guardia Zibilaren tratua salatu zuen atxilotetaren bosgarren egunean behin–behinean aske utzi zutenean. Zehazki, guardia zibilen tratua “iraingarri, krudel eta ankerra” salatu zuen, eta poltsa bi aldiz egin ziotela²²⁵. “Arratoiak bagina bezala tratatu gaituzte”²²⁶, laburbildu zuen. Beste lau lankidek ere torturak salatu zituzten egun berean, eta beste batek, egun batzuk geroago.

Otsailak 27. Bakearen Aldeko Koordinakundeak bere “kezka ikaragarria” adierazi zuen *Egunkaria*–ko atxilotuek salatutako torturengatik. Martxoaren 28an, erakunde berak atxilotuen inkomunikazio aldia erregulatzeko eskatu zuen, eta torturak eta tratu txarrak ahalbidetzen dituzten “inpunitate guneak” ezabatzeko eskatu zion Estatuari.

223 Agentziak eta *Abc*, 2003/02/19.

224 SÁNCHEZ, Manuel eta SIMÓN, Manuela. *Op. Cit.*, 178 eta 179. or.

225 *ETB*, 2003/02/25.

226 *El País*, 2003/02/27.

Otsailak 28. Pilar Ruiz (Joseba Pagazaurtunduaren ama), Estibaliz Garmendia (alarguna) eta Maite Pagazaurtunduak (arriba) Josebaren bi gutun argitaratu zituzten (ikus kronologiaren 2001/07/14), “ez badakite ere anaiak inoiz hartzaileari bidali ote zizkion”²²⁷. Eusko Jaurlaritzako Barne Saitetik *El Mundo* egunkariari adierazi ziotenez, “inoiz ez ditugu bi gutun horiek jaso”, eta “PSE–EEK inoiz ez digu egin Pagazaurtundua jaunaren inguruko eskaerarik, ez zerbitzu eginkizunak luzatzeko, ez bizkartzainak jartzeko, ez laguntzarik emateko, ezta etxez aldatzen laguntzeko ere. Ezertxo ere ez. Behin ere ez da atera haren izena egin ditugun ehunka bileretan”²²⁸. Eztabaidak hurrengo egunetan jarraitu zuen.

Otsailak 28. PSE–EEK ikerketa bat zabaltzeko eskatu zien Barne Sailari eta Ertzaintzari, Joseba Pagazaurtunduaren senideek irakurritako gutunei eta eginiko akusazioei buruz. Hurrengo egunetan, elkarri eginiko akusazioek jarraitu zuten EAJ, PSE–EE eta familiaren artean.

Martxoak 6. Pilar Ruiz Joseba Pagazaurtunduaren amak desafio egin zion Xabier Arzalluz EAJko buruari aurrez aurreko bat egitera telebistan.

Martxoak 17 eta 28. Magistratu baten boto partikularrekin aurka, Auzitegi Gorenak Batasuna, Euskal Herritarrok eta Herri Batasuna legez kanpo uzten ditu. Kandidatura eta hautagaitza aberzale askok legez kanpokotzat jotzeko lehen urratsa da.

Martxoak 19. ETAk bere gain hartu zuen Joseba Pagazaurtunduaren aurkako atentatua eta “Guardia Zibilaren kolaboratzaile” izateaz akusatu zuen²²⁹. Maite Pagazaurtunduak adierazi zuen ETAREN komunikatuak “gehiago intoxikatzen” helburua zuela²³⁰.

Martxoak 21. Arabako Guardiako Udalak urrezko intsignia eman zion Joseba Pagazaurtunduari, herriko Ertzain Etxean hainbat urtez egin zuen lanagatik. Zerbitzu eginkizunetan bidali zuten herri horretara, Andoainen behin eta berriz jaso zituen mehatxuen ondoren.

Apirilak 10. Juan Carlos Cano Andoaingo PPko hautagaiak “herrian dagoen giro itogarria” salatu zuen. Bere aldetik, Vanesa Vélez Andoaingo PPko zinegotziak nozitzen ari zen “jazarpen egoera”-ri buruzko azalpenak eman zituen Donostian. Bakearen Aldeko Koordinakundeak Euskal Herrian egitekoa zuen jazarpen bortizkeriaren kontrako kanpaina aurkeztu zuen.

Maiatzak 9. Frantziako Saintes hirian etakide bati atzemandako dokumentazioan, Estanis Amuchasteguiaren ohiturei eta segurtasun zerbitzuari buruzko informazioa aurkitu zuten, beharrezkoa politikari sozialistaren eta haren bizkartzainen aurkako atentatu bat prestatzeko. José Luis Velari buruzko informazioa ere agertu zen.

Maiatzak 14. Angel Acebes Barne ministroak PPK “Donostia komandoaren feudoan”²³¹ –Andoaini erreferentzia eginez– eginiko lehen hauteskunde ekitaldian parte hartu zuen.

Maiatzak 26. Ezezagunek eraso egin zieten Andoainen bizi ziren bi ertzainen ibilgailu partikularrei. Kalteak izan zituzten motorrean eta aurrealdean, baina ez zen zauriturik izan.

227 *El Mundo*, 2003/02/28.

228 *Ibidem*. Arcadi Espada idazle eta kazetariak antzekoa idatziko du *El País*en 2004/02/01an.

229 *ABC*, 2003/03/19.

230 *Ibidem*.

231 *ABC* egunkariaren titularra, 2003/05/15.

Ekainak 13. Ezker abertzalearen plataformak legez kanpo gelditu ondoren, Aralar alderdi politikoak iragarri zuen ez zituela udaletan lortutako jarlekuak hartuko, baldin eta jarleku horiek plataforma horiei bazegozkien.

Ekainak 14. Istiluak Andoaingo Udala eratzean. José Antonio Pérez Gabarain izendatu zuten alkatete, PSE-EE bere alderdiaren eta PPren botoekin. Legez kanpo utzitako ezker abertzalearen hautagaitzaren jarraitzaileek irainak eta "lapurra" eta "faxista" oihuak bota zituzten.

Ekainak 21. *Berria* egunkaria sortu zen, *Euskaldunon Egunkaria*-ren orde. Martin Ugalde Kultur Parkean ere izango zuen egoitza, eta Martxelo Otamendi ere izango zen zuzendaria.

Uztailak 4. Fernando Savaterren aurkako paskinak bota zituzten ¡Basta Ya!-k Andoainen antolatutako ekitaldi bat hasi aurretik. Ekitaldiaren helburua zen terrorismoaren biktimak omentzea eta PSE-EEK eta PPK Andoaingo alkatetza lortu zutelara ospatzea, Mikel Arregi EAJko hautagaia izan bazen ere hautetsontzietan boto kopururik handiena lortu zuena. Alderdien Legeak atzera bota zuen ezker abertzalearen hautagaitza.

Uztailak 25. Goizaldeko 02:40an, sua eragiteko prestatutako bi lehergailu bota zituzten Antonia Landa Ayerbe PSE-EEko zinegotziaren etxeko balkoiaren aurka. Kalte material oso txikiak eragin zituzten, eta sute txiki bat.

Uztailak 25. Ordu erdi geroago, beste lehergailu bat indargabetu zuten Herriko Etxearen ondoan, Arrate kalean. Oso kalte txikiak eragin zituen, PSE-EEko egoitzaren pertsianan, bidoiek su hartu ez zutelako eta soilik petardoak lehertu zirelako. Aurreko bi hilabeteetan, kale borrokaren zortzi eraso saio izan ziren herrian.

Uztailak 30. Falta epaiketa Tolosako Epaitegian Koldo Otamendi Gutierrezen aurka, 2002/08/28an Joseba Pagazautunduari mehatxu egiteaz akusatuta.

Abuztuak 6. Gezurrezko lehergailua Laboral Kutxaren bulegoaren kontra.

Irailak 8. Goizaldean, ezezagunek pintura gorri eta hori betetako arrautzak bota zituzten Udaletxearen fatxadaren kontra, Goiko Plazan, legegintzaldi horretan PSE-EEK gobernatzeko zuena.

Irailak 15. Baltasar Garzón epailearen aginduz, segurtasun indarrek hiru lagun atxilotu –Juan Joxe Petrikorena Leunda, tartean– eta ezker abertzaleak Donostian zituen hiru elkarte itxi zituzten.

Urriak 17. Beste polizia operazio bat *Egunkaria* kasuari lotuta. Hamahiru etxebizitza eta bulego profesional miatu (Zabaltzen, Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkea...) eta bederatzi lagun atxilotu zituzten ustezko delitu ekonomikoei lotuta: Joxe Mari Sors, Joanmari Larrarte, Mikel Arriabalaga, Mikel Azkune, Ángel Díez, Xabier Legarra, Mikel Sorozabal eta Armando Hernández.

Azaroak 7. PSE-EEK (7 zinegotzi) udal itun bat egin zuen PPrekin (2 zinegotzi) gobernu egonkor bat sortzeko. Bi-biek konpromisoa hartu zuten Konstituzioa eta Estatutua defendatzeko, Ibarretxe Planaren eta terrorismoaren aurrean, *"zeinaren erreferente dramatiko bat dugun Andoainen"*, ezbaian jartzen zuena *"egungo marko juridikoa"*, horrek zakarren *"arriskuarekin"* herritarren *"bizikidetzarako"*²³².

232 Akordioaren sinadura. *Abc*, 2003/11/08.

Azaroak 18. Kale borrokaren eraso batean, ezezagunek jaurtitako suziri pirotekniko bat Estanis Amuchasteguiaren etxeko leiho batetik sartu eta sofa baten gainean erori zen, herriko alkateorde eta bozeramailearen alabetako bat zegoen lekutik hurbil. Nerea, 23 urtekoa, marrazketa linealeko ariketak egiten ari zen Zuberoa kaleko lehen solairu batean zegoen etxean, eta nerbio krisi batek jota artatu behar izan zuten. Itotzeko zorian egon zen, katuaren bila ari zela, sua etxean barrena zabaldu zelako, sabaira, gortinetara... kalte handiak eraginez. Sortutako beroa eta kea eraikina- ren barne eskaileretara zabaldu zen, eta bizilagun guztiak atera behar izan zituzten, arriskurik ez zegoela ziurtatu arte. Amuchasteguitarrek alokairuko pisu batera joan behar izan zuten bizitzera eta bi urteren buruan itzuli ziren. Erasoak sekuelak utzi zizkion Nerea Amuchasteguiari.

Azaroak 19: Baltasar Garzón epaileraren aginduz, Polizia Nazionalak Ruben Gelbenzu González atxilotzen du beste pertsona askorekin batera eginiko operazio zabal batean. Hortik bi egunetara libre uzten dute eta bere kausa artxibatzen da.

Abenduak 1. Juan Del Olmo epailearen aginduz, Auzitegi Nazionalako batzorde judicial bat eta *Euskaldunon Egunkaria*–ren administratzaile judiciala, Guardia Zibileko agenteez lagunduta, itxitako egunkariak Martin Ugalde Parkean zuen egoitzan izan ziren, haren ondasunen inbentarioa egiten.

Abenduak 10. María San Gil Noain Gipuzkoako PPko buruak EAJren jarrera salatu zuen, Arnaldo Otegi gonbidatzeagatik hitzaldi bat ematera Andoingo batzoki berrian.

Abenduak 14. Heriotza mehatxuak zituzten pintadak Maite Pagazaurtunduaren kontra, bere etxe ondoan, Hernanin.

2004

Urtarrilak 31. ¡Basta Ya! ekimenaren autobusa irten zen Donostiatik Cadizeraino eramango zuen ibilbide bat egiteko, Ibarretxe Planaren aurkako bere kanpaina azaltzeko. Besteak beste, José Luis Vela PSE–EEko zinegotziak parte hartu zuen kanpainen, beste andoaindar batzuekin batera.

Otsailak 7 eta 8. Agustín Ibarrolak terrorismoaren biktimei eskainitako La Casa de Joseba eskulturaren inaugurazioa, Joseba Pagazaurtunduaren erailketaren lehen urteurrenean. Udalak Andoingo Domina eman zion hildako herrikideari. Udalbatza aretoan eginiko ekitaldi batean, udalaren ohorezko aitorten gorena –urrezko domina– eman zion alkateak Estibaliz Garmendia Joseba Pagazaurtunduaren alargunari, PSE–EE, PP eta EB/IUren botoekin.

Otsailak 26. Aske utzi zituzten epailearen aurretik pasa ondoren *Egunkaria* kasuko beste hiru auzipetu: Begoña Zubeltzu, Fernando Furundarena eta Ainhoa Albisu.

Apirilak 23. Bi urte eta lau hilabeteko espetxe zigorra Rubén Gelbentzuri desordena publikoengatik.

Urriak 17. Legez kanpo utzitako ezker abertzalearen plataformetako ehundik gora hautetsik Udaletxeko osoko bilkuren aretoa okupatu zuten ordu eta erdiz. Beren hautagaitzen aurkako “apartheid”–a salatzen zuen idatzi bat irakurri zuten.

Urriak 18. Udalak salatu egin zuen legez kanpo utzitako ezker abertzaleko hautetsiek bezperan “indarrez eginiko eraso”. Hurrengo egunetan, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren kontrako PSE–EE eta PPren akusazioek jarraitu zuten, osoko bilkuren aretoa desalojatzen “berandutzeagatik”.

Abenduak 11. Pintura gorria bota zuten Arrate Plazako Herriko Etxearen bi pertsianen kontra. Miguel Buen PSE-EEko idazkari nagusiak *“ETAren ingurua”*–ri egotzi zion eraso, eta Batasunari leporatu zion *“gatazka kaleetatik ateratzeko gai ez izatea”*, Anoetan eginiko proposamenean besterik adierazi bazuen ere.

2005

Otsailak 11. Jarrai–Haika–Segiko 33 gazteren aurkako epaiketa hasi zen.

Otsailak 22. Poliziaren bi furgoneta eta beste bi ibilgailu Sorabillako industrialdera joan ziren, Itsasmendi Karabanak enpresa miatzera, Amnistiaren Aldeko Batzordeekin lotutako ikerketa batean. Ez zen atxiloketarik izan.

Apirilak 22. 17:30ean, telefono dei anonimo bat egin zuten herriko Eguneko Zentrora, ordu laurden geroago PSE-EEren egoitzan lehertzekoa zen lehegailu baten berri emateko. Abisu faltsua izan zen.

Ekainak 4. Herriko batzokiari eraso zioten.

Ekainak 21. Eraso gehiago Batzokiaren aurka.

Uztailak 23. Ertzaintzak Iker Otamendi Otamedi (25 urte) Andoaingo bizilaguna atxilotu zuen Donostiako Altza auzoan, beste bi lagunekin batera. Hiru agentek airera tiro egin zuten. Ismael Moreno epaileak Imanol Gomez Gonzalez etakidearen omenaldi saialdian izan ziren istiluetan parte hartzeaz akusatu eta espetxeratu egin zuen. Gomez uztailaren 20an hil zen, Frantziako Cahors hirian gertatu zen errepide istripu batean, poliziaren kontrol batetik ihesi zihoala.

2006

Martxoak 16. Fernando Grande–Marlaska Auzitegi Nazionaleko epaileak Juan Joxe Petrikorena Leunda baldintzarik gabe espetxeratzeko agindua eman eta fidantza ekonomikoak ezarri zituen ezker abertzaleko beste kide batzuentzat, espetxean hildako ETAko bi presoren heriotza salatze-ko martxoaren 9rako deitu zen greba egunean izan ziren istilu bortitzengatik. Igor Angulo Iturrate (32 urte) eta Roberto Ruiz Olmos (38 urte) ziren hildako presoak. Greba egunean egin zen prentsaurreko batean parte hartzeaz akusatu zituen epaileak. Soto del Real kartzelan 22 egun igaro ondoren, apirilaren 7an, Juan Joxe Petrikorena, Arnaldo Otegi eta Juan Mari Olano espetxetik irten ziren, fidantza handi bat ordaindu ondoren.

Irailak 16. Talde batek edukiontziak kalean gurutzatu eta su eman zien, espetxe politikaren kontrako borroka egun batean. Suhiltzaileei deitu behar izan zitzaien.

Urriak 28. José Blancok, Patxi Lópezek eta Jesús Eguigurenek, PSOEko beste buruzagi batzuekin batera, *“Joseba Pagazaurtundua Askatasun Eremua”* izenez bataiatutako Herriko Etxea inauguratu zuten. ETAk hildako militante sozialistaren familiak uko egin zion ekitaldian parte hartzeari, ez zegoelako ados Espainiako Gobernuak ETArekiko negoziazioan hartutako bidearekin. José Blancok adierazi zuenez, sozialistek *“asko sufritu”* bazuten ere, inork ez zien kenduko *“bortizkeriaren, zentzugabekeriaren, intolerantziaren eta ankerkeriaren ondorioz inork berriro negar egin ez dezan dugun itxaropena”*²³³.

233 ABC, 2006/10/29.

Azaroak 21. Lau urteko espetxe zigorra eskatu zuten Joxean Barandiaran alkate ohiarentzat eta Jesús María Olazabal Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi ohiarentzat, ezker abertzaleko kideak biak ala biak, 2003ko maiatzean ETAko preso batentzat ordenagailu baten erosketa baimentzeagatik, Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak eginiko proposamena baina osoko bilkuran aztertu ez zena. Bi akusatuek bere garaian ordenagailuaren gastua (2.057,72 euro) itzuli bazuten ere, fiskalak beste akusazio bat ere egin zuten: diru laguntza bat ematea presoen familiei Auzitegi Nazionalen egitekoa zen epaiketa batera joateko. 2007ko urtarrilaren 17an, Gipuzkoako Auzitegiak zazpi urteko inhabilitazioa ezarri zien ordenagailuaren ordainketa baimentzeagatik eta absolbitu egin zituen ondasun publikoak bidegabe eralgitzearen akusaziotik. Ondorioz, ez zuten espetxe zigorrrik jaso, Fiskaltzak hala eskatu bazuen ere.

Abenduak 15. Andoainen eginiko prentsaurrekoan, Iñigo Iruin abokatuak eta *Egunkaria* kasuko auzipetuek positiboki baloratu zuten Auzitegi Nazionalen Fiskaltzaren jarrera aldaketa, bertan behera utzi baitzuen egunkariko zuzendarien aurkako akusazioa, hamaika hilabete lehenago fiskal berak adierazi zuenaren kontra: hau da, *“ETAren estrategiaren barruan egonik estrategia horri men egiten zioten pertsonak”* zirela²³⁴.

Otsailak 7. Frantziako Poliziak Pello Álvarez atxilotu zuen Ziburun. Aske utzi zuten.

Urtarrilak 12. Segiren borroka-eguna, Jarrai-Haika-Segi sumarioko gazteei ezarritako zigorrak handitu izanagatik protestatzeko.

Martxoak 20. Fiskalak eutsi egin zien 2004ko urriaren 16an Andoaingo Udala okupatzeagatik ezker abertzalearen hauteskunde plataformetako zortzi lagunentzat eskatutako zigorre: isunak eta hamar hilabeteko espetxe zigorra –urtebetekoa inputatu batentzat–.

Martxoak 28. Guardia Zibilak José Ángel Lerín Sánchezetakidea atxilotu zuen Itziar Agirre Castellanos (Zizurkilen atxilotua) Andoaingo Belabi kalean zuen etxean, Juan Carlos Herrador Pousok (Donostian atxilotua) ere erabiltzen zuena. Hiru lagun horiez gainera, beste bost pertsona atzeman zituzten Donostian, Huarte Arakilen, Oionen, Idiazabalen eta Seguran. Bat izan ezik –aske utzi zuten–, gainerakoak ETAren Donostia komandoa osatzeaz akusatu zituzten. Barne Ministerioaren arabera, segurtasun indarrek lehergailuak, atentatuak egiteko materiala eta pertsonen buruzko informazioa atzeman zituzten operazioan: zehazki, Estanis Amuchastegui PSE-EEko zinegotziaren, Maite Pagazaurtundua FVTko buruaren eta Fernando Savater ¡Basta Ya!-ko kidearen filiazioari eta mugimendu errutinei buruzko datu zehatzak.

Apirilak 1. Molotov koktelak jaurti zituzten Correos-eko bulegoaren kontra. Kalteak eragin zituzten pertsonen eta paretaren bat belztu zuten.

Maiatzak 19. Mehatxuzko pintadak eta kartelak herriko kaleetan EAJ, PSE-EE, PP eta IU/EB alderdietako bederatzi hautagairen kontra. Haien izenak eta telefono zenbakiak agertzen ziren. Karteletan, *“herri honen eskubideak zapaldu edo haietaz baliatzen diren lotsagabeak dira”* irakur zitekeen; dei egiten zitzairen herritarrei pertsona horiei deitzera, *“dei iezaiezu eta erakutsi zure haserre”*²³⁵, eta *“ez gaituzue isilduko”* abisuarekin amaitzen zen.

234 ABC, 2006/12/16.

235 El Diario Vasco, 2007/05/19.

Juan Carlos Cano kidea bezala, 25 urteko Vanesa Vélez zinegotzia Donostian bizi da, eta soilik hurbiltzen da Andoainera udalbatza egunetan, eta ez beti, besteak beste Udalean jada ez dituztelako bere telefono zenbaki berriak. "Hori espero dut, behintzat", adierazi digu. "Zinegotzi hautatu nindutenean, 21 urterekin, oso inozoa izan nintzen, eta nire helbidea eta telefonoak eman nituen; Batasunako tabernetako paretetan agertu ziren. Ez naute berriro harrapatuko, ez horixe", adierazi digu²³⁶. Ondoren, Vanesa Vélez Lasarte-Oriako zinegotzi izan da eta bi bizkartzainekin ibili behar izan du. Horri dagokionez, honako hau adierazi du: "lehen bizi ginen etxeko bizilagun batek alde egiteko esan zigun, gu eta gure lagunak –bizkartzainak– arriskua sortzen geniolako"²³⁷.

Maiatzak 24. Pintura gorria eta horia bota zuten Iñaki Egibar Larrañaga EAJren zerrenda buruaren autoaren kontra.

Maiatzak 27. PSE-EE udal hauteskundeetan gairaille, José Antonio Pérez Gabarain buru duela. Botoen %34,13 eta zortzi zinegotzi, aurreko legegaldian baina bat gehiago.

Ekainak 16. Udaltzaingoak eta Ertzaintzak ANVko jarraitzaileak kanporatu zituzten Udaletxetik. Eten egin zuten Udal berria eratzeko ekitaldia, legegintzaldi berrian berriro ere alkate izango zen José Antonio Pérez Gabarainek hitza hartu zuenean. Gotzon Garmendia ANVko zerrendaburua zutitu eta alkatearen mahai gainean utzi zituen auzitegiek beren hautagaitza legez kanpo utzi izan ez balute beren zerrendakoak izan behar zutela uste zuten lau zinegotzien dokumentuak. ANVko jarraitzaileek elastiko gorriak zeramatzaten jantzita, "Andoaindarren borondatea errespetatu" leloarekin, eta kartelak ere erakutsi zituzten. López Gabarainek isiltzeko eskatu zien. Beren jarreran atzera egin ez zutenez, azkenean kanporatu egin zituzten. Ramón Urrutia Aralarreko kide eta IU-Aralarren hauteskunde munizipalako zerrendan bigarrenak, ez du egiaztatutuna aurkezten.

Ekainak 18. Andoaingo Batzokiaren aurkako eraso.

Uztailak 5. Aldiriko tren zerbitzua gelditu behar izan zuten bi orduz, Andoain eta Villabona arteko trenbideko katenarian eginiko sabotaje baten ondorioz. Zazpi trenetan izan ziren atzerapenak.

Uztailak 5. Gaueko 23:30ean, ezezagunek sua eragiteko prestatutako lehergailu bat jaurti zuten Udaltzaingoaren ibilgailu batzuen kontra. Kalteak eragin zituen ibilgailuetako baten atzealdean. Erasotzaileek lurrera bota zituzten paskinetan, mehatxu egiten zitzaion udaltzain bati.

Uztailak 10. Ezker abertzaleko zortzi kideren deklarazioa Tolosako Epaitegian –Joxean Barandiaran eta Gotzon Garmendia, tartean–, epaileak Udal berriaren eraketan izandako gertakariei buruzko Ertzainaren txostena jaso ondoren.

Irailak 7. Beste sabotaje bat goizaldean Andoain eta Villabona arteko trenbidearen katenarian. Katenariaren kontrapisuak moztu zituzten trenbidearen bi aldeetan. Etenaldi batzuk zazpi ordukoak izan ziren. Parisetik zetorren trena katigatu egin zen solte gelditutako kablearekin, eta kalteak eragin zituen horrek linea elektriko osoan. Autobusak jarri zituzten Bartzelona, Madril eta Lisboako trenetako bidaiariak eta aldiriko zerbitzukoak beren helmugetara eramateko. Gaueko 10:45ean itzuli zen tren zerbitzua normaltasunera.

236 *El País*, 2003/03/09.

237 *El País*, 2006/05/14.

Irailak 14. Garbiketa zerbitzuek lehergailu bat aurkitu zuten ertzain baten autoaren azpian, Nafarroa plazan, likido sukoiz betetako bidoi batez eta suziri pirotekniko batez egina. Ez zuen eztanda egin.

Urriak 3. Udal taldeen arteko liskarra José Luis Cano PPko zinegotziak mozio bat aurkeztean, Espainiako bandera Udaletxeko hagan ez jartzeari buruzkoa.

Urriak 4. Baltasar Garzón epaileak Juan Joxe Petrikorena Leunda eta ezker abertzaleko beste 21 kideren atxiloteta agindu zuen. Seguran bilduta zeuden, bilera batean. Epaileak adierazi zuenez, Batasuna legez kanpo zegoen, ezin zuen jarduerarik egin eta bilera hori berriro delitua egitea izan zitekeen. Manifestazioak, asanbladak eta protestak izan ziren.

Urriak 16. Sua eragiteko prestatutako lehergailu bat jarri zuten José Antonio Pérez Gabarain alkatearen alabaren autoaren azpian. Sua ibilgailuaren atzealdera, gurpil batera eta eserlekuetara zabaldu zen, suhiltzaileek eta udaltzainek itzali aurretik.

Abenduak 13. "Hiltzaileak" eta José Antonio Pérez Gabarain, Estanis Amuchastegui, José Luis Vela, Juan Carlos Cano, Mikel Arregi eta Iñaki Egibar politikoen izenak Polikiroldegian jarritako pankarta batean agertzen dira.

2007an ere, Barne Ministerioko Estatuko Segurtasun Idazkaritzak eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak egiaztatu zutenez, hainbat kargu politikori buruzko informazio pertsonala –José Luis Velari buruzkoa, besteak beste– aurkitu zuten ETAko komando bati atzeman zioten dokumentazioan.

2008

Urtarrilak 12. PSE-EEko zinegotzien aurkako pintadak –izen–abizenekin– herriko hainbat lekutan (erdigunean, Zumea plazan, Basteron, futbol zelaian...). "Torturatzzaileak" eta "hiltzaileak" izatea leporatzen zieten.

Urtarrilak 26. Pertsona talde baten elkarretaratzea merkatuaren ondoan, "Andoaindarron eskubideen alde. Ilegalizaziorik ez!" leloa zeraman pankartarekin. Ertzaintzaren hiru furgoneta hurbildu eta bideoz grabatzen eta argazkiak egiten hasi ziren. Sei lagun identifikatu eta atxilotuak izan zitezkeela ohartarazi zieten.

Urtarrilak 29. Estatuko Fiskaltzak EHAKren egoitzak ixtea eta kontuak enbargatzea eskatu zuen, baita hauteskundeetarako hautagaitzak aurkeztea debekatzeko kautelazko neurriak hartzea ere. Otsailaren 8an, Baltasar Garzon epaileak eten egin zuen ANV eta EHAK alderdien jardura. Poliziak hainbat pertsona atxilotu zituen eta zenbait egoitza miatu.

Otsailak 13. Auto bat lehertu zen Belabi kaleko aparkalekuan. Udaltzaingoaren arabera, leherketak ez zuen zio politikorik izan, eta bi partikularren arteko kontu garbitze bat izan zen.

Otsailak 14. Greba eguna "marko demokratiko" baten alde eta atxiloteten, ANV eta EHAK legez kanpo uztearen eta egoitzak eta lokalak ixtearen kontra. Andoainen tentsioa eta identifikazioak izan ziren.



Aiurri.

Apirilak 14. Goizaldean, Andoaingo industrialde batean, lau lagunek eraso egin zioten makina hondeatzaile bati. AHTren eraikuntzan aritzeaz akusatatu zuten makinaren jabe zen enpresa. Ezezagunek likido sukoia bota eta su eman zioten makinari, kabina kiskalita utzirik. Excavaciones Peru SL enpresak ukatu egin zuen AHTren obretan ari zenik, FCCk azpikontratu zuela onartu bazuen ere (Matinsa FCCren filialak eta Amenabar-ek trenbidearen zati batzuen adjudikazioa zuten). 16 hilabeteko epean, polizia datuen arabera, hogeita hamar bat sabotaje ekintza egin ziren proiektu honen aurka.

Maiatzak 9. José Luis López de Lacalle Fundazioak urteko saria eman zion Bakearen Aldeko Koordinakundeari, Bastero Kulturgunean. Inés Rodríguezek eta Jakes Aguirrezabalak jaso zuten saria Mari Paz Artolazabal eta Alainen eskutik, biktimaren alarguna eta semea, hurrenez hurren.

Maiatzak 20. Ainhoa Ozaeta Mendikute atxilotu zuten Bordelen, ETArekin zerikusia zuelakoan. Euskal Herritarrok-eko alkateorde izan zen 1999 eta 2003 artean. Ozaetarekin batera, Javier López Peña "Thierry", Igor Suberbiola eta Jon Salaberria atxilotu zituzten. Poliziak ETAren aparatuko politikoko kide zuten.

Maiatzak 21. Guardia Zibilak Joxean Barandiaran EHko alkate ohia atxilotu zuen. Galdeketa luzeen ondoren -ez zuten jipoitu-, maiatzaren 26an espetxeratu egin zuten. Auzitegi Nazionalan, ukatu egin zuen ETAren kolaboratzaile izatea, nahiz eta onartu zuen Ainhoa Ozaetarekin bildu zela hura Bordelen atxilotu baino bi egun lehenago.

Maiatzak 22. Atxiloketak salatuzko protestak eta asanbladak Andoainen.

Irailak 13. Gauez, ezezagunek pintadak egin zituzten PSE-EEren egoitzaren atzealdeko hiru pertsiatan: "Alde hemendik" eta "PSOE español".

Urriak 22. Joxean Barandiaran alkate ohia Soto del Real espetxetik irten zen 12.000 euroko fidantza ordainduta.

Urriak 22. Peio Álvarez andoaindarraren aurkako epaiketa Parisen. Lau urteko kondena ezarri zioten, poliziaren kontrolpean, gaixotasun larri bategatik.

Azaroak 20. Xabier García Gazteluren aurkako epaiketa Auzitegi Nazionalan, 2000n José Luis López de Lacalleren aurkako atentatua agintzeaz akusatuta. Epaietan, Fernando García Nicolás epai-leak lekuko gisa deklaratzera deitu zuen José Ignacio Guridi Lasa, López de Lacalle hiltzeagatik kondenatua.

Azaroak 27. Frantziak Espainiako Poliziaren esku utzi zuen Gracia Morcillo Torres, Auzitegi Nazionalaren eskariari erantzunez. Frantziako Jendarmeriak atxilotu zuen 2006ko urtarrilean, Saintes hirian, 1996ko otsailean Andoaingo bere etxean (garai hartan medikua zen Andoainen) ETAko Donostia komandoari aterpe emateaz akusatuta.

2009

Urtarrilak 22. Auzitegi Nazionalak 30 urteko espetxe zigorra ezarri zion Xabier García Gazteluri 2000ko maiatzean hil zuten José Luis López de Lacalleren hilketa agintzeagatik.

Otsailak 8. Auzitegi Gorenak ezeztatu egin zituen D3M eta Askatasunaren hautagaitzak, eta Auzitegi Konstituzionalak berretsi egin zuen epaia hilaren 12an.

Apirilak 14. Artxibatu egin zuten Joxean Barandiaran Andoaingo alkate ohiari ETAren kolaboratzaile izatea egozten zion akusazioa.

Maiatzak 17. Inés Rodríguez Ranz andoaindarrak eta Fabián Laespadak komunikatu bat irakurri zuten Bakearen Aldeko Koordinakundeak Donostiako Artzain Onaren elizaren aurrean *“Mehatxatzen zaituztenean eraso egiten digute. Jazarpen indarkeriari ez”* lelopean egin zuen elkarretaratzea amaitzean. Elkarretaratzean izan ziren pertsonen artean, Alain zegoen, José Luis López de Lacalleren semea.

Bakearen Aldeko Koordinakundearentzat, “tragedia” da “horrenbeste pertsonak ETAren mehatxuagatik bizi duten askatasun falta”. Izan ere, “gure gizartean normaltzat hartzen dugun errealitatea erabateko anormaltasun bat da, eta zaila da ulertzen nola bizi gaitzkeen herritar gehienok tragedia honekin”²³⁸.

Uztailak 2. Ezezagunek bi molotov koktel bota zituzten herriko banku bulego bateko kutxazain automatiko baten aurka.

Uztailak 29. Guardia Zibilak Arkaitz Artola atxilotu zuen, Segi erakundeari lotuta. Zehazki, Gaztesarea web orriaren bidez laguntzeaz akusatu zuten, eta dirua biltzeko zozketa baten antolakuntzan parte hartzeaz. Guardia zibilek Gaztesarearen egoitza miatu zuten, Andoaingo Martin Ugalde Parkean.

Irailak 9. Frantziak Aitor Agirrebarrena Beldarrain estraditatu zuen. Espainiako Barne Ministerioak José Luis López de Lacalleren hilketan parte hartzeaz akusatu zuen, besteak beste.

Irailak 29. Auzitegi Nazionalak Gracia Morcillo Torres absolbitu zuen, 1996ko otsailaren 6an Andoaingo bere etxean (garai hartan medikua zen Andoainen) ETAko Donostia komandari aterpe ematearen akusaziotik. Urte horretan bertan atxilotu zuten Frantziako Saintes hirian, eta bi urte geroago estraditatu zuten.

Azaroak 24. Polizia Nazionalak Euker Villasante Sarasibar atxilotu eta Irunberri Elkartea eta Gaztetxea miatu zituen (elkartearen pertsona bortxatu zuten). Fernando Grande–Marlaska epaileak Segiren aurka agindutako operazioan, 35 pertsona atxilotu zituzten; horietatik 31 espetxeratu zituzten *“integrazio terrorista”* delituengatik. Villasantek torturak salatu zituen. Protesta manifestazioak izan ziren.

Abenduak 14. *Euskaldunon Egunkaria*–ren epaiketa hasi zen Madrilgo Auzitegi Nazionalean.

Abenduak 15. Andoaingo ANVko bederlatzi jarraitzailearen aurkako epaiketa Donostiako Justizia Auzitegian, 2007an Udal berria eratzean izan ziren istiluengatik. Sei hilabeteko zigorra eskatu zen auzipetu bakoitzarentzat.

2010

Apirilak 13. Martin Ugalde Kultur Parkean eginiko elkarretaratze jendetsu batean, *Egunkaria* kasuan atxilotu, auzipetu eta epaitutako pertsonak egunkariak ETArekin lotura zuenik ukatzen zuen ebazpen judiziala ospatu zuten. Haien iritziz, ebazpena *“porrot handia”*²³⁹ zen Guardia Zibilarentzat, eta berretsi egin zuten egunkaria *“bultzada politiko indartsu”* baten ondorioz itxi zutela. Gainera, adierazi zuten, *“ez da inola ere justiziarik egin”*, eta *“kaltea jada egina dago”*, *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta haren zuzendariak atxilotu zituztelako.

238 *El Mundo*, 2009/05/17.

239 *ABC*, 2010/04/14.

Apirilak 16. Ertzaintzak esku hartu zuen Juan Joxe Petrikorenari eginiko ongietorrian, ekitaldia legez kanpoko zela argudiatuta. Tentsio handiko uneak izan ziren. Ertzainek pertsona batzuk identifikatu zituzten eta kolpeak izan ziren.

Maiatzak 26. Ertzaintza Irunberri Elkartean sartu eta herriko presoek kartelak eta hainbat oroigarri eraman zituen.

Abuztuak 2. Ertzaintzak Gurutz Agirresarobe Pagola eta Aitziber Ezkerra Segurajauregi atxilotu zituen Hernanin, Fernando Grande-Marlaskak aginduta: lehenengoa, Joseba Pagazaurtundua hiltzeaz akusatuta; bigarrena, nahitaezko kolaborazioaz. Ezkerra fidantzapean aske utzi zuten abuztuaren 8an, hiru egun igaro ondoren Soto del Real espetxean.

Abuztuak 16. Goizaldeko 03:30ean, su eman zieten AHTren lanekin zerikusia zuen enpresa baten ondoan aparkatutako bi kamioiri. Kabinak kiskalita gelditu ziren.

Urriak 22. Arkaitz Lavega preso andoaindarrak gose greba hasi zuen Castello II espetxean, barkatze politikaren kontra. Urriaren 29an utzi zuen, Cadizko Puerto de Santa Mariako kartzelara eraman zutenean.

Azaroak 10. Ezohiko bilkura batean, Andoaingo PSE-EE, EAJ, EB eta Hamaika bat alderdi politikoek berretsi egin zuten aho batez Eusko Legebiltzarrak Memoriaren Egunari begira biktimak gogoratzeko onartu zuen erakunde adierazpena. Ekitaldi horretan eta *"A la libertad-Askatasunari"* izeneko eskulturaren inaugurazioan, gogoan izan zituzten herrian atentatuetan hildako zazpi pertsonak: ETaren bost biktima eta BVE eta Triple A-ren bi biktima. Azken horiek kontuan hartzea *"aurrerapauso"*-tzat jo zuten aipatutako indar politikoek, nahiz eta jakitun ziren Triple A-ren beste biktima bat falta zela zerrenda horretan: David Salvador Bernardo. Arratsaldean, Patxi López lehendakaria Andoainen izan zen, ETA, BVE eta Triple A-ren biktimei egin zitzaizen omenaldian. Espezie ezberdinetako zazpi zuhaitz landatu ziren ekitaldian.

2011

Urtarrilak 10. ETak su-eten "iraunkor eta orokorra, nazioarteko komunitateak egiaztatu ahal izango duena" iragarri zuen.

Urtarrilak 18. Goizaldeko 05:30ean, Ertzaintzaren Terrorismoaren Aurkako eta Informazioko Alorreko agenteek Urtzi Azpiroz Usandizaga (33 urte) atxilotu zuten Martin Ugalde kaleko bere etxean, kale borrokarekin zerikusia zuelakoan. Zehazki, 2002ko apirilean PSE-EEko zinegotzi baten emaztearen ibilgailuari eta ertzain baten etxeari eginiko erasoekin lotu zuten. Ertzaintzak lokal bat ere miatu zuen, Kaleberrin, eta kartelak eta material informatikoa eraman zituzten. Urtzi Azpiroz Soto del Real kartzelan espetxeratu zuten.

Apirilak 28. ETak enpresari-elkarteei jakinarazi zien amaitutzat eman zuela estortsio ekonomikoa edo "zerga iraultzailea".

Maiatzak 16. Euker Villasante Soto del Real espetxetik irten zen 50.000 euroko fidantza ordainduta.

Maiatzak 22. Udal hauteskundeak. Udal hauteskundeak. Bildu garaile botoen %33,59 arekin; Alternatiba, EA eta ezker abertzaleko partaideekin osatutako koalizioa. Ana Carrere Zabala Andoaingo alkatesa berri izendatuko dute.

Maiatzak 7. José Luis López de Lacalle gogoratzeko ekitaldia bere izena duen parkean. Senideak, lagunak eta kargu politikoak bildu ziren; besteak beste, Rodolfo Ares Barne sailburua, Estanis Amuchastegui PSE–EEko alkatea eta Juan Carlos Cano PPko zinegotzia.

Ekainak 16. Rodolfo Ares Eusko Jaurlaritzako Barne sailburu eta PSE–EEko kideak idatzi bat bidali zion Ana Carrere Zabala Bilduko alkate berriari, bere *“erabateko desadostasuna”* adieraziz bizkartzainak Udaletxera sartzeari debekatzeko erabakiarekin. PPko eta PSE–EEko zinegotziek aurreko egunetan mehatxuak jaso zituztela gogoratzen zion, *“zeinak agerian uzten baitu zure herrian oraindik badirela jarrera onartezinak dituzten pertsonak, jarrera jasanezinak sistema demokratiko batean bizitzeko”*²⁴⁰.

Uztailak 1. Bildu, PP eta PSE–EE ados jarri ziren bizkartzainen gaian: Udaletxearen atean geldituko ziren, baina bizkartzain batek bi udal taldeen bulegoetara sartu eta horiek ikuskatzeko aukera izango zuen; ondoren, kanpora irtengo zen. Irtenbidea bi aldeek gustukoa izan zen.

Uztailak 15. Bilduk bilkura aretoa utzi ondoren, PSE–EEK eta PPk ETA gaitzesteko mozio bat aurrera atera zuten, testu alternatibo bat aurkeztu zuen EAJren aurkako botoarekin.

Abuztuak 5. Ana Carrere Zabala alkateak jakinarazi zuen lau mehatxu jaso zituela hauteskondeez geroztik; azkena, heriotza mehatxua. Azken mezuak jomugan jartzen zuen ere Joxean Barandiaran Ezama EHko alkate ohia. Mehatxuan, era honetako esaldiak irakur zitezkeen: *“ez zarete pertsonak, gorrotoz beteriko basapiztiak baizik, akabatu egin beharrekoak”*, *“noizbait, aurkitu dituzuen poltronetatik atera eta desagerrarazi egingo zaituztegu”* edo *“espainiarrak izaten hilko zarete, gure nazka eta mespretxuaz”*.

Irailak 26. Aiarri aldizkariak jakinarazi zuen Ana Carrere alkateak mehatxuak jasotzen jarraitzen duela.

Urriak 20. Nazioarteko ordezkari talde batek, Kofi Annan buru zela [Nazio Batuen idazkari nagusia 1997 eta 2006 artean], *“Aieteko Adierazpena”* egin eta hiru egunera, ETAk beste adierazpen bat kaleratu zuen.

ETAk bere jarduera armatua behin–betiko amaitzea erabaki du. ETAk Espainia eta Frantziako gobernuen dei egiten die, gatazkaren ondorioei konponbide ematea helburu izango duen elkarrizketa–prozesu zuzena zabaltzeko, konfrontazio armatua gainditu ahal izateko. Adierazpen historiko honekin ETAk bere konpromiso argi, sendo eta behin–betikoa erakusten du.

Abenduak 7. Auzitegi Nazionalak Gurutz Agirresarobe jo zuen Joseba Pagazaurtunduaren aurkako atentatuaren egiletzat. Froga nagusia DNA lagin bat zen, Poliziak susmagarriari egin zizkion jarraipenetan konfiskatu zuen ur botila batetik lortutakoa (botila horretatik edan zuen ura). DNA lagin hori bat zetorren Andoaingo Daytona tabernan Udaltzaingoko sarjentuaren erailketaren egunean kafe kikara batetik hartu zen laginarekin. Akusatuak errugabetzat jo zuen bere burua eta familiaren sufrimendua aitortu zuen.

240 Eusko Jaurlaritzaren webgunea (Irekia), 2011/06/17.

2012

Otsailak 21. Guardia Zibilak Iñaki Igerategi Lizarribar (42 urte) eta Inaxio Otaño Labaka (51 urte) atxilotu zituen; lehena, Tolosako suhiltzaileen parkean; bigarrena, Andoainen bertan. Haien etxeak miatu zituzten. Akusazioa: *“ETAren zuzendaritza egiturei laguntzeko talde bateko kide izan litezke”*²⁴¹. Espetxeratu egin zituzten eta atxilo aldiaren torturatu egin zituztela salatzen.

Apirilak 7. Kaleberriko 50. atariko etxeak hustu behar izan zituzten goizaldeko 05:00etan, ezezagunek lau edukiontziri su eman ondoren. Bizilagunak beren etxetara itzuli ziren suhiltzaileek sua itzali ondoren. Suak eraikinaren fatxada eta ondoko banku bulego bat kaltetu zituen. Jesús Loza lehendakariaren ordezkariak adierazi zuenez, *“ez da kale borrokaren berpizte bat izan, bortizkeriaren subkulturarena baizik, greba orokorraren aurrean”*. Santiago Fontella Bizkartzainen Elkartearen lehendakariaren hitzetan: *“gerta zitekeela ikusten zen; duela bi hilabete ohartarazi genuen kale borroka ez zela amaitu”*; aldiz, Fernando Barrena eta Maribi Ugarteburu bozeramaile abertzaleek honako hau adierazi zuten: *“ez du inolako zerikusirik ezker abertzalearekin”*, eta krisi ekonomikoaren aurrean izandako erreakzio bati egotzi zioten gertatutakoa.

2013

Otsailak 20. Ekitaldia Martin Ugalde Kultur Parkean, *Euskaldunon Egunkaria*–ren itxieraren hamargarren urteurrenean. Auzipetutako lagunek parte hartu zuten ekitaldian. Era honetako baieztapenak egin ziren egunkaria itxi zutenean: *“Desartikulatua Egunkaria–ren finantza sarea”*, *“Egunkaria: sortu zenetik ETAk kontrolatua”*²⁴²... Hala eta guztiz ere, *Egunkaria* kasuaren bi prozedurak itxi egin ziren auzipetuen absoluzioarekin, 2010ean, eta auzi ekonomikoaren artxiboarekin, 2014an.

Ekainak 4. Ignacio Iturbide Alcaín *Piti* hilik aurkitu zuten Bilbo inguruko mendi batean; zehazki, Uskortako bidean. BVE eta Triple A–ko kide ohia, berez hil zen. 64 urte zituen.

Ekainak 10. Guardia Zibilak Ruben Gelbentzu Gonzalez gizarte hezitzailea eta Harrera–ko kidea atxilotu zuen. Atxiloketa honen ondoren torturak salatzen ditu. Udal Gobernuak atxilotuari inkomunikazioa kentzeko eskatu zuen. Asanblada informatiboa eta protesta manifestazioa egiten da herrian. 2014ko apirila arte espetxean dago, Jaenen. Aske uzten dute eta bere kausa berriz ere artxibatzen dute.

Irailak 30. Polizia operazioa Herrira mugimenduaren kontra. Andoainen, Ekain Zubizarreta atxilotu zuten; Urnietan, Amaia Esnal. Guztira 15 lagun atzeman eta haien kontuak eta web orri batzuk blokeatu zituzten. Protesta elkarretaratzea Zumea plazan, hurrengo egunetan errepikatuko zena. Udal gobernuarentzat, atxiloketak *“ulertezinak”*²⁴³ ziren, eta EAJk idatzi bat kaleratu zuen polizia operazioaren atzean zeuden asmo politikoak salatuz.

Urriak 14. 2009ko sarekadan Segiko kide izateagatik atxilotutako 40 gazteen aurkako epaiketa hasi zen Madrilan.

241 *Público*, 2012/02/22.

242 *ABC*, 2003/10/16 eta 17.

243 *Aiurri*, 2013/09/30.

Abenduak 12. Pariseko auzitegi batek 14 urteko espetxe zigorra ezarri zion Ainhoa Ozaetari, frogatuz emanik *“zerga iraultza”* kobratzeko helburuz *“enpresariak estortzionatzeko saialdia”* egin zuela; aldiz, libre gelditu zen estortzio kargutik. 2014an, berriro epaituko zuten ETArekin zerikusia zuelakoan. 2008ko maiatzaren 20an atxilotu zuten, Bordelen, Francisco Javier Peña *“Thierry”*, Igor Suberbiola eta Jon Salaberriarekin batera, ETaren egitura politikoa osatzeaz akusatuta.

2014

Otsailak 7. Arkaitz Bellon Blanco presoaren heriotza eta *“espetxe politika krudela”* salatzen manifestazioa. 36 urtekoa eta Elorrion jaioa, Puerto de Santa Mariako espetxean hil zen. Etxetik mila kilometrotara espetxeratuta zegoen. Pankartak lelo hau zeraman: *“Espetxeak hil egiten du”*. Arkaitz Belloni hiru hilabete falta zitzaizkion kartzelatik irteteko, kale borrokagatik 13 urte espetxean eman ondoren, eta hiru urte igaro ziren jada zigorraren hiru laurdenak bete zituenetik. EH Bildu eta EAJ udal taldeek idatzi bat kaleratu zuten.

Uztailak 30. Hamabi urte iraun zuen prozesu baten ondoren, Auzitegi Nazionalak Herriko Tabernen auziaren epaia jakinarazi zuen: ehun bat lokal konfiskatzea eta kartzela eskaera arduradunentzat. Lagun horien artean, Juani Lizaso andoaindarra zegoen. Epaitegira joan behar izan zuen astero sinatzera eta 60.000 euroko fidantza jarri zuen behin-behinean aske gelditzeko, bi urte espetxean eman ondoren, 2002tik 2004ra²⁴⁴. Elkartasuna adierazteko elkarretaratzeak egin ziren, abuztuaren 1ean Andoainen, eta abuztuaren 2an Donostiako Artzain Onaren elizaren aurrean.

2015

Urtarrilak 3. Dispersioaren aurkako ekitaldia Espigoian.

Otsailak 8. Joseba Pagazaurtunduren familiak gutun bat bidali zion Ana Carrere alkateari, esanez bere dolua ez zela amaituko *“egia jakin arte eta erreparazioa lortu arte”*, eta *“izugarrikeria hau guztia kondenatu ez duten Andoaingo ehunka bizilagunak”* seinalatu zituen. Gainera, jakinarazi zion postontzi bat ipini zuela Andoaingo plazan, nahi zuen orok aukera izan zezan *“erreparazio hori eraikitzeko, anonimoki nahi izanez gero, Josebaren eta terrorismoaren gainerako biktimen hilketan duen erantzukizun partikularra onartuz, nor bere burua eginiko gaitzetik askatzeko eta gaitz horren memoria adierazteko”*. Postontzia erretira ez zezatela eskatuz amaitzen zen gutuna.

Otsailak 24. Carlos García Preciado atxilotu zuten Erroman. Bartzelonarra jaiotzez, Andoainen bizi zen. Auzitegi Nazionalak 2000n kondenatua, 1997an Andoaingo banku bulego bat erretzeaz akusatuta, García bilatzeko eta atxilotzeko agindua eman zuten. Italiako hiriburura egin zuen ihes, eta hiri horretan bizi zen, emaztearekin eta semearekin.

Martxoak 13. Auzitegi Nazionalak 6 urteko espetxe zigorra ezarri zien Iñaki Igerategi Lizarribar eta Inaxio Otaño Labakari, ETAko kide izateagatik, estortzio ekonomikoan parte hartzeagatik eta informazioa biltzeagatik; besteak beste, Joseba Pagazaurtundua eta herriko hiru ertzaini buruzkoa²⁴⁵.

244 Aiurri, 2014/09/03.

245 Auzitegi Nazionalaren epaia. Penal arloko Aretoa. Hirugarren Sekzioa. 7/15 epaia, 2015/03/13.

Apirilak 19. Covite eta Joseba Pagazaurtunduaren senideak Urigain Jauregiaren ondoan elkarretaratu ziren, postontzia eta Agustin Ibarrolaren *“Josebaren etxea”* eskultura dauden lekuan. Maite Pagazaurtunduak adierazi zuenez, *“ez dugu otzan jokatu”* Udalaren iritziaurrean, zeinaren arabera postontzia *“elementu publiko batean”* zegoen, eta ez zen *“lekurik egokiena”*. Joseba Pagazaurtunduaren arrebak adierazi zuenez, Alkatetzak ohartarazi zien Udalak postontzia kenduko zuela baldin eta familiak berak egiten ez bazuen, eta postontziaren garrantzia berretsi zuen: *“ehunka bizilagunek kaleetan erailketak eskatu zituzten, eta etxeko leihoak itxi zituzten hilketaren manifestazioa igaro zenean”*²⁴⁶.

Apirilak 30. Martxoaren bukaeran *“Joseba postontzia”* onartzearen alde PSE–EEK mozio bat aurkeztu ondoren, egun honetako plenoan moziaren onarpena bozketara jarri da eta PSE–EEn eta PPren aldeko botoarekin eta, EAJ–PNVren eta EH Bilduren abstentzioko botoarekin onartu da. [2016an eta 2017an Pagazaurtundua familiak eginiko bi kanpainetan, dei egina zitzaien Andoaingo bizilagunei beren idatziak postontzian uztera].

Maiatzak 3. Santakruzetan, gazte batzuek EAJko herriko militante bat mehatxatu, iraindu eta jipoitu zuten. Osasun zentro batean kontusioak sendatu ondoren, salaketa ipini zuen Ertzain Etxean. **Martxoaren 5an**, EAJ–PNVk gaitzesten du alderdikide batek jaietan jasandako *“eraso politikoa”* eta salatu du bozeramaileen batzordea deitu ez izana. Alkatetzak eta EH Bilduk adierazi zuten, *“borrokak ez du inolako zerikusirik izan zio politikoeekin”*. Aldiz, Elkarbizi taldeak *“eraso bidegabea”* arbuiatu zuen, baita *“sektarismo politikoa”* ere, eta erantsi zuen gertakariak agerian uzten zutela oraindik bizirik jarraitzen zuela indarkeriak eskualdean. **Maiatzaren 8an**, Andoaingo Ernai–k komunikatu bat plazaratu zuen elkertasuna adieraziz jipoia jaso zuen pertsonari eta haren senideei: *“Erasoa egin duten norbanakoen jarrera erabat deitoratzen dugu, festetan zoritxarrez geroz eta ohikoagoak bihurtzen ari diren jarrera antisozialak ukatu eta pertsona hauek gure antolakunde eta ezker abertzalearekin zerikusirik ez dutela adierazten dugu, jarrera hauek dituzten pertsonak ez dira ongi etorriak gurean”*²⁴⁷. Halaber, hauteskunde batzuk eta politika eta hauteskunde arloko interes jakin batzuk ere salatu zituen, bere iritziz gertatutakoa manipulatu zutelako. Erantzukizunez jokatzeko deia eginez amaitu zuen. PSE–EEK, EAJ–PNV eta PPK, bere aldetik, *“arrazoi politikoengatik”* erabili den indarkeria salatu dute agiri batean. Biktimari babes adierazi ondoren, berresten dute *“pertsona guztien askatasunarekiko errespetua, pertsonen ideologia eta militantzia ezin baita eraso oinarri izan behin ere”*. Benetako bizikidetzaren herritar guztien errespetutik eraiki behar dela adierazi dute.

Maiatzak 24. Udal hauteskundeak. Andoainean, sei hauteskunde zerrendetatik bostek emakume bat zuten buru: Ana Carrere (EH Bildu), Maider Lainez (PSE–EE), Mari Jose Izagirre (EAJ), Olga Fernández (Ganemos) eta Asun Guerra (PP). Irabazi zerrendako lehena Jorge Fernández Mourinho zen. EH Bildu izan zen garaile, 2.112 boto eta 6 zinegotzi lortuta; PPK ez zuen aukerarik lortu (289 boto). PSE–EEK 1.887 boto eta 5 zinegotzi lortu zituen; EAJk, 1.750 boto eta 4 zinegotzi; Ganemos–ek, 555 boto eta zinegotzi bat; eta Irabazi–k, 442 boto eta zinegotzi bat.

Ekainak 13. M24ko hauteskundeetan ondoren eratutako EAJ udal taldeko Gregorio Olasagasti zinegotziaren boto zuriari esker, hauteskundeetan boto gehien eskuratu zituen EH Bilduk lortu zuen berriro alkatetza. Bilkuran eta hurrengo egunetan izan ziren tirabirak ikusita, Olasagastik bere

246 Paragrafo honetan kakotx artean dauden esaldi guztiak EFE agentziarenak dira, 2015/04/19.

247 Aiarri, 2015/05/08.

kargua alderdiaren herriko batzarraren eskuetan utzi zuen, ez zuelako bete EAJk eta PSE–EEk biatatik boto gehien lortzen zuena bozkatzeko egin zuten akordioa. Bere aldetik, Fiskaltzak gertatutakoari buruzko ofiziozko eginbideak ireki zituen, eta Olasagastik ekainaren 22an deklaratu zuen. Azkenik, Juan Calparsoro fiskalak kasua itxi zuen, ez zuelako inolako anormaltasunik aurkitu Gregorio Olasagastik emandako botoan.

Ekainak 27. Ehun lagun baino gehiago bildu ziren prentsaurreko batean Kale Nagusian, elkartasuna adierazteko Irunberri elkarteari.

Irailak 11. Sinadurarik gabeko kartelak agertu ziren herriko kaleetan abuztuaren 25ean hil zen Txiki Benegas lotuz GALEkin. PSE–EEko buruzagi ohiaren argazkiaren ondoan, honako hauek irakur zitezkeen: *“Txiki Benegas GALEkin, hil arte. Txiki Benegas, beste lagun batzuekin batera, Brouard hiltzea erabaki zen bileran egon zen”*, eta *“Gaur, EAJ, PP eta PSOEko demokratek eta bakezaleek omendua”*. Iñaki Arriola PSE–EEko idazkari nagusiak *“iraingarriztat eta mingarriztat”* jo zituen kartelak, egileak *“zitalak eta koldarrak”* zirela adierazi zuen, eta babesa eta elkartasuna adierazi zion José María Benegasen familiari. Gobernu Batzordeak kartelak kentzea agindu zuen.

Irailak 24. Andoaingo Udalak onartutako mozio batean, salbuespen legeak eta Auzitegi Nazionala indargabetzea eskatzeaz gainera, Carlos García Preciado askatzea eskatu zen, bizitza berri bat hasteko aukera izan zezan, eta babesa eskaini zitzaizen senideei. Alderdi gehienak abstenitu egin ziren.

Azaroak 25. Italiako agintariak argi berdea eman zioten Espainiak eskatutako Carlos García Preciadorek estradizioari.

Abenduak 20. Podemos–Ahal Dugu–k irabazi zituen hauteskunde orokorrak Andoainean (baita Urnietan ere), 2.339 botoekin (%29,40). EH Bildu: 1.542; PSE–EE: 1.472; EAJ: 1.345; PP: 597; Ciudadanos: 272; IU–UPeC: 257; Alderdi Animalista: 41; Zero Murrizketak–Taldea Berdea: 18; UPyD: 8; Libertate Nafarra: 7.

2016

Urtarrilak 25. Auzitegi Gorenak García Preciado absolbitu zuen Auzitegi Nazionalak 2000n ezarri zion 16 urteko espetxe kondenatik. Auzitegi Gorenak aintzat hartu zuen García aurkeztutako errekurtoa: zigorra lekuko baten polizia deklarazioan oinarritu zela eta lekuko horrek gero ez zuela akusatuaren identifikazioa epailearen aurrean berretsi. Beraz, ez zuen kargu frogara gisa balio.

Otsailak 20. Martxa Andoaindik Teruelgo espetxera.

Azaroak 11. Udalak eta Elkarbizi–k Memoriaren Eguneko ekitaldiak antolatu zituzten. Udaleko bost talde politikoei, batera landutako ekimen batean, biktima guztiek eskubide berberak dituztela gogoratu zuten, eta beren konpromisoa adierazi zuten enpatian, elkartasunean eta adostasun ahalik eta zabalenean oinarrituko den memoria politika bat garatzeko. Bere aldetik, Elkarbizi–k eskatu zuen biktimen oroimena herritarren gogoan egon zedila beti.

Abenduak 17. Pertsona talde batek 24 orduko itxialdia egin zuen Udaleko batzar aretoan, *“Kalera Kalera. Bakea eta askatasuna irabaztea”* dinamikaren barruan.

2017

Urtarrilak 19. "Glen Cree" dokumentalak zabaldu zuen Udaleko Bizikidetza Mahaiak antolatu zuen Bakea eta Bizikidetza zine zikloa. Otsailaren 16an, "Heriotzaren Triangelua" filma proiektatu zen, BVE eta Triple A taldeek Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Andoain artean hil zituzten zortzi lagun-en hilketak kontatzen dituen.

Martxoak 16. "Berradiskidetzeari" izeneko dokumentalak itxi zuen Udaleko Bizikidetza Mahaiak antolatu zuen eta urtarrilaren 18an hasi zen Bakea eta Bizikidetza zikloa.

Uztailak 11. Udal talde guztiak (EH Bildu, PSE-EE, EAJ, Ganemos eta Irabazi) biltzen dituen Andoaingo Bizikidetza Mahaiak elkarrizketa eraikitzailean urratsak egitea erabaki zuen, bakean eta bizikidetzan sakontzeko. Besteak beste, txosten bat idaztea eskatu zion Argituz giza eskubideen defentsarako elkarteari (esku artean duzun honako dokumentu hau).



Udala.

Azaroak 10. Goizez. Memoriaren Egunean, Andoaingo Udaleko talde guztiak erakunde adierazpen baten irakurketa ekitaldian elkartu ziren. Ana Carrere alkateak irakurri zuen adierazpenean, dei egiten zitzaaien herritarrei iragana ez ahaztera, *"ezta gizarteak pairatu dituen ondorio lazgarriak ere; bereziki biktimek, zeinei nozitu duten minaren eta pairamenaren bidegabekeria aitortu behar zaien, eta elkartasuna, enpatia, egia, justizia, memoria, aitortza eta erreparazioa zor zaizkien"*.



Aiurri.

Azaroak 10. Arratsaldean. Lore eskaintza José Luis López de Lacalle Parkean, Elkarbizi kolektiboak antolatuta, azken urteetan egin ohi zuten moduan. Mari Paz Artolazabalek –López de Lacalle-ren alarguna–, Blanca Villafañe –Juvenal Villafañe-ren alaba– eta Miguel Ansa –Joxe Ramon Ansaren osaba– lore sorta bat ipini zuten "Askatasunari" izeneko eskulturaren.

Abenduak 19. Udaleko Bizikidetza Mahaiak mahai inguru bat antolatu zuen Bastero Kulturgunean. Hizlari izan ziren: Olatz Prat (Baketik), Arantxa Izagirre (Tolosako Foroa) eta Pello Sasiain eta Rosa Bell Ausin (Lasarte-Oriako Foroa). Urtarrilaren 16an, bigarren mahai inguru bat egin zen "Memoria eraikiz" zikloaren barnean: Laura Pego Otero eta Gema Varona Martínez izan ziren hizlari, biak Zuzenbidean doktoreak.

2018

Urtarrilak 25. Martxan jarri zen Frankismo Garaiko Biktimen Arretarako Bulegoa, 1936 eta 1977 artean giza eskubideen bortxaketa nozitu zuten pertsonen buruzko informazioa biltzeko. Oroituz Andoainen taldea arduratuko da lan honetaz.

Otsailak 11. Maite Pagazaurtunduak, Pagazaurtundua–Garmendia familiaren izenean, *"Joxeba Pagaza: un grito de libertad. Andoain 15 años"* izeneko argitalpena bidali zion Ana Carrere Zabala alka-

teari. Berak sinatutako ohar batean, honako hau adierazi zion Udal ordezkari nagusiari: *“Eskuetan duzun kronika honek argi eta garbi jasotzen du Joseba Pagazaren familiak eta lagunak haren erailketaren ondoren nozitu zuten biktimizazio bikoitz eta krudela, terroristak babesten zituen herritar multzoak eragindakoa bereziki”*. Oharraren amaierak hauxe zioen hitzez hitz: *“Kronika honen aurrean begiak irekitzea interpelazio saihestezin bat da”*.

Otsailak 18. Iñaki Igerategi eta Inaxio Otaño espetxetik irten eta kalean ongietorria egin zitzaien, Auzitegi Nazionalak ezarri zien sei urteko zigorra bete ondoren. PPko sei kidek –Amaya Fernández EAeko PPko idazkari nagusiak eta Borja Sémpere Gipuzkoako PPko buruak, besteak beste– Joseba Pagazaurtunduaren argazkia zeramatzen kartelak erakutsi zituzten, Igerategi eta Otañoen familiak eta lagunak zeuden tokitik metro gutxitara. Lehen ongietorri honen ondoren (aurrekua dantzatu eta lore sorta bat eskaini zieten preso ohiei, *“Ongi etorri. Bi gutxiago”* zioen pankarta baten azpian), bertan bildutako pertsonak herriko elkarte batean jarraitu zuten harrera ospakizuna.

Otsailak 19. Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak iragarri zuen bi preso ohiei eginiko ongietorria ikertuko zutela. Covitek salaketa bat aurkezteko aukera aipatu zuen. PSE–EEK ezohiko udal bilkura bat eskatu zuen. Gobernu ordezkariak ongietorriari buruzko deklarazioak egin zituen. Ertzaintzak adierazi zuen ez zuela terrorismoa goratzeko deliturik ikusten. Bere aldetik, Udalak adierazi zuen lege barruan eginiko ekitaldi bat izan zela, ez zuela erakunde gisa parte hartu eta ez zela inolako apologiarik egin.

Otsailak 20. Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak adierazi zuen Ertzaintzak ez zuela ekitaldi horretan *“salatua izateko moduko inolako egintzarik”* ikusi²⁴⁸. Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak ere ez zuen bere ikerketan delitu zantzurik aurkitu.

Otsailak 22. Udalbatzak PSE–EEK aurkeztutako mozio bat onartu zuen, talde horren eta EAJ, Irabazi eta Ganemos alderdien botoekin, otsailaren 18ko ongietorriaren inguruan. EH Bilduk kontrako botoa eman zuen. Plenoan onartutako mozioa dio arbuia egiten dutela *“ekitaldiaren izaera publikoa”* eta *“ETAko kide izan diren edo helburu politikoak lortzeko indarkeria erabili edo justifikatu zuten pertsonen egiten zaizkien omenaldi publikoak. Omenaldi horiek giza eskubideen defentsaren aurkakoak dira, eta biktimak bi aldiz biktima bihurtzen dituzte”* EH Bilduk bere aldetik azpimarratu nahi du *“herritar talde batek antolatutakoa ekitaldi legal bat izan zela”* eta *“Epaitegien baimen guztiak zituenak”*. Beraz, plenora *“kondenatzera edo errefusatzera ekartzea, neurritz kanpoko delat”*.

Apirilak 14. Oroituz Andoainen taldeak gonbidatuta, Gasteizko Martxoaren 3ko Elkarrekin parte hartu zuen frankismoak herrian hildako 25 pertsonak gogoratzeko urtero egiten den ekitaldian. Lurdes Arteagak Alfaro Parkean gogoratu zuenez, *“Diputatuen Kongresuak atzera bota du 1977ko Amnistia Legea erreformatzeko proposamena, frankismoan izan ziren giza eskubideen bortxaketak ikertzeko aukera emango lukeen erreforma, hala nola Patxi Fernández, Miguel Urretabizkaia, Secundino Antón eta Boni Aldaz andoaindarren kasuak, epaitegi militarrek epaitu eta erail egin zituztenak”*, eta gaur egun oraindik Espainiako justiziak *“kriminalizat”* jotzen dituenak.



Aiarri.

248 Ser, 2018/02/20.

Apirilak 20. ETak bi adierazpen egin zituen sortutako kalteei buruz, Euskal Herriari zuzenduta. Komunikabideek jaso eta sakon aztertu zituzten adierazpen horiek egun honetan eta hurrengoetan, eta edukiari buruzko eztabaida zabaldu zen²⁴⁹.

(...) Gehiegizko sufrikarioa. ETak onartu du eta bere gain hartu du samin horretan izandako ardura zuzena, eta adierazi nahi du halakorik inoiz ez zuela gertatu behar edo ez zela denboran hainbeste luzatu behar (...) samin handia eragin dugu, konponbiderik ez duen kalte asko ere. ETaren ekintzek eragindako hildako, zauritu eta biktimei, gatazkaren ondorioz kaltetuak izan diren heinean, errespetua agertu nahi diegu. Zinez sentitzen dugu. Akatsen ondorioz edo akats izan diren erabakiak hartu izanaren ondorioz, gatazkan parte-hartze zuzenik ez zuten biktimak ere eragin ditu ETak (...) Badakigu inolako erantzukizunik ez zuten hainbat herritar kaltetzera eramán gaituela gure jardunak. Atzerabiderik ez duten kalte larriak ere eragin ditugu herritarren artean. Haiei eta haien senideei barkamena eskatzen diegu. (...) Oxala ez balitz halako ezer inoiz gertatu. Oxala askatasuna eta bakea aspaldi errotu izan balira Euskal Herrian. (...) Etorkizunari begira, berradiskidetzea da Euskal Herrian egin beharreko lanetako bat.

Maiatzak 3. ETaren desegiteari buruzko adierazpena publiko egin zen Genevako Henri Dunant Zentroaren egoitzan: “ETak Euskal Herriari, azken adierazpena”. Mezu horretan, “Erakundearen ziklo historikoa eta funtzioa amaitutzat” eman zituen ETak. Honakoak ere berretsi zituen: “ETak bere egitura guztiak erabat desegin ditu” eta “bere ekinbide politikoa bukatutzat jo du”. Hala adierazi zuen David Harlandek, Zentroaren zuzendariak: “Gaur, maiatzak 3, 14:00etan, bukatu du ETak”.

Maiatzak 4. Goizean, ETaren amaierari buruzko ekitaldi bat egin zen Kanboko Arnaga etxean, nazioarteko hainbat ordezkari bertan zirela eta komunikabideen jakin-min handiarekin. Jean Rene Etchegaray Euskal Hirigune Elkargoko presidentea eta Baionako auzapezak egin zituen anfitrioi lanak. Irati Agorria Cuevasek, Cuathemoc Cardenasek, Jonathan Powellek eta Michel Camdessussek irakurri zuten “Arnagako Adierazpena”. Idatzi horren pasarteak dira honako hauek:

Aieteko adierazpenetik hona azken zazpi urte hauetan aurrerapauso nabarmenak egon dira (...) Gai garrantzitsu batzuk oraindik konpondu gabe diraute, hala nola preso direnen edo ihesean diren pertsonen auzia; lurraldeko eguneroko bizitza zein politika osoki normalizatzeko etenik gabeko esfortzuak beharko dira. Nagusiki egiteke gelditzen dena berradiskidetze prozesua da. (...) Zauriak sakonak dira. Familiak eta komunitateak banatuta daude. Biktima guztiak bereizkeriarik gabe aitortu eta laguntzeko lan egin behar da. Honek alde guztiak iraganarekin zintzotasunez jokatzeko eskatzen du, baita zauriak sendatzeko eta komunitate partekatua berreraikitze eskuzabaltasunez jardutea ere.

la ordu berean, Mariano Rajoy Espainiako Gobernuako presidentea honela berretsi zuen: “ETA desagertu da, baina esan dudán moduan, Espainiak jarraituko du haien krimenak ikertzen, haien delituak epaitzen eta haien kondenak betearazten”; beraz, salbuespen-neurrietan ez zela aldaketarik izango gaineratu zuen. “Ez dute ezer lortuko desagertu direla iragarrita ere”, adierazi zuen, eta horixe bera berretsi zuen bere Kabineteko bozeramaileak, Iñigo Mendez de Vigok: “Gobernuak ez du aldatuko bere espetze-politika”.

249 Gara 2018/04/20, 5. or. “ETak Euskal Herriari: eragindako kalteari buruzko adierazpena” eta “Eragindako kalteari buruzko adierazpena dela-eta, ETaren argibide oharra” (2018ko apirilaren 8koak, bi-biak).

Arratsaldean, Uxue Barkos Nafarroako presidenteak eta Iñigo Urkullu EAeko lehendakariak agiri bateratu bat plazaratu zuten Bertizko Jaurrean: "Bizikidetzaren sendotzeko proposamen eta konpromiso partekatuak, ETAk behin betiko desagertu dela iragarri ondoren". Biak bat etorri ziren: ETAk ez zuen inoiz existitu behar, ETAk eragindako biktima bakar bat ere ez zen inoiz gertatu behar eta halakorik berriro ez gertatzeko oinarriak jarri behar dira. Epe laburrerako helburuen artean, bi hauek finkatu zituzten: gutxienekoen errelato partekatu bat egitea, "iraganari buruzko gogoeta kritikoa" jasoko duena, eta espetxe-politika testuinguru berrira egokitzea.

Maiatzak 7. ETAren amaieratik, PSE-EEk José Luis López de Lacalleri lehenengo omenaldia antolatu zuen, Mari Paz Artolazabal eta Alain semearen presentziarekin.

Maiatzak 16. Frantzia preso dagoen Ainhoa Ozaetaren senideen, lagunen eta lankide izandakoen prentsaurrekoa Zumea plazan, haren aldeko ekimen sail baten berri emateko; besteak beste, maiatzaren 26an egitekoa zen giza kate bat.

Maiatzak 17. Guardia Zibileko agenteek berrogeita hamar bat preso ohiren autoak, higiezinak, nominak eta beste hainbat ondasun konfiskatu zituen, "Zerga" izeneko operazioan.

Irailak 16. Hogeita bost urte lehenago ETAk hil zuen Juvenal Villafañe guardia zibilari omenaldia José Luis López de Lacalle parkean, bizilagun talde batek antolatuta.

Irailak 21. Txosten hau idatzi duen lantaldeak Udaletxean entregatu zuen lana.

10.

Iradokizunak

Puntu honetara iritsita, bide desberdinetatik heldu bagara ere, egindakoari segida emateko ideia partekatu batzuk atera behar ditugu orain. Herri bakoitzak bere bereizgarriak dauzka, eta Andoainen geureak dauzkagu. Handia da metatutako sufrimendu maila, eta zauri batzuk itxi gabe daude oraindik, baina, txikiak izan arren, urrats eta hurbilketa batzuk egin dira. Herria argi eta garbi doa aurretik, aurrerapauso handiak egin ditu bizi-kidetzaren esparruan. Eta hortik ikasi beharra dago.

Balizko irizpideak eta egin beharreko urratsak:

1. Txosten honetan nahikoa elementu dauzkagu denok batera hausnartzeko, ondorioak ateratzeko eta batera eta elkarrekin ibiltzeko bideak aurkitzeko.
2. 300 orrialde hauek irakurrita hobe ezagutuko dugu Andoainen gertatutakoa, eta horrek berekin batera ekarri beharko lituzke posizioen, norberaren erantzukizunen eta aldean "beste alde batera begiratzeen" gainbegiratze kritikoa eta autokritikoa. "Bakoitzak bereari eutsi die-zaiola", baina zutik nahi dugu kaltetutako herria, eta horretarako denon beharra dugu.
3. Tokitik egindako autokritikak benetako indarra du bizikidetzan.
4. Bizikidetzeta Mahaian eta udal taldeen artean ahalik eta adostasun maila handiena lortu behar da elkartruke eta elkarriketa prozesu bat zabaltzeko/jarraitzeko eta memoriaren eta bizikidetzaren aldeko herri ekintza publikoak abiarazteko. Saihestu egin behar dira posizio alderdikoak eta helburu hori zapuzten duten alderdien arteko tirabirak. Nazioarteko erakundeek iradokitzen duten bezala, saihestu egin behar dira besteengan ondorio negatiboa duten mezuak.
5. Beraz, alde guztiak aitortu behar dira, eta onartu egin behar da memoria partekatua eskubidea proiektuetan, prozesuetan eta ekitaldi partekatuetan, hainbat mailatan, elkarrekiko hurbilketa eta errespetua finkatzeko ahaleginaren emaitza gisa.

Biktimak

6. Ez dakigu nortzuk izan ziren David Salvador, José Díaz Pérez eta Juvenal Villafañeren hilketen egileak. Artxibatuta dago David Salvadorren kasua, ez zen ikertu eta zigorrik gabe dago. 2012an berriz ere zabaldu zuten José Díezen kasua, baina berriz ere artxibatu zuten aztarnarik ez zegoelako. Eta Juvenal Villafañeren kasua ere zigortzeke dago. Ongi legoke zortzi hildakoek, eta ez zazpik, herri mailan tratamendu instituzional berbera balute.
7. José Díaz Pérezen familia aurkitzeko dago oraindik.

8. Aipatutako hiru kasu horiei eta gainerako biktimei dagokien egia jakiteko eskubideak "gertatutako ekintzen ezagutza osoa eta erabatekoa izatea eskatzen du, haietan esku hartu zuten pertsonak eta zirkunstantzia espezifikoak, bereziki burura eramandako bortxaketak eta horien motibazioa"²⁵⁰. Egia ezagutzeko eskubidea estu lotuta dago beste eskubide batzuekin, esate baterako, errekurso eraginkor bat izateko eskubidearekin, babes juridikoa eta judiziala izateko eskubidearekin, familia bizitza edukitzeko eskubidearekin, ikerketa eraginkorra izateko eskubidearekin, auzitegi eskumendun, independente eta ez alderdikoi baten aurrean entzuna izateko eskubidearekin, erreparazioa jasotzeko eskubidearekin, torturak eta tratatu txarrak ez jasateko eskubidearekin eta informazioa eskatzeko eta zabaltzeko eskubidearekin. Egia funtsezkoa da gizakiak berezkoa duen duintasunari begira²⁵¹.
9. Gainera, aitortza anitza egin behar da, biktima subsidiarioak edo maila desberdinetako biktimak alde batera utzi gabe; hau da, lehenik hildakoak aintzat hartu behar dira, baina baita zauritutakoak, bahitutakoak, torturatutakoak, estortzioa jasandakoak, mehatxatuak, kalte-tuak eta beste batzuk ere. Horrexegatik berezi behar da Giza Eskubideen aurkako urraketan aitortza omenaldi ekitaldietatik.
10. Eta ongi asko pentsatu beharra dago nola egin guztiak duintzeko eta gogobetetzeko, zauri berriak ireki gabe. Argituzetik *El tiempo es ahora. ¿Es posible una memoria incluyente en el ámbito local?*²⁵² lanean genion honetan ere "zer" bezain garrantzitsua dela "nola" egin. Biktimak inolako diskriminaziorik egin gabe aitortzeko eta erreparatzeko prozesuaren mende egon behar dute posizio politikoek.
11. Bizikidetzat Mahaiak entzuteko prozesu bat zabaltzeko beharko luke biktima guztiarekin. Konfiantza eta elkar ezagutzea ekarriko dituzten entzute gune batzuk antolatu eta presta ditzake, edo, hala behar badu, biktima babestuago sentitzen den lekura hurbildu daiteke.
12. Enpatia handiagoa lortu beharko litzateke bizirik jarraitzen duten biktimen eta hildako biktimen familien eta Andoaingo herritarren artean erreparazio moraleko neurri sinbolikoak hartzeko garaian.
13. Gai desberdinak pendiente geratzen dira txosten hau etorkizunean osatzeko: estortzio ekonomikoa, torturen bistaratzea eta bere jazarpena heldu zen maila, biktima guztien egoera, preso gaixoen errealitatea eta bere familiengandik urruntzearena, Mordaza legearen inpaktua eta salbuespenezko beste lege batzuenak...
14. Areago argitu beharreko Jon Lizarralde kasuari dagokionez, "urrats garrantzitsua da informazioa eta/edo *habeas data* eskuratzea egia jakiteko eskubidea bermatu ahal izateko", OHCHR-ren arabera. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatarien Bulegoaren egia jakiteko eskubideari buruzko Txostenaren 52. puntuan adierazi bezala²⁵³, "egia jakiteko eskubidea

250 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatarien Bulegoaren (OHCHR ingelesezko sigletan) Txostenaren 59. puntua, egia jakiteko eskubideari buruzkoa.

251 Txosten beraren 57. puntua.

252 MARTIN BERISTAIN, Carlos (koord). 2013. Op. Cit..

253 OHCHR. Op. Cit.

erabiltzeko funtsezkoa da²⁵⁴ informazioa eskuratu ahala izatea, eta bereziki agiritegi ofizialetakoa". Azken garaietako nazioarteko praktikaren eta eskubidearen –hau da, nazioartek jurisprudentzia eta Estatuen praktika²⁵⁵– bilakaera jasotzeko xedean *Oinarrizko printzipioak eta jarraibide Multzoa*²⁵⁶ eguneratzeaz arduratzen den aditu independenteak "nabarmendu egin du agirien garrantzia", eta nabarmendu egiten da baita *Printzipioen multzoan* ere; azken horrek, gainera, informazioa lortzeko jarraibideak eskaintzen ditu²⁵⁷.

Memoria

15. *El tiempo es ahora* goiburuko txosten berean planteatzen genuen ikono antzekoak direla memoria guneak, iraganeko irakasgaiak direla jendartearentzat, gizarte mailan garrantzitsuak direla eta bizirik dauden biktimen sentipenari erantzuten diotela.
16. Jasotako testigantzetan ikus daitekeenez, saihestu egin behar da ekitaldien eta memoria guneen politizazioa, saihestu behar dira desadostasunak eta laidoak. Era beran, saihestu beharra dago "argazkia egiteko" edo posizio politikoak finkatzeko edo "itxura ona" emateko erabileraren sentipena.
17. Errazagoa da memoria kolektiboa aitortzeko ekitaldi publikoetan egikaritzea memoriari eusteko gune iraunkorretan baino, azken horietan gatazka berriak sorraraz baititzake agertu beharreko izenen inguruko eztabaidak.
18. Laburpen didaktiko gisa, dokumental bat egin liteke txosten honetan eskaintzen diren datu eta gertaera batzuekin. Era berean, erakusketa bat egin liteke material berarekin, material grafikoa eta dokumentala erantsirik; erakusketa ibiltaria izan liteke, ikastetxeetara eraman liteke eta hainbat lekutan ikusgai jarri.
19. Egokia litzateke udalerrian bertan Oroituz Andoainen taldearen lana bultzatzen jarraitzea.

Bizikidetza

20. Batzen gaituena sustatu behar da. Lekukotasunetan jaso dugun bezala, estutu beharra dago "goiko" eta "beheko" Andoainen arteko lotura, partekatu behar dira jarduerak, eta baliabide gehiagorekin hornitu behar dira bizikidetza osasuntsuaren eta anitzaren egituratzaile gisa funtzionatzen duten ekimenak.
21. Herritarren Kontseilu baten sorrera proposatzen dugu. Hogeiren bat lagunek osatuko lukete, eta Udalaren hiru mandatu izango lituzke honako gai hauei buruzko proposamenak egiteko: 1) lekurik egokiena biktima guztiak gogoratzeko eta omentzeko, betiere posizio guztiak

254 The Mexican Federal Act on Access to Information (2002), bars the withholding of documents that describe "grave violations" of human rights. The Government of Argentina has undertaken to create a National Archive for Remembrance within the Department of Human Rights, in which various partial archives and databases will be consolidated.

255 E/CN.4/Sub.2/1993/6 and E/CN.4/Sub.2/1997/20.

256 Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko giza zuzenbidearen urraketa larrien biktimek errekursoak aurkezteko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarrizko printzipioak eta jarraibideak. 60/147 Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartutako ebazpena.

257 See definition E "Archives" and Principles 14 to 18.

kontuan izanik; 2) udal instantziekin batean, dagozkien instantziei Irunberriko Arroilako kasuarekin zerikusia duten artxihoak irekitzeko eskaera egiteko eta gertatutakoaren inguruan elementu gehiago izateko; 3) Udalarekin batera, Andoainen datozen urteetan abiarazi litezkeen bizikidetza ekimenei buruzko prozesu parte hartzailea sustatzeko.

22. Kontseilu horretako kideak ausaz aukeratu litezke, edo lehiaketa bidez, edo Bizikidetza Mahaiak adostutako eran. Gizon bezainbeste emakume eduki beharko lituzke, eta ideologiaz zein adinaz anitza beharko luke izan. Adostasunak eta bat ez etortzeak kontuan hartuko lituzketen lan taldeetan antolatu liteke, eta pertsona bat izendatuko litzateke eztabaidak bideratzeko eta ondorioetara iristeko.

11.

Bibliografia eta iturriak

Ahozko iturriak

25 elkarrizketa 28 pertsoneri eta, beste kasu batean, galdeketa igorri da: Mari Karmen, Imanol eta Isidro Ansa Etxeberria (eta Luisa Cueli Zabala, koinata), Agustín Alberro Irizar, Estanis Amuchastegui Arregui, Nerea Amuchastegui Díaz, Antonio Amondarain Aizpurua, Mikel Arregi Aranburu, Mari Paz Artolazabal Ibarondo, José Antonio Barandiaran Ezama, Manuel Correas Díaz, Elías Díaz Arriba, Pedro Elustondo Zalakain, Mila Garralda Arin, Asun Guerra Alonso, Bakartxo Iguaran Garmendia, Patxi Irígoras Etxebeste, Maider Lainez Lazcoz, Xabier Lekuona Barreras, Ixiar Lizarralde Urreta, Maite Pagazaurtundua Ruiz, Miren Mujika Tolaretxipi, Zuriñe Olaitz Ortigosa, Karmele Otaegi Negredo, Inés Rodríguez Ranz, Petri Romero Pozo, José Luis Vela Arburua eta Ainhoa Zabala Lasarte.

21 bilera eta kontraste honako hauekin: Ramón Ansa Zinkunegi, Xabier Arberas Ezama, Antonio Arin Pagoaga, Haizea Baltasar Arregi, Ana Carrere Zabala, Luis Jorge Fernández Mourinho, Daniel García de la Calle, Xabier García García, Juan Miguel Goiburu Mendizabal, Olga Hernández Montero, Chema Herzog de Bustos, Ildfonso Iriarte Otermin, Mari Jose Izagirre Iturzaeta, Xabier Lasabergara, Jesús M^a Olazabal Iñurrita, Iñaki Otamendi Gutiérrez, Mikel Salvador Sarasola, Marta Truxuelo García, Ramón Urrutia Galarraga, Blanca Villafañe Campo eta Jon Zulueta Berastegi.

Iturri dokumentalak:

- Lazkaoko Artxiboa / Lazkaoko Beditarren Fundazioa. Dokumentazio gunea.
- Euskal Herriko Gesto Por la Paz koordinakundearen artxibo–legatua. www.gesto.org
- Arovite–ren datu basea. Euskadiko indarkeria terroristari buruzko online artxiboa.
- Argituz giza eskubideen aldeko elkartearen datu basea.
- Euskal Memoria Fundazioaren datu basea.
- Fernando Buesa Fundazioaren online dokumentazio eta ikerketa zentroa. Gasteiz.
- Adoingo Udalaren webgunea. *Leyçaur* – Ikerketa Historikoen Aldizkaria. Kontsultatutako zenbakiak: 5, 6, 10, 11, 12 eta 14.

Hemeroteka:

- Honako hauetako hemeroteka: *Aiurri*, *El Diario Vasco*, *El País*, *La Vanguardia*, *ABC*, *El Mundo* eta *Berria*, *Egin* eta *Gara* egunkarien urtekariak.

Bibliografia:

- AGIRRE AGIRRE, Joxean (koord., 2010). *Gernikako seme-alabak. Euskal Herria 1960–2010*. Andoain: Euskal Memoria Fundazioa.
- AGIRRE DORRONSORO, Lorea. www.berria.eus/ 2017–11–16
- ALONSO, Rogelio; DOMINGUEZ, Florencio eta GARCIA REY, Marcos (2010). *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*. Madril: Espasa.
- AMIGO, Ángel (1978). *Pertur. ETA 71–76*. Donostia: Hordago SA. Lur argitaletxea.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL (2018). *Informe 2017/18. La situación de los Derechos Humanos en el mundo*.
- ARACIL, Rafael; OLIVER, Joan; SEGURA, Antoni (1998). *El mundo actual. De la Segunda Guerra Mundial a nuestros días*. Bartzelona: Ediciones Universitat de Barcelona.
- ARGITUZ (2011). Biktima guztiekiko errespetuzkoa izango den politika publiko bateranzko bide luzea. Motibazio politikoko indarkeriaren biktimen inguruko politika publikoen baloraziorako txostena. www.argituz.org
- ARGITUZ (2015). Memoria partekatu baterantz. Errenterian 1956tik 2012ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena. Errenteriako Udala. <http://www.errenteria.net/es/html/9/6557.shtml>
- ARGITUZ (2017). Memoria partekatu baterantz. Lasarte–Orian 1956tik 2016ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena. Lasarte–Oriako Udala: http://administrazioa.lasarte-oria.eus/eu/ficheros/24_16588eu.pdf
- ARGITUZ (2017). Memoria partekatu baterantz. Elgoibarren 1956tik 2016ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena. Elgoibarko Udala. <https://elgoibar.eus/index.php/148–banner/3200–herritarren–ekarpenak>
- ARRIETA URTIZBEREA, Iñaki (2016). *Lugares de memoria traumática*. UPV–EHU.
- BABY, Sophie (2018). *El mito de la transición pacífica. Violencia y política en España (1975–1982)*. Madrid: Akal.
- BARRUSO BARÉS, Pedro (2017). “Guerra civil y Franquismo en Andoain (1936–1975)– *Gerra Zibila eta Frankismoa Andoainen (1936–1975)*”. In *Leyçaur* 14. zk. Andoaingo Udala.
- BIZKARRALEGORRA OTAZUA, Elisabete (2017). *Ser Basque Izan. La resistencia vasca no violenta en el franquismo (1957–1977)*. 1 eta 2. tomoak. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- BOLETÍN DE NOTICIAS DEL PAÍS VASCO. Abokatu talde batek 1975eko salbuespen egoeran zehar argitaraturiko argitalpen klandestinoak. Bilbo.
- BALORAZIO BATZORDEA, Euskal Autonomia Erkidegoan 1960–1978 artean arrazoi politikoekin loturiko indarkeria testuinguru batean gertaturiko giza eskubideen urraketen eta bestelako bidegabeko sufri-menduen biktimei buruzkoa. *Saliendo del Olvido* txostena. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, 2017.
- CARMENA Manuela, LANDA Jon Mirena, MUGICA Ramon eta URIARTE Juan Mari (2013). *Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarritzko txostena (1960–2013)*. Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak eskatuta.
- DEADAR Dossiera (1976), alderdi politiko guztiek eta Andoaingo Udalak sinatua, Karmele Otaegi Negrédoren *La Transición en Andoain desde la perspectiva de la izquierda* lanaren dokumentu gehigarrian bildua, *Leyçaur* 5. zk., Andoaingo Udala.

- ESCUDERO ALDAY, Rafael (koord., 2011). *Diccionario de memoria histórica. Conceptos contra el olvido*. Madrid: Los libros de la Catarata.
- ETXEBERRIA, Francisco; PEGO, Laura eta MARTIN BERISTAIN, Carlos (2017). *Proyecto de investigación de la tortura en el País Vasco (1960–2014)*. IVAC–KREI. EHUko Kriminologiaren Euskal Institutua. Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak eskatuta.
- EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA (EGK) / Consejo de la Juventud de Euskadi (2017). ‘Gazteak eta Bakea. Iraganari buruzko hausnarketak, orainaldiko aukerak, etorkizuneko erronkak’ <http://egk.eus/eu/bakea-hiru-urteetan-egindako-lanaren/>
- EUSKAL HERRIKO GESTO POR LA PAZ en KOORDINAKUNDEA (2011). *Las víctimas indebidas del Estado en la lucha antiterrorista*. www.gesto.org
- EUSKAL MEMORIA FUNDAZIOA (2014). Hainbat egile. *Deklaratu gabeko gerra*. Andoain: Aise Liburuak.
- FONSECA, Carlos (2014). *Informe sobre la situación procesal de los atentados perpetrados por organizaciones terroristas con resultado de muerte entre 1960 y 2014. Caso vasco*. Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak eskatuta.
- GIZA ESKUBIDE, BIZIKIDETZA ETA LANKIDETZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA (2014). *Memoriaren Mapa amaituz. Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimak oroitzeko eta aitortzeko jarduerak udal-esparruan garatzeko iradokizunak*. Eusko Jaurlaritza.
- GIZA ESKUBIDE, BIZIKIDETZA ETA LANKIDETZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA (2015). *Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, 1960–2010 : Andoain*. Eusko Jaurlaritza.
- GIZA ESKUBIDE ETA BAKE HEZKUNTZAREN ELKARTEEN FOROA (2011). *Municipios por la convivencia. Orientaciones éticas para la acción municipal en el País Vasco*. Bilbo.
- GOIKOETXEA SORONDO, José Ramón “Ardotxi” (2006). *Mentxakaren aitortpena*. Testuen edizioa eta itzulpena: Rafa Egiguren. Donostia: Elkar.
- GONZALEZ FERNANDEZ, Fátima eta MARTINEZ LASA, Mónica. *Andoaingo Algodonera, bertako langileak eta emakumeen ezaugarriak 1857–1965*. Andoaingo Udala.
- GURRUCHAGA ABAD, Ander (1985). *El código nacionalista vasco durante el franquismo*. Anthropos. Conciencia y libertad bilduma.
- HALBWACHS, Maurice (2004). *Los Marcos sociales de la memoria*. Bartzelona: Anthropos.
- HIDALGO GARCIA DE ORELLAN, Sara (2018). *Los resistentes. Relato socialista sobre la violencia de ETA (1984–2011)*. Catarata / Ramon Rubial Fundazioa.
- INTXAURBE VITORICA, Jose Ramon; RUIZ VIEYTEZ, Eduardo J. eta URRUTIA ASUA, Gorka (2016ko martxoa). *ETAk mehatxatutako pertsonen jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990–2011)*. Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak eskatuta.
- INTXAURBE VITORICA, Jose Ramon; RUIZ VIEYTEZ, Eduardo J. eta URRUTIA ASUA, Gorka (2016ko maiatza). *Ertzainek eta haien familiek ETArekin mehatxuaren ondorioz jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990–2011)*. Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak eskatuta.
- LANDA, Jon Mirena (2008). *Indarkeria politikoaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketen biktimak*. Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritza. Vitoria–Gasteiz.
- LASA BERGARA, Xabier (2006). *Ahozko historia: Oroimenean lokartutako ahotsa. Gerra zibilaren (1936–1939) eragina Gipuzkoako herri bateko bizitza sozialean. Andoain, askatasunaren alde eta frankismoaren aurka borrokatu zutenak oroitu. Oroitu Andoainen*.

- LOPEZ ROMO, Raúl (2014). *Informe Foronda. Los contextos históricos del terrorismo en el País Vasco y la consideración social de sus víctimas. 1968–2010*. EHUko Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutuak argitaratua, Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Sustapenerako Zuzendaritzak eskatuta.
- MARTIN BERISTAIN, Carlos (koord., 2012). *Orain da garaia. Posible al da esparru lokalean biktimen oroimen bateratzailea?* Argituz, Giza Eskubideen aldeko elkarte, Vitoria–Gasteiz.
- MÍNGUEZ ALCAIDE, Xavier (2015). “Hacia una memoria incluyente para la paz en el País Vasco”. UPV. *Política y Sociedad*. 52. lib., 1. zk.
- NUÑEZ, Luis (koord., 1993) *Euskal Herria y la libertad*. Zortzi tomo. Tafalla: Txalaparta.
- OSSE, Anneke (2007). *Entender la labor policial. Recursos para activistas de derechos humanos*. Amnesty International Nederland / EDAI. Hemen duzu eskura, Nazioarteko Amnistiaren web orrian: <http://amnistiainternacional.org/publicaciones/51-entender-la-labor-policial-recursos-para-activistas-de-derechos-humanos.html>
- OTAEGI NEGREDO, Karmele (1998). *La Transición en Andoain desde la perspectiva de la izquierda*. *Leyçaur*, 5. zk., Andoaingo Udala.
- PAGAZAURTUNDUA–GARMENDIA Familia (2018). *Joxeba Pagaza: un grito de libertad. Andoain 15 años*. 40 orriko txostena.
- PLACENCIA MENDIA, Víctor (2012). *Sociedad anónima de Placencia de las Armas. SAPA. Trayectoria histórica de una empresa (1935–1985)*. *Leyçaur*, 12. zk., Andoaingo Udala.
- RODRÍGUEZ, M. eta URRUTIA, Peio (1996). *Andoain: Postfranquismo y transición. Las elecciones legislativas de 1977 y 1979*. *Leyçaur*, 4. zk., Andoaingo Udala.
- SAEZ DE LA FUENTE ALDAMA, Izaskun (ed.); PRIETO MENDEZA, Jesús, BILBAO ALBERDI, Galo eta ETXEBERRIA MAULEON, Xabier (2017). *Misivas del Terror. Análisis ético-político de la extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial*. Deustuko unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroa.
- SÁNCHEZ, Manuel eta SIMÓN, Manuela (2017). *Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA*. 1 eta 2 liburukiak.artzelona: Península.
- SARAVIA BELLES, Mauro eta MONGE SARABIA, Julia (2017). *Emeek emana*. Erakusketaren testua. Intxorta 1937 Kultur Elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.
- SILVA, Lorenzo. SANCHEZ, Manuel. ARALUCE, Gonzalo (2017). *Sangre, sudor y paz. La Guardia Civil contra ETA*.artzelona: Península.
- UGARTE GASTAMINZA, Josu, koord. (2018). *La bolsa y la vida. La extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial*. Madril: La Esfera de los Libros.
- URRUTIA OCHOA, Peio (2008). *XXV años de paz y cinco mil días de paciencia (Andoain 1952–1965)*. In *Leyçaur*, 10. zk., Andoaingo Udala.
- URRUTIA OCHOA, Peio (2010). *Doce mil tres: Apuntes para el final de una década (Andoain, 1966–1970)*. In *Leyçaur*, 11. zk. Andoaingo Udala.
- VARONA MARTINEZ, Gema (2015). DE LA CUESTA ARZAMENDI, José Luis, MAYORDOMO RODRIGO, Virginia, OLALDE ALTAREJOS, Alberto. *El derecho a la memoria de las víctimas del terrorismo*. IVAC–KREI, Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak eskatuta.
- VASCO PRESS. “Crónica nº 1.176 de documentación y actualidad” de 30/08/2004. Txosten monografikoa, 2004ko otsailera arte “ETAk eginiko atentatu guztiak” biltzen dituen, ETAREN *Zutabe 79n* argitaratuak.
- VINYES, Ricard (ed., 2009). *El Estado y la memoria: Gobiernos y ciudadanos frente a los traumas de la historia*. Barcelona: RBA.